

LATIEGI'tar BIXENTE
(Euskerazaintzakoa)

**APOSTOLUEN
ETA MARTIRIEN
DENBORAKO ELIZA**

(30'garren urtetik 323'garren urtera)

ELIZ-EDESTI-SORTA

Idatzi ditudan liburuetan beti ipiñi izan dut nere norabidea.
Ona, irakurle, zerbait idatzi nai ba'didazu, zure eskutitza nora bidali:

INSTITUTO POLITECNICO DIOCESANO.

Nieves Cano kalea.

GAZTEIZ.

Ta, nerekin itzegin nai ba'duzu, auxe duzu nere urrutizkiñaren zenbakia:
(945) 13 22 11

Zure dei eta eskutitz oiek gogorik onenaz artuak izango dirala, ez dut noski esan
bearrik izango.

Anitz esker, aurretik, dei ta eskutitz oien truke.

Latiegi'tar Bixente

VVilsen Editorial
La Fuente, 2
31282 ACEDO (Navarra)

I.S.B.N. 84-85918- 71-1

Imprime: Wilsen Editorial
31282 ACEDO (Navarra)

Latiegi Oronoz Elostá Sorabilla'tar Josefrantzisko
aita zanaren
eta
Eraso Igerabide Muñagorri Goikoetxea'tar Benite
ama zanaren
oroiz
eta
omenez.

Oarra:

Liburu onek, azkeneko orrietan, iztegi bat badu.

LIBURU ONTAN JORRATZEN DIRAN GAIAK

ITZAURREA	13
Eliza Misteriozko Izakia.	
Bibliografia.	
Adiskide Batzuen Iritziak;	
(Lekuona Zaarra, Arrinda, Baztarrika).	
LENEN MENDEKO ELIZA	19
Aldien Urratsak: Kronologia.	
Palestina'ko Agintariak:	
(Errege Asmonetarrak. Erodes Aundia. Erodes Arkelao.	
Erodes Antipas. I Erodes Agripa. II Erodes Agripa).	
Albiste-Iturriak.	
(Luka Donea. Flabio Josefo. Alexandri'ko Filon.	
Plinio Zaarra. Apokrifoa).	
PALESTINA ZARREKO GIZARTEA	39
(Erodestarrak. Saduzaitarrak. Farisaitarrak.	
«Zelatariak». Esenitarrak).	
ELIZAREN SORKUNTZA	45
Elizaren Sortzaillea.	
Pentekoste. Lenengo Aitasantuaren Lenengo Itzaldia.	
Lenen Elizaren Santutasuna, eta Elizaren Pekatuak.	
Eliza Azitzen.	
Lenengo Aitasantua eta Potikagintzarako Arau Nagusia	
Palestina'n Zigorketa. Martiriak.	
Paul Donea. Lenen Jentillak Elizan.	
ELIZA BERE NORTASUNAREN BILLA	71
Judu-Kristautasuna	
Jerusalengo «Kontzilioa».	
(Erdaintza. «Idolotitoak». Izorraketa Sagaratua).	
JUDU-KRISTAUEN ELIZA	85
ELIZA MUNDURA	97
Erroma'ko Inperatoreak.	
(Zesaraugusto. Tiberio. Kaligula. Klaudio. Neron).	
ERROMA'REN INPERIOTZA-AROKO GIROA	107
Sasijainkokeria. Esklabutza. Txiro ta Gaixoenganako	
Ankerkeria. Jaloberrien Erailketa. Jai-Tokietako	

Borroka Eriogarriak. Emakumezkoen Egoera
Negargarria. Gizarteko Lizunkeria.

ELIZA, ERAKUNDE	113
Gotzaiak.	
Presbitero edo Bereterrak.	
Diakonoak.	
Kirismadunak,	
LENEN-ELIZAKO LITURGIA	1 17
ZIGOR-AROAREN ASIERA	121
Martirien Aurka Erabilitako Zigorkerak.	
Erroma Sutan, Kristauak ere Sutan.	
Neron'en ankerkeria.	
Suetonio eta Tazito Edestilarien Aitorpena.	
Kepa, Erroman Erailla, eta Batikan Auzoan Obiratua.	
Paul'en Erailketa.	
Kepa eta Paul Doneetaz Gaiñera, Martiriak, Zenbat?	
Iru Inperatore Urte betean eraillak.	
Bespasiano Inperatore.	
JERUSALEN EZEREZTUA	128
Tito Inperatore.	
Domizian Inperatore.	
Elizaren Aurka, Bigarren Zigorketa.	
Zigorketa Onen Zergaitia	
Martiriak.	
Neronen Itzulketari-Buruzko Kondaira.	
Nerba Inperatore.	
I MENDEKO ELIZARI AZKEN-BEGIRATZE LABURRA	137
II MENDEKO ELIZA	141
ALDIEN URRATSAK	143
Nolakoa Zan Eliz Gazte Ura.	
Birjintasuna.	
Apaizen Ezkontza.	
Eliza Odoletan Berriro.	
Juduen Bigarren Iraultza.	
Plinio Gaztearen eskutitza ta Trajano'ren erantzuna.	
Erroma'k Eliza Zergaitik Zigortzen Zuan.	
Ortarako Izan Zezazkean Arrazoi Guztiak.	

GARAI ARTAKO FILOSOFI-ERAK	171
Zinik-Era. Pitagoritasuna. Platon. Epikuro. Estoitasuna. Platontasun Berria. Aristotele.	
ADRIAN INPERATOREA ETA LENEGO APOLOGILARIAK.	181
Adriano Inperatore. Palestina'ko Gudua. Gudu Aren Ondorio Luzeak. Adrian'en Izaera. Adrian eta Eliza. Apologia. Lenen Apologilariak. II Mendearen Lenen Aroko Aitasantuak. Antonino Pio Inperatore.	
AITA APOSTOLUTARRAK	191
I Klemente. Inazio antiokiarra. Esmirna'ko Polikarpo. Papias. Ermas eta bere •Artzaia• Polikarpo. Papias. Ermas.	
JAKINTSUAK ELIZAREN AURKA	195
Frontonio. Kreszenzio. Samosata'ko Luzian. Zelso. Mar-Aurelio.	
II MENDEAREN ERDIKO APOLOGILARI AUNDIAK	203
Justin Donea. Tazian. Atenas'ko Atenagoras. Antioki'ko Teofilo. Minuzio Felis. Sardes'ko Meliton. Kommodo Inperatorea ta Eliza. Urte Aietako Aitasantuak: I Pio. I Bitor eta Pazkoegunari-Buruzko Arazoa.	
SINISPIDE OKERRAK	215
Erejia. Aurreneko bederatzi erejiak. Gnosikeria.	
EREJIAN AURKA	225
Ireneo Donea. Erroma'ko Inperiotzaren Egoera. Septimio Sebero Inperatore. Millurtekeria. Septimio Sebero'k, zergaitik kristauak zigortu?	

KRISTAUTASUNA INPERIO-LURRETIK-AT	235
Paul ez Gaiñeko Beste Apostoluen Ibillera.	
Kepa.	
Tomas Indietan?.	
Bartolome, Judas Tadeo, Jakoba Biak.	
Aurreneko Laterri Kristaua: Osroene.	
Osroene'ko Eliza. Bere Garrantzia.	
III MENDEKO ELIZA	243
Aldien Urratsak	
III MENDEKO GIROA	247
Pake-Aro; Zigor-Aro	
Monarkikeria. Sabelio.	
Zeferin Aitasantu.	
I Kalisto'ren Aitasantutza Zailla.	
Ipolito Donea Sasiaitasantu.	
Lau Ereji:	
Gizakumeon Animak, Gurasoen Animengandik Sortuak;	
Josu, Soilki, Aita'k Jainkotzat Artua;	
Melkisedek Kristo'ren Gaindik;	
Logos'a Aitaren Indarra — •Dinamos» — Besterik Ez,	
Manikeria.	
MENDE ONEN ERDIALDEKO INPERATOREAK	261
Karakalla, kristauen lagun?	
Makrino. Eliza Pakean.	
Elegabalo. Baal sasijainko kanaandarraren gurtzaille.	
Alexander Sebero, Eliza Pakean Zabaltzen.	
Maximino Traziarra Eliz-Zigortzaille.	
Pupien, Balbin, III Grazian. Agintaritza Laburrekoak.	
Felipe Arabitarra Inperatore. Kristaua ote?	
ELIZAREN TEOLOGI-ESKOLAK	269
Alexandri'ko Eskola.	
Klemente Alexandritarra. Lenen Teologilaria	
Origenes. Jakintsua eta Martiria.	
Origenes Biblilari, Teologilari, Apologilari.	
Origenes, erejea?	
Antioki'ko Eskola.	
Zesarea'ko Eskola.	
Edesa Osroendarreko Eskola.	
Sarkaldeko Idazle Kristauak.	
Elizaren Latîña, izkera bereizia.	

Ipolito, Gogorkerizalea eta Sasiaitasantua.
 Nobazian Idazle Yayoa, Erejea, ta Sasiaitasantua,
 Eta Martiria!
 Tertulian Mende Ontako Idazlerik Onena, ta Erejea.
 Zipriano. Erroma'rekingo bere eztabaidak.

BERRIRO ZIGORRA	289
Dezio Inperatore. «Libellatici» edo •Txarteldunak..	
Martiriak.	
«Lapsi» edo «erorien- barkapenari-buruz istilluak.	
Ostilian, Galo, Emilian, Inperatore. Eliza Pakean.	
Balerian Inperatore. Berriro, Zigorra.	
Galien Inperatore. Pakean Eliza.	
Aurelian Inperatore. Pakean Eliza.	
ELIZA MENDE ONEN AZKENEAN	299
Filosofilariak ostera Elizaren Aurka	
Porfirio.	
SAKRAMENTUAK IRU LENEN MENDEETAN	305
Bataioa. Umeen Bataioa.	
Aitortza	
Penitentziaren Gogortasuna.	
Gogortasun Ori, Betikoa? Toki Guztietakoa?	
Eukaristia.	
Katakunbak.	
ELIZAREN JERARKIA	321
Aurrena Presbitero edo Bereter Guztiak Gotzai.	
Noiz ta Nola Gelditu Ziran Apaiz Utsetan?	
Diakonoak. Karismatuak.	
BIGARREN LATERRI KRISTAUA: ARMENI	326
Armeni'ko Eliz Gaztearen Edestia.	
AZKENEKO ZIGORRALDIA	333
Dioklezian. Bere Politika.	
.Tetrarkia- edo -Agintaritza Laukoia-.	
Elizaren Aurka Dioklezian'ek Emandako Legeak.	
Tretrakiko Agintari Bakoitzaren jardunkera.	
Martiriak.	
Tetrarki Berria. Laterkide Arteko Gudua.	
Kostantin Galietan Inperatore.	

Milbi-Zubiko Borrokan Kostantin Garaille.
Galerio Inperatoreak Erabaki Garrantzitsua:
Kristautasuna, Legezko erlijioa. Eliza Yare!
Erromateko Zigor-Aro Osoan Martiriak zenbat?

ITZAURREA

ELIZA, MISTERIOZKO IZAKIA Eliza, misteriozko izaki arrigarri bat da kristautentzat. Katolikoak izan edo katolikoak izan ez, kristau guztientzat, Eliza misterio aundi bat da: egi sinesbearra; Dogma.

Orregaitik ainzuzen •sinisten dut Eliza Katolikoak» Apostoluen Kredoak diosku. Ta, Kredo ori, apostoluek beraiek egiña ez ba'da ere, apostoluek il ziran denborakoa da.

Eliza sortu zan arotik jakin du beraz kristauak, Eliza, bere Eliza, misteriozko izaki bat dala: Dogma: Sinistu egin bear dan egi bat.

•Sinisten dut Eliza, bat, santua, katolikoak, apostoluen», esanerazten digu IV mendez gero Nizea'ko kontzilioak, Apostoluen Kredo zaar ura borobilduz.

Sinistu egin bear dugun gauza miresgarria, Eliza!

Orrek zer esan nai duan?

Elizaren zertasuna, bere izaera sakon jainkotiarrak, eta bere izadiz gaindiko bizitza, gure giza-adimen utsez, Jainkoagandiko argirik gabe, ulertu ez dezakegun gauzak dirala. Burua, Kristo; Anima, Gogo Deuna; Biziajainkoagandiko Grazia, eta kristau guztiak gorpuzkide..., izadizgaindiko zerbait dugu gure Eliza Santua: Kristo'ren Mistika-Gorputza.

Eta, izkutuki oiek, jakiña, ez daitezke mundu ontan begiz ikusi, ezta giza-adimen utsez ezagutu.

Sinisten dut Eliza!

Izaki goitar ori, ordea, mundu ontan bizi dan erakunde bat ere bada. Eta ori bai, Erakunde ori, begiz ikusi eta gure giza-adimenez ezagutu dezakegun gauza da. Ezagunak ditugu bere jarraileak, bere agintariak, bere legeak, eta, baita, edestia-zear erabilli dituan bideak.

Ta, ori da ainzuzen liburu auen bidez nik egin nai dedana: Erakunde Zerutiar orrek mundu ontan ia bi milla urteko epe luzean izan duan biziera aztertu. Elizaren edestia kontatu.

Lan ori ordea eginkizun luzea ta zailla dalarik, izan nuan bukatzeko gai izango ez ote nintzalako bildurra, eta gaur-egungo gizakumeentzat, Elizaren edestiko zatirik interesgarriena azkeneko bosteun urteei dagokiena dalako, amabosgarren mendearen erditik, Birjaiotza sortu zan arotik, asi nuan nere idazketa, On Jose Zunzunegi edestilari ondo ezagunak eman zidan aolkua jarraituz.

Baditut lau liburu argitaratuak:

Aurrenekoak •SAN IÑAZIOREN DENBORAKO ELIZA» deritza, eta 1447'garren urtetik 1623'garren urteraiñoko tarte luzean, Birjaiotza edo «Renazimentu» esan oi zaion aroa betetzen du. (Liburu onen lenen zirriborroak irakurtzeko On Jose Zunzunegi'k il aurretik izan zuan beta).

Bigarrenak, •DENBORA BERRIETAKO ELIZA» izen-darama, eta 1623'tik 1814'era, Argikuntza, gazteleraz •Ilustración. esaten zaion aroa du gaitzat.

Irugarrenak, »DEMOKRAZIAREN DENBORAKO ELIZA»k, 1814'tik 1914'ra

bitartean Elizak XIX mendea-zear demokrazi liberalarekin eta sozialismo iraultzaillearekin izandako arazoak aurkezten ditu.

Laugarrena, -GURE DENBORA AUETAKO ELIZA» izendatua, 1914'ean Lenen Ludi-Gudua asi zanetik 1978'an I Jon Paul il zan arte zabaltzen da. Epe zaratatsua ikertzen dualako, badu bere orrietan gai kilikagarririk ugari: Lenen Ludi-Gudua, Lenin, Errusi'ko iraultza, komunismoa, Maurras, Salazar, Mussolini, Hitler, Españi'ko II Errepublikak, Franko eta Españi'ko gudua, Bigarren Ludi-Gudua, Alemani'ko juduen erailketa... Eta XV Benedikto, XI Pio, XII Pio, XXIII Jon eta VI Paul Aitasantuen ekintza.

Bosgarrena, orain eskuetan daukazun au da: APOSTOLUEN ETA MARTIRIEN DENBORAKO ELIZA, eta, onek, Elizaren sorkuntza eta zabalkundea, Elizak erromatekoan jasan bear izan zuan zigor-aro luze gogorra, eta azkenean bere garaitzaren egunsentia ikertu nai ditu. Iru mende luzeen epea du azterketagaia: I mendearen asieratik, IV mendean Elizaren aurkako zigorketa amaitu zan arte. Urrengo nere liburuak, seigarrenak, Inperio Kristaua izango du bere gaia (323-476). Zazpigarrenak, Goi-Erdi-Aroa (476-1099), eta, zortzigarrenak, Bee-Erdi-Aroa (1099-1453).

•**•

Ona, liburu berri onen mamia oretzeko, zer iturrietatik artu dedan ura, lengo lau liburuen itzaurreetan aipatutakoetaz gaiñera:

- -The Early Church». Henry Chadwick, edestilari inglandar ospetsuak idatzia. Nik, Maria Helena Albarran de Carvalho'k portugaleraz egindako itzulpena erabili dut: Igreja Primitiva».

- des Aptres et des Martirs.. Akademi frantziarreko Daniel-Rops idazle atsegin ezagunak idatzia. Liburu au bere Eliz-Edesti-Bildumaren aurrenekoa da.

- Evangelista Villanova: -Historia de la Teologia Antigua».

- I. Ortiz de Urbina: -Nicea y Constantinopla». Paris'en 1963'an frantzeraz, eta gaztelerazko bere lenen idazkera Gazteizen 1969'an argitaratua. Josu-Lagundiko Gervasio Dumeige'ren zuzendaritza pean Kontzilio Ekumeniarren edestia izango danaren lenen liburua da.

- Gerhard Theissen: Nik gaztelerazko Itzulpena izan dut eskuetan: -Estudios de Sociologia del Cristianismo Primitivo.. Francisco Ruiz eta Senth Vidal'en itzulpena

- Kerexeta'tarJaime. -Eliz-Guraso Apostolikoak». Liburu bikaiña, Bizkai'ko euskera jatorrez.

- Placido Intxaurreaga: -Lecciones de Apologética. La Revelación Cristiana».

- Griffe. •Les Persecutions Contre Les Chrétiens aux I et II sicles». Xeetasun asko dakarren liburua.

- Gregorio MaraMn: •Tiberio». Atsegin aundiz iraku rriko duzun liburua.

- C. Plinius Secundus, (Plinio Gaztea): •Litterae».

- Suetonius: «Vitae Doudecim Caesarum».
- Tacitus: «Annales».
- Denzinger-Schi5nmetzer: «Enchiridion Symbolorum Definitionum et Declarationum». Gaztelerazko itzulpen bat bada, Daniel Ruiz Bueno'k egiña. Izen au darama: «El Magisterio de la Iglesia».
- Jean Danidou. Berea du, L.- J. Rogier, R. Aubert, eta M. D. Knowles edestilarien zuzendaritzapean argitaratutako «Nouvelle Histoire de L'glise»ko lenen liburuan, Diokeziano'ren zigorketa-aurreko Elizaren edesti osoa.
- M.Schmaus, A. Grilmeier eta L. Scheffczyk. «Historia de los Dogmas.. Bost liburu. B.A.0 izeneko sortak gazteleraz argitaratuak.
- «Catholicisme Hier, Aujord'hui, Demain. Encyclopédie publiée sous le patronage de l'Institut Catholique de Lille». Egilleak, G. Mathon, G.H. Baudry, P. Guilly, eta E. Thierry, ditu. Oso iztegi ederra ta egokia da. 1948'an argitaratu zuten lenengo liburua. Beste amaika bete dituzte eta oraindik «R» izkiraiño bakarrik iritxi dira.
- «Encyclopaedia Judaica». 16 liburu. Jerusalem'en 1971'tik 1972'ra argitaratuak.
- «Enciclopedia Judffica Castellana». Ez bestea bezain ona. 10 liburu ditu. Mexikon 1948'tik 1961'era argitaratuak.
- «Dictionnaire de Ascdique, et Mystique. Doctrine et Histoire». Zuzendari, M. Viller. 1936'ean asi ziran, 12 liburu atera dituzte, eta oraindik «Sa^yonarola» itzaraiño bakarrik iritxi dira. Lenen maillako lana da.
- «Dizionario Patristico e di Antichita Cristiana». A. di Bernardino zuzendari duala, «Institutum Patristicum Agustinianum»ek, eratua. Bi liburu. 1984'ean Erroman argitaratuak.
- «Dictionnaire des Symbols». Zuzendariak, J. Chevalier eta A. Gheerbrant. Lau liburu. 1969'an argitaratuak. Bada, M. Silvar eta A. Rodriguez'ek 1985'ean egiña, gaztelerazko itzulpen bat.
- «Dizionario Enciclopedico di Spiritualità». Iru liburu, 1983'tik 1984'era argitaratuak. Zuzendaria, Ermanno Ancilli. Joan Llopis'ek egindako gaztelerazko itzulpen bat bada.
- «Dizionario dei Concili». Bost liburu, oraiñarte argitaratuak. «Tymayiense» itzaraiño iritxi dira. Zuzendari, P. Palazzini.
- Bibliotheca Sanctorum. Amabi liburu aundi. Erroman Unibersitate Laterandarreko Jon Erakundeak» argitaratua.

ADISKIDE BATZUEN IRITZIAK Ez dut, oraindik nere liburu auen aurkako iritzirik jaso. Iñork samiñik eman nai izan ez didalako, bearbada.

Deiak, bai. Izan ditut urrutizkiñez dei bat baiño geiago nere liburu auetako ataltxoren bati-buruz zerbait galdetuz.

Adiskideengandik jasotako eskutitzen artean, Lekuona'tar Imanol Zarrak, urte batzuk dirala egin zidan bat atera nai dut gaur emen, nere paperen

artean galdurik egona da ba luzaro. Danon irakasle nagusia izandako Lekuona Zarraren iritzia balio aundikoa bait da guretzat.

Bere beste gutun bat -San Iriazio'ren Denborako Elizaren itzaurrean agertu nuan.

Liburu ura argitaratzerakoan ezin izan nuan beste bigarren au idoro. Orain agertu zait, nere liburu auek idazten jarraitzeko jasorik dauzkadan fitxa edo lantxartel ugarien artean.

Aurreneko eskutitz ura, 1976'koa zan. Bigarren onek urtegarrena erdiezabatua eta irakurri ez daitekean eran dauka, baiñan urrengo urtekoa izan bear du: 1977'koa. Eta Jorraillaren 18'koa, eguna eta illa bai, oiek beintzat argi ta zeatz bait dauzka. Ikus gutun onen mamia:

•Bixente adiskidea: Berriz ere mesede-eske ni. Emaizkiozu kuartilla auek Koldo'ri. Lenago eman nizkizunen jarraipena dira.

-Nola dijoa zure Elizaren Historia?

Jarrai txintxo-txintxo. Jarrai zure gisara, zure estilora, nik irakurritako kapitulo aiek euskera goxoa eta errezean idatziak zeuden-da. Euskera argian, egiazko euskeran. Elegante idatziak. Esan nizun oso gustora irakurri nituala. Gaia ere guztiz interesgarria bait da. Eta, kontxo!, ongi erabillia!

•Beste kapitulorik osatu ba'dezu, bidali eizkidazu korreoz.

Jarrai, Bixente, jarrai.

•Zure aginduen zai,

-Lekuona Zaarra-

.. .

Eskertzekoa dut Arrinda'tar Anes idazle ain ezagunak nere

•Demokraziaren Denborako Eliza- irakurri ondorean argitara eman duan iritzia. Entzun Arrinda beraren itzak:

•Elizaren edestiari buruz, liburu auek bezin ederrik ateratzerik, ez da beste inoiz errez izango. Izugarritzko lana egin du, eta egiten ari da. Euskal-kristauen liburutegietan ez luke falta bear. Erderaz ere naiko lan izango da beste orrenbestekorik aurkitzea. Garaiak luze eta lekuak zabal izanda ere, xeetasun guztiz beteta dagoz. Itur-begi oparoa eta urak garden, Araxes erreka iturburua bezin ugari-emankorra. Izkerak aberatsa, errez eta jatorra. Elizaren okerrak agertzeko ez du mingaiñean eragozpenik: itzalguneak eta argitasunak, danetarikoak daude garbi adieraziak. Bijoazkio egilleari gure agurrik beroenak.

...

Poz aundiz dakart argira adiskide aundi eta ainbat punttutan aolkulari yayo eta baita maixu zugurra ere izan dudana Baztarrika'tar Ixidro Estibaliz'ko abata beneditarrak Eliz-Edesti-Sorta ontako nere azken-liburuari Jaunaren Deia izeneko aldizkarian, (1990-3), egin dion ikerketa:

«Latiegi'lar Bixente: Gure Denbora auetako Eliza. Liburu mardula eta gai berezia gaurko euskal arloan: Elizaren historia edo edestia. Eta ez da Latiegiren lehenego fruitua, laugarrena baizik. Eliz-edesti-sortaren laugarrena, emen ikus dezakezunez: San Iñazoren Denborako Eliza (1447-1623). Denbora berrietako Eliza (1623-1814). 3' Demokraziaren Denborako Eliza (1814-1914). Gure Denbora auetako Eliza (1914-1978).

«Eta oraindik ez da agortu Latiegiren bame-iturburua, lanean bait dihardu jo ta ke, urte askotan ahoz aho egin duen bezala orain liburuen bidez gaurko gazteei eta euskaldun guztiei Elizaren historia, eragin eta garrantzia argituz eta ezaguteraziz.

«Eta Elizaren historia osoa emen nai digu egileak, orain arte gure Herrian beste inork egin ez duenari ekinez. Euskal Herriko elizaren gertaera eta gorabeherak ere kontuan hartzen ditu beti, aldi eta liburu bakoitzean. Adibidez, liburu honetan Espainiko Errepublikak eta Frankoren guduaz ari delarik, hor aurkituko dituzu gure Herriari dagozkion zenbait puntu: Mateo Mujikaren auzia eta jokaera, eusko abertzaleen nekebidea eta beste jakingarri asko.

«Latiegik badu grazia eta bizitasuna kondaira-gaiak bildu eta idazteko, eta euskara erreza eta aberatsa darabil. Atal bat irakurtzen asten bazara, ez duzu bukatu gabe utziko».

Bat baiño geiago badira, liburu onen gunera sartu aurretik eskertu bear ditudan lagunak: Beti bezala, Zubikarai'tar Joseba Markiria'ko apaiz karmelitarra lendabizi. Gazteiz'ko Teologi-Fakultateko bi irakasle ospetsu gero, Oñatibia'tar Iñaki, Arroniz'tar Joseba Imanol eta Urtaran'go Ortiz'tar Peli, bakoitzak bere jakintza bereziaren arloan, iruek eman didaten laguntzagaitik. Eta gure •Instituto Politecnico Diocesano edo •Elizbarrutiaren Tekniketa-Irakastegiko» beste bi irakasle yayo, Garnika'tar Xabier eta Blanco'tar Koldobika, nere eragailuak sortu dizkidan arazoak zuzentzen ain ederki lagundu didatelako.

LENEN MENDEKO ELIZA

ALDIEN URRATSAK

Onderengo oar au gogoan artu bearra da, zerrenda ontako urtegarrenak era egokian aditzeko:

Erroma'ko uria eraikia izanik geroko 749'garren urtean jaio zan Josu Kristo.

Gure zenbakera — urteak zenbatzeko era 540'garren urtean asmatu zuan Dionisio •Txikia — Dionisius •Exiguus» — esan oi zaion lekaideak, Josu'ren jaiotza oiñarriztat artuz.

Baiñan ark uste izan zuan baiño 4 urte lenago jaio zan Josu.

Orrela, guk •Kristo'ren Ondorengo» esaten diogun, urteak zenbatzeko era orren lenengo urtean, Josu'k bazituan lau urte; eta ogei ta amar, zenbakera orren 26'garren urtean.

Eta, seguruaski, urte ortan asi omen zan, Josu, Berri Ona zabaltzen, eta iru urte ta illabete batzuk igaro omen zituan eginkizun ortan. 30'garren urtean il zan beraz Josu, bere adiñeko 33'garrena ondo beterik, jorraillaren 7'an, illargiaren ibilketaren araura. Urte ortan igo zan illen artetik berbizturik zerura. Eta urte ortako Pentekoste-Egunean bidali zion bere Elizari, aurretik agindurik zeukakion Gogo Deuna.

Ikus orain zer urtekoak izan ziran I mendeko gertakizunik garrantzitsuenak:

- 5-10 Tarso'n Paul Donearen jaiotza.
- 14 Zesaraugusto'ren eriotza.
- 14 Tiberio inperatore.
- 21 Pontzio Pilato Judea'ko Jaurle. Galilea'n eta Perea'n Erodes Antipas zegoan «Errege».
- 27? Jon Batailaria Jordan ibaiean izlari.
- 30? Josu'ren eriotza. Pentekoste.
- 36 Pontzio Pilato Judea'tik aterea.
- 36?, 37? Doneztebe'ren erailketa. Farisaitarrak, bereiziki kristau elenisten aurka zigorlari.
- 37 Tiberio inperatorearen eriotza.
- 37 Kaligula inperatore.
- 38 Alexandri'ko Filon filosofilariaren eriotza.
- 38 Damasko'ra bidean Paul Donearen gogo-aldakuntza.
- 41 Kaligula'ren eriotza.
 - Klaudio inperatore.43? 44? Santiago, •Nagusia» esaten zitzaion Bidaliaren eriotza. Jon Ebangelariaren anaia zan.
- 49 Jerusalem'go Kontzilioa.
- 50 Klaudio'k judutarrak Erromalik erbesteratu.
- 50? Tazito edestilari txit aipatuaren jaiotza.
- 50/51 .. Paul Donea Korinto'n.
- 50/51 .. Paul Donearen tesalonitarrentzat Lenengo Epistola. da Itun

- Berriko idazkietan zarrena, ots, aurrena idatzia izan zana,
- 52 Paul Doneak tesalonitarrei Bigarren Epistola
- 54 Klaudio'ren eriotza.
- 54 Neron inperatore.
- 54/55 .. Paul Doneak galazitarrei Epistola.
- 55/56 .. Paul Doneak korintotarrei, Lenengo Epistola.
- 55/56 .. Paul Doneak korintotarrei Bigarren Epistola.
- 55/56 .. Paul Doneak filipostarrei Epistola.
- 55/56 .. Paul Doneak Filemon'i Epistola.
- 56/57 .. Paul Doneak erromatarrei Epistola.
- 58 Paul Jerusalem'en atxilotua
- 62 Jakoba,•Jaunaren Anaia• esaten zitzaionaren eriotza.
- 64 Erroma sutan. ZIGORRA, Neronen aginduz, Erroma'ko kristauen aurka
- 65/70 ..Markos'en Ebangelioa.
- 66 Guda: juduek Palestina'n erromatarren aurka borrokan.
- 67? Erroma'n Kepa Donearen erailketa aurrena, eta Paul Donearena geroago.
- 67 Lino Aitasantu.
- 68 Neron'en eriotza.
- 68-69 .. Iru inperatore Erroma'n bata bestearen atzetik: Galba, Oton, eta Bitelio.
- 69 Bepasiano inperatore.
- 70 Tito gudalburu erromatarrek Jerusalem artu. Judu-Gudaren amaiera.
- 70 Suetonio izen aundiko edestilariaren jaiotza.
- 70/75 .. Paul Donearen Epistola kolosatarrentzako.
- 76 Anakleto Aitasantu
- 79 Besubio sumendiaren lerketa.
- 80-90 .. Luka'ren Ebangelioa.
- 80/90 .. Bidalien Egiñak.
- 80/90 .. Paul Donearen Bigarren Epistola tesalonitarrentzako.
- 81 Tito'ren eriotza
- 81 Domiziano inperatore. Bigarren zigorraldia kristauen aurka.
- 88 I Klemente Aitasantu.
- 90/95 .. Paul Donearen Epistola efesotarrentzako.
- 90-95 .. Apokalipsia.
- 90-100 .Paul Donearen bi Epistolak Tirnoteo'rentzako.
- 90-100 .Paul Donearen Epistola Tito'rentzako.
- 90-100 .Paul Donearen Epistola ebertainarrentzako.
- 90-100 .Jakoba Deunaren Epistola.
- 90-100 .Kepa Donearen I Epistola.
- 90-100 .Juda Donearen Epistola.
- 95 I Klemente Aitasantuak korintotarrei eskutitza.

95-100 Jon'en Ebangelioa.
 95-100 .Jon Donearen 3 Epistolak
 96 Domiziano'ren eriotza.
 96 Nerba inperatore.
 97 I Ebaristo Aitasantu
 98 Nerba'ren eriotza.
 98 Trajano inperatore.
 100 Urte onen inguruan, Jon Ebangelariaren eriotza.
 100-120 Kepa Donearen II Epistola.

Arritu egingo zaitu bearbada, Kepa 67'aren inguruan il zala jakin ondorean, aren Bigarren Epistola 100'garren urtetik 120'garren urtera bitartean idatzia izan zala ikusteak.

Ez da korapillo au, iduri bezain askagaitza.

Epistola ori, Kepa il baiño askoz geroago, aren jarraille eta ikasle batzuk idatzia izan zan. Kepa'ren izenpean ipiñi zuten ikasle aiek beren idazti ura. Zergaitik? Beren irakaslearen omenez, agian. Baiña, bereiziki, gnosizaleek eta beste ereje batzuek gogapen berriak zabaltzen ari ziran aro artan, Epistola artako gogoetak, berriak ez zirala, ots, •berrikeriak», — gure erriaren mintzaeran askoz obeto — »berriketak- eta «berritzukeriak» — ez zirala, adierazteko: Kepa Donearen oldozkeran oiñarritutako gogapenak zirala adierazteko.

Orixe bera gertatzen zaie, gaur uste danez, beste Itun Berriko Idazti geienei ere.

Ni ez bait naiz bibii-gizona, zintzotasunak eskatzen duan lez, bereiziki Itun Berria aztertzen eta irakasten luzaro saiatu dan Biblilari on bati eskatu diot gai oni-buruz bere iritzia.

Gasitez'ko Eliz-Unibersitatean irakasle da Arroniz'tar Joseba Imanol jakintza-gizon azkarra eta zugarra, nere uste on guzira ongi irabazirik daukana. Ona emen bere iritzia:

Lau ebangeiioetatik, Markos'ena bakarrik da, seguruaski, Markos berak idatzia. Ez omen dago ori ziur esaterik, baiñan bai omen dirudi, seguruaski, berak idatzia duala Markos'ek.

Beste iruetatik, Mateo'rena eta Luka'rena norenak diran, ez omen dakigu. Jon'en Ebangelioa, »Jon'en eskolakoa» dala esan oi da, ots, Jon'i entzundakoa borobilduz, bere ikasle batzuek idatzia.

«Bidalien Egirien» idazlea, ezezaguna omen dugu. Soilki au omen da ezpairik gabe esan daitekeana: liburu au idatzi zuanak berak idatzi zuala Luka'rena esaten zaion Ebangelioa.

Epistolei dagokienez, Paul berak idatziak omen dira zazpi: Erromatarrei, Galaziarrei, Filipostarrei, Filemon'en, eta Korintotarrei idatzitakoak. Eta Tesalonikatarren aurrenekoa.

Beste zazpiak: Efesotarrei, Kolosatarrei, Ebertarrei, Tito'ri eta Timoteo'ri idatzitakoak, •Pauren Eskolakoak» omen dira. Baita Tesalonikatarren bigarrena ere.

»Jon'en Eskola» eta •Paul'en Eskola» gauza berdiñak ez dirala kontuan euki bear dugun zerbait omen da, naiz bien arteko bereiztasuna zertan dagoan esatea arazo erreza izan ez. Irakurtzera zoazen onek argitu omen dezake nolabait ezberdintasun ori: Jon'en eskolakoek, Jon'i entzuna bildu ta borobildu besterik ez omen zuten egin.

Paul'en eskolakoek ordea, beste era batera jardun omen ziran. Auek. beren epistolen egiazko egilleak omen dira. Alatagutziz Paul'en eskolakoak esaten ba'zaie, Paul'ek bezala pentsatzen zutelako omen da.

Jakoba, Juda eta Kepa'ren Epistolak nork idatzi zituan ez omen dakigu.

Jon'en Apokalipsia eta bere iru Epistolak, Jon'en Eskolakoek idatziak omen dira.

Ori guzia katoliko zintzo batek ontzat artu dezakean? Berealaxe erantzungo dizut, naiz ni biblilari izan ez, teologilari bai bait naiz.

Elizak ez du Bibliako Liburu baten gizonezko idazlea nor izan zana sinistera inor beartzen. Elizak, Liburu oiek Jainkoagandiko ispirazio edo goi-argiz idatziak izan dirala sinistera bakarrik beartzen gaitu.

Liburu oien egiazko egillea Jainkoa da. Baiñan ez zituan Jainkoak berak idatzi. Liburu oiek idazteko, kultura, oitura, eta izaera ezberdiñeko gizakume batzuk erabili zituan.

Gizakume oiek nor izan ziran erakustea, ez da Elizari dagokion gauza. Elizari, — Elizari bakarrik gaiñera dagokion gauza bakarra zera da: Liburu oietan Jainkoagandik idazlea-zear datorrena eta idazle beragandik datorrena bereiztea; edo, berdina, Liburu oietan Jainkoaren irakaspena zer dan, eta zer idazlearen kultura dan, munduari erakustea; eta Jainkoagandiko irakaspen orren zentzu zuzena gizakumeoi azaltzea. Ortarako, bai bait du Elizak, — eta Elizak bakarrik bait du Gogo Deunaren laguntza berezia.

ELIZAREN SORTERRIA

Eliza, Palestina'n jaio zan. Eta an jaio zan, Josu ere, Elizaren iraslea. Bearrezkoa dugu beraz, Mediterraneo-ertzeko lurralde asiarrak zerbait esatea.

Lurralde txikia da Palestina. Eta ala zan Eliza sortu zanean ere. Iparretik egora, 240 kilometro zituan bere alderik luzeenean, eta itxasotik Jordan ibaiarantz Perea-ren azken-mugara, 150, bere zabaltasunik aundienean. Guztira, 34.000 kilometro laukoi besterik ez zituan. Ez zan, 20.000-inguru dituan Euzkadi baino askoz aundiagoa.

Fenizi eta Siri zeuzkan iparrean. Gaur Negeb eta orduan Idumea esaten zitzaion, arri legor eta ondar legorragozko lekaroa, egoan. Sarkaldean, ordurarte juduek oso jaramon txikerra egin oi zioten Mediterraneo edo Lurrarte-Itxaso, eta, sortaldean, Jordan Ibaia. Ta, sortalderago, ibaiarantz, orduan juduena zan, eta gaur Jordani'rena dan lur-zati medar luze bat: Perea.

Perea'z aruntz, Eufrate ibaia jotzeraino iristen zan lekaroa besterik ez zegoan, erromatarrek «Arabi'ko Lekaroa» esaten zioten ondarrezko eta arrizko basamortu zabala.

Jordan ibaia, ibai sagaratu juduentzat, iparrean Antilibano edo Liban-Aurre deritzan mendian, itxasoz gaindik 2.814 metro badituan Ermon izeneko tantaiaren maldetan jaiotzen da. Egoaldera jotzen du, eta, Itxas Illaren gezalean amaitzen du bere ibillaldia.

Ludiko bee-zulorik aundienean aurkitzen da Itxaso ori. Mediterraneo-Itxaso baino ia 400 metroz, (397 metroz) beerago. Eta, izugarri gazia dalako, ez da bere uretan ezer bizi.

Itxaso esaten zaio baiñan aintzira luze bat besterik ez da. 76 kilometro luze, 17 zabal. Bibliak dionez, itxaso izan aurretik aran aberatsa omen zan, eta bertan omen zeuden Jainkoak suz zigortutako Sodoma, Gomorra eta Seboin uriak.

Inguru artan bizitu zan Jon Batailaria, eta an egin zuan Josu'k ere bere larogei eguneko barau-aldia.

An zegoan, Itxaso Ill orren ertzean, esenitarren Qum Ran'eko lekaidetxea, eta an agertu zaizkigu, zorionez, lekaidetxe aren idaztitegiko larruki zaarrak.

Josu'ren denboran, Palestina, iru lurraldetan zegoan zatitua: Iparrean Galilea. Erdian Samari. Eta, egoan, Judea. Esan dugun bezala juduerria zan orduan Perea ere, Jordan ibaiaren sortaldean.

Galilea, aski zelaia eta nekazaritzarako aski aberatsa, jende xalo atsegiñaren lurraldea zan. An dago Nazaret, Josu'ri, — an bizitu zalako —, izen-eman zion erria: «Nazaret'eko Josu», Josu Nazaretarra». Eta, gero, lenengo kristauei ere «nazaretarrak» esango zaie Palestina'n.

Galilea'n zegoan Genesaret izeneko aintzira ere: Iparretik sartuz eta egotik atereaz Jordan ibaiak igarotzen duan 168 kilometro laukoiko aintzira borobil polita. «Tiberiades'ko Itxaso» eta «Galilea'ko Itxaso» ere esan oi

zitzaion orduan.

Itxaso, ortan izan zan arrantzale Josu'kF; epha izendatuko zuan Sirnon. Bar Yona: gure izkeran, Simon Yonarena.

«Itxaso» orren ertzetan zeuden, — uri aberats 'olzkorrak **Kafarnaum**, Tiberiades erromatar-gudarozteko gudalburuen egoitza alaia. An zegoan Mari Ivlagdalena'ren erria: Magdala. Eta Betsaida, Kepa'ren sorterria.

Galilea'ren egoaldean, menditsuagoa eta legorragoa zan Samari, juduek ikusi ere ezin egin zituzten samaritarren lurraldea.

Izan ere, bai erlijioz, bai odolez, erdi asiritar erdi israeldar, gizakume naasiak ziran samaritar aiek.

Ia milla urte leenago, Salomon il zanean, bi zati egin zan Israel'ko Erreñua: Egoaldean, txikiena, Juda'ko Erreñua, uriburu Jerusalem zuala. Aundiena, iparrean, Israel'koa; ainzuzen aundiena zalako, Israel'ko erreñua esaten jarraitu zitzaiona.

Israel'ko Erreñu berri onek, Samari zeritzan uria artu zuan uri-buru. Orregaitik, Samari'ko Erreñua ere esan oi zitzaion. Eta, bere biztanleei, samaritarrak.

Krist'aurreko VIII mendean Asiri'ko erregeek, Erreñu ura menderatuta katigu eraman zituzten Ninibe-aldera Erreñu artako jenderik geienak, eta jende oien lekua beren gudarozteko jendez bete. Asiritar oiek, bertan gelditu ziran emakumeekin nasi ziran, eta ortik sortu zan josu'ren denborako samaritarren enda.

Erljioa ere, odola bezala, nasia zuten; asintarren siniskeriz orbandua. Bibliatik ere ez zituzten aurreneko bost liburuak besterik onartzen: idatzia dala esan oi dan Pentateuko edo Bost-Liburu-Sorta.

Badirau oraindik an, Sikem izeneko urian, samaritar aien ondarrak. Ez dira asko, ez orixe, baiñan badira beintzat oraindik. Berreunen bat gizen-emakume, guztira.

Egoalderago, Samari baiño menditsuagoa eta legorragoa, Judea dago: Jerusalem Uri Donearen ingurua. Ditez ere, gaiilearrak baiñan legorragoak ziran judeatarrak. Baiñan baita azkarragoak ere. Erljioari eta politikari zegokienez, beraiek ziran ba Palestina'ko zuzendariak.

Bat bakarra izan zan ziurki judeatarra Josu'ren Bidalien artean: Judas Iskariot saltzaillea.

Judea'n dago Belen, Josu'ren jaiterrria. Eta Jeriko, Jordan ibaiaren ibarrean.

Ibaiaz aruntz, Perea, lekaro-lurra da guzia.

...

PALESTINA'KO AGINTARIEN BERRI emen ematea, ez da noski gauza okerra izango.

Erromatarren mendean zegoan Palestina, Krist'aurreko 63'garren urtean Pompeyo gudalburu erromatar ospetsuak Jerusalem artu zuan ezkerro.

Ordurarte, Makabetarrek Krist'aurreko 176'tik 161'erako borrokan IV Antioko Epifanes Siri'ko erregea garaitu zutenez gero, yare bizitu ziran judutarrak Palestin'an, batera Jaupari Nagusi eta Errege ziran makabetar aien belaunordekoen zuzendaritzapean.

•Asmondarrak• edo •Asmonearrak. esan oi zaie errege auei, makabetar danen Asaba izan zan Simon •Makabear» berari •Asmonear» ere esaten zitzaiolako.

Azkeneko Asmonear guztietan gogoratuena, printzes bat dugu: Mariamne, Erodes"Aundiarekin ezkondu zana, errege anker arek geiena maitatu zuan emaztea.

Azkenean ordea Erodes'ek berak kendu zion bizia.

Erromatarrek, Palestina artu zutenean, Sortaldeko errialde aiekin egitea oituzakoa zuten lez, Erodes zeritzan lurralde artako jauntxo bati eman zioten agintaritzatza. Ez zan Erodes judutarra, idumeatarra baizik.

Idumea, Negeb izeneko lekaroan, Judea'ren egoaldean zegoan, eta naiz gaur lurralde ori Israel'ko Errepublikarena izan, eta orduan erromatarrek Palestina'ren zatitatzat euki, atzerria zan garai artako judutarrentzat.

Orregaitik ez zioten beñere Erodes ari begi gozoz begiratu.

Erodes izena ia eun urteren epe luzean maiz agertzen bait da Bibliaren orrietan, esan dezagun lau izan zirala Palestina'n izen ortako Agintariak. Ikus agintari oiei buruz, xeetasun batzuk:

ERODES AUNDIA, Krist'aurreko 73'an jaio eta Krist'aurreko 4'ean il zana. Belen'go aur Errugabeak erail zituana (Mat. 2, 16-17.

Bera izan zan Palestina'n izen ortako lenen erregea. Aita, Antipater zeritzan Idumea'ko buruzagi bat izan zuan, Pompeyo'ren adiskide eta laguna, onek Jerusalem artu zuanean. Baiñan gero, Pompeyo garaitu zuan Julius Zesar'en lagun eta adiskidea.

Zesar'ek esker onez, Krist'aurreko 47'an, Judea'ko Jaurle egin zuan Antipater, eta Galilea'ko jaurle berriz gure Erodes, Antipater aren semea.

Krist'aurreko 40'garren urtean izendatu zuan Erodes Erroma'ko Senatuak Palestina osoko errege, eta -37'garrenean asi zuan onek, Jerusalem'en sartuta, bere agintaritzatza. 36 urteko gizon gaztea zan orduan Erodes Aundia.

Bere erregetzako ekintzarik aundiena, Jemsalen'go Jauretzea eraberritzea eta aunditzea izanen zuan.

Etsai izan zitzaion beti Kleopatra Ejito'ko erregin **Baiñan**, alatagutziz, Oktabiano'ren eta Antonio'ren artean guda lertu zanean, Kleopatra'ren maitalea zan Antonio'ren alde irten zan Erodes Aundia.

Antonio eta Kleopatra, Akzium'go borrokaldian zearo garaituak izan

ziran.

Ondamen orren ondorioz bere burua il zuan Antonio'k. Eta bere burua il zuan Kleopatra'k ere, esan oi danez bular baten gainera iran-suge baten eztena alderatuz.

Erodes'ek ordea ez zuan ezer galdu.

Oartu bait zan Oktabiano garaillea, gizon ura bear-bearrezkoa zuala Palestina Erroma'ren esanera pakean gordetzeko.

Ala, Oktabiano, •Zesar Augusto izen-artuz Erroma'ko inperatore biurtu zanean ere, Palestina'ko errege jarraitu zuan Erodes'ek. Ta Zesaraugusto beraren eta, onen laguntzaille nagusia izan zan Bespasiano Agripa'ren adiskide aundia izan zan beti.

Zesaraugusto'ren omenez izendatu zuan Zesarea, Mediterran-Itxasoaren ertzean eraiki-berria zuan uri bat, eta Bespasiano Agripa'ren omenez izen-eraman zuten Agripa, erregetzara iritxi ziran Erodes'en billobak eta bir-billobak: I Erodes Agripa'k eta II Erodes Agripa'k.

Aunditasun zalea izan genduan Erodes Aundia. Edertu zituan Palestina eta, bereiziki, Jerusalemgo uria, bertan beretzat jauregi bikain bat egiñez, eta Yabe'rentzat Jauretzea ber-eraikiz. Erodes Aundia, erlijioz, judutarra bait zan, edo, bai beintzat, judutarren erlijioarekin anitz eraspentsua.

Alare, berekin izan zuan beti farisaitarren gorrotoa idumeatarra zalako, eta bereiziki, juduerriaren askatasuna zapalduz Erroma'ren izenean agintzen zualako.

Erodes'ek ber-eraikitako Jauretxe ori da Josu'k ezagutu zuana, eta 70'garren urtean Tito erromatarraren gudariek suz ezereztu zutena. Aurre-esan bait zuan Josu'k Jauretxe ari ez zitzaiola •arriaren gainean arririk geldituko».

Palestina'tik-at ere, Sortaldeko uri askori oparo lagundu zien Erodes'ek edertze-lanetan. Olinpik-kirolketak ere lortu zuan aren laguntza. Eta, azkenean, kirolketa orren Zuzendari egiña izan zan.

Era berean saiatu zitzaigun diasporako juduei laguntzen.

Zoritzarrez, bazuan, gero ta aundiagoa egin zitzaion odolkerirako joera.

Gazte zala, Doris izeneko printzes arabiar batekin ezkondu zan, eta beragandik izan zuan semeari, aitaren izena ipiñi zion: Antipater.

Errege izatera iritxi zanean berriz, juduen naimen ona irabaztearren, Mariamne, errege asmonetarren odoleko printzesarekin ezkondu zan, eta benetan maite izan zuan bigarren emazte au.

Mariamne'ren ama Alexandra'k ondatu zuan bere suin-alaben zoria, Ejito'ko Kleopatra'rekin alkartuta suiñaren aurka azpilanean asi zalako. Ikaratu zan ori jakitean, Erodes, eta bere erregetza galduko ote zualako bildurrez, Mariamne il zuan. Era berean il zituan, Mariamne'ren ama lardaskatzaille ura; eta Mariamne'ren anaia; eta Mariamne'rengandik izandako bi seme; eta Mariamne'ren aitona, ainzuzen Erodes'ek berak Mariamne'ren eskaria entzunez Juduen Jaupari Nagusi izendatzera zijoan agurea!

Doris eta Mariamne'z gaiñera izan zituan emazte geiago, eta auetatik seiek eman zizkioten umeak.

Guztira, 14 seme-alaba izan zituan.

Zartzaroan erotu ere egin zala dirudi. Orduan erail zuan bere semerik zarrena, Doris arabiarrengandik izandako Antipater ura. Eta garai ontakoa du aur errugabeen erailketa ere.

Bere burua iltzeko, alperrikako saiaketa bat egin ondorean, Krist'aurreko 4'ean il zitzaigun Erodes Aundia, Jeriko izeneko urian.

Ill-aurretik, bera iltzen zanean jaurerria bere iru semeen artean zatitzeko eskatu zion Erroma'ri: Judea eta Samari, Arkelao'rentzat nai zituan; Galilea ta Perea, Antipas'entzat, eta Galilea'ko Itxasoz aruntz sortalde-iparraldera zeuden Trakonitide, Abilene ta Batanea, Felipe'rentzat.

ERODES ARKELAO, (Kriseaurreko 4'atik 1CrisCosteko 6'ara). Erodes Aundiaren eta Maltaze aren emazte samaritarraren semea, Arkelao utsez da ezagutua.

Izakeraz gogorra eta ankerra zan. Orregaitik diosku Luka'ren ebangelioak Joseba Donea Ejitobic Josu'rekin eta Miren'ekin itzuli zanean ez zala Belen'en bizitzera ausartu, eta Nazaret'era joan zala. **agintzen** zuan Erodes Antipas, Belen'en Josu jaio zanean gertatutakoaz oroituko ez zalaren ustez?

Arkelao, Judea'n eta Samari'n bakarrik izan zan agintari, baiña zakarra zalako, juduekin ez ez samaritarrekin ere asarretu zan, eta bi lurralde aietako jendearen eskaria onartuz, Zesaraugusto'k Erroma'ra erbesteratu zuan.

Arkelao aren erreinua, Zesaraugusto beraren erabakiz, Erroma'ko probintzi biurturik gelditu zan; Erroma'k izendatutako jaurlarien zaintzapean.

Jaurle auetan ezagunena, Pontzio Pilato.

ERODES ANTIPAS, (Kriseaurreko 4'atik-Krist'osteko 31'ra) Erodes Aundiaren eta Maltaze samaritarraren semea; Arkelao'ren anaia beraz, bete-betea. Galilea eta Perea'ko agintaria. Bere egiazko emaztea utzita, bere anai baten emaztearekin, Erodias'ekin, sasiezkondu zana.

Sasi-ezkontza orren aurka irten zalako galdu zuan lepoa Donibane batailariak. Erodes au da Josu'k •azari• esan ziona (Luk.13, 32) eta gero Josu zuriz jantzirik Pilato'ri itzuli ziona.

Erodias'ek bultzatuta, bere illobari, Kaligula'kTrakonitide ta Batanea'ko Jaun egin-berri zuan Erodes Agripa'ari, agintaritzara-bidea itxi nai izan zion. Au ordea Kaligula inperatorearen adiskide izaki-ta, inperatoreak Erodes Antipas bera eta Erodias sasiemazte zirikalaria erbesteratu zituan. Eta aien

jaurreria eta aberastasunak Eroses Agripa'ri eman zizkion.

Urte ortan bertan il zan Eroses Antipas erbestean itunki.

Eroses Antipas onek eraiki zuan Tiberiades uria, Tiberio inperatorearen omenez.

•**•

I ERODES AGRIPA, (39-44), Eroses Antipas'en illoba. Bere aita, Aristobulo, Eroses Aundiaren eta Mariamne printzes asmonearraren semea bait zan. Aristobulo ori bere aitak, Eroses Aundiak, erailla izan zala badakigu. Orduan, Eroses Agripa, Aristobulo illaren semea, iru urteko mutikoa, Eroses Aundia beraren aginduz Erroma'ra bidalia izan zan, eta an inperatorearen jauregian azia.

Mutil gazte atsegiña zalarik, Jauregiko aundikien adiskide egin zan. Batez ere, gero inperatore izango zan Kaligula'ren adiskide ta lagun aundia.

Diru-ondatzaille neurri gabea, maiz ikusi zuan larri bere burua, baiñan adiskide aundiki aiek beti atera izan zuten larritasun aietatik.

Espetxera jaurti zuan Tiberio zarrak, Kaligula inperatore izaten asteko garaia iritxia zala, esan zualako, eta, seguruaski, Tiberio laister erailla izateak salbatu zion bizia.

Kaligula'k, esker onez, inperiotza artu bezain laister, Trakontide ta Batanea eman zizkion; bere osaba Eroses Felipe'renak izandako lurraldeak. Eta, esan dugu, Eroses Antipas eta onen sasiemazte Erodias, illoba zuten I Eroses Agripa oni lurralde aiek kendu naiean asi ziranean, Kaligula'k biak erbesteratuta beraienak ziran Galilea eta Perea I Eroses Agripa oni nola eman zizkion.

Erroman zan I Eroses Agripa, Kaligula erailla izan zanean, eta al zuan guzia egin zuan, Klaudio inperatore izendatua izan zedin. Onek, eskertzat, Judea eta Samari eman zizkion.

Orrela, I Eroses Agripa'rena zan orain Eroses Aundia bere aitona zena izandako Jaurerri guzia.

Judutasunaren maitale aundia, irabazi zuan bere mendekoen ongi-naia. •He did all in his power to crush the nascent Christian church»: •Al zuan guztia egin zuan jaio berria zan Kristau-Eliza birrintzeko• (Enc. Brit.), eta ala, Jakoba Nagusia erail ondorean, espetxeratu zuan Kepa ere, baiñan au, aingeru batek yaretu zuan (B.E. 12).

Bat-bateko eriotzez il zan I Eroses Agripa Zesarea'n, Klaudio inperatorearen omenez kirolketa bat ospatzen ari zala.

II ERODES AGRIPA, (52-100), I Eroses Agripa'ren semea. Aurrena, Libano'ren egoaldean, Kalzis izeneko jaurerri txiki bateko errege izan zan, eta aita il zitzaionean, Trakontida eta Batanea'ke Agintaria. Palestina osoa

Erroma'ren probintzi biurtua izan bait zan. Neron'ek ordea, eman zion Galilea'ren zati bat. Eta Jerusalem'go Jaupari Nagusia izendatzeko almena ere eman bait zion, judu-erlijioaren zuzendari nagusi egiñik utzi zuan, emaitza orren bidez, II Erodes Agripa adiskidea.

Berenize bere arrebarekin lizunkerizko maitakerian bizi zala esaten zalako, eta arras atzerrizale zalako ere bai, gorroto izan zuten juduek II Erodes Agripa ori. Eta juduek Erroma'ren aurka jeiki ziranean Erroma'ren alde jarri zan oso-osoa bera.

II Erodes Agripa eta Berenize oien aurrean mintzatu zan Paul Donea Zesarea'n (B.E. 25 eta 26).

Berenize, gero, Tito inperatorearen maitale lizuna izan zan.

ALBISTE-ITURRIAK Lurralde ortan jaio, bizi, eta il zan Josu eta lurralde ortan jaio zan eta lurralde ortatik zabaldu zan Eliza.

Lurralde artako gizartearen giroa eta orduango gertakizunak ezagutzeko, Itun Berriko liburu guztietaz gaiñera, onako idazleok izan ditu edestiak irakasle:

LUKA DONEA, Orain arte II mendeaz gero beti uste izan dan bezala, Ebangelio baten eta •Bidalien Egiriak• izen-duan beste liburuaren egillea.

Gaur, biblilaririk geienak, gure Lukas au ez dala, uste dute, •Bidalien Egiriak• idatzi zituana. Ezta bere izena daraman Ebangelioaren idazlea ere; bi liburu oiek egille bat bera dutela bait diote.

Auzi ontaz, ataltxo onen azkenean mintzatuko gera. Baiñan nik, emen, orain arte Elizak uste izan duanari jarraituko diot.

Zergaitik?

Lendanbizi, Elizaren uste ori oso-osoa antziñatik datorkiguna dalako: 130'garren urtean, edo pixka bat lentxeago, ots, •Bidalien Egifiak• idatziak izan ziraretik 40 urte exkax geroago, Sortaldean jaiotako Ireneo Donea dugu ori esaten aurrenekoa.

Orrek ordea ez du esan nai orduan sortua izan zanik. Alderantziz, askoz leenagotik zetorrela esan nai du orrek. Eta Ireneo'k leenagotik zetorren albiste ori bere liburura jaso zuala. Agoz-agozko jakintza zarragoa izaten bait da idaztietan agertzen zaiguna baiño. Izan ere, gaiñera, jakintza ura beste onen iturri izaten bait da edesti zarrari dagokionez.

Luka •Bidalien Egifien» idazle lez aipatzen, aurrenekoa Ireneo izan zala esateak, ez du beraz esan nai Luka'ri-buruz diona, Ireneo'k berak asmatu zuanik. Ireneo Donea ez bait zan ipuilaria. Idatzi zuana, leendik jakiña zualako idatzi zuan. Eta bazuan, bai noski, gauzak ondo ezagutzeko ziorik aski. Ikus:

Asi Txiki'n jaio zan. 130'garren urtean, esan dugun bezala. Edo pixka bat lentxeago, bearbada. An, Jon Ebangelariaren ikasle izandako

Donepolikarpo'ren ikasle izan zan. Andik Sarkaldera etorri zan mixiolari, eta Galietan apaiz egiña izan ondorean, Frantzi'ko Lyon`go Gotzai izatera iritxi zitzaigun.

Esan dezakegu beraz, ondo ezagutzen zuala — Ireneo Doneak — II mendeko kristaudia. Bazuan beraz, Elizak •Bidalien Egiflak» norenak ziran esaten zuan jakiteko, egokitasun ziurra. Ez dugu noski ori ukatzerik izango. Batez ere •Bidalien Egifiak» bera jaiο baiño soilki 40 urte leenago argitaratuak izateaz gaiñera, Ireneo'k, Donibane Ebangelariaren ikasle izandako Polikarpo Donea irakasle izan zuala bir-gogoratzen ba'dugu.

Nere bigarren arrazoiak: biblilari oien arrazoiak ez ditudala indar aundikoak etsitzen.

Bi dira ipintzen dituzten arrazoirik astunenak:

- •Bidalien Egifien» idazleak kronologi edo kontatzen dituan gertakizunen urtegarrenari-buruz akats batzuk badituala.

Bedi. Baiñan idazle ark kontatzen zuanetik asko, agoz-agozko jakintzatic jaso zuan; eta agoz-agozko jakintzak kronologiari garrantzi geiegirik ematen ez diola, badakigun gauza da. Bestalde, badakigu baitare edestilari zarrek zenbakiei eta gertakizunen urte-egunei ez zietela guk aiñako garrantzirik ematen. Batez era Luka'k, •Bidalien Egifietan». Bereala esango dugun lez, liburu ori idazterakoan, edestilari baiño askoz geiago izan bait zan teologilari.

- •Bidalien Egifien» idazleak ez zituala Paul'en epistolak ezagutu, aipatu ere egiten ez ditualako.

Egi ziurra da, ez dituala aipatzen. Ez da ain egi ziurra, ez-aipatze ori, ezagutzen ez zitualako izan zanik.

Paul'en epistolak ez ezë, Marko'ren ebangelioa ere argitaratua zan ordurako. Ebangelio ori aipatzen al du •Bidalien Egifien» idazleak?

Lenen-Eliz artan, Josu'z al zuten gutzia jakiteko kristau danek, baita kristau arruntek ere izan zuten leia, ezaguna zaigu. Idazti asko sortarazi zuan lei orrek.

Bestalde, •Bidalien Egifien» idazlea, liburu ortan erabilli zuan idazkera txukunak aditzera damaigunez, kristau arrunta ez baiña kristau jakintsu landua zan. Liburu ortan ez ditu aipatzen idazti aiek. Alare, ezagutzen zituala badakigu, aipatzen bait ditu bere Ebangelioaren asieran.

•Bidalien Egifietan» idazti oiek zergaitik-aipaturik ez zuala?

Oker zaude: Ebangelioan baiña arrazoi geiagorekin aipatu zezazkean •Bicialien Egifietan» idazti aietatik eta batez ere Marko'ren Ebangeliotik artutako Josu'ren itzak. Biblilari berri oiek ago batez diotenez, Egifiak», Elizaren bizitza Kristo'ren bizitzaren jarraipena dala adierazteko idazti bait zituan!

Alare ez zituan aipatu. Ez zuan Kristo'k esandako edo egindakoetatik ere ezer askorik aipatu. Alare, sinistekoa da noski, Kristo'k esanak eta egiñak ederki ezagutzen zituala, bera lau ebangelilarietako bat izanik.

Era berean Paul'en Epistolak ez aipatu izateak ez du esan nai ezagutzen

ez zituanik. Zertarako ibilli bear zuan gaiñera, idatzirik zeudelako kristau-jendeak ongi ezagutzen zituan gauzak bir-ezagutzera ematen?

Orregaitik, nik Luka'ri-buruzko auzi ontan, oraindaiño Elizak gorde duan aburuari jarraituko diot. Zuk irakurle jaso dezakezu zurea lez, aipatutako bibl ilari oiena.

Gure Luka, sendi jentil bateko semea izan zan seguruaski, eta elendar-kultura ederreko gizona, Siri'ko Antioki'n jaioa dirudianez, 42'garren urtea-aurretik gazterik kristau biurtua, Paul Donearen laguntzaillea, eta, lanbidez, sendagillea.

Gure Luka ontaz ari zan eskierki Paul Donea kolosatarrei egindako eskutitzean «Luka nere sendagille maitea» idatzi zuanean (Kol. 4, 14). Orrela uste izan du beintzat beti erri kristauak Elizaren lenen-lenen urteetatik onuntz, gure egunok arte.

Margolaria izan zala eta Miren Josu'ren amaren irudia margoztu zuala ere entzunik egongo zera. Baiñan margolari zalako uste ori, askoz ere berriagoa dugu; orren aipurik zarrena VI mendekoa bait da. Eudoxi inperatemeak Luka'k margoztutako Andre Mari'ren irudi bat bazuala dion Teodoro zeritzan Kostantinopla'ko elizgizon baten idaztitik jaso.

Naiz Luka'k idatzitako bigarren liburu onen izena «Bidalien Egiriak» izan, bertan ez dituzu Bidali guztien egiñak aurkituko. Aurreneko ataletan Matia, Jakoba, Jon eta bereiziki Kepa'ren izenak eta azkeneko onen ekintzak, bai, aurkituko dituzu, baiñan bein Donepaul apostolutza-lanera sakonki sartu, onen ekintzak bakarrik damaizkigu Luka Doneak.

Ez da arritzekoa, bere lagun izan bait zuan arek ibillaldietan, Eliza-baitan uste izan danez.

Ori orrela dalarik, gaiñerako Bidalietaz ezer ziurrik ez dakigu. Soilki, edestiaz-at leyenda edo kondaira utsek gure aro ontaraiño ekarridigutena.

Neronen denboran, 60'garren urtetik 62'garren urtera bitartean izan zala liburu au idatzia, uste izan dute orain arte edestilariek. Ona, gaur-egun bertan ere, Kerexetaren aburua: «Liburu au be Lukas'ek idatzia da, eta ziur asko Erroman idatzia, ebangelioaren ostetxoan, Paulo Erroma'n erdigiltzapeturik egon ondoren.» Baiñan Luka'ren liburu au beranduagokoa dala dirudi: 90'garren urtean edo zerbaittxo bat lentxeago idatzia.

Gero ere oroituko dugu-ta, esan dezagun orain Luka edestilari baiño geiago, teologilaria zala, eta, soilki bere asmoa ziurtatzeko bearrezkoak zituan gertakizun aiek bakarrik, jaso zituala bere liburu ontan.

Ez du orrek esan nai jaso zituan gertakizun oiek egiazkoak ez diranik, ez orixe!. Soilki gertakizun oiek bakarrik jaso zituala, esan nai du.

Liburu ori idaztean Luka'ren elburua,— teologizko elburua,— zer izan zan?

- Eliza Josu'rekin alkartzea; Eliza, Kristo bera, eta Elizaren bizitza Kristo'ren bizitza, eta Elizaren ekintzak, Kristo beraren ekintzak dirala egizatzea. Ots, Luka'ren irakasle izan zan Paul Doneak Eliza Kristo'ren Gorputz Mistikoa dala esatean adierazi nai izan zigun gauza bera erakutsi

naiz izan zigun Luka Doneak bere liburu ontan.

Orregaitik, Eliza Josu'ren jarraipena dala argi gelditu zedin, ez dio, Luka'k, Paul'i apostolu izenik ematen. Paul ez bait zan Josu'rekin ibillia.

- Eliza Josu bera baldin ba'da, — Josu'ren gorputza ba'da, esanen zuan Paul'ek— kristauen bizitzak biz itza donea izan bear du. Nolakoa? Jerusalem'go lenen kristauena bezalakoa.

Ori buruan zeukala, Kristau-Bizitz orren eredua margozterakoan, Lenen Eliz aren bizieratik, egokien zaizkion xeetasunak bakarrik bilduko ditu Luka'k: Jerusalem'go Elizaren altzoan baiki izan zan komunitate edo senitarte santu artako biziera arrigarri aren xeetasunak.

Orregaitik, ez da ain ziurra, Luka'k Lenen Elizako gertakizunetan osoki •informatua- edo ikasia ez zegoala esaten diguten biblilari berrien aburua. Luka'k izan zuan gertakizun aiek bere osotasunean jasotzeko adiontasun berezia, eta baita gogo sendo betea ere, baiñan berak ongi ta ederki ezagutzen zituan gertakizun guzti aietatik, teologilari lez, bere elburua betetzeko bearrezkoak zituan aiek bakarrik eman zizkigun.

Luka'k ez zuan bere liburua, mendeen luzaroan edestilarien jakin-naia betetzeko idatzi; Eliz gazte aietako kristauen gogo-bizitza sendotzeko baizik.

Luka'k, eta antziñako idazle guztiek, eta baita Bibliako liburuek ere, beren orrietan erabiltzen dituzten zenbakiei-buruz, au beti gogoan euki bearra da:

Antziñako literatura edo elerti-era artan, gaurko elerti-era errikoiean bezala, zenbakiak ez dirala matematikalariek erabiltzen dituzten eran, aritmetikazko kopuruak; erretorikaren araura, aunditasuna adierazteko, gramatikazko adjetibu edo itzondokoak dirala.

Esan dezagun azkenik, -Bidalien Egifietako- liburua, ertiaren aldetik oso -estilo• edo idazkera oneko liburua dala.

Esan dezagun baitare, — len ere ortaz mintzatu gera-ta **gaur** biblilarien artean geienak, ez dutela liburu orren egillea Luka Donea izan zanik uste.

Au da diotena:

- Irugarren Ebangelioaren eta -Bidalien Egifien• idazlea bat bera izan zala.

- Bere izenik ez dakigula,

- Kultur aundiko gizon kristaua zala, diasporatarra seguruaski,

- Ez zala Paul Donearen bide-lagun izan,

- Seguruaski ez zuala Paul Donerik ezagutu ere, aren epistolak aipatzen ez dituan ezkeru.

- 80'garren urtetik 90'garrenera bitarteko epean idatzi zituala

Galdetxo bat egin dezaiekegu biblilari oiei: -843'tik 90'ra- idazten ari izan zan -kultura aundiko gizon kristau- batek, ordurako Paul'ek idatzirik utzi zituan epistolak eta ordurako argitaraturik zegoan Marko'ren ebangelioa ez

ezagutzea, sinistu daitekean gauza al da?

Zuk ordea beste galde bat egingo didazu agian neri:

Ta? Biblilari oiek diotena sinistu al dezake kristauak? Eta, baietz erantzungo dizut nik:

Ontzat ar dezakezula biblilari berri oien aburua, era berean •Bidalien Egirien- idazle ez-ezagun orrek liburu ori Jainkoaren eragiñez eta Jainkoagandiko ispirazio edo goi-argiz idatzi zuala sinisten ba'duzu.

Baña, nik esan dedan bezala, eta Elizak uste izan duan bezala, irugarren Ebangelioaren eta •Bidalien Egirien• idazlea Luka Donea izan zala, eta au Paul Doneak bidelagun izan zuala, sinisten jarraitu nai ba'duzu, baduzu orretarako ere eskubide bete.

FLABIO JOSEFO, juduek izan duten edestilaririk onena. Josu il eta bereala, 37'garren urtearen inguruan jaioa, eta 93'garren urteaz gero laister illa. 66'tik 70'era arteko judu-guduan Erromatarren aurka Galilea'ko gudaroztearen buruzagi nagusi izan zana.

Erromatarrak askoz ugariagoak izanik, lurralde ura galdu ondorean Jotapata'ko gaztelura bildu zituan bere azkeneko gudariak. Berrogei ta zazpi egunez eman zien etsaiei aurpegi, baiñan gaztelua ere galtzera zijoala ikustean, gazteluko artzulo batera bildu zituan bizirik gelditzen zitzaizkionak.

Batak bestea iltzea erabaki omen zuten zulo artan, erromatarren eskuetara bizirik erori nai ez zutelako. Eta baita egin ere. Azkenean, Flabio Josefo bera eta gudari bat besterik gelditzen ez ziranean, nork nor il zotz-eginda Flabio Josefo'k erail omen zuan bestea, eta bakarrik gelditu zanean, bere burua iltzeaz oroitzeke erromatarrengana jo omen zuan errenditurik.

Ori guzia... egia ote?

Ez noski.

Bespasiano zan erromatarren gudaiburu nagusia, — eta Flabio Josefo ere gudaiburu zalako Bespasiano'ren aurrera izan zan eramana, eta an danen aurrean, Bespasiano inperatore izatera iritxiko zala aztiatu omen zuan. Ta, iragarpen ori atsegiña izan zitzaiolako barkatu omen zion Bespasiano'k bizia; baita bere adiskide egin ere, ark agindu bezala inperatore izatera iritxi zanean.

Edestilari bezala, benetan zintzoa eta egizalea dugu Flabio Josefo. •No siempre fue imparcial y se inclina a alabar a sus compatriotas, pero esta tendencia a defender a su pueblo no le pone en trance de falsear los hechos-.

La objetividad y justicia de sus descripciones ie convierten en excelente modelo de la historia monografica y nacional-, dio Montero Duque'k opusdeitarrek zuzendutako GER iztegian.

Judu bezala, sinismen zintzoko gizona izan genduan: esenitarra gaztetan, eta iruren bat urtez lekaroan egona penitentzigintzan; farisaitarra gero, guda asi aurretik. Alare juduek ez diote erromatarrekin adiskidetasunak egin

izaterik barkatu.

Lau liburu idatzi zituan, baiñan guretzat garrantzitsuenak bi dira: •De Bello Judaico, «Judu-Gudua., berak bere begiz ikusitakoaren edestia, eta •De Antiquitatibus Judeorum., Juduen Antziñatiko Gauzak., judu-erriaren edesti osoa.

Eraspen aundiz mintzatu zan Flabio Josefo, Josu Nazaretarrari-buruz: Ona P. Intxaurraga'k gazteleratuta, bigarren liburu ortan diona:

•Por este tiempo apareci JesUs, hombre sabio, si con todo se le puede llamar hombre. Porque fue hacedor de obras maravillosas, maestro de hombres que reciben con gusto la verdad, y a muchos de los judios y de los griegos atrajo hacia si. El ere el Cristo. Crucificado por Pilatos, por delación de los primates de nuestra gente, los que primeramente le hablan amado se mantuvieron fieles. Aparecioles el tercero dia, vivo de nuevo, como lo anunciaron los profetas de Dios, que hablan predicho de 1 mil otras maravillas. Todavia hoy dura el grupo de los cristianos, llamados asi por su nombre. (Ant. Jud. XVIII, III, 63-64),

Ori idatzi zuan gizona, nola ez zan kristau egin? Ez da ulertzen erreza. Orregaitik, esaldi ori edo ez zuala Flabio Josefo'k **edo arek idatzi** ba'zu an, gero kristau bat-edo-batek aldatua izan zala, uste dute kritikalariek: kristau ez diranek batez ere.

Baiñan kritikalarien aburu ori ber-bera ere ez da ulertua izateko uste bezain gauza erreza: Antziña-antziñatik agertzen bait zaigu Flabio Josefo'ren liburuan esaldi kezka-sortsaille ori era ber-berortan idatzia.

Orrela ezagutu zuan IV mendearen asieran Zesarea'ko Eusebio edestilari ospetsuak berak.

ALEXANDRUKO FILON, juduek antziña artan izan zuten filosofilaririk azkarrena, benetako platonzale aundia eta benetako yabezale aundiagoa. Naiz Palestina-barruan ez, izugarritzko eraginmena izan zuan diasporako juduen artean. Laugarren ebangelioko Jon'ek ere ezagutzen zuan Filon'en oldozkera.

Asko eta ongi idatzi zuan Grezi'ko filosofilarien bidetik, Platon'en bidetik batez ere. Geroago sortuko dan •neoplatonismo. edo •platontasun berrian• bidea gertutu zioten jakintsuen artean onenetakotzat artua izan daiteke ezpairik gabe.

Bibliaren •eksejesis. edo •azalpena. egiterakoan alegori edo irudizale izan zitzaigun. Bibliako gertakizun askotan, gertakizuna bera ez baiña zerbaiten irudi bat ikusten zuan, eta gertakizun aren zertasunari eta nolatasunari baiño, irudi aren esan-naiari ardua geiago ematen zion. Bere azalpengintza orrek, badu gaur egiten danarekin kideetasun nabaria.

Diasporako juduetaz berri asko eta balio aundiko berriak eman zizkigun; esenitarretaz adibidez.

PLINIO ZAARRA, Krist'aurreko eta Kristo'ren garaieko juduen biziera ezagutzeko, puntu batzuetan, laguntzaille egokia. Edestilari, izkuntziztilari, eta batez ere izadiztilari ospetsua, Kristo bizi zala, 23'garren ala 24'garren urtean Itali'ko iparrean, Komo'n jaioa. 97'garrenean il zan, Ponpeya'ko uria Besubio sumendiak kiskali zuanean.

Jakintza-gizon izateaz gaiñera guda-gizona ere bazan-da, Besubio'ren aldeko itxasoan aurkitzen zan orduan, Itali'ren egoaldeko itxasontzidiaren buruzagi. Jakin-miñak eraginda, sutan zegoan mendira urbildu zuan bere ontzia, lerketa ikaragarri aren berri jasotzeko. An arrapatu zuten Besubio'k jaurtitzen zituan lurrinki kiskalgarri edentsuek.

•••

Iru idazle oiek ematen dizkiguten albisteei eskerrak, eta batez ere Qum Ran'go leize-zuloetan aurkitutako larrukiei eskerrak, aski ongi ezagutzen dugu, Krist'aurreko I mendean eta Kristo jaio ondorengo I mendean judutarren biziera nola edatua zegoan.

•APOKRIFOAK». Liburuak berak bere egilletzat ematen duanarena ez dan liburuari esan oi zaio apokrifoa. Adibidez •Donetomas'en Ebangelioa» apokrifoa da, ez bait da Donetomas'ek idatzia, naiz liburuak berak baietz esan. Bere izena **izkutuan** utzita, Donetomas'en izena artuz idazle ezezagun batek idatzitako liburua da. Orixe esan nai du •apokrifo» itzaren sustraia dan elenerazko •apocrufo» itzak: »izkutukoa».

Ori, liburu mota orori dagokionez. Bibliako liburuei dagokienez, apokrifoak, Jainkoagandiko goi-argi edo ispirazioz idatziak izan ez diran liburuei esaten bait zaie, naiz liburu oiek, itxuraz, Bibliako beste liburu egiaz Jainkoagandiko goiargiz idatzitako aiek bezalakoak izan.

Itun Zaneakoak batzuk, Itun Berrikoak beste batzuk, liburu apokrifoak ugari dira: Bai beintzat 44.

Itun Berrikoen artean baditugu erejeek idatziak diranak, baiñan baita sinispen zuzeneko kristau zintzoek idatziak ere.

Zergaitik kristau zintzo batek, erlijioari-buruzko liburu bat idazterakoan bere izena izkutuan utzita, Bidali baten izenaz, Donetomas'en izenaz adibidez, bere burua jazten zuan? Ori egiñez irakurlea atzipetzen zuala, ez al zan oartzen?

Ez zan bere asmoa iñor atzipetzea. Ez zuan gaiñera iñor atzipetzen, Ori garai artako elertian oiturazko gauza bait zan.

Bigarren mendearen asieran, eta urrengo urteetan, — aro ortakoak bait dira Itun Berriko apokriforik geienak erejiek indar artzen asiak ziran,

gnosikeria, batez ere. Giro ortan, idazle kristauen leia, beren liburuetakoa dotriña Bidalien denboratik zetorren dotriña zala irakurleei adieraztea izan zan: Dotrin ura, alegia, ez zala geroago asmatutako dotrin okerra; Bidalien denboran eta Bidalien ardurapean sortua zala; zuzena beraz, eta egiazkoa.

Eta ori adieraztearren, bakoitzak bere liburua Apostolu edo Bidali baten edo Bidalien denborako kristau txit ezagun baten izenaz oroitzen zuan: «Donetomas'en Ebangelioa», •Maria Madalena'ren Ebangelioa», •Nikodemo'ren Ebangelioa», •Gamaliel'en Ebangelioa», •Doneztebe'ren Apokalipsia», «Maria Birjifiaren Epistolak», eta abar.

Arlo ortan berdin jokatu zuten katolikoek eta erejeek, baita kristau gnosizaleek ere. Aiek bezala auek ere, beren aburuak Bidaliengandik zetozen aburuak zirala, sinistarazi nai bait zuten.

Apokrifo oiek, naiz Jainkoaren Itza izan ez, badute balio ederrik edestigintzarako. Entzun opusdeitarren giroko biblilari bati:

•Los apócrifos del Nuevo Testamento constituyen una fuente de estudio muy importante, bien como confirmación de la revelación, bien como reflejo del ambiente literario en que han nacido los escritos del Nuevo Testamento, bien por el influjo que han tenido en la formación de tradiciones religiosas populares, bien, finalmente, porque descubren muchos rasgos de los herejes, interesantes para la historia del primitivo cristianismo y para la de la Iglesia» (Muñoz León).

PALESTINA ARTAKO GIZARTEA

Politikari eta erlijioari dagokienez, alderdi eta talde ezberdiñetan zatiturik aurkitu zuan Elizak Palestina'ko juduerria.

Erlijio-azietan eraginmenik aundiena zuan alderdia, Farisaitarrena zan. Saduzaitarrena berriz politika arazoetan itzalik aundienekoa, gizarte-bizitza ofizialaren maillan beintzat.

Baiñan bi oietaz gaiñera baziran alderdi eta talde geiago ere.

ERODESTARRAK. Ez ziran asko alderdi ontako jendeak, Erodes izeneko erregeei ez bait zien judutarrek ongi-nai aundiegirik erakutsi. Alare, judutar bat baiño geiago bildu ziran Alderdi artara.

Egiten da Itun Berrian ere beren aipua. Eta lenen Elizak berak izan zituan erodestar batzuk.

*..

SADUZAITARRAK. Palestina'ko jenderik aberatsenak ziran. Erlijioari buruz, Idazti Donea bakarrik onartzen zuten, agoz-agozko jakintza zarrari uko egiñez. Bazuten ortan XVI mendeko protestalarien antza.

Idazti Doneko liburuetan ere Moise'ren •Pentateuko• edo •Bost-Liburu-Sorta• ura zuten maiteena.

Ez zuten ildakoen berbizkunderik sinisten; ez omen da ba bost liburu aietan berbizkundearen aipu argirik agertzen. Beste juduek bezala, edo aiek baiño geiago bearbada, garrantzi aundia ematen zieten mundu oni eta mundu ontako gauzei. Mundu ontan zigortzen omen du ba Jainkoak gaiztoen txarkeria, eta mundu ontan saritzen, aberastasuna-bitarte, zintzoen bizitza garbia.

Orregaitik, aientzat— amasei mende geroago Kalbino'rentzat bezala — aberastasuna Jainkoaren grazia zan.

Politikari dagokionez, atzerritarrekin ongi konpontzearen aldeko ziran. Oridalata erromatarrek Palestina artu zutenez gero, saduzaitarrak izan ziran Palestina'ko judu-agintariak. Beraienak ziran Sanedrin izeneko juduen Epai-Batza Nagusian aulkirik geienak, eta almenik aundikoenak.

Beraiek ziran judu-erlijioaren liturgiko zuzendariak ere. Saduzaitarrak izaten bait ziran Jaupari Nagusiak, eta saduzaitarrak bait ziran jauparirik geienak ere.

Saduzaitarrak ziran Josu eriotzara galdu zuten Anas, Kaifas, eta sanedrin artako epaillerik geienak.

Ildakoen berbizkunderik sinisten ez zutelarik, pentsa dezakezu, nolako jitez artuko zituzten Josu'ren illobiaren zaindariak, auek Josu berbiztu zalako berria ematera joan zitzaizkienean.

Saduzaitar auei atsegin ematearren erail zuan I Erodos Agripa'k Jakoba •Nagusia», Bidalien artean aurreneko ziñopa edo martiria. •Consecuencia del odio total de An'as y su familia a los cristianos» izan omen zan erailketa ura» (GER).

Jakoba au da españiarren Santiago. Ez zan orduan Esparii'ra etorri. Eta askoz gutxiago, jakiña, erdi-aroan, mauritarrei ezpataz Klabixo'n lepoa moztutzeroa. Bere gorputza Konpostela'n dagoalako ori ere, kondaira edo leyenda utsa da.

FARISAITARRAK. Saduzaitarren adiskide motzak. Geiago ziran erlijio-taldea politika-alderdi bat baiño. Judutar eraspentsu zintzoak, ildakoen berbizkundera benetan sinisten zutenak, Asabengandiko agoz-agozko arau zaarren eta Moise'ren legeari urteak-zear erantsi zizkieten •oituren» maitaleak, itxuraz akatsik gabeko gizakumeak.

Arroak ordea, berekoiak, erriaz geiegi arduratzen ez ziranak.

Alare eraspén aundiz ikusten zituan erriak. Santuak zirala uste bait zuan.

Maite zuten Idazti Deuna, baiñan maiteago beren asabengandiko oiturak» eta beren maixuek Idazti Deunari-buruz asmatutako •aburu», «aolku» «arau» eta •aginduak».

Politikara ez ziran sartzen farisaitarrak. Baiñan itxarotzen zuten Mesia, atzerritarren menpetik yaretuta Israel'i askatasuna biurtuko zion Erregea, Dabid'en antzeko Erregea, izango zala uste zutelako, zalantzarik gabeko gauza da noren alde ekingo zuten, Errroma'ren aurka Israel'ko abertzaleak gudara jeikitzen ziranean.

Farisaitarrak ziran, ez saduzaitarrak une artako erri xearen gidariak.

«ZELATARIAK»: •ARDURATSUAK». Aberriaren askatasun osoarentzat zan, arduratu aien ardura guztia.

Orregaitik, naiz erlijioz yabezale zintzoak izan, politika utsezkoa zan bereiziki, aiek osotzen zuten Alderdia.

Erromatarren etsai amorratuak, Israel'ko askatasunaren alde noiz gudan asi zai irrikatzen zebiltzan.

Odol beroko jendeak ziran, beren buruak eriotzaraiño eramateko, baiñan begi motzekoak, beren aultasuna eta arerioaren indarra neurtzeko; eta adimen urrikoak, beren ekintza txoro aren ondorioetaz oartzeko.

Buru murrizteko arduratsu oiek izan ziran, 66'ean aurrena eta 135'ean gero erromatarren aurkako bi iraultza txoroen ondorean, Israel ondamen osora eraman zutenak.

ESENITARRAK. Ez ziran politikazko alderdi bat. Alderantziz politikagintza orori bizkar-emanetz, uts-utsean Erljiozko Talde bat osotzen zuten, gaur-egungo Praille-Anaidien antzera. Izan ere bazuten gure lekaideekin kidetasun osoa.

Naiz Palestina guztian asko edo gutxi zabaldurik egon, Jordan'ez aruntz Perea'ko lurretan eta Itxaso Illaren ertzetan bizi ziran geienak. Or zegoan Qum Ran izeneko lekaidetxe ospetsua bera: arri ta ondar utsezko lekaroan.

Baziran Palestina'tik landa ere. Ejito'n adibidez, Filon'ek aditzera ematen digunez.

Qum Ran'go lekaidetxe ortan aurkitu dira, garai artako juduen biziera ulertzeko ainbat argi eman diguten larruki zaarrak. Larruki oietan zaarrenak Kristo'aurreko III mendekoak dira, eta Kristo'z geroko 66'garren urtean juduak Erroma'ren aurka gudan asi baiño lentxeagokoak, •berrienak». Ainzuzen, gudu ura piztu zanean gorde bai zituzten leize-zulo batean larruki aiek danak Qum Ran'go lekaideek.

Larruki oietan, Kristo jaio aurretik idatzitako aien artean, Bibliaren Itun Zarreko liburuari zati ugari ta ugari agertu zaizkigu. Ester izeneko liburuaren zatirik ez da agertu. Bai ordea beste liburu guztienak. Eta Isaias profetaren liburua, Kristo'ren bizitzaz eta eriotzaz geiena itzegiten duan liburua, oso-oso agertu zaigu!

Ez aztu, — au bait da izugarritzko garrantzia duan gauza Josu'ren jaiotzaz, nekaldiaz, eta eriotzaz, ain argi itzegiten duan Isaias'en kopi edo birridazki ori, — Qum Ran'en agertutako bir-idazki ori alegia Kristo jaio baiño leenago egiña izan zala; eta Kristo jaio baiño leenago egiñak izan zirala, Qum Ran'go leize ortan agertu zaizkigun Itun Zarreko beste liburuen zati ugari aiek ere.

Orra Berdiñak dira Bibliaren bir-idazki zaar aietako esakizunak eta gure eskuetan darabilzki gaurko Biblietan irakurtzen ditugunak. Millaka urtetan ez da Biblian dagoan Jainkoaren Itzik aldatu.

Eraspen eta jainkozaletasun aundiko gizonak ziran esenitarrak. Lekaideak ziran: beren sinispidea benetan artzen zuten lekaideak. Bizi ere, lekaidetxeetan gure lekaideak bezalaxe bizi oi ziran. Berdin-berdin.

Lekaidetxe aiek bazituzten, gure prailleen •irugarren ordenetako» jendeen antzera lekaidetxeetan bizi ez ziran esenitarrak: eta baita era ortako sendi osoak ere. Baiñan esenitar ez-lekaide berauen artean ere, baziran komunitatean, ots, senidetasun osoan, guztia guztiena egiñez, erdi-lekaide ta erdi-lekaime bezala bizitzen ziranak. Gero, Luka'k dioskunez, Jerusalem'go lenen-kristauak biziko diran bezala!

Aski begi gaiztoz begira oi zieten esenitarrek farisaitarrei eta saduza itarrei.

Ez begi goxoagoz farisaitarrek eta saduzaitarrek esenitarrei, izan ere, aiek, aien eskuetan zegoan Jerusalem'go Jaurettxeko gurketa gauza zikiña zala esaten bait zuten. Jauretxea bera ere, ez zitzaien atsegiña, Jainkoaren

gurketari dagozkionetan axalkeri edo kanpokeri ororen etsai ziralarik, Jaikoaren gurketa gizakumeak biotz-barruan egin bearra zan gauza zala uste bait zuten. Alperrikakoak zirala iduritzen zitzairen Jauretxe artan egiten ziran oparizko abere-ilketak, eta opari oien antzeko zirirroni dizdiratsu guztiak.

Ortan ere izan zuten XVI mendeko Lutero, Kalbino eta beste protestalarien antza.

Jauretxean oparia eskeintzen zuten apaizen eskuen zikinkeria eta esku zikin aiek eskeiñitako opariaren donetasuna bereizten, ez aiek, — esenitarrek —, ez auek, — protestalariak —, ez bait zuten asmatu.

Ez ziran noski asarre geldituko gure esenitarrak, Josu'k emakume samaritarrari esanaren berri jakitera iritxi ba'ziran. Emazteki arek Jainkoa Jerusalem'go Jauretxean gurtu edo Garizin'go mendian gurtu galde egin zionean, onako au erantzun bait zion Josu'k: •Badator aldia, iritxia ere da aldia, Jainko-gurtzailleek Aita gogoa-bidez eta egiaz gurtuko dutena. Aitak olako gurtzailleak nai bait ditu. Jainkoa izpiritua da eta bere gurtzailleek izpirituz eta egiaz gurtu bear dute Jainkoa». (Jn. 4, 23-25).

Josu'k ordea, — farisaitarrei anei aldiz esan zien bezala —, Jainkoa gurtzeko itz utsek eta zirimoni soillek biotz-barrendiko gantzurik ez ba'dute ezer gutxi balio dutela, erakutsi nai izan zion emakumezko samaritar ari. Ez zan orduan Jainkoa non gurtuz ari. Jainkoa nola gurtuz baizik. Josu bera ere, Jainkoa gurtzera, Jerusalemgo Jaurettxera bein baiño geiagotan igo bait zan.

Orrela ulertu zituzten lenego Icristauek Josu'ren itz aiek, Aren irakaspena jarraituz egunero igotzen bait ziran, Jainkoa gurtzeko, Jerusalem'go Jaurettxera.

Jerusalengo lenen kristauak ere esenitarren antzeko senidetasunean guzia guztiena egiñez bizi ziralako, uste izan du norbaitek aidetasunaren antzeko zerbait izan zala agian esenitasunaren eta kristautasunaren artean: lenengo kristautasun ura, esenitasunaren adar bat-edo izan ote zan, alegia.

Ez, ordea, ez. Ez zan bi igikunde aien artean aidetasunaren aztamik izan. Zearo ez berdiñak bait ziran esenitarren eta kristauen oldozkera eta jardunkera, garrantzirik aundieneko atal guztietan.

Eta, ori, bi taldeen elburu ber-beretik asita: Esenitasunaren elburua, lekaroko bakardadean mundutik urruti, munduagaitik axolik gabe, bere baitara bildurik gogo-otoitzean aritzea zan. Elizaren elburua berriz, bere baitatik irtenda mundura abiatzea, mundua salbatzeko. •Zoazte mundu guzira Berri Ona aldarrikatze-, agindu-eman zien Josu'k bere elizkideei.

Esenitarren zaletasuna, bakartusuna zan, eta bakartasunera jotzen zuten esenitarren jarraileen artean ere al zuten guztietan al zuten guztiak. Josu ez zan bakartasunean bizitu, erriko jendearen artean baizik, bai arotz bezala, eta bai, batez ere, bere azkeneko iru urtetan irakasle bezala.

Berdin lenen Elizako kristauak: jende-tarteko gizakumeak izan ziran.

Esenitarren bizitz-oiñarria, otoizketarekin batera, penitentzi-egintza izan zan. Aszetak izan ziran. Josu ordea, ez zan aszeta izan. Bere biziera Palestina'ko erritarren biziera ber-bera izan zan. Gero ere, Berri Ona zabaltzen asi zanean otordu on batera deitzen ziotenean, kezkarik gabe joan

oi zan ara..

Ori ez zuten sekulan esenitarrek egingo. Askoz gutxiago pekatarien otordu oparoetara agertu. Josu'k berriz bildurrik gabe jaten zuan pekatariekin. Eta Aren bidetik jo zuten bere jarrailleek ere.

Esenitarren mundua, judu erria izan zan: Palestina'ko eta diasporako judu-erria. Mundu zabal guzia zan ordea Elizaren mundua: mundu zabal osoa eta mundu oso ortako kultura, enda, erri ta gizakume guztiak.

Mugarik gabeko orotasun orren ondorioz, gizarteko bizitzari dagokionez ere gizakume guztiengana iritxi bear du, Josu'ren aginduz, kristau guztien ardura. Gizakume guztiak, danak, baita etsaiak ere, maitatzea agindu bait zigun josu'k. Esenitarrek, ez ziran ori ulertu uts egiteko ere gai izango.

aa*

Egia noski, aipatu ditugun Alderdi eta talde oietako jendeak izan zirala, bataioa artuta, lenen Eliz aren altzoan. Baiñan ez asko. Palestinar arruntak ziran ba, Lenen Eliz artako kristauak, geienak beintzat. Jende arrunta berriz, erriko jende xea, Alderdi eta talde oietatik-at bizi zan orduango Palestina artan.

ELIZAREN SORKUNTZA

ELIZAREN SORTZAILLEA, Josu bera izan zala, ezbaiean jarri ez daitekean gauza da. Izan ere, berea, berea bakarrik, izan zan gure Eliz au eratzeako asrnoa, eta berak, Josu'k berak bakarrik, eman zion Gure Eliz oni gure Eliz onek duan guztia:

- Bere elburua, bere zer-egiña; Eta zer-egin ori betetzeko, eta elburu ortara iritxi aal izateko Elizak bearrezkoa duan guztia:

- Bere dotrifi^g.ren osotasun guzia. Eta autoritatea, aginmena, dotrin ori munduari, autoritatez, ots, aginduz, erakutsi aal izateko;

- Utsezintasuna, dotrin ori erakustean okerrik ez egiteko;

- Zazpi Sakramentuak, dotrin ori ontzat artzen dutenei izadiz-gaindiko bizia emanez, zeruko atea irikitzeke;

- Eginkizun ori zuzenki bete aal dezan, Jerarki edo Agintaritz Done bat, JERARKIA, Jerarki ortako lenen agintariak berak bere agoz izendatuz.

- Aalmen guztiak Jerarki orri, bere artaldea egoki zaindu dezan: Legeak emateko, Lege oiek betetzen ez dituana zigortzeko eta pekatuaz damutzen danari barkatzeko aalmen orokorra.

Eta jerarkia bait da Erakunde ororen ardatza, ederki dio Encyclopaedia Britannica»k:

•When the apostle Peter is represented in the New Testament as confessing that Jesus is the Christ, the Son of the living God, he speaks for the Christianity of all ager. And it is in response to this confession that Jesus is described as announcing the foundation of the Christian Church: You are Peter and on this rock I will build my Church, and the powers of death shall not prevail against it».

Euskeraz:

•Aro guztietako kristaudiaren izenean itz dagi Kepa'k, Itun Berriak Bidali ori -zu, Kristo zera, Jainko biziaren semea zera- esaka aurkezten digunean. Eta aitopen orri erantzenez agertzen digu Josu ere Eliz Kristauren sorkuntza iragartzen: 'Zu Kepha zera eta kepha edo aitz orren gaiñean eraikiko dut nik nere Eliza, ta eriotzaren indarrak ezin izango du iñoiz menderatu».

- Eta, azkenik, «mendeak akitu arte- -usque ad consumationem saeculi» Josu bera bere Elizarekin egongo dalaren itza!

Oso edestilari gutxik bere-egingo luke gaur, antziñako razionalisten esakizun au: -Dans la perspective que ete la sienne on ne peut pas dire que Jesus ait fonclê une -Ez daiteke Josu'k eliz bat sortu zuanik esan, Aren munduari so-egiteko era kontuan artzen badugu (J.P. Josua teologilari liberala).

Ainzuzen Josu'k munduari begiratzeko era gogoan artzen ba'dugu, aurkitzen gera arek Eliza sortu zuala zalantzarik gabe egitzat artzera bearturik.

Izan ere, munduari, berak salbatu bear zuan izakiari lez so-egiten zion

Josu'k. Mundu ori salbatzera etorri zan. Mundu orren zabalerako baztar guztietara bere salbamena iritxi zedin bildu zituan ikasle batzuk; eta mendeak zear-ere bere salbamen ura munduaren bizitzako une guztietara luzatu zedin tajutu zuan ikasle aiek oiñarriztat artuz bere Eliza: mundu ontako Jainkoaren Erreñua».

Elizak duan guztia, Josu'gandik artua du. Josu izan zan beraz Elizaren irasle bakarra.

111

PENTEKOSTE-EGUNEKO GERTAKIZUNA •Bidalien Egirietako» bigarren atalean damaigu Luka Doneak.

Gertakizuna kontatzeko era, badaiteke garai artako idazle judutarren •elerti-era» edo •genus litterarium» bat izatea. Baiñan gertakizuna bera ezpairik ez duan egia da, egiazko edesti ziuerra. Bidaliek berak eta lenengo kristaudi osoa ditugu lekuko, testigu, eta •lekutasun ori zalantzan ipiñi aal izateko, arrazoirik ez da-: •Ce temoignage n'a auquene raison d'etre mis en doute- (Danielou).

Egia. •Beste munduko gauzarik egitatz artu nai ez dutenen aurre-iritzi razionalistaren izenean bakarrik izan daiteke zalantzan jarria»: •Il ne saurait etre suspecte qu'au nom de prejuges rationalistes qui recuseraient a priori l'existence d'evenements sumaturels» (Id.).

Pentekoste-Egun ori noiz gertatua dugun?

Ona Tiberio zan orduan Erroma'ko inperatore eta Pontzio Pilato Judea'ko jaurle. Tiberio 19'garren urtetik 37'garren urteraiño egon zitzaigun agintzen. Pilato'ri berriz, 21`garrenean eman zitzaion agintaritzza eta 36'garrenetik 37'garrenera dijoan neguan izan zitzaion kendua. 37'garren urtea baiño lenago izan zan beraz Gogo Deunaren etorrera. 30'garrenean seguruaski.

Pentekoste-Eguna da Elizaren edestiko lenen eguna. Baiñan Pentekoste-aurretik era asia zan Eliza, — Kristo'k, bizi zalarik, -nere erreñua» eta «nere artaldea» esan oi zion Eliz ura asi zan lanean, Kristo'k berak •erreiriu artako giltzari» eta •artalde artako artzai» izendatu zuan Kepa'ren esanera, Judas saltzaillearen lekua bete zezan, Matia apostolu aukeratzu.

Ez zan Erreñu zabala, ezta Artalde ugari oparoa ere, une aietan gure Eliza: •Eun da ogeirenbat anai- Jerusalem'en, diosku Luka Doneak bere -Apostoluen Egiriak» izeneko liburuan.

Naiz txikia izan, •Erreiriu» artako errege eta «Artalde» artako artzai bezala agertzen zaigu beti Kepa, eta bere aalmen ela eskubideetaz ziur.

Naiz txikia izan, lenen Eliz koxkor arek ez du bere txikitasuna dala-ta kezka motzik. Alderantziz kemenez beterik aurkitzen da eta bere eginkizuna betetzeko prest. Badaki „zoazte mundu guztira• esan ziola josu'k; eta josu'ren agindu ori betetzeko gerturik dago.

Baldintza bat bakarra eskatzen dio Kepa` , Judas'en lekua betez

k u V, y, x.:v_t Nx:s

--- ,f'l. Singpλ. ..

(.)o

T H IVA—C\I A aDJ\

f...:CIL>13,".n.)

...f, a Pilia O ig.....

Pontus

N

Bf..1-l

si

NC-

(er...n, cui, n!...; ,47n^{mm}; 5... Coman.:i fonf'n9.

...6,,Waticus"

G

Poiemoniacus

---IC23-72

C7l... S.....

"S:--<44 (1/66

k.

alatia

O

C

y

s

E-i

iv

4— My sia

i

i

tes.S.ijus

it.

...110T

—Lesbus

:S<-ia"-93"m A

Ly dia-

i <

xOI

A

.. Chius

5—SaMil

Ephes

laort'ce*

41,lelus

IPisichp

L, a cirn a

l ryana

l

l

l

l

l

l

l

l

l

l

l

l

l

l

l

l

l

l

l

l

l

l

l

l

l

l

l

Creta

CYPRUS (Salama)

S

0 50 100 150 200

Chilometri

Apostolu aukeratua izan zitekeanari: Jonek bataiatu zuan ezkeru zerura igo zan arte, josu'rekin ibillia izateaz gaiñera, bereiziki, Aren berbizkudearen lekuko izatea.

Ziur bait zegoan Kepa, Elizaren eginkizuna, ikaspide berriak asmaatzea ez baiña, Josu'k erakutsia, eta soilki Josu'k erakutsia bakarrik, zintzo gordetzea eta munduari bere osotasunean erakustea zala.

Pentekoste-eguna, jaia zan leendik ere juduentzat: uzta berria jasoz gero, Yabe'ri eskerrak emateko aukeratu zuten eguna. Orregaitik atzerrietatik etorritako jende asko zegoan Jerusalem'go urian, 30'garren urteko Pentekoste-egun artan: Atzerri-sorta ugaria da beintzat Luka'k bere liburuan aipatzen diguna. (Bid. 2. 1-14).

Atzerri aietatik etorrita Jerusalem'en aurkitzen ziran jende aiek, ia danak, judutarrak ziran odolez eta sinispidez. Diasporan bizi ziran juduak.

...

DIASPORAK GARRANTZI AUNDIA izanen du Elizaren zabalkunderako, Pentekost'eguna ber-beretik asita.

Elenerazko •diaspora• itzak •barreiakuntza• esan nai du, eta orduko mundua-zear barreiatuak, ots, zabaldurik zegoan judu-jende-multzoari esaten zitzaion •diaspora».

Zarra zan diaspora Elizaren sorkuntza aurretik ere.

Kristo-aurretiko 721'garren urtean israeldarrek Ninibe'ra baiturik eramanak izan ziranean, eta geroago 596'garrenean eta 586'garrenean, judutarrak era berean Babiloni'ra eramanak izan ziranean asi zan sortzen diaspora, katigu aiek askatasuna lortu ondorean ere, judu asko — geienak seguruaski — ez bait ziran Palestina'ra itzuli.

Lur txikia eta aski legorra izanik, Palestina'k ez zezakean ba gizakume askorik mantendu.

Jende argia, ausarta, trebea ta langillea da gaiñera eta jende indartsua izan da beti judu-jendea. Muga estuegiko lurraldea gertatzen zitzaion Palestina. Bearrezkoa izan zitzaion mundu osoaren zabaltasuna, bere gaitasuna — ekintza orotarako gaitasuna — lanean ipiñi aal izateko.

Ala, urtetik urtera, aunditzen eta aunditzen joan zan diasporako juduen kopurua.

Antziña zaar artan, Kriseaurreko 332'an Ejito'ko Alexandri eraikia izan aurretik, Babiloni zan diasporako judu-erririk aundiena, eta jakinduriz ospetsuena. An sortu zan •Talmud• esan oi zaion ale askoko liburu-sorta.

Gero, Alexandri'k artu zion aurrea, bai biztanle kopuruz, eta baita jakituriz ere. Emen, Alexandri'n, izan zan egiña eberkeratik •koino, izeneko elenera •batura Bibliaren itzulpena: •Irurogeitamaren Itzulpena..

Kristo jaio zanean, aundia zan, jakintzari dagokionez, Alexandri'ko diasporaren dizdira, eta jakintzazko ortzi edo goi-zeru artan, izarrrik dizdiratsuen, filosofilari bat: Filon, kultura zabal aundiko eta sinispen

sendoko judutarra.

Josulcristo'ren denboran, milloi batera ez ziran iristen Palestina'ko juduak, baiñan bost milloi bizi ziran Palestina'tik kanpora diasporan. Lautik bost milloira, egia esateko Erroma'ko inperio-lurretan; beste asko inperiolurretik landa bizi bait ziran. Pertsu'n eta Mesopotami'n, bereziki. Baiña baita Ejito'tik egoaldera, Etiopi'runzko lurraldeetan ere.

Gaur-egun ere, judutarrik geienak diasporan bizi dira, eta bizi ere — ia danak — ondo aberaski bizi gaiñera. Hitler'ek judu-erailketa asi zuanean, 16 milloi ziran diasporakoak eta 475 milla bakarrik Palestina'koak. Orain 13 milloi dira diasporan eta 3 milloi t'erdi Palestina'n.

Erroma'ko inperiolurrari dagokionez berriz, uri aundixamar guztietan bazan judutegi bat bere sinagogarekin, edo sinagoga bat baiño geiagorekin uri artako judutegia, — Erroman bertan, Alexandri'n, Antioki'n eta beste Sortaldeko uri askotan bezala jendez aski aundia edo oso aundia ba'zan.

Alexandri'n adi-bidez uriko biztanleen ia-ia erdia, 1/40'a, judu-jendea omen zan.

Esan daiteke, Palestina'ko judu-sendi bakoitzak bazuala Diasporan, aide edo lagun edo adiskide, jende-multzo ezagun ugaria.

Diasporak, era askotako laguntza ematen zion judutar bati munduazear ibiltzeko:

- Non bizia eta zer jana. Uri batera iristean, sinagoga joango zan judu ibiltaria. Sinagogako zuzendaria arduratuko zitzaion ostatua billatzen,

- Non lan egiña. Judua langillea da. Ez zaio besteren ogitik jaterik gustatzen. Paul Donearen antzera, •beren eskuen lanetik beren bizirako eta beste laguntzeko» bearrezkoa dana lortzea dute juduek atsegin. Eskuzabalak ere bai bait dira. Ba, sinagogak aurkituko dio non lan egin judu etorri-berriari.

- Non eta nori itzegiña. Edonork dakian gauza da sinagogak juduen otoitz-toki dirala. Oitura da sinagogetan, larunbatean juduak otoitzera biltzen diranean, Liburu Santuetako zati bat irakurri ondorean, etorri-berriei, batzarkideen aurrean zer bait esan nai duten galdetzea.

Ederki baliatu ziran oitura ortaz Bidaliak, Ebangelioaren •kerigma» edo aldarriketa egiten asteko.

Diaspora zabaleko sinagogei eskerrak zabaldu zan kristautasuna ain azkar eta ain urrutiko lurraldeetaraiño.

Diasporako juduak, Jerusalemgo Jaurettxera begira bizitzen ziran; arremen estuak zituzten Jauretxe artako jaupari eta irakasleekin, eta ugari etortzen ziran erromes, Yabe bere Jauret.xe artan gurtzearren, Jerusalemgo urira.

Erri ta enda guztietan oi dan bezala, ez zan diasporako juduen artean jende txirorik falta, baiñan geienak diruz ongi zebiltzan gizakumeak ziran, eta, asko, arras aberatsak. Ona zer dion judutarrek argitaratutako •Encyclopaedia judaica»k gai oni-buruz: •The vast sums of money which flowed to the Temple of Jerusalem from all parts of the Diaspora attest in

some measure to the existence of wealthy circles among the jews».

Euskeraz: •Diasporako baztar guztietatik Jerusalem'go Jaurettxera garai artan oparo zetorren dirutza mardulak, bere erara naiko ederki adierazten digu juduen artean aberats-talderik aski bazala».

Ta urtero bezala, ugari etorri ziran josu il zan urte artan ere, Jerusalem'go Jauretxean Yabe gurtzera, Diasporako judutarrak.

Ala, kristautasunaren lenengo apostoluak Palestina`tik at, Pentekoste-egunean Kepa Deunari entzunda kristau bihurturik, beren sort-errietara itzuli ziran diasporatar aiek izan genituan.

Aiek zabaldu ziguten beren errialdeetan beste inork baiño lenago Josu il eta berbiztuaren albiste salbatzailea.

Kepari entzun zioten aien artean, odolez juduak ez ziran jendeak ere aurkitzen ziran bearbada. •Proselyti», •jarrailleak», eta •Timentes Deum» Jainkoaganako eraspentsuak- esaten zitzaien, naiz judu izan ez, Yabe sinisten zuten jende aiei. Gaurko biblilarien ustez, aurrenekoak, •Proselyti» aiek, erdaintza artuta guzti, erlijio-legez egiazko juduak omen ziran.

Besteak, Jainkoaren eraspentsuak», naiz Yabe egiazko Jainkotzat sinistu, erdaundurik ez zeudelako, ez omen ziran judutzat artuak izaten. Bi mota auetako jendeak ugari igaro ziran kristautasunera Kepa'k eta beste Apostoluek Palestina'tik at ebangelioa aldarrikatzen asi ziranean. Esan dugun lez, eta ikusiko dugun lez, juduen Diaspora zabal ura laguntza aundia izan bait zitzaion Elizari, mundura irten zanean.

Eta baita irten aurretik ere, Palestina'ko kristau berriek, berealaxe jakiñari bait zieten diasporako bere aide ta ezagunei Josu Kristo'ri-buruz Palestina'n gertatutako guzia.

Juduek aspaldi azturik zeukaten eberkera, beren jatorrizko izkuntza. Diasporakoek, bizi ziran tokiko izkuntzak itzegiten zituzten, eta, jakiña, baita gerkera ere Sortaldekoek, eta latera Sarkaldekoek.

Ez zuten ordea ez itzegiten ez ulertzen Palestina'n bizi ziranen arameiera, naiz izkuntz ori eberkeraren aidea izan.

Jatorriz, Babiloni'ko izkuntza zan arameiera, juduek an Kriseaurreko VI mendean katigu egon ziranean ikasia, eta, gero, Ziro'k askatasuna eman zienean, Babiloni'tik Palestina'ra ekarria, baiñan Palestina'tik diasporara joan ziranez azturik zeukatena.

*••

GLOSOLALIA esan oi zaion doai zerutarra eman zien Bidaliei Gogo Doneak bere etorreraren adigarritzat Pentekoste-egun artan.

Eleneraz, •glossa» itzak •mingairia» esan nai du. Ortaz, •glosolalia», era miresgarrian mintzatzeko aalmena da.

Iru motako glosolalia aurkezten digu bere orrietan Idazti Doneak:

- Gauza izkutuetaz era ulerkaitzean itzegiteko aalmena. Ori zan Korinto'ko Elizan gertatzen zana. Paul doneak, Eliz artan batzuek •itzegiteko doaia» eta beste batzuek •aiek esaten zutena ulertzeko daia zutela, esaten bait digu. Eskierki ez zan ori Pentekoste-eguneko glosolalia izan.

- Izlariak lendik ezaguna ez duan izkuntzaz itzegitea. Ez zan ori ere egun artako glosolalia izan, Bidaliek, ezagutzen zuten izkuntza bakarra, ots, arameiera erabilli bait zuten mintzatzerakoan.

- Irugarren au izan zan Pentekoste-eguneko glosolalia: Izlariak bere izkuntzaz itzezin eta entzuleek beste izkuntza batean aditu.

Izkuntza askoko jendeak zeuden an Bidaliei entzuten. Aiek, — Bidaliek arameieraz mintzatu ziran, entzuleek ordea Bidalienen ezpainenatik arameiera ez baiña bakoitzak bere izkuntza entzun eta aditu zuten.

Bazan ba an izkuntza ezberdiñeko gizakumerik! Ikus, Luka'ren aitopena:

•Arri ta belarri egiñik zeuden danak. Eta ona zer esaten zuten: Mintzo diran guztiok ez al dira galilearrak? Nola entzun diegu ba geuron jatorrizko izkuntza bereizian? Parziarrek, meditarrek, elameitarrek, eta, Mesopotarni'n, Judea'n, Kapadozi'n, Ponto'n, Asi'n, Frigi'n, Panfili'n, Ejito'n, ala Zireneondoko Libi'n bizi geranak, eta, — naiz judutar naiz •jarraille» — Erroma'tik etorri geranak, eta kretatarrek, eta arabitarrek, guztiok, geuron izkuntzetan entzun diegu Jaungoikoa goستن. Orrela aditu ditugu». (B.E. 2, 7-14).

Bazan beraz izkuntza ugari ezberdiñeko jenderik aski Kepa'ren entzuleen artean.

LENENGO AITASANTUAREN LENENGO ITZALDIAK merezi du noski azterketatxo labur bat.

Dirudianez, Bidali guztiak mintzatu ziran egun artan jendetza aundi aren aurrean, baiñan bereiziki, danen izenean, eta Eliz osoaren ordezkari bezala, Kepa Donea, bera bait zan Josu berak ezarritako, Elizaren OIS1-»ARRIA.: •KEPHA»; berari eman ere eman zizkion ba Zeruko Erreñuaren giltzak, berari erreñu orren altzoan lotu bear zana lotzeko eta askatu bear zana askatzeko eskubide orokorra;

Izendatu ere Kepa izendatu bait zuan Josu'k bere Artaldearen artzai, eta artalde ortako ardien eta arkumeen zaindari nagusi. Baitare, berari eman zion •anaiak sinismenean sendotzeko- eginkizun gurena.

Ez dakigu Luka'k Kepa'ren ezpainenetan ipintzen dituan itzak orduan Kepa'k esandako aiek berak diran, itzei baiño garrantzi geiago eman bait zioten Bibliaren idazle doneek itz aien zentzuan.

Baiñan danadala, naiz kultura laburrekoa, anitz adimen argiko gizona agertzen zaigu bere mintzaldietan Kepa Donea.

Badaki nori itzezin bear zien; eta entzule aien pentsakizun, siniskera, eta arduen araura tajutu zuan orduan, eta tajutuko du beti, bere mintzaera.

Ona, Pentekoste-Eguneko bere itzaldi aren muiña:

Josu da salbatzaille bakarra.

Auxe da berriz aitorten orren oiñarria: Josu, gurutzean erailla izan ondorean, eriotzetik berbiztu izatea.

Bañan, berbizkunde oro gauza sineskaitza dalarik, Josu'ren berbizkuntza egiztatzeko bi arrazoi erabiliko ditu Kepa'k:

- Lendabizikoa, Profeta zarrek Josu'ren berbizkundera aurre-iragarri zutela. Bera ere judutar izanik bai bait zekian aurrean zeuzkan entzule judutar aiek Profeta zarren esanari begiekin ikusten zutenari baiño sinispen geiago ematen ziotela.

- Bigarrena, Josu'k bizi zala egindako mirariak. Josu oraindik il berria zalarik, — illabete t'erdi ta egun batzuk besterik ez, il zala! — aren esakizun eta eginkizun guztiak edozeiñek errez egiztatu zezazkean gauzak bait ziran. Eta entzule aietatik askok, palestinarrek, ikusi ere ikusi bait zituzten seguruaski mirari aietatik bat baiño geiago.

Itzaldi ark izan zuan arrakastak erakusten digu ez zala Kepa baldar ibilli.

Ordurarte doi-doi izango zituan Palestina osoan Elizak 600 elizk ide: 125'eren bat Jerusalem'en bertan, eta, oietaz gaiñera, Paul Doneak aipatzen dituan 500 aiek Palestina-zear. Orain ordea, 3 milla izan ziran Kepa'ri entzun ostean, bataiatu ziranak, eta 5 milla bigaramonean edo eguntto batzuk geroago, Jauretxeko atarian egoten zan erren ura mirariz osatuta, Kepa'k berriro jendeari itzegin ondorean.

Oroi: Idazki zarretako zenbakiak ez dira fidagarriak. Obeto esateko, fidagarri, bai, badira, baiñan garai artako idazleek ematen zieten zentzuan bakarrik, ots, gaur bertan elerti errikoi edo erri-literaturak ematen dien zentzuan. Zentzu orren araura, zenbakiak ez dira matematikeetan bezala kopuru-adigarriak. Soilki, ugaritasuna, — edo urritasuna **adierazteko** adjetibu edo izen-laguntzailleak dira.

Danadala, «Bidalien Egirietan» dakuskunez mordoxka ederra bildu zan Eliz sortu-berriaren altzoan, Jerusalemgo urian bertan. •Asko eta asko ari zan ugaritzen, gizon eta emakume, Jauna sinisten zutenen kopurua», diosku Luka Doneak, aipatutako idazti ortan bertan (B.E. 5, 14).

LENEN-ELIZAREN SANTUTASUNA. Eliz gazte, sortu-berriaren donetasuna aurkezten digu Luka Doneak bere liburuaren aurreneko zatian.

Baiñan lenen-lenengo Eliz aren berri ematen digun liburu orri-bu ruz, len ere aipatu ditugun xeetasun auek gogoan euki bearrak dira:

- Luka Doneak, Elizaren edestia ez baiña Bidali batzuen edestia bakarrik idatzi zuala; eta, ia soilki, Paul Donearen edestia.

Ori dala-ta, ainzuzen, ez dugu beste bidalien ekintzen ezaguera ziurrik. Zori txarrez, auei ez bait zitzaien Luka'ren antzeko edestilari bat alkartu.

- Naiz, idatzi zigun liburua edesti-liburua izan, Luka ez zala, bera,

edestilaria, teologilaria baizik, eta, orregaitik, bere edesti-liburu orren bidez, teologilari bezala irakatsi nai zuana adierazteko egokienak iduritzen zitzaizkion gertakizun aiek bakarrik jaso zituala.

•Le livre des -Actes des Aptres, escrit tres peu de temps apres les evenements, — vers 60-64 par un homme qui, sans etre un temoin direct, baignait encore dans la tradition la plus vivante, c'est une oeuvre d'un interet unique. Il est vrai qu'il est assez incomplet parce que l'auteur, si consciencieux qu'il se voultit, n'a pas put tout connaitre et tout rassembler dis fairs, parce que son origine et ses liens personnels le poussaient considerer l'action de tel eu tel chef pltot que tout l'ensemble, parce que, surtout, comme tous les ouvrages du christianisme primitif, il n'a poit pour dessein de satisfaire la curiosite de l'histoire, mais d'exalter la foi- (Daniel-Rops).

Euskeraz:

«Bidalien Egiñak deritzan liburua, bertan kontatzen diran gauzak gertatuta bereala — 60'gn urtetik 64'gn urtera bitartean idatzia dugu. Bere egilleak, naiz berak gertakizun aiek ikusi ez, danak ikusi zituztenengandik jasoak ditualako, balio bereiziko I iburua eman zigun. Ez da, Eliz aren edestiari-buruz, liburu osoa; bere egilleak, ala nai izan baTu ere, ez bait zuan dana jakiterik eta dana biltzerik. Gaiñera, bere jatorriak, eta Eliza-baitan izan zituan arremanak, Eliz-Buruzagi batzuetaz kristaudi osoaz baiño oparago mintatzera bultzatzen bait zuten. Eta, — au garrantzitsuena—, lenen Elizako idazle guztiek bezala, Luka'k ez bait zuan bere liburua, edestizaleen jakin-naia ase ta betetzeko idatzi. Sinismena sendotzeko baizik-.

Oartxo bat bakarrik aapaldi bikain orri: Esan dugunez, gaurko biblilarien iritziz, •Bidalien Egifiak• urtetxo batzuk geroxeago idatziak izan zirala: 80'garren urtetik 90'garrenera.

Luka'ren edestia ez da beraz Lenen-Elizaren edesti osoa. Eztare, Jerusalem'go Elizaren edesti

Ori gogoan euki ez dugulako, oker mintzatu izan gera maiz aski Lenen-Elizari-buruz.

Ereje geienek ere bakoitzak bere denborako Elizari uko egiñez, eta -Santu Utsez Moldatutako Eliz Osoki Done- bat sortu naiez, Lenen-Eliz ura aipatu izan dute eredutzat. Eliz ura guztiro Santua omen zan, elizkide santuz bakarrik osotua zegoalako. Lenen-Eliz ura bezalakoa izan bear omen du Elizak beti, Kristo'ren egiazko Eliza izateko: santu utsez osotua.

Gure Eliz au ordea, pekatariz betea dalako, ez omen da egiazko Eliza, ez omen da Kristo'ren Eliza. Pekatarien eliza omen da.

Orregaitik, Eliz oni uko Lenen-Eliz Santu aren antzeko beste Eliz berri Santu bat irasi bear zutela uste izan dute erejerik geienek edestia zear. Oker ibilli dira.

Josu'k, bere Elizan, bere Elizan ainzuzen, -garia- eta •zaldalea-, -arrain onak- eta -arrain txarrak- beti izango dirala nola erakutsi zigun aztu dute. Eta lenen Eliz artan ere izan zirala santuak, bai noski, baiña izan zirala

pekatariak ere.

Izan zan an, bai orixe, izan zan an alkar-maitasuna!

Entzun Luka Deunaren itzak: •Biotz eta gogo batekoak ziran sinisleak; aietako iñork ez zeukan ba berea lez, bereak zituan gauzetatik ezer. Alderantziz, danenak ziran an, bakoitzaren gauzak; eta, zerutiko grazi ugariz doaiturik bizi ziran danak. Ez zan aien artean txirorik ere; naiz alor naiz etheen jabe ziranek, zutena salduta saria Bidalien oiñetan ipintzen bait zuten.

«Andik, ematen zitzaion bakoitzari bere bearkizunen araura (B.E. 4, 32-37).

Ta, bereala, bere soroa salduz irabazitako dirua Elizari eman zion Bernabe bat aipatzen digu Luka'k.

Asko ta asko izan ziran ezpairikgabe Lenen-Eliz aren altzoan Bemabe'ren antzeko kristauak. Aurreneko egunetan batez ere, oraindik Eliz ura aski txikia zanean.

Baiñan maitasun zoragarritzko giro aren azpian lo, bazan alkar-ezin ikusia, bazan bekaizkeria, bazan gorrotoa, eta nolako gorrotoa gaiñera!, noiznai sugaldetan lertzeko txinparta baten zai.

Laister agertu zan ezin-ikusia. Leen ere, Jerusalemgo juduek, asko edo gutxi, beti izan zuten diasporatik etorritako juduentzat alako arbuio aski nabarmen bat; eta zer esanik ez •jarraillei» eta jainkoari eraspene zioten beste atzerritar aientzat.

Ez omen ziran ba bear aiñako judu-abertzaleak; arreman geiegi erabiltzen omen zuten jentillekin, eta zaletasun aundiegitxo omen zioten elendarren eta erromatarren kulturari.

Arbuio ori bera piztu zan Jerusalem'go Lenen Eliz Santu aren altzoan ere, Eliz Santu aren altzora diasporatik jendea bataioa-bitarte gero ta geiago sartzen asi zan ezkeru.

Orrela sortu ziran Lenen-Eliz Santu aren barruan, diasporatik senide kristauei erdeñuz so-egiten zieten senide kristau jerusalendarren batzuk. Eta alkar ezin ikusi orrek, laister ekarri zuan atzetik bekaizkeria.

Diasporatik juduei •elendarrak» esaten zieten Jerusalem'go judu .ebertarrek.. Zergaitik? Aiek, ia danak sortaldetarrek izanik, eleneraz mintzatzen ziralako.

Sartu zan •elendarren» aurkako zitalkeri ura Jerusalemgo Eliz gazte aren altzora.

Entzun bâ orain Luka Deunari:

•Egun aietan, kristauak geitzen ari ziralako, elendarrak ebertain aurka marmariz asi ziran, eguneroko janari-banaketan, aien emakume alargunak ebertain auenak baiño okerrago erabiliak ziralako» (B.E. 6, 1).

Esamesa arriskugarri oiei lepo egiteko, ainzuzen, aukeratu zituzten Bidaliek aurreneko zazpi diakonoak. Danak, elendarrak, beren izenek aditzera ematen digutenez.

Ez dakigu, zazpi diakono elendar aien izendaketak istillua baretzeko

balio aundirik izan zuan.

Beta luzerik gabe sortuko da bekaizkeri ori baiño milla aldiz makurragoa, senide arteko gorroto beltza Lenen Eliz Santu aren baitan, erdaintzari-buruzko eztabaida garratzaren ondorioz.

Eta ori ere ongi era argian emango digu adieraztera Luka'k berberak, erdaintzari-buruzko istilluetaz mintzaten asiko zaigunean.

Baiñan, pekatari ugarien alboan egiazko santuak, santu ugariak, izan bait ziran Lenen Eliz bikain aren altzoan, santu aien alkar-maitasuna aurkezteko, aien batasuna aipatzen digu Luka edestilari teologigilleak, eta batasun orren adigarritzat, guztia guztiena zutelarik, alkarrekingo biritza.

Zer esan •alkarrekin biritze« orri-buruz?

- Lenengo, lekaroan alkarrekin sendi bat bezala biritu ziran profeta zaar aien anaidien denbora ezkeru, Juduentzat ez zala Uri gauza arrigarria.

Orduantxe bertan, Lenen Elizaren aldirian ere, orrela bizi bait ziran esenitarrak Jordan ibaiaz aruntzko lekaroan. Eta esenitar aiek, lekaroz kanpo ere, orrela bizi ziran jarraileak bai bait zituzten.

Bigarren, alkarrekin bizi ziran kristau aiek gutxiengo bat bakarrik zirala seguruaski. Ez beintzat, ezpairik gabe, Luka'k aipatzen dizkigun, aurreneko urteetan kristau egindako millaka ta millaka aiek danak.

Orduan bertan juduerria lekaroko esenitar aiek baiño askoz ugariagoa zan bezala, Jerusalemgo Eliza ere, alkarrekin bizi ziran kristau aien kopurua baiño askoz zabalagoa zan, seguruaski.

Izan ere, Pentekoste-Eguneko 3 milla eta berealaxeko 5 milla aietaz gaiñera, Luka Doneak dioskunez, ugaritzen eta ugaritzen joan bait zitzaigun kristauen kopurua.

Jerusalem'en bertan, kristauak baziran millaka eder aundi bat. Ez da sinistekoa millaka aiek danak alako alkartasunean bizi ziranik. Ez dirudi beintzat Luka'ren idaztitik orrelakorik atera daitekeanik.

- Gaiñera ez zuten bearrezkoa kristauak alkartasunean biritze ori, Luka Doneak, Kepa Elizaren Buruzagi Nagusi ber-beraren itzak erabilliz, argi ta garbi erakusten digun lez.

Eliz Santu aren baitan izan zan beste pekatu bat ere: arrotasuna. Arrotasun orren ondorio gaiztoz, erdaintzaren arazo gaitza konpontzeko Bidaliek Jerusalem'go Kontzilioa bildu zutenean, ikusiko dugun bezala, Lenen Eliz Santu artako kristau askok, kristaurik geienak dirudianez, ez zuten Kontzilio artan Bidaliek emandako agindurik ontzat artu nai izan, eta «zismara- joan ziran, Eliza bi zatitan puskatuz.

Arrotasunak, zisma ekarri zuan. Eta zisma edo zatiketa orrek, gorrotoa, zismara joan ziran aien aldetik.

Kristau judukerizale oien gorrotoa, bereiziki Paul Donearen aurka piztu zan. Paul Doneari ez zioten bere biritza guztian pakean utzi, eta gorroto

ortatik sortu zan, bearbada, Bidali bikain ura eriotzara eramanen zuan txinparta.

Eta, Kepa'ren erailketan ere pertaide izan zan agian gorroto ori.

Garrantzi aundiko oar bat eman berra naiz orain.

Paul donearen eta Kepa Aitasantu ber-beraren erailketan, agian judu-kristauak errukide izatea badaitekean gauza dala esan dut. Baiñan ori Danilou'k bakarrik dioskun gauza da. Ez dut beintzat beste idazleetan orrelakorik aurkitu.

Nik, Lenen Eliz2ren santutasuna gure artean ere, batez ere pentekostalisten giroko igikundeetan geiegi goraipaturik dabillelako, Danielou'ri jarraituko diot judukristauei-buruzko atal ontan. Baiñan atalaren azkenean agertuko dut besteen iritzia.

Gaiñera, gauzak izan ziran bezala utzi ditzagun, aitortu bearra dugu berriro, Lenen Eliz Santu artan egiazko santuak, asko gaiñera, santu bikaiñak, ugari izan zirala. Baiñan era berean aitortu bearko dugu pekatariarik ere ez zala Lenen Eliz Santu aren altzoan peitu. •Garia» ta •zaldalea». •Arrain onak. eta •arrain txarrak».

Eta, ori, Jerusalem'go Elizan ez ezê baita Diasporako Elizetan ere!

Naikoa da azkeneko punttu ortaz jabetzeko Paul Doneak Korinto'ko kristauei idatzi ziena irakurtzea:

-Zuen artean izorraketa nabarmen dabillela, zabaldurik dago. Jentillen artean ere ematen ez dan izorraketa gaiñera!, bere aitaren emaztearekin aragikerian naasirik bait dabil, izan ere, zuetako bat. Zuek berriz arroturik zabiltzate, samiñak jota ibilli-bearrean, ori egin duana zuen artetik uxatzeko gauza ez zeratela!», (Kor. I^a, 5, 1-3).

Eta korintotarrei beraiei Eukaristiari-buruz:

•Ezin onartu dezazket zuen eukaristi-batzarrak, zuen onerako izan bearrean zuen kalterako bait dira-. •Entzuna daukat, biltzen zeratenean, zuen artean zatiketa gaiztoak nola sortzen diran». •Eukaristirako biltzen zeratenean ordea, ez da Jaunaren aparta zuek egiten duzutena. Zuetako bakoitzak, berak ekarritako aparta jatera jotzen bait du. Orrela, bat goseak gelditzen dan bitartean, mozkortu egiten da bestea! Ez ote duzute etxerik jan-edanak egiteko? Ala, deus ez duten txiroak lotsatuz Jainkoaren etxea arbiatu nai duzute-?, (Kor. 11. 17-22).

ELIZAREN AZIKETA, benetan izan zan arrigarria.

Eta igikunde arrigarri aren sorburua, Kepa'k Pentekoste-Egunean egindako itzaldia dugu. Ura izan zan kristautasunaren lenengo •kerigma». Kerigma itz elendarrak •aldarrikapena- esan nai du. Eta, lenen Eliz aren aroan, Bidalien eta beste kristau-izlari guztien itzaldiak, •kerigmak» izan ziran danak; ez zuten ba kristautasuna aurkeztu besterik egiten.

Kepa'ren kerigma ark bezala, beste guzti aiek ere edakera berdiña

izaten zuten:

- Kerigma osoaren gunea: Berbiztu da Josu!

- Igarleek aurre-iragarri zuten berbiztuko zala.

- Gu gera Aren berbiztearen lekuko: («Guk ikusi dugu berbizturik». «Gurekin mintzatu da», eta «gurekin jan du berbiztu ondorean»...).

- Josu'k bizi zalarik Palestina'ko erri guztiaren aurrean egindako mirariak.

Ta, guziaren osogarri, Bidaliek beraiek Josu'ren izenean egindako mirariak.

Kerigma orri eskerrak zabaldu zan Eliza, Palestina'n aurrena eta atzerrian gero, ain era miresgarrian, eta alako •arintza arrigarritz»: «with atonishing rapidity» (Enc. Brit.).

Jerusalengo lenen kristau aiek, danak ziran juduak, eta aien eguneroko biziera ez zan beste judu eraspentsuen bizieratik bereizten: «Egunero igotzen ziran Jaurebcera, bederatzigarren orduko otoizketara», diosku Luka Doneak, (B.E. 3, 1).

Baitare, badiosku, •erriak ederki goresten» zituala kristau aiek. (B.E. 5, 13).

Erri aren agintari jaunak ordea ez zeuden beraiek il zuten Josu Nazaretarraren ikasleak gorestekotan. Eta laister asi zan zigorketa Eliz jaino berriaren aurka.

Kepa'k jaurebceko atarian egon oi zan erren ura sendatu zuanean, Kepa bera, eta arekin zegoan Jon, espetxeratuak izan ziran.

Bigaramonean bildu zan Sanedrin zeritzan judutarren Epai-Batzar Nagusia.

An bildu ziranak, berrogei ta amairuren bat egun lenago Josu Nazaretarra eriotzara galdu zuten epaille aiek ber-berak ziran, orduango Anas eta Kaifas ber-beraien zuzendaritzapean orain berriro Sanedrin berean alkartuta.

Ez die Kepa'k bildurrik, eta kementsu botatzen die aurpegira Josu'ren erailketa; eta Aren berbizkunde: •Zuek erail zenuten gurutzean Josukristo nazaretarra»; «Bairian zuek gurutzean erail zenuten Josukristo nazaretarra, iberbiztu egin du Jainkoak»!

Sanedrindarrek ez ziran bi gizakume ausarta aiek zigortzeko gauza izan, erriaren bildurrez.

Askoz gutxiago izan ziran gizakume aiek esaten zutena gezurtatzeko gauza.

Soilki, «aurrerantzean Josu'ren izenik aipatu ere ez egiteko, agindu zieten.

Bizkorra Kepa'ren eta Jon'en erantzuna: «Zuek erabaki, Jainkoaren aurrean bidezko gauza dan, Jainkoaren esanera egon bearrean, zuen esanera egotea»!

Arrigarria Sanedriñaren jardunkera. Eta ondorio mardul aundikoa Kepa'ren eta Jon'en erantzuna.

Arrigarria sanedrindarren jardunkera. Gizon aiek ber-ber-berak izan

ziran, oraindik bi illabete ez zala, Josu berbiztu zala esanaz urbildu zitzaizkien gudari illobi-zaindariei, Josu bere ikasleek ostu zutela esateko agindu ondorean, ori esatearen truke dirua ugari eman zietenak.

Illobi bat urratuta andik gorputz illa ebasteak, meatzetarako zigorra zuan erromatarren legedian, eta eriotzazkoa judutarren artean. Baiña bereiziki, errornatarrentzat zan Josu'ren gorputza ostutzea eriotzaz zigortu bearra. Aren illobia, Pilato Jaudearen seillu edo ikurrez itxia bait zegoan. Eta Pilato'ren aginduz gudariz zaindua.

Orain, Sanedrirlak, aurrean dauzka Ikasle ebasle aietako bi: Kepa, danen Buruzagia, eta Jon, Josu'k adiskide bereizia izan zuana. Biek dute eriotzazko zigorra merezi. Baiña ez ditu iñor orregaitik eriotzara galduko. Ezta Pilato'k berak, eta aren ondorean Errorna'k Palestina'n izan zituan jaurleek ere.

Laister izango dira gogor zigortuak Bidallekjjudutarren eta erromatarren aIdetik. Ez ordea, beñiere, josu'ren gorputza illobirik ostu zutelako. Ori ez die iñork aipatu ere egingo.

Bidaliak Josu'ren gorputza ostu ez zutelaren siñale ziurra!

Garrantzi aundiko eta esan-nai aundiko gauza, beraz, zigortzailleen isiltasun ori!

Josu'ren berbizkundera, agintarien aurrean ez eze, erriaren aurrean ere bildurrik gabe oiukatuko du Kepa Doneak, Josu'ren erailketaren errua entzulei beraiei jaurtiz gaiñera.

Ala, Pentekoste-eguneko itzaldian: •Zuek artu ta gaiztoen eskuz gurutzean josi eta il zenuten — Josu baiñan Jainkoak berbiztu egin du, eriotzaren lokarriak urratuz, izan ere ezin bait zezakean eriotzak bere menpera zapaldu.

Eta, Jauretxeko errena sendatu ostean: -Gure asaben jainkoak goratu du Josu bere mirabea, zuek Pilato'rengana eraman eta arek askatu nai izan zuanean ukatu zenutena; Gizon done eta zintzoa ezeztatuz, iltzaille baten askatasuna eskatu zenuten, eta, orrela, biziaren Egillea il zenuten. Baiña, illen artetik berbiztu egin du Jainkoak, eta berbizkunde orren lekuko, gu gera.! E. 2, 23-23 eta 3, 13-17).

Ta, Jerusalem'go erri ura, naiz Kepa'k ain gogorki astindu, ez zan Kepa'ren aurka jeiki. Alderantziz, millaka, jende aiek, bataioa eskatu zioten. Ez orduan ez geroago, ez Palestina'ko erriarengandik ez Palestina'ko agintariengandik, ez zan abots bat ere jeiki Bidaliak illobi-lapurtzat salatuz.

Bidaliak Josu illen artetik berbiztu zala aldarrikatzen zutenean, — eta atertzetik gabe egiten zuten ori iñor ez zan jeiki Palestina'n •gizon aiek gezurra diote» oi u egíñez. Ez Anas, ez Kaifas, ez Pilato, ez erriko gizaku merik landerrena. Iñor ez.

Pilato eta beste erromatarrek, Erodes, Anas, Kaifas, Sanedrin osoa eta aien inguruko jaupariak, farisai eta saduzaitarrak, danak izan ziran Josu'ren eriotzan partaide; eta danak ziran, eguna joan eta eguna etorri, jendearen aurrean Josu'ren eriotzaren errudun gaizto lez bidalien agoz gogorki

salatuak. Baiñan isilik gelditu ziran. Isilik! Baiña ez geldi. Ez bait ziran itzez erantzuteko gauza! Baiña erantzun zuten, bai. Zigorra-bidez erantzun zuten amorraturik.

Amorni gorritzko zigorketa orrek auxe adierazten digu:

Bai erromatarrek bai judutarrek nai zutela jaio berria zan Eliz ura ezereztu, eta ori lortzeko egiñalak egiteko gerturik zaudela, baiñan ez zirala Bidaliek aldarrikatzen zuten Josu Berbiztua, eta berbizkunde aren egiztagarritzat aipatzen zituzten Josu'ren mirariak gezurtatzeko gauza. Izan ere, Bidaliek esaten zuten bezala, eta Josu'k berak Sanedriñaren aurrean aitortu zuan lez, mirari aiek Palestina osoko errietan jende guztiaren aurrean egiñak izan bait ziran.

POLITIKAGINTZA ZUZEN baterako lenen aurkezpena ditugu Kepa'k orduan epaillei emandako erantzunak.

Garrantzi aundikoa Sanedriñari eman ziona: •Agintarien esanera egotearen gaindik Jainkoaren esanera egon bear dugu».

Bein da berriro, kristauek mendeak-zear Agintarien aurrean egin eta ber-eginen izan duten aitortpena!

Juduek bazekiten ori. Orregaitik izan zan galdera bat Kepa'ren erantzuna: •Erabaki zeurok, zuen edo Jainkoaren esanera egon bear dugun-.

Kaifas Jaupari Nagusiak ez zuan erantzunik eman.

Baiñan errez emango zuan erantzun ori Erroma'ko Agintari batek. Erroma'n, — eta baita Juduerritik at beste Laterrietan ere —, Agintaria, Inperatorea, Jainkoa bait zan.

Kepa'ren itz oiek ordea, Agintaria ez dala jainko diote; eta Agintariaren gaindik Jainkoa ipintzen dute; eta Jainkoaren eta Agintariaren artean **gizakumearen kontzientzia..**

Agintariaren aginduak bete bear dira. Baiñan Agintarien aginduen gaindik Jainkoaren legea dago.

Bi legeek batera ez datozenean, Jainkoarena da, eta ez mundu ontako Agintariena, gizakumeak, zalantzarik gabe, bete bear duana.

Eta Agintarien aginduak Jainkoaren legearen aurka dauden edo ez erabaki bear duan epaille bakararra, **gizakumearen kontzientzia** da.

Orra or, demokraziaren lenengo oiñarria. Ez da ori, oraindik, demokrazia; bai ordea demokrazirako lenen urratsa. Bear-bearrezko urratsa. Agintarien aalmenean ez baiña gizakumeen kontzientzian ipintzen bait du legeen indarra.

Jainkoari bear zaio obedittu gizonei baiño lenago-! esango die berriro Kepa'k egun batzuk geroago Sanedrificio epaillei, bera, — eta oraingoa

baita beste Bidaliak ere espetxera aurrena, eta espetxetik Epai-Batzar Nagusi aren aurrera eramanak izan ziranean.

Eta onela jarraitu:

•Zuek egurretik esegita erail zenuten Josu ura, berbiztu egin du gure asaben Jainkoak.! •Eta gu gera aldarrikatzen dugun orren lekuko.! (B.E. 5, 29-32).

Bein berriro, epaille nagusi aiek ez ziran Bidaliei gezurtiak zirala erantzuteko gauza izan. Asarretu bai, zearo asarretu ziran, eta, Josu nazaretarraren ikasle kementsu aiek isilik egonezterik izango ez zutela ikusirik, danei, arnabiei, bizia kentzea erabaki zuten.

Errezagoa, eta Eliza ezerezteko milla aldiz egokiagoa izanen zan Bidaliek gezurretan zebiltzala egizatzea. Baiña ez ziran ori egiteko gai izan, eta eriotzara galdu zituzten.

Gamaliel izeneko irakasle farisaitar ospetsu baten itzak salbatu zituan eriotzatik:

•Gizon auen ekintza Jainkoagandikoa ez ba'da, berez ezereztuko da; Jainkogandik ba'dator berriz, ez duzute ezer lortuko, erriaren aurrean Jainkoaren etsai bezala agertzea izan Orra or, •uri osoarentzat itzal aundiko lege-irakasle. zan farisai arek orduan esan zuanaren mamia.

Gizon arrigarria, Gamaliel ura: Farisaitarrak mintzaera estuko gizakumeak ziran; anitz zabalekoa berriz ura. Farisaitarrak, atzerritarrekin ez zuten itzegin nai ere izaten; ura berriz atzerritar askoren adiskide omen zan. Farisaitarrek, atzerritarren oitura guzien gorrotatzaille zitalak ziran,. Ura, alderantziz, erromatarrek ekarritako kirolen maitalea izateaz gaiñera, kezkarik gabe joaten omen zan erromatarrek eraikitako baiñutegira.

Alatagutziz, bai erriko jende landerraren artean, bai agintari arroputzen artean, eraspen aundiz ikusia, eta begirunez entzuna zala adierazten digu Luka Doneak, (B.E. 5, 34-41). Arrigarria benetan gauza.

Arrigarria baitare, Saul zeritzan oldozkera estu eta medarreko gazte bat, ura bezain oldozkera zabal irikiko irakasle baten ikasle izatea.

ZIGORKETA PALESIINA'N Elizaren aurka, Eliza sortu bezain laister asi zan.

- Pentekoste-egunetik laister, Kepa'k Jauretxeko eTena sendatu zuan egunean, Kepa eta Jon espetxeratuak izan ziran, eta anedrindarrek erriari zioten bildurrak salbatu zituan zigortuak izatetik.

- Egun batzuk geroago, Eliza azitzen eta azitzen ari zalako, Bidali guztiak izan ziran Sanedrin beraren aginduz espetxera jaurtiak. Aingeru batek atera zituala yare, Luka Deunak diosku.

- Aingeru aren aginduz •kerigmagintzan• asi ziralako, berealaxe izan ziran ostera espetxeratuak. Oraingo ontan Gamaliel itzal aundiko legiztilari ura izan zan zigoretik salbatu zituana.

- Urrengo zigorra gogorragoa izan zan. Bertan galdu bait zuan, Kristo'ren lenen ziñopak, Doneztebe diakonoak, bizia.

Eztebe, Eliza-baitan elendarren eta jerusalendarren artean sortutako asarrea baretzeko Bidaliek aukeratutako zazpi diakono (euskeraz «serbitzari») aietako bat zan.

Diruz erositako testigu edo lekuko gezurti batzuen salaketaz baliatuz, Sanedriñaren aurrera eramana izan zan. An bildurrik gabe egin zuan Josu'ren goratarrea, aren eriotzaren errua, aurrean zeuzkan sanedrindar beraiei jaurtiz: •Bai al da zuen asabek zigortu ez zuten igarlerik? 11 egin zituzten, Zintzoaren etorrera iragartzen zutelako, eta orain, zuek zerate Zintzo orren ukatzaillak eta erailleak.! esanez amaitu zien Doneztebe'k, sanedrindarrei, bere mintzaldi luzea.

Gero, zerua zabalik ikusten zuala oiuz egin zien, eta an, zeruan, Jainkoaren eskuñean zutik, •Gizonaren Semea», Josu!.

Aiek ordea, epaiketarik gabe, •karraixika, belarriak estaliz, guztiak batera, gaiñera jausi zitzaizkion, — Doneztebe'ri eta uritik kanpora aterata, arrika kendu zioten bizia» Ib.).

Josu Jauna, ar'zazu nere gogoa, eta, Jauna, ez eiezu oben au kontuan artu», izan ziran Doneztebe'ren azken-itzak.

Ori esanez, loak artu zuan», diosku Luka'k bere liburuan, pake zorionsuan il zala, adierazteko.

Eta an bildu ziran arrikalariek, Saul izeneko mutil baten oiñetan utzi zituzten beren jantziak- Doneztebe'ri arrika egiteko. •Eta eriotz ura ontzat artzen zuan Saul'ek» (Id). Saul'ek! Gamaliel adimen zabaleko irakasle aren adimen murrizteko ikasle ura ber-berak, ainzuzen.

Doneztebe berriz, Elizaren lenengo ziñopa dugu. Orixe esan nai du eman oi zaion laterazko izengoitiak: •protomartir», •lenenziflopa».

•Zigorketa gogorra sortu zitzaigun egun artan, — diosku Luka Doneak Jerusalemgo Elizaren aurka, eta danak, Bidaliak izan ezik, Judea'ko eta Samari'ko lurraldeetara barreiatu ziran».

Bitartean, Saul, Eliza zigortzen ari zan, gizon-emakumeak beren etxeetatik aterata espetxera jaurtiz». •Palestina'ra zabaldu ziran aiek ordea lurraldean arat-onat Berri Ona zabaltzen ibilli ziran» (B.E. 8, 1-6).

•••

- Palestinalik-at ere, gogor asi ziran judutarrak Elizaren aurka. Ala, Damasko'n, Paul kristau egin berriari bizia kentzea erabaki zuten ango juduek. Arresitik beera gaeuz kristauek otar batean jetxi zutelako gorde zuan bizia.

- I Erodes Agripa izango zaigu bereala Elizaren zigortzaille. Kristau batzuk oiñazetuz gero, Jakoba Bidaliari lepoa moztuz kendu zion bizia.

Jakoba au, •Nagusia», ots, bizkaitarrek itz orri ematen dioten zentzuan, •Nagusia» esaten zitzaion ura da: Jakoba •Zarrena», «Jacobus Maior.. Beste

Jakoba bat ere izan bait zan Bidalien artean: Jakoba •Gazteena», «Jacobus Minor., epistola baten idazlea.

Jakoba Nagusia, Jon Ebangelariaren anaia, 43'an edo 44'ean izan zan eraila. Ez zuan beraz Espaiii'ra etortzeko astirik izan. Orregaitik, gaur, Miren Josu'ren ama Zaragoza'ra etorri zalako kondaira, eta Donejakoba Konpostela'n obiraturik dagoalako kondaira, orixe besterik ez dirala uste dute edestilari guztiek: kondairak, •leyenda• utsak.

Itzuli gaitezen ordea, Eliz gazte aren aurkako zigorketetara:

Jakoba Nagusiari lepoa moztu zionean, beste orrenbeste egin nai izan zion Kepa berari ere Erodes Agripa erregeak, eta espetxean itxi zuan. Aingeru bat izan zan berriro andik Kepa atera zuana.

- Asi Txikiko Listra'n, Paul izan zan Doneztebe bezala juduek arrikatua, eta uritik kanpora iltzat aterea.

- Mazedonl'ko Filipos urian Paul eta bere lagunak, makillatuak izan ziran eta espetxeko zokorik zokoenera jaurtiak. Lurrikara batek agintariak ikaratu zitualako salbatu zuten bizia.

- 62'garren urtea. Urte ortan izan zala, diosku Flabio Josefo'k arrika eraila, Jerusalem'en bertan, Jakoba Jaunaren Anaia. Jerusalemgo Gotzaia. Egesipo edestilariak idatzi zigunez, farisaitarrak izan ziran erailleak, Jakoba ark erriagan zuan eraginmenari bildur ziotelako.

Erroma'ren aurkako juduen abertzalekeria bere gaillurrean zegoan urteak ziran aiek. Dirudianez, judukristauak Erroma'ren aurkako mesianikerizko borroka artara sartzearen aldeko ez ziralako, arrikatu zuten eriotzaraiño «abertzaleek•Jakoba, Jerusalemgo kristauen buruzagia. Ori da beintzat edestilari batzuen ustea.

- Paul ere, erromatarrek «flagelatio• esaten zioten zigorketatik iges egiteko, erromatar-urikide lez Zesar'i deitzera bearturik aurkitu zan.

- Beste orrenbeste egin bearko du andik bi urtera Palestina'ko Zesarea'n bizia kendu nai dioten juduen eskuetara ez erortzeko.

Orain arte judutarrak izan dira Elizaren zigortzailleak. Laister artuko diete erromatarrek txanda; 54'garren urteaz gero Neron bait da Erroman inperatore! Zigorketa aiek danak ez zuten Elizarik auldu. Alderantziz, bizkortu, sendotu eta ugaritu egin zuten:

- Bizkortu eta sendotu: •Josu'ren izenagaitik irainduak izan ziralako, Bidaliak zigorketetatik pozik irtetzen zirala, — dio Luka Doneak (B. E. 5, 41)

- Zabaldu eta ugaritu: Doneztebe'ren erailketa-ondorean sortutako zigorraldian, Bidaliak izan ezik, Jerusalemgo kristau guztiak •Judea'ra eta Samari'ra zabaldu ziran., eta •zabaldu ziran aiek lurralde aietan aruntz eta onuntz ibilli ziran Itza aldarrikatzen. (B. E. 8, 4).

LENEN JENTILLAK ELIZARA Palestina'n bertan sartu zitzaizkigun.

•Azkartasun arrigarriz zabaldu zan Eliza»; •The Church spread with astonishing rapidity» (Encyclopaedia Britannica).

Palestina-barrungo zabalketari aize eman ziona Juduerriko Agintariek Elizaren aurka piztutako zigorketa gogorra izan zan. Eta Palestina'tik kanporako zabalketa ain era egokian erretzu zuana, orduan ezaguna zan ludiko zoko guztietara, aspaldidanik edaturik zegoan judutarren diaspora.

Elizaren zabalkunde artan, Eliz jaio berri aren elizkide guztiak izan ziran, — apaiz edo ez-apaiz era berdiñean lankide. Gizon ala emakume, bere elizkide guztiak izan bait zituan orduan elizak Berri Onaren ereille!

Iru izan ziran ebangelio-zabaltze artarako, jauzi-arri nagusiak: Jerusalem, Antioki, eta Erroma. Iruetan egon zan, lenen Eliz aren buruzagi, Kepa Donea: lenen Aitasantua.

Oraindik mundu ontan bizi zala, Josu'k berak, izan zituan beregana urbildu ziran atzerritar batzuekin arremanak: Oroi, osin-ondoko emakume samaritar pekatari ura, txakurrek beren ugazaben maipera eroritako apurrak jaten zituztela oroitaraziz, Josu'ri alabatxoaren osasuna eskatu zion ama siro-feniziar ura, osasuna bere jopuarentzat eskatu zion zenturioi edo euntaria, Kalbarimendi'n Jainkoaren semea il dugu guk. oiuegin zuan beste euntari ura...

Baiñan Ebangelioak aipatzen dizkigun atzerritar aietaz deus ez dakigu.

•Bidalien Egifiek» aipatzen dizkiguten lenengo atzerritarrek, samaritarrek dira, eta bereiziki, Samari'ko Simon Aztia. Ez oso gizakume zintzoa, bere sorginkerien bidez samaritarrek lilluraturik eta atzipeturik zeuzkan •mago. edo •jakintzizkutudun• ura.

Felipe, Bidaliek autatutako zazpi diakono aietako bat izan zan ainzuzen Samari'n lendabizi Ebangelioa aldarrikatu zuana. Eta samaritarrek ongi, txit ongi, artu zuten aren mintzoa, eta ugari izan ziran bataioa eskatu zuten gizon-emakumeak. Baita Simon aztiak berak ere sinistu zuan eta bataiatu zan. Baiña arrokeriak galdu zuan.

Bidaliek, Jerusalem'en, Felipe'ren garaitzaz jabeturik, Kepa eta Jon bidali zizkioten, Samari'n bataiatutako kristau berri aiek danek sendotzako sakramentuaren bitartez, Gogo Deuna ar zezaten.

Jerusalengo Eliz gazte artan, Kepa'ren alboan agertzen zaigu beti Jon, aren idazkari edo beintzat laguntzaille bereizia lez.

Iritxi ziran Kepa eta Jon Samari'ra, eta, ordurako Felipe'k egindako mirariek arriturik zeukaten Simon aztiak diruz Gogo Deuna eman aal izateko almena erosi nai izan zion Kepa'ri. Erantzun gogorra jaso zuan onengandik.

Aski era apalean makurtu zan Simon aztia, •otoi egiozute zuek Jaunari, zuk esandako gaitzik gertatu ez zaidan» esanaz arren-egin bait zion Kepa'ri.

Betirako utzi zigun Samari'ko Simon aztiak kristau-legiztian bere izena; Kepa'ri egin nai izan zion erosketaz gero, gauza sagaratuak erosteari, eta saltzeari, •simonia• esaten bait zaio.

Utzi zuan baitare bere izen ori, erejien edestian. Laister sortuko zan ba

Elizaren altzoan gnosis, deritzaion erejia. Adar asko izan zituan gnosikeriak. Ba adar aietako bati loturik, eta adar orren sortzaille bezala loturik gaiñera, agertzen bait zaigu Simon azti samaritarra.

Erejia, eta len aipatu dugun, Kepa'ren aurrean agertutako apaltasun ura, ez dirala alkarrekin konpontzen? Ez'zazula uste. Ez zeuden bā orduan, Kontzilioen bidez eta Aitasantuen irakaskintzen bidez, sinismenaren egiak gaur dauden bezala ziurki mugaturik, eta, orregaitik, gero ikusiko dugun bezala, aldareetan dauzkagun santuetatik bat edo beste baiño geiago, erejizko oldozkerak erabilli zituan gizona izan bait zan.

Luka'k aipatzen digu, Felipe'k bataiatutako iren edo eunuko etiopiar bat ere: Kandazes Etiopi'ko erregiñaren altxor guztien arduraduna. Iren au ordea, edo judutarra zan agian, edota -jarraille- edo •proselyti», ala «timentes Deum- edo «Jaikoarekin eraspentsu• aietako bat zan.

Baleike judutarra izatea, Etiopi'n bai bait ziran orduan, eta bai bait dira gaur oraindik, -falaxak- esan oi zaien juduak. Aski larru beltzekoak, baiña juduak.

Etiopi ordea gaur Nubi dan Ejito'ko egoaldeari ere esaten zaio Biblianda, seguruaski Nubi'koa zan Kandazes erregiña, eta ala «eraspentsu-aietako nubiar bat, erregin aren altxor-arduradun irena.

Jainkoari eraspen zioten- aietakoa zan Zesarea'n Kepa'k, Zerutiko aginduz erdaintzarik gabe bataiatu zuan Komelio ere: •Italika zeritzan lejioko euntaria, gizon jainkozalea ta bere etxeko guztiekin Jainkoari bildur ziona, erriari limosna ugari egiten ziona, eta maiz-maizko otoi-egillea (B.E.).

Orain arteko guzia Palestina'n gertatua dugu eta esan genezake gertakizun oietan danetan, — Felipe'ri eta beste kristau arruntei zor zaiena aztutzeke Kepa izan zitzaigula langillerik garrantzitsuena.

Jentillen kristauketa ordea, Palestinabk at, bereiziki Paul'en ekintza dugu: Saul zeritzan, bere judu-izenez. Gamaliel'en ikasle izan zan. Doneztebe arrikatu zutenen soiñeko-zaintzaille ikusi dugu. Eta, farisai gazte zipotza, badakigu nolako gorroto gaiztoz eraso zien kristauei.

Kepa'k Komelio bataiatu baiño lentxeago izan zan Paul'en aldaketa. Ezaguna da gertatua. Paul, Jerusalem'go Agintarieibaimena eskatu ondorean, Damasko'ra zijoan ango gizon-emakume kristauak atxiloturik Jerusalem'go espetxeetara ekartzeko asmo biurriz. Bidean, Josu bera agertu zitzaion.

Itsu gelditu zalako, bere lagunek eramana zuten Damasko'ra; eta, an, Ananias izeneko kristau batek sendatu zuan.

Ala, Paul dugu, Damasko'ra lendabizi iritxi zan Bidalia. Baiñan iritxi zanean, aurkitu zituan an kristauak. Nork eraman zuan ara kristautasuna? Palestina'ko judukristauek, edo, agian Jerusalem'en pentekoste-egunez kristau biurtutako Damasko bertako juduek.

Asi zan Paul ere Josu'ren berri ona zabaltzen. Ez ordea berealaxe. Aurretik lekarora izkutatuta, igarle judutarrek oiturazkoa izan zuten bezala, an bakartasunean bi urte egin bait zituan otoizketari eta penitentzi edo

ildumari loturik.

PAUL DONEA! Emendik aurrera, bere izenak beteko du, ia berak bakarrik, Lenen Elizaren edesti guzia. Berak idatzi zuan bezala, egia bait da berak bakarrik beste bidali guztiek baiño lan geiago egin zuala.

Esan dugu Anatoli'ren egoaldeko itxas-ertzean, Tarso'n, Zilizi zeritzan probintziaren uri-buruan jaio zala. Salerosketarako azoka aberatsa eta kultura aundiko uria zan orduan Tarso. Sortalde guzian bezala, elenera zuten an kulturaren eta ekonomiaren izkuntza.

Paul'ek eleneraz bazekian beraz; baiñan ez dirudi, naiz bein bigarren maillako olerkari baten itz-neurtu bat Atenas'en aipatu, izkuntza ortaz eta izkuntz ori oiñarri zuan kulturaz oso jantzia zanik. Farisaitarra izan-da, atzerriko kulturari jaramonik egiteko, judutasun-zaleegia ere bazalako?

Ez dakit ba. Paul'en jaiotzari-buruz, oraindik iñork argitu ez duan izkutuki bat bai bait dugu.

Paul, erromar-urikide zan, erromar-urikide baten semea ala billoa.

Oso gutxitan eman oi zuan goi-izen onuragarri ori Erroma'ko Senatuak, eta, beti, Erroma'ri serbitzu aundi oituraz-kanpoko bat egin zionari bakarrik. Egia da, Julio Zesar ill-ondorengo laterkide-arteko guduek Laterriaren kutxak arras txirotu zituztelako, diru-kopuru aundi bat Erroma'ri eskeintzen zionari ere eman zitzaiola urikidetasun ori. Baiñan oso aundia bear zuan goi-izen ori irabazteko Erroma'ri ematen zitzaion diru-pilloa.

Ortaz, edo Paul'en aita edo Paul'en aitona Erroma'ri serbitzu aundi bat egiñak edo Erroma'ri dirutza galanta bat emanak ziran. Juduen oldozkeraren araura, biak oso zailki ulertu daitezkean gauzak. Eta askoz gutxiago farisaitarren oldozkeraren araura. Paul'en aita eta aitona, Paul bera baike izan zan bezala farisaitarrak izango bait ziran seguruaski.

Korapillo ulerkaitza eta askagaitza, benetan, baiñan alatagutziz egia Paul farisaitarra Erroma'ko urikide izan zala. Eta ez dirudi urikidetz orrek beñere kezkatu zuanik, alderantziz, bere burua erromatarren zigorgailluetatik edo juduen atzapparretatik gaizkatzeko, benetako atsegiñez esan ziela dirudi Lisias buruzagi lejiotarrari eta geroago Festus Palestina'ko Jaurleari «*vis romanus sum. Caesarem appello*» : «*Errorna'ko urikide naiz*», «*Zesar'i dagiot ol es*».

Ez bide zan Paul, farisaitar izenak uste izatera garamazkian bezain jite murrizkeoa. Ez beintzat, — diasporatarra izaki! Palestina'ko fari.saitar aiek bezain gogoeta zipotz, estukoa.

Ez dezagun aantzi Gamaliel, Jerusalemgo bere irakaslea ere, naiz farisaitarra, txit adimen zabaleko gizona izan zala, eta ori jakingo zuala Paul'en aitak, eziketarako bere semea Jerusalem'era bidali zionean.

Agian onexegaitik, oso gazterik Jerusalem'era bidalia izan zalako ez genuan Paul, Tarso'n jaioa izateak eska zezakean bezain trebea izan

elendar-kulturaz.

Soin ederren miresle ziran elendarrek, ez zioten noski Paul tarsotarrari jaramon aundirik egingo. Ez bait zan arras gizakume ikusgarria. «Motza, potoloa, iztar-okerra, burusoilla, sudur kakodun luzekoa izan zala diosku Paul'en Egiñak izeneko apokrifoak. •Mais une étrange puissance emanait de ce visage dont il est dit encore qu'il tenait parfois de l'ange plus que de l'homme»:

Baiñan aurpegi artatik beste iñondik ez bezalako indar bat irtetzen zitzaion eta maiz esan oi zan aurpegi ura aingeru-aurpegia geiago zala giza-aurpegia bairio» (Daniel-Rops).

Adimen-argi aundikoa zan gaiñera ain itxura baldarreko eta alako gotzon-dizdira zuan aurpegiko gure Paul ura.

Badira ba ondo ulerkaitzak aren epistola guztiak!, esango dit agian irakurleak. Orrelakoak bait dira, izan ere. Baiñan ezin gaitzke ortaz arritu, Paul bait zan epistolek darabilzkiten gaietaz lendabizi idazten zuana. Gaur, ia bi milla urtez gero ainbeste millaka gizon jakintsu gai oiek jorratzen saiatuz gero, erreza, aski erreza beintzat, da, teologiaz mintzatzea.

Paul'ek ordea ez zuan guk izan dugun egokitasunik aurkitu. Bera bait zan gai auen baso ulerkaitz miresgarrian aurrena sartu zana.

Paul dugu kristauok gure aurreneko teologilaria. Berak iriki zizkigun bideak, eta berak asmatuak dira bide oiek irikitzeko bearrezkoak zituan tresnak ere: itzak, irudiak, eta gogapenak. Mundu ontakoak ez ziran gauzak adierazi aal izateko izkera, berak sortu bear izan zuan! Gure egunotako teologilarien izketa, maiz aski naiko ulerkaitza ba'da, arritzekoa al da Paul Donearena guk nai bezain ulerterreza ez izatea?

«Paul etait de ces hommes qui n'existent vraiment que par **Toute** sa vie, on le verra réaliser dans la tension et le combat. Rien ne pourra l'abattre de ce que vient des hommes. (Id.): •Gogoagandiko indarrak bakarrik bizi dituan gizakume oietako bat izan zana; bere bizitza osoa, beti ler-zori zeuden borroken laztasunean igaro zuana; gizonengandik letorkion ezertxok, menperatu ez zezakean gizona: Paul Donea!

Adirnez zorrota, sentimenez biguiña, naimenez sendoa, burua zeruan eta oiñak tinko lurrean, ameskeririk gabe gauzak berez diran bezalakoak ikusteko begiz emea, maitasunerako biotz aundikoa, lanerako nekaeziña, borrokarako bildurrik gabea, benetan zan Paul, Elizak une artan bear zuan Apostolu bikaiña.

Paul'en ekintza guzia, zabalki kontatzen digu •Bidalien Egiñetan. Luka Doneak. Emen, aren urratsik garrantzitsuenak bakarrik ikertuko ditugu,

Lekarotik Damasko'ra itzuli zanean ekin zion Josu aldarrikatzeari. Baiñan soilki sinagogetan eta juduen aurrean bakarrik. Arriturik entzun zioten juduek. Ezin bait zuten, orain Josu'ren alde itzegiten ziena, len josu'ren ikasleak ain zakarki erabilli zituan ura bera izan zitekeanik sinistu. •Ez al da au, ainzuzen, onera Josu'ren jarrailleak espetxera botatzera etorri dan Saul.? galdetzen zioten alkarri.

Damasko'ko juduen jardunkera orrek gauza bat adierazten digu: Pentekost'egunaz gero, izan zala juduen artean aldakuntza nabarmen bat. Pentekoste-ondorengo egun aietan, Jerusalemgo erriak Josu'ren jarrailliei eraspenez so egiten ziela, diosku Luka'k.

Orain Damasko'n, judutarrak, aurka irtengo zaizkio Paul'i. Eta nola gaiñera! Batzar batean, ari bizia kentzea erabaki bait zuten!

Aldaketa orren sustraia? Ordurako Damasko'n eta baita diasporako beste judutegietan ere jaso zirala Jerusalemgo Agintariak Josu'ren ikasleen aurka bidalitako albiste garratzak, eta, jakiña, diasporan judutegietako agintariak Jerusalemgo Agintarien alde jarri zirala.

Ez da arritzekoa: itxurazkoa bait da diasporatar aiek, Jerusalemgo beren Agintari Nagusiek, «nazaretarren» aurka egiazko arrazoirik gabe jeikiko ez zirala uste izatea.

Izan ere, Kaifas Jaupari Nagusiak adibidez, eta, len bera ere Jaupari Nagusi izandako, Anas, Kaifas'en aitagarrebak, eta juduen Epai-Batza Gurena zan Sanedriñeko epailleek, benetako arrazoi ugari eta aundirik gabe «ereje» berri aien aurka eriotzazko zigorrik ez zutela jaurtiko, diasporatarrek pentsatu izatea, ez al da bidezko gauza?

Danadala, otar batean sartuta, gauez, arresia-beera, kristau batzuek jexia izan zalako, irten zan Paul, andik bizirik.

Igesi, Jerusalem'era joan zan. Emen ordea, Paul beren artean onartzera ez ziran kristauak ausartzen. Alakoa bait zan zioten bildurra. Beste diasporatar bat, Txipre ugarteko Bernabe izan zan, kristau sutsu biurtutako kristau-zigortzaille ura Bidalien aurrean aurkeztu zuana.

Auek ordea, juduek Paul aren eriotza erabakirik zeukatela laister jakin zuten-da, andik Tarso'ra bidali zuten iraduz: bere jaiterrira, ainzuzen.

Len ere esan dut, baiñan bir-esan dezadan berriro, judukristauei-buruzko atal ontan, nik, Dani6lou'ri jarraitu diodala Paul eta Kepa'ren eriotzaz mintzatzerakoan. Dani6lou'k bi Santu oien eraiketan judukristauek nolabait errudun izan zirala-edo uste izan du. Eta era ortan mintzatu ere mintzatu da. Baiñan berak ez bestek ez du beste iñork orrelakorik pentsatu.

Puntuu au argitu naiez, aztertu ditut gure bibliotekako ic1371erik jakintsuenen liburuak. Ona oietako batzuen iritziak.

Jedin doistarrak, judukristauen artean alderdi ertzakoi bat, partido extremista de los judeocristianos palestinos» izan zala esaten digu, eta oiek zirala Paul'en aurka jeiki ziranak.

Paul'ek Itun Zarreko legeak ez baiña Kristo'ganako fedea salbatzen gaituala oi u egin zuanez gero, .si no se le enfrentaron ya mais en discusión, si que trabajaron fankicamente contra el», dio Jedin'ek. Eta, ori, ez judukristauek, judukristauen arteko «alderdi ertzakoiakokoek» baizik.

Baiñan «ertzakoi- edo extremista auek Paul'en edo Kepa'ren eriotzean

parte artu zutenik, ezta aipatu ere. Are geiago: Jedin'ek ez zuala orrelakorik pentsatu ere, dirudi.

Ikus «Catholicisme»ren aitortpena: *semble qu'au sein du judeo-christianisme il y ait eu deux groupes bien distincts. Pour certains, et ce sont les judeo-chrétiens judaïsants, la Loi continue de s'imposer aux païens convertis: seule la pratique d'un judaïsme intégral fait participer aux privilèges d'Israël. A côté de ce groupe, il y a les judeo-chrétiens mitigés, qui considèrent l'observance de la Loi juive comme obligatoire uniquement pour les chrétiens venus du judaïsme. Ils reflètent la tendance générale des communautés judeo-chrétiennes qui se rattachent de Jérusalem et qui se réclament de Jacques. Ils ne dogmatisent pas, ils n'affirment pas que la Loi soit nécessaire au salut: nulle part, ni Jacques ni d'autres de ces judeo-chrétiens n'apparaissent comme l'ayant soutenu.*

Euskeraz: Badirudi, izan zirala bi talde zearo ezberdiñak judukristautasunaren altzoan. Talde batekoentzat, judukristau judukerizaleentzat alegia, (Itun Zarreko) Legea bearturik daude jentilleditik kristau bihurtutakoak ere. Judutasuna oso-osoan betetzea bearrezkoa uste dute Israel'i agindutako zorionean partaide izateko.

Talde orren alboan bada beste bat judukristau paketsuena: Auen ustez, kristautasunera judutasunetik datozenentzat bakarrik da bearrezkoa Itun Zarreko Legea. Uste ortakoak zirarijakoba'ren inguruan bildutako Jerusalemgo Elizako judukristau geien geienak; Ez ziran dogmagintzara sartu; ez zuten Legea salbamenerako bearrezkoa zanik esaten: Ez dituzu, inon, ez Jakoba ez talde ortako judukristauak, orrelakorik esaten aurkituko-

Dakusazunez, Iztegi bikain onen ustez,

- Jakoba'ren aldeko judukristau gozo auek, judukristauen artean geien-geienak ziran.

- Ez zuten Legea, Itun Zarreko Legea, salbamenerako bearrezkoa zanik esaten; ezta juduentzat ere.

- Orregaitik, kristau egiten ziran juduentzat bearrezkoa zala esaten bazuten oitura zarrei jarraitzea nai zutelako esaten zuten: ots, Aberriari ez ukorik egiteko, bearrezkoa zalako bakarrik.

- Antioki'ra joanda, Donekepa eta Donepaul bata bestearen aurka dantzian ipiñi zituzten judukristau aiek, talde biguin ontakoak omen ziran.

- Talde gogorreko judukristau judukerizaie aiek beraiek Kepa'ren eta

Paul'en eriotzan eskurik sartu zutenik ez du Iztegi onek pentsatu *ere* egiten.

«The Catholic Encyclopedia.k ere ez die judukristau gogorreki Bi Apostolu Nagusien eriotzan errurik erasten. Ez du orrelakorik aipatu ere egiten. Gaiñera, gogorkerizale aiek oso gutxi izan zirala adierazten digu: «Certain judéo-christians.: •judukristau batzuk».

«Diccionaire d'Histoire et de Géographie Ecclésiastiques» izeneko iztegi ederrean ere ez duzu deus aurkituko. Oraindik .11» izkira bakarrik iritxi bait dira.

•Encyclopaedia of Religion and Ethics- izenekoak -judaizers- esaten dien judukristau judutasun-zale guztiei: alderdi gogorrekoei eta alderdi biguñekoei. Aiek, gogorkerizaleak, gutxiengo bat izan zirala dio: •The minority of judaizers». Eta aiek bakarrik altza zirala Paul'en aurka. Baiñan Kepa'ren ala Paul'en erailketan zer ikusirik izan zezaketenari-buruz, aipurik ere ez.

Alderantziz, «judu ez-kristauen areriotasunak salbatu omen zituan Paul'i eragoz pen geiago jartzen jarraitzetik»: •The antagonism of the real jews saved the judaizers from further trouble in prosecuting the Apostle».

•Encyclopaedia Britannica»k ere luze ta sakon aztertzen du «Judaism» atala, baiñan ez duzu judukristauek Paul eta Kepa eriotzara eramateko ezertxo ere egi zutenaren susmorik aurkituko.

Ezta Henry Chadwick'en •The Early Church»en ere. Ez dizu Daniel-Rops'ek ere judukristauen aurka orrelakorik esango.

Daniélou bakarra da beraz, judukristauei pekatu ori leporatzen diena.

Lenen-elizaren arazorik larriena, urte aietan, bere nortasuna billatzea izan zan.

Zer zan kristautasuna?

•Esenitasunaren» antzera judutasunean sortutako judutasunaren •era• berri bat?

Ala, Itun Zarreko denbora amaiturik, Itun Berrirako Jainkoak sortutako Erljio berri bat?

Judu-Erljio zaar aren sekta bat izan, ala, erljio zaar ura bere osotasunera eramana, arengandik zearo bereizita erljio berri bat izan.

Orra or Jerusalemgo Eliz aren auzirik garrantzitsuena. 11 edo bizi, ori zan auzi ortan Elizak jokuan zeukan arazoa.

Elizaren nortasuna eta zertasuna bera zeuden orekan. Eta Elizaren katolikotasuna. Eta Elizaren etorkizuna.

Tarso'ko Paul'en inguruan artu zuan indar auzi sakon arek. Paul'en inguruan biurtu zan gogorra ta borrokatsua. Eta Paul bera izan zan bere kemen bizkorraren bidez, Eliza, auzi orri len-bait-len askapena ematera beartu zuana.

Erdaintza zan auzi guziaren ardatza.

Erdaintza. Guretzat bataioa dana zan judu aientzat erdaintza: Erljio baterako sarrera.

Baiñan zerbait geiago ere bazan, garai artan bereiziki, juduentzat erdaintza: Judu-Errirako sarrera, edo, berdin dana, Jainkoaren Errirako sarrera, erritasuna ta jainkotasuna, bat egiñik zeuden gauzak bait ziran juduen artean.

Ala, erdaintzen zana, Jainkoaren Erreiñuko urikide egiten zan. Erdaintzen ez zana ordea, jentilla zan; Jainkoaren Erreiñutik kanpora zegoan. Judu-Erritik kanpora. Erdaintzak, batera erlijioz yabetar eta nazioz judutar egiten zuan erdaintzearra. Batera erlijiozko eta politikazko ekintza zan beraz erdaintza.

Itun Zarrean, Jainkoaren Erria. esaten dio Bibliak Israel'ko Erriari. Baitare, Bibliak dion gauza da, Profetek iragarritako Mesia izango zala Jainkoaren Erri» ortako azken Errege garaille guztialduna.

Giro ortan agertu zan Josu •profetek iragarritako Mesia• lez juduen artera, eta bere Elizari, •nere Erreiñua eta .Jainkoaren Erreifiva» esaten zion.

Ezta beraz arritzekoa, judukristauek Bibliako Jainkoaren Erria» eta "Josu'ren Erreiriva• biak gauza bat bera zirala uste izatea.

Eta, orregaitik ainzuzen, Ebangelioetako Eliza Bibli zarreko Jainkoaren Erriaren jarraipena zala uste izan zutelako, Elizara sartzeko ere, Jainkoak bere Errira sartzeko agindurik zeukan erdaintza, bataio-aurretik bearrezkoa zala uste izan zuten:

Erdaintza aurrena. Bataioa gero. Ez zezakean bataiorik artu, aurretik erdaintzarik jasan nai ez zuanak.

Milla aldiz esan da lenengo Eliz ura, bere aurreneko urteetan judutasunaren altzoan bizitu zala. Ori ordea egiaren erdi bat besterik ez da.

Ez da berriz egiaren erdia izatera iristen •Encyclopaedia Judaica»k dioskuna: •Strictly speaking the words and ministry of Jesus, and his relations with his disciples, do not come under the heading •Christianity». They are rather part of the history of Jewish sectarian movements toward the end of the second Temple period».

Euskeraz: •Zeazki itzegitekotan, Josu'ren erakuskizune, eta bere erlijiozko ariketari eta ikasleekin erabilli zuan jardunkerari, ezin dezaieke iñork •kristautasun» izenik erantsi. Ez bait ziran, Bigarren Jauretxearen aroko azken aldirian judutasuneko igikunde zismakorren artean, bat geiagoren adigarri besterik izan».

Ori, ez da egia. Kristauek beti jakin zuten argi, ez zirala judutasunaren altzoan zisma edo talde bat bakarrik. Naiz judutar zintzoak izan, judutar uts izatea baiño zerbait milla aldiz aundiagoa era berean bazirala, ederki ulertu zuten. Orregaitik, askoz zugaragoak iduritzen zaizkit •Enciclopedia Judaica Castellana»ren itz auek:

•Tradicionalmente se considera la comunidad de Cristo Resurrecto fundada por Pedro en Jerusalem como la primera Iglesia Cristiana. Sin embargo, los judios que la integraban, mientras que asistian a las reuniones de la nueva secta, continuaban observando el culto judaico en el Templo y en las diversas sinagogas a las que pertenecian».

Barka dezaiozun Entziklopedi oni, Kepa'k Jerusalemgo alkarte ura bildu bazuan, Josu'k agindua betez bildu zuala ez esan izatea, baiñan alatagutziz, Iztegi onek uste baiño askoz judutarragoak ziran Jerusalemgo lenen kristau aiek.

Kristautasuna, lenen mendeko judutar kristau aien ustez, judutasunaren altzoko igikunde bat ez baiña judutasuna bera bait zan: Kristo etorritz gero, egiazko judutasuna: judutasuna bere gaillurrera eramana: arrezkero, egiazko judutasun bakarra. Kristau aiek juduak zirala egia da; baiñan gutxi esatea da; kristau aiek, egiazko juduak, beraiek bakarrik zirala uste bait zuten, Jainkoak juduei agindutako Mesia beraiek bakarrik onartu zutelako.

Era berean, Eliza zan aientzat, Josu etorritz gero, egiazko Israel bakarra; Eliza soilki, Jainkoaren Erria.

Eta ez zebiltzan oker, Israel'ko erriaren izate beraren zioa Mesia'ren etorrera gertutzea bait zan. Eta Itun Zarra, Itun Berrirako bidea. Ez zebiltzan beraz oker lenen aroko kristau aiek.

Baiñan puntu batean egin zuten uts: Mesia etorri ondorean ere, Itun Zarrak bizirik jarritzen zuala uste izan zuten: Itun Berriak, Itun Zarreko lege guztiak ontzat artu bear zituala, gizaseme oro erdaintzara beartzen zituan legetik asita.

Era ortan, kristau aientzat, egiazko judutasuna Kristo etorritz gero kristautasuna ba'zan ere, egiazko judutasuna zan kristautasuna. Eliza eta Israel gauza bat bera ziran: Eliza zan egiazko Israel, baiñan era berea, Eliza, benetan, Israel zan. Orrela, kristautasuna, juduentzat bakarrik zala uste zuten.

Ots, ordea! Kristau aiek bazekiten Josu'k bere ikasleei ebangelioa mundu guziari eta gizakume guztiei aldarrikatzeko agindu ziela.

Ez zuten beraz munduko erri guztietako semeak kristau izan zitezkean ukatzen. Ondo bait zekiten ori. Baiñan ori bezain sendo sinisten zuten beste onako au ere: Atzerritar aiek danak, Elizara sartzeko gai izan zitezen, lendabizi judutar biurtzea bearrezkoa eta naitaniezkoa zutela, erdaintza-bitarte, Jainkoaren Erreiñua judutarrentzat bakarrik agindua izan zan ezkerero.

Erdaintzaren bidez judutar egiñik egon bear zuan atzerritar orok, gero bataioa-bidez kristau biurtzeko.

Aurrena erdaintza; gero bataioa. Ez zan zillegi iñor bataiatzea, aurretik erdaintzarik ez bazuan artu.

Irudi bat erabiltzea zillegi ba'zait, judu-kristau aientzat bi bizitzako etxe bat zala esango nuke Jainkoaren Erreiñua: Itun Zarreko Israel, aurreneko bizitza; Itun Berriko Eliza, bigarren bizitza. Orrela, lendabizi aurreneko bizitzara sartzea, naitanaiezkoa zuan bigarren bizitzara igo nai zuan orok.

Ez ziran oartu, lorearen eta zituaren antzekoak dirala Itun Zarreko Israel eta Itun Berriko Eliza.

Lorea, zituaren gertuketa da; bearrezko gertuketa. Baiñan lorea ezerezturik gelditzen da zitua agertzen danean. Era berean, Itun zarra, Itun Berriaren gertuketa izan zan. Bearrezko gertuketa, Jainkoak ala nai izan zuan ezkerero. Baiñan Jainko beraren borondatez ezerezturik gelditubearra, bere zitu zuan kristautasuna sortu zitzaenez gero.

Zoritxarrez ordea, Jerusalemgo judu-kristauak ez ziran konturatu, zitu-aurreko lorea bezala Itun Zarra ezabaturik gelditu zala, Itun Berria agertu zanean.

Abertzalekeriak itsutu zituan Jerusalemgo kristau aiek; eta, oartzeke, Elizaren katolikotasuna ukatu zuten. Eliza-baitan erri, enda eta kultura guztiko gizakemeek ez ez erri, enda eta kultura guzti beraiek ere bai bait dute tokia!

Eta orixe da ainzuzen Paul tarsotarraren merezimendurik aundienetako bat: Lenen Eliz aren arazorik larrienaz oartu izatea, eta arazo ori era egokian askatu izatea.

Len ere esanik utzi dugun lez, bere zertasuna eta nortasuna egoki ulertzea izan zan Eliz jaio berri aren arazorik larriena.

Zertasuna: Zer da Eliza? Judutasuna, ala Jainkoa gurtzeko era berri bat. Nortasuna: Nor da Eliza? Lengo Israel zarra bera elburura ala Israel berri bat, ots, beinbetirako Jainkoaren Erri Berria.

Garrantzi aundiko gauza zan galde oiei era zuzenean erantzutea.

Judutasunaren talde bat bezala judu-erriaren muga estuen barruan itxirik gelditu, ala judutasunetik bereizita mundu guzira zabaldu eta *erri* ta enda guztiak bere altzoan bilduz Jainkoaren Erreïñu berria biurtu. Orixe zan Eliz sortu berriak esku-artean zerabilkian arazoa. Paul tarsotarrari zor diogu, Eliz gazte ark korapillo zail ori azkar eta era egokian askatu izatea.

Gogo Deunaren eragiñez, Paul'en laguntzarik gabe ere, Elizak bere bide zuzena billatuko zuala?

Bai noski. Baiñan noiz?

Egia da Gogo Deunak Pentekoste-Egunez Bidalien adimenak argitu zituala. Egia, len ere, Ebangelioak dioskunez, Josu'k berak, bereiziki berbizkundez gero, beraiekin berrogei egunez ibilli zanean _Jainkoaren Erreirluaz- mintza zitzailea; baiñan bidaliek ez zuten ezer aundirik ulertu.

Pentekoste-Egunaz gero ere, ez dirudi Bidaliek, Elizaren katolikotasunari-buruzko arazo artaz deus aundirik ulertu zutenik. Kepa ber-berak Kornelio euntari ez-erdaïndua bataiatu-aurretik bearrezkoa izan zuan ba Jainkoagandiko argikuntza berri bat. Eta, alatagutziz, ez zan gero, — judukristauek sortu zezaioketen zisma bati bildurrez agian bearrezkoa zan kementasunez ibilli.

Ez zaitez arritu. Elizak ez zuan orduan, ez du gaur, eta ez du mundu ontan beñere, Jainkoagandik artu duan egi-zerutiar-altxorra osoro bere oparotasun guzian ulertuko. Poliki-poliki dijoa Eliza mendeak-zear altxor orren aberastasuna ezagutzen.

Gogo Deuna zuzendari dala, eta Aren grazia lagun, bai noski, baiña eginkizun ori, elizkideen eginkizuna da. Gogo Deunak ez du elizkideen lanik bere gain artzen. Jainkoak ez du gizonaren ordezkotzarik artzen. Ezta Jainkoagandiko Graziak gizonaren ekintzarik barkatzen.

Bearrezkoa du gizakumeak Grazia, adibidez irakurtzeko argia bearrezkoa duan bezala; baiña, irakurri, ez du argiak egiten; irakurri, gizakumeak egin bear du.

Lenen mende artan Jainkoagandiko Graziari Eliza-baitan katolikotasunaren arazoa azkar eta egoki garbitzeko, bere ekintza trebeki eman zion gizakumea, Paul Donea izan genuan. Ori ukatzerik ez dago.

Ez zitzaion ekintza erreza gertatu. Ezta atsegiña ere.

Alderantziz arazo ori izan zuan, bizi izan zan denbora guztian bere arantzazko buruntza. Eta, bearbada, apika izan zan bere eraiketan errukide, ekintza arek judukristauen aidetik ekarri zion gorrotoa.

Ikaragarria izan zan ba judukristau gogor aiek gorde zioten gaizkinaia. Lenen Eliz maitagarri artan ere ez bait zan, ez orixe, guzia santu ta garbia. Bai bait zan Eliz gazte aren alorreatan, galburu mardul ederren alboan zekale zitalik aski.

JUDUKRISTAUTASUNA aipatzea, Lenen Elizaren kristautasuna aipatzea

da. Ez dezagun aztu, judukristau aien semeak gerala.

Sinagogaz-sinagoga zabaldu zan ba kristautasuna, diasporako bideak-
zear.

Uri batera iristean, iru •aldi» izaten zituan Apostolu baten ariketak:
Aurrenekoan, juduei itzegiten zien; Sinagogetan; eta larunbatez, jakiña.
Bigarreanean, kristau egin ziran juduen bidez, jentillengana urbiltzen
zan.

Irugarreanean, kristau egindako judu eta jentillekin Eliz bat eratzen zuan,
Eliz ortako Jerarkia sagaratuz.

Ori egiñez gero, uri artako kristautze-lana zabaltzea ta sakontzea — eta
uri aren inguruko lurraldea ebangelizatzea — Eliz sortu-berri artan sagaratuko
zuan jerarkiaren eskuetan uzten zuan. Eta, bera, diasporako beste uri batera
aldentzen zan, urrats berdiñen bidez, an ere ekintza berdiñari asiera
emateko.

Naiz sarri tokiz aldatu, ez zituan orrela irasitako Elizak aztutzen.
Alderantziz, Paul Doneak bezala gutunen bidez ematen zizkien seguruaski
bere aolkuak, bearrezkoak zituztela uste zuan guztian.

Izan zituan kristaudi gazte ark, bai Palestina'n bai Palestina'tik-at,
okerkeri galantak. Baiña izan zituan edertasun jainkotiar bikaiñak ere:

Josu, biotz guztiz maitatu zuten Palestina'ko kristau aiek. Ez da
arritzekoa, aurpegiz aurpegi ezagutu bait zuten Bera, eta Berak esandakoen
eta Berak egindako guztiaren lekuko bait ziran.

Arrazoi osoz aitortu dezakegu, gure Ebangelioek dakarten guzia,
orduana, soilki Palestina'ko kristau aien oroimenean •idatzia» egon zala. Eta
baita Ebangelioek dakartena baiño geiago ere. Jon Ebangelariak dioskunez,
Ebangelioetan bildurik dauden itzak eta egintzak baiño askoz eta askoz
geiago bait dira Josu'k esan eta egin zituanak.

Kristau bakoitzak ordea Josu'k esan eta egindakoetatik, bere errian
esan eta egin zituanak bakarrik ezagutzen zituan. Baiñan kristau aiei Josu
geiago eta zabalago eta sakonago ezagutzea eskatzen bait zien maitasunak,
laister asi ziran kristau aiek, an galdetu eta emen galdetu, Josu'ren ekintzen
eta esanen bildumak jasotzen, eta Josu'ren bizitzak idazten (Luk, 1, 1).

Are geiago: Eukaristirako biltzen ziranean ere, Josu'ren ekintzak
oroitzen eta Josu'ren esanak agozatzen jardun oi ziran.

Eta billera artara kanpotar bat, adibidez Jerusalem'go billera batera
galilear bat etortzen ba'zan, Galile-aldean Josu'ri esaten entzun eta egiten
ikusi zion guzia kontaarazten zioten.

Berak berriz, Jerusalemgo billera artan entzundako guzia eramango
zuan berekin Galilea'ra an bere erriko kristauei kontatzeko.

Orrela, gauza **berak esan etabar-esan, etaber-esan, era bereizi** bat
artu zuten kristauen billeretan esaten ziran gauza aiek danak. **Erri-**
literaturak bai bait du, bere legeen araura, erabiltzen dituan gaiei era
bereizi bat emateko aalmena.

Gero, «sinoptike- edo •kidekoak» esaten zaien iru ebangelioek ez dute

kristauak beren billeretan, Jaunari zioten maitasun gozoak eraginda bein da berriro, eta aneika aldiz, aspertzeke kontatu oi zituztenetatik, gertakizun garrantzitsuenak lumaz jaso besterik egingo.

Judulcristauak Jaunari izan zioten maitasunaren zitu ditugu beraz gure aurreneko iru ebangelioak; ots, Mateo, Markos, eta Luka'ren ebangelioak.

Laugarrena, Jon'en Ebangelioa, beste iruak osotzeko asmoz, II mendearen asieran idatzia dugu.

Asieran, maitasun zerutiarrezko paradisu izan zan Jerusalemgo Eliza. Zoritxarrez, abertzalekeriak ondatu zuan karitate gozoko giro bikain ura.

•Genesis»ko paradisu arek suge bat izan bait zuan..., abertzalekeria izan zan Jerusalemgo paradisu kristau onen sugea. Abertzalekeria; ez, abertzaletasuna.

Elizaren aurren-aurren uneetan, badirudi Bidaliek beraiek erdaintza eta bataio arteko arazoa ez zutela era zuzenegan ulertzen. Ala, esan dugun lez, Zerutik irakatsia izatea bear izan zuan Kepa'k Kornelio euntari erromatarra erdaindu gabe bataiatzeko.

Jerusalengo kristauak, naiz danak juduak, ez zioten bataiaketa ari eragozpen aundiegirik jarri, eta pozik artu zituzten Kepa'ren arrazoiketak.

Geroago sortu zan iskanbilla, Palestina'tik-at, Antioki'n ainzuzen, an Paul'ek eta Bemabe'k jentillak, ugari gaiñera, erdainduerazi gabe bataiatzen zituztelako.

Baiñan an ere ez zan iskanbilla Antioki'ko judu diasporatarren aldetik sortu, ez; Jerusalem'dik joandako judu palestinatar batzuen aldetik baizik. Diasporako juduak beti izan bait ziran oldozkera zabalagokoak.

Jerusalem'go eta Palestina osoko judu aien jardunkera ulertzeko, oroi dezagun iñoiz baiño garrantzi geiagokoa zala I mendearen erdialderuntz, azkenean juduerria ondamenera eraman bear zuan judu-abertzalekeria. Erroma'ren aurka gudan ekiteko asmo-artzen asiak bait ziran ordurako juduerriko «abertzaleak».

Eta, diasporako juduei, — auek gudaketan zale ez ziralako eta «proseltyti» eta «timentes Deum. aiei, — auek endaz beintzat judutar ere ez ziralako Palestina'ko juduek beti begi okerre bezala begiratu izan zieten bezala, pentsa dezakezu ez zerala Palestina'ko judukristauak orain, gudu-aurreko giroan, jentillei Elizara, ots, Jainkoaren Errira, erdaindu gabe sartzen uzteko gerturik egongo.

Antioki gaiñera, — Palestina orduan Siri probintziko zati zalarik —, ajola aundiko uria zan Jerusalem'go juduentzat. Antioki bait zan probintziaren uri-burua.

Mundu guzian ere ez zan Antioki edozer gauza: Ejito'ko Alexandri eta bera ziran ba Erroma'ren ondorean Inperio-lur osoko uririk aundienak, eta, bai jakintzaz bai aberastasunaz, oparoenak. Eta baita diasporako uririk

garrantzitsuenak ere.

Orregaitik, ugariak ziran bi urietan judutarrek. Eta Antioki'n, une artan, txit ugariak kristauak.

Ez da beraz arritzeko gauza, Jerusalemgo judukristau judukerizaleak, Paul'en eta Bemabe'ren ariketa eragozteko, iraduz Antioki'ra joan izatea.

Antioki'ra, beste erromatar-urtetara bezala, diasporako bideak-zear Palestina'tik kristau arruntek eraman zuten kristautasuna. Batez ere Doneztebe erailla izan zanez gero sortu zan zigorretik igesi joan ziran kristauak; palestinatarrak ia danak.

Baiña, aien artean diasporatik Jerusalem'era joandako erromesak ere, seguruaski ugari izan ziran-da, juduek juduei Josu'z itzegiten zieten bitartean, diasporatar aiek, beraiek bezala eleneraz mintzatzen ziran Antioki'ko jentillei aldarrikatu zieten Berri Ona.

Eta, juduz eta jentillez, oso kristau-multzo bizkorra eratu zan Antioki'n, bertara kristau-agintarrietatik iñor urbildu baiño len.

Ainzuzen Eliz aren sendotasuna entzun zutelako bidali zuten aruntz Bidaliek Bernabe. Onak berriz, Tarso'ra joanda, Paul ekarri zuan berekin Antioki'ra, bertako giro egokiaz jabeturik.

Antioki'n Paul eta Bemabe'ren gidaritzapean Elizak azitzen eta azitzen ziarduan bitartean, Erodes Agripa Eliza zigortzen asi zitzaigun Palestina'n

Aingeru batek atera zuan Kepa espetxetik. Bigaramonean Erodes'ek, asarre, espetxe artako gudari zaindariak eriotzara galdu zituan.

Laister zuan ordea berak ere gaiñean eriotza: Ez nolanaiko eriotza gaiñera. «Arrek janik il bait zan. (B.E. 12, 23.).

Antioki'n ordea zabaltzen eta zabaltzen ari zan Eliza. Gauzak orrela, bere lenen mixio-ibilketari ekin zion Paul'ek Bemabe lagun zuala. Oraindik, bikote artan, zuzendaria Bemabe zala dirudi, bere izena Luka'k Paul'en izenaren aurretik ematen bait digu.

Txipre'ko ugartera joan ziran lendabizi, eta an, mirari baten bidez, Txipre'ko Jaurlea bera, Sergius Paulus -gizon zintzo zugarra• egin zuten kristau.

Orduan ainzuzen utzi zuan Paul'ek bere judu-izena, Saul, erromatar arena artzeko: Paulus. Seguruaski, izen erromatar batek jentillengana urbiltzeko adontasun ohea ematen ziola uste izan zualako.

Beste batzuen ustez, jaurlearena artu ez baiño lendik berea zuan izena erabiltzen asi omen zan Paul. Bi izen omen zituan bat judutarra, Saul, eta bestea erromatarra, Paul. Baleike. Ez dezagun aantzi Paul, -cives romanus-, -erromar-urikide. zala.

Txipre'tik irtenda, Anatoli'ko uri batzuetan Berri Ona zabalduz gero, Antioki'ra itzuli ziran berrero.

Bildu zuten ibillaldi aren bitartez judutarren artean eta baita jentillen

artean ere uzta mardulik aski, baiña izan zuten era berean, juduen aldetik bereiziki, zigorrik naiko.

Alderantziz, Likaoni'n, Listra zeritzan uri batean jainkotzat artu zituan jendeak, mirari bat egiñez erren bat osatu zutelako.

•Gizataldeak, Paulo'k egindakoa ikusi ebenean, Likaoni'ko izkeraz oiuka iñoen: Gizonen irudiko jaungoikoak jatsi yakuz gure artera.

•Eta Bemabe'ri Jupiter eritzoen; eta Paulo'ri Merkurio, berba egiten ebana Paulo zan-eta. liri-aurrean egoan Jupiter'en Jauretxeko abadeak be, ate-ondora zezenak eta koroiak ekarririk, erriagaz arei opariak eskiñi nai eutsezan. (B.E. 14, 11-14). (Kerexeta bizkaitarraren itzulpena).

Listra'n, azoka-uri ez zalako, judutarrik ez zan, baiñan etorri ziran inguruko urietatik. Eta baita Listra'ko urikideen gogoia irabazi ere. Eta atzo Bernabe ta Paul jainkotzat gurtu nai zituan jende arek berak arrika ekin zion orain, karriketan arrapatu zuten Paul'i, eta narrazka uritik kanpora atera zuten illik zegoalakoan. Istilluak baretu ziranean, zorionez, gorde eta salbatu aal izan zuten uriko kristau berriek.

Laister aldatzen dirala jendearen asmoak!

Emen ordea galde bati erantzun bearrean aurkitzen gera:

Ibillaldi ontan ikustatu zituzten baztar guztietan Bemabe'ri eta Paul'i ain ankerki eraso zieten judu aiek nor ziran? Josu'ren aurka ere ain era gogorrean jardun ziran farisai eta saduzai aien jarrailleak? Ala, bataio-artutako judukristau erdaintzazaleak?

Erreza iduritzen zaigu erantzuna: ezpairik gabe aurreneko taldekoak ziran: Palestina'ko judu aundikien, eta bereiziki, Anas, Kaifas, eta Sanedrin osoaren jokaera ezagutzen zuten farisai ta saduzaitarrak, eta auen adiskide, miresle eta jarrailleak. Judukristau erdaintzazaleen zalapartak ez bait zuan oraindik galantasunik artu.

Ibillaldi ontan ainzuzen, Txipre'n, artu zuan Paul'ek kristautasunarentzat ondorio bizkorreko erabakia: Bere ardurarik aundiena jentillei ematea:

•Orduan Paulo'k eta Bemabe'k zabal-zabal itz egiñik, auxe esan eutsen (juduei): Zeuei iragarri bear yatzuz leenen Jaungoikoaren itza; baiñan itz au ezetsi ta betiko bizitzarako gai ez zareela uste dozuen ezkeru, oraindik jentillengana bihurtzen gara, Jaunak olantxe agindu euskun-eta: Jentillen argitzat jarri zaitut salbamaena lurraren azkeneraiño eroan dagizun» (B.E. 13, 46-48). (Euskeratzaile, Kerexeta).

Eliz gazte artako kristauen gorazarre-egiziñez, esan dezagun, lenen maillako mixiolariak izan zirala kristau aiek. Kristau ezezagun aien mixioketaren ondorio, Luka'k dioskunez, bai bait ziran kristauak Paul'ek eta Bernabe'k ikusi zituzten urietan, bi auek uri aietara iritxi baiño len. Eta orixe bera gertatuko da, gero ikustatuko dituzten baztar guztietan ere.

Elizaren aurreneko urte aietan kristau oro izan bait zan apostolu.

Tamalez, abertzalekeri zipotza azi ta azi zijoan Jerusalem'go Eliza-baitan, eta okerkeri orri aurrerapena moztutzeko, zerbait egitea erabaki zuten Bidaliek Kepa buruzagi zutela.

JERUSALENGO •KONTZILIOA.. Izen ori eman oi zaio bidaliek erdaintzaren arazoa bein-betirako garbitu naiean, 49'garren urtean bildu zuten batzarrari. Antioki'ko Eliza zan orduan Eliz Orokorrean indartsuena eta bizkorrena. An, ainzuzen, lenengo aldiz •kristau- esan zitzaien ordurarte •nazarear» esan oi zitzaien Kristo'ren jarrailei.

Bernabe eta Paul zituan Eliz arek buruzagi. Eta asko ziran bere-baitan, jentillediaren artetik etorritakoak ere.

Jende auek erdaindu gabe bataiatzen zituzten Bemabe'k eta Paul'ek. Kepa'k berak Palestina'n Jainkoaren aginduz, Kornelio euntaria bataiatu zuan bezalaxe.

Eta ori, Antioki'ko juduek, — diasporatarrek izaki ez zuten begi okerreaz ikusten.

Etorri ziran ordea Jerusalem'dik ango judutar batzuk, zoritxarrez, bataio aurretik erdaintza bearrezkoa zala oiukatuz. Auek izan ziran, Elizaren nortasuna ezabatzeko eta nortasunaz aldatutako Eliz orren mundua-zearko zabalkundea eragozteko arrisku larria ekarri zigun •judukerizaleen• auzia sortu zigutenak.

Zergaitik sortu zan auzi orijerusalem'go juduen artean, eta ez Diasporako judutegietan?

Diasporakoak, atzerrietako kulturetara oituagoak zeudelako, eta atzerriko jentil aiek erdaintzari zioten narda ondo ezagutzen zutelako. Beren artean, bai bait zituzten, naiz Yabezale, erdainduak izan nai ez zutelako erlijioz judutar osoak izatera iristen ez ziran adiskideak.

Bazekiten beraz diasporatarrek, erdaintza nolako eragozpena gertatzen zitzaion judutasunari bere zabalkunderako.

Eta, Jerusalem'en, zergaitik sortu zan auzi ura orain I mendearen erdi-aldera eta lenago ez?

Len, Kepa'k, Kornelio euntaria eta onen etxeakoak erdaintzarik gabe nola bataiatu zituan eta bataio aien ondorio miresgarriak, Jerusalem'go Elizari azaldu zizkionean, ontzat artu zuten judukristau aiek danek Kepa'ren ariketa, naiz beraiek, beraiek bai, judutar zintzo lez beren semeak erdaintzen jarraitu.

Ontzat artu zuten baitare Kepa'k bataiaketa ura zala-ta, danen aurrean argi aldarrikatu zuana: jentillak, alegia, ez zeudela erdaintzara beartuak.

Orduan ordea, sendi bat bakarra, Komelio euntariaren sendia izan zan erdaintzeke bataiatua. Orain alderantziz, sendi asko ta asko ta asko ziran Antioki'n erdaindu gabe bataiatuak izan ziranak. Gaiñera, orain, politikaren aldetik aize berri batek gogor jotzen zuan Jerusalem'go Eliz ura.

Eliza, izaki jainkotiar zerukoia izateaz gaiñera, gizakumeek osotzen duten eta lur ontan bizi dan Erakundea ere bada, eta une artan, 40'garren urteaz gero, indar sendoa artzen ari zan, bizkor, Palestina'ko juduen artean

abertzaletasun ertzakoi estu eta larri bat. Azkenean, errialde ura dana 66'ako gudu doakabera eta ondamen osora eramane zuan abertzalekeri buru-gabea.

Kristautasuna, judutasunaren jarraipena zala uste zuten judukristauek: Abraan-ezkeroren zetorren judutasun bat bakarraren bigarren atala.

Ez da arritzekoa, kristau aiek, judutarrak izanik, judutasuna betirako gauza zala ziur uste izatea. Isaias, Jeremias eta juduerriko beste profeta zar aiek ere ez bait zuten sekulan pentsatu, iragartzen zuten Mesia ura etortzean judutasuna ezereztua gelditu bear zuanik.

Alderantziz, Mesia, judutasunaren Errege ata Apaiz Nagusi izango zala uste izan zuten, eta aurrera jarraituko zuala Mesia arekin judutasunak, eta ludiaren bazter guztietatiko jendeak etorriko zirala Mesiak garaille bihurtutako judutasun berbiztura, orrela mundu guztiko jende aiek Mesia'ren erreinura sartuz.

Orregaitik, Jerusalemgo judukristauek, abertzalekerizko aro artan, Aberriari zer-gerta ere, bai erlijioaren aldetik bai politikaren aldetik, judutar egin nai izan zituzten erdaintza-bitarte, Elizara sartzen ziran atzerrietatiko jentil guztiak. Juduak izan bear omen zuten atzerritar aiek beste edozer baiño leenago. Eta erdaintza omen zan judutasunerako sarrera.

Abertzalekeri orrek jotako judutar sutsuak ziran Jerusalem'dik joanda Antioki'ko Elizan zalaparta sortu zutenak.

Eta Jerusalem'go urduritasuna diasporako kristauen artera luzatu ez zedin, eratu zuten Bidaliek Jerusalemgo Batzar Nagusi ura.

Batzarrean, bi gizonak itzegin zuten bereiziki: Kepa'k, Elizaren Buruzagiak, eta itxuraz Jerusalem'go Elizaren Gotzai zan Jakoba'k.

Azkeneko au, ez zan, oraindik bizirik ziarduan, izen bereko **ots**, Jakoba «Gaztea», baiñan Jerusalemgo kristauen artean itzal aundiko gizona, bai, bazan. Agian Josu'ren aide zalako. Esan ere, Jaunaren Anaia» esaten bai zioten, juduek aide guztiei «anai esateko duten oiturari jarraituz.

Jakoba ori, Jerusalem'go Eliza-baitan bertako «presbyteri» edo «agureen» buruzagi bezala agertzen zaigulako, guk, oraingo gure izkeraz, Jerusalemgo gotzaia izan zala esango genuke.

Portitza izan zan dirudianez, batzar artako erdaintzazaleen ariketa. Azken erabakia ere aski orekazko erabakia gertatu bait zan, aipatutako Jakoba Jaunaren Anai» arek aurkeztutako bidetik.

Batzarrak, argi erabaki zuan beintzat, erdaintzarik ez zitzaiaela jentillei agindu bear.

Jduentzat erdaintzak bearrezkoa jarraitzen zuan edo ez, ori, Batzarrak ukitu ere egin ez zuan gauza da. Agian, zalaparta guztia, judutarrei-buruz ez baiña jentillei-buruz sortua zalako.

Ala, III mendea beren semeak erdainguz jarraitzen zuten, judukristauak, Elizaren aldetiko eragozpenik gabe, eta orrela jarraitu lezakete gaur ere, nai izan ezkeroren, kristau egindako judutarrek: Elizak ez bait du beinere erdaintzarik debekatu. Soilki, erdaintza salbamenerako bearrezko gauza

dala sinistea da Eizaren aldetik gaitzetsia dagoana.

Badirudi erdaintzari-buruzko auzi ortan Paul eta Kepa beren artean asarrexamar ibilli zirala. Bai, eta, ez:

Gogoeten maillan, aburu berekoak genituan biak, izan ere, Paul baiño leenago, Kepa izan bait zan, Komelio euntaria bataiatzerakoan Jainkoagandik jaso zuan irakasketaz gero, erdaintzarik gabe jentillak bataiatzen asi zan aurreneko Bidalia.

Gogoeta ori betetzeko **era** zan Paul eta Kepa bata bestearengandik bereizten zituan punttua. Arek, Eliza jentillen aurrean oztopo-bide oroz garbitzearren, judutarren oitura odoltsu ura, erabat ezabatu nai zuan. Kepa ordea, judukristauen abertzalekeri berbiztuaren zuzperketaz jabeturik, judu auei amore pixka bat ematearen aldekoa zan. Ikusten bait zuan ba, bestela, judu-jendea Elizatik kanpora irtetzeko arriskuan ipintzen zuala, eta oraindik bataiatu ez ziran juduei Elizarako sarrera betirako isten ziela.

Ez zitzaion Paul'i ere arrazoirik peitzen. Oartzen bait zan, erdaintza «Judu-legearen• oiñarria zalarik, juduen artean erdaintzeko oiturak jarraitzen zuan bitartean Itun Zarrak eta Itun Zarraren muiña zan Judu-lege osoak ere bizirik jarraituko zutela.

Paul'ek ere, juduek bezala, kristautasuna, ots, Itun Berria, Itun Zarraren osogaillu zala uste zuan. Baiñan ez auek uste zuten eran.

Auentzat Itun Berriaren oiñarri lez, bizirik jarraitzen zuan Kristo etorri ondorean ere, Itun Berriarekin batera Itun Zarrak ere, bien artean gorputz bakar bat osotuz.

Ori, ez da egia, deadar zegian Paul'ek. Kristo'ren bitartez Jainkoak gizadiarekin Itun Berri bat egin ondorean, betirako ezabaturik gelditu da, Itun Berri au gertutzeko Israel'ko erriarekin egin zuan Itun Zarra. Itun berri batek, leenagoko itun guztiak ezerezen bait ditu.

Ikusiko dugun bezala erdaintzari-buruzko arazo au ez zan bertan bera gelditu.

Ezta Kepa'ren eta Paul'en jardunbidea bateratu ere.

Bi gauza agindu zituan jentillentzat Jerusalem'goKontzilioak: Izorrekatarik ez egitea, eta sasijainkoei eskeiñitako aragirik ez jatea.

Aurreneko aginduak ez zekarren deus berririk. Are geiago, Batzarrak galerazten zuana, izorreketa sagaratua zalako: Benus bezalako jainkeme eta sasijainkoen jauretxeetan egin oi zan izorreketa sagaratua. **Corinthe on ne comptait pas moins de mille prostitu&s dans le sanctuaire d'Aphrodite, si lon croit a Strabon• (Catholicisme): •Korinto'n Afroditu edo Benus'en jauretzeko eme izorralariak ez ziran milla baiño gutxiago, Estrabon'ek dioskunez».**

Bestelakoa zan sasijainkoei eskeiñitakorik ez jateko agindua.

Sasijainkoei eskeiñitako jaki aiei,»idolothytos• esaten zitzaian kristauen

artean.

Baiñan, Erroma'ko inperiolurraren zabalera guztian, aragi guztiak ziran •idolotito., erail aurretik bizidun oro, opari lez, sasijainko bati eskeiñia izaten bait zan, eta sasijainko aren omenez illa, gero.

Gauzak orrela, erabat aragirik jan gabe egotera beartzen zituan lege orrek inperiolurreko kristauak, beren artean arakiñik sortzen ez ba'zuten beintzat. Ez da arritzekoa-ta, jaio zan urduritasun mingarria kristau aien artean.

Guretzat askapen errezeko korapilloa izango zan -idolotitoen- korapillo ura; Sasijainkoen omenez ildako abereen aragia jatea, ez bait da aragi ori sasijainkoen omenez jatea.

Ez zan ordea askapen errezakoa gertatu, ia soilki judutarrez osotutako Eliz gazte arentzat. Alakoa bait zan juduek sasijainkotasunari zioten ezin-ikusia.

Ori kontuan artuz eman zion auzi ari Paul Doneak askapen egokia:

Jan, jan omen zitezkean -idolotito. oiek; baiñan arretaz ibillita, janketa ori judutarrei galbide gerta ez zekien. Aundia zala Eliz jaio berri artan judutasunaren itzala!

Itzal ori ain aundia zalako egin zien Batzarrak eskari bat kristau biurtzen ziran jentillei: odolik eta itota ildako aberearen aragirik ez jateko eskatu bait zien.

Ez noski Itun Zarrean debekatua zegoan janketa ori Itun Berrian oben izan zitekealako, baizik eta, Jakoba -Jaunaren Anaiak- berak an adierazi zuan bezala, Moise'k uri bakoitzean jarraileak izanik, jarraile oiek zuzenbide ororen gaindik -erresumindu ez zitezen-, eta, orren ondorioz, Elizari muzin-egin ez zezaioten. Juduentzat, Itun Zarrean, odola eta odolustugabeko abereen aragia jatea debekaturik bait zegoan.

Izorrocketaren gaitzespenak ez zuan kristauen artean urduritasunik sortu. Odolari eta abere itoei-buruzko eskariak, ez du edestian aztamarik utzi. Bai ordea -Idolotitoen- debekuak.

Paul'ek eman zion, esan dugunez, arazo ari askapen zintzo bat. Jon Doneak ordea, Apokalipsis liburuan, idolotitoak jatea galerazi zuan. Osoro gaiñera galerazi. Ez die beintzat bere kristauei, Paul Doneak korintotarrei emandakoaren antzeko irtenbiderik ematen.

Jon'en debekua ulertzeko oroi dezagun, bi idolotito-mota bereizi bear dirala:

Bata, guk aipatu duguna: sasijainko baten omenez illa izandako aberearen aragia, sasijainkoari eskeiñia izan ondorean, arategietan saltzen zana;

Bestea, opari-ilketa edo sakrifizioaren ondorean, jauretxean bertan, salcrifizioaren azken-atala zan otoruntza sagaratuan jaten zan oparin ildako aberearen aragia.

Sasijainkoen jauretxeetan opari-ilketa guztiak amaitzen ziran ba otoruntza sagaratu baten bidez. Otoruntza artan, sasijainkoaren omenez ildako

aberearen zati bat jaten zuten eskeinleek. Otoruntza ori, geienetan, egiazko otordua ez baiña, liturgi-zirimoni bat betetzeko aberearen pittin bat jatea besterik ez zan izaten.

Otoruntza sagaratu aietako aragiari deitzen ote zion idolotitos Jon apokalipsilariak? Soilki otoruntza sagaratu aietan maikide izatea debekatu nai ote zuan?

Ori bakarrik galerazi nai izan ote zuan Jerusalemgo Kontzilioak ere?

Galde au ez da ziorik gabea, idolotitorik ez jate ori eta izorraketa, debeku batean bildu bait zituan Kontzilioak. Izorraketa debekatzean ordea, sasijainkoen omenez egindako izorraketa sagaratu zeukan eskierki Kontzilioak gogoan. Era berean, gogoan sasijainkoen jauretxeetako opari-ilketa sagaratuen ondorengo otoruntza sagaratu bakarrik ote zeukan?

Egia baita beintzat Itun Zarrean juduei idolotito oro jatea galerazten zien agindu ura, •ez zuala, kristau egiten ziran jentillentzat, Itun Berriko agindu biurtu izan nai»: •Le Concile de Jérusalem n'avait pas pour but de tracer aux gentiles convertis une règle morale» (Dictionnaire de Théologie Catholique).

Kristaudi gazte ark ordea, arategietako aragi ura ere debekupean sartua izan zala uste izan zuan, eta luzaro iraun zuan idolotitoen arazo ark: IV mendera arte, ots, Erroma kristau egin ezkerero, sasijainkoen gurraketa ezabatu zan arte.

Iru mende aietan gogorkeriaren aldera jo zuan ba Elizak Apokalipsiaren bidetik. •La solution libérale que Saint Paul avait donnée aux fidèles de Corinthe n'entra jamais dans la discipline ecclésiastique»: •Donépaul'ek Korinto'ko kristauei emandako aolku zabala ez zan beñere Elizaren araudira sartu». (Danilou).

Mende aietan Elizaren gogorkerirako joera nabarmen ori nolakoa eta zergaitik izan zan, bere tokian aztertuko du.

JL DU-KRISTAUEN ELIZA

Jerusalen'go Kontzilioaren ostean aurreneko uneetan Eliz gazte aren altzoan judukeria oraindik gaillurrean egon ondorean, beeraka joan zan poliki-poliki. Ez dakigu zenbat izan ziran Jerusalem'go Kontzilioaren erabakia ontzat artu zuten judukristauak. Badakigu ordea, judukeriak, sendo iraun zuala Palestina'ko kristau askoren artean; agian, kristau geienen artean, dirudianez.

Juduzalekeriz orbandutako kristauok borrokalariak dira, eta, edestilari batzuen iritziz, abertzalekeriz zorabiatuak daude, eta, agian berak nai gabe, Errorna'ren aurka juduzalekerira ekarri nai dituzte, aurretik erdaintza-bidez judu eginez, munduko kristau guztiak. Geiegi esatea, iduritzen zait. Beste edestilari batzuen ustez judukristauak ez nait zuten Erroma'ren aurkako gudan eskurik sartu.

•On voit donc l'enjeu véritable de la question. Le danger était de solidariser le christianisme avec le destin temporel d'Israël: orra arazo guziaren ardatza: Kristautasuna Israel'en mundu ontako eiburuarekin uztartzea. Ori izan zan orduango arriskua- (DanFelou).

Ortaz gainera aizto baten antzekoa zan juduzalekeria Elizaren biotzean. Bi zati egiten bait zuan Eliza.

Bi Eliz aurkitu zituan Kepa'k JeruSalengo Kontzilioa amaituta Antioki'ra joan zanean: Judu-kristaua bat, jentil-kristaua bestea.

Batzuekin gaur, besteekin biar, pakean ari zan Kepa bere lanean, Jerusalem'dik «Jakoba'ren inguruko- judukristau batzuk Antioki'ra iritxi ziran arte. Jerusalem'go Kontzilioaren erabakia ontzat artutako kristau zintzoak ziran auek: Jakoba Jaunaren Anaiaren- inguruokak.

Baiñan aien bildurrez, edo aiek eraginda, Kepa'k jentillen etxeetara bazkaltzera-ta joatez utziko du, Paul'ek, jardunkera orregaitik asarre, zorrotz aurpegi-ematen dion arte.

Kepa'ren koldarkeria? Ez. Kepa'k bazuan oraindik Palestina'ko eta mundu zabaleko juduerria, — artean kristau egin gabe jarraitzen zuan juduerri mardul ura Elizaruntz erakartzeko itzaropena. Eta agian, ori besterik ez zuten Jakoba Jaunaren Anaiaren• inguruko judukristau aiek eskatzen: Kristautasunean judu-oiturak gordetzen jarraitzea, oraindik kristau ez ziran juduak Elizara etorri zitezen eta ordurako kristau bihurturik zeuden juduak abertzalekeriak eraginda Elizatik irten ez zitezen.

Paul'ek ordea, galdua zuan ordurako itzaropen ori; Elizaren etorkizuna juduengan ez baiña jentillengan ikustenzuan, eta jentillak Elizara erakartzeko, Eliza judu-kutsu orotik ikuzi nai zuan. Izan ere, Josu'k bataioa, beste Sakramentuak, eta Eliza bera irasi zuan ezkerro, erdaintza eta beste judu-oitura aiek danak, orixe besterik ez bait ziran: oiturak, gizakumearen salbamenerako baliorik gabeko gauzak.

Norena zan arrazoia? Ez da erreza erantzuna. Danadala, aitortu bearra dugu Jerusalem'go Elizak, Eliz Santu arek uts egin zuala judutasuna kristau

egiteko lanean; ez zala bere errikideen gogoia irabazteko gauza izan.

Judukristauek ezin izan zioten Paul'i zerabilkian jardunkerarik barkatu. Ikus:

50'garren urtean, bigarren ibillaldi batean, bai juduen bai jentillen artean jende asko irabazi du Paul'ek Asi Txikiko lurraldeetan. Baita Europa'ko lurretan ere: Mazedoni'n, (Filipos, Tesalonika), eta Grezi'n bertan (Atenas, Korinto).

53'an, irugarren ibilte batean, Asi Txiki'n eta Mazedoni'n ostera, bai judu bai jentil, kristau berri geiagoz zabalduko digu Eliza. Entzun orain Danielou edestilariari: (Azpimarraketak bereak dira).

- Entre 50 et 59 le bilan des missions de Paul etait positif. Mais ce que les Actes nous laissent entrevoir et ce que les Epitres nous montrent de mani&e pathetique, c'est l'opposition qui le conduira d'abord a l'arrestation de Jerusalem en 58, puis au martyre en 67.

- Comme l'ont bien vu Brandon et Reicke, toutes les difficultes que rencontre Paul proviennent de cette unique cause. Elles commencent des le debut de la mission de 49. Bamab et Marc refusent de partir avec lui et s'embarquent pour Chipre (Act. 15, 39). Si l'on se souvient que juste auparavant Bamabe, par crainte des gens de la circoncision s'etait deja desolidarise de Paul (Gal. 2, 14), il est clair que c'est la meme raison qui l'a~e a se separer de lui.

- A Lystres a cause des juifs (Act 16, 3), Paul circoncit Timothee, ce qui etait une concession. A Thessalonique, les juifs, par jalousie, soulerent le peuple contre lui. Mais il y a plus. L'Eglise est troublee par des gens deregles qui ne travaillent pas et s'occupent de choses vaines (II Thes. 3, 11).

- Ces sont des membres de la communaute. Ils annoncent une venue imminente du jour du Seigneur (II Thes. 2, 2). Il est difficile de ne pas voir une agitation politique d'ordre messianique, qui rapelle ce que Josphe nous dit des insurges juifs a cette epoque. C'est contre leur influence que Paul ecrit ces deux lettres».

Euskeraz:

«Emankorra izan zan 50'etik 59'rako Paul'en misioketa. Baiñan ona zer dan, •Bidalien Ekintzek. erdizka eta ..Epistolek. argi eta mintsuki erakusten digutena: Aldi guzi artan, gelditu gabe, eta gero ta geiago, aurka izan zuala beti abertzalekeriak anpatutako judu-etsaikeria. Etsaikeri orrek eramanen du 58'an Jerusalem'en atxilotua izatera, eta gero, azkenean, martiriora 67'an.

- Brandon'ek eta Reicke'k zuzenki ikusi duten lez, erro ortatikoak izan ziran Paul'ek aurkitutako ateka gaizto guztiak, 49'ko misioketa artatik bertatik asita. Bemabe'k eta Marko'k ez zuten berekin joan nai izan, eta Txipre'ra jo zuten. Lentxeago Bemabe bera, erdaintzazaleen bildurrez bereizi bait zan Paul'engandik, gauza argia da noski, oraingo bereizketa ontan ere zio ber-bera izan zuala.

- Lystras urian, juduengaitik, erdaindu zuan Paul'ek Tito, juduei amore pixka bat emanez. Tesalonika'n juduek altza zuten, bekaizkeriz, aren aurka

jendea. Eta bazan an zerbait geiago ere: Lanean ez baiña txolinkerietan murgildurik ziardun, jende okertuek naasirik zeukaten Eliz ura, Paul'ek berak dioskunez. Elizkid'arteko jendeak ziran (nasketalari) aiek, eta Jaunaren berealako etorrera aldarrikatzen zuten. Ez da zailla, Josefo'k ere garai artako judu iraultzalarietaz dioskuna oroitzen digun naaskeri ortan, mesiakerizko politika-zalaparta urduri bat ikustea. Urduritasun orren aurka idatzi zizkien Paul'ek tesalonikatarrei bere bi eskutitz auek».

Ez bait zan guzia santu Lenen Eliz artan! Gnosikeria ere ari bait zan ordurako, bere barrura sartzen!

Ori da ainuzen Paul'ek Apolo zeritzan itzal aundiko judukristau bati Efeso'n aurpegira jaurti ziona.

Gnosikeriaz, gero itzegingo dugu. Esan dezagun orain juduen gnosikeriak onako atal auek zituala nabarmenenak:

- Aingeruen, eta Jainkoa eta gizadiaren artean ugari ipiñi oi zituzten ametsezko beste izpiritu batzuen izaera aztertu nai izate txoroa;

- Zenbakiei eta egunei eta urteei, ots egutegiari, emandako garrantzi alua: gnosikeriak pitagoritasun berritik jasotako eta gero berak neurrigabe anpatutako arazoa;

- Eta, bereiziki, juduengandiko mesiakeria, Mesia Erregea berealaxe etortzekoa zalako itxaropen sutsua. Judukristau gnosizaleek bazekiten Josu zala mesia, eta Josu etorri zala, baiñan orain, Josu'ren bigarren etorrera itxarotzen zuten.

- Munduaren azken-unea bertan zegoalako ustea. Esenitarren giroko jendeen artean ere oso zabaldurik zegoan uste ori. Eta, judukristauen artean! Ala dakusgu beintzat auen idaztietan. •Isaias'en Igokunde»an adibidez.

Ez zala guztia santu lenen Eliz artan!»Asko dira nere aurka dauzkadanak» idatzi zien Paul'ek Efeso'tik korintotarrei.

Beinbitartean aurrera zijoan judukristauen artean Paul'en aurkako igikundea.

Galazi'n, judutasuneko oitura zarretara itzuli ziran judukristauak, eta, okerragoa dana, jentilleditiko kristauak ere oitura aietara eraman naiean zebiltzan. Bizkor erasoko die Paul'ek: •Entzun nik, Paul'ek, dasaizuetana: Kristo'k ez dizute ezertarako balioko erdaintzen ba'zerate».

Izkera gogorregia? Ez. Judukristau askorentzat bataioak ez bait zuan deus balio aurretik erdaintza jasatzen ez ba'zan.

Efeso'n eta Korinto'n Apolo izeneko judukristau bat dabil bere gnosikeria zabaltzen. Asi-aldeko Eliz guztietan ari dira judukristauak erdaintzara eta oitura zarretara murgiltzen, eta aundia da Paul'i dioten aierkunde gaiztoa.

semble donc que Paul se soit trouv en face d'une communaut judo-chr&ienne tres puissante (I Cor.- 15, 32). se heurte à une vive opposition de la part des milieux judaisants» (Act. 19, 33). sera livre aux bêtes par suite de l'hostilité manifest& contre lui par les jud&o-chr&tiens». (I Cor. 15, 32). •Il se heurtera aux jud&-chr&iens d'Efeso» (I Tim. 1, 3), puis en 63 il se plaint que tous en Asie l'ont abandonn& (II Tim. 1, 15).

Euskeraz:

-Badirudi beraz txit indartsua zala Paul'ek aurka zeukan judukristauen senitarte». -Bizkorra, judukristauen aldetik, aurka egiten dion arerlotasuna». »Piztiatara jaurtia izango da, judukristauen aldetiko ezin-ikusi orren ondorioz». «Judukristauen aldetiko ezin-ikusi orrekin topo eginen du Efeso'n ere, eta geroxeago, 63'an, Asi'n danek utzi dutela, adieraziko digu saminki..

Erroman bertan urduri dabiltz judu abertzale buru-beroak, eta judukristauetara sartua da beren senideen urduritasun ori. Eta, ondorioz, Paul'en aurkako aierkundera.

Baiñan ontara ezkerro erdaintzaren auzia, ez da erlijio-auzia, abertzalekerizkoa baizik. Bi oiñarri zituan orduan judutarren abertzalekeriak:

- Mesia Errege salbatzaillea urbil zalako, Erroma'ren aurka jeikitzeke unea gain-gaiñean zutela itxu-itxuan uste izatea;
- Erarik zintzoenaz, atalik txikienean ere utsik egin gabe, Juduen legea eta oiturak betetzea.

Giro astun ortan, larri ta kezkatu aurkitzen ziran Eliz gaztearen buruzagiak:

Erdaintza zan, oldozkera orren altzoan, judutasunaren zertasun eta nortasun ororen ezaugarri nagusia. Orregaitik erdaintzari uko egitea, Aberriari uko egitea zan. Eta judu ez-kristauen gorrotoa judukristauen aurka ankerragoa biurtzea. Eta, gorroto orren zamatik beren buruak babesteko, beraiek ere abertzaleak ziran judukristauak -apostasira», ots, Elizari uko egitera bultzatzea.

Orixe zan Kepa'k, Bemabe'k, zer esanik ez Jerusalemgo Jakoba Jaunaren Anaiak., eta beste judukristau zintzo danek eragozi nai zutena. Ta orixe da, gizon aien jardunkera aztertzerakoan, begien aurrean euki bear duguna.

Ortan, ordea, bat zetorren Paul ere. Paul'ek ikusten zituan arrisku oiek danak, eta ez zituan juduen oiturak gaitzesten. Soilki orixe besterik ez zirala esaten zuan: oitura; Itun Berrian, salbamenerako baliorik ez zuten zirimoniak.

Ori guzia, onartzen zioten Kepa'k eta Jerusalemgo Jakoba «Jaunaren Anaiak. ere.

Zertan zegoan ba ezberdintasuna?

Paul'ek, oiuka eta asarre, jentillentzat eragozpen izan zitekean tokietan, erdaintzarik aipatu ere ez egiteko, eskatzen zien judukristauei.

Kepa'k eta Jerusalem'go Jakoba -Jaunaren Anaiak-, juduentzat kaltegarri izan zitekean tokietan, erdaintzarik ez gutxiestea eskatzen zioten Paul'i.

Agian, Elizarentzat jentilledia galduko zualaren bildurrez, gogorregia izan zan Paul'en izkera, baiñan, era berean, juduerria galduko zutelaren bildurrez, ez zan agian bear bezain argi ta aratza izan beste aien izkera.

58'an Jerusalem'en dugu berriro Paul. Jakoba -Jaunaren Anaiak. eta -agureek», erdaindu gabeko jentillengan Jainkoak egindako gauza miresgarriak Paul'en agotik pozik entzun ondorean, aurreneko gauza, — erdaintzari-buruz Paul'ek erakusten zuanarekin eta egiten zuanarekin bat zeudelaren

adigarri Jainkoa gorestea egiten dute.

Gero, onela azaltzen diote Paul'i arazo osoaren gunea:

- Millaka asko dira judukristauak. Eta danak, oitura zarren babesle ben-benetakoak dira.

- Zuk, atzerrian erdaintzaren aurka eta oitura zarren aurka itzegiten duzula entzunik daude.

- Onuragarria izango zaigu danontzat zu judutasun-zale bezala jendearen aurrean agertzea.

- Gero, idatziko diegu jentillei, erdaindu gabe eta juduen legetara makurtu bearrik gabe, Jerusalemgo kontzilioan erabakia betetzea naikoa dutela.

Eman zuan Paul'ek baiezkua eta joan zan Jauretsera, baiñan an etorritako juduek, ezagutu zuten bezain laister asi ziran bere aurka zalapartaka, eta arrika erailtzeko asmoz narrazka atera zuten Jauretsetik.

Ertzainek salbatu zioten bizia, baiñan katigu eramana izan zan Jaurlea bizi zan Zesarea'ko urira.

Zesarea artan bi urte espetxean igaro ostein, juduek berriro jerusalen'era eramana nai zutela eta an ziur bizia galduko zuala jakitean, Erroma'rako deia egin zuan erromar-urikide lez: •Ad caesarem appellcp: «Zesarengana joan nai dut». Eta zesarengana izan zan eramana.

Erroma'n idatzi zituan bere epistoletako batzuk, eta idatzi oien bidez, badakigu azitzen eta azitzen zijoala judukristauekingo arazoa. Era berean, sinispideari zegokionez ere okerragotzen zijoan gnogsikeriruntz okertu zan judukristau-sortatxoaren oldozkera; egiazko gnosisaleei jarraituz, ezkontzaren aurka jartzeraiño iritxi bait ziran talde ortako batzuk.

Eta, judukerizko beatxukerialc ere, janari •debekatu» askori-buruz adibidez, kristauen artera sartu bait ziran, orregaitik agian idatzi zion Paul'ek Timoteo'ri otorduetan ardo pixka artzeko.

61'ean iritxi zan Paul Erroma'ra. An bi urtez erdi-katigu egon ondorean, 63'an izan zan yaretua.

64'aren uztaillean, sutan da ia Erroma guzia. Neronek kristauei ezartzen die lepotik kiskalketa aren errua. •L'accusation peut viser l'agitation messianique de certains milieux jud'eo-chr'etiens. Elle se rattache donc toujours au même climat» (Id.): •Salaketa orren zioa badaiteke judukristau talde batzuen mesiakerizko urduritasuna izatea. Bat-bera baita salaketa onen — eta Klaudio'ren denborako judu-erbesteraketa aren — giroa-. Baiñan badaiteke, Klaudio'ren denborako iskamil ura, judu ez-kristauen eta judu kristauen artekoa izatea ere.

Kepa izan zan Neronen zigorketako ziñoparik garrantzitsuena.

•Badaiteke, *salatu* zutenak judu-kristauak izatea I Klemente Aitasantuaren esaldi batek eta geiago oraindik Tazito'ren mintzaerak adierazi dezaketenez. Aurrena baitutako kristauek bere elizkideen aurka egindako salaketa aipatzen bait digu Tazito'k»:

-Il est possible que ce soient des ju&o-chr&iens qui l'aient denonc,

comme parait l'indiquer un texte de Clement, et plus encore le recit meme de Tacite, qui parle d'une denonciation, par les premiers chretiens arretes, de leurs coreligionnaires (Id.).

Tazito'k Neron'en zigorketaz dion guztia, oso-osoa eta geldi-geldi aztertuko dugu, inperatore aren jarduketaz itzegiterakoan. Aurre-esan dezagun orain, Danielou'k dion lez auxe dala arazo oni-buruz Tazito'k dioskuna: Aurrena baitutako kristauak oiñazetuak — •corrupti» — izan zirala, eta aien salaketak jarraituz izan zirala arrapatuak gaiñerako kristauak.

Baiñan..., orduan Erroma'ko kristauak danak edo ia-ia danak juduak ziralarik, naitanaiez judukristauak *izan* bear zuten salatari aiek. Baiñan ez zituzten salaketak salatuenganako gorrotoz egin, oiñaze-min ikaragarri aiek ezin jasan izan zituztelako baizik.

Kezkagarriagoa daiteke I Klemente Aitasantuak diona. Ona emen Kerexeta'k euskeratua, Klemente'ren epistolako bosgarren atal ori osoa:

Baiña itzi dagiguzan antxiñako ikasbideak eta ikusi dagiguzan gugandik urrago bizi izan diran burrukalariak: artu dagiguzan gure gizaldiko eredu bikaiñak (V. 1).

«Elizaren zutabe aundienak eta zuzenenak, ardurakeriagaitik eta ikusi-eziñagaitik izan ziran aurrean erabilliak (jazartuak), eta eriotzaragiño egin eben burrukan (V. 2).

Jarri dagiguzan gure begien aurrean Apostolu santuak (V. 3).

•Pedro'k, ardurakeri zuzenbageakaitik, bat eta bi bakarrik ez, baita zenbatu eziñako lanak igaro bear izan ebazan; eta alan, bere autorra (aitorpena) emonda gero, egokion gorapeneko tokira (zerura) joan zan (V. 4).

•Ikusi-ezin eta areriotasunagaitik apaindu zan Paulo iraupen-sar az (V. 5).

•Zazpi aldiz giltzapean, igesi, arrika, Sotzaldean eta Sartzaldean Kristo'ren iragarle eginda, azkenez bere sinismenaren izen ospatsua lortu eban (V. 6).

.Mundu guztiari zuzentasuna irakatsita eta Sartzaldeko mugaraiño elduta eta agintari nagusien aurrean autorra emanda gero, olantxe urten zan mundu onetatik toki santura, guri iraupen-jarraibiderik aundiena itzirik» (V. 7)».

Ez dirudi, nere ustez beintzat, lerro oiek idaztean I Klemente Elizaren laugarren Aitasantua, Kepa eta Paul eriotzara eraman zituzten salaketez bakarrik ari izan zanik, beren bizitza guzian arerioengandik jasan bear izan zituzten nekeetaz baizik. Ez derizkiot, bi apostolu aien eriotza, judukristauak izan zezaieketen ezin-ikusiaren ondorio izan zala, atera daitekeanik.

Agian bere VI atalak izan dezake askoz garrantzi geiago:

•Santutasun-bizikera eroan eben gizonoi, aukeratu-talde aundia geitu yaken; oneik, ikusi-eziñagaitik (azpimarraketa nerea) irain eta oiñaze asko igaro ondoren, gure artean eredurik ederren biurtu ziran. (VI. 1).

•Izan ziran emakumeak, Danaidas eta Dirzes barriak, ikusi-eziñagaitik aurrean erabilliak; oneik, oiñaze itzel eta gogorak igaro ondoren, sinismen-

lasterketa zigurrean iraun eben, eta, gorputzez makalak izan arren, sari ospatsua artu eben. (VI. 2).

-Ikusi-eziriak banandu ebazan emazteak senarrakandik, gure aita Adan'ek esandako au okerretara biurturik: •Orain, au neure azurren azur da eta neure aragiaren aragi» (VI. 3),

Ikusi-eziñak eta alderdikeriak uri andiak ondatu eta enda-erri andiak zusteriritik atara dabez» (VI. 4)-.

Benetan! Sarriegi eta argiegi aiapatzen ditu, Kepa Deunak gotzai sagaratu omen zuan I Klemente Aitasatuak, atal oietan •ardurakeria» eta •ikusieziri

, bekaizkeriak Erroma'ko martierien eriotzan zer-ikusirik ez izateko. Bitez ere, azkeneko ataltxoan aipatu digun •alderdikeria» gogoan artzen ba'dugu!

Alatagutziz, ez digu Kepa'ren eta Paiul'en eriotzen aipu bereizik ematen.

Onela jarraitzen du berriz Daniêlou'k:

Mais ce que les Actes nous laissent entrevoir et ce que les Epîtres nous montrent de mani&e path'etique c'est l'opposition croissante que durante cette p&iode il — Paul — n'a cessé de rencontrer de la part des ju — chrétiens que montaient contre lui le nationalisme juif, opposition qui le conduira d'abord a l'arrestation de J&usalen en 38, puis au martyre en 67" (Id.).

Euskeraz:

Ona zer dan •Bidalien Egifik» adieraztera damaigutena, eta Epistolek era mingarrian erakusten digutena: Garai artan, gero ta gogorrago, gainean izan zuala beti Paul'ek aurka, judu-abertzalekeriak sututzen zuan judukristauen gorrotoa, eta gorroto orrek eraman zuala 38'an Jerusalemgo espetxera, eta gero 67'an martiriora».

Kepa gurutzean buruz bera josia izan da. •Paul katigu dago berrito Erroman eta 67'an izan zan erailla,»bera ere, ezpairik gabe, zalaparta sortzailletzat judukristauek izan zalako-: •Sans doute lui aussi après avoir d nonc aux autorit& romaines, comme fauteur de trouble, par des ju&o-cre'tiens» (Id.). (II Tim. 4,16; I Clem. V.4).

Ikus zer dion Paul'ek Timoteo'ri egindako epistolak Dani&ou'k aipatutako toki ortan: •Nire alde leenengoz egin nebanean, ez yatan iñor be lagun egitera etorri; guztiak bertan-bera itzi ninduen. Ez dagitsela iñork konturik artu». Ez dirudi orrek Paul eriotzara eraman zezaketen salaketekin zuzenean beintzat zer-ikusi aundirik izan dezakeanik. Onela jarritzen bait du urrengo ataltxoetan epistola berak:

•Bairian Jauna neure ondoan egon zan eta indarra emon eustan, nire bidez Barri Onaren iragartea osoro bete zedin eta erri guztiak entzun egien. Eta leoiaren agotik askatua izan nintzan. Jaunak egite txar guztitik askatu, eta onik ataraku nau, ni Bere zeru-erreñurako arturik. Berari aintza gizaldiz-gizaldi».

I Klemente'ren itzak berriz, goraxeago ipiñi-berriak ditugu.

Danielou'k •I-I. Euchs («Tazito Kristauei-Buruz»), B. Bauer («Tazito ta Kristauak») eta O.Cullmann (Saint Pierre-) aipatzen ditu bere alderdiko bezala. Nik ez dut liburu oietatik aurreneko biak eskuratzeko egokitasunik izan, baiñan biak, aiztintxe aztertu dedan Tazito'ren aitortpenaz ari dirala ematen du.

Izan dut ordea Oscar Cullmann teologilari kalbindar ospetsuaren .Saint Pierre deritzana astiro ikustatzeko adiontasuna:

Ona bere mamia:

- Klemente'k «gure arteko bekaizkeriagaitik» izan zirala Neronen cimb=

martiriak eriotzara eramanak, Klemente'k diosku. Bekaizkeri ori naitanaiez an5 al.2yun doute Erroman bertan sortua zan, Klemente' «gure artekoa esaten diolako. - Paul'ek Erromatarrei idatzitako Epistolak, Er orna'n judukristauen eta jentillediko kristauen artean zalapartak b

zirala, adieraztera damaigula •dirudi»: «sembie».

- Paul'en epistolek beste tokietan judukristauen aldetik jaso bear izan zituan naigabeak Erroman ere, an baiturik zegoala, aurkitu zituala jakiñarazi nai digute. Paul'ek, anai ustelak-, eta -zakurrak. izen-damaie aurka egiten zien aiei.

- Judukristau aiek beren aldera eraman nai izan zuten Kepa Erroma'ra iritxi zanean. Ez zuten ezer lortu. •L'attitude libre prise par Pierre a l'egard de la Loi (Gal. 2, 11 ss) le plaçait en sa qualite d'envoye de Jerusalem dans tinÇ situation plus difficile que celle de Paul. (Azpimarraketa, Cullmann'ena). Beste edestilari batek ordea, C. Cecchelli'k, Kepa Erroma'ra Jerusalem'go Elizak ez baiña Paul'ek berak bidali zuala, — dio, ango zalaparta aiei amaiera emateko. •Uste ori egia izatea baleikela», •cette hypothese semble solide», diosku berriz Cullmann'ek, •Kepa, Elizaren altzoan, judukristauen arduradun bezalako zerbait zalako.

Giro ortan, judukristau batzuk Kepa'ri bizkar eman ziotela dirudi, aren jardunkera lasaiegia iduritzen zitzaielako. «Ainbesteraio bait zeuden gogorturik areriotasunak»: Tant les oppositions etaient exasperees»!

— Tazito'k, aurrena baitutako kristauen salaketeri eskerrak izan zirala besteak ere baituak. Salaketa aien zioa, baituei emandako oiñazeketa izugarria izan zala? Orrela ba'litz Klemente'ren esaldiak ez luke zentzurik izango. Klemente'k ez du oiñazeketarik aipatzen. Klemente'k, bekaizkeria aipatzen du: Erroma'ko kristauen bekaizkeria.«Il est dont tres probable que l'expression •parmi nous- du chap. 6. 1, qui la bouche de l'eveque Clement de Rome veut dire «dans mon Eglise», s'applique tous les martyres chretiens en en rendant la jalousie responsable-

.C. Cecchelli va d'ailleurs jusqu'a penser que les deux aptres ont ete trahis par un nouveau Judas-.

Euskeraz: •Txit erreza da, Klemente'ren ezpafiñetan •nere Elizan esan nai dun 6'garren atalaren l'en ataltxoko •gure artean ura,Erroma'ko martiri

guztiei dagokiela, eta aien eriotzaren errudun izan zala».

•Aurrerago doa C. Cecchelli, bi SApostoluak judas berri batek salduak izan zirala pentsatzen bait du».

Dakusazunez, •uste», •aburu» eta •pentsaketa utsak» besterik ez.

X X X

Azkenean, Palestina'ko judukristautasuna, — bai beintzat aren zatiren bat judu-abertzalekerian urtuko da.

Baiñan ez osoki, eta ez bereala.

Bestalde, Jerusalemgo Elizak, eta Eliz artako kristauak, izan zuten arantzik aski beren eguneroko bizitzan.

•Embora (naiz) perseguidos pelos judeus (Tes.I. 2, 14), os crist'ãos da Palestina permaneceram muito tempo como um grupo dentro do Judaísmo» (Chadwick).

Ordurako, gogor egiten zien aurka judu ez-kristauen gorrotoak, Palestina'tik at ere.

Suetonio edestilari jentil ospetsuaren esaldi batetik atera daitekeenez, 50'garren urtean Erroman bertan ere judukristauen aurka zebiltzan: •Cresto'k eraginda, — edo Cresto zala-ta gelditzeke judutarrak zalapartan zebiltzalako, Errorna'tik uxatu zituan Klaudio inperatoreak. (Suetonio). Badaiteke ordea, Danidou'ren ustez, zalaparta aiek judukristauen mesiakerizko urduritasunak sortuak izatea.

Ezpairik gabe Kristo da Suetonio'k aipatzen digun Cresto ori. Eta, garai artan, erromatarrek ez zituzten oraindik juduak eta kristauak batzuek besteengandik bereizten.

66'garren urtean Palestina'ko juduak Errorna'ren aurka gudan asi ziranean, Jerusalem'go kristauak, Jerusalemgo Kontzilioaren esanera jarraitzen zuten kristau aiek, Jordan ibaiaz aruntz zegoan Pella izeneko urira joan zitzaizkigun gudu ero artatik igesi. Zenbat? Ez asko, noski, danak ain aundia ez zan uri batera bakarrik joan ba'ziran beintzat. Uri ark ez bait zezakean jende askorik artu.

Simeon zeritzan Josu'ren lengusu bat zuten gotzai, Jakoba Jaunaren Anaia» erailla izan zanez gero.

•Ce gente, plus qu'aucun autre, marque la rupture d'initiative de avec le judaïsme»: •Iges-egite au dugu, beste edozer baiño geiago Eliza betirako judutasunetik bereizi zalaren zantzua» (Danidou).

•Rupture d'initiative», Elizaren eta judutasunaren arteko •auste bein betirakoa»? Ez da oso-osoan egia.

III eta IV mendera arte judukristauen taldetxoek bizirik jarraituko dute, naiz eraginmen aundirik gabe, Asi-aldeko lurretan.

Palestina'n ere gelditu ziran judukristauak Tito'k Jerusalem ezereztu ondorean; eta an iraun zuten, Adriano'ren denboran beste judu guztiekin batera erbesteratuak izan arte.

Beti izan zan garratza Juduerrian, judukristau aien bizitza.

Judeia, os judeus cristaos mantinham-se fieis, (zintzo), tanto quanto podiam, mas eram severamente castigados, e cerca do ano 85, para tomar segura a sua exclusão, um solene anatema foi incorporado na liturgia de la sinagoga: •Possam (bitez) os nazarenos e os hereticos ser sribitamente destruidos e removidos do Livro da Vita- (Id.).

Sinagogatik eskomikatuak, Aberriaren etsaitzat artuak, ez zan gozoa Palestina'n zintzo jarraitzen zuten judukristau aien bizitza. Altaguztiz, jarraitu zuten zintzo! Baita 70'garren urtean Jerusalem'go uri santua zearo desegñik jausi ondorean, eta baita, atzerrian, 125'garrenean Palestina'ko juduerri guzria erbestera jaurtia izan zanean ere.

judeus cristaos, banidos (jaurtiak) do convivio dos seus compatriotas, continuavam a observar os sabados, a circuncisão e outras celebraç'ões judaicas. Como isto magoaba (atzera bota) muitos gentios (jentillak) cristaos, tomaram-se solitarios, grupos sem apoio- (Id.).

...

Iraun zuten ala ere, •besteen laguntzarik gabe, bakarti biurtutako-judukristauen taldetxo aiek. 160'garren urtean bazuten oraindik indarririk aski Justin Doneak idatzi zuanez. IV mendean, eta baita V'ean ere, baziran oraindik judukristauak Siri'n, eta beren ebangelioa, •Evangelium secundum Hebreos- apokrifoa, Jeronimo Deunak biurtu zuan latiñera. Ez du ebangelio orrek gureekin ezberdintasun aundirik, Jakoba Jaunaren Anaia- asko goratzeaz beste.

II mendea arte ez ziran Eliza-baitan ereje lez ikusiak izan.

Donejustin berak zillegi zaiola kristau egiten dan judutar bati judu-oiTURak betetzen jarraitzea, idatzi zuan. Eta baita judutar ez dan bati ere, bere kristautasuna juduen artean bizi nai ba'du.

Alare, badio Donejustin'ek, Eliza-baitan ez zirala danak aburu ortakoak. Bat baiño geiago b3zirala oitura aiek ontzat artzen ez zituztenak.

Donejustin'ek baiño 20'ren bat urtez geroago, 180'aren inguruan Ireneo Deunak Elizatik bereizirik dagoan talde bat bezala aipatzen ditu gure judukristau aiek, eta orrela izango dira gerontzean ikusiak.

Beren buruei, ebiondar esaten zieten judu-kristau aiek.

•Ebionit», arameieraz esan nai duan itza da, kristautasuna baiño zarragoa Palestina'n. Izan zan izen ortako ereji bat ere. Zoritxarrez ereje ebiondar aiek, batzuek beintzat, ez zuten sinisten Josu'ren sorkuntza birjintasunezko sorkuntza izan zanik. Eta judukristauek beren buruei, -Txiroak-, ots •Ebionit- esaten zitelako sartu zituan, atzipeturik, ebiondar guztiak, eta aien artean judukristauak, erejeen saillera Ireneo Doneak, •Adversus Haereses- edo -Erejeen Aurka- izeneko bere liburuan.

Ortik jaio zan judu-kristau danak Josu'ren sorkuntzaren birjintasuna ukatzen zutela, eta orregaitik danak erejeak ziralako uste okerra ere.

Judu-Elizaren merezimendua ukatzerik ez dago. Eliz arek zabaldu zuan mundura kristautasuna. Alare ez zan juduerria kristau egiteko gauza izan. Uts egin zuan ortan. Eta ez da makala, ez orixe, Judu-Elizaren utsegite ori. Alare, ez da osoan berea uts egite orren errua: Naiz berak bere erria, Judu-Erria bere altzora ekarri nai izan, juduek, Jainkoagandiko mirari bat tarteko izan ezik, ezin bait zezaketen Elizaren deiari erantzun onik eman! Ez beintzat zearo beren sikologi guztiari ukorik egin gabe. Ona zergaitik:

- Atzerritarrek, atzerri guztietako atzerritarrek, begi gaiztoz begiratzen zieten juduei. Eliza berriz atzerritarrez betetzen ari zan!

- Juduentzat atzerritar guztiak jentillak ziran. Jainkoaren eta Jainkoaren Ernaren» etsaiak.

- Elizara sartutako atzerritarrek erdainduak izan gabe sartuak ziran. Jentillak ziran, judutarrentzat.

- Elizak, erdaintza ez zala inorenzat bearrezkoa, esaten zuan. Ezta juduentzat ere. Auek, — juduek, — erdaintza erabili zezaketela, ala nai bazuten, baiñan erdaintza erabiltzera ez zeudela bearturik. Juduentzat berriz, erdaintza, beren izate ber-beraren sort-iturria zan.

- Atzerritik etorritako kristauak, azkar, Israel'ko Erria gaitzesten asi ziran. Itun Zarreko edestia ezagutzen asi ziran bezain laister. Israel, beti Jainkoaren aurka ibilli zan erri burugor bat besterik ez zala iruditzen bait zitzairen.

- Laister baitare Kristo'ren eriotza judu guztiei ezarri zieten lepotik. Juduak, jainkoerailleak ziran jentilleditiko kristauentzat; Judu-Erria berriz, Erri Jainkoeraillea. Ori zan idazle kristaurik onenak zerabilkiten izkera. Jeronimo Doneak adibidez.

- Azkenean, Eliza bera asi zan izkera ori erabiltzen: «Perflidi judei», liturgian bertan.

- Ondorioz, juduak, kristau-erri guztietan arbuiatuak, irainduak, gorrotatuak eta zigortuak izan dira beti.

Arritzekoa al da, juduak kristau biurtu ez izatea?

Badu Elizak, Jainko-gizon-judu-egiñaren aurrean zertaz erantzun-bearra.

ELIZA MUNDURA

Erroma'ren Inperio-lurra zan, jendeak orduan ezagutzen zuan mundua. Inperiolur ortaz kanpora, iparrean, Rin eta Daunubio'ren ibarretatik aruntz, Germani zegoan; Barbaria; begi urdin, larru zuri ta ille oraillekobarbaritarren lurraldea. Sortaldera, Mesopotami ber-beretik asita, Pertsu. Egoaldean, Saara'ko lekaroa. Eta Sarkaldean, Atlantik-Itxasoan: «Illunpeko Itxasoan», erromatarren izkeran.

Guztira, Erroma'ren inperiolurra bazituan 3.000.000 kilometro laukoi eta 55 edo 60 milloi biztanle, Pentekoste-egunez Eliza sortu zanean, batzuen ustez. 60'tik 100 milloira bi mende geroago, beste batzuen iritziz.

Erroma bera, Krist'aurreko 753'garren urtean izan zan irasia, eta erregeek gobematua 243 urtez, ICrist'aurreko 510'ean errepublika biurtu zan arte. Krist'aurreko 27'an egin zan inperio, eta Zesaraugusto izan zuan lenen inperatore. Zesaraugusto onen denboran jaio zan Josu Belen'en.

Erroma, errepublikak egin zuan aundi. Inperatoreek aunditasun aren zituz bizi eta aunditasun ura agortu besterik ez zuten egin, Kristo-onderengo 576'ean barbaritarrek Erroma'ko uria bera arrapatuz, eta Romulo Augustulo inperatorea menderatuz, Sarkaldeko Inperiotza apurtu zuten arte.

Iraun zuan alare Sortaldean Inperio Erromatarrek milla urte geiago, turkitarrak XV mendean, 1453'garren urtean, Kostantinopla artu zuten arte. Orduan izan zan osoki ezereztua Erroma'ko inperio zaarra.

Elizaren zabalketa, I mendean bertan asi zan. Amabi izan ziran mende ortan Erroma'ko inperatoreak:

ZESARAUGUSTO, Julio Zesar'en arreba baten alabaren semea zalarik, Julio Zesar'ek semetzat artu zualako iritxi zan inperatore izatera, Julio Zesar'en erailketaren atzetik sortutako guduan Antonio ta Kleopatra garaituz gero.

Agintaritzara igo aurretik, «zalantzarik gabe maiz izan omen zan kontzientzi-gabea eta ankerra», «he was undoubtedly often unscrupulous and brutal» (Enc. Brit).

Bein inperatore, ertilarien laguntzat artua izan oi da. **izan**, Erroma-edertu-zalea izan zan bereiziki, ortarako jauregi ta jauretze berriak eraikiz. Ertilarien egiatzko laguna, Erroma'n, Zesaraugusto'ren adiskide bat izan zan: Maecenas izeneko ertizalea. Gerozti, «mezenas» esan oi zaie ertilarien laguntzaille diran guztiei.

Zesaraugusto'ren aro artan il zan Zizeron, eta orduangoak ditugu Birjilio, Orazio eta Obidio olerkariak.

Ondo ezaguna da edestian, Julia izeneko Zesaraugusto'ren alabaren biziera makurra. Iru senarrekin egon zan ezkondua, laugarrenarekin, Tiberio inperatorearekin, ezkondu baiñu len. Tiberio'k ordea, bere lizunkeriz

asperturik, Erroma'tik kanpora erbesteratu zuan, et an il zan, bearkizunik gorrienean, Inperio aundi artako lenen printzesa izandako Zesaraugusto'ren alaba.

Izan zuan emakume onek alaba bat; bere izenekoa: Julia; eta bera bezain lizunkerira okertua. Orregaitik izan zan ainzuzen bere ama bezala Erroma'tik jaurtia. Une berean izan zan Obidio ere erbesteratua, olerkari onek bere maitakeri-olerkietan abesten duan Korina, Julia au zala esaten bait zan.

Ez ziran, ez orixe, Erroma'ko inperatemeak, eta inperatoreen adiskidetasunera sartutako beste emakumeak, oso aingeru garbiak izaten.

Aipa dezagun alare, gogo onez, lentxeagoko beste emakumezko bat; Errepublikaren azken-denboretakoa; Julia, izenez, beste bi auek bezala; Erroma'ko bi gudalbururik aundienei lotua: Julio Zesar'i, aita zualako; eta Ponpeyo'ri, onekin ezkondu zalako.

Bizitu zan bitartean, lortu zuan, edertasunez eta zintzotasunez ain goraipatua izan zan emakume ark, bere bi gizon aiiek pakean eukitzea. Bera ii zanean ordea, gudara jo zuten biak, bata bestearen aurka.

Oar bat nai nuke, aurrera jarraitu baiño len, irakurlearentzat emen ipiñi:

Saiatuko naiz datozen inperatoreen bizierari-buruzko xeetasun batzuk ematen. Gauza ikaragarriak esan dira Tiberio, Kaligula, Klaudio eta Neron'i-buruz. Danak jakin nai dituanak, albiste-billa Espasa entziklopedira joan besterik ez du.

Albiste oiek, bereiziki, Tazito eta Suetonio'ren edestietan oiñarrituak daude, baiñan ezin omen daiteke zenbaiteraiño diran egiazkoak eskerki jakin.

Ona zergaitik:

Lenen Inperatore oien aroan, oraindik gordetzen zuan Senatuak errepublikaren denboran izan zuan indar galantaren zati eder bat. Orregaitik, ez ziran ongiegi konpondu inperatoreak eta Senatua.

Senatuaren aldekoak izaki berriz oso-osoan Tazito ta Suetonio!

Edesti-liburuetan agertzen diran beste albiste batzuk, erriagandik jasoak izan zituzten seguruaski antziñako edestilariek. Eta Erroma'ko erriak inperatoreei maitasun geiegirik izan ez ziela gauza jakiña da.

Inperatorei-buruzko xeetasun oiek ez dirala Eliz-Edesti baten gai? Ez..., eta bai. Nik beintzat, Elizak munduan nolako giroa aurkitu zuan adierazteko ematen ditut. Inperatoreen jauregiko gizon-emakume aaltzu aien biziera zan ba erriko jendeak begien aurrean zeukan eredu.

Baiñan, eredu ori aski zikiña izan-da guzti, bazuan Erroma'ko jende landerrak beste eredu zikiñago bat ere: Erroma'ko jainko eta jainkemeen biziera, inperatore eta inperatemeena baiño askoz zikiñagoa eta gaiztoagoa bait zan ura.

Orrelakoa zan Elizak antzaldatu eta salbatu bear zuan giroa.

TIBERIO amalau urteko mutikoa zan, bere ama, Libia Drusila, Tiberius-Klaudius-Neron zeritzan aundiki baten alarguna, Zesaraugusto'rekin ezkondu zanean.

Eta ezkontza orri zor izan zion, bere aitak bezala Tiberio zeritzan mutiko ark inperatoretzara iritxi izatea. Semetzat artu bait zan Zesaraugusto'k.

55 urte zituan buruntza jantzi zuanean.

Aurretik, diplomazilari trebea izan zan, eta gudaroztearen buruzagi bezala, arras yayoa. Gizon zintzoa, bai gudariak, bai erriko jende xeeke arras maitatua.

Zesaraugusto'ren aginduz utzi zuan benetan maite zuan emaztea, Bipsiana zeritzan emakume atsegiña, Zesaraugusto beraren alaba alargunarekin ezkontzeko. Esan dugun bezala, Julia zuan emakume onek izen, eta ezaguna zan Erroma guztian bere enaskeria.

Bazekian ori Tiberio bere senar berriak ere, eta orregaitik ainzuzen erbestera zuan azkenean Erroma'tik bere bigarren emazte au: enaskerian jarraitzen zualako.

Eta ala il zan erbestean, era negargarrian, Zesaraugusto Erroma'ko lenen Inperatorearen alaba, munduko emakumerik garaiena izandako printzesa.

Ez da faltatu, bai Julia'k berak, eta bai Senpronio Grako Julia'ren maitale lizunak, bizia Tiberio'ren aginduz galdu zutela esan duanik ere.

Ez zion noski indarrezko bigarren ezkontza arek on aundirik egin Tiberio'ri; bere lengo emazte ura biotz guztiz maitatuz jarraitu bait zuan.

Danadala, egia da beintzat bein inperatore, zearo aldatu zala Tiberio'ren jitea. Gizon illuna eta ituna biurtu zan, kezka eta bildurrez betea. Eta, ankerra.

Aneika jasotzen zituan izenpenik gabeko eskutitzek eraginmen aundia izan omen zuten jite-aldakuntza guzti ortan, Gregorio Mararion'en ustez.

Zesaraugusto'k bazuan aide bat, Agripa, Tiberio'ren etsai izan zitekeana. Laister galdu zuan bizia. Eta, ez bait zitzaion gure Tiberio'ri matxinadarik peitu, bazter guztietan etsaiak ikusiz izugarri kezkatua biurtu zan bere agintaritzaren azkeneko urteetan, eta jende asko bidali omen zuan eriotzara.

Ez da arritzekoa, Josu .Juduen Erregea• eriotzez zigortu nai ez zuan Pontzio Pilato'k, juduek inperatorea aipatu zioten bezain laister, iraduz eskuak garbitu izatea. Baztar guztietan etsai iraultzalariak ikusten zituan Tiberio ura bait zan juduek aipatzen zioten inperatorea. Izan ere, •guk ez dugu Zesar beste erregerik, — oiuegin zioten judu aiek asarre **Eta, •Zu** ez zera Zesaren laguna, oni bizia barkatzen

Tiberio'ren garaiean, itzal aundiko andrea izan zan Erroman Agripina.

Izen ortako bi emakume dira ospetsuak edestian: ama-alabak biak. Bata, au, ama, Agripina •Nagusia• esan oi zaiona, eta bestea, Agripina orren

alaba, Agripina •Gaztea- izen daramana.

Agripina -Nagusiak-, aitzintxe aipatu dugun Julia, Zesaraugusto'ren alaba enas ura, izan zuan ama. Aita berriz, Julia'k, Tiberio'rekin ezkondu aurretik, senar izan zuan Agripa izeneko aundiki bat. Ortaz, alde ortatik, Zesaraugusto'ren billoba eta Tiberio'ren ugazalaba zan Agripina «Nagusia». Eta beste alde batetik, baita Tiberio'ren ezkon-illoba ere, Britaniko esaten zitzaion Tiberio'ren illobarekin ezkondu zalako.

Bederatzi ume izan zituan Britaniko orrengandik Agripina -Nagusiak»: Bat, Kaligula inperatorea, eta beste bat, Agripina -Gaztea-, Neron'en ama eta Klaudio'ren emaztea.

Tiberio'k bazuan lendik, Bipsiana bere aurreneko emazte txit maite arengandik izandako seme bat: Druso. Au ordea, Tiberio oraindik bizi zala erailla izan zalako, Agripina -Nagusiaren- semeak gelditu ziran inperatoretzarako Tiberio'ren oiñordeko, aren ugazalaba baten umeak izanik, aren aiderik urbillenak ziralako.

Min aundia eman zion Tiberio'ri Druso izeneko seme aren eriotzak. Izan ere, bere konfiantza osoa zuan Sejano gudalburua izan bait zan, Druso aren erailllea.

Laister, Agripina •Nagusiaren- bi semerik zarrenak izan ziran eraillak. Bi aien ama berriz, Agripina Nagusia- bera, Erroma'tik erbesteratua.

Eta an il zan. Gosez! «Batzuen ustez, bere asarrea agertzearren ezer jateari uko egin ziolako, baiñan beste batzuen iritziz, Tiberio'k, ari janik ematea debekatu zualako-: .She died starved to death by herself or, according to some, by order of Tiberius- (Enc. Brit.).

Maiz aski, oso era makurrean iltzen bait ziran Erroma gogor artan inperatoreen jauregiko emakumeak.

Alatagutziz, Tiberio il zanean, Agripina •Nagusi- aren seme batek, Kaligula'k, jarraitu zion inperatoretzan.

Tiberio, bere jauregizaiñen buruzagiak lepoa estutuz il zuala esaten dutenak badira. Izan omen zuan Kaligula'k ere Tiberio'ren eraiketetan errurik aski, Suetonio'k idatzi zigunez.

Gauza ikaragarriak irakurri nai duanak, badu Suetonio'k eta Tazito'k lenengo inperatoreei-buruz idatzitakoetan zer billaturik aski.

Bi -aldi• izan zituan Tiberio inperatorearen agintaritzak:

Aurrenekoan Erroma'k izan zuan agintaririk yayoenetakoa, egokienetakoa eta zintzoenetakoa izan zan. Arras maitatua.

Bigarreanean ordea, bere landa-jauregira bildu zan. Erroman, Sejano adiskide miña utzi zuan bere ordezkari. Ta Sejano ori — inperatore izan nairik — iraultza prestaketan asi zitzaiola, eta, inperatorezta lortzeko, Druso seme maitea edenez il ziola jakin zuanean, badirudi beste gizon bat biurtu zala:

-Desde entonces la crueldad de Tiberio no reconoció lirnites. La mayoría de los amigos de Sejano fueron perseguidos y condenados. El emperador desde su retiro ordenaba las ejecuciones en masa, mientras se

entregaba a las mas torpes orgias. Muchos senadores y personajes ilustres se daban muerte para escapar al suplicio, de modo que los últimos años de su gobierno fueron un verdadero azote para los romanos (Espasa).

Egiazko bildurra sentitzeko, ez al zuan Pilato'k naiko arrazoirik izan?

KALIGULA, Agripina •Nagusiaren» eta Germanicus gudaiburuaren semea izan zan. Orduan esan zanez, Tiberio'k il omen zion bere aita ori, bere ama Agripina •Nagusia» eta bere bi anai zarrenak bezala.

Ederki asi zan agintaritzan. Laister ordea oso gaixo erori zan. Larritu zuan erria bere inperatore maite aren zoriak. 160 txekor erail omen ziran Erroma'ko jainkoen aldareetan inperatorearen osasuna lortzeko.

Sendatu zan. Baiñan ez zan arrezkeru oso buru ziurreko gizasemea izatera biurtu, naiz, sarri aski leporatu oi zaion erotasun osora iritxi ez. Bere zaldia konsul egin zuala ez dirudi egia danik. Matxinadak ordea izan zituan-da, jende asko galdu zuan eriotzara; Sartorius Macro gudaiburu adibidez, naiz berak, Kaligula'k, inperatoretzara iritxi izatea gudaiburu ari zor.

Era berean il zuan inperatoretzarako egiazko eskubideen jabe zan Tiberius Gemellus, Tiberio inperatorearen biloba.

•Showed great cruelty», •ankerkeri aundia erabilli zuan. (Enc.Brit.). Bada, Erroma Ejito'ko oituretara eraman nairik, Kaligula, Drusila bere arrebarekin ezkondu zala dionik ere, naiz, agian, ezkontza ori itxurazkoa bakarrik izan. Ejito'ko errege Ptolomeitarrak beren arrebekin ezkontzen bait ziran.

Danadala, egia da beintzat, Kaligula'k, •bere arrebak zentzurik gabeko maitasunaz maite izan zituala; Drusila bereiziki», •Showed extravagant affection for his sisters, especially Drusila».

Ogei ta emezortzi urterekin il zan emakume au, eta jainkeme egin zuan Kaligula'k. Drusila izan zan, orrela, Erroma'ko emakumeen artean, goientasun ortaraiño igotzen aurrenekoa.

Badira Kaligula'k bere arrebak, eta batez ere Drusila, bere maitale lizun biurtu zituala diotenak ere.

Esan, esan daitezkean gaiztakeri guztiak esan dira Kaligula'ri-buruz. Bañan esamesa oien egitasuna ziurki ezagutzea, ain gauza erreza ez da.

Azkenean era makurrean amaitu zuan berak ere bizia: matxinada batean eta egun berean izan bait ziran eraillak Kaligula, Milonia bere emaztea, eta Julia Drusila bere alaba gaztea.

KLAUDIO, osasun argalekoa eta itxura baldarrekoa, baiñan adimenez ederki landutako gizona, Tiberio'ren iloba eta Kaligula'ren osaba, bildurrez izkurturik zegoan tokitik artuta, Jauregiko gudari zaindarien izendatu zuten

inperatore.

Ez zitzaion oni ere matxinadarik peitu, eta aiek zigortzerakoan maiz agertu zan gogorra, eta baita batzuetan ankerra ere. Berrogei senatore il zituan beintzat!

Erljio guztiekin eraspentsua izan zan; juduekin batez ere. Tinkotu zizk ien Zesaraugusto'z gero zituzten eskubide guztiak, eta Alexandri'koenak bereiziki babestu zituan ejitotarren bekaizkeritik.

Iritxi zaigu, pakea lortzearren, Ejito'ko juduei eta ez-juduei bidali zien gutuna: eztabaida guztiak aztutzeko eskatzen die, areriotasun oro ezereztu dedin.

Egia da zalaparta batzuen erruz, uritik-at bidali zituala Erroma'ko juduak, baiñan oso epe laburrerako.

Ez zitzaion •jainko» deitua izaterik atsegin. Alare, bere omenez jauretxeak eraikitzerik ez zuan debekatu, eta ezta jauretxe aietan jainkotzat gurtua izaterik ere; agian, ori egin ba'lu, bere agintaritza arriskuan ipiñiko zuala uste izan zualako. Ordurako, Laterri guzia oiturik bait zegoan inperatorea jainkotzat gurtzera.

Ez dirudi, kristautasunari-buruz, albiste geiegirik izan zuanik.

Emazte askorekin egon zan ezkondua: Irugarrena, Valeria Messalina, ez oso emakume txukuna. Bi ume eman zizkion: Britaniko, eta Oktabia, Neronen emaztea, eta Neronek berak eriotzara galdua.

Eraginmen aundia izan omen zuan Messalina'k Klaudio bere senarrabaitan: lizunkerirako eta bere aalmena aundiagotzeko erabili zuan eraginmena.

Ala, aurpegi ematen ziolako il zuan, Messalina ark, Appius Silanus senatorea. Emakume onek,—Messakina'k lizunkerira ain iraulia zalako, izkutuan bigarren ezkontza bat ere egin bait zuan bere maitale batekin.

Aspertu zan Klaudio orrenbeste gaiztakeriz, eta eriotzara galdu zuan bere emaztetxo oker ura.

26 urteko neska gaztea zan lepoa moztu ziotenean. Orduezkero emakume gaiztoen eredu izan da, eta bere izena eman oi zaie bera bezalako emakume biurriei.

•Agripina •Gaztea. — Agripina •Nagusiaren. alaba — artu zuan orduan Klaudio'k emazte. Ez noski Messalina baiño emakume zintzoagoa. Agripina onek kendu bait zion Klaudio'ri bizia, ortarako ari atsegin zitzaizkion mota bateko zizen edenaz baliatuz.

Ainzuzen Klaudio'ri, ots, •Zesar»i — Zesaraugusto'z gero inperatore guztiei esaten bait zitzaien •Zesar» —, Klaudio •Zesari• amaniten taldeko ziza bat ain atsegin zitzaiolako gelditu da ziza ori, •amanita caesarea» izenaz apaindua. Beste amanita bat zan ordea Agripina'k eman ziona: •amanita phaloides».

Agripina'k, gaiztakeri ura zergaitik?

Klaudio'rekin ezkondu-aurretik Agripina'k bazuan leenagoko ezkontza batetik seme bat: Neron. Ba, seme ori inperatoreen aulkira jasotzeko il zuan

Agripina emazteak Klaudio bere senar inperatorea. Neron bere onderengotzat izendaturik zeukan ordurako Klaudio'k. Bildur zan ordea Agripina, Klaudio'k ondorengotza ori, asmoz aldaturik, bere semea ez zuan Neroni kenduta, bere semea zuan Britaniko'ri ez ote zion emango. Messalina'gandik izandako semea zuan Klaudio'k Britaniko ori.

Ez zan Klaudio, dirudianeaz, Agripina •Gaztea-k iltzen zuan aurreneko senarra. Aurretik beste senar bat ere, Crispus, edenez il zuala esan bait da.

Igo zan Neron agintaritzara, eta, bera izan zuan Elizak Erroman lenengo zigortzaillea, ikusiko dugun bezala.

NERON, Agripina •Gaztearen- eta onek Klaudio'rekin ezkondu aurretik senar izan zuan Domizio Atenobardo'ren semea zan, ez Klaudio'rena.

Klaudio'k bazuan ordurako, esan dugun bezala, Messalina'gandik jaiotza zion seme bat, Britaniko, itzal aundiko mutilla gudaroztearen buruzagi lez.

Ez dakigu nola, emekeritxo eta losintxa-bidez agian, baiñan lortu zuan Agripina •Gazteak» Klaudio'rengandik, onek, Britaniko baztertuta Neron semetzat artzea eta inperatoretzarako bere ondorengo izendatzea.

Klaudio'k, bere alaba, Oktabia, eman zion gaiñera emazte, Neron'i. Emakume xaloa, txukuna, garbia, ia beti eme nardagarriz beterik egon oi zan inperatoreen jauregi artan. Eta guztiek maitatua!

Neronek ordea laister ikusi zuan beste emakumezko bat, Popea. Eme au, Salbio Oton gudalburuarekin ezkondu zegoan, Neron ilda, inperatore izanen zan Oton arekin alajaiña.

Neron'ek ordea beretzat artu zuan emakumetxo zirikalari biurri ura.

Neronen egiazko emaztea, Oktabia, Klaudio inperatorearen alaba, gaitzetsia eta erbestera jaurtia izan zan; antzua omen zalako; eta ezkontzak eskatzen zion Neron bere senarrarenganako leiatasuna beste gizonezkoekin urratu omen zualako.

Laister izan zan Oktabia gaixoa erbestean erailla.

Popea datorkigu gogora. Naiz odura arte Neronen maitale lizuna besterik izan ez, bere edertasunaz baliaturik inperateme izan nai zuan Popea'k ez ote zuan eriotz artan zer ikusirik izan? Entzun ertilari dodore bati:

Enlevée a son mari, Poppée, venait d'entrer au lit du maître, doucereusement féroce, et, pour l'pouser, Neron avait renvoyé sa femme légitime, Octavie, en la calomniant de faÇon abjecte, avant de la faire exé'cuter. Ce dernier forfait avait indigné l'opinion: des manifestations hostiles a Poppée et au prince avaient marqué la mort de l'impératrice, la fille de Claude, la descendante d'Auguste. Le spectacle de cette jeune tête coupée apportée a la favorite avait fait horreur- (Daniel Rops).

Euskeraz:

«Bere senarrari kendua, Jabe berriaren ogera sartua zan ordurako

Popea, emakume goxoki makurra. Arekin ezkontzeko kanporatu zuan Neron'ek, gezur zikiñez orbandua, eriotzara galdu aurretik legezko bere emaztea, Oktabia. Asarretu zuan jendea izugarrikeri onek, eta sortu ziran zalapartak Popea'ren eta inperatorearen aurka, Klaudio'ren alaba ta Zesaraugustoren oiñordekoa zan inperatemearen eriotzaren berri jakin zanean. Egiatzko nazka sentierazi zion erriari, maitale lizunari eskeiñitako buru gazte ezpataz muztu arek».

Egia da Oktabia gaixoak ez zuala umerik izan, baiñan il zutenean ogei urteko neska gaztea zalarik, bazuan oraindik umeak izateko betarik aski. Eta bere ezkontza loitu zuala, pentsatu ere ezin daitekean gauza da.

Neron, orduan, Popea'rekin ezkondu zan. Ta Senatua, Oktabia'ren erailketa eta Popea'ren ezkontza ospatzeko, jainkoei eskerrak ematea erabaki zuan. Erroma'ko erria baiño ustelagoa zan itxuraz Erroma'ko Senatua.

Ordurako erailla zuan Neronek edenez Britaniko bere erdi-anaia, Klaudio eta Messalina'ren semea. Eta laister etorriko dira erailketa geiago. Asko. Eta erailketa aietako batzuetan, izan omen zuan Popea'k zer ikusirik.

Baiñan aitortu bearra da, oso gaizki ikusia izan zala beti Neron, eta jende aundiki asko zala Erroman aren aurka iraultza ta matxinadak prestatzen ibilli zana. Orregaitik, baleike eriotzez zigortutako aiek oso aingeru garbiak ez izatea. Bai beintzat bat edo bi baiño geiago. Bere bizia eta bere buruntza babestu-bearrean aurkitu bait zan Neron.

Popea eta Agripina ez ziran alkarrekin ongi etortzen, oso gaizki eraman bait zuan onek, Agripina'k, Neron bere semea emakume arekin ezkondu izatea. Ondorio beltza izan zuan bi eme gaizto aien arteko asarreak: Popea'ren eskariei erantzunez, eriotzara galdu zuan Neronek bere ama: Agripina «Gaztea».

Eriotzazko zigor aren arrazoitzat, — gauza larria bait da seme batek bere ama eriotzara eramatea ama, semea inperatore-aulkitik botatzeko azpi-lanean ari zala esan zitzaion erriari.

Eta ori egiztatzearren, •Seneca himself was employed to justify her death as that of a traitor. No one believed this but all accepted it. Neron conduded that he was free to behave as chose• (Enc. Brit.).

Euskeraz: «Seneka bera erabilli zuan Neronek erailketa ura traidore baten erailketa izan zala aldarrikatzeke, ta orrela bere burua zuritzeke. Iñork ez zion ori sinistu, baiña danek artu zioten ontzat. Au izan zan Neronek atera zuan ondorioa: yare zala nai zuan bezala jarduteko». (Enc. Brit.).

«She, Agrippina, quarreled witz Nero about his private life and opposed his liaison with Poppaea»: «Asarretu zan Agripina Neron'ekin, onek zeramakian bizieraren erruz, eta Popea'rekingo ezkontzaren aurka jarri zan- (Id.). Orduan, Neronek, pakeak egiteko aitzakiz baliaturik, itxasertzeke jauregitxo batera deitu zion bere amari, «where one unsuccessful attempt was made to drown her on a vessel constructed to founder». «An egin zuan, urpera joateko prestatu rik zegoan ontzi batean ama itozteke saiaketa bat: uts irten

zitzaion saiaketa» (Ib.).

Bere landa-etxe batera joan zan Agripina. Ez zuan bizirik salbatu. Antxe izan bai zan, Neron bere semearen aginduz erailla.

Beste batzuek onela mintzatzen dira: Popea'ren eskariz il zuan Neron'ek bere ama Agripina. Baiñan, Neronen bi aolkularirik jakintsuenak, Burro gudaiburuak eta Seneka filosofilariak Popea'rekin bat egin zutelako, badirudi Agripina maltzur ura gaiztakeriren baten prestaketan sarturik ibiltzea.

Laister iritxi zitzaien eriotza bere bi aolkulari ospetsu aiei ere: Burro, eztarriko minbiziz il zan, naiz jendeak eriotza artan Neron'en edena ibilli zala uste. Seneka'k berriz, bere burua erail zuan, Neronen aginduz.

Ugari izan ziran, iraultzan sarturik zeudelako edo Neron'ek orrela uste izan zualako, eriotzez zigortutako senatore, gudaiburu, ertilari ta aristokrazikume aberatsak. Ertilarien artean bi olerkari txit ezagunak: Lukano eta Petronio.

Bestalde, aspalditik zebillen Neron lagun batzuekin, mozorroturik, gaeuz, lapurretan-da •karrikaz-karrika zalaparta gaiztoak sortzen.: •rioting in the streets» (Id.).

Oiek ziran Erroma'ko Inperatorearen jostaketak.

Esan dugun bezala, Neron izan zuan Elizak aurreneko inperatore zigortzaillea. Eta zigorketa ura ez zuan Eliza ezabatzeagaitik asi; bere burua salbatzeko baizik. Ikus nola:

64'garren urtean, uztaileko 18'aren illunabarraz gero, su artu zuan Erroma'k, eta izugarrizko kalteak egin zituan bederatzi egunez pizturik irau zuan sute arek.

Neron, Anzio'n zegoan; Erroma'tik aski urruti. Erriak ordea ez zekian ori-ta, inperatoreari bota zion sutearen errua. Su-galdak ikusiz poema bat egiteko eman omen zion uriari su.

Orduan Neronek, •posiblemente por indicaciÓn de Popea y de sus amigos judios ech6 la culpa a los cristianos, pertenecientes en su mayor parte al subproletariado romano» (GER). Bere tokian ikusiko dugu zigorketa ura nolakoa izan zan.

Urrengo urtean, 65'ean, Popea izan zan bizia galdu zuana. Bere senarrak il zuan, sabelean eman zion ostiko batez. Eta emaztearekin batera, bere semetxo jaio-gabea erail zuan — Neronek — ostiko aren bitartez. Aurdun bait zegoan Popea.

Eta azkenean, lertu bait zan ainbeste aldiz ler-zorian agertu zan iraultza, iraultzalari aien artzaparretara erori nai ez-ta, bere burua il zuan ezpatatz Neron'ek.

Guk ordea inperatore zigortzailleetaz mintzatzerakoan egingo dugu ostera Neron'ekin topo. Eta zigorketa ori aztertu ondorean I mendeko beste inperatoreen aipua.

ERROMA'REN INPERIOTZA-AROKO GIROA

Egin dugun inperatoreen bizitzaren azterketak, aski zirriku galanta eman digu inperiotzako aroan bizikeraren moral itatea nolakoa izan zitekean usmatzeko. Giro ustela, benetan.

Ez da arritzekoa. Ustela bait zan erromatarren erlijioaren moralitate traketsa ere.

Egia da, Epikteto, eta Seneka'ren antzeko filosofiariek giro makur ura garbitzeko, eta Zizeron, Birjilio, Tazito, eta auek bezalako elertilariek oitura garbiak goresteko, saiaketa ederrak egin zituztela, baiña gizon aiek Erroma'ko erlijioaz kanpo bizi ziran, eta beraien moralitateak berak ere, akatsik aski bazuan.

Erroma'ko erlijioa politeista zan, jainkoaskoduna. Banan-banan bere semeak jaio bezain laister jaten zituan Jupiter izeneko jainko nagusi baten inguruan, jainkoz eta jainkemez beterik zegoan erlijio makurra.

Jainko eta jainkeme aiek danak, gizakumerik nardagarrienak bezala bizi ziran. Lapurrak ziran, alkar iruzurleak, erailleak, eskontzausleak.

Esan ere esan bait daiteke gizakumeak garbiagoak, zintzoagoak eta santuagoak zirala gurtzen zituzten jainko eta jainkeme aiek baiño.

Goi-maillako izaki sagaratu baldar aien azpitik izadi osoa eta izadiko zoko guztiak, bigarren eta irugarren maillako jainkotxo, jainkemetxo eta gizakumeon gaindiko izpiritu jainkotiarrez beterik zeuden: odeiak, itsasoak, mendiak, aranak, ibaiak, iturriak, leizak, etxeak, bordak...

Jainko eta jainkeme lizun aien ekintzak ikasten zituzten ikastoletan mutikoek eta neskatoek inperiolur osoan.

Egia da, bazala jende zuzena ere. Egoera nazkagarri artaz nazkaturik zegoan jendea; irtenbide bat aurkitzeko gauza ez zan jendea.

Orrelako jende oiek ordea gutxiengo bat besterik ez ziran, baiñan alatagutziz, alako jendeak ere bazirala, gogoan gordetzen ba'dugu, egia da Plazido Intxaurraga'k aro artako oituretaz ematen digun irudia.

Oraingo apaiz askok, Gazteiz'ko apaizgaitegian On Plazido irakasle izan zutelako, aren aipua gustora artuko dutela iruditzen zait.

Entzun egiogun:

.Para apreciar la transcendencia de una conversión, claro esta que hay que estudiar la distancia que separa a los extremos de la misma. Por eso nos fijaremos en el estado del mundo pagano para pasar a estudiar después el estado del mundo cristiano. En cuanto al estado del mundo a la venida de Jesucristo, sabemos por la historia la espantosa degradación moral a que habian Ilegado los pueblos rn^gs cultos, como Grecia y Roma.

- •LA IDOLATRIA. Es el recurso abominable al que se ha acogido siempre la humanidad corrompida. Los pueblos degenerados, para cohonestar

sus vicios, se han fabricado dioses falsos a su imagen y semejanza, esto *es*, tan viciosos como ellos. Este es el caso de los pueblos mas civilizados, y al mismo tiempo, mas corrompidos del mundo antiguo. Roma habia entronizado en su famoso Panteón a los dioses mas infames, para que fueran los patrocinadores de los vicios mas degradantes-.

Ez da noski oso-osoan egia, Itxaurrega'k bere erretolikaren galda beroan dion bezala, gizakumeek beren gaiztakeria zuritzeko asmatzen dituztela jainko lizunak. Baiña egia da alatagutziz, arras lizunak zirala erromatarren jainko eta jainkemeak.

-LA ESCLAVITUD. En aquella sociedad embrutecida en el culto de todos los vicios divinizados, habiase llegado a desconocer la dignidad del hombre hasta el punto de tratarle como una bestia. El antiguo derecho romano declaraba que los esclavos no son, personas sino cosas; que no son sujetos de derecho ni de injuria; que el amo puede disponer de ellos sin limitación alguna».

Jopu edo esklabu guztiak ez ziran noski «equiparados a la fieras, y, •como tales muchas veces encadenados» bizi. Eztare, ez daiteke jopu guztietaz esan -que trabajaban bajo el latigo de capataces sin entrañas y cuando ya no podian dar rendimiento de trabajo, se les mataba, o se les abandonaba a una muerte por hambre, o *se* les destinaba a alimentar a las fieras del circo, como hizo **al enterase de que resultaba caro** alimentarles con carne de animales-.

Ez. Ez daiteke ori jopu guztietaz esan, orduan ere biotz oneko ugazabak bai bait ziran, eta Errepublik-a-roko legeren batek («Lex Petronia») eta gero inperatore bat edo batek ere (Adriano, Antonino Pio) zerbait egin bait zuten doakabe aien zoria biguintzeko.

Baiñan, alatagutziz egia da, legea lege, errukarria izan zala jopu aien zoria, eta gizagaixo aien eguneroko biziera bertago zegoala Intxaurraga'k margozten digun iruditik, lege-paperetan agertu daitekeanetik baiño.

Oroi Ameriketako inditarren alde erregeek emandako legeak zertarako balio izan zuten. Ori, Ameriketako, jopuen ugazaben aurrean, geiegikeriak eragozteko, mixiolariak an zeudela!

Egia da beintzat Erroma'ko legearentzat jopu bat ez zala «pertsonea»; gauza- utsa zala: -res».

•Gauza» izaten jarraitzen zuan •aun en el caso de ser abandonado por su dueño, pues entonces no era mas que *una* cosa abandonada que puede ser ocupada por cualquiera» (GER).

-All slaves were liable to the arbitrary cruelty of their masters:- -Jopu guztien zoria nagusien naikeri utsezko ankerkeriari loturik zegoan» (Enc.Brit.): In the mines slaves often ruthlessly worked to death, and the chained gans of the land were brutally trated»: «Meatzetan, sarri, jopuei kupidarik gabe illik

jausten ziran arte lan egiñerazten zitzairen, eta landetan katez lotutako jopu taldeak, abereak bezala izaten ziran erabilliak. (Id.).

Antonino Pio inperatoreak jopuek iltzea debekatu zien ugazabei, baiña IV mendean, Kostantino'k, inperatore kristauak, «absolved the master if the slave died as result of flogging», -erru orotik askatzen zuan ugazaba, jopua arek emandako zigorketa baten ondorioz iltzen ba'zan- (Id).

Jopuak zenbat ziran? Askok. Krisaurreko I mendean jopu ez zan gizakume b koitzare

tzat bai omen ziran bi jopu inperiolurreko biztanleen artean (GER). Krist aurreko II eta I mendeetan, orduan gudu, ira

Itza eta zalaparta ugari izan zalako, — gudan eta iraultzetan baituta oetatik osotzen bait zan geienbat jopu merkeen kopurua —, ta inperio-lurretako aundikiek giro naasi artan .oso-oso aberatsak («immensely wealthy») egin ziralako, orduan ain zuzen, kristautasuna jaiotzera zijoan uanean, «igo zan joputza bere gaillurrera»: «slavery reached its high-water mark» (Id.).

•Ugari eta merkeak., •abundant and cheap• omen ziran jopuak (Id.). Nova Cartago edo Kartago Berri'n, ots, Españi'ko Kartajena'n, meatzetako lanean, bai omen ziran 40.000. (Id.).

Garrantzi aundiko gauza ori, jopuen ugaritasuna eta orren ondoriozko merketasuna. Jopuek garestiak ziranean obeki erabilliak izaten bait ziran, abere garestien erara. Ori gertatu zan I mendearen erditik II mendearen azkena arte. Gero okerragotu ziran osteraz gauzak.

•LA CRUELDADE CON LOS DESVALIDOS. Los sabios enseñaban que la virtud consiste en no conmoverse por las desgracias ajenas, y que el vicio esta en la misericordia y en la piedad. Nada de compadecer al desgraciado. Esto serto ruindad de coraz6n. Nada mas inhumano y cruel que los siguientes preceptos de la filosofia pagana: •Dar de comer y de beber a un pobre, — dice Plauto es una doble locura: para si mismo porque es perder lo que se da; para el indigente, porque es prolongar su miseria». •El pobre, — dice Epicteto ha de ser abandonado como se abandona uan pozo desierto, infecto y vacio cuyo fondo causa repugnancia»

Zer esan, On Plazido'k dioskunari-buruz? Gogortxoegia dala noski une artako jakintsu guztietaz diona. Filosofilari estoitarrek dauzka gogoan, eta filosofilari aiek, onbidea, — •virtus—, oiñazeaz eta edozein motako zoritxarraz ez naigabetzea zala, erakusten zuten; ez, norbere, ez, besteren zoritxarraz. Gaitzak ez du gizon zurgurraren sendotasunik unkitu bea

. Eta, egia baitare, aburu orrek agortu egin zuala gizarte artak biotzondoa. Plauto antzerti-idazleak eta ain izen aundiaren jabe izan zan Ep kteto filosofilariak adieraztera ematen diguten lez, ez zan gizarte artan erruki aundirik txiroentzat eta edozein erako beartsuentzat.

...

•EL INFANTICIDIO. Los que vivimos en plena luz del Evangelio apenas comprendemos como han podido salir del sabio Quintiliano palabras tan bárbaras como estas: •Matar a un hombre es, de ordinario, un crimen, pero matar a sus propios hijos es con frecuencia una buena acción«. Y el prudente Séneca da una razón que espanta: •Nada más razonable que echar de casa los trastos. Esta filosofía había pasado a la legislación y según esta, el niño recién nacido debía ser puesto a los pies de su padre para que este decidiera si el niño debía o no, continuar viviendo. La suerte del niño la decidía el padre con un simple gesto: si tomaba en sus brazos al niño era señal de que le permitía vivir, si lo dejaba en el suelo estaba condenado a muerte y en consecuencia el niño moría estrangulado, o era arrojado a las basuras, o moría de hambre expuesto en el •velabrum-. Este crimen que tanto nos subleva era corriente en el paganismo como lo prueban estas palabras que Tertuliano pudo lanzar a los feroces perseguidores del cristianismo sin temor a ser desmentido:

•Entre los que nos rodean y que tanta sed tienen de cristianos, entre vosotros mismos, austeros magistrados que tan rígidos os mostráis con nosotros, hay que no haya dado muerte a su hijo».

...

•LOS COMBATES DE GLADIADORES.- Este era el destino de millares de esclavos, que para divertir a un pueblo salvaje, debían matarse mutuamente o luchando con las fieras del desierto en aquellos inmensos anfiteatros cuyas ruinas todavía subsisten para vergenza y baldón de una civilización que desconocía la dignidad humana. Millares y millares de seres humanos, se degollaban en la arena de los circos con íntimo regocijo y satisfacción no solo de la plebe, sino también de los hombres cultos de aquel tiempo, los cuales enseñaban que semejante monstruosidad era una noble institución y un excelente ejercicio para fortificar al pueblo contra el dolor. Jamás se ha visto tan solemne desprecio al derecho a la vida, que todo hombre naturalmente tiene, como cuando se ha visto a los mismos emperadores romanos organizar y presidir aquellas abominables fiestas, pensando hacer con ellas la felicidad de su pueblo».

•EL DIVORCIO Y LA POLIGAMIA.- También la suerte de la mujer dependía del marido. En el derecho antiguo la mujer era una cosa que compraba el marido, una propiedad del marido, una esclava en manos de un tirano, el cual podía despreciarla, venderla o repudiarla por ffitiles

motivos. No tenía derecho alguno en la casa del marido, no podía decir: esta casa es mía, mis hijos me pertenecen, pues la suerte de la mujer, como la de los hijos dependía en todo momento del capricho del gran &spota a quien la ley daba todos los derechos sin imponerle obligación alguna. Dicho se esta que el hombre se casaba para divorciarse, y se divorciaba para casarse y que la poligamia, con todos los males que la acompañan, era la plaga común a todos los pueblos».

Borobildu ditzagun On Plazido'ren esakizun oiek:

Grezi'ko legeak yare uzten zuan ezkontzaustea: •According to Attic law the husband could repudiate his wife whenever he liked and without stating any motives»: «Atenas'ko legearen araura, senarrak, berak nai zuanean eta arrazoirik eman bearrik gabe ausi zezakean emaztearekingo lokarri oro» (Enc. Brit.).

Sartu zan oitura ori Erroma'ko legedira:

•In Rome the wife was transferred at marriage to the authority of her husband, **in manus** (in full power); consequently she became so far subject to him that he could, at will, renouce his rule over her and end the marriage-: «Erroma'n emaztea, ezkontzerakoan, senarraren agintaritze orokorraren azpian ipiñia izaten zan. Nola gaiñera! Senarrak, nai izatea naikoa bait zuan, emazteari-buruz zuan lokarriari uko egiñez, besterik gabe ezkontza erabat austeko- (Id).

Gero, Zesaraugusto'k, eman zituan arau batzuk senar-emazteen alkarte sendotzeko, («Lex Julia de adulteriis coercendis-, •ezkon-loiketa eragozteko Juliar-Legea»), baiñan arau aiek ez zuten ezer aundirik lortu. Ez da arritzekoa: Erroma'ko edestia-zear inperatoreek eta inperatemeeek erriari ematen zioten eredu-bidea ez bait zan zuzenegia gertatzen.

Zesaraugusto'k berak izan zuan alaba bakarra ere, Julia, ez zan, ikusi dugun lez, eredu txukunegia agertu. Larrutik pagatu zuan gaixoak bere lizunkeria. Azkeneko senarra izan zuan Tiberio inperatoreak erbesteratuta, mixeri gorrian il bait zan.

Beste emazte batzuk ordea, batere errurik gabeko emakumeak, dibortzioa-bitarte beren senarrek gaitzetsita, nora jo eta zertaz bizi jakin gabe gelditzen ziran era errukigarrian.

Beti emakumea izaten zan ba, ezkontzari-buruzko arazoetan galtzaille irtetzen zana.

•The conception of the •patria potestas», or the power of the head of the family over its members entered deeply into the jurisprudence of ancient Rome-: •Aitak sendi guztikoen gain aalmen orokorra badualaren gogoeta, sakan sartu zan Erroma zarreko lege-erabilketan- (Id.).

Benetan egia da beintzat kristautasunatik-at, ondo ituna izan dala, eta dala, emakumezkoen zoria. Kristautasuna izan bait da emakumea duindu eta pertsona bezala eskubidetu duana. Elizak jaso du emakumezkoa, abereen antzera eme uts besterik ez izatetik Andra Mari'ren kideko emakume izateraiño dagoan tarte izugarria-zear.

-LA INMORALIDAD PUBLICA. Suelos todos los frenos que cohiben las bajas pasiones del hombre, la inmoralidad era espantosa. Los hombres y las mujeres imitaron de buena gana los ejemplos nefandos de sus dioses y en obsequio de estos se realizaban en los templos, adornados de estatuas obscenas, las acciones más repugnantes. Los niños aprendían en las escuelas los ejemplos de sus dioses, su educación se dejaba en manos de los esclavos, sumidos en la mayor abyección por no poder constituir un matrimonio honesto, y por todas partes cundía la inmoralidad en los varones y la corrupción en las mujeres con toda la horrible mezcla de enfermedades vergonzosas, suicidios frecuentes, en términos tales que Thcito declaraba que el mal no tenía remedio..

Esan dezagun berriro, On Placido'k, jolas-toki ta jauretxeetako jainko ta jainkemeen irudiak zorrotzegi epaitzeaz gaiñera, gizarte aren margo beltzak bakarrik jaso dituala. Esan dezagun gizarte artan, egoera zikin ortaz asperturik zeuden gizon-emakumeak bazirala; baiña ez zirala geiegi orrelako gizon-emakume oiek, gizarte ark antza geiago bait zuan On Plazido'k margoztu digunarekin, gure aro ontako lekaimetxe batekin baiño.

Dotoretasuna, eta apaintasuna, ots, lujoa, bai, bazan orduan ugari, baiñan bait zikintasuna ere, apaintasun aren azpitik.

Orrelakoa izan zan ba kristautasunak aldatu bear izan zuan mundua: purtzilla, lizuna, gaiztoa benetan.

Mundu artan Josu'ren aginduak eta aolkuak — -zorionekoak txiroak-, -zorionekoak garbiak-, -zorionekoak apalak eta paketsuak-, -zorionekoak zintzoak izateagaitik zigortuak• eta oien antzeko gogoetak zabaldu nai izatea, gari-azia arkaitz gorrian erein nai izatearen antzeko zerbait zala, nork ukatu dezake? Altagutziz, erein zuan Elizak azi ori, eta azi ori, itsatsi egin zan, eta iru mendeen epean, kristau egin zuan azi orrek mundua!

Ori, munduaren aldakuntza ori, Jainkoaren laguntza bereizirik gabe egin ez zitekean gauza omen da, apologilariek diotenez. Eta, orregaitik, Eliza Jainkoak egindako zerbait dala, gizakumeei adierazteko baliorik aski bai omen du.

Orixe bera egiztatu naiean aurkeztu digu Plazido Intxaurreaga'k ere, irakurri duzun guzia.

Bai al du argumentu orrek indarririk? Ez noski berak bakarrik. Baiñan bai, gero aipatuko ditugun beste batzuei alkartuta. Ari mee batek ere ez du berak bakarrik indar aundirik, baiñan bera bezalako beste batzuekin txikordatuta, bai; bada itxasontzirik astun eta aundiena ere kaieko eusgarriei sendo lotzeko gauza.

Pozgarria zaigu beintzat giro lizun artan Elizak sortarazi zituan santutasunezko loreak gogoratzea.

Kristautasunaren izpiritua, zabaldu da lurralde kristauegara ez ez kristau ez diran giazarteetara ere-ta, gaur ezin igarri dezakete oraingo gizon-

emakumeek, gure Ines, Agata, Barbara, Luzi edo Katalin bezalako neskatil done aietatik Inperatoreen jauregiko andre eta anderefioetara zegoan osin-zulo neurteziña zenbateraiñokoa zan.

ELIZA, ERAKUNDE. Josu'k sortu zuan une-unetik izan da erakunde edo instituzio bat gure Eliza. Ez dute arrazoirik gaurko sasiprogresistek, •Eliza Jainkoaren Erria eta •Eliza Erakundea» bata bestearengandik bereizi nai dituztenean. Ez da sekulan Erakundetzarik gabeko Eliz bat izan. Agintaririk, araurik, legerik eta zigorketarik gabeko Jainkoaren Erri bat ez da sekulan izan.

Izan ere, Erakunde sortu bait zuan Josu'k Eliza.

Ez da anarkia, Jaikoaren Erria. Ez da Eliza arri-pillo baten antzeko gizakume batzuen kopurua; arriz-arri, arri landuz, ederki eraikitako Jauretxe bikaiña baizik...erailketa osoaren oiñarria Kristo bera dualarik.

Eta Kristo'ren ordezkari lez, Kepa Aitasantua.

Kristo'k berak aukeratu bait zuan Jainkoaren Erreiñuko Erregea — Kepa eta, Kepa Erregeaz batera, Erreiñu ortako Agintari Nagusiak: Amabi Bidaliak.

Kristo'k berak eman zien, Agintari oiei, agintzeko aalmena; eta legeak egitekoa; eta lege oietara makurtzen ez zana zigotzekoa.

Ez dago anarkirako lekurik. Ez dago erakunderik-ezarako lekurik. Egiazko autoritatea eman zien Kristo'k Elizako bere Agintari aiei. Mundu ontan beste iñork izan ez dezakean bezalakoa. Aien aginduek, mundu ontarako ez ez besterako ere indar osoa bait dute. •Munduan lotzen duzutena, zeruan loturik geldituko da; eta askatzen duzutena, askaturik»... betirako!

Une berean jaio ziran Eliza eta Jerarkia. Ez da sekulan Jerarkirik gabeko Elizarik izan; ezta Jerarkirik ere, Jainkoagandiko Elizarik gabe; •jerarki» itzak, orixe ainzuzen esan nai bait du: •agintaritzta sagaratu».

Itun Berriko liburuak irakurtzen dituanari, gauza bat agertzen zaio, jakingarri, gaiñerako gauza guztien gaindik:

Kepa eta beste Bidaliak, ziur daudela, Kristo'gandik artua, autoritate orokor osoa dutela, Eliza gobematzeko; agintzen duten guzia, debekatzen duten guzia, ots, egiten duten guzia, Kristo'ren izenean egiten dutela; ori egiteko eskubide osoa dutela, are geiago, ori egitera bearturik daudela Kristo'ren aginduz, Elizaren onerako Arengandik artutako autoritate orokor ori erabiltzera bearturik daudelako.

Ez zuten ortaz, beiñere, kezka-izpi txikienarik izan. •Guk dagiguna, Kristo'k berak dagi». Ez zuten, eztare, ortaz kezka-apurrik izan Bidalien ondorengo lenen Asaba Doneek: •Bidaliek egiña, Kristo'k berak egiña izan da; eta, gu Bidaliek sagaratuak izan geralako, Kristo'k berak dagi guk dagiguna ere.. Ori izan zan Asaba Doneen mentalitate ziurra.

Eskiertasun ortan zalantzarik gabe tinkaturik borobildu zuten Bidaliek Lenen Elizako jerarkia, lenengo diakonoak eta gotzai-apaizak sagaratu.

Jerusalen'go Elizan Jakoba Jaunaren Anaia- agertzen zaigu gotzai bezala. Ez dirudi Bidaliek sagaratu zanak. Josu'ren irurogeitamar ikasle aietako bat zalako, Josu beragandik artu ote zuan gotzaitza?

Jakoba'ren azpitik, bikoitza dugu jerarkia:

Diakonoak», Bidaliek aukeratuak aurreneko zazpiak, diasporako elenisten serbitzurako;

Agureak», juduen serbitzuan Jakoba'ri laguntzeko.

Agure auek judutasuneko jerarkitik datozkigu, sinagoga bakoitzean agure-talde bat bai bait zan, sinagoga artako zuzendariaren laguntzaille. Elenistek, •agurei» elenerazko itzez, •presbyteroi- esaten zieten, itz orrek eleneraz •agure» esan nai bait du.

Asiera artan, Jerusalem'clik landa ere, era ortakoa izan zala dirudi Eliz guztietako jerarkia: Gotzaia eta agureak bakarrik, diakonirik gabe, judu utsez osotutako Elizetan: Gotzaia, eta, aren laguntzaille bezala, •agureetaz» gaiñera, diakonoak, juduz eta elenistez osotutakoetan.

Laister, kristautasuna Erroma'ren inperiolurrera zabaltzen asten danean, Eliz guztietara agertzen zaigu sarturik, diakonoen gaindik zeuden •agureen» erakundea.

Orain ordea, agure aiei •presbyteroi- •presbiteroak, edo •bereterrak» euskerazko itzez, esango zaie, eta ez dira naitanaiez judutarrak izango, ezta naitanaiez adiñez agureak ere-, itz oiek, naiz laterazko «senior- eta gaztelerazko .señor.ek bezala berenez •zarra» esan nai, liturgi-izkeran zartasuna ez baiña duintasuna adierazten bait dute.

Lenen kristau-idaztietan gotzaiaren senatu edo •Inguru-Batzarra- bezala agertzen zaizkigu bereter oiek. Eliz bakoitzean Gotzai bat agertuko zaizu; eta gotzaiaren inguruan, bereterrak.

•Ez bedi ezer egin gotzaiarekin eta bereterrekin batera izan ezik: •Nihil sine episcopo et presbyterio-, idatzi zigun Antioki'ko Iñazio Doneak.

Diasporako juduak uri aundietan bakarrik bizitzen ziran. Uri koxkorretan eta baserrietan judurik ez zan. Orregaitik, kristautasuna ere uri aundietako gauza izan zan. Esan daiteke IV mendera arte uri koxkorretan eta baserrietan kristaurik ez zala. Eta ez geiegi, V'ean ere. Oridalata, presbitero edo bereter aiek danak, gotzaiarekin bizi ziran gotzai-urian bertan, eta gotzaiarekin batera, uri artako Elizaren buru ziran.

Bereter aiek, sagaraketaz gotzaiak ote ziran? Bai noski lenengo urte aietan.

Urte aietan bereterren batzarrean, gotzaia, batzar aren lendakaria besterik ez zala bait dirudi: aurrenekoa; baiñan berdiñen artean aurrenekoa: batzarkide berdiñen artean, batzarraren zuzendaria. Esan ere, orixe esan nai bait du elenerazko •Episkopos- itzak: •Zuzendaria», •Inspector».

Ala, epe luzez, •nere anai bereterrak• esanen du gotzaiak, bereter aiek aipatzerakoan. Bereter aiek izan ziran luzaro, gotzaia sagaratzzen zutenak: •III mendera arte Alexandri'n»: •Ate o seculo III em Alexandria• (Chedwick). Baita Erroman bertan ere. Gotzaiak egiña izandako gotzai sagaraketa bat ez bait zaigu aipatzen Erroma'n, 235'aren inguruan il zan Ipolito'ren denbora arte.

Bereter gotzai-sagaratzaile aiek gotzaiak ez ba'ziran, ots, apaiz utsak besterik ez ba'ziran, egiazko gotzaiak al ziran gotzai ez ziran apaiz aiek sagararutako gotzaiak?

Ori, edestilariek aztertu ez duten auzia dugu.

Baietz esango nuke nik, egiazko gotzaiak zirala, naiz apaiz utsek sagaratuak izan. Sakramentuak bere zertasun osoan utzi bait zituan Josu'k Elizaren eskuetan. Badu beraz Elizak sakramentuen •gaia — •materia». latinez, — eta •itzak«, — •forma• latinez aldatu aal izateko eskubidea, eta bein baiño geiagotan erabili ere erabili du eskubide ori.

Era berean badu apaizei gotzaiak ordenatzeko aalmen osoa emateko eskubide berdiña. Ez da beintzat, ori egiterik ez duala esateko, kixazko arrazoirik ikusten.

Ori guzia, gotzaien sagaraketari dagokionez. Aukeratzea, gotzai sagaratu izan bear zuana aukeratzea, Diasporako Eliz bakoitzean elizkide guztien eginkizuna bait zan.

Poliki-poliki, gotzaiak, bereterren gaindik garrantzi eta indar geiago artzen joan ziran, eta II mendearen erditik aurrera, gotzaia izanen da, gero ta geiago, Eliz baten buru bakarra, eta aren aolkulari besterik ez, Eliz artako bereterrak.

Eta azkenean auek, len gotzai izan ba'ziran ere, apaiz utsetan geldituko dira.

Ez da erreza aldakuntza ori aurrena non egin zan jakitea. Ipolito aipatu dugu goraxeago; eta 220'garren urtea. Esan daiteke urte ortaz gero, aldakuntza egiñik gelditu zitzaigula.

•**•

Gotzai eta bereterretaz gaiñera diakonoak eta profetak ere agertzen zaizkigu lenen Eliz artako jerarkiaren inguruan. Baita beste •karismatu• batzuk ere.

Diakonoak, jerarkiaren mailla bat ziran. Ez ala besteak.

Diakonoen eginkizunak, liturgian parte artzea, eliz-txindien zaintza ta erabilketa, eta karitate-ekintzen zuzendaritza, izan oi ziran.

Aurren-aurreneko urteetan itzal aundiko gizonak izan genituan Elizabaitan diakonoak. Oroi Eztebe, Elizako lenen ziñopa, eta Samari kristautu zigun Felipe.

Diakonoak betirako geldituko zaizkigu Elizaren barruan. Ez ala profetak eta beste karismatu aiek.

Profetak aski ugari izan zirala dirudi Judu-Elizaren altzoan. Baita profetemeak ere. Ez da arritzekoa, profetaritzak Itun Zarrean erro sakonak izan bait zituan juduen artean.

Aipatu berri dugun Filipe diakonoak ere, izan zituan lau alaba profeteme.

Baziran profetemeak Korinto'n ere, Paul Deunak dioskunez. Beste karisma guztiak baiño geiago iraun zuan profetaritzak Eliza-baitan, eta garrantzi aundia eman zion Paul Doneak: beste karisma danei baiño aundiagoa.

Alare ez dirudi profetemeekin geiegi fiatzen zanik. Ez beintzat Korinto'koekin. Elizaren barruan isilik egoteko agintzen bait die. Beste une batean berriz, burua estali gabe profezigintzan asten dan emakumeak bere burua orbantzen duala, diosku.

Garai aietako oiturak!

Karismak berak ere, guri beintzat txit arrigarriak gertatzen zaizkigu korintotarrentzako I Epistolaren 1 l'garren ataleko lenen 16 ataltxoetan Paul'ek aipatzen dituanak!

•Karisma» itzak «Jainkoagandiko doaia esan nai du». Doai ori artzen zuanari, •karismatikos» edo •karismaduna» esan oi zitzaion.

Karisma-mota ugari agertzen dizkigu Paul Doneak bere idaztietan, karitatea guzti aiek baiño milla aldiz ohea dala deadar egiñez. Ikus I Kor. 12'tik aurrera.

Sortu ziran asarraldiak karismatuen eta jerarkiaren artean. Ala, II mendearen erdian bizitu zan Ermas idazle kristau ospetsuak, profetaritzari dagozkion arazo guztiak, Eliz bakoitzean Eliz artako gotzaiak erabaki eta zuzendu bear dituala utzi zigun idatzirik.

II mende orren erdiaz gero joango dira jerarkiaz kanpoko karisma oiek danak ezabatzen. Zergaitik? Bein Eliza sendotuz gero bearrezkoak ez zirako, erantzungo dizute apologiariek. Elizaren jaiotzakoan omen ziran bearrezkoak; landare erne-berri batek arreta aundiagoak eskatzen dituan bezala, ardura geiago eskatzen omen zuan ba Eliz gazte ark ere Gogo Deunaren aldetik.

LENEN ELIZAKO LITURGIA

Jainkoaganako Elizaren gurketa ofizialari esan oi diogu **liturgia** eleneratik artutako itz bat erabilliz.

Eta gure liturgi ori, judutasunaren liturgitik sortua dugu.

•Christian liturgy and forms of worship bear mark of jewish origins and influence. The very concept of church ritual (i.e. assembly of the believers for prayer, reading of Scripture and preaching) is indebted to the synagogue- (Enc. Judaica).

Euskeraz: •Liturgi kristauak eta gurketa-erak berekin daramate beren judutar-sorkuntzaren aztama ta eragiña. Elizaren zirimoni-eraketa bera, (otoizketarako sinisleak batzartzea, Idazti Donea irakurtzea, eta ondorengo itzaldia), sinagogetako erara izan da tajutua...

Josu bera bezala, judu-lege-betezaleak izan ziran Bidaliak eta Jerusalemgo lenen kristauak. Ala betetzen zituzten zintzo, judutasunaren, Jainkoari-buruzko, lege eta arau guztiak.

Orrela, alde batetik, judutar zintzoak ziran kristauak.

Ez ordea beste alde batetik, bai bait zuten Jainkoa gurtzeko beste era osoki berri bat: kristau-liturgia. Liturgi ori gunez bakarrik zan berria. Azalez juduek pazko-aparian erabiltzen zutenaren antzekoa bait zan.

Liturgi arek Eukaristia zuan gune. Azala berriz, Itun Zarreko irakurgaiak, salmoak, batzarreko zuzendariaren itzaldia, eta otoitzak. Baiñan bazuan azal ark ere zerbait zearo berria: Kristau guztiek ain maite zuten Josu'k esandakoen eta egindakoen oroitza.

Josu'ri ez zioten Kristo esaten, ezta, bere izenez, Josu, ere. Begirunez eta maitasunez igurtzitako itzez, Jauna- esaten zioten.

Esan dugu nola sortu ziran batzar aien berotasunean, gure «sinoptiko-edo •alkarren-kideko- iru ebangelioak. Sortu ziran bezain laister asi ziran kristauen liturgiako billera aietan irakurriak izaten. Baita, batzuk ebangelioak baiñan leenagokoak diran, Paul Deunaren Epistolak ere diasporako Elizetan. Baiñan alatagutziz, idazti oietan agertzen ez diran Jaunak esanak. eta Jaunak egiñak- beren billeretan oroitzuz eta kontatuz jarraitu zuten, len bezala, kristau aiek.

Eliza tinkotzen eta Erroma'ren inperiolurra-zear zabaltzen asiz gero, gotzaia izaten eukaristi-egillea. Bere bereterrez inguraturik, bai noski. Baiñan berak bakarrik ematen zuan meza. Meza kontzelebraturik ez zan.

Laister asi ziran kristauak juduen larunbata utzita, igandea egun donetzat artzen: Igandea, ots, Jaunaren eguna, •dies dominica-, domeka, bizkaitarren euskeraz. Igandez berbiztu bait zan illobitik Jauna.

Aldaketa ori noiz asi zan egiten? Ez dakigu. Zalantzarik gabe, Eliz batzuetan leenago besteetan **Orduan da azkarrago, Elizen-baitan zenbat eta judutar gutxiago.** •Batzartu zaitezte Jaunaren egunean, ogia zatituz eukaristia ospatzera-, agintzen zien Didaje izeneko idaztiak kristauiei, II mendearen asieran.

Jakiña da, antziña-antziñako kristau aiek eukaristiari «ogiaren zatiketa» esaten ziotela.

- Barauketa, judutasunetik jaso zuan kristautasunak. Oroi Josu'k berak Jordan ibaiaren ertzeko lekaroan, Berri Ona aldarrikatzen asi aurretik egindako garizuma: •quadregesima»: berrogei eguneko baraua.

- Ezer gutxi dakigu I mendeko bataiakkerari-buruz. Pentekoste-egunekoaren antzeko bataiaketa kopurutsu aiek danak aspertsio edo iiztaketa egin zituzten Bidaliek. Gero ere Elizan egiña izan dan gauza. XV mendean, Donebixente Ferrer'en denboretako Balentzi'n orrela izan bait ziran multzoan bataiatuak judutarrak eta mauritarrak: aien gaiñera urrutitik ereñotz-arbaztez ura iiztatuz.

Multzoaren barruan urak ukitzen ez zuana egiaz bataiatuak gelditzen zan? Ez-dezagun aiantzi, sakramentuak beren osotasun osoan Jaunak Elizaren eskuetan-utziak dirala, eta, ortaz, Elizak baduala sakramentuak nola egin erabakitzeke eskubidea.

Lenen mende artan, multzoko konbertsio edo jendearen kristau-biurtzeak bukatu ziranean, eredutzat Josu'k Jordan ibaiean jasandakoa artuz, •inmersioz», ots, •bataiatu-bearra uretan murgilduz» egiten ziran bataioak. Eta bataioa eskatzen zutenentzat, gertutu zuan Elizak irakaskuntza- ezikuntza-aldi egoki bat, II mendeko idazti kristauak adieraztera ematen digutenez.

- Bataioan bertan egiten zan bataiatu berriaren olio donezko gantzuketa; geroago, bataio-UNETIK bereizita, Sendoketa esaten diogun sakramentuaren gunea izanen dan gantzuketa bera.

Lenen mendeko kristauen sinispidea, II mendean asierakoa dugun •Apostoluen Kredoan» daukagu laburki bildua.

Kredo orrek aipatzen duan ataltxo batean egin zigun uts, lenen kristau aien sinispideak: Josu'ren Bigarren Etorrerari dagokion atalean ain zuzen. Etorrera ori berealaxe izango zutela uste izan bait zuten kristau aiek. Baita Bidali beraiek ere.

Eskatologikeria esan oi zaio uste oker orri, •eskhatos» itzak eleneraz «azkena- esan nai bait du.

Uste oker orren araura, lau gauza ziran berealaxe gertatu bear zutenak:

- Ildako zintzoen berbizkundera, edo •lenen berbizkundera.. (Apo. 20, 40; I Kor. 15, 25).

- Oraindik bizirik aurkitzen diran zintzoen itxura-aldaketa. Itxura zerukoiaz omituak izango bait dira guztiak. (I TES. 4, 17);

- Kristo'ren Erreñuaren asiera. (Apo. 20, 4).

Erreiñu orrek milla urte iraungo duala diosku atal ortan Donibane'k, baiñan ori esatean, erreñu ortako biritza paradisozko biritza izango dala agertu nai digu. Juduengandik artua du irudi ori, Itun Zarreko apokrifoeok munduaren asierako paradisu artan gizakume bakoitza milla urte biziko dala esaten bait dute.

Barbada, lenen judukristau aiek Kristo'ren Bigarren Etorrera ori ain azkar itxarote arek bazion garai artako judutasunari zerbait baiño geiago zor, juduek orduan, profetek iragarritako Mesia Erregea, judu-erria gaizkatzera berealaxe etortzekoa zala uste bait zuten, juduen onerako bere erreñua mundu zabal osoan ezarriz.

Danadala, lenen judukristauen eskatologikeri oker artatik sortu zan •Millenarismus• edo •millurtekeria• izeneko aburu okerra.

Aburu orren araura, Kristo'k, mundu ontan ezarriko du bere milla urteko Erreiñu ori. Erreiñu orren asieran izango zan •lenen berbizkundera», ots, ildako zintzoen berbizkundera; ildako zintzoena bakarrik. Orrela, zintzoak bakarrik biziko dira Kristo Erregearekin milla urteko erreñu ortan. Milla urte oien azkenean izango da •bigarren berbizkundera», pekatariena, eta ondorean, Azken Epaiketa. Epaiketa ortan, betirako inpemura gaitzetsiak izango dira gaiztoak; betirako onetsiak berriz zintzoak, amairik gabeko zeruan.

Asko iraun du edestia zear, eleneraz •milla» dalako, •kilianismus» ere esaten zaion millurtekeri portitz orrek. •Millurtezaleak» izan zitzaizkigun gure lenen idazle eta done batzuk; bizirik iraun zuan, –millurtekeriak–, V mendera arte; jaso zuan berriro nabarmen burua, XV'ean •Birjaiotzaren» giroan.

Eta gure egunotan Jeoba'ren Lekuko edo Testiguekin ber-agertu zaigu berriro.

Jeoba'ren Lekuko auek ordea, ez dira kristauak. Jainkoa-baitako Irutasun Donea sinisten ez dutelako ez bait dute Kristo Jainkoa danik sinisten. Ez dute inpemurik ere sinisten. Orregaitik, Kristo'k, azken epaiketan, gaiztoak ezabatu egingo dituala esaten dute. Ezabatu: uts bihurtu!

Beste leenagoko •millurtezale» aiek benetako kristauak ziran?

Oso-osoan kristauak. Oraintxe arte, 1941'a arte ainzuzen, ez bait du Elizak •millurtekeria• gaitzetsi.

ZIGOR-AROAREN ASIERA

•Ikaslea ez da irakaslea baiño geiago. Ni zigortua izan banaiz, zigortuak izango zerate zuek ere». Josu'k bere ikasleei esandako itzak dira. Bai ki, laister beteko ziran itzak.

Ikusi dugu Eliza, Palestina'n gogor zigortua. Erroma'ko inperatore algutzidunek artuko dute orain Sinagogako agintariengandik txanda. 64'garren urtetik 324'garren urtean Kostantino'k Lizinio borrokan menperatu arte iraungo du Elizaren aurkako zigorraldi anker luzeak: I mendetik IV mendea ongi sartua arte.

•Las formas de los martirios fueron especialmente terribles en las Últimas persecuciones, a lo cual contribuían la crueldad del pueblo, el deseo de conducir a la apostasia a los cristianos apresados, etc. Las formas principales eran:

«Crucifixión, clavados o sin clavar, y estos morían de hambre.

.La sofocación.

•El ser colgados en varias formas con pesos y desnudos.

•La rueda con o sin objetos cortantes.

•El tormento, a veces quemando o desgarrando con uñas, tenazas, peines de hierro.

.Las creces con cepos y hambre, etc.

.Los azotes con instrumentos diversos («lora», «nervi», «fustes», «flagra», «scorpiones», «plumbatae») a veces hasta desnudar los huesos y entrañas.

•Ser quemados en homillos, hogueras, toros de bronce, sillas o parrillas, en aceite hirviendo o pez derretida, o echándose aceite o metal hirviendo o envolviéndoles en una túnica empapada de aceite a la que luego se prendía fuego («tunica molesta»).

•Descabezamiento, heridas con saetas y lanzas, anegamiento o enterramiento en vida.

•Bestias fieras, perros y hasta ratas que los rolan.

•Despedazamiento, mutilación, apertura del vientre, donde ponían comida para los cerdos.

•Trabajos forzados en minas u obras públicas junto con mutilaciones y hambre.

•Violación de mujeres y doncellas, a quienes ponían *desnudas* en la picota, o llevaban así por las calles» (Intxaurraga).

Neskati oiek, bein baiño geiagotan, Jainkoak berak gorde zituala mirariz, indarpean lizunduak izatetik, dioskute martirien «acta» edo «agiri-askok eta askok. Ala, adibidez, Ines, Luzi, Theodore eta beste batzuk. Edestiaren aldetik ordea, «agiri» oietako batzuk beintzat ez dira bere osotasun guztian ziur egiztatu dezazkegun iturriak.

Badira orain edestilari batzuk, martiri kristauei merezimendua kentzearen erromatarrek martiriekin erabili zuten jardunkera gozatu nai dutenak. Gogorregiak iruditzen omen zaizkie Intxaurraga'k aipatu dizkigun zigorkera

anker oiek.

Ez dute arrazoirik. Benetan izan bait zan gogorra erromatekoan Elizaren aurkako zigorketa.

Oroi gure aro ontan bertan Errusi'n, Txina'n, Espāni'n, Alemani'n, Kanboia'n, Ego-Ameriketan, diktatore gorri edo zurien ertzaindiek etsaien gorgputz doakabeetan egindako ikaragarrikeriak.

Gaur-egun, ertzainek, eta militarrek, Laterri txukun gizadizale «zibilizatu» auetan, agintari dotoreen aginduz, edo aginduz ez danean, bai beintzat maizenik beraien onespenez, egin dituzten ikaragarrikeriak egiteko gauza izan ba'dira, pentsa zer ez ziran egiteko gauza izango orain bi milla urte gizarte erio-zale artan, gizakumeaganako begirunerik izan zitekeanik entzun ere sekulan entzun ez zuten ertzain anker aiek.

Oroi baitare, gaur bertan, ain txukuntzak artuak ez diran errialdeetan egindako izugarrikeriak. Kanboya'koak adibidez. An, zazpi milloi biztanle besterik ez dituan Laterri txiki artan, urtetxo batzuen epe laburrean bi milloitik gora il bait dituzte «Kemer Gorri» komunistek era anker zakarrean.

Erroma zar artako ertzain eta lejiotar basati aiek kristau-martiriek in Erroma odol-zale artan askoz goxoagoak izan zirala uste al duzu?

Neron'ek asi zuan Elizaren aurka'ko zigorketa, 64'garren urtean. Ordurarte ez zuan inor erlijioagaitik Erroma'k zigortu. Alderantziz, menperatu zituan errialde guztietako jainkoak gurtzen zituan berak. Bazuan ortarako «Panteon» edo «Jainkoortegi» esaten zitzaion jauretze bat uriaren barruan. Jauretze artan ipintzen zituan jainko guzti aien irudiak.

Ez zan ain erreza judutarrekin erlijiozko konponketa. Yab, judutarren Jainkoa, irudi-gabeko Jainkoa zan. **bera bakarrik zala egiazko** Jainko bakarra, esaten zuten juduek, eta beste jainkoak ez zirala jainko.

Alare esku zabalez erabili zituan Erroma'k judutarrak, auek 66'en Erroma'ren aurka gudan jeiki ziran arte. Eta orduan bertan, ez zituan erlijiozko arrazoiengaitik zigortu. Ezta geroago ere, sekulan.

- Zesaraugusto'ren agintaritzapean, izan zituzten eskubide bereziak ere. Egia da Kaligula'k bere irudia, jainko lez gurtua izateko, Jerusalem'go Jauretzean jarri nai izan zuanean, une larria izan zala une ura juduerri osoarentzako.

Zorionez, Erodes Apripa I'ak konpondu zuan arazoa, txit adiskide zuan Kaligula'ri, une artan Palestina'n guda bat piztuerazteak ekarri zezazkean arriskuak azalduz. Markos'en ebangelioan (13, 14) eta Paul'ek tesalonitarrei egindako bigarren Epistolari (2, 3-4) aurki daiteke orduango larritasun aren oiartzuna.

- Egia da Klaudio'k Erroma'ko uritik kanpora bidali zituala judutarrak. Baiñan zigor ura, urian bizi ziran juduentzat bakarrik izan zan; juduek beraiek sortutako zalaparten ondorio; eta ez zuan erromatarren eta judutarren

arteko bergirunerik urratu. Esan dugu, zalaparta aiek, dirudianez, judukristauen ekintza izan zirala.

Pentsatzekoa zan beraz, judutarrek naiz Jainko bat bakarraren gurtzaille izan, Errorna'ren inperiolurretan eta Erroma'nbertan, erlijioari dagokionagaitik pakean bizitu ba'ziran, Jainko beraren gurtzaille ziran kristauak ere izanen zutela pakean bizi aal izateko adiontasuna.

Egia da juduen eta kristauen artean bazala erlijioa ulertzeko erari zegokionez ezberdintasun nabarmen aundi bat, baiñan alatagutziz, kristauen zigorketa ez zan erlijioari-buruzko arazoengaitik asi. Erlijioarekin zer ikusirik ez zuan gertakizun batengaitik baizik: 64'garren urtean Erroma'ko uriaren irurden bat kiskali zuan sute ikaragarri arengaitik ainzuzen.

Berez sortu zan sua. Erroma'ko erriak ordea, begi gaiztoz jota zeukan Neroni bota zion errua. Ikaratu zan Neron. Eta kristauengana jaurti zuan, erriak berari erantsi nai zion errua.

•Neron, posiblemente por indicación de sus amigos judíos, echó la culpa a los cristianos pertenecientes en su mayor parte al subproletariado romano. Estos fueron crucificados, vestidos de pieles arrojados a los perros, y untados con materias inflamables sirvieron también de antorchas en el jardín de Neron. (GER).

•Nero, que era suficientemente impopular, para se tomar sospeito de incendithio, serviu-se dos crisUos como bodes (akerrak) expiatorios» (Chadwick).

• perseguição ri".4o foi causada por qualquer motivo baseado em profundo conflito ideológico entre a Igreja e o Estado; aconteceu simplesmente porque o imperador teria de culpar algu&n pelo incendio». •Os cristãos entram assim em conflito com o Estado, inicialmente por acidente, não por qualquer questão de principio fundamental» (Id).

Sinistu ote zuan Erroma'ko erriak beren uriari su eman ziotenak kristauak izan zirala? Badirudi beintzat, naiz Neroni gorrotoa izan, pozik artu zuala Neronek agindutako kristau-zigorketa. Zergaitik?

•Erroma odolkerizale porrokatua zalako-, erantzungo dit agian norbaitek. Ez da naiko arrazoia. Errudun ez zanik zigortzearen etsai ere izan bait zan beti Erroma!

Zerbaitegaitik, — zergaitik ote? kristauak gizakume okerrak zirala pentsatzen zuan ordurako Erroma'ko erriak.

Erromatarrek kristauak juduengandik bereizten asiak zirala dirudi, oraingoan gorrotoa eta zigorketa judutar guztientzat ez baiña kristautentzat bakarrik izan bait zan. Seguruaski, ordurako Erroman sorturik zeuden, gero inperiolur guzira zabalduko ziran kristauen aurkako salaketa izugarriak. Bi ziran salaketa oietan gogorrenak:

- Kristauak beren batzarretan giza-aragia jaten zutela.

- Batzar oietan senide-arteko eta aide-arteko izorkerian ibiltzen zirala.

Aurreneko salaketa, eukaristiko misterioa gaizki ulertu izatetik sortua zan. Ona Erroma'ko jende aien oldozbidea: Josu'ren gorputza, eta odola,

dagoz Eukaristian. Kristauek ordea Eukaristia jaten dute, beren batzarretan. Beraz, giza-aragi jale dira kristauak.

Bigarrena, gaur-egungo sasiprogresistek bezala, lizunkeriari maitasuna., eta izorrocketari maitasungintza• izen-ematetik atera zan. Oroi, kristauek beren artean alkarri .senide. esaten ziotela. Ori entzunik egon-da, au zan erromatar jentillen pentsabidea: Kristauek, beraiek diotenez, gizakume eta gizalaba oro maitatzen omen dute. Eta bereiziki senide-arteko maitasuna gorai patzen dute. Beraz, aide ta senide-arteko maitasungintzaren», ots aide ta senide-arteko izorketaren errudun dira kristauak.

•**

Kristauak su-emaille izan zirarik ez dirudi jende jakintsuen artean iñork sinistu zuanik. Ez beintzat, gertakizun artaz idatzi zuten garai artako bi edestilaririk ospetsuenek: Suetonio'k eta Tazito'k. Bai ordea, sinistu zuten biek, ezpairik gabe gaiñera, kristauak jende gaiztoak zirala.

Entzun Suetonio'ri: .Neron'en aginduz, gogor izan ziran zigortuak siniskeri berri kaltegarri bati loturik dabiltzan kristau izeneko jendeak..

Luzeagoa eta garrantzi audiagokoa da Tazito'k damaigun aipua. Tazito gaiñera, Erroma'koa bakarrik ez aro guztietako edestilaririk onenetakoa bait da.

Gaiñera, onek ere, «Annales• izeneko bere liburua Neron il da ogeiren bat urte geroago argira eman zualarik, bai bait zuan kontatzen zituan gertakizunak ongi ezagutzeko ziorik aski. Ona, berak idatzi zizkigun itzak berak:

•Ergo abolendo rumori Nero subdidit reos et quaestissimis poenis affecit quos per flagitia invisos vulgus christianus appellabat..

Euskeraz: .Orrela ba, esamesak isilerazi nairik, errudin epaituta izugarritzko oiñazeketen bidez zigortu zituan Neron'ek, erriak beren gaiztakeriagaitik arbuiatuz kristau izendatzen zituan aiek.

.Auctor nominis eius Chrestos Tiberio imperitante per procuratorem Pontium Pilatum supplicio affectus eraz; repressaque, in praesens exitiabilis superstitio rursus erumpebat, non modo per judeam, originem eius mali, sed per Urbem etiam, quo cuncta undique atrocitas aut pudenda confluunt celebranturque..

Euskeraz: •Izen onen iturburua, Kresto, Tiberio inperatore zala, Pontzio Pilato jaurleak, eriotzara galdu zuan. Eta, naiz orduan aski zapaldurik geratu, berbiztu da berriro siniskeri gaitz-ekarle au; eta ez bere sorterra izan zuan Judea'n bakarrik, baizik eta, baita Erroman bertan ere, onera biltzen bait da, emen gorai patua izateko, nonnaitiko ankerkeri eta lizunkeri oro».

•igitur primum correpti qui fatebantur, deinde indicio eorum, multitudo ingens haud proinde in crimine incendii quam odio humanae generis convicti sunt. Et pereuntibus addicta ludibria, ut ferarum tergis contacti laniatu canum interirent, multi crucibus affixi aut flamma usti, alii que ubi

defecisset dies in usum noctumi luminis urerentur».

Euskeraz: .Orrela ba, aurrena, bere burua kristau aitortzen zutenak izan ziran zigortuak; eta gero, aien salaketen araura, jendetza aundi-aundi bat. Eta ez, batez ere, uriari su eman izatearen erruagaitik, gizadi osoaren gorrotatzaille agertu diralako baizik. Era isekagarrian izan ziran eraillak: adibidez, batzuk, pizti-larruz jantzita, zakur basatien ortzetan apurturik il ziran; asko, berriz gurutzaturik, edo sugaldetan kixkaldurik; beste batzuei, gaua argitu zezaten, su eman zitzaien illunabarretan».

..Hortos suos ei spectaculo Nero obtulerat, et circense ludicrum edebat, habitu aurigae permixtus plebi per curriculo insistens. Unde, quanquam adversus sontes et novissima exempla meritos, miseratio oriebatur, tanquam non utilitate publica, sed in saevitiam unius absumerentur».

Euskeraz: •Bere lorategiak eskeiñi zituan ikuskizun oietarako Neronek, eta an, zirko-jolasketa ura berak zuzentzen zuan, eta, gurtzai-jantziz batzuetan, eta bere gurdia gidari beste batzuetan, jende arruntarekin nasi oi zan (ikuskitun artaz gozatzeko). Guzti orren ondorioz, naiz (kristauak) errudunak izan eta eriotzeko zigorra merezi, aienganako errukia sortu zan (erromatarren artean); (kristauak) eriotzara, eriotzara erriaren onerako ez baiña baten odol-gosea asetzeko eramanak zirala uste izan bait zan». (Annales, XV, 44).

«Neron'en lorategiak, eta lorategi aien ondoko •zirko» edo ..zalpurdi-laisterketarako zelai» bat aipatu dizkigu Tazito'k. Badakigu lorategi aiek eta aien ondoko zirko ura Batikan izeneko auzoan zeudela, gaur Donekepa'ren Jauretxe ederra dagoan tokiaren albo-alboan.

- Tazito, 55'garren urtean jaio zan. Bazekian beraz, itz oiek idatzi zituanean, zertaz ari zan mintzatzen.

Garrantzi aundiko gauzak damaizkigu Tazito'k bere lerro oietan:

- Kristautasuna, Kristo'k berak sortua dala.

- Kristo, Tiberio'ren denboran, Pontzio Pilato'k eriotzara galdua izan zala.

- Erriak, gorroto zitala kristauak, auek egiten zituztengaiztakeriengaitik: •per flagitia».

Tazito'k berak ere ziur uste du kristauak gaizkilleak, «sontes», zirala, eta orregaitik •novissima exempla», •azken-azkeneko zigorra», ots eriotzazko zigorra merezi zutela.

- Beste zerbait ere esaten digu Tazito'k: Kristauak gizadi osoari gorroto ziotela, eta orregaitik ainzuzen izan zirala zigortuak: •odio humani genens».

Orixe bera esaten zuten leenago juduen aurka ere. Eta salaketa orrek badu bere arrazoia: juduen mesiakeria:

- Juduek, Mesia Erregea bereala etortzekoa zala esaten bait zuten, bere Erreiñua mundu osoan ezartzera. Eta erreñu ori juduentzat bakarrik izango zala, eta jentillak, ots, judutar ez ziran gizakume guztiak, erreñu ortatik at galdituko zirala juduen serbitzurako.

Ori entzutean, «judutar auek danak gizadiaren etsaiak ditut», pentsatzen

zuten erromatarrek.

Eta kristauak ere mundu guziko Errege bezala laister garaille etorri bearra zan Kristo'z mintzatzen bait ziran, len juduen aurka esan oi zutena berbera, bir-esaten zuten orain kristauen aurka: gizadiaren etsaiak zirala.

Neronen zigorketa urian bertan eta uriaren inguruan bakarrik izan zan.

Inperiolur osora zabaldu zala diosku Laktantzio edestilariak III mendearen azken aldean edo IV'aren lenen-urteetan.

Ori ordea ez daiteke egia izan. Erroma'koetaz landa, martirien ezagupenik ez bait dugu.

Laktantzio'k esan nai zuana, auxe da seguruaski: Erroma'ren inguruko urietan eta, bearbada, inperiolurraren zabaleran, an-emen, martiriren bat izan zala.

Erroma'ko urian ere martiriak zenbat izan ziran ez dakigu. Asko izan zirala bai. -Ingens multitudo», -Jendetza txit aundia- izan zala, diosku Tazito'k, eraso artan bizia galdu zuten gizon-emakume kristauen kopurua.

Tazito'k erabillitako itz ber-berak darabilzki, Neron il da 20 urte geroago Aitasantu egiña izan zan Klemente Doneak korintotarrei idatzitako eskutitz batean: -Oso jendetza aundia» izan zala martiri aien kopurua.

-Oso jendetza aundia». Zenbaketara biurturik, zenbatek osotu ote zuten -jendetza oso aundi- ura? Ziurki jakiterik ez dugun gauza.

I Klemente Aitasantuak beste zerbait ere esaten digu: Martiri aien artean, emakumezkoak, ill-aurretik, bereiziki oiñazetuak izan zirala. Oiñazeketa izugarritzko aiek, federik ukatzeke tinko jasan zituztelako, bedi andre eta andererio kristau aientzat gure eraspenik maitetsuena.

Agoz-agoz gorde ziran mezuek adierazi nai digutenez, lenen Aitasantuak, Kepa Doneak, sagaratu omen zuan gotzai, bere ondorean irugarren Aitasantu izango zan gure Klemente ori. Bazuan beraz onek ere, orduan gertatu zana ongi ezagutzeko arrazoirik aski.

Neronek ez zuan Kristauen aurka legerik eman. Alare, irmo gelditu zan Erroma'ko jendearentzat, baita agintari eta epailleentzat ere, -kristauak oro gaizkilleak zirala»; kristau izate utsagaitik, -merezia zutela azkeneko zigorra», ots, eriotza: -novissima exempla meritos- zirala, Tazito'ren izkeran.

Orrela, Neron'ez gero, agintari eta epailleen iritiz, ziurki naikoa izango da norbait kristau izatea, besterik gabe norbait ori eriotzara galdua izateko.

Ziurtasun orri deitu zion eun urte geroago Tertuliano'k .institutum neronlanum», -nerondar-ezarpena-. Eun urte aietan inperiolur osora zabaldua bait zan, kristauak gaizkille makurrak ziralako uste oker ori; eta, ordurako, epailleentzat ere, kristau izate utsa, besterik gabe, edozein gizakume eriotzara galtzeko naikoa zala, gauza jakiña — -res manifesta- — bait zan, II mendearen asieran Trajano'k emandako erabakiaren araura.

Beste zerbait ere esan digu Tazito'k: Neron'en ankerkeriak jendeen biotzetan martirienganako kupida sortu zuala, alegia.

Kontuz ordea! Kupida, bai, baiña, soilki, jende aiek danak Neronen apeta asetzearren iltzen ziralako, ez, ainzuzen, zigortutako aiek eriotzara galduak izan ziralako, edo ematen zitzaien eriokera ankerregia zalako. Suetonio'k edo Tazito'k beraiek bezala, erriko jende xeak ere kristauek eriotza ondo merezia zutela, zalantzarik gabe sinisten bait zuan Erroman.

Danadala, •res manifesta• gelditu zan epe luzerako kristauak gaizkille arriskutsuak zirala; eta, arrezkero, naikoa izango da Erroma'ren inperiolurretan norbait kristau izatea, eriotzez zigortua izateko.

Giro ortan bizi bearko du Elizak I mende ontatik IV mendea-barrura ongi sartu arte.

Neron'en atzetik iru inperatore etorri ziran, gudalburuak irurak, urte bateko asti laburrean, 68'tilc 89'ra: Galba, Oton, eta Bitelio, eta iruek galdu zuten aitzoz bizia:

Galba, otondarrek il zuten; Oton'ek, bere eskuz il zuan bere burua, biteliotarren eskuetara ez erortzeko; Bitelio'k, iraultzan jeikitako erriaren eskuetan galdu zuan bizia. Erarik ankerreanean. Gizagaixoa, aurretik ondo oiñazetua izan ondorean.

Erroma'ko gudaroztearen lejjorilc bilcairienak Palestina'n zeuden orduan juduen aurkako gudu. Gudari aiek, Erromalik iristen zitzaizkien albisteetaz nazkaturik, beren buruzagi nagusia, Bepasiano, altza zuten inperatore.

Errez iritxi zan Erroma'ra, bidean aurkitutako biteliotarrak garaituz. Eta, Erroma'ko erriak sarrera erreztu bait zion, aixa sartu zan urira, an Senatuak inperatore izendatua izateko.

I Klemente zan Orduan Aitasantu.

Bi aitasantu izan zituan ordurarte Elizak Kepa Donearen atzetik: Lino Donea, aurrena, eta Kleto edo Anakleto Donea, gero. Ezer gutxi dakigu bi Aitasantu auei-buruz. Bi edo iru izan ziranik ere ziur-ziur ez bait dakigu. Bada ba Anakleto eta Kleto bi Aitasantu izan zirala dionik. Alare, ez dirudi egia danik ori. II mendearen erdikoa dan Lenen Aitasantuen zerrendan, lau izen auek bakarrik aurkitzen bait dira: Kepa, Lino, Kleto eta Klemente.

- Izen oiek bakarrik eta era ortan bertan, Lino, Anakleto, Klemente, damaizkigu, IV mendean Zesarea'ko Eusebio'k, baiñan, berak dion bezala, III mendean Elizaren lenen edestilari izandako Egesipo'ren idaztitik jasoak.

III mende artan, Erroma'n izan zan, Sortaldetik Lyon'erako bidean, Ireneo Donea, eta Erroma'ko Elizaren liburu ofizialean au aurkitu zuala diosku:

Apostoluek eman ziotela Lino'ri sagaraketa eta -onen atzetik Anakleto etorri zala-, -succedit autem ei Anacletus; post eum tertio loco ab apostolis

episcopatum sortitur Clemens»: •Onen atzetik, Bidalietaz gero irugarrena, Klemente'k jaso zuan gotzaigoa», (Erroma'ko gotzaigoa alegia).

III mendean bat dator Ireneorekin Ipolito ere: •Lino, Anakleto, Klemente.

Tertuliano'k, Klemente Kepa Doneak berak gotzai sagaratu zuala dio, eta bera, — Klemente izan zala Kepa'ren ondorean Aitasantu aukeratua. Baleike Tertuliano'k arrazoi pixka bat izatea, Salamina'ko Epifanio Doneak ere, Kepa Klemente izan zala urrengo Aitasantua esaten bait digu, naiz Klemente'k aitasantutza utzita Lino aukeratuerazi; gero ordea, Lino eta Analcleto il ziranean, Klemente izan zala berriro aitasantutzara igoa.

Orregaitik, ziurtzat artzen da gaur iru oiek izan zirala Elizaren Buruzagitzan Kepa'ren jarraileak: Lino, Analdeto, I Klemente.

Erroma'ko •Liber Pontificalis» edo •Aitasantuei-buruzko Liburuak», Lino, italiarra zala dio, eta Kepa Deunaren agindu bat bir-eman zuala, •emakumezkoei burua estali gabe elizara sartzea debekatuz.. Garai aietako oiturak!

Analdeto berriz, jatorriz greziarra izan zala diosku liburu orrek,

Origenes'ek ere zerbait esaten digu gure Klemente'z: Bidalien ikasle izan zala; eta Paul Doneak filipostarreei idatzitako Epistolari aipatzen duan Klemente ura bera dala. Bai ote?

Oraingo edestilarien ustez, ez zuan Klemente'k, «Flabia» izeneko sendiarekin, eta, ondorioz, erbesteraketaz zigortutako Flabia Domitila'rekin eta konsul izandako Tito Flabio Klemente martiriarekin aidetasunik. Alderantziz, bere idazkerak adierazi dezakeanez, agian judukristaua izan zala ere sinistu omen daiteke. Eta bai omen daiteke, baitare, Paul Doneak idatzia dala uste izan dan Ebertarrentzako Epistolaren egiazko egillea Klementeau izatea. Dirudianez, ori aditzera ematen omen du ba Origenes'en esaldi batek.

Danadala, ondo ezaguna da beintzat I Klemente onen beste Epistola bat: Korintotarrei idatzi ziena. Epistola ori, 96'garren urtearen ingurukoa dala, esaten digu Egesipo edestilari zaarrak; eta oraingo Batiffol'ek, Klemente, Aitasantu bezala, Epistola ortan nabari danez, •un hombre consciente de su autoridad y deseoso de ser obedecido» izan zitzaigula diosku. (J. Ibañez'ek gatzeleratua).

Dakusazunez, ezer gutxi dakigu Lino'z, eta Anakleto'z. Aski ordea, alderantziz, Kepa'z gerozko irugarren Aitasantu izandako Klemente rgoaz.

JERUSALEN'EN JAUSKETA.- Bepasiano'k, Palewstinabk Erroma'ra abiatu zanean, Tito bere semea utzi zuan, oraindik gudapean aurkitzen zan Palestina artan, gudaroztearen buruzagi nagusi, eta onek artu zuan Jerusalem 70'garren urtean. Uria, eta Jauretzea, goitik bera irauliak izan ziran. Ebangelioak dion lez, •ez zan an, arriaren gaiñean arririk gelditu-.

Baiñan jausi aurretik, tinko iraun zuan denbora luzez uri doakabe arek

erromatarrez inguraturik. Ikaragarria da, Tito'ren aolkulari bezala borroka artan egon zan Flabio Josefo'k bere «De Bello Judaico» edo »Judu-Gudaz.-izeneko liburuan esaten duana.

Ondamen mota oro jausi omen zan uri gaixo aren gaiñera: Ama batek bere aurra il eta jatera iristeraiñoiko gosetea, izurria, sutarako egurnk ezin aurkitua, uraren falta, ildakoekin zer egin ez jakitea, urikideen arteko borroka gaitza...

Gaez, inpemu artatik ugari iges egiten omen zuan jendeak arresietatik beera jetxita. Arrapatuak izaten omen ziran ordea danak, eta danak, zar eta gazte, gizonetzko ta emakumezko, an bertan arresien inguruan gurutzatuak. Pilloka! Egun batzuetan ez omen zan danentzat bear aiña gurutze izaten.

Egunetan eta egunetan egoten omen ziran gaixo aiek beren gurutzeetatik zintzilik oiñazez karraixika.

Erroman, agintari ona izan zan Bepasiano. Pakean utzi zituan beintzat kristauak. Baita bere atzetik Inperatore izan zan Tito bere semeak ere. «L'attention du pouvoir romain est concentré sur la révolte juive et les chrétiens paraissent oubliés,»: Juduen iraultzak eraman zuan agintari erromatarren ardura guztia, eta kristauak azturik-edo gelditu zirala dirudi» (Daniélou).

Inperatore bezala ez zan Agintari makurra izan Tito. Bere denboran kiskali zituan Besubio'k Ponpeya eta uri onen inguruak.

Jakintsu lez gertakizun ura ikertu naiean il zan, galla ta lurrin kiskalgarriek arrapatuta Plinio Zaarra, juduerriari buruz albisterik asko eman zigun biziztilaria.

Tito'k ez zuan semerik izan. Alba bat jaio zitzaionean bertan bereizi zan emaztearengandik. Libia Julia izen eman zion alaba ari.

Urteak geroago, Domiziano, Tito'ren anaia, inperatoretzara igotzen danean, Flabia Julia au bera, osaba zuan Domiziano aren maitale lizuna izango da mundu guztiaren aurrean.

Tito'k ere izan zuan maitale bat: guk ezaguna dugun Berenize — II Erodes Agripa aren arreba uraxe bera — ainzuzen. Egon zan Tito emakume arekin ezkontzekotan, eta gogoz ezkondu ere ezkonduko zan, Erroma'ko erriak, Kleopatra'z gogaitu zan ezkerero, Sortaldeko printzesei gorroto ziela kontuan artu ez ba'lu.

Tito, erailla izan zan azkenean. Eta jendearen ustez, Domiziano bere anaia dugu eriotz ura egiñarazi zuana.

BIGARREN ZIGORRALDIA

Tito bere anaia, Domiziano, igo zan inperatoretzara. Eta berekin etorri zitzaion Elizari bigarren zigorraldia.

Tito bezala Bepasiano'ren semea, eta Tito baiño askoz gazteagoa, ez zan bere anai zarrago arekin oso ongi konpondu: •Was evidently antagonistic to his brother Tito; he is alleged to have hastened his death»:» •Gauza jakiria da bere anaiaren etsai izan zala; eta aren eriotza azkarragotu zuala, erantsi oi zaio» (Enc. Brit.).

Ez zuan jendearen maitasunik jaso. Alderantziz, •he is chiefly remembered for the reign of terror under which prominent members of the senate lived during his last years: •Bere azkeneko urtean senatuko jaun agurgarri batzuek jasan bear izan zuten ikara gorrizko erreñuak egin du Domiziano batez ere oroigarri» (Id.).

Ez dakigu zergaitik eraso zion Domiziano'k Elizari. Arrazoi asko eman dira. Adibidez:

- Juduek, •didrakma» bateko zerga ipintzen zuan legea ez betetzea erabaki-zutela, eta orregaitik, ia kristau guztiak oraindik juduak ziralako, auek ere aiekin batean izan zirala zigortuak. (Id.).

- Kristauak ez zutela inperatorea jainkotzat gurtu nai izan (Id.).

Ez dira arrazoi ziurrak. Inperio-lurreko juduek, ez zuten beññere zerga ura betetzerik ukatu, eta orain, Palestina'n ain gogorki garaituak izan ondorean ez zeuden, didrakma eman bai didrakma eman ez, Erroma'rekin txantxetan asteko unerik egokienean.

- Inperatorearen gurketari buruz berriz, egia da Domiziano'k •Master et Deus, Jabe eta Jainko deitua izatea eskatzen zuala; baiñan, kristauen aurkako legerik edo agindurik ez zuala eman badakigu. Altagutziz, azkeneko au izango zan seguruaski erasoketa aren zergaitia: Kristauak aren gurketara makurtu ez izatea, alegia.

- Badira dira estoikoei kristauei baiño askoz bildur geiago ziela esaten dutenak ere, eta ortik oiñarri arturik, Domiziano'ren eliz-zigorketa zalantzan ipintzen dutenak.

Ori, ez da osoro egia. Kristauak gogor zigortuak izan zirala zalantzan jartzerik ez dago. Ta, dioguna egiztatzeko, laister agertuko dugunez, arrazoiak ugari bait ditugu. Jende jakitsuak eta goi maillako urikideak bakarrik zigortu omen zituan Domiziano'k

- Goi-maillako jendeak ez omen zuan ba Domiziano begi onez artu. Erantzun lez Domiziano'k •frappe impitoyablement toute resistance dans l'aristocracie et parmi les intellectuels»: •Gogorki zanpatu zuan aristokraziaren eta jakintza-gizonen aldetiko eragozpen oro (j. Moreau).

- Jakintsu eta aristokrazikume aien artean bai omen ziran kristauak ere: 91'an kontsul izandako Manius Acilius Glabrio, bat. Eta Domiziano beraren lengusua zan Flabius Clernens, au ere 95'ean kontsul izana, bestea. Eta Flabia Domitila, Flabius Clemens onen emaztea, adibidez. Bikote oni

dagokionez, senarra, Flavius Clemens, eraila izan zan. Emaztea, Flavia Domitila, Erroma'tik kanpora erbesteratua.

Senar-emazte auetaz itzegitean, aiekin batean beste asko zigortu zituala Domiziano'k «juduen oituretara sartu izateagaitik», esaten digu 170'garren urtean jaio zan Dion Kasio edestilariak.

Baiñan, aipatutako jaun-andre oiek kristauak ez ba'ziran ere danak, bai bait da aien kristautasuna zalantzan ipintzen duanik egia da beintzat, — naiz orduan lthstaurik geienak oraindik judutarrak izan goi-maillako jende erromatar batzuk Elizara urbiltzen asiak zirala.

- Domiziano'ren zigorketa Erroman baiño askoz gogorragoa izan zan Asi-aldean.

- Bizirik zegoan oraindik juduen artean mesiakeria: Mesia laister etorriko zala eta Mesia orrek Jerusalem'dik mundu guzira zabalduko zuala bere erreñua.

Kezkatu-bide zituan uste orrek I mendearen azkeneko inperatoreak:

Bespasiano'k Dabid'en oiñordeko guztiak billatzea agindu zuala diosku Zesarea'ko Eusebio edestilariak; Egesipo'k berriz, Domiziano'k, Juda izeneko josu'ren lengusu baten oiñordekoak bere aurrera eramateko agindua eman zuala.

- Kristauak ere, beren «kerigma.n, Josu Dabid'en belaurordekoa zala, eta egiazko mesia bakarra bera zala esaten zuten. Gaiñera ziur uste zuten aldi artako kristauak, mundu guztiko errege lez Josu'ren bigarren etorrera berealaxe gertatuko zala.

Ori jakiteak izututa asi ote zan Domiziano kristauak zigortzen? Ez dezagun aztu erromatarrak «superstitio» edo «siniskeri» zale amorratuak zirala.

Baiñan ala izan ba'zan, ez da zentzuzkoa Dabid'en oiñordekoak ez ziranak ere zigortuak izateak.

- Zigorketaren zioa ezezaguna dugun bezala, era berean dugu ezezaguna zigorketa ark erail zituanen kopurua.

Zesarea'ko Eusebio'k, Brutius idazle jentillagandik albistea jasoz, «kristau asko il zala» idatzi zuan; eun urte leenago berriz Tertuliano'k, Domiziano «ankertasunean Neron'ek kide izan zala».

- Martirien zenbakirik eman gabe, aipatzen dute, edo beintzat adieraztera ematen dute, Domiziano'ren denborako zigorketa garai artako eta geroxeagoko idazleek.

Adibidez, kristauak eriotzara, eroak bezala, leiaz urbiltzen zirala esan zuan Epitecto'k. Eta Mark-Aurelio inperatoreari eskeiñitako «Apologia-r; «Neron eta Domiziano kristauen etsaiak izan zirala. idatzi zuan Sarde_rko Meliton'ek.

Eta zigorketa ura gogoratzen digu goraxeago aipatu dugun Dion Kasio edestilariak ere.

- Ez dakigu ordea zigorketa ontako martirien izenik, aipatu ditugun aienak izan ezik. Eta beren izenak emanez aipatu ditugun gizonezko eta

emakumezko aundiki aiek ere ez dezakegu kristauak izan ziranik esan, ziurtasun osoz. Baiñan, alderantziz, kristau izan ez ziranik ere ez dezake iñork egiztatu.

Baiezkoaren aldekoek, Priszila'ren katakunban aurkitzen dan azilatar-sendiaren illobia aipatzen dute, — esan dugunez Azilio izan bait zan ziñopa aietako bat—. Baiñan illobi ori II mendearen bigarren erdikoa da.

Era berean ez dakigu ziur Domitila'ren izena daramaten katakunbek, Domiziano'k zigortutako Domitila arekin zer ikusirik baduten.

Alatagutziz, ni, baiezkoaren alde okertuko nintzake erabaki bat ematekotan, eta aundiki aiek kristauak izan zirala esango nuke.

Lendabizi, oso antziñatik datorren Eliza-baitako agoz-agozko jakintzak orrela uste izan dualako, ta antziña artako idazleek uste orren testigutza ematen digutelako. Eta, bigarren, Domitila'ren katakunbetan, Domiziano'k zigortutako Domitila ura eta Domitila izeneko katakunba auek alkartzen dituz[en arri-idazkiak, garai artan egindako arri-idazkiak, badiralako.

Beste Domitila bat ere aipatzen da, lengo Domitila'ren illoba: baiñan ez dakigu ziur bi Domitila aiek Domitila bat bera ez ote diran.

Domiziano'k eraildako gure aundiki aiei danei leporatu zitzaien errua? «No^vatores», -berrikerizaleak» eta «athei», «jainkogabeak» izatea, ta, -judu-oituretara sarturik egotea-. Kristau izaterik ez zitzaien erantsi, egia, eta orregaitik zalantzan ipiña izan da kristau izategaitik izan ote ziran zigortuak.

Baiña ez dezagun aztu, orduan oraindik ia kristau danak juduak ziralako, judutasunaren -zerbait- besterik ez zala jentillentzat kristautasuna. Norbaitek bere burua kristau egitea, norbait ori -juduen oituretara» sartzea zala erromatar jentillentzat. Gaiñera, «berrikerizaleak», eta, Erroma'ko jainko-jainkemerik gurtzen ez zutelako, -athei» edo «jainkogabeak» izatea, ez al da ainzuzen bereiziki kristauei, kristau guztiei, leporatu oi zitzaien pekatua?

- 979 izan zirala zigorketa ontako martiriak, diosku -Martirologium Jeronimianum» edo »Jeronimo'ren Martiritegia» deritzan idaztiak, baiñan zenbaki oiek nola egiztaturik ez dugu.

- Jon Ebangelaria ere Patmos ugartera erbesteratua izan zan, eta an idatzi omen zuan «Apokalipsia», orain arte esan izan danez.

Zigorketa onen aipu ugari egiten da Liburu ortan; eta baita Neron'i-buruzko siniskeri bitxi batena!

Izan ere... Neron ez zala il; bizirik zegoala, eta laister itzuliko zala, zabaldu zan Erroma'ko jentillen artean, eta uste ori iritxi zan, dirudianeaz, Sortaldeko kristaudira ere. Siniskeri ortaz mintzatzen omen da Apokalipsia 13'garren eta 17'garren ataletan.

- Siniskeri orixe bera aipatzen omen dute garai bereko apokrifoek ere: -Isaia'ren Igokundeak», -Esdras'en IV»ak, eta -Oracula Sibyllina» edo «Sibila'ren Iragarketek».

Baiñan Dorniziano'ren zigorketari dagokionez Apokalipsian ikusi dezakegun gauzarik garrantzitsuena, onako auxe dugu : Errorna'ri buruz Eliza-baitan egin dan mentalitate-aldaketa:

Paul'en Epistoletan eta baita bere jardunkera guztian ere, Erroma uri eraspengarria da, — •civis romanus sum»! eta Erroma'ko agintariak Jainkoaren ordezkariak dira. Kristaua, aiei laguntzera eta aien esanak betetzera bearturik dago.

Apokalipsiarentzat ordea, Erroma,. «Babiloni» da, ots, katibutza-leku eta zigorketa-tokia. Era berean, Erroma, »itxasotik irtetzen dan pizti» izugarria ere bada. Erroma, Apokalipsian, Elizaren etsaia da: deabruaren kidea.

Aldakuntza orren arrazoia?

Pour Paul le danger etait que l'Eglise soit entrainee par Ies juifs s'opposer a Rome. Aussi multiplie-t-il Ies appels a la soumission au pouvoir imperial. Mais maintenant la situation est renversee. L'Empire depuis Neron est considere comme persecuteur des chretiens»: ...Juduek Eliza Errorna'ren aurka jartzera eramango ote zuten, izan zan Paul'en kezka. Orregaitik bein da berriro dagi, Inperioko agintaritzaren esanera egoteko eskaria. Orain ordea, (Jon'en denboran), ankaz gora irauia dugu giroa: Neron'ez geroko Inperioa, kristauen zigortzaille lez bakarrik da gogoratua».

Badu Jon'en «Apokal ipsiak» baliozko beste gauza bat ere. Kristautasunari zetorkion gurutz-bidea aurre-iragartzen bait du:

.Au moment ou le premier siecle s'achê.ve, ce que la lecture de l'Apocalypse revele, a travers l'orchestration grandiose de ses symboles, c'est l'atmosphere tragique dans la quelle va desormais grandir le Christianisme, sans cesse sous la menace et marchant dans sa propre sang» (Daniel-Rops):

•Lenen mendea amaitzer dagoanean, Apokalipsiak bere irudien doiñu-ots eder aundian bildurik, Elizak azitzeko aurkituko duan giro erioagarria aurkezten digu; Elizak, alegia, aurrerantzean bere odolez gorritutako bideak-zear ibilli bearko duala».

Domiziano'k ere, besteen odolez gorritutako bidetik ibilli ondorean, bere odolez gorritutako elburuan amaitu zuan bizia, matxinada batean aitoz erailla izan bait zan.

Eta bere emaztea bera, Domizia Lonjiana, izan omen zan erailketa ura prestatu zutenetako bat!

NERBA izan zan urrengo inperatorea. Gizon on eta paketsua, urte bat eta lau illabete besterik ez zan agintaritzan egon. Juduen oituretara» sartutakoen aurkako zigorraldia gelditu zuala, erbesteratuak Erroma'ra deitu zituala, eta al izan zuan neurrian, erbesteratutako aiei kendu zitzaizkien

ondasunak itzuli zizkiela, diosku Dion Kasio'k. Eta itz oiek idazterakoan, ziurki. Domiziano'k kristauen aurka agindutako erasoak zeukan gogoan idazie orrek.

Sardes'ko Meliton'ek eta Mexandn'ko Klemente'k III mendean, eta Zesarea'ko Eusebio'k IV'ean idatzi zuten, badakigu Jon ebangelaria pake-aro ontan itzuli zala Efeso'ra.

Orduan idatzi zuan I Klemente Aitasantuak ere bere korintotarrentzako epistola, Grezi'ko uri artan Elizaren barruan sortutako istilluak konpontzeko. Lenago ez idatzi izatea, igarotako gaitzen errua izan zala dio: igaro berria zan zigorraldi domizianotarraren errua, alegia.

Erroma'ko Elizaren izenean idazten du. Eta idatzi ortan, Erroma'ko Eliza presbiteroen batzarrak jaurtua edo gobematua azaltzen zaigu. Klemente, presbitero edo bereter aien lendakaria da.

Beste batzuek epistola ori lentxeagokoa dala esan oi dute, Domiziano'ren azkeneko urteetako.

Danadala, garrantzi aundikoa bada beintzat. Gure teologiariek eta edestilariek eskutitz ori Aitasantuaren Buruzagitza nagusiaren adigarritzat artu bait dute beti.

Izan ere, Erroma'ko gotzaia zan Klemente; ez Korinto'koa. Altagutziz, Korinto'ko Eliza zuzentzera, ango gotzaia ere izan ba'litz bezala sartu zitzaigun.

Bizi zan oraindik Jon ebangelaria. Jon, Amabi Bidalietako bat zan. Izenik aundienekoa gaiñera Kepa'ren ondorean. Klemente ez zan Bidalietakoa. Altagutziz, korintotarrek ez zuten beren korapilloen askapen-billa Jon'engana jo. Klemente'rengana jo zuten. Eta Klemente sartu zan korapillo aiek askatzera; ez Jon.

Ta Klemente'k ez du ekintza artara sartu zalako iñori azalpenik eman bear dionik uste. Alderantziz, leenago sartu ezaren azalpenak, bai, eman bear dituala iduritzen zaio. Eta baita eman ere, ematen dizkie azalpen oiek korintotar aiei.

Erroma ez dago Korinto'tik Jon'en Efeso baiño bertago; urrutiago baizik. Urrutiago baitare Patmos ugarte baiño, Jon oraindik ugarte artan ba'zegoan.

Orrek zer esan nai duan? Korintotarrek bazekitela Klemente Eliz osoaren Arduradun Nagusia zala, eta Klemente ere ziurki ori bera jakiñik zegoala.

Esan dugun lez, oso laburra *izan* zan Nerba'ren agintaritzak. Ta, Erroma'ko inperatoreen artean ere norbaitek pakean il bear-eta, Nerba izan zan, 16 illabete agintaritzan egon ondorean, pakean il zan inperatore ori.

Nerba ordurako berak bere ondorengotzat aukeraturik zeukan Trajano'k artu zuan inperatoretzak.

Eta au ere paketsua izan bait zan bere aurreneko urteetan, pakean igaro zan Eliza lenen mendetik bigarrenera, Aitasantu I Klemente eta inperatore Trajano zituala.

LENEN MENDEKO ELIZARI AZKEN BEGIRAPEN LABURRA

- Lenen mendean Eliza, bai Palestina'n eta bai Palestina'tik-at, ia oso-osoan judutarra zan jendez. Jentilleditik etorritako kristauak, oso gutxi izan ziran.

- Lenen Eliz arek edertasun asko izan zituan: josu'ganako eta alkarrenganako maitasuna bereiziki.

- Josu'ganako maitasun ortan sortu ziran gure aurreneko iru ebangelioak. Kristauak Josu'ri-buruz beren eukaristi-billeretan kontaktzen zituzten Josu'ren esakizun eta ekintzarik garrantzitsuenen bilduma bait dira.

- Izan zituan pekatuak ere Lenengo Eliz arek; danak abertzalekerizko arrokeritik sortuak. Ala eraso zioten ain era ankerrean Paul Doneari, erdaintzaren arazoa zala-ta.

- Izena, kristau izena, Antioki'n emen zitzairen aurreneko aldiz, Josu'ren jarrailei. Ordurarte, kristauen artean, •anaiak eta •ikasleak. ziran, elizkideak izendatzeko erabiltzen ziran itzak. Palestina'ko judu ez-kristauak berriz ,nazaretarrak. eta •galiletarrak- esaten zieten.

Palestina'tik landa berriz, inperiolur osoan ez zituzten oraindik kristauak juduengandik bereizten. Askoz geroago ere, 140'ean il zan Epikteto filosofilari ezagunak, •galilei• esaten die kristauai.

Arazorik iarriena, Elizarentzat, bere nortasuna argi ta sendo ezagutzera iristea izan zan. Izan zuan Eliz ark zalantz-une labur bat. Baiñan berealaxe iritxi zan bi atal auek ziur jakitera:

Kristautasuna judutasunaren jarraipena zala.

Baiñan kristautasuna ez zala judutasuna. Kristautasuna sortzean judutasuna, ots, juduen erlijioa, baliorik gabe, eta gelditu zala.

Bidaliek Jerusalem'en bildutako •Kontzilioak• erabaki zuan ori.

- Judu kristau askok ez zuten ori, beñere, ontzat artu. Eta izugarrizko borroka egin zuten erabaki ura ontzat artu zutenen aurka. Batez ere erabaki aren egiazko •errudunak• ziran Paul'en eta Kepa'ren aurka. Paul'en aurka lendabizi, Eta Kepa beraren aurka ere bai, geroxeago.

- Oso laister eta aski ugari zabaldu zan kristautasuna Palestina'n. Baita Palestina'tik-at Erroma'ren imperiolurretara ere, diasporari eskerrak.

- Jerusalem, Antioki eta Erroma ditugu, zabalkunde orren urratsik garrantzitsuenak. Iruetan egon zan Kepa, Elizaren Buruzagi Nagusia.

- Kepa, Paul eta Jon Ebangelariak landa, beste Bidalietaz albiste ziurrik ez dugu.

- Laister izan zuan Elizak bere gaiñean zigorra. Palestina'n aurrena, eta Errorna'n eta Erroma'ko inperiolurretan gero.

- Zigortzailleak, Palestina'n, Sanedrifia eta I Eroses Agripa erregea.

Erroman, Neron; eta, geroxeago, Erroman bertan eta baita inperiolurretan ere, Domiziano.

- Doneztebe diakonoa izan zan lenen kristau-ziriopa edo martiria; Jerusalem'en izan zan erailla. Bidalien artean, jakoba Nagusia dugu lenengo

ziñopa. Jerusalem In iija au ere, I Erodos Agripa'ren aginduz.

Erroma'n Neronen zigorketan izan ziran Kepa eta Paul eraillak.

- Domiziano'ren eraso-aldian izan zan Jon Ebangelaria Patmos ugartera erbesteratua. 100'garren urtearen inguruan il zitzaigun. Efeso'n, aski ziurki dirudianez.

- Ebangelioetan agertzen zaigunaren lekuko dira I mendeko martiri kristau aiek. •La autenticidad de los hechos (que nos narran los Libros Sagrados) unicamente puede probarse con testigos, y es evidente que no hay testigo de mayor valor que aquel que confirma su testimonio con el sacrificio de su vida, según aquella celebre frase de Pascal: •Creo de buena gana en las historias cuyos testigos se dejan degollar». Pues bien; tales testigos abundan en el cristianismo. (Intxaurraga).

- •San Pablo ha predicado también la resurrección de Cristo como ltimo testigo de la misma, asi como su misión especial recibida de Cristo resucitado, y con su martirio confirma también la verdad de su predicación.

mismo podemos decir de los demás Apóstoles y de los primeros discipulos que fueron testigos oculares de los hechos, y dieron su vida por atestiguarlos.

•En cuanto a los otros mártires de la Iglesia Primitiva, aunque no fueron testigos de la vida de Cristo, lo fueron sin embargo de la predicación milagrosa de los Apóstoles. Tales son San Esteban obispo de Antioquia, San Policarpo... los cuales predicaron a su vez lo que habían visto y oído y rubricaron con su sangre toda su predicación.

•Los demás mártires estuvieron en relación mas o menos inmediata con los discipulos de los Apóstoles, y a buen seguro que estaban bien ciertos de la divinidad de su religión, pues nunca se dara el caso de que alguien se deje matar por atestiguar un hecho dudoso o manifiestamente (also).

•Luego los hechos sobrenaturales en que se apoya el cristianismo son rigurosamente históricos, porque estan atestiguados por muchísimos testigos que por atestiguarlos se han dejado matar» (Id.).

- Mende guziaren luzaroan, judutasunaren liturgia oiñarriztat artuz eratu zan Elizaren liturgia. Liturgi orren gunea, meza zan, eukaristia. Beste sakramentuak — pekatuen barkapena adibidez — erabiltzeko erari-buruz, ezer askorik ez dakigu. Bataioa, bataiatu-bearrak asko ziranean, aspersion edo iiztaketaz egin oi zan. Bestela, inmersio edo bataiatu-bearra urean osoro murgilduz. Sendotza, Bidaliek eskuak sendotu-bearraren buru-gaiñean ezarriz.

- Lenen kristauen adigarririk ezaugarriena, Josu'r: izan zioten maitasuna dugu. «Jauna» esaten zioten. Eta igander agertzen zioten beren maitasuna, Aren egintzak eta Aren erakusketak liturgi-billeretan kontatuz eta-bein-daberrero ber-kontatuz. Laister, erri-literaturaren ibilketan gerta oi dan lez, itxura bereizi bat artu zuten billera aietan kontatzen ziran Jaunaren esaldiek eta Jaunaren ekintzek.

Gero, ebangelariak, kristau-erriak orrela tajututako gai oiek jaso

zituzten ebangelioetan. Orregaitik ainzuzen nabari dute ebangelioek, iru aurrenekoek bereiziki, alako erri-literatur-itxura galanta.

- Eliz aren utsegiterik aundiena, Parusia eta Eskatologia, ots josu'ren bigarren etorrera eta munduaren azkena berealaxe gertatuko zirala uste izatea izan zan.

- Azkar sortu ziran erejiak ere, ots, sinispideari-buruzko uste okerrak: laister, ia danak, gnosikeria esan oi zaion erejian bildurik ikusiko ditugun uste okerrak.

- Baiñan, zigorketa guztien artetik, akats, ereji, eta pekatu guztien gairik, aurrera joan zan Eliza, eta bildurrik gabe egon zan beti, Josu'ganako uste sendoz bizkorturik. Eta alai ta bildurrik sumatzeke, inpemuko indarrek sekulan garaituko ez zutela ziur sinistuz, kezkaeren apurrik gabe sartu zitzaigun II mendera. Gizon santu bikain bat zuan orduan Aitasantu: I Klemente Donea.

- Pilato eta beste erromatarrek, Erodes, Anas, Kaifas, Sanedrin osoa eta aien inguruko jaupariak, farisai eta saduzaitarrak, danak izan ziran Josu'ren eriotzan partaide, e:a danak ziran, eguna joan eta eguna etorri, jendearen aurrean Josu'ren eriotzaren errudun gaizto lez Bidalien agoz gogorki salatuak.

Baiñan isilik gelditu ziran. Isilik baiña ez geldi. Ez ziran itzez erantzuteko gauza izan. Zigorra-bidez erantzun zuten amorraturik.

Amorru gorritzko zigorketa orrek auxe adierazten digu:

- Bai erromatarrek eta bai judutarrek, nai zutela, benetan nai zutela gaiñera, jaio berria zan Eliz ura ezereztea, eta ori lortzeko egiñalak egiteko gerturik egon zirala, baiñan Bidaliek aldarrikatzen zuten Josu Berb iztua, eta berbizkunde aren egiztagarritzat aipatzen zituzten Josu'ren mirariak gezurtatzeko ez zirala gauza izan.

Izan ere, Bidaliek esaten zuten bezala, eta Josu'k berak Sanedriñaren aurrean aipatu zuan lez, mirari aiek Palestina osoko erri guztietan jende guziaren aurrean egiñak izan bait ziran.



II MENDEKO ELIZA

ALDIEN URRATSAK

II mendea

- 100 Urte onen inguruan Jon ebangelariaren eriotza.
100-120 Kefa Donearen II Epistola.
105 Ebaristo Aitasantuaren eriotza. I Alexander Aitasantu.
111 Plinio Gaztea Bitini'n Jaurle.
111 Trajano'ren eriotza.
115 I Alexander Aitasantuaren eriotza. I Sisto Aitasantu.
117 Adrian inperatore.
117-138 Bernabe'ren «Epistola».
120 Tazito edestilariaren eriotza.
122 Urte ontaz gero, Suetonio edestilariaren eriotza.
125 I Sixto Aitasantuaren eriotza. Telesforo Aitasantu.
125 Efeso'n, Polikrates'en jaiotza.
125-126 Quadrato'ren «Apologia».
125-130 Florino'ren jaiotza.
130-145 Papias'en Jaunaren Esaldiak.
132-135 Juduak, Palestina'n, Erroma'ren aurka gudan.
133 Justin martiri donearen kristau biurtzea.
133-134 Basilides gnosizalearen ekiñaldia Alexandri'n.
135? Ireneo'ren jaiotza.
136 Telesforo Aitasantuaren eriotza. Ijinio Aitasantu.
136? Zerdon eta Balentino gnositarrak, Erroma'ra iritxi.
138 Adrian'en eriotza.
138-139 Marzion gnosiarra Erroma'ra iritxi.
138-147 Aristides'en «Apologia».
140 Ijinio Aitasantuaren eriotza.
140 I Pio Aitasantu.
140 Pella'ko Ariston'en «Alkarrizketa».
140-150 Ermas'en «Artzaia».
144 Marzion'ek bere Eliza sortu.
150-160 Ireneo'k «Presbyteros», idatzi.
152-153 Justino'ren «Apologia». Taziano'ren «Oratio» edo «Itzaldia».
155 I Pio Aitasantuaren eriotza.
155 Anizeto Aitasantu.
155-156 Esmirna'ko Polikarpo'ren eriotza.
155-156 Justino'ren «Alkarrizketa».
155-156 Ireneo'ren, (agian Justino'ren), «Nagusia».
157 Montano'k bere Eliza sortu, Priszila ta Maximila'rekin.
161 Mark-Aurelio inperatore.
161-169 Polikarpo Deunaren erailketa Esmirna'n.
163-167 Justin Deunaren erailketa Erroman.

- 166 Anizeto Aitasantuaren eriotza. Sotero Aitasantu.
 170 Montanikeriaren agerketa
 175 Urte ontaz gero izan zan idatzia Minuzio Felis'en «Octavius».
 175 Sotero Aitasantuaren eriotza. Eleuterio Aitasantu.
 175-177 Lyon'go ziñopak. Ireneo Deuna Lyon'go gotzai.
 177 Komodo inperatore laguntzaille izendatu Mark-Aurelio'k.
 179 IX Abgar Edesa'ko erregea lenen errege kristaua?
 180 Mark-Aurelio'ren eriotza. Komodo inperatore.
 185 Origenes'en jaiotza.
 188 Eleuterio Aitasantuaren eriotza.
 188 I Bitor Aitasantu.
 189 Biktore Aitasantua, pazkoazkoari-buruzko auzian sarturik.
 193 Komodo'ren erailketa.
 193 Klemente Donea Alexandri'n irakasle.
 194 Septimio-Sebero inperatore.
 197 Tertuliano'k «Apologeticurn.liburua argitaratu.
 199 Septimio-Sebero'k judutasunaren eta kristautasunaren
 zabalkundea debekatu.
 199 I Bitor Aitasantuaren eriotza.
 199 Zeferin Aitasantu.



Frnteras del Imperio Romano

BIGARREN MENDEKO ELIZA

NOLAKOA ZAN ELIZ GAZTE URA aurreneko mendearen azkenean? Sorkaldetarra oso-osoan. Sarkaldean soilki bi uritan bait zegoan errotua: Erroma'n, eta Erroma ta gaur-egungo Napoles'en artean aurkitzen zan Puzoles izeneko uriskan.

Sorkaldean ordea bazituan 44'renbat kristaudi: 15 Palestina-Siri'n (Jerusalen, Zesarea, Samari, Pella, Sidon, Damasko, Antioki, Edesa...), bat Ejito'n (Alexandri), 17 Anatoli'ren egoaldean (Tarso, Kolosa, Efeso...), eta bi Txipre'n. 8 Mazedoni-Grezi-Kreta'n (Filipos, Tesalonika, Atenas, Korinto. .).

«Eliz» edo gotzai-lurralde oietan, kristaurik geienak, ia danak, judutarrak ziran oraindik odolez.

Judu-kristau oien artean zenbat ziran judutasuneko oiturak lagata jerusalengo Kontzilioaren araura bizi ziranak, eta zenbat — Kontzilioari bizkar-emanetz — oitura aien beartasuna oiukatuz jarraitzen zutenak, ez dakigu.

Eliz oietan izugarritzko garrantzia du jerarkiak. Poliki-poliki, ari da gotzaia bereterren gaindik bere izaera sendotzen, Sortaldetik asita.

Antioki'ko Iñazio Doneak mistikazko goi-argiz inguraturik agertzen digu gotzaiaren •nos devemos olhar (ikus) o bespo (gotzaia) como o Senhor. (Chadwick), utzi zigun idatzirik. Zergaitik •gotzaia Josukristo bezala ikusi»? Zeruko Erregearen ordezkariak diralako: •ReproduÇõe.s carnaiss do Divino Monarca.: Zeruko Erregearen aragizko-ordezkariak. Indar geiagokoa da oraindik Iñazio'ren esaldia: gotzaia, •aragiz bir-egindako Zeruko Erregea bera dala• adierazi nai bait digu (Id.)

Elizak ez zituan oraindik eun urte, — ogeitamarren bat falta zitzaizkion eungarreneira iristeko ori idatzi zuanean.

Orrela, —Jainko Aitajosukristo-Apostoluak-Gotzaiak **kate done** etenkaitza ta sendoa osotzen zuan Elizako jerarkiak lenen mendeko kristau aientzat. Eliz Bat Bakarrarentzat kate bat bakarra, naiz kate orren giltzak munduan sakabanaturik egon. Ala bait zeuden Eliz Bat Bakarraren tokian-tokiko Elizak ere munduan zear sakabanaturik.

Era ortan, aurrera joango da gotzai zuzendaria bere batzarreko bereter gotzaien gaindik bere burua eta bere aalmena jasotzen; eta, azkenean, bere batzarreko bereter gotzai aiek, bereter edo apaiz uts bihurturik geldituko dira.

Ez ordea bat-batean. Ermas erromatarrarentzat, Erroman bereter guztiak gotzai ziran Erroma'ko Elizan, II mendearen erdian, 150'garren urtearen inguruan argitara eman zuan •Artzaia. izeneko liburuan idatzi zuanez.

Antioki'ko Iñazio Donearentzat ordea, 107'an, gotzai bakoitza bere Eliz osoaren gaindik dago, eta bereterrak aren serbitzura batzar bat osotzen duten aoikulariak besterik ez dira: apaiz utsak, dirudianez. Gotzaia da 107'garren urtean erailla izan zan Antioki'ko Iñazio Donearentzat, Eliz bakoitzako bizitza guztiaren ardatza. Gauza bitxi ederrak esaten dizkigu bere epistoletan:

- Gotzaiak bakarrik ematen du meza, bere bereterren taldez inguratirik. Gotzaiak aginduta izan ezik, ez dezake beste inork mezarik eman.

- Beste sakramentuetarako ere, bataiorako, penitentzirako, sakramentu egillea gotzai bera ez ba'da, bearrezkoa du beste orok aren baimena.

Ezkontza zuzentzea ta sagaratzea ere gotzaiari dagokio.

- Kristau billera guztiak, gotzai jakitun dala egin bear dira. Are geiago, — idatzi zion Inazio Donea'k Polikarpo Esmima'ko gotzai Doneari •Zu zerori zera gotzai lez zure elizkideak, maiz egin bear diran billera oietara bakoitza bere izenez deitu bear dituana. Eta deiketa ortan ez itzezu alargunemeak aztu, zu bait zera, Jainkoaz gero, beren zaindari berezia; jopuei berriz, jopu auek naiz gizon naiz emakume izan, ez eiezu begi okerreaz begiratu».

- •Duintasan aundiko gauza da gotzai izatea, baiña duintasan orren araura, zure elizkideentzat izan beardu, gorputz eta anima, zure izate guzia. Bedi zure ardura, bereiziki, zure Elizaren batasunarentzat, ezer ez bait da batasun ori baiña ohea daitekeanik. Ezazu guztientzat eroanpena Kristo'k zuretzat duan bezala; maite itzezu guztiak, zure elizkide onak bakarrik maitatuko ba'zenitu, ez bait zenuke merezimendurik izango. Okerrenak bait dira gaiñera ainzuzen, arreta goxoz bide onera ekarri bear dituzunak. Zaitex otoiz-zale, egunetik-egunera Jainkoari Jakintza Done geiago eskatuz» (id.).

Sendo eraikirik aurkitzen diran elizbarrutietako gotzai, apaiz eta diakonoetaz gaiñera, baditu II mendeko urte auetan Elizak uriz-u ri ebangelioa aldarrikatzen dabiltzan mixiolariak ere. •Doktore», ots, •irakasle», •apostolu», esaten zaie orduango idaztietan mixiolari oiei.

Sarritan aipatzen dira alargunemeak ere. Baiñan alargun oiek ez dira senarrik gabe gelditutako emazte kristau guztiak, Elizak eraturik zeukan •ordena» edo talde bereizi batekoak baizik. Talde ortara sartu nai zuten alargunemeen izenak, zerrenda batean idatziak egon oi ziran aurretik; taldera onartuak izan zitezkean ala ez erabakitzeke, seguruaski.

Paul Doneak eman zigun zerrenda ortara sartu aal izateko alarguneme batek bete bear zituan baldintzak (I Tim.5,9-10).

Otoitza zala dirudi, alargunemeen 'ordena» edo talde bereizi orren eginkizuna; eta baita, bearbada, emakumeen, batez ere, neskatoen, irakaketa eta kristau-Elizabetha.

Bizirik jarraitzen zuten Paul Doneak korintotarrei idaztean aipatu zizkigun karisma aiek ere; profezigintzako bereiziki, bai gizonezkoen bai emakumezkoen artean Itun Berriko Felipe diakono aren alahen antzera.

II mendearen erdian bizirik ziraun profezigintzak Erroma'ko Elizan bertan, Ermas'ek dioskunez. Esaten digu, baitare, profeta zintzoak eta sasiprofetak nola bereizi: Sasiprofetak, •bere goratarrea bakarrik billatzen omen du»; •Ienen tokiak nai omen ditu beretzat batzar orotan». «Diru-truke ematen omen ditu bere profeziak, eta diru-truke izan ezik ez omen du deus esaten». •Kristau zintzoen billeretatik iges egiten omen du..

BIRJINTASUNA beti izan da Eliza-baitan eder ikusia. Eta, ori, elizaren sorkuntza beretik. Edestilari eta biblilari katolikoek pozik aipatu izan dute •Bidalien Egifien• ataltxo bat: Felipe diakonoaren lau alabak neskutsak eta profetemeak zirala esaten duan ataltxo: (21,9).

Poliki dio gure Zaitegi'k, naita idatzi zuala Luka'k neskatil aiek neskutsak zirala, profetak ere bazirala idatzi aurretik; beste orenen gaindik, neskutsak; gero, profetak. Eta, orrek, Nazaret'eko Neskatsak emakumezko kristau gazteen artean jarrailleak asko eta laister izan zituala esan nai omen du.

Gero, II eta III mendeetan, eta zer esanik ez ortik aurrera, ugari izango dira neskutsak gure Elizaren altzoan; beren biotz osoa Jainkoari bakarrik eskeintzearren eta beren bizitza Elizaren serbitzura eralgi naiez neskuts geldituko diran neskatilek.

Errez ulertuko dute Kristauek neskatil oien ekintzaren bikaintasuna; eta, orregaitik ainzuzen, eraspen aundiz begiratuko diete beren Elizako neskats oiei, eta benetan maitatuko dituzte. Kristaumentzat, birjintasuna, Jainkoagandiko doai berezia zan, eta da. Eta orrela izango da beti.

Birjintasuna Elizaren lorategiko lili berezia da. judutar ortodoxoek, ots, legezko eta egiazko judutasunaren jarra illeek ezin izan zuten neskustasunaren baliorik ulertu.

Aientzat, emakumezko baten duintasunik garaiena amatasuna zan. Izan ere juduerriaren ugaritasuna izan bait zan jaungoikoak Abraan'i agindu zion lenengo doia: Ortziko izarrak eta ondartzako pikorrak bezin ugariak izango omen ziran Abraan'en oiñordekoak.

Jainkoaren agindu ori erditze ugarien bidez egi biurtzea, Jainkoari laguntzea zan, emakume judutarrentzat. Eta jainkoari ekintza ortan lagunduz, beren erriaren ugaritasuna ume berriak erakarriz aundiagotzea izan zan aien pozik guragarriena; eta, mundu ontatik bestera emen umerik uzteke joan bearra, aien samintasunik mingarriena. Lotsa zan aientzat ezkongegelditza.

Eta lotsa aundiagoa berriz, naiz ezkondu, antzu gelditza. Oroi Ana Samuel profetaren amak, Sara Abraan'en emazteak eta Itun Zarreko beste emakume antzu guztiek sentitzen zuten atsekabea.

Juduek ez bazuten neskustasunik ulertzen, esan bearrik ez da askoz gutxiago ulertuko zutela jentillek.

Erromatarrentzat, neska gazte eder batek, neskuts izate utsagaitik, senarrik aberatseneei eta atsegiñeneei ere uko egiñez bizitza gutzirako ezkongegelditu nai izateak ez zuan zentzurik ere. Jentillentzat, ori, Elizak emakumezkoak erotu egiten zitualaren adigarri nabarmena izan zan.

Eta, zigorraldietan asko izan bait ziran neskustasuna gaidutzea baiño bizia galtzea naiago izan zuten neskatsak..., ori ikusteak zoro biurtzen zituan zigortzailleak, eta zoraturik, ankerkeri aundiagoz zigortzen zituzten

neskuts il nai zuten emakumezko gazte aiek.

«La question de la sup riorit de la virginit sur le mariage n'a jamais Eait question.. Mais dans les deux premieres si&les certains ont t plus loin». «Birjintasuna ezkontza baiño duintasun geiagokoa dala uste izate ori, Elizak ez du beñere zalantzan Baiñan Elizaren lenengo bi mendeetan bai, izan zan ontan ere aurreraegi joan zanik» (J. Danilou).

Aurreraegi joandako aiek, batez ere judukristauen artean, oso-osoan kristaua izateko birjintasuna bear-bearrezkoa zala uste izan zuten.

Uste ortakoak, eta era gogorrean gaiñera, izan genituan judu-usaieko ereje guztiak ere: ebiondarrak, zerintiarrak, gnositar asko, montanitarrak, marziondarrak... Len birjintasuna aintzat artzen ez zuten juduek, beste ertzara joan bait ziran asko, kristau egi ziranez gero.

Baiñan, ereje-taldeetan ez ezê Eliza-baitan ere izan ziran kristau judutarren artean geiegikeriak. Giro ortakoak dira Palestina'n eta Palestina'tik landa, judukristauen giroan idatzitako apokrifoak: «Ebertarren Ebangelioa» adibidez, eta ezkontzari •belar garratza» esaten dion «Ejitorarren Ebangelioa», Alexandri'n; Palestina'n bertan, Miren neskutsaren neskustasuna ez oso era zuzenean gorai patzen duan «Jakoba'ren Ebangelioa»; Edesa'n, «Tomas'en Ebangelioa» eta ezkontzari «lore mingarria» esaten dion «Salomon'en Salmodia».

Paul'ek, Josu berak erakutsiari jarraituz, -ezkontza gauza sagaratu da; baiñan ezkongee izanik ezkongee jarraitzeko gauza dana, jarrai dezala ezkondu gabe- erakutsiko die korintotarrei.

Ez zuten ordea gotzai guztiak ori aolkutat bakarrik artu. Kreta ugarteetan, Pynitos zan Knosos uriko gotzaia II mendearen garai ontan . Eta Zesarea'ko Eusebio edestilariak IV'aren asieran idatzi zigunez, .arren ez eiezu zure elizkideei ezkontza erabiltzearik debekatu. Aulegiak dira ba geienak zama astun ori eramateko», idatzi omen zion Alexandri'ko Dionisio'k.

Baita Pinytos'ek laister erantzun ere: «Aulak, zure elizkideak dira, eta zure eginbearra zure ardi oiek obeki bazkatzea da, auleri ori garaitu dezaten».

Ez zan Pinytos bakarrik orrela pentsatzen zuan gotzaia. Aipatu dugun Alexandri'ko Dionisio'k arazo berdiñak izan bait zituan Palmas izen zuan Pont'eko gotzaiarekin ere.

Ainzuzen, Alexandri'ko Dionisio'k, bide zuzenera ekarri nai zituan, ezkongee ezkontza eta ezkonduer ezkontza erabilli aal izatea eragozten edo beintzat arras zailtzen zieten bi gotzai aiek. Aientzat eta aiek bezala pentsatzen zuten kristaumentzat, seksualitate edo kundetasun oro bait zan gauza makurra.

Geroxeago Alexandri'ko Klemente izango da auzia erabat garbi erabakiko duana «Stromata» izeneko liburuaren bidez:

Onela dio, ezkontzaren etsaiei gogor erantzunez gero:

•Batziek, ezkontza larrujotze utsa besterik ez dala diote; inpemuko deabruak sortua. Eta, orregaitik, ezkondu ez zan Jaunaren bidetik ibilli bear dutela kristauak. Ez dakite zergaitik ez zan ezkondu gure Jauna:

Lendabizi, Emazte bat izan zualako: Eliza. Bigarren, Bera beste gizakumeok bezalako ez zalako: ez zuan emakume baten bearrik; ezta, bere nortasuna luzatzeko, seme-alaben bearrik ere. Bera, Jainkoaren Seme bakarra, betikoa bait da.!

Gero, birjintasuna gauza bikaiña dala dio, •bairia Jainkoaganako maitasunak eraginda artzen ba'da, eta ez, ezkontza gaitzesten dalako-. «Ezkonduak beren ezkontza erabiltzeak ez omen du zikintasunaren apurrik; ala ere, gizonak aragikeri utsez bakarrik ez baiña karitatezko maitasunez maitatu bear omen du bere emaztea».

Ori dana, II mendearen azken-urteetan idatzi zuan Alexandri'ko Kle mente'k, eta ereje ta erdi-erejeen aurka, senar-emazteek beren ezkontza erabiltzeko baduten eskubide sagaratua, ezpairik gabe babestu zuan.

Ezkontza-barrungo birjintasuna'ren eraspén geiegizko aren itzala iritxi zan aszeta bakartasun-zaleengana ere, eta izan ziran alkarrekin anai-arrebak bezala birjintasun osoan bizi oi ziranak. II mendearen asierakoa dan «D idaj& izeneko liburuak ere aipatzen ditu, eta iraun zuan, oitura orrek, IV menderaiño. Bizimodu ori omen zan, kristau ezkonduentzat, egiazko eredia.

Itun Zarreko Juduerritik landa ere mundu guztian izan zan birjintasuna oker-ikusia, budatarren artean izan ezik, eta budatarren artean ere, sortu zuan lekaide batek XII mendeko Japoi'nen, lekaide-lekaimeak ezkongee bizitzera beartzen zituan legea ezereztu nai izan zuan igikunde bat. XII mendeko lekaide budatar arek orduan erabillitako arrazoi ber-berak erabilliko ditu gero XVI mendean beste lekaide batek: Martin Lutero agustindarrak.

Judutarren artean, Kristo jaio aurretik birjintasunean bizitutako lekaide esenitar aiek, judutasun ofizialek at, erejeak izan ziran: egiazko erejeak judu zintzoen iritiz.

Ereje aiengandik sartu ote zan judu-kristau batzuen artera, gnosikeriaren aize okerrak puztuta, ezkontzaganako erdeiñua eta birjintasunaganako zaletasun geiegizko ura?

Ez da erreza erantzuna. Esenitarren artean ere, lekaideetak gaiñera, bai bait ziran giro atan bizi ziran sendiak ere. Ezkonduetako senar-emazteek osotutako sendiak, jakiña. Danadala, ez dugu guk beintzat uste, Miren Nazaret'eko neskatxaren neskestasunak, esenitarren oiturekin zer-ikusirik izan zuanik.

APAIZ KRISTAUEN EZKONGETZA ikertzeko, auxe iduritzen zait tokirik egokiena.

Gai oni-buruz Sarkaldeko eta Sorkaldeko Elizen oiturak berdiñak ez dirala edonork badakian gauza da.

Gaur-egun Sarkaldeko elizgizonak ezkongee izan bear dute Elizaren

aginduz. Baiñan ez da beti orrela izan. Lenen mendeetan apaizak, ezkonduak izan bait zitezkean. Baita gotzaiak ere.

Paul Doneak (Tit. 1,5) bein bakarrik ezkonduak izatea agintzen dio gotzaiei, ots, alargunduz gero ez berriro emazterik artzea. Orixen bera eskatzen du gotzai aukeratuak izan daitezkeanentzat.

Alatagutziz, naiz ezkongea izatea bearrezkoa izan ez, asko ziran lenen mendeetan ere apaiz ezkondugabeak, Alexandri'ko Klemente'k eta Tertuliano'k II mendean, Origenes'ek III'ean, Jerusalemgo Zirilo'k IV'ean eta Alexandri'ko Zirilo'k V'ean adieraztera damaigutenez.

IV mendean asi zan Eliza gai oni buruz legeak ematen, Anzyra'ko kontzilioan aurrena (314); Nizea'koan gero, (325).

- Kontzilio oien araura, gizon ezkonduak apaiz egin daitezke, baiña apaiz egiña izanez gero ez zaio iñori ezkontzerik zillegi.

- Apaiz ezkonduak, gotzai egiña izateko, bere emaztea utzi bear du. Eta emazte onek, lekaimetxe batera sartu bere bizitza guztirako.

Azkeneko agindu ori neke-sortzaille edo gertatzen zalako noski, IX mendiaz gero, lekaideak ezkondu gabeak diralarik, Sortaldeko Elizak lekaidetxeetatik batez ere artu oi ditu luzaroan bere gotzaiak.

Alatagutziz, nestoritarren, kopziarren eta armenitarren artean ezkontzea zillegi izan dute apaizek, eta nestoritarrek gaiñera luzaro egon ziran beren gotzaiak emaztea uztera beartu gabe.

Sortaldeko Eliz Uniatak, ots, Erroma'rekin alkartuak, aipatutako bi Kontzilio zar aien araura bizi oi dira. Bañan, XIX mendiaz gero, Indi'ko malabartarren artean ezkongea izan bear dute apaizek; eta bide ortatik abiatu nai dute siritarrek eta kopziarrek ere.

1929'az gero ezkongea izatea agintzen die Aulki Doneak Ameriketako Eliz Uniatetako kristauen serbitzura lan dagien apaizei.

Ori Sorkaldeko Elizei dagokienez. Sarkaldeko elizan, IV mendean, 306'ean, España'ko Elbira'n egindako kontzilioa izan zitzaigun, diakono, apaiz eta gotzaiak beren emazteekin bizitza galerarezten aurrenekoa. Kontzilio ura ordea zismatikoa izan zan seguruaski.

Mende ortan bertan, 386'ean Zirizio Aitasantua dugu ezkongetasuna lege egin ziguna. Eta lege ori, urrengo mendean, V'ean, I Inozentzio'k eta I Leon'ek ber-bizkortu ziguten.

Alare, naiz lege ark lege jarraitu, maiz izan zan goi-erdiaroan urratua, alperrikakoak izan bait ziran apaizen ezkongetzaren alde Bonifazio Doneak, Metz'eko Krodegang Doneak eta Karloman inperatoreak berak egindako lan guztiak.

XI mendean, •elizgizonen eraberritzerako VII Gregorio Aitasantuak egindako saioek, apaizen ezkongabetasuna izan zuten atalik garrantzitsuenetako bat». •Enforcement of celibacy was one of the principal aims of the reform of the clergy under St. Gregory, (pope 107-385)- (Enc. Brit.).

XII mendean Lenen Lateran-Kontzilioak (1123) eta Bigarrenak (1139)

baliorik gabea egin zuten apaiz sagaratutakoen ezkontza, eta mende ortan bertan (1180) balioabetasun orisubdiakonoen eta diakonoen ezkontzetara luzatu zan.

Ori guzia, Trento'ko Kontzilio ospetsuak (1545-1563) sagaratu zuan gero.

Kontzilio ori lanean ari zala izan zan Aitasantu IV Pio 1559-1565). Eta Aitasantu au, I Femando ta II Maximiliano inperatoreen eskariei erantzunez, Germani'ko apaizen alde salbuespen bat egin-ez-egin oldozten ibilli-edo omen zitzaigun, ezkongabetasunaren atal oni dagokionez.

Baiñan urrengo Aitasantuak, V Pio'k, ezerezturik utzi zituan, orain arte beintzat, gai orri-buruz salbuespen ororen aal-izate guztiak.

Gauza asko esan oi dira beti ezkongetzaren aurka. Erejeen aldetik bereiziki. Esaten dira gaur-egunean bertan, eta baita katoliko batzuen aldetik ere; baitipat, apaizgoa utzita emaztea artu dutenen aldetik.

•The church, however, mantains that its legislation is spiritually motivated. The priest is the mediator between God en man, and celibacy facilitates the accomplishment of this function. Unmarried priest can be concemed about the things of God; the married priests would have to care for a family and consider the rights of his wife. Much of his time and energy would be given to nonreligious preoccupations. Furthermore the laity would find it more difficult to show to a married priest the confidence required for succesful spiritual direction» (Enc. Brit.).

Euskeraz:

•Elizak ordea bere agindu ori izpirituzko zioetan oiñarritua dala ots dagi. Apaiza Jainko-ta-gizakumeen arartekoa da, ta ezkongetzak erreztu egiten dio eginkizun ori. Apaiz ezkongea Jainkoari dagozkion gauzetara bakarrik loturik egon daiteke; apaiz ezkondua sendiaren bearkizunei eta emaztearen eskubidei ere badagokie. Naitanaiez erlijiozkoak ez diran ekintzetarako izan bearko dute beren astiaren eta beren arduraren puska galantak, eta, geiago dana, kristau soillei zaillagoa egingo zaie, gogozuzenketa egoki baterako bearezkoa dan konfiantza ezkonduengan ipintzea».

ELIZA ODOLETAN BERRIRO

IRUGARREN ZIGORRALDIA, Trajano'ren agintaritzapean Elizak jasan bear izan zituan nekeei esaten zaie.

Baiñan..., zillegi ote zaigu, besterik gabe Eliz-zigortzailleen zerrendan Trajano inperatorea sartzea? Bai, eta ez. Ikus dezagun zergaitik.

Agintari lez, Erroma'k Errepublikaz gero izandakorik onena izan zan agian. Bai beintzat onenetakoa.

Andaluzi'ko Italika urian jaioa zan. Eta Españi'n jaiok zituan gurasoak ere, baiña jatorriz italiarrak seguruaski.

Politikolari lez, nekazaritza bizkortzaille azkarra, eta bidezabal, zubi, ta jauregi eraikilari bizkorra.

Gudalburu lez, dezitarren eta partzitarren aurkako gudueta ibilli zan sarturik.

Dezi, gaurko Errumani, Europa'ko Sortaldean erromatar-inperio-lurraren muga borobiltzeko, zuan Trajano'k guragarri. Eta, baita, bertako urre eta zillar-meatzak txit aberatsak ziralako ere. Bi gudalditan menderatu zituan deziarrak, eta Erroma'ren probintzi biurtu Dezi guzia.

Orduan izan zan lurrez aundiena Erroma'ren inperio-barrutia.

Bost milloi libera urre, amar milloi libera zillar eta bosteun milla katigu, ia danak jopu edo esklabo biurtu-bearrak, atera zituan Trajano'k Dezi'tik. Eun da ogei ta iru egun iraun zuten Erroma'n garaitza ura ospatu zuten jaiak; eta egun oietan amar milla gladiatore eta amaika milla pizti agertu ziran Erroma'ko anfiteatroan borrokalaria. Izan zan, toki anker artako ondarrean odolik ugari!

Adur okerragoa izan zuan Trajano'k gaur-egungo Iran'en iparraldekoak ziran partziarren aurkako guduketan. Aurreneko erasoan, kendu zien beren mendean zeukaten Mesopotami guzia, baiñan azkenean, irabazitako lur guztiak berriro aien eskuetan utzi-bearrean aurkitu zan.

An, Sortaldeko gudarozte guztien buruzagi nagusi lez, bere ondorengo izendatu-berri zuan Adriano gudalburua utzita, gaixorik Erroma'runtz zetorrela il zan bidean.

JUDUEN BIGARREN IRAULTZA bati ere aurpegi eman bear izan zion il aurretik Trajano inperatoreak.

Parz i'ko gudatekoan gertatu zan juduen bigarren iraultza ori. Diasporan oraingoa, 66'ko gudua ezkerro Palestina gudari erromatarrez ongi babestua bait zegoan.

Tito'k Palestina menderatu zuanez gero zatiturik zebiltzan judutarrak.

Batzuk Erroma'rekin pakean bizitzearen aldekoak ziran. Beste batzuek ordea, Erroma'ren aurka borrokan jarraitu nai zuten. Rabbi Agiba zeritzan azkeneko auen buruzagiak. Ikustatu zituan Mesopotami, Anatoli, Ejito, Libi

eta Zirenaika'ko judutegiak. Prestatu ziran borrokarako aren mezua onartu zutenek, eta, lurralde aietako lejiok partziarren aurka borrokan zebiltzalaz baliaturik, jeiki ziran Erroma'ren aurka, Zirenaika'n aurrena, 114'garren urtean.

Berealaxe zabaldu zan iraultza Afrika eta Asiko judutegietara, Ejito'ra, Txipre'ra eta Mesopotami'ra batez ere. Izugarritzko erailketak eta ondamenak egin zituzten judu iraultzalariek bazter guztietan.

Ez ziran legunago ibilli gero, Erroma'ko lejiotarrak, Trajano'k iraultza zapaltzeko aukeratu zuan Marzio Turbon kupidagabearen esanera, Libi eta Zirenaika, jenderik gabe gelditu bait ziran ia.

Juduen artean, bizirik irten ziranak, al izan zuten azkarren, andik barbaritarren lurretara iges egin bearrean aurkitu ziran. Trajano'k juduak menderatzea agindu bazuan ere, era basati ankerrean izan zan 13" a' agindu ura bete», •the order was carried out with savage cruelty» (Enc. Judaica).

117'garren urtean erabat zapaldurik gelditu zan juduen bigarren iraultza doakabe ura.

Elizari dagokionez, Trajano'k ez zuan kristauei jazartzerik agindu. Bai ordea, salatua zan kristau orori bizia kentzea, salatua izandako kristauak kristautasunari uko egiten ez ba'zion.

Ez zan oraindik Erroman Elizaren aurkako legerik, baiñan Neron'ez eta Domiziano'z geroko •jurisprudenti» edo •legerabilketaren» araura, argi gelditu zan erromatar ororentzat, baita agintarientzat, epailleentzat, eta errikide landuentzat ere, kristauak gaizkilleak zirala: Erroma'ren izaera berberaren etsaiak; eta, ongi merezia zutela danek, orregaitik, eriotzazko zigorra.

Trajano'k ere ez zuan kristauen aurka legerik eman. Baiñan Neronen eta Domiziano'ren aldiak gero zetorren oitura anker ura bera jarraitu zuan zalantzarik gabe.

Alare, ez daiteke Trajano ankerra izan zanik esan.

Nerba pakezalearen eskuetatik agintaritzza artu zuanean pakezale agertu zan bera ere inperio-barrurako, eta Nerba'ren garaiean bezala pakean bizitu ziran kristauak, Plinio Gazteak 112'garren urtean kristauei-buruz erabaki bat artzera beartu zuan arte.

Trajano'98'garren urtetik 117'era bitartean izan zan inperatore. Agintaritzza ortako lenen amalau urteetan pakean ibilli zala Eliza, eta ala jarraitu ere jarraituko zuan, Plinio tartean sartu ez ba'litz.

PLINIO GAZTEA, Plinio Zarra biziztilariaren illoba, idazle txukun bezala arras elertilari ezaguna, eta Trajano'ren adiskide **Anatoli'n** Marmara Itxasoaren ertzean zegoan Bitini probintziko Jaurlea zan orduan.

Bere probintziko kristauen ugaritasunaz kezkatuak, eta kristautzat salatzen zizkioten gizakumeekin zer egin ezin asnatuz, Trajano'ri idatzi zion

erantzun baten billa.

Osorik iritxi zaizkigu zorionez Plinio Gaztearen eskutitza eta Trajano inperatorearen erantzuna. Biak, benetan, garrantzi aundiko idaztiak.

Plinio'ren idaztiak gauza asko eta ederrak adierazten dizkigu. Ikus:

- Kristautasuna Bitini'n oparo eta azkar zabaldu zala. •Okerkeri kutsukor onek, — dio uriak ez eze erriak eta baserriak ere orbandu ditu-: Neque civitates tantum, sed vicos etiam atque agros superstitio istius contagio pervagata est».

Sasijainkoen jauretxeak utsik aurkitzen zirala, dio, eta aien oparietarako abereak iñor gutxi erosten zituala. Probintzi'ko ekonomia okertzera ere iritxi zala dirudi beraz, kristauen ugaritasuna. Eta, jakiña, naitanaiez asarretu bear zituan orrek abere-saltzailleak, eta Jaurlea kezkatu.

Zesarea'ko Eusebio'k dioskunez, Ander Bidali Donea izan zan Bitini aurrena ebangelizatu zuana, eta Kepa Donea bera ere an ibillia izan zan eskierki, bere lenengo Epistola, beste kristau batzuei bezala Bitini'koei ere opaldua izan bait zan.

- Plinio'k ziur uste du kristauak eriotza merezi dutela. Il ere, batzuk il dituala esaten du berak, kristau aiek sasijainkoak eta inperatorearen irudia gurtzeari uko egin ziotelako. Ta, ori, lasai eta pozik aitortzen duala dirudi. Entzun:

•Neque enim dubitabam, quaecumque esset quod faterentur, pervicaciam certe, et inflexibilem obstinationem debere puniri»: •(Kristauek) esan zezaketenari jaramonik egiteke, ezpairik gabe uste izan dut aien burua-makurtu-nai-eza eta aien setakeri menderakaitza zigortu bearrak nituala».

- Itzik gogorrenak darabilzki kristautasuna zakartzeko: •amentia», »erokeria»; •crimen», •gaiztakeritzar aundia •; •superstitio prava et inmodica», neurri oroz gañdiko siniskeri makurra».

- Alatagutziz, berak galdekatu ta epaitu dituan kristauegandik, — ezta bere aurrean kristautasuna ukatu duten aiengandik ere ezin atera izan omen du kristauak gaizkilleak ziranik, naiz, ortarako, oiñazeketa gogorrak erabilii.

Au besterik ez omen du atera: •Eguzkia jeiki aurretik egun jakiñetan, (igandetan noski), billera bat egiten zutela; an, Kristo Jainko lez txandaka abesten zutela; ta, zinketa baten bidez, iñor ez iltzea agintzen zutela, ta lapurretarik ez egitea, ezkontzarik ez urratzea, emandako itzik ez austeaa, eta diru aurreratua eskatu dezaieketenei ukorik ez egitea. (Bataioko zinketak noski). Gero, une batez alkarrengandik bereizi ondorean, osteraa bilduta alkartasunean otordu bat egiteko oitura zutela, baiña jaki arruntak janez». (Eukaristirako •agape• edo senide-arteko otordua, bearbada).

Goza bitzate gure apaiz jaunek itz oiek Plinio'ren latera polit ederrean:

Affirmabant autem, hanc fuisse summam vel culpae suae vel erroris: quod essent soliti, stato die ante lucem convenire, carnrenque Christo quasi deo dicere secum invicem, seque sacramento non in scelus Jiquod obstringere, sed ne furta, ne latrocinia, ne adulteria committerent, ne fidem

fallerent, non depositum appellati abnegarent; quibus peractis, morem sibi discedendi fuisse, rursusque coeundi ad capiendum cibum, promiscuum tamen et innoxium».

Ori dana, martiriengandik eta fedea ukatu zutenengandik jaso zuan Plinio'k. Ez zan ordea lasai gelditu eta •bearrezkoa etsi omen zuan bi jopueme diakonisengandik, biak gogor oiñazetu ondorean, egia-billa jarraitzea: •Quo magis necessarium credidi, ex duabus ancillis quae ministrae dicebantur, quid esset veri, et per tormenta quaerere

- Bere ikerketa oiek alperrikakoak irten izateak ordea ez dirudi, Plinio'ri kristautasunari-buruz lendik zekarren abururik erabat aldaarazteko geiegi balio izan zuanik. Bai ordea bere ziurtasun ura ezbaiean-edo jartzeko, bere idazti onen bitartez al zuan guztia kristauak eriotzatik gaizkatu naiean dabillega bait dirudi. Bañan, ori bai, aurretik kristauak Erroma'ko jainkoak eta Trajano'ren irudia gurtu bear izateko baldintzari ziur eutsiz.

- Askok izan omen ditu bere aurrean ori egin dutenak: ots, kristautzat salatuak izan ondorean, kristauak ez zirala oiueginda, sasijainkoei eta Trajano'ren — •**imagini tuae**. •intzentsua eta ardoa. eskeñi ondorean, Kristo madarikatzera iritxi diranak: «maledicerent Cl-uaisto».

Ez du uste Plinio'k, orrela jardun zitzaizkion jende auek inoiz kristauak izan ziranik. Zergaitik?

Ona zergaitik, Plinio beraren itzetan: ,Esan oi danez, Kristo madarikatzea, egiaz kristau diranengandik inoiz ere lortu ez daitekean gauza dalakoa «quorum nihil cogi posse dicuntur, qui sunt revera christiani..

Ez zezakean Plinio'k kristauen alde aitorten aundiagorik egin: Ez zala ezer, ez zala kristauak Kristo madarikatzera eramateko gauza. Beste atxilotu batzuek bai, salatari batek salatuak izan ondorean aitortu omen zuten len kristau izanak Bañan aspaldi, baita batzuek ogei urtez leenago ere, (ots, Dorniziano'ren zigorraidan), kristau izatez utzi zutela. ,«Auek ere gunu omen zituzten Erroma'ko jainkoak eta Trajano'ren irudia; Baita Kristo gaitzetsi ere...Omnes et imaginem tuam deorumque simulacra venerati sunt: ii et Christo maledixerunt..

Kristo madarikatu izate orrek larri utzi zuan noski gure Plinio: egiazko kristauak oraindik arrapatu ez ote zituztako kezka; bai bait zekian berak egiazko kristauak ez dutela ezergaitik Kristo madarikatzen. Larri zegoan, baitare, eriotzara galdu bearko zituan bitinitarrak asko eta asko izango zirala ikusten zualako.

Orregaitik, eta bere azterketa aietatik zigorgarri zitekeanik ezer atara ez zualako iduritu omen zitzaion, inperatoreari argia eskatu bearrean aurkitzen zala.

•Sed nihil aliud inveni quam superstitionem pravam et inmodicam, ideoque, dilatata cognitione, ad consulendum te decurri. Viva est enim mihi res digna consultatione, maxime propter periclitantium numerum. enim omnis aetatis, omnis ordinis utriusque sexus etiam, vocantur in periculum, et vocabuntur».

Euskeraz:

Ez dut (kristauengan) zentzurik gabeko siniskeri gaizto bat besterik idoro. Orregaitik, zuri galdezka nator, auzia luzaro oldoztu ondorean. Ori egin bearra nuala iduritu zait, arriskuan aurkitzen diranen kopuruak eraginda. Asko dira ba, adin oroko, mailla oroko, eta kunde bietako jendeak, orain arrisku ortan aurkitzen diranak, eta geroago ere aurkituko diranak-

- Ez zala kri3tautasuna Bitini'n erri arlotearan artean bakarrik zabaldu ere, adierazten digu eskutitz onek: Plinio'k bai omen zituan ba baiturik, Erroma'ra bidaltzeko, erromar-urikideak ziran kristauak ere: «qui cives romant erant..

- Lau galdera egiten dizkio Plinio jaurleak bere inperatoreari:

Adiria kontuan artzeko, zarrak eta gaztetxoak, kristau danak al dira berdin zigortu bearrak?

Damutzen diranak, gaizkatu al daitezke? Ala ez du namuak zigorketatik bein kristau egin danik salbatzen?

Kristau izena bera, naikoa al da norbait zigortua izateko, naiz izen ori daraman orrek gaiztakeririk egin izan ez? Ala, izena zigortzerakoan, izen orri loturik dauden gaiztakeriak dira zigortzen diranak?

Lateraz: «Nomen ipsum, eliarnsi flagitiis careat, an flagitia cohaerentia nomini puniantur..

Azkeneko galde onek alperrikakoa dirudi:

Eriotzara zigortua izateko, izena bakarrik naikoa bada, kristau izena daraman gizakume oro bait da eriotzez zigortu bearra.

Eta, Plinio'k aipatzen dituan gaiztakeriak izenari itsatsiak baldin ba'daude, bereizi ez daitezkean eran itsatsiak, — •cohaerentes nomint- -, era berean bait da izen utsa eramatea naikoa, eriotzara galdua izateko. .Por adhesiOn a banda de malhechores. esango lukete gaur-egungo Ilegezilari gaztelarre: Gaizkille-talde bati emana egoteagaitik.

Erromatarrek ain maite zituzten legiztiari-buruzko erretolika-arazo utsa besterik ez da beraz Plinio'k Trajano'ri egin zion galde ori. Are ta geiago, ikusi dugun bezala, Plinio'rentzat Erroma'ko jainkoak eta Trajano'ren irudia ez gurtu nai izatea, edozein eriotzara galtzeko naikoa zala oroitzen ba'dugu.

Orregaitik, Trajano'k ez zion galde petral orri erantzunik eman.

Auek izan ziran Trajano'k bere erantzunean •Plinio bere maileart., damutuei barkatuz eta ez-damutuak eriotzara galduz ongi jokatu zualasan ondorean eman zizkion aginduak:

- Ez da kristau-eizean ibillt bear.: .Conquirendi non sunt-.

- -Kristautzat salatuak, egiaz kristauak ba'dira, zigortuak izan bear dute.: si deferantur et arguantur, puniendi sunt..

- -Baiña kristau izateari uko egiten diona, ukapen ori gure jainkoak gurtuz egiztatzan ba'du, bere damu orren ondorioz, barkatua izan bear du, naiz len kristau lez ezaguna izan.: •Ita tamen ut qui negaverit se christianum esse, idque re ipsa manifestum fecerit, id est, supplicando diis nostris,

quamvis suspectus in praeteritum fuerit, veniam ex poenitentia impetret».

- •Izenpetu gabeko salaketarik ez da ezertarako aintzat artua izango.

Orrelako salaketak eredu gaiztoak izateaz gainera ez bait dira gure garai oni dagozkionak»: •Sine auctore vero propositi libelli, nullo crimine locum habere debent: nam et pessimi exempli, nec nostri saeculi sunt».

Azkeneko atal au garrantzi aundikoa da. Plinio'k dioskunez, izenperik gabeko salaketak ugari iristen bait ziran probintzietako jaurrengana kristauen aurka. Erroma'ko epaitze-oituren araura, salataria, bere salaketa epailleen aurrean egiztatzera bearturik zegoan. Ori ez lortzekotan, salataria bera izan zitekean salatutako gaiztakeriari zegokion zigorra jasatzera epaitua.

Giro artan, Trajano'k emandakoa baiño agindu obeagorik ez zezakean inork itxaron.

Plinio bera ere, al zuan kristaurik geiena eriotzatik gaizkatu naiean zebilela dirudi, naiz gaur guri bere gutuna aski gogorra iduritu. Alakoa bait zan orduan Erroma'n kristauen aurkako zurrumurrua!

Badaramate alatagutziz bi gutenek, paradodoxa edo itxura baldarreko gune galanta.

Plinio'k bere ikerketagintzan ezer gaiztorik atera ez duan ezker, ez du sinisten kristauak gaiztakeri-egilleak izan daitezkeanik. Ori, ontzat artzen duala dirudi Trajano'k berak ere.

Alatagutziz, bai Plinio jaurreak bai Trajano inperatoreak ziur uste dute, ez bairik gabe merezi dutela kristauek eriotza. Eta ori, kristau izate utsagaitik.

Iritxi zaigula iduritzen zait mendeak zear ainbeste jorratu dan itaun bati erantzuna emateko garaia:

ERROMA'K ZERGAITIK ZIGORTU ZITUAIN ain era gogorrean kristauak?

- Kristauek Jainko berri bat gurtzen zutelako, izango genuke aurreneko erantzuna. Ez da naikoa, Erroma'n, eta bere inperiolur guztian, osoa izan bait zan gurtetarako askatasuna. Erroma'k, menderatzen zituan lurralde guztietako jainkoak artzen zituan beretzat; eta danak gurtzen zituan, jainko aiek gurtzailleen faltaz asarre, Erroma'ren aurka biurtu ez zitezten.

Ontzat artzen zituan, baitare, sekulan menderatu ez zituan Mesopotami'z aruntzik iristen zitzaizkion gurteta-era guztiak.

Mundu ontan ezerrri bildurrik ez zion Erroma algutzidun ura, izugarri bildurtia zan beste munduko izaki ta gauzei-buruz. Munduan inongo jainkorik asarretu ez zezaien, danei, jainko guztiei, Pantheon izeneko jauretze bat eraiki zien Erroman bertan.

- Egia da kristauen Jainkoa ez zala beste jainko aiek bezalakoa eta kristauak berak ere ez ziralda beste jainko-oro-gurtzaille aiek bezalakoak. Kristauek beren Jainkoa bakarrik gurtzen bait zuten! Geiago dana, kristauek, beren Jainkoa bakarrik zala egiazko Jainkoa, esaten zuten, eta beste

jainkoak danak gezurrezkoak zirala; ez zirala jainkoak, sasiainkoak baizik.

Baiñan ori bera esaten zuten eta egiten zuten juduek ere. Altagutziz, ez ziran sekulan orregaitik zigortuak izan. Ezta Kaligula inperatoreak Jerusalemgo Jauretxean, juduek gurtua izateko, bere irudia jarri nai izan zuanean ere. Judu menderakaitz aiekin ez zuan zigorrik erabili. Alderantziz, atzera egin zuan Kaligula'k isilik, bere asmorik ez zuala lortuko aditu zuanean.

- Naiz Jainko beraren gurtzailleak izan, bazan baike gurteta orri-buruz, izugarritzko ezberdintasuna juduen eta kristauen artean:

Juduak ez ziran proselitistak, ots, beren sinispidearen zabaltzailleak. Bai ordea kristauak. Mundu guztira ebangelioa zabaltzeko agindu zien Kristo'k, eta ortan saiatzen ziran al zuten guztia. Ziur zeuden gainera Kristo garaille irtengo zala!

- Bildur izan ote zan Erroma? Bere jainko eta jainkeme zaarrak kristautasunak ezereztuko zizkiolaren bildur?

Ez dirudi. Kristauak, asieran beintzat, gutxiegi bait ziran erromatarrek ori uste izateko. Gutxi, eta gainera, txiroak, eta ez-jakiñak, kulturik gabeak, ainzuzen kulturari artaraiño garrantzia ematen zitzaion garaiean!

- Kristauak ez zuten Inperatorea jainko lez gurtzen. Egia. Baiñan III mendearen erdira arte, inperatoreak, bi izan ezik, ez ziran jainko lez gurtuak izateaz arduratu. Ez zuten gurteta ori eragozi eta askoz gutxiago debekatu, baiñan bi bakarrik izan ziran gurtuak izatea agindu zutenak:

Kaligula eta Domiziano; eta agian Neron.

Ikusi dugu Trajano'k ere Plinio'ri egin zion eskutitzean ez zuala gurtua izaterik eskatzen, naiz ortarako Plinio'k bidea ederki prestatu. Aurretik Trajano'ri bidalitako gutunean bein baiño geiagotan esaten bait zion, aren irudia gurtuerazi nai izan ziela kristauak.

Oroi gainera juduek ere ez zutela inperatorea jainkotzat onartzen, baiñan ez zirala orregaitik sekulan zigortuak izan. Ezta, esan dugun bezala, Kaligula'ren denboran ere.

- Kristauak beren gurteta-billerak isillean egiten zituztelarik, erromatarrek zerbait gaiztoaren susmoz geiegi kezkatu ziralako?

Ez da orrenbeste denboraz Eliza zigortzen aritzeko kixazko arrazoia, Sortaldeko «misteria» edo •izkutuzko gurteta-bide« aiek ere aski era isillean egiten ziran, baiñan ez zituan Erroma'k zigortu, naiz «misteria» aietako jendea, Erroma'ko jainko zarrak gurtzen zituan jendea baiño askoz ugariagoa izan.

Gainera, kristauen aurkako salaketa zoro aiek: giza-aragia jaten zutela, anaiak arrebeekin eta aideak aideekin izoraketan ibiltzen zirala, asto bat gurtzen zutela... erriko jende arruntak bakarrik sinisten zituan gauzak ziran. Ez, jende jakitsuak, naiz auetako batzuek, ez askok, ain gorroto zituzten kristauen aurkako zigorketari su emateko, salaketa zoro aiek erabili.

Argi gelditu zan gainera, Plinio'ren Bitini'ko epaitegian bezala inperiolurreko epaitegi guztietan, salaketa iñozo aiek danak gezur utsak

zirala.

Alare, jende jakintsuek, filosofilariak, idazleek, epaileek, agintariak, eta Trajano'k bezala danek uste zuten kristauak eriotzara galdu bearrak zirala, naiz epaitegietan, Plinio'renean bezala, kristauak gaizkilleak ez baiña ongilleak zirala agertu.

Kristauen aurkako jardunkera orrek, ain zuzentasunzale izan ziran Erroma'ko aundikien artean, ulertu aal izaterik bai al du?

Bai. Nondik ulertua izateaz gaiñera, nondik zurutua eta nondik zuzentzat artua izaterik ere badu.

Begira:

Plinio'k, eta Trajano'k, zalantzarik gabe ziur uste dute kristauak errudunak dirala.

Errudun..., zergaitik?

damaigu erantzuna: •Propter pervicaciam eorum»: •beren setakeriagaitik».

Setakeri ori zertan zegoan? Erroma'ko jainko zarrak ez gurtu nai izatean.

Ori, gurbeta ori, eskatu zien Plinio'k eta ori agindu zien Trajano'k. Eta orri egin zioten kristauak uko.

Ukogintza orrek eriotza merezi zuan? Bai, Plinio, Trajano eta Erroma'ko aundiki guztien ustez.

Ez noski erlijioari-buruzko arrazoiengaitik. Ez Plinio'k ez Trajano'k ez beste aundikiek eta jakintsuek ez bait zuten, ordurako, Errroma'ren jainko zaar aiek jainko ziranik sinisten, naiz jainko zaar aien izenak beren itzaldietan eta idaztietan ain sarritan eta ain era goresgarrian aipatu.

Ori zergaitik? Erromatarrentzat jainko zaar aiek Errorna'ren ikurra ziralako. Gaur-egungo Laterrietan ikurriñak diran gauza bera ziran orduan jende aientzat Errorna'n jainko zaarrak.

Mundu guztiak daki gure ikurriñak oial-puska margodun batzuk besterik ez dirala. Altaguztiz, ikurriña iraintzea da Laterri bati iñork egin dezaiokean isekarik aundiena; naikoa, orain arteko gure moralisten. ustez, Laterri iraindu ark guda bati asiera emanaz erantzuteko.

Ba jaun erromatar aiek ere bazekiten jainko zaarrak egur ala arri-zuri uts besterik ez zirala. Baiñan Erroma'ren ikurra ziran, eta ikur aiei.intzentsurik eta ardorik» ez eskeiñi nai izatea, gure-egun auetan ikurrin bat iraintzea bezala, Erroma'ri isekarik aundiena egitea zan.

Gauzak orrela ikusten ba'ditugu, Trajano inperatorea eta Plinio Bitini' ko bere jaurlea, gaur-egungo agintari eta jaurleak baiño biguiñagoak zirala aitortu bearrean gera. Aiek, damu utsaren truke eskeintzen zieten barkapena ta askatasun osoa, len jainko zaarrei •intzentsua ta ardoa» ukatuz Erroma iraindu zutenei. Gaurkoek, naiz damua agertu, ez diete ikurriña iraindu dutenei barkapenik emango.

Erroma'ko agintariak intzentsu-eta-ardo-eskeintze ura jainko-gurketa ez baiña, soilki Errorna'ganako omenketa zala esan bazuten, kristauak ez zutela alako eskeintza bat egiterik ukatuko, eta ondorioz ez zala agian Elizaren aurkako zigorketarik izango?

Ez ote?

Erroma'ko sasijainko-gurketaren arazo ark badu beraz XVII mendean mixiolariak sasijainko-gurketa uste izan zituzten Txina'ko eta Indi'ko oiturea-buruzko beste arazo arekin kidetasunaren antzeko zerbait.

Txina'n, inperatoreak berak aldarrikatu zuan oitura. aiek erlijiozko gauzak ez baiña abertzaletasunezko ekintzak zirala.

Ez alper gaiztoan! Mixiolariak, inakitarak izan ezik, geienak, oitura aiek sasijainko-gurketa zirala oiue egiñez jarraitu bait zuten.

Danadala, Erroma'ko inperatoreek ez zezaketen Txina'ko arena bezalako aitorpenik egin. Ez sikologiaren aldetik ez politikaren aldetik:

Sikologiaren aldetik, Txina'ko inperatoreak aolkulari izan zuan Ricci Aita aren antzeko beste aolkulari bat Erroma'ko inperatoreek izan ez zutelako.

Politikaren aldetik, erriak bai, Erroma'ko erriak bere jainko eta jainkeme zaar aiek egiazko jainkoak zirala benetan sinisten zualako, eta aien gurketa ere egiazko jainko-gurketa zala ziur uste zualako.

Beste jainko guztiak ere jainko ziran erromatar xumeentzat; baiña beste jainko guzti aien artean bere jainkoak, Erroma'ko Erriaren jainkoak..., asko edo gutxi betidanik gurtu oi zituan jainko eta jainkeme zaar aiek ziran!

Orregaitik, ez zioten bere inperatore bati, ikaragarritzko iraultza baten bidez erantzunik eman gabe, Txina'ko arena bezalako erabakirik onartuko: ez erriak, ez gudarozteak.

Gaiñera, ez zuten sekulan Erroma'ko agintariak Txina'ko inperatore ark egin zuanaren antzeko aitorpen bat egiterik pentsatu. Zentzurik ez du beraz agintariak erriaren iraultza bati bildur izan ote zezaioketen edo ez, aztertu naiean ibiltzeak.

Baiñan kristauak Erroma'ko jainkoen jainkotasuna ukatze utsak ez dirudi ain zigorketa luze ikaragarri galantarentzat arrazoi naikoa. Kristauak ez bait zuten gaiñera ukapen aren bidez, Erroma iraintzeko asmorik. Alderantziz, beraiek ziran Erroma'rentzat laterkiderik leialenak eta zintzoenak. Ori, apologilari guztiek oiukatzen zuten. Eta inperatoreek, jaurleek, epailleek, jakintsuek, eta aundiki guztiek ere, ibazekiten ori!

Bazekiten baitare, esan-berri dugunez, juduek ez zutela Erroma'ko jainkorik gurtzen, eta bazekiten, kristauak laterkide zintzoak, leialak eta egiazko erromatar abertzaleak ziran bezala, juduak ez zirala Erroma'rentzat ez leial ez zintzoak, arerio gogorak Altaguztiz, ez ziran kristauak bezala zigortuak izan.

Kristautasuna ain azkar zabaltzen ari zalako Erroma'ko agintariak arras kezkatu zirala eta orregaitik, bildurturik, odoletan ito nai izan zutela erlijio

berri ura?

Ez ziran kristautasunaren zabalketa utsagaitik ainbeste kezkatuko, kristautasunean zerbait kezkarri sumatu ez ba'zuten.

Esan ere esan bait daiteke, kristauak beraiek baiño lenago usmatu zutela Erroma'ko jaunek eta jakintsuek kristautasunak bere barruan ememin zekarren gizarte-iraultzaren azia: Erroma'ko gizarte-izaera guztia ankazgora jartzera zetorren iraultza orokor baten azia!

Bi ziran iraultza aren atalak:

Kepa Doneak aldarrikatu zuan aurrenekoa, Sanedriñeko epaillei, «gizonei baiño geiago Jainkoari bear zaio obeditu• esan zienean.

Paul Doneak azaldu zuan bigarrena, •gizon-emakume, judutar-atzerritar, eta jopu-nagusien artean ezberdintasunik ez zala. munduari azaldu zionean.

Kepa Donearen oivak, gizakumearen kontzientzia egiten zuan gizarte--bizitzarako arau nagusia. Gizakumea zan gizartean izaki nagusia, eta gizakumearen gaindik soilki Jainkoa zegoan. Eta Jainkoa ta gizakumearen artean, gizakumea Jainkoarekin lotuz, kontzientzia.

Erakuskintza orren araura, gizakumeak Jainkoari bakarrik obeditu bear dio, eta, beste agintariei, Jainkoaren ordezkari bezala, Jainkoaren legeen araura zuzenki agintzen dutenean bakarrik.

Zuzenki ez baiñan agintari oiek okerki agintzen dutenean, gizakumea agindu oiek ez betetzera bearturik dago.

Ta, agintariengandiko legeen zuzentasun ala okertasunaren epaillea gizakumearen kontzientzia bakarrik da. Era ortan gizakumea da, bere kontzientziaren argiari jarraituz, gizartean goiko eta beeko guztien ariketaren eta gizarte ber-beraren jarduketaren epaille nagusi bakarra.

Gizakumea, bere kontzientzi ori Jainkoaren legeen araura eta, kristaua ba'da, baita Elizaren aginduen araura ere, zuzenki ezitzeraz bearturik dago; baiñan iñork ez dezake gizakumea bere kontzientziaren aurka ibiitzera beartu.

Gizartean oro, agintariak eta inperatorea bera, eta baita gizarte berbera ere gizakumearen serbitzura dago. Egia da gizakumeak baduala besteen serbitzari izateko bearkizun sagaratu, baiñan ez ordea nolainai, soilki bere kontzientziaren argiak erakusten dion eran baizik.

Pentsamentu ori da ainzuzen egiazko ta benetako demokrazi zintzo ooren azia; baiñan, ori, Erroma'ko gizarte-giroak ez zezakean ontzat artu.

Erroman inperatorea ez zan Jainkoaren ordezkari, Jainkoa baizik.

Orregaitik, zentzurik ez zuan Erroman, inperatorea Jainkoaren ordezkari zala eta Jainkoaren esanera egon hear zuala esateak. Inperatorea bera bait zan Jainkoa!

Askoz zentzu gutxiago zuan oraindik Inperatoreak edo Senatuak emandako legeen gaindik pertsona soilen kontzientzia zegoala esateak.

Ori pertsona soilen kontzientzia Laterriko legelari egitea zan Erroma'ko agintarientzat: laterkideak Laterriaren jabe biurtzea. Anarki utsa, Erroma'ko legiztilarien ustez.

Pertsonaren kontzientziaren gaindik Erroma'ko Legea, zegoan Erroman: «Lex Romana». Eta lege ura zan zuzentasun ororen neurria. Orregaitik, lege ark Erroma'ko jainko ta jainkeme zaarrak gurtzea agintzen ba'zuan, Erroma'ko laterkide oro, kontzientzia lege aren agindura makurtuta, Erroma'ko jainko eta jainkemeak gurtzera bearturik aurkitzen zan.

Eriotza bestela, ori egiten ez bazuan.

Bazuan ortan Erroma'k gure aroko Laterri totalitarien antza: Laterriko legearen aurrean pertsonaren kontzientziak ez du ezer balio. Pertsona orok makurtu bear bait du Laterriaren agindura, makurtze orokor ortan dago ba Laterri totalitarien gunea berbera.

Giro ortan Erroma'k ez zezakean ontzat artu Paul doneak eskatzen zuan gizakume guztien berdintasunik ere.

Egia Paul'ek oiukatutako berdintasun ura Jainkoaren aurreko berdintasuna zala: ots, Jainkoarentzat gizakume guztiak berdiñak dirala erakusten duan berdintasuna. Baiñan errez usmatu zitekean, bere barruan zekarrela Paul Donearen irakaskintza iraultzalari ark, mundu ontarako ere gizakume guztiak, giza-eskubideei degokienez, berdiñak diralaren susmoa. Ez al da ori, egiazko demokraziaren ezkurra?

Erroma'k ordea ez zezakean orrelakorik entzun ere: Ikus dezagun zerga itik:

- Ludia-zear, Erroma'ko jendea eta Barbiria'ko jende atzerritarrak, »barbaritarrak», ez zitezkean erromatarrentzat berdiñak izan. Berdintasun ori aitortzea, Erroma'ren aunditasuna gaitzestea zan; eta Erroma'ren edesti aintzakorra gaizkille lapurren kondaira zikiña biurtzea.

Erroma, munduaren jabe zan. Atzerria, ots, Barbaria, Erroma'ren eizatokia zan, baldin an Erroma'k zerbait eizatu bearrik bazuan: esklabu edo jopuak adibidez, janariak, meazkiak...

Orela uste izatera bultzatzen zuan Erroma bere erlijioak ere: Lurrealdeak ez ziran gizakumeenak; jainkoenak ziran. Bazuan ortaz Erroma'k lurrealde bat arrapatzeko eskubidea, lurrealde artako jainko eta jainkemeak gurtuz jarraitzen bazuan.

Esan ere auxe esaten bait zan Erroma'n: «Arrapatutako lurrealde guztietako jainkoak gurtzen jarraitzen dualako, eta lurrealde aiek asmo orrekin arrapatu zitualako, jainko guzti oien laguntzarekin egin da Erroma, egin dan bezain aundia».

- Laterri-barruan Erroma'k ez zezakean jende guztiaren berdintasunik ontzat artu. Laterri-barruan, batzuk gizakume yareak ziran, Beste batzuk berriz, — geienak jopuak. Auek ziran erromar-inperiolurraren oiñarria. Berdintasunaren izenean joputza, ots, esklabutza ezereztea, Erroma'ko ekonomi guztia ezereztea zan; gosez Erroma eriotzara beartzea.

Kristautasunak nai zuan bezala, jopu ez ziranek ere soroetan-da lanean asteak, erromatarrentzat zentzurik ez zuan. Gizakume yareak ez zezakean

«opera servilia» edo •jopuen lanik. egin. Gizakume yareen eginkizuna •opera liberalia» •yareen lanak», ots, soilki adimenaren alorreko lanak ziran. Bazekiten erromatarrek, Platon'ek berak lanaren bikoiztasun ortan oiñarritu zuala joputzaren zuzentasuna: Bearrezkoa da joputza, gizakume yareak adimen-lanetan jardun aal daitezzen.

- Sendiaren altzorako ere ez zezakean Erroma'k sendikide guztien berdintasunik onetsi. Ez zezakean aita-ama-umeen eskubideen kidetasunik ontzat artu. Ikusi dugu, nolako •bakalduna», nolako •errege alguztiduna» zan sendiaren barruan aita.

- Zer esanik ez kristautasunak zekarren aszetika ta giza-oitura edo moralitateari-buruzko iraultza, erromatarrentzat ulerteziña zala: kristautasunak gizakume ororen biziari, etsaienganako maitasunari, birjintasunari, eta kastitate edo garbitasun orokorrari ematen zien garrantzia adibidez, nola Erroma zikin ark aditu? Zer pentsa zezakean Erroma'ko jentil batek Josu'ren zazpi •zorionak» entzutean?: zorionekoak, txiroak; zorionekoak, negar dagienez; zorionekoak, zuzentasunaren maitale diralako zigortuak...

Ez. Erroma ez zitekean orrelako iraultza zekarkion Elizarik ezereztu nai gabe gelditu. Bearrezkoa zuan alako arerio ura odoletan itotzea.

- Alare, Eliza txikia izan zan bitartean Erroma'k ez zuan larritasun geiegirik sentittu. III mendearen erdian estutu zan Erroma, eta orduan asi zitzaion Elizari benetako zigorketa-aro gogorra.

Trajano'ren denborako zigorketak ez du zigorketa izenik merezi, kristauen aurkako jokaera lendik, Neronen denboratik, bait zetorren. Ongi dio edetilari españiar onek, berak •ley» esaten duan tokian zuk «jurisprudencia» edo •epaitze-oitura» ulertzen ba'duzu. (Erroma'n ez bait zan kristauen aurka legerik eman, III mendean Dezio'k inperatoretzta artu zuan arte):

•Trajano sabia muy bien que existia una ley contra los cristianos». •Esa ley persistia y se confirmaba pero recibla (con Trajano) notable mitigaciOn. No habia necesidad de buscar a los cristianos. He ahi la gran mitigaciOn. Pero si eran acusados y perseveraban en su fe, debian ser castigados. Ambos extremos se explican bien en el caracter de Trajano. Por esto no es muy acertado llamar a su reinado tercera persecuci3n. De todos modos como persistia la ley hubo gobemadore,s que urgieron su cumplimiento y por eso hubo tambi3n martires ilustres» (Llorca).

•Iregarren zigorraldia» esan oi zaio Plinio'k sortarazi zuanari. Baiñan kristauen aurkako Erroma'ren zigorketa osoa amar zatitan ebakia izate ori, edetilari kristauen asmakizuna dugu:

Bi zigorketa I mendean: Neron, Domiziano. Lau II'ean: Trajano, Mark-Aurelio, Antonio, Komodo, Septimio Sebero. Lau III'ean ere: Maximino Traziarra, Dezio, Baleriano, eta Diokleziano.

Erroma'ko zigor-aroa, amar pusketan zatituta, Ejito zarreko amar izurrite aiekin kidatu nai izatea beste oiñarririk ez dualako, gaur-egungo edestilariak ez diote amarreko orri jaramonik egiten. Izan ere, Domiziano eta Dezio'ren arteko mende t'erdi luzeko astia, zigor-aro bakar bat izan zala esatea askoz egokiagoa bait da, orrela zigorketen kopurua bostera jetxiz.

Mende t'erdi artan Trajano'k emandako erabaki bikoitz ura izan zan Erroma'ko inperiolur osoan kristauei-buruzko arau bakarra:

- Ez bitez billatuak izan; salatuak ba'dira, zigortuak bitez-.

- Ederki erantzun zion Trajano'ri gure Tertuliano zorrotzak:

- Ernidunak ba'dira zergaitik ez dituzu billatzen? Errudunak ez ba'dira zergaitik zigortzen dituzu?»?

Galde bikoitz orrek ez zuan erantzunik iñorengandik jaso. Alare Trajano'ren agindu baldar ura izan zan kristauei-buruz Erroma zuzentasun-zale artan arau bakarra II mende osoan eta III'aren lenen erdian.

Kristauek probintzietako jaurleen iritziaren mendean zeuden. Probintzi batean jaurlea etsai bazuten, zigortuak ziran, alboko probintzian pakean bizi ziran bitartean. Nolako jaurlearen jitea, alakoa kristauen zoria.

Maiz aski erriko jende landerra izaten zan, Jerusalemgo jendillajeak Pilato'ren aurrean Josu'ren eriotza eskatu zuan bezala, kristauen eriotza epaille erromatarren aurrean eskatzen zuana. Orregaitik, nolako probintzi bateko jendea, alakoa izan oi zan kristauen biziera.

Trajano beraren erabaki ark Trajano inperatore zala zenbat ziriopa sortu zituan ziur ez dakigu. Garrantzitsuenak auetxek ditugu:

- I Klemente Donea, Elizaren laugarren Aitasantua, aipatu oi da aietako bat bezala. Baiñan ziñopa il zanik eskier ez dakigu.

Kondairak bai, era bitxian esaten digu kondairak Klemente Kersoneso'ra, gaur-egungo Krimea erdiugartera izan zala erbesteratua, eta an ere kristautasuna aldarrikatuz jarraitu zualako, aingura bat lepotik lotuta Itxaso Beltzera jaurtia izan zala.

Ori ordea, kondaira edo -leyenda- utsa besterik ez dugula dirudi. Ireneo eta Jeronimo Doneek Aitasantu ontaz mintzatzerakoan ez dute beintzat orrelakorik aipatzen.

- Simeon Donea. Jerusalemgo gotzaia zan, Jakoba Jaunaren Anaia-eraila izan zanez gero. Bera ere -Jaunaren Anaiaetako-. Orregaitik ainzuzen, Dabid'en oiñordeko zalako, izan omen zan erromatarrei salatua, eta, salatariak, bere artaldeko judukristau judukerizaleak izan omen zituan.

Eusebio zesareatarrak dionez, 107 urte zituan Simeon gotzaiak, oiñazeketa izugarrien ondorean gurutzera iltzatua izan zanean.

Egesipo'k berriz, judukristau salatari aiek ere, erromatarrek Dabid'en oiñordekotzat artu zituztelako, gurutzera galduak izan zirala diosku. Juduak Mesia, Dabid'en Semea, bereala etortzekoa zala oiuka zebiltzan ezker, gogor ari bait zan Erroma Dabid'en belaunordeko izan zitezkeanen aurka.

- Iñazio Donea, Antioki'ko gotzai ospetsua. 107'garren urtean izan zan Erroma'ko zirkoan ozkaka pizti basatiek erailla.

Antioki'ko Iñazio Donea dugu, Apostoluen eriotzaz gero, lenen-lenengo Elizan idazlerik garrantzitsuen eta ezagutuena. Millaka aldiz izan dira goi-aitatuak Antioki'tik Erroma'ra katigu zijoala idatzi zituan zazpi epistolak: Aietatik bost, Asi-aldeko Elizei: Efeso, Magnesi, Tralles, Filadelfi, eta Esmirna'koei. Beste bat Eliz ontako gotzai zan Policarpo Doneari, eta zazpigarrena Erroma'ko Elizari.

Garrantzi aundikoak dira danak antziñako Eliz aien izaera nolakoa zan jakiteko, eta Iñazio beraren nortasuna ezagutzeko. Erroma'ko kristauei idatzitakoa batez ere. Bertan agertzen bait zaigu argi, **eta orduango** kristaudiak, Josu'ri zioten maitasun neurri gabea.

Iriazio'ren leiarik aundiena, bere odola Josu'gaitik ixurtzea da. Badaki Erroman kupidarik gabe zigortua izango dala, eta gero piztien agiñetara jaurtia zirkoa-bete jendearen aintzinean.

Bildur da Erroma'ko kristauek, arrazoitzat bere aguretasuna-edo artuz, inperatorearengandik ez ote dioten bizia gorde aal izatea lortuko, eta orrela Kristo'ren ziñopa izatea eragoziko. Arren-da-arren eskatzen die orrelakorik ez egiteko. Ona, Iriazio'ren gutuneko esaldi batzuk:

«Ez dezaidala iñork... Josukristo lortzerik galerazi. Sua, gurutzea, piztitaldeak, ezur-austea, gorputz-atalak lokatzeak, nere gorputz osoaren eiotzea, eta deabruagandiko beste oiñaze ikaragarri guztiak... betoz danak nere gaiñera, nik Josukristo lortu dezadan».

Jainkoaren garia naiz, eta piztien agiñek eio bearra nauzute Kristo'ren ogi garbia izatera iritxi nadin. Auxe eskatzen dizuet: Ez zaitezteia nitzaz era okerrean kupidatu. Utzi eidazute piztien janari izaten, piztien bidez iritxiko bait naiz Jaungoikoarengana.

«Neretzat gerturik dauden pizti oiek izango dira nere atsegiña. Nere gaiñera bizkor jauzi egin dezaten, nik neronek egingo diet oi. Nere dei goxoari erantzun nai ez ba'diote, nik neronek axatuko ditut, len-bait-len irentsi nazaten, batzuei gertatu zaiena gertatu ez dakidan: piztiak, bildurtuta, ukitu bat ere egin ez izatea, alegia. Nik neronek zirikatuko ditut, nerekin ori egin ez dezaten».

•Gugaitik il zan Aren billa nabil; gugaitik berbiztu zan Ura nai dut aurkitu. Ta nere •jaiotza», nere aurrean ikusten dut. Barkatu, anaiok, baiñan ez eidazute •bizi» izaterik galerazi. Ez zaitezte nere •eriotza lortu naiean ibilli, nik Jaungoikoarena izan nai dut eta. Utzi eidazute Bere Argia ikusten. Beragana iristen naizenean izango bait naiz benetan osoki gizona.

•Niganako zuen maitasunari diot bildur!

•Nere Maitea gurutze batean josirik dago.

•Utzi eidazute nere Jaungoikoaren nekal-di-bidea jarraitzen!

Antioki'ko Iriazio'z eta Jerusalemgo Simeon'ez landa, aro artako beste ziñopak ezezagunak ditugu. Izan zirala, bai, badakigu. Baiñan nor eta zenbat, ez.

Garai artakoa zan, 89'garren urtean Erroma'tik erbesteratua izan zan Epikteto. Ba, idazle greziar jentil onek, orduango martiri ezezagun aiek

dakarzkigu gogora. Bere idaztietan mintzatu bait zitzaigun aldi artako
«galilearren-, ots, kristauen setakeriaz eta «fanatikeriaz».

Orrek, kristauek bere sinispideari tinko eutsi ziotela, adierazi nai digu.

GARAI ARTAKO FILOSOFI-ERAK

Laister asiko bait dira Erroma-ren inperiolurreko jakintsuak elizaren aurka borrokan, bearrezkoa dugu noski jankitsu aiek beren jakintza zer iturrietatik edan zuten azaltzea:

•Filo-sofia• itzak, «jakintzaganako maitasuna• esan nai du. Ikus dezagun nolakoa zan, Eliza mundura agertu zanean, mundu artako gizakumeek •maitatzen zuten jakintza».

Bizirik zeuden oraindik Errorna-ren inperiolurretan, Sortaldean bereiziki, Grezi zarreko filosofiarrien irakaspenak; eta irakaspen aietatik sortu ziran pentsabide berriak: Estoitasuna eta Platontasun berria bereiziki.

Ejito'ko Alexandri izan zan erromatekoan, beste uri guztiak baiño geiago, filosofigintzaren kabi urduria.

Ez dugu emen filosofikera oien azterketa egiteko betarik aski. Soilki, beren aburuetatik, erlijioarekin zer ikusirik dutenetaz bakarrik, naiz laburki, zerbait mintzatuko gera.

ZINIK-ERA, deitzen zaion filosofi-erak •zakurra• esan nai duan elenerazko «kyon» itzetik jasoan omen du izena, bere sortzaille izan zuan Aristene'k, Krist'aurreko IV mendean, •zakurrarena• esan oi zitzaion jimnasi-areto batean erakutsi zualako.

Sokrate-ren ikasle izan zan Platon'ekin batera. Eta, Platon'engandik sortuko bait da, Aristotele-bitarte, platontasun berria..., eta Aristene-ren ikasle izandako Zenon'engandik estoitasuna, Sokrate izan genuan lenen Elizaren garaietako filosofiaren iturburu nagusia.

Sortzaille Aristene izan bazuan ere, zinikerak, bere filosofiaririk ezagunena Diogene izan zuan. Filosofi-era bat baiño geiago, ordea, zinikera, gizartean yare bizitzeko bide bat izan zan. Yare, eta gizarteko oiturei bizkar-emanetz.

Gaur-egungo bizar luzedun praka zanez jantzitako txepel oiekin zer ikusirik ez zuten ordea zinikezaleek. Aiek, zintzo bizi naiean, zintzotasunaren billa gogor saiatu ziran gizakemeak izan bait genituan.

- Izan ere, bizitza yare artan, zintzotasuna zuten elburu.
- Zintzotasunaren muiña, askatasun orokorra omen da; yaretasun osoa.
- Arrazoiaren argira, nor-bere naimenak eratu bear omen du nor-bakoitzaren biziera; ez, gizadiko arau, lege ta oiturek.
- Askatasun orokorrak ez du erantzukizunik ukatzen. Gizakumeak badu erantzun bearra, baiña bere arrazoiaren aurrean bakarrik, eta gizadiari gaitzik egin gabe.
- Mundu ontan baliozko gauza bakarra, era ortan askatasuna-bidez lortutako zintzotasuna da.
- Beste gauzek, aberastasunak, gozamenak, maitatua ala gorrotatua

izateak, ez dute batere baliorik, eta beraiei jaramonik egin gabe bizi bear du gizakume zintzoak.

- Batez ere gozarena eta atsegiña zituzten etsai, arrazoiaren aurkakoak diralako eta gizakumearen askatasuna kate ausikaitzez lotzen dutelakako.

- Gizarteko arau guztiak, erlijioa bera, eta ezkontza, kaltegarriak dira gizakumearentzat, askatasuna mugatzen diotelako.

- Jakintzek beraiek ez dute ezertarako balio, jakintzek erakusten dituzten gaiak, biziera zintzoa eramateko ez bait dira batere bearrezkoak.

Izan daitezke kaltegarriak ere, gizakumearen adimena bide ezerezetatik eraman dezaketelako. Logikak adibidez ez omen du, •tautologiz• edo •iriozokeri ber-berak esanez-eta-birresanez«, adimena nasteko besterik balio.

Bakoitza bere •askatasun orokorrean. kokaturik, biziera latza eraman zuten zinikezale zaar aiek.

Gure aroko I mendean, aski indar aundia artu zuan Erroman zinikerak, baiñan aro ontako zinikezaleak ez bide ziran Grezi'ko beste zar aiek bezain basatiak; Erroma'ko legeekin ez zegoan ba olgetan ibiltzerik.

Badakigu gaiñera, estoitarrei aiñako eraspina izan zietela erromatarrek zinikerazaleei.

•**

PLATON, Krist'aurreko V mendean bizitu zan. Gizon maitagarria benetan.

Asko maitatu zuten beintzat lenen mendeetako idazle kristauek.

Beste gauza guztien gairdik, bere barne-barnean, giza-ezitzaille izan zitzaigun Platon. Bere filosofigintza guztian, azken elburua, gizakumeen eta gizadi osoaren oiturak zuzentzea izan zuan.

Ori lortzeko ordea, naitanaiezko gauza ikusten zuan erlijioa. Baiñan ez zitzaion atsegin Grezi'ko erlijio •politeista• edo •jainkoaskodun» ura. Ez da ordea erreza, Platon'ek berak amesten zuan Jainkoa zer eta nolakoa zan igartzea.

- Jainkoa, Platon'en Jainkoa, gogapen utsa ote?

Platon'en ustez, mundu au baiño leenagokoa bada beste mundu bat: •Gogapen Utsen. mundua. Mundu ortako izakiak gogapen •Utsak. dira («ideae abstractae»), gogapen •Orokorrak- («ideae universales).

- Platon'entzat gogapenak bakarrik izan daitezke jakintzen gai. •De su maestro Sócrates Platón ha heredado la firme convicción de que la ciencia es de lo universal, permanente, e inmutable• (Yurre).

- Gogapen oiek ez dira adimen baten fruitu edo emaitza, ezta Jainkoaren adimenaren emaitza ere. Badute berenez beren izatea, eta adimen guztiak baiño leenagokoak dira. Betidandikoak. Dirudianez, Jainkoa ez da, gure Platon'en ustez, izaki ororen egillea.

- Gogapen utsen mundu artan, gogapenik aundiena, bikaiñena eta

garaiena, •Onaren Gogaperia» da. Onaren Gogapen ori ote Platon'en jainkoa?

- Gogapen utsezko mundu orren araura izan da beste gure mundu au Nork egiña? Onaren Gogapenak? Orrela, Platon'entzat, Onaren Gogapena ote da Jainkoa? Ta, Onaren Gogapen ori... Gogapen Utsa ez ezé, egiazko Pertsona ere bai ote da? Ala, idealista utsa izan ote zitzaigun Platon?

- •Demiurgaz ere mintzatzen zaigu Platon. Eta izaki orri Jainko esaten dio. Demiurgo ori, gogapen utsen munduaren eta gure munduaren arteko izakia da. Berak egin du gure mundu au. Ortarako, beste goi-mundu artako gogapen utsak izan ditu eredu; eta materia izan du berriz gaia. Materia, Platon'en ustez, eta Grezi'ko filosofilari guztien ustez, betidandiko zerbait bait da.

Beraz, demiurgo ori, ez da mundu onen sortzaillea, eratzaillea baizik.

Baiña bai Demiurgo orri, eta baita Gogapen Utsei ere sarritan, jainko esaten die-ta..., •politeista», •jainkoaskokeri-zalea» izan ote zitzaigun Platon? Izatedun orori ere maiz esaten bait dio •jainkotiarra.!

Gaiñera, batzuetan Jainkoaz. eta beste batzuetan «Jainkoetaz» mintzatzen bait da bere idaztietan, ezin izan dute jakintsuek Platon'en jainkoa zer eta nolakoa dan era ziurrean erabaki.

- Alatagutiz, Jainkoa da Platon'entzat arazorik garrantzitsuena. Eta badirudi Jainkoaren batasunaz oartzera iritxi ere zala. Ori beintzat adierazten du, jainkotasunari-buruz ark esan zituan guztiak batera bilduz atera daitekean iritziak. Soilki, era egokian Jainkoaz itzegiteko, teologizko izkera aratz eta ziur bat peitu zitzaion Platon'i.

- Jainkoa badala egiztatzeko, iru bidetik jotzen du Platon'ek:

¹: Igikundearen bidetik: Izadian ez litzake igiketarik, ots, mobimenturik izango, igiketa ori izadira Norbaitek ez ba'lu sartu. Igiketa orok bear bait du igitzaille bat. Eta lenen igitzaille orrek igikunde ororen sortzaille izateko, iñork ez igitua izan bear du berak: •Primus motor inmovilis», eskolastikoez gero esango zuten lez: •Lenen igitzaille igikaitza».

²: Antolaketaren edo ordenaren bidetik: Izadian guztia dago ederki antolaturik. Antolaketak ordea, naitanaiez antolatzaille bat eskatzen du.

³: Siniste orokorraren bidetik: Denbora guztietan, bazter guztietan gizakume danek sinistu dute Jainkoa badala. Gizadi osoa ez daiteke atzipeturik egon.

- Gizakumearen elburua, Jainkoaren ontasuna eredutzat artuz bere izate ta egite guzia Aren antzera zuzentzea omen da. •Aren itxura artuz Arengana urbiltzea»: •Ornoiosis Zeo kaia to dunaton».

- Gizakumeen animak, soñeratu aurretik, •gogapen utsen» mundu artan bizitzen dira. Mundu artan izan ziran 13ª •Dernturgoak» egiñak.

- Gero, an pekatu bat egin zutelako, gizakumeen gorputzei bizi-ematera epaituak izan omen ziran. Gorputza, espetxe bat omen da ori egitera beartutako anima ororentzat: espetxe makurra, pekatari izan zalako bertan katigu dagoan anitua pekatu geiagotara okertzen dualako. Animaren

askapena da, beraz, eriotza.

- Gizakumearen anima, illezkorra da.

- Izadiak berak ere bai omen du, Demiurgoak txertatu zion anima bat.

•Ats kosmikoa», ots, •Izadi Osoaren Atsa», esaten dio anima orri, eta anima orri eskerrak omen da izadia •arrazoizko gauza», ots •arrazoiak eskatzen duan erara antolatua», eta, orregaitik, •arrazoiak ulertu dezakeana».

XIX mendeko Hegel ekarriko dizute noski gogora Platon'en esakizun oiek.

- Gizakumea soñez eta animaz osotutako izakia da.

Baiñan, Platon'en anima ori, bakarra ote da, ala... irukoitza?

•La estructura del alma humana es tripartita. Distingue Platón dos partes: una racional («to logistikón») y la otra no-racional que se subdivide en dos: el valor o parte irascible («to zimoides») y el apetito o parte concupiscible («to epizimatikón»). •Se trata de tres almas, de tres partes realmente distintas o de tres funciones de una misma alma? La cuestión puede ser discutida» (Yurre. Azpimarraketa, berea).

Gure ustez, giza-animaz itzegitean Platon'ek aipatzen dituan iru •zerbait» aiek: •arrazoizkoa» («logistikón»), •kemenezkoa» («zimoides») eta •grfflazkoa» («epizematikón), ez dira iru anima. Ezta anima baten iru zati ezberdiñak eta alkarrengandik bereziak ere. Soilki, anima bat bakarraren iru aalmen dira, edo, berdin dana, iru ari-bide ezberdiñak: •tres funciones.

Gorputza berriz izaki gaiztoa da Platon'entzat. •El cuerpo influye perjudicialmente en el alma en razón de sus bajar tendencias y mas que un colaborador o co-principio es un enemigo de la razón y de la sabiduría. El cuerpo es es una cárcel: la muerte constituye una liberación» (Id. Azpimarraketa, nerea).

Ataltxo au geiago luzatzerik ez dugu. Baiñan orrelakoa duzu Platon: Argi... eta illunbe; ez oso ulert-erreza; askotan, gaiñera, mitoen eta irudien alorretakoa dan izkeraz mintzatzen dala ematen bait du.

PITAGORITASUNA. Platon baiño zarragoa dugu Pitagoras. Krist'aurreko VI mendekoa. Ez da erreza berak *zer* erakutsi zuan eta berak erakutsi zuanari bere jarrailliek zer erantsi dioten jakitea.

Danadala, pitagoritasunaren muiña, zenbakiak, ots, numeroak, dira. Izadi osoaren, eta izadiko izaki guztien zertasan ere, zenbakiak bait dira: •ousia» edo .substantia rerum».

Eztare, ez da erreza pitagoratarrek zenbakitzat zer ulertzen zuten jakitea. Orduango atomisten antzera luzetasun, zabaltasun eta sakontasun arras ttipiko izaki txiki batzuk? Oraingo fisikolari batzuen araura, luzetasun, zabaltasun eta sakontasunik gabeko indar utsak? Beste zerbait?

Guri ordea, soilki erlijioarekin loturik dauden gaietaz erakutsi zutena

zaigu emen ajola.

- Anima, gorputzean, espetxe batean bezala baiturik dago.

- Anitaua, illezkorra da. Mundu ontan ona izan ba'da, iltzean biziera obeago batera joanen da. Gaiztoa izan ba'da berriz, -tartaro• deritzan inpernuko zigorretara.

- Ori ordea... noiz? Idazle zar guztiek diotenez, pitagoritarrek anirnen •transmig,razio- edo gorpu-aldakuntza. erakutsi bait zuten.

Beste pitagoritar batzuen ustez, ildakoen animak, aidean gelditzen omen dira, gure inguruan, eta orrela dabiltzan anima oiek bai omen dute gizakumeon aurrean agertzeko aalmena.

- Jainkoa ta izadiaren artean •Daimones- izeneko izpiritu batzuk bazirala, uste izan zuten pitagoritarrek. Ez omen dira gaiztoak. Zer diran? Ez da erreza erantzuna. -Izadiko izpirituei» ere •daimones- esaten bait zieten pitagoritarrek. Ortaz, pitagoritarrek izpiritu biurtutako izadiaren indarrak ote dira?

- Pitagoritarren jainkoa nolako zan ez dakigu. Batzuek, Jainkoa bakarra dala jakiteraifio iritxi zirala dirudi. Geienak ordea, erriaren erlijio jainkoaskodunaren jarraile izan ziran seguruaski.

- Gizakumearen elburua, zintzotasuna lortzea besterik ez da. Ortarako, Jainkoaren itxura artzen saiatu bear du. Baiñan ez omen dezake bide ortan ezer lortu Jainkoaren beraren laguntzarik gabe.

- Zintzotasuna lortzeko, eguneroko kontzientzi-azterketa ere erabili oi zuten.

Egia esan zigun noski Aristotele'k •pitagoritarrek onbide edo birtute guztien maitale izan zirala« idatzi zuanean.

Eskola• esaten zieten taldeetan banaturik zeuden. Eskola oietan berriz filosofiari aiña beta ernaten zioten **ta, barauen eta ekintza onen** bidez Jaungoikoagana urbiltzeari.

Ikusi dugunez, ez zan txikia izan antziña-antziñako pitagoritar aiek erlijioari eman zioten ardura.

ez zan txikiagoa izan, gero, gure aroko II mendean neopitagoritasunak eman ziona. Baiñan, pitagoritar berri auek, bikoiztasun okerrera jausi ziran:

- Bi izaki-era ornen dira izadian: Gogoa, izpiritua, eta materi edo gorpuzkia. Eta azkeneko au, gaiztoa omen da: gaitz guztien iturburua. Bikoiztasun orren araura bi izaki-mota omen ditugu mundua; -Gogozkoak«, (izpirituek), eta •gorpuzkoiak«, (materizkoak). Bikotzasun ori, berealaxeko manikeitarrek bezala, gnosikeritik artua izan zuten seguruaski.

Pitagoritarren oldozkerak izan zuan birpiztutze sendo bat Kristo'ren denboretan: Neopitagoritasuna, edo Pitagoritasun Berria.

- Jainkoa, pitagoritar berrien ustez, Izpiritu utsa da.

Pitagoras'en bizitza idatzi zigun Tiana'ko Apolonio dugu pitagoritar berri auen artean ezagutuena. Eta ez, ainzuzen, filosofilari aundia izan zalako, gero ikusiko dugun bezala Apolonio ori, kristautasunari aurka egiteko, II mendean beste Kristo bat bezala aurkeztua izan zalako baizik.

Ortarako, aren bizitza zala esanez, nobela bat idatzi zigun Filostrato izeneko idazle jentil batek, Apolonio ura, bai gizon santu lez, mai maixu lez, bai mirarigille lez, Kristo baiño aundiagoa izan zala iragarri naiez.

EPIKUROTRASUNA, Krist'aurreko IV mendean Epikuro'k Grezi'n irakatsitako aburubidearen izena da.

Ona, bere atalik garrantzitsuenak:

- •Etika» edo •giza-bizitzarako arau egokien billaketa» da filosofiaren zatirik ederrena eta bearrezkoena.

- Giza-bizitzaren elburua, zoriona da. Zorionera nola iritxi erakustea da beraz etikaren zer-egiña.

- Zorionaren zertasuna berriz, animako pakea besterik ez da.

- Pake ori lortzeko, oiñaze, bearkizun eta gurariatatik yaretu bear du gizakumeak bere burua.

- Ta, yaretasuna ardiesteko, •nor bere buruaren jabe izatea, eta «era bakun apalean bizitzea», dira bideak.

Bakartasunean bizitzearen maitale izan ziran epikurotarrak. Eta ori, ez gizarte-bizitzaren etsai ziralako, gizarteko arremanez eta bearkizunek animako pakea urratzen dutela uste izan zutelako baizik.

Epikurotarrak ez ziran Iizunkeri-zaleak askok uste izan duten bezala.

Ardietsi nai zuten «atsegiña», animaren atsegiña bait zan, ez, gorputzarena.

ESTOITASUNA: izena, •atari» esan nai duan «stoa» itzetik artu omen zuan filosofi-bide onek. Bere sortzaillea, Krist'aurretiko IV mendean azkenean zinikera-zale ikusi dugun Zenon. Orregaitik, zinikeraren esakizunak aurk ituko ditugu estoikeran. Ez ordea zinikeritar aiek gizadiari izan zioten erdeñurik.

Atenas'ko atari edo •stoa» batean erakutsi omen zuan Zenon'ek.

Zinikerak baiño askoz filosofi-muin sendoagoa du estoikerak. Altagutziz, filosofia baiño geiago da zintzotasuna lortzeko aolku-sorta bikain bat.

Erljioari izugarritzko garrantzia eman zion, baiñan bere erlijiotasuna, orojainkotasun edo panteismoan oiñarritua da.

- Panteista dugu estoitasunaren kosmologi edo izadiztia ere: Oro, .materia» edo gorpugaia da; baita izpirituzko izakiak, ots, animak ere; eta baita Jainkoa bera ere. Materi meeagoa, ariñagoa, gurenagoa, fiñagoa, baiñan •materia» altagutziz. Izadi osoa bezala. Ta, materi ori, betidandikoa da.

Aburu orren altzoan,

- Jainkoa, izadiaren egille baiño geiago, gauza guztien gunea da.

-Jainkoa, bere gunetasun ortatik gauza guztien •Pneuma» edo Anima ere bada. Gizakumearen arima berriz, Jainko-Anima orren txinparta.

- jainko-Anima orrek beregan daramazki gauza guztien sort-buru diran logoi spermatikoi., edo •izpirituzko aziak..
- „Logoi» edo •izpiritu izate-emaille» diran •azi» oietatik sortuak dira izadian diran izaki guztiak.
- Baiñan, sortzez Jainkoaren luzamena edo zabaltasuna bezalako zerbait diran izaki oiek, izatez eta irautez eta aritzez ere jainkoari loturik aurkitzen dira barrendik, Jainkoa bera bait da izadiaren Anima, eta izadiaren bitartez ari dana. Esan ere, ia-ia esan bait dezakegu, estoatarren ustez izadia Jainkoaren «axala» edo orrelako zerbaiten antzekoa dala.
- Bai izadian, bai gizadian, bai gizakume bakoitzean, izadi osoaren Anitua dan Jainkoak eraturik aurkitzen da guztia.
- Jainko-Anima orrek orrela aurre-erabakirik daukalako gertatzen da gertatzen dan guzia. Ez da beraz askatasunarik.
- Izadia betidandik Jainkoak araturik dagoalako, izadiaren araura bizitzea du gizonak bere zoriona lortzeko bide bakarra.
- Eta gizakumearen zertasunaren muiña arrazoia dalako, arrazoiak erakutsiko dio, izadiaren araura nola bizi.
- Izadiaren araura nola bizi erakusten duan jakintza, Etika da; jakintza osoaren atalik nagusia beste biak bere serbitzari bait dira: Logikak, arau oiek aurkitzeko arrazoiak nola erabili erakusten dio, eta, Fisikak, ortarako izadi beraren gauzetaz nola baliatu.
- Gizakumearen elburu bakarra, izadi-legea betez, zintzotasunera iristea da. Beste gauza guztiak ez dute batere baliorik. Aberastasuna, txirotasuna; atsegiña, oiñazea; bizitza, eriotza... ezertxo ere balio ez duten gauzak dira. Eta danetatik yare bizi bear du gizonak •apaltheia» edo •ajolik-ezarailio» iritxi arte, ots, gauza oiengaitik •griria mingarrink» ez sentitzera iritxi arte; «pathos» eleneraz, miña eta •oiriazea» bait da. •Aphateia» berriz, «mitiarik-eza..
- Zintzotasuna lortzea ez dan gurari eta griña oro ezereztu bear du beregan gizakumeak, zintzoa izatera iritxi nai ba'du. Zintzotasunerako bidean griñak bait ditu eragozpen bakarra; griña guztiak, baiñan griña txarrak bereiziki.
- Gertatzen dan guztia Jainkoak orrela erabakirik daukalako gertatzen dala jakiñik, eta mundu ontako beste gauza guztiak bezala oifazeek, naigabeek, eta eriotza berak, batere baliorik ez dutela ere badakilako, gizakumeak ez du zoritxarrean kukildu bear, ez du bere nagusitasunik galdu bear: Jasan eta laga», izan zan esteitarren •etika» zailleko ikurritza:
- Jasan, minsor, gertatzen zaizun guztia. Laga, gertatzen zaizkizun naigabeengaitik negar-egiteari. Uko, oiriaz-e oiuei, asarretzeari, eta arrenkura guztiei; zuk, ororen gaindik, yare bizi bear duzu-ta..! Ori dugu estoitasuneko aszetikaren gunea.
- Erljioari dagokionez, beti izan ziran estoitarrak arras erlijiozaleak, batez era gure aroko I eta II mendekoak: Epikteto, Seneka, Mark-Aurelio inperatorea...

Aipu berezia merezi du estoitarren artean Seneka'k. Izadi osoaren •Ats» edo •Anirna» omen dan Jainko ori Pertsona dala uste izatera iritxi zala bait dirudi. Pentsa daitezkean gauzarik ederrenak esaten ditu Jainko orren aunditasunaz, edertasunaz, ontasunaz, eta izaki guztientzako Jainko orrek duan «probidentzi» edo •ardura maitekorraz».

PLATONTASUN BERRIA, •neoplatonismus», esan oi zaio filosofikera oni, eta naiz izen orrek bereiziki Platon aipatu, filosofi-oldozkera au, Grezi zarreko filosofilariiek sortutako gogoeten sorta izan zitzaigun. Bereiziki Pitagora, Aristotele, eta nola ez, Platon beraren aburuak gaitzat artuz eratutako filosofikera dizdiratsua, naiz ez, zirudian bezain sakona.

Kristo'ren aro berean Sortaldean, Filon pentsalari judutar ospetsuaren Alexandri'n batez ere sortzen asia, Plotino'rekin III mendean iritxi zitzaigun bere gaillurrera. Au izan bait zan •the one great phylosophical and reliuiuos genius of the school», •eskola artako filosofi eta erlijio-oldozle guren bakana. (Enc. Brit.).

Ederki aipatua, esaldi ortan, Plotino'ri-buruz, aren erlijiotasuna. Au, erlijioaganako zaletasuna, izan bait zan platontasun berriaren aldetik atalik ikusgarriena:

•El neoplatonismo no es sOlo una reelaboraci6n de ideas de otras escuelas y filOsofos intermedios, aristotelicos, platOnicos, est6icos y epicUreos: sobre todo ello encontramos un nuevo impulso interior, el sentimiento religioso y místico, que es la característica de la epoca y que explica la peculiar pulsaciOn espiritual de los escritos neoplat6nicos» (J. Hirschberger. Gazteleratzaille, Martinez Campos).

Erlijiotasun orrek, bat baiño geiago eraman zuan mistikara plantontasun berri zaleen artean. Arrazoiketa utsezko aski mistika txukunera batzuk, ez ordea ain txukunera beste batzuk.

Alatagutziz oso axalekoa da, eta ez du ezer berririk platontasun berriaren teodizea edo •jainkoari-buruzko filosoflak». Ikus:

- •Izatedun oro-, «omne ens», bata bestearengandik dator, •argitik argia bezala»: •Iumen de lumine».

- Lenen Izateduna, •Bata» da: •to En-, eleneraz; ..el lino-, gazteleraz.

- •Bat» ortatik dator dan guztia.

- •Bat»etik lenen irten zana Adimena izan zan •o Nous».

- •Nous» ori da Platon'ek •Derniurga esaten ziona. •Logos» ere esaten zion: Gure izkeraz, «Itz»; eta •Gogapen». Gogapenak, adimenaren itzak bait dira. Naiz kanpora irten ez, adimen-barruan sartzen diran itzak.

- •Nous» ortatik,irten zan •Anima Orokorra-, •Psije-

- •Psije» edo «Anima Orokor» ortatik, lendabizi, gizakumeon animak irten ziran, eta, gero, •Anima Orokor ura materi edo gorpugaiarekin alkatu zanean, .animarik gabeko izadi osoa-, •K6smos Aisthent6s», sortu zan.

- .Anima Orokorrekin» alkartu zan •materi» edo gorpugai ura, betikotasunetik badan izakia da: forma edo itxurarik gabeko izakia. Ots, erdiaroan eskolastilarien •materia prima» izango dana, baiñan betidandikoa, ez Jainkoak egiña, edo, platontasunberri-zaleen izkeran, ez, Jainkoagandik irtena.

Nai nuke, emen oar bat iñork egiña izan ez dan, eta, orregaitik, betidandikoa dan •materia aetema informis» bat badala, Grezi'ko filosofilari guztien ustea izan zala, alegia, len ere esana dedan lez.

Estoitasunak, gero, aszetikalari kristauen artean eraginmen aundia izango duan bezala, aundia izango du platontasun berriak ere gure teologilarien artean.

Alatagutziz, nabarmena du platontasun berriak, ikusi aal izan duzun lez, panteismo edo orojainkotasunaren usaia, izadi guztia, Jainkoaren zertasanatik irtendako gauza dala esatean, izaki bakoitzaren zertasuna Jainko beraren zertasanaren zatitxo bat dala usteerazten bait du.

Gaiñera, platontasun berriaren kosmologi edo izadiztiak olerkarien poema geiago dirudi, benetako filosofiaren aburu sendoa baiño.

Sarri aurkituko ditugu Grezi'ko eta Erroma'ko filosofilari eraspengarrien aburuak, mendeak-zear, Elizako idazleen liburuetan. Baita askotan aien itzak, eta, are geiago, itzez-itaz aien esakizun osoak ere kristautasunez igurtzirik.

Ederki gertutu bait zion filosoflak teologiari bidea.

Filosofi-zaleek berriz errez oartuko ziran, zenbateraiño egon zan, egon dan, eta oraindik dagoan gaur-egunean bertan oldozlari guztien ariketa antziñako aien filosofi zarrean oiñarritua.

Ta danok oartu gera, zenbateraiñokoa izan zan jakintsu aiek erlijioaganako izan zuten ardura. Ikusi dugu, baitare, aski berdiñak zirala guzti aien leiak, eta askotan ia itz berdiñen bidez emanak gaiñera. Ez da, ori, arritzeko gauza: danen guraria bat-bera izateaz gaiñera, ondorengoek lenagokoen iritziak ondo ezagunak bait zituzten.

Gizon aiek gizon zintzoak izan ziran. Baiña ez gaitezen atzipetu. Ez dira beren aroko gizadiaren adigarri. Jendearen gaiñean urruti bizi ziran, izarrak munduaren gaiñean bezala. Izarrak an goian arras garbiak dira beti. Gizakumeok ordea, emen bean, ez gera ain garbiak izaten.

Erroma'ren inperio-lurreko jendea, ez zan filosofiaz arduratzen, eta bere erara *bizi* zan, bere jainko-jainkemeen biziera jarraituz, aski era baldar enasean.

Aundikientzat berriz, epaitegian Josu'ri •egia zer da• galdetu zion Pilato'rentzat bezala, filosofia, astia txukunki igartzeko jostaketa ddottore bat baiño askoz geiagorik ez zan. Otordu iguingarri aien osterako jolas-bide polit apaiña.

ARISTOTELE zergaitik azturik utzi dedan, itaun egingo dit bearbada bateren batek. Emango dugu jakintsu aundi aren berri. Baiña bere lekuan. Aristotele'k, kristautasunaren lenen mendeetan ez baiña, geroago, be-erdiaroan izan bait zuan izugarrizko eraginmena.

ADRIANO INPERATOREA ETA LENEN APOLOGILARIAK

ADRIANO'k artu zuan inperiotza Trajano'ren eriotzakoa, bera bait zan idakoaren aiderik urbillena. Neurri aundian ordea Plotina inperatemeari atsegiña izateak eman zion buruntza.

Naiz inperatore lez gizon argia, eta pakezalea izanik, Trajano Sortaldean diasporako juduen aurka bezala, Palestina'ko juduen aurka gudan ibilli bearrean aurkitu zan Adriano ere.

Berea dala dirudi, guda ori piztu izanaren errua, Tito'k 70'ean ezabatutako Jerusalem egon zan tokian uri berri bat eraikitzea erabaki bait zuan. Uri jentilla ainzuzen. Asarretu zitzaizkion Palestina osoko juduak, eta «Bar Kojba» edo «Izarraren Semea. buruzagi zutela, Adriano'ren aurka jeiki ziran iru urte iraun zuan borroka odoltsuan.

Menderatuak izan ziran. Borrokan il ziran, Dion Casio'k dionez, 580.000 judutar — Bar Kojba aien artean ta zearo desegiña eta jenderik gabe gelditu zan Palestina, bertako jendea erbesteratua izan zalako, eta alperrikakoa gertatu zitzaizen juduei ondamen ura guztia. Eraikia izan bait zan uri berria! Aelia Capitolina eman zitzaion izen. Ori zan 13'a', Aelius, Adriano'ren lenen izena.

Orduan sortua dugu, gaur egun oraindik Palestina'ko lurra odoltsu duan auzi erioagarria. Adriano'k 135'ean utsik utzi zuan Palestina artara inguruko basamortuetako aberezain arabitarrek sartu ziran, eta bertan jarri bizitzen.

Gure mende ontan, Judutarrak ara itzuli diranean, lur ura berea dutela diote, andik, Adriano'ren aginduz, indarrez atereak izan ziranez gero, lur ariburuzko eskubideari sekulan ukorik egin ez diotelako. Alderantziz, eskubide ori gordetzeko, «datorren urtean Jerusalem'en• esanez bukatu dituztela beti urteroko Pazko-Jaiak.

Arabitarrek ordea, berea dutela Palestina oiur dagite, 135'garren urteaz gero an egon diralako bizitzen. Ta, ia ogei mendeko epea, ots, XXI mendearen sarreran 1865 urteko epe ori bai omen da naiko luzetasuneko epea, lurralde aren jabetasuna an bizi diran arabitarrei emateko.

Juduen Jauretzea egon zan tokian, Jupiter'en omenez beste Jaureuce bat eraiki zuan Adriano'k. Jauretze artan, Adriano bera zaldun agertzen zuan irudi bat izan zan Jupiter sasijainko nagusiarenarekin batera. Ta..., Benus jainkeme lizunaren beste bat Kalbario-Mendian!

Kristo il zan mendian ipiñitako irudi orrek, judu-kristauak ere Aciriano'ren aurkako guduan sarturik ibilli zirala adierazi nai ote digu?

Ez da sinistekoa. Bar-Kojba mesiatzat artzea, Josukristo'ri uko egitea izango bait zan. Ez dezagun aantzi, kristauak eta juduak jende-mota bat bera zirala jentil geienentzat. Seguruaski, bi toki sagaratu aietan Jupiter eta Benus ospatzean, jende mota bat bera ori iraintzea besterik ez zuten Erroma'ko lej iotarrek billatzen.

Orduezkero, judu gaixoen egoera kupidagarria izan zala, diosku IV

mendearen asieran Eusebio zesareatarak. Gaierazia omen zeukaten Jerusa len izan zan tokira urbiltze utsa. Ez omen zitezkean gizagaixoak •urrundik ere bere aberriari begiratzten egon..

Jeronimo Deuna Palestina'n bizitu zan IV mendearen azken-aldean. Juduen zori makurraz ari dalarik, ona nola azaltzen digun bere begiz ikusten zuana:

•La justicia de Dios dispuso admirablemente que tuvieran que comprar sus propias quienes habian osado comprar la sangre de Cristo. Al llegar el dia prefijado, acudian de todas partes, en grandes bandadas, aquellas desgraciadas gentes... y compareciendo todos vestidos de negro, con las cabelleras desgreñadas, con las trenzas en **demostrabanen** el rostro, en el paso, en el traje y en toda la apariencia la ira de Dios. Al llegar a la puerta de la ciudad, se reunian todos y prorrumpiendo acordes en amargo llanto... habian todos su lgubre entrada. A la vista de aquellas calles (aunque fueran muy otras que las que sus antepasados habitaron) se renovaban mas impetuosos los sollozos y enseguida partian en busca de su Templo, aunque sabian que no existia, y no encont.ndolo, nunca se daban por convencidos... Asi lloraban los miserables muchas horas, y obligados finalmente a la partida, los desventurados no sablan arrancarse a la vista de aquellos muros y dirigiendose suplicantes a los soldados, les pedian que concediesen mayor espacio a su llanto; pero estos, sordos a las splicas, respondian: si queras llorar pagad también (Gaztelerazaillea, Intxaurraga).

Bi gauza dira Donejeronimo'ren ataltxo ortan azpimarratu bearrak: Juduen zori gaiztoa, lenengoa. Eta bigarrena, nola zegoan Iv menderako kristauen artean zabaldua, Kristo'ren eriotzaren errua juduerri osoari botatzeko oitura makurra. Jeronimo'k ikusten zituan judu gizagaixo aiek, ez zituan lau mende lenago judu batzuek Kristo il zutelako Yabe Jainkoak zigortzen. Alderantziz, Yabe Jainkoarena zan tokian sasijainko bat ikustean Erroma'ren aurka jeiki ziralako, Erroma'ko imperatoreak zigortzen zituan: Adriano'k, ez, Yabe'k.

Oroipen gaiztoa gorde zioten juduek Adriano inperatoreari:

•To the rabbis Hadrian was a symbol of wickedness and cruelty. His name is usually accompanied by the epithet •the wicked- or the itnprecation •may his bones rot., in Hebrew or Aramaic. (Enc. Jud.).

•Rabbi'entzako, ots, •judutasunaren maixuentzako-, ankerkeri eta odolkeriaren ikurra izan zan Adriano. Bere izena, bai eberkeraz, bai arameieraz, •ankerra. adjetibu edo izen laguntzaillez margoztua ager oi da, edo •usteldu bitez bere ezurrak. dion eskariz jarraitua...

Orduango guduketari-buruzko legeak ala koak ziran-da, ez gaitu arritzen juduak ain asarre gelditu izatea, baiñan Adriano ez zan, ez orixe, ez ankerra ez odolzalea, pakezalea baizik.

ADRIANO'REN IZAERA: Oraingo Sebilla'ren ondoan, Italika'n jaioa, kultur aundiko gizona izan zan; sortaldeko «misteri», astrologi, eta aztikeri zale aundia; baiñan baita matematikolari eta arkeologilari ongi ikasia ere. Greziarren erti zaarra izan zuan bereiziki maitea.

Arkeologilari edo antziñiztilari bezala, asko ibilli zan bere inperiolurra zear. Ertilari lez, uri, jauregi, eta jauretxe-eraikilari bizkorra, bereak dira Atenas urian Olimpeion Zeus'en omenez altxatutako jauretzea, Erromalaldean Tiboli'ko jauregi bikaiña, eta Erroman bertan, beretzako egin zuan Mausoleum edo illobi galanta, geroago, gaur-egun Sant'Angelo esaten zaion gaztelu galanta biurtua.

Sortaldetarrek siniskerirako izan zuten joeraren ondorio dugu onako arrigarrikeri au, egia ba'da beintzat:

•Si comme on le raconte, Hadrien, int&êss'e par les cultes orientaux, avait dans son oratoire particulier une image du Christ, au milieu des celles des dieux paiens (on serait curieux de savoir quelle était *cette* image), cela ne signifierait pas chez l'amant de Antinofis une sympathie particulie&e pour la religion du Christ» (Dic. Hist. cles.).

Euskeraz:

Esan oi dan bezala, Adriano sortaldeko gurkera-zaleak, bere otoiztegian jainko jentillen artean Kristo'ren irudi bat bazuala egia **ere**, (**atsegiña** litzaiguke zer irudi zan ura jakitea), ez luke orrek, Antinous'en maitaleak Kristo'ren erlijioanako kuttunkereri bereizirik izan zezakeanik adieraziko».

«Antinous'en maitalea» eta «kristautasunaganako kuttunkeria» aipatzen dira esakizun ortan. Biek merezi dute ikerketa bereizia.

Antinous Bitini'n jaiotako gizaseme eder bat omen zan. Eta bere maitalea, Adriano inperatore txukun jakintsu ertilari ura. Kuntzeberdinzale edo omoseksuala izan bait zan dirudianez.

•In Egipt Hadrian lost the object of his homosexual devotion, the Bithynian Antinous, drowned in the Nile in 130. To honour him Hadrian built another new city, Antinoupolis, in Egipt, and lavished privileges upon it: and over much of the Roman world official cult was offered to Hadrian's favorite, now counted among the gods• (Enc. Brit.).

Euskeraz:

•Ejito'n bere kuntzeberdiñeko maitaletxua, Antinous bitinitarra, Nilo ibaiean itota galdu zuan Adriano'k 130'garren urtean. Eta aren omenez, Antinoupolis izeneko uri berri bat eraiki zuan Ejito'n, eta, uri au, abantail ugariz ornitu. Ta erromar-inperiolurreko zati aundian, legezko gurrketa ere eskeiñi zitzaion, jainko-tartera sartua izan zan, Adriano'ren maitaletxu ari».

KRISTAUTASUNARI-BURUZ, ADRIANO, Trajano'ren b idetik ibilli zitzaigun, baiñan ark baiño askoz era biguñagoan:

-En cuanto a los cristianos, que ya en su tiempo eran un grupo importante dentro del imperio, la actitud de Adriano fue mas bien pasiva; sin decretar ninguna persecución sistemática contra ellos, se limitó en cierto modo a continuar la de su antecesor. En una carta a Minucio Fundano sobre este tema, expresa su deseo de que no deba molestarse excepto *si se les* consideraba culpables de actuar contra la ley- (GER).

Bai eta ez. Opusdeitarren entziklopedi aundi orrek uste duan baiño obea izan zan kristaudentzat Adriano'ren jardunkera.

Bere agintaritzako lenen urteetan, Trajano'k bezala ez zien kristauei jaramonik egin, baiñan Trajano Bitini'ko jaurle zan Plinio'ren eskutitzak kristasunaren arazora sarrerazi zuan bezala, Asiko jaurle zan Granius'en eskutitz batek sarrerazi zuan Adriano.

Asi, ez zan erromatarrentzat, guretzat bezala, ludiko bost lur-zatietan aundiena, probintzi bat bakarrik baizik, eta, naiz aberatsa, neurritz aski txikia, Anatoli'ren sarkaldeko itxasertzean. Efeso zuan uriburu, eta garrantzi aundikoak zituan beste uri batzuk ere; Esmima, Mileto, Tralles, Magnesi. Ez zegoan Bitini'tik urruti, bien artean soilki Misi izeneko probintzia bait zegoan.

Ona, Asiko jaurle Granius'ek Adriano'ri bidalitako gutunaren zentzua: «Zuzentasunaren aurkako gauza da, kristauak, kixazko salaketarik gabe, soilki jendetza zoro baten oiuei atsegin-ematearren eriotzara galduak izatea-.

Ikus dezakegunez, gizon zintzoa zan Granius ura; Plinio baiño zintzoagoa.

Bere eskutitz orrek, iru gauza adierazten dizkigu:

- Kristautasuna zabaltzen zijoala. Plinio'ren Bitini'n bezain ugariak zirala Granius'en Asi'n kristauak.

- Trajano ilda ere, kristauen aurkako zigorketak jarraitzen zutela, eta ugari zirala martiriak, bai beintzat Asiko jaurle² bera, Granius, kezkatzeko bezain ugariak.

- Martiri aiek, Trajano'ren agindua jarraitzeke jendillajearen marruei erantzunaz eta egiazko epaiketarik gabe izan zirala eriotzez zigortuak.

Beraz, epaille askok ez zutela Trajano'ren agindu ura betetzen.

Adriano'k Granius'en ondorean Asiko jaurle izandako Minutius Fundanus'i bidali zion Granius'engandik artutato gutunaren erantzuna. Ona erantzun orren atalak:

- Granius'en gutun bat jaso naiz. Gutun ortan agertzen duan arazoa, bereala konpondu bearra iduritzen zait, -salatari maltzurrek beren gaiztakerian laguntzen zaiela uste ez dezaten».

- Ez dira kontuan artuak izan bear, kristauen aurka, marrularien orruak eta kaleetatik egindako eskari zaratatsuak.

- Legearen araura egindako salaketarik gertatzen ba'da, zu zerori izan bear duzu salaketa ori aztertu eta epaitu bear duzuna.

- Salatuek legearen aurka zerbait egin dutela agertzen ba'da, egin dituzten gaiztakeriei dagokion neurritz izango dira zigortuak.: «Pro merito peccatorum etiam supplicia statues».

- Salatari gezurtiak, zigortuak bitez: •Si quis a calumnia gratia quemquam horum postulaverit reum, in hunc pro sui nequitia suppliciiis severioribus vindices»: •Norbaitek (kristau) auetako bat gezurra erabilliz, errudun salatzen ba'du, zigor gogorragoaz erasoko diozu alako ari, bere gaiztakeriaren ordaiñez.

Kristauak legearen aurka gaiztakeriren bat egiñak izatea eskatzen zuan Adriano'k, zigorgarrizat artuak izateko. Legearen aurka obenik egin ez zuana, ez zan zigorgarri, naiz kristaua izan.

•Ainsi, le fait d'etre chretien n'est pas un crime qui devrait etre puni. Un chretien n'est coupable que s'il viole une (Dic. Hist. Bcles.). •Ala, kristau izate utsa ez zan oben zigorgarria. Soilki legeren bat urratzen duanean bakarrik da kristau bat zigorgarri».

Soilki •legea urratzen duan kristaua zan, zigortua izan zitekeana.

Baiñan zer lege zan ura? Kristau salatua epailleen aurrean sasijainkoak gurtzera beartzen zituan Trajano'ren agindu ura?

Ez dirudi. Tajano'ren agindu ark, eriotza bait zuan zigor, — zigor bakarra obedittua izaten ez ba'zan. Adriano'k ordea ez du •legea urratzen dutenek• eriotzez zigortuak izaterik agintzen. Alderantziz, legearen aurka egindako gaiztakeriaren neurrira izan bear dutela zigortuak, dio; eta soilki gaiztakeri ori egin dutela egia ba'da, jakiña.

Esan daiteke beraz Adriano'k aipatzen duan legea, gaiztakeri arruntak gaitzesten dituan legea dala, eta lege ori urratzen duten gaiztakeriak bakarrik izan daitezkeala zigortuak: •pourtant, des delits de droit commun.: legedi arrunt orokorraren aurka egindako obenak. (Ib.).

Urrats aundia zan ori kristauen alde, Trajano'ren agindu artaz gero.

Adriano'ren agindu berri au, kistautentzat, politikaren arlorako, beste laterkideekingo berdintasuna zan: «Pegalite politique. (Mommsen).

Beste zerbait ere adierazten digute Asiko Jaurleak Adriano'ri bidalitako eskutitzak, eta inperatore onen erantzunak: naiz oraindik jende jakintsuren batzuk kristauak oro gaizkilleak ziralako ustean jarraitu, ori egia ez zala argi ikusten asiak ziralako bateren batzuk. Jaurle ura adibidez, eta, Adrian inperatorea bera.

Gezuratuak izateko bildurrik gabe aizatzen zuten idazle kristauak ere elizkideen garbitasun ori. Ikus II mendean idatzitako •Diogneto'ri Epistola.tik artutako itz auek:

•Los cristianos no se distinguen de los dems hombres ni por la región ni por el habla ni por el genero de vida. Habitan ensus propias patrias, pero como inquilinos; como ciudadanos todo lo tienen en común con los demás y todo lo sufren como peregrinos. Cisanse como todos y tienen hijos, pero no los abandonan. Su mesa es comn, pero no el lecho. Viven en came, pero no según la came. Habitan en la tierra, pero su ciudad esta en el cielo.

Obedecen las leyes establecidas, y con su genero de vida se levantan sobre las leyes. A todos aman, y todos los persiguen. Se les ignora, y son condenados; mueren y son vivificados. Mendigos son y enriquecen a muchos. De todo necesitan y todo les sobra. Son deshonrados, y en medio de los oprobios son glorificados. Rlsgase su fama y se da testimonio de su justicia. Son reprendidos y bendicen; son calumniados y honran. Si hacen bien, castigaseles como a malvados; castigados gozan como si recibieran nueva vida. Lo dire en una palabra: lo que el alma es para el cuerpo, esto son para el mundo los cristianos (Gateleratzaille, Intxaurraga).

Alatagutziz izan ziran martiriak Adriano'ren agintaritzakoan. Bat, 136'ean, Telesforo Aitasantua.

•Era goresgarrian jasan zuan eriotza» Aitasantu martiri ori, urte batzuk geroago Ireneo Doneak idatzi zigunez.

Baiña Telesforo onen erailketak ez du Adriano'ren aurka ezer askorik esan nai. Soilki, epaille askok, len Trajano'ren agindu ura ezagutu edo zuzenki ulertu ez zuten bezala, orain ez zutela ezagutu edo zuzen ulertu Adriano'ren erabaki berria.

Tiboli'n Sinforosa eta bere zazpi semeak ziñopa eraillak izan zirala esaten digun kondaira berriz, ori besterik ez da: kondaira utsa: •leyenda».

Adriano'ri zuzendu zion Quadratus izeneko idazle kristau batek bere •Apologia». Idazle ura nor zan ez dakigu, eta bere liburua galdua dugu, Eusebio'k bere Eliz-Edestian kopiatu zizkion zatietaz landa.

APOLOGIA, elenerazko itza da. Eta, •babesketa» esan nai du euskeraz.

Lenen idazle kristauak, apologi-egilleak izan genituan bereiziki. Ugari aurkituko ditugu II mendean eta III'aren lenen-erdian, jentillek asmatutako salaketa gaitzen aurka, Elizaren zintzotasuna eta egitasuna babesten.

Quadratus izan genuan ekintza ortan aurrenekoa: •Bidalien ikaslea», «auditor Apostolorum», izan omen zan, Zesarea'ko Eusebio edestilariak, IV mendearen asieran, bere •Eliz-Edestian., idatzi zigunez.

Adriano'ren denborakoa dugu Aristides apologilaria ere. Orrela dio beintzat Eusebio'k, naiz urrengo inperatorearen denborakoa izan zala, aren apologiaren sirierazko itzulpen batek esan.

Ona Aristides'en •Apologia-ren muiña:

Jainkoari zor zaion gurketa egokia, ez da greziarrek, barbaritarrek, eta juduek eskeintzen diotena, soilki kristauak eskeintzen diotena baizik. (Lau taldetan zatitzen bait du Aristides'ek gizadi osoa: kristauak, greziarrak, barbaritarrek, judutarrak).

Aitortu bearra dugu ez dala yayoegi tajutua Aristides'en idazti au. Ez dirudi bere egillea filosofilari zorrotza zanik. Edo, kristau berria zan oraindik-eta, ez zuan berak ere bere sinispiderik sakonegi ezagutzen.

Gaiñera ez omen dakigu guregana iritxi zaigun idaztia, Aristides berak

idatzi zuana, ala, arek idatzitakoaren, baldarki egindako kopi makur bat besterik ez dan.

Apologilariak izan ziran Elizaren lenengo teologilariak. Aurka zetorzkion ba Elizari baztar guztietatik, bai erriko jendillajearen iseka zikiña, bai filosofilari jentillen arrazoiketa txukun apaiña, gorrotoz betetako erejeen bekaizgoa, eta agintari ankerrengandiko etsaigo eriogarria.

Etsai guzti oietatik, asko ez ziran gizakume gaiztoak. Alderantziz, zuzen zebiltzala uste zuten beren erlijioaren eta aberriaren alde. Bear-bearrezkoa zuan beraz Elizak guzti aien aurrean bere egia, bere garbitasuna eta bere zintzotasuna era ulerterrezean agertzea. Bear-bearrezkoak zituan apologilariak.

Adriano'k berak aukeratu zuan bere ondorekotzat Antonino Pio. Ta, oni aukeratu zizkion bi laguntzailleak ere inperatore izan ziran gero: Mark-Aurelio eta Luzio Bero.

Baiña autaketa oiek egiten asko luzatu zalako eta aro luze ortan bakartasunean erriagandik bazterturik egon zalako, «invisus ab omnibus., ,guztiek gaizki ikusia», il omen zan azkenean (Dion Casio).

Bera laister piztu zitzaigun ostera zigorketa, ezagunak dizkiogun bere ekintza anker guztiekin»: «Après sa mort, la persecution recommença bientt avec les reprises violentes que l'on sait» (Dic. Hist. Ecle.).

138'an il zan Adriano. Ondo beterik zegoan urte ortan II mendearen lenen irurdena. Aski Erakunde garrantzitsua zan ordurako inperiulur erromatarrean Eliza. I Klemente Donea Aitasantu zuala sartu zan II mende ortara. Ikus Klemente'z gero, II mendearen lenen irurden ortan izan zituan Aitasantuak:

- Ebaristo, Grezi'n jaioa baiñan Belen'go judutar baten semea.
 - I Alexander. Badu kondaira eder bat, baiñan orixe besterik ez dana: VII mendean sortutako kondaira bitxia.
 - I Sixto, erromatarra.
 - Len aipatu dugun Telesforo martiria.
 - Ijinio. Greziarra. Gnosikeria bizkor zebillenean izan zan Aitasantu.
- Bere denboran iritxi, iritxi bait zan Erroma'ra Balentiniano, grios iz a leen buruzagirik aipatuenetako bat, Ireneo Doneak idatzi zigunez.
- Ezer gutxi dakigu ziur Aitasantu zaar auetaz. Anakleto, I Klemente eta Ebaristo'ri-buruz, nor lenago izan zan Aitasantu ere ez dakigu ziur-ziur.
- Nik, edestilari geienek ontzat artzen duten zerrenda eman dizut, II mendean bertan Ireneo'k Errorna'n kopiatu zuana: Anakleto'ren ondorean, I Klemente. Eta onen ondorean, Ebaristo.

ANTONINO PIO, aski agure zarra, 138'an inperatore egiña izan zanean. Pakezale aundia, bere agintaritza izan zala, esan oi zan antziña artan, Erroma'ko edestiaren «arorik zorionsuena».

•Este emperador, cuya conducta le mereció el apelativo de pio consagrado por la historia, llevó todavía mas adelante que su predecesor Adriano la benevolencia con los cristianos. Ciertamente no levantó las disposiciones fundamentales de Trajano; pero manifestó mas aun que Adriano el deseo de que no se derramara sangre cristiani. Asi se manifiesta en los escritos que dirigib a las ciudades de Larisa, Tesalónica, Atenas, y toda Grecia, instndoles que no se toleraran los tumultos contra los cristianos» (Llorca).

Eskutitz oiek danak ez dira egiazkoak seguruaski. Alatagutziz ongi adierazten digute Antonino Pio'ren gogoeta.

Sarri aipatu oi da, argi-argi kristauen aldekoa dan agindu bat ere, inperatore onek Sortaldeko agintarientzat emana, Hamack azterlari protestante ezagunak egiazkotzat artua, baiñan gaur iñork ongiesten ez duana.

Adriano'k Sortaldeari izan zion zaletasunaren ondorioz eta Antonino Pio'ren erlijio-askatasunazko giroaz baliaturik iritxi ziran Erroma'ra Sortaldean sortutako «mysteria» edo «izkutuzko siniskeri aiek: «Magna Mater», «Isis», «Serapis», «Mitra»... Oiek dira «misteri» aietatik ezagutuenak. Ez orixe, bakarrak.

Beren ekintzetan gaur-egungo masoikeriaren antza bazuan «mysteria» aien jardun-bideak. Eta aien jainkokeria berriz, Ejito, Pertsia, Kaldea, Grezi eta Erroma'ko mitologietako ipuien itxurakoa zan neurri aundian. Ikus zabalduenetako biren dogma:

Mitra arkaitz batetik jaio omen zan argi-izpi itxuraz, sukarritik txinparta irtetzen dan bezala. Ez zan jainko nagusietakoa, jainko ta gizakumeen ararteko jainkolxiki bat baizik. Borrokalari ausarta, bere ekintzarik aundiena, Jainkoak lenen egindako zezena borrokatzea, menderatzea eta egitea izan zan.

Orregaitik, Pertsia'tik etorritako gurraketa au, lejloetako gudarien artean zabaldu zan geienbat.

Isis, jatorriz Ejito'ko jainkemea. Osiris'en emaztea. Milla zatitan ebakitako senar illaren gorpuzki guztiak bilduta gurputz osoa bir-egitea lortu zuan jainkeme aztia. Berak egin zizkion gorpu ari bearrezkoak zituan illetak. Eta, azkenean, bizia bir-eman zion.

Osiris'engandik izan zuan semetxoa aitzoan duala agertzen da maiz iru dietan.

Mundu ontan eriotzetik bizien babesle ta beste mundua-zear ildakoen laguntzaille izateaz gaiñera, bai omen zan Isis jainkemea ildakoei bizia itzultzeko gauza ere. Orregaitik, eriotzarekin eta ildakoeekin zer-ikusia aundia erantsi zioten bere jarrailleek. Emakurnezkoek berriz, ama bizi-emaille lez ikusi oi zuten, eta biziaren asierarekin, erditzearekin, eta ume jaio-berriekin

lotu zuten arenganako jaiera.

Ejito erromatarrek artu zutenez gero, Erroman bertan bildu zuan Isis jainkemearen •misteri» onek gurtzaille-talderik ugarienetako bat.

Sortaldetiko •mysteria» auek ez zioten kristautasunaren zabalkundeari gaitz aundiegirik egin.

Naiz Antonino Pio kristau-zigortzaille izan ez, probintzietan erri arruntaren matxinadek sortu zituzten martiri bat baiño geiago. Ziñopa oietan ezagutuena, Polikarpo, Esrnima'ko gotzaia.

AITA APOSTOLUTARRAK

Auxe dugu noski Elizaren Aita Apostolutarretaz mintzatzeko garaia.

Elizaren egiazko AITA Josukristo bera da, eta, beste iñor izatekotan, Arek Eliza zabaltzeko aukeratu zituan Apostoluak.

Eliz-istoriologi edo edestiztian ordea •Elizaren Aita. antziñako Santu Jakintsuei esaten zaie.

Iru baldintza bete bear ditu beraz norbaitek Elizaren Aita deitua izateko: Santu izatea, Jakintsu izatea, eta Antziñakoa izatea: VII mendez aurrekoa, Sarkaldean; VIII'az aurrekoa Sortaldean. Orrela, Sarkaldean, VII mendean i zan Sebilla'ko Isidoro Donea dugu azkeneko Eliz-Aita; Sortaldean, VIII mendean ildako Jon Damaskotarra.

Ta, antziña-antziñakoei berriz, Bidalien ikasle edo beintzat Bidalien Ikasleen denborakoak izan ziralako •Patres Apostolici» esan oi zaie: •Aita Apostolutarrak».

Elizaren Aita Apostolutarrak ditugu lenen idazle eliztar ezagunak. Baiñan izan ziran aietaz gaiñera ez-ezagunak zaizkigun beste idazle batzuk ere: Katekistak danak. •Didaje. edo •Apostoluen Dotriria• eta •Bemabe'ren Epistola» idatzi zizkigutenak adibidez.

Liburu oiek bataioa artu nai zutenei kristautasuna erakusteko idatziak ziran. Garrantzi aundia ematen diote maitasunari: Jainkoaganako eta -senideenganako• maitasunari. Senide oiek, gizakume guztiak dira, bai noski, baiñan, bereiziki, sinispidekideak.

Aipatzen dituzten Kristo'ren esakizunak, ez dituzte bi idatzi oiek berdin ematen; ezta, oso-osoan ebangelioek ematen dizkiguten bezala ere: danak, ebangelariak eta bi liburu oien egilleak, leenagoko iturri batetik, agoz-agozko iturritik, edaten ari izan ziralaren adigarri.

Eliz-Aiten artean, aurrenekoak, Erroma'ko I Klemente, Antioki'ko Iñazio, Esmirna'ko Polikarpo eta Ierapolis'ko Papias ditugu. Eta, azkenik, naiz geroagokoa, ots, II mendearen erdikoa izan, idatzi oien artean aurkeztu oi da Ermas'ek Erroman idatzitako •Artzaia• ere.

Idatzi oiek danak, ez dira, apologilarienak izan ziran eta izango diran lez jentillentzat idatziak izan, kristaumentzat baizik. Ez dira teologizko idatziak ere. Soilki kristau arrunten siniskera ta biziera argitzeko izan bait ziran idatziak; era laun, xume eta ulerterrezean idatziak.

Erroma'ko Klemente'z eta Antioki'ko Iriaz io'z mintzatu gera. So dagiegun orain aien urrengoei.

POIIKARPO Donea, Esmirna'ko gotzaia.

Esan dugun bezala, erriko jende landerraren matidnadetako marruetara, eta probintzietako jaurleen jitearen gogakerietara loturik gelditu ziran kristauak, Trajano'ren aginduaz gero.

Jaurleotako batek, Decius Quadratus zerizanak, Asi esaten zitzaien probintziko Jaurleak bere probintzian kristauen aurka sortu zuan erasoan izan zan Polikarpo, jai egun batean.

Bere gorputza sutara jaurtia izan zan.

Ez zitzaion jaurleari, Polikarpo gaitzesteko, «gizon au gure jauretxeak utsik uzten ari zaigu» deadar egiten zuan erriaren laguntzarik peitu.

Ikusi aal izango dugun lez, maiz gertatzen ziran jai-egunez martirien erailketak, jendearentzat jostaillu gerta zitezen. Ez zituan orrek kristauak ikaratzen. Ez beintzat odol beroegiko kristauak. Auek, rnartiriotzaren duintasunaren egarri, epailleengana, eriotza eskatuz, kristauak zirala oiuka agertzen bait ziran.

Ez zuan Polikarpo Doneak orrela jokatu.

Orregaitik, orduetzero, martirio-eske epailleengana aurkezten ziran kristauen geiegikeria baretzeko, maiz ipiñiko du Elizak eredu, larogei ta sei urte beteak zituan Polikarpo'ren jardunkera. Jentillak bera erail nairik zebiltzala jakitean, izkutatu egin bait zan aurrena, eta era baretsuan jasan gero zigorketa eta eriotza, batere arrokeri ergelik gabe, «mundu guzian zabaldurik zegoan Elizaren alde otoi egiñez..

Aren epaiketa-eta-eriotzaren edestia Esmirna'ko Elizak berak idatzi zuan, urbil zuten Filomela'ko Elizaren eskariari erantzunez.

Idazle kristaua bezala garrantzi aundikoa da Polikarpo, II mendeko Eliza Bidalien Elizarekin, Donibane Ebangelariarekin bereiziki, bitartekorik gabe zuzenean alkartzen digulako, Ireneo Doneak idatzi zigunez. Ireneo, gaztetan, berak dioskun bezala, Polikarpo'ren ikasle izan zan, eta sarritan entzun omen zion Polikarpo'ri Donibane Apostoluarekin eta baita beste Apostolu batzuekin ere izan zituan adiskidetasunaz eta arremanetaz mintzatzen.

Balio aundiko katea, bai orbce, Josukristo-Donibane-Polikarpo-Ireneo'k osotzen dutena, «tradizioa» edo «agoz-agozko kristau-jakintza» nola etorri zitzaigun jakiteko. Jon'engandik bezala beste Bidaliengandik ere kate berdiñak sortu bait zitzaizkigun beste lurraldeetako Elizetan. Ezaguna da Kepa'gandikoa: Kepa-Lino-Anakleto-Klemente... Erroma'n; eta Kepa-Iñazio Gotzaia eta onen ondorengoak, Siri'ko Antioki'n.

Ainzuzen, Antioki'ko Iriazio'k, Erroma'ra bidean idatzi zituan epistoleatik bat, Esmima'ko Polikarpo'ri idatzi ziona da.

Idatzi zituan Polikarpo'k ere, inguruko Elizei zuzendutako Epistola batzuk, Ireneo'k dionez. Bat aipatzen du bereiziki, bat orren goratzarrea egiñez: «Oso-oso ederra da filipostarrei idatzi ziena».

Filipos'ko Elizari bidalitako Epistola orren elenerazko zati batzuk eta laterazko itzulpen osoa iritxi dira gure egunotaraiño. Besteak, galduak dira.

Ona, filipostarrentzako Epistola orren gunea: Kristau-sinispiderearen aitorketa egiñez asten da; gero, Jesukristo, Jainkoaren eta gizakumeen artean Jaupari betikoa lez, aurkezten du; azkenean, Elizaren asieratik artutako agoz-agozko jakintzari tinko loturik egon bearra gomendatzen

digu.

Ez da arritzekoa Polikarpo'k •tradizio» Done edo agoz-agozko jakintzaren duintasunaz mintzatzea, bera bait zan, izan ere, agoz-agozko jakintzaren kate orren oborik garrantzitsuenetako bat. Polikarpo Esmima'ko gotzai sagaratu zutenak Bidaliak izan zirala idatzi zuan ba Irene'o'k. Donibane Ebangelaria izan omen zan sagaratzaillea, Tertuliano'k dioskunez.

Polikarpo au izan ezik ez dugu izenez garai ontako beste ziñoparik ezagutzen. Erroma'n eraillak izan omen ziran Felizitas eta bere zazpi semeen • assio» edo •nekaldia» kontatzen digun•Acta» edo •Azalpenak», len Sinforosa eta bere zazpi semeena kontatzen zuanak bezala, edesti izateko ez bait dute bear aiñako oiñarri sendorik. Berdin gertatzen zaie aldi ontako beste martirien •ekaldia» azaltzen diguten beste •Acta» askori.

IERAPOLIS'KO PAPIAS, Polikarpo'ren adiskide aundia izateaz gaiñera Polikarpo'rekin batera Jon apostoluaren ikasle ere izateak lenen maillako garrantzia eman zion antziña artan berak idatzitako liburu bakarrari. Jaunaren Esaldiak» darama liburu orrek izen. Tamalez, galdua da, eta bertan egon zitekeanetik, Lyon'go Irene'o'k eta Zesarea'ko Eusebio'k beren idaztietan jasotako zati batzuk bakarrik ezagutzen ditugu.

- ERMAS'EN•ARTZAIA». Ermas, II mendearen erdian Aitasantu izandako I Pio'ren anaia zan.

Bere liburu ori arras liburu illuna da, eta penitentzia du gai: pekatutik anima garbitzea. Itun Zarreko profezien eta batez ere apokalipsien erara idatzia da. Beste mundutik ikustatzera etortzen zitzaizkionek erakutsi ziotena idatzi zuala diosku.

Ez du, orrekin, egiaz beste mundukoak azaltzen zitzaizkionik esan nai. Soilki, itzegitean apokalipsien elerti-era artzen duala adierazi nai digu. Elertiera orrek biurtzen dio adikaitza bere liburua. Alare, aitortzako sakramentua nola erabiltzen zan jakiteko-ta, balio ederreko idatzia da. Entzun J. Kerexeta'ri:

•Interesgarria benetan kristautasunaren II mendeak itzi euskun liburu au! Antxiñako kristauek liburu kutuna lez erabilten eben, eta Jaungoikoaren argiz idatzitako Liburu Santuen ondo-ondoan ibili zan gizaldietan».

Ermas'en bizitzaz ezer gutxi dakigu. Berak ematen dizkigu bere liburuan xeetasun batzuk, aski mingarriak gaiñera, baiña egiazko gertakizunak baiña, geiago, Oses profetaren ezkontza aiek bezala, irudi utsak dirala dirudite.

JAKINTSUEK ELIZAREN AURKA

Bigarren mendearen erdian gaude. Laister Mark-Aurelio filosofilari estoitarra izango dugu Inperatore. Bere denboran asi ziran Erroma'ren inperio-lurreko elertilari ta filosofilariak kristautasunaz kezkatzen, eta kristautasunak ekarri zezakean iraultza orokorraz bildurturik, ain iguingarri ta gorrotogarri zitzairen Judea'tik zetorkien erlijio berriari aurka egiten.

Arrigarri zaigu, nola Tazito bezain gizon burutsuek erriko jendillaje landerrak kristauen aurka asmatutako okerkeri sineskaitz makur guztiak, batere kezkarik gabe ontzat artu zituzten ikustea.

Tazito'k egin zuana ber-bera egin zuan ia aldi berean beste edestilari dotore batek, Suetonio'k, idazten ari zana egia zitekean edo ez zalantzan ipiñi ere gabe, kristautasuna Nsuperstitio nova et malefica» zala idatzi bait zuan. »Siniskeri berria eta gaitz-egillea» alajaiña; eta, nola ez? »Erroma'ko erlijio zarraren egiazko etsaia».

Bai Tazito, bai Suetonio, lenen maillako edestilari zurrak dira. Idatzi zutena, egia ote zan jakiteko aurretik ikerketarik txikiena egiteke idatzi zuten. Errez egin zezaketen azterketa ori. Bazekiten, edestilari batentzat egintza ori naitanaiezkua dala. Alare ez zuten egin. Zerk itxutu ote zituan?

Beren goitasunak eta kristauen ezereztasunak. Auek Erroma'ko «subproletariado» (GER) bait ziran, proletarien azpitik zeuden jendetxoak. Aiek berriz, Erroma'ko jakintsuen artean edestilaririk aundienak. Ez zuten aiengandik kristautxoek arreta aundiegirik merezi.

Orduangoa zan gutxi-gora-bera Epikteto edestilari elendarra. Tazito'k eta Suetonio'k egin zutena egin zuan onek ere, kristau-jendea »fanatikeriz, ots, jite gaiz toz betetako jendea» zala esanez. Martirien kemenak ez omen zan •burugabekeri itxua besterik.

Danadala, alaigarri zaigu jende aiek martirien kemenaz oartzen asi zirala jakitea, »zitlopi odola izanen bait da kristautasunaren azia (Tertuliano).

Idazle oiek danak, II mendearen asierakoak dira. Ez zuten zuzenean kristautasunaren aurka idatzi. Agian kristautasunaren teologia eta filosofia ezagutzen ere ez zituztelako, baiñan, seguruaski, proletaripekoen erlijioa zan kristautasun arek bere baitan zeraman indarra oraindik ulertzen ez zutelako.

Mende orren erdi-aldera asi ziran indar ori usmatzen, eta orduan asi zitzaizkigun kristautasuna ezereztu nairik elertiak dituan bi bide nagusietatik ekiten: arrazoiketa burukoaren bidetik, eta, kristautasuna parregarri agertzearren, satirigintzaren bidetik.

Alatagutziz, Erroma'ko filosofilariak ez dituzte, kristauen aurka erri arloteak asmatutako izugarrikeri iñozo aiek aztuko.

Orrela adibidez iSONTONIO filosofilariak, deritzan idazti batean izugarrikeri aiek danak bildu ta jaurti besterik ez bait digu egiten.

Senatore zalarik, seguruaski, Senatuaren aurrean jaurti zuan itzaldi ori, eta ez ziran txantxetako gauza saiaketa txaozu aiek Frontonio'ren ezpaifietan. Itzal aundiko gizona bait zan bera. Agintzen zegoan ,ntonino Pio eta onen ondorean aginduko zuan Mark-Aurelio'ren irakasle izana gaiñera, bi inperatore auen gaztaroan.

Ez ziran gaiñera nolanaikoak Frontonio'ren salaketak: Kristauak astaburu bat gurtzen zutela; beren batzarretan umetxo bat iltzen zutela, aren aragia jaten zutela, eta otoruntza eder baten ondorean, gurasoek seme-alabekin, senideek senideekin eta aideek aideekin lizunkeri narratsean osoki naasten zirala.

Mark-Aurelio bera ere filosofilari izan zan, inperatore izateaz gaiñera. Eta esan oi danez, zaletasun geiago omen zion filosofiari inperatoretzari baiño. Aipatuko ditu onek ere kristauak, bere idaztitan, baiñan, soilki, «setatsu egoskorak. zirala esateko.

CRESCENS, zinik-era esan oi zaion filosofigintzaren jarraille ospetsua zan Erroma'n. Jaurti omen zituan onek ere kristauen aurka gezur gordiriezko salaketak, Justino Doneak dioskunez.

Mark-Aurelio'ren egunetan egin zan, norbaitek prestatuta, kristautasunari-buruz alkarrizketa bat. Izlarietako bat, kristaua zan, Justino Donea bera, ez nolanaiko jakintsu bikaiña. Bestea, jentilla, Crescens, esan dugun lez orduan Erroma'n aurkitu zitekean filosofilaririk goraiapatuenetakoa.

Justino irten zan garaille.

Baiñan arazo guztiak argitzeko astirik naiko ez zutela izan-da, bigarren alkarrizketarako erronka egin zion Justino'k Crescens filosofilari ospetsuari. Onek ordea, Taziano'k aditzera eman nai digula dirudianez, Justino kristautzat salatuz erantzun zuan. Salaketa orren ondorioz martiri il zan filosofilari kristaua: Justino Donea.

Ta, Justino eriotzera epaitu zuan Erroma'ko jaurlea, Rusticus, garai artan agintzen zegoan Mark-Aurelio inperatorearen adiskide miña!

Mark-Aurelio inperatorea filosofilaria ez bide zan askok gura luketen bezain odolkeri ororen etsaia.

Trajano'ren aginduak bere gogortasun osoan jarraitu zuan beintzat Mark Aurelio'ren aginte-aroan, eta jakiña dugu agindu aren ondorioz eriotzara galdu-bearra zala kristau lez salatua zan **Erroma'ko jainko** zarrak eta inperialaria bera gurtzera makurtzen ez ba'zan.

Orrela, arrisku larrian, bizitu ziran beti II mendean kristauak eriotzazko zigorra une oro lepo-gaiñean zutela.

SAMOSATA'KO LUZIAN. Idazle yayo eta zorrotza. 120'ean jaio zan. Siri'n. Bera da, naiz eleneraz idatzi, Erroma'k izan zuan satiralari edo idazle isekalaririk zorrotzena. Oroï garai aietan elenera latera bezain etxekoa- zala erromatarrentzat, batez ere erromatar landuentzat. Azkeneko iru inperatore «antonindarren- denboran idatzi zuan, ots, Antonino Pio, Mark-Aurelio eta Kommodo'ren garaiean, eta asko idatzi gaiñera, txit ugari bait dira argitara eman zituan liburuak.

Guri ordea, bat bakarrik ajola zaigu: •Peregrinus'en Bizitza-. Kristauen aurka idatzia. Bikaintasunez, bikaiñenetakoa da liburu ortan eta bere liburu guztietan Luziano'k darabilkian izkera, bera izan bait zan •uno de los escritores que escribieron el griego con mas elegancia, gracia y pureza. (Espasa).

Ez zuten noski kristauak edozein, oraingoan aurka jeiki zitzaïen etsaia.

«Peregrinus- edo •Erromesa» Palestina'n kristau biurtutako itzontzi berritxu bat da. Bere itz-jarioaren bidez kristauak atzipetuz, aien artean profeta, bereter, eta Liburu Doneen adierazle, eta baita idazle ere, izatera iristen dana. Kristau izateagaitik espetxeratua, eta, orregaitik, •confesor- edo sinismenaren aitorle- bezala Eliza-baitan goraiatua, aski aberats irtengo da azkenean espetxeko zulotik, beti bezala itza ta itza barreiatuz, kristauengandik jasotzen dituan emaitzen ondorioz.

Oraingoan ordea kristauak ez dute beren artean artuko. Zergaitik?

«Idolotitoak- jan dituala jakin dutelako. Elizatik eskomikatua, aurrera darama •Peregrinus-ek bere erromesketa, mundua-zear beste bide batzuek artuz. Nora joan zan eta gero zer egin zuan esan gabe amaitzen samosatatarrak bere idatzia, kristautasuna era parregarrian utzirik.

•Lucien montre les chretiens dans une autre lumiere que Fronton: ce ne sont pas des criminels, mais ce sont de que le premier imposteur dupe- (Danielou): •Frontonio'k ez bezalako argi berri batez aurkezten digu Luziano'k kristaudia. Kristauak ez dira onentzat gaizkilleak; iñozo utsak baizik; edozein lotsagabek atzipetu dezazkean diozoak».

Luziano'ren idaztiak, — naiz aurreneko denboran bai **ez zion** luzarora Elizari gaitz aundiegirik sortu. Luziano'k, egiaz gertatutako gauza bat ipui parregarri biurtu besterik ez zuan egin, eta kristauak isekagarri utzi nai zituan idazti ark, kristauen esku-zabaltasuna agertu zuan, idazleak nai baiño argiago, erromatarren begien aurrera:

Luziano tinha (zuan) fraca (motza) opinia o da rasa humana e tratava a cristiandade como mero complemento do desperate e da loucura da humanidade. Mas nao ihnorava como os cristaos semostravam incrivelmente generosos com o seu dinheiro, preferindo ser magnanirnos a verem-se acusados de ganancia- (Chadwick).

ZELSO izan zan Jakintsu jentillen artean, kristautasunari lumaz borroka egiteko, nekerik geiena artu zuan idazlea. II mende onen azkenean argitaratu zuan eleneraz, amar urteren epean, «Alethes Logos», «Egiaren Itza», esan oi zaion liburua.

Filosofilari lez, erdi neoplatontasun-zale erdi estoitasun-zale izan zitzaigun. Orregaitik, bi filosofikera oietatik erasoko dio Elizari. Ikus bere erasoaren atalik nagusienak:

- Izadia oso-osoan Jainkoak egiña dala dio kristautasunak. Ori, ordea, egitzat artu ez daitekean gauza da.

- Jaungoikoa gizon egin daitekeala sinistea berriz, izan daitekean biraorik aundiena da.

- Josu gizakume utsa izan zan; Itzontzi berritxua eta jende-iruzurle arroputza. Ejito'n egon zanean ango azti eta magoengandik ikasia zuan «mirariak» egiteko yayotasuna.

- Kristautasuna iñozo batzuk sortutako iñozokeria besterik ez da.

Kristauak ez dute beren sinispidea egiazkoa dan jakiteko azterketarik egin nai izaten; ez dute beste iñorekin ori eztabaidatu nai izaten. Kristauak

Logos», ots, «Egia billatzeko arrazoiketa ororen etsaiak dira. Naiago dute itxu-itxuan beren iñozokeriak sinistuz bertan jarraitu.

- Kristautasuna, bere izate-era ber-beraz, filosofiaren etsaia da.

Orregaitik mintzatzen dira ain zakar filosofiaren aurka kristauen buruzagiak.

- Orra or, zergaitik muzin-egin dioten kristautasunari ongi ezitako gizakume guztiek. Ondorioz, kristautasuna, arrazoia erabiltzeko gai ez diran umez, emakumez, jopuz eta bizibide arloteko jende kulturik gabekoz osoturik dagoan ifiozo-talde bat besterik ez da.

- Logos» edo «Egiaren- etsai diran bezala, Nomos» edo «Legearen, etsaiak ere badira kristauak. Ongi ezitako gizakume guztien arau nagusia, errien erlijioenganako, jainko guztienganako, eta agintariak emandako legeenganako eraspina izan da beti, eta non-nai. Ba arau orokor ori da kristauak urratu duten lenen araua.

- Orregaitik dira bazter guztietan ain gogorki zigortuak.

- Orregaitik aurkitzen dira izkutuan bizi bearrean eta beren billerak lur zuloetan egin bearrean. «zulotik zulora, 'ni naiz pekatarririk aundiena' deadarka, gaez lokatzetan biltzen diran zizare zikiñak dirala esango nuke nik».

- Eta, orregaitik omen zaie kristautasuna lapurrei eta mota oroko gaizkillei ain gauza atsegiña. Kristo bera «lapur basatien buruzagia» izan omen zan; eta bera bezalako gaizkilleak omen ziran lagun artu zituan amabi Apostoluak.

- «Gure egunotan ere, gaizkilleak dira kristaudiko maixu eta buruzagiak. Beren jendea gaiztakerira bultzatzen duten gaizkille arriskugarriak».

- Ondo dagi beraz eta zugurki Inperio'ko JaurIaritzak, kristauak ain era

gogorrean zigortuz.

- Ez dute beraz, eriotzaz zigortutako kristauak, jende zintzoaren eruririk merezi.

Kristauak «egia billatzearen» etsai eta, ortarako, azterketarik egitearen arerio zirala, idatzi zigan Zelso'k. Berak beintzat ez zuan josu, amabi Apostolu, ta kristautasunaren teologi eta moralitateari-buruz egia billatzeko azterketa aundirik egin.

Aipatu ditugun idazle jentil oiek ez zuten kristautasunik ezagutu. Buruarinkeri txoliñean aritu ziran ezagutzen ez zutenaz mintzaten. Ez da arritzekoa Samosata'ko Luziano orrela jardun izatea, naiz idazkerarik ederrenean, ori bai, batez ere jendeari-par-egiñerazle bat izan bait izan beste ororen gaindik.

Beste aiek ordea, Tazito eta Suetonio bezala edestilari zurrak eta Zelso ta Mark-Aurelio bezala filosofilari burutsuak ziran...!

Argitara irten-ondorean asko irakurriak izan ziran liburu oiek, eta aski gaitz aundia egin zioten kristautasunari. Tazito ta Suetonio'ren iritzia ezagutzen zuan Erroma'ko jende ikasiak. Orain, Luziano'k bere iseka maltzuraren bidez, eta Zelso'k bere arrazoiketa ustela erabilliz, argi eta garbi utzi zuten, egia ezagutzeko beste jakin-bide erosorik ez zuan Erroma'ren inperio-lurreko jende landuarentzat, ez zitekeala kristau biurtu kixazko gizakumerik.

Oartu ziran arriskuaz kulturazko kristauak eta bereala ekin zioten kristautasuna babesteari, ots, kristautasunaren «apologia» egiteari, eta laister ikusiko dugun bezala beren idaztiak, idazkeraz beste aienak bezain txukunak bait ziran, — oroi dezagun Minuzio Felis— eta arrazoiketak askoz egitsu sendo ta egokiagoak, —oroi justino eta, beste aldetik, beste aien gezurkeria, naiz ongi elertiz dotore estalia agertu, arras nabaria bait zan, aurrera jarraitu zuan Elizak azi eta azi, egunetik egunera aundiagoa biurtuz.

MARK-AURELIO izan zan, 161'ean Antonio Pio il zanean, inperatore egiña. Adriano'ren sasikumea zala ere esan oi zan.

Pakezalea izanik, guda gogorretan sartua ibilli bear izan zuan, izugarrizko erasoak izan bait zituan barbaritarrengandik Erroma'k Germani-aldean eta Sortaldean. Sarkaldean, germaniarrak, Adriat-Itxasoraiño iritxita, izan ziran Akileia artzeko gauza.

Aurreneko zortzi urteetan, Mark-Aurelio'k inperatore laguntzailletzat arturik zeukan Luzio Bero'k eraman zuan guduaren zuzendaritza. Baiñan au 169'an il zanez gero, bakarrik gelditu zan Mark-Aurelio barbaritarrei aurpegi emateko. Buruzagi nagusi bakarra, naiz, berez, borroken maitale izan ez.

Mark-Aurelio'rekin amaitu zan inperatore «antolindarrek», — Nerba, Trajano, Adriano, eta Antonino Pio'k sendotutako «Pax Romana» edo «Erroma'gandiko Pakea». Mark-Aurelio'ren eta onen atzetik etorritako

Kommodo'ren agintaritza pake-aroa ez baiña aterketarik gabeko borroka-jasa geiago izan bait zan.

Borroka latz aiek txautu zuten Laterriaren diru guzia. Jausi zan gosetea Erroma'ren gaiñera, ikaragarritzko legorte baten ondorioz. Gero, bat-batean sortutako ugalde batek ondatu zituan inguruko soro eta landa guztiak, baita urian bertan garia gordetzeko obi guztiak ere. Ortaz gaiñera, izurri erioagarria ekarri zuten Ejito'tik zetozen lejiok.

Asarretu zan jendea. Asi zan, gaitz aiek danak jainkoez zapoztu ziralako etorri zitzaizkiola esanaz, eta, laister asi zan, jainkoak zapoztu izatearen errua kristaueña zala deadar egiten.

Bere idazti batean bein bakarrik, eta orduan ere, era isekalarian aipatzen dituan kristaueñ bizia babesteko, ez zien inperatoreak oiulari aiei batere eragozpenik ipiñi.

Filosofilaria zan bera, estoitarra. Idazle dotorea agertzen da idatzi zuan liburu bakarrean. •Meditationes», «Gogoetak», da idatzi orren izena, eta idatzi ortan kristauak aipatzerakoan, setatsuak, •aldakaitzak», dirala esaten du. Dakusazunez, Plinio'k erantsi zien errua bera: Erroma'ko jainko zaarrak gurtzera makurtzen ez ziralako, •burugogorak».

170'garren urtekoa da oroiz-kanpoko gertari bat. Badu gertari orrek, Bibliak Itxaso Gorrian gertatua kontatzen digunarekin kidesun bitxia.

Inperatorea, izugarritzko legorte-arogan, •Legio Fulminatrix» edo •Oiriaztarn-Lejioarekin» barbaritarren aurkako borrokaldi batean, Barbari'aren barruan barbaritarrez inguraturik dago. Egarriz ia akituta, lejiotarrak ez dira borrokarako gauza.

Danak, bertan barbaritarren ezpataz illak izateko une-unean aurkitzen dira.

Bat batean ortzia odeiez estalita izugarritzko euri-jasa datorkie gaiñera.

Jasa ark, ez zituan, Itxas Gorriak ejitotarrak bezala barbaritarrak irentsi, baiñan bai zearo barreiatu. Errez izan zitzaieñ lejiotarrei, egarria aseta gureña orokor bat irabaztea.

Gertaria, egiazkoa da, idazle jentil askok aipatzen bait dute: Dion Casio'k («Epitome»), Capitolino'k (•Vita Marci»), Themistio'k (•Oratio XV»)...

Idazle oiek, garaitza ura, inperatorearen otoitzen ondorioz jainko zaarrek emana izan zala, diote. Idazti kristauek berriz, Klaudio Apolinar'ek getakaritik urtetxo batzuetara, eta geroxeago Tertuliano'k •Apologetika-n, kristaueñ otoitzek Josu'gandik lortutako miraria izan zala, idatzi ziguten.

1••

Izan ziran martiriak Mark-Aurelio'ren denboran probintzi batzuetan; edo probintzietako jaurleen ankerkeriz edo erri-jendearen amorruez.

Eusebio'k, Sortaldean iru gotzai, ziñopa illak izan ziral dio. Baiñan ziñoparik ospetsuenak, Gali'etako, ots, Frantzi'ko Lyon'goak, eta, Erroma'n, Justino Donea ditugu.

Lyon'en, 177'aren dagonillean, erria jeiki zan kristauen aurka. -El gobernador dirigió a Marco Aurelio en demanda de instrucciones y este le contestó: 'los que persistan en sus creencias, sean castigados; los que renieguen de ellas, sean puestos en libertad'. Era la renovación del rescripto de Trajano» (Llorca). Gaur-egungo edestilariak ordea Mark-Aurelio'k erailketa artan es zuala zer-ikusirik izan, uste dute.

Danadala, Lyon'en, Potinus bertako gotzaia, Sanctus, eta Attalus diakonoak, Ponticus amabost urteko gaztetxoak, eta Blandina jopueme bizkorra, eta beste berrogei ta bost kristau izan ziran eraillak Kristo'ren sinispidean tinko iraun zutelako.

Erroman izan zan erailla Justino. Filosofiaren arloan arerio gogorra izan zuan Crescens filosofilari «zinikuaren» salaketa baten ondorioz. Filosofiaren arloan arrazoiketaren bidetik ezin garaitu izan zualako, borreniaren ezpataz izan nai ote zuan menderatu.

Justin Donea! Lenen maillako izarra II mendeko kristau jakintsuen artean.

Kristaua zan galdetu zion epaillak. Eta, bai berak eta bai bere lagunak baietz erantzun zutelako, eriotzara galduak izan ziran. Kristau jarraitu nai zutela esatea naikoa izan zan beste errurik gabe eriotzez zigortuak izateko.

•Propter contumaciam eorum», -beren setakeriaren erruz», esanen zuan Plinio Gazteak.

11 MENDEKO APOLOGILARIAK

Esan dugu noski •apologia» itzak •babesketa» esan nai duala. Era goresgarrian egiten dan babesketa., itz orrek •goratzarreaa ere esan nai bait du. Laukoitza zan apologilarien elburua:

- Adriano'k barreiatuak izan ziran ezkerko kukildurik zebiltzan juduei, egiazko Mesia Kristo zala adieraztea:

- Erroma'ko erri jentillari, kristauen aurka esan oi ziran izugarrikeri eta zikinkerri guztiak gezur utsa zirala ikustaraztea;

Jentil jakintsuen aurrean, arrazoiketa zuzenez kristautasunaren egitasuna era egokian agertzea, eta une berean kristauen aurka idazten asiak ziran filosofilari jentillen arrazoirik-eza argian ipintzea.

- Inperatoreei, kristauak gaizkille makurrak ez baiña mendeko errikide erromatar zintzoak eta jende paketsuak zirala jakiñeraztea.

Elizaren babesketa beren gain artu zuten kristau jakintsu onuragarri aien albiste-ematerakoan, asi gaitezen aurrena, mende artan besteen aintzindari izan zana, merezia duan eraspenez aurkezten:

•**•

JUSTINO Donea, jaiotzaz samaritarra, Sikem izeneko urian bizi ziran guraso jentil erromatarren seme jentilla, jakintza-zale aundia, orduango filosofi-ikastola guztietan ikasten ibillia.

Ondo ezagunak zituan, antziñako Platon, Aristotele, eta bere denborako estoitaireren eta beste filosofilarien beti egi-billatzaille nekaeziña izan bait zan, kristautasunarekin topo egin zuan arte. Eta, baita gero ere; egia obeto ezagutzearen egarri bizitu zitzaigun beti, filosofia lantzez aztutzeke.

Bein kristau kristau uts jarraitu zuan beti, ez zuan sekulan eliz-ordenik artu, baiña Elizaren serbitzura jarri zituan bere jakintza eta bere bititza guzia. Filon Alexandritarraren miresle, ari jarraituko dio Idazti Doneen •exegesi. edo •azalpen-gintzan..

Une artan, II mendearen erdia ezkerko, bi joera bizi ziran Elizaren altzoan:

- Bata, Elizaz-landako jakintzarekin, Grezi eta Erroma'ko literatura eta filosofiarekin ezer jakin nai ez zuana. Aburu ontakoak ziran beste batzuen artean Taziano Mesopotami'n eta Tertuliano Afrika izeneko probintzian. Gizon auentzat, greziarren filosofia eta kristautasuna batera etorri ez ziteken gogabideak ziran. Biak alkartu nai izatea, alperrikako ekintza ez ezik kaltegarria ere bazan.

- Beste era batera pentsatzen zuten ordea filosofia kristautasunari laguntzeko sortua zala uste zutenek. Auen aburuz, egoki zetorkion Elizari Sokrate, Platon eta Aristotele'k egindako lana, teologiaren aldetik bere dogmak argitzeko, eta apostoluzaren aldetik, ain kultura-zale zan une artan, jentillei dogma aiek era ulerterrezean erakusteko.

Iritzi ontakoak izan ziran Atenagoras, Grezi'n; Doneklemente alexandritarra Ejito'n, Origenes Sortalde guztirako, eta oiek baiño lenago, Ski'ko Edesa'n aurrena, eta Erroman bertan gero, Justino Donea. Bera izan bait zan oldozkera oni bidea iriki ziona:

»Justino Martir ocupa posiÇ"ão central na historia do pensamento cristao do seculo II» (Chadwick). Eliz-jakintzen arloan bere emaitzarik ederrena? generosa e optimista aproiximaÇä'o da tradiÇão grega e do Cristianismo» (Id.): Jakintzaren maitale sendoa izanik», gure Justino'k •greziarren irakaskintzak aztertzen, asti ederrak ematen zituala atsegin aundiz-, diosku Eusebio zesareatarak.

Platon-zalea izan zan batez ere, beti, Justino Donea, eta egiaren billa zintzo saiatu ziran Platon, eta Aristotele, •Krist'aurretiko kristauak» izan zirala idatzi zuan.

Arrats atsegin zitzaizkion olerkari jentillen esaera dotore zuzenak ere.

Gauzak orrela ikusten zitularik, ez da arritzekoa kristau biurtu zan une beretik Osroene'ko Edesa'n aurrena eta Erroma'n gero, filosofiaz baliatuz, jende landuari kristautasuna irakasten asi izatea.

Sokrate'ren erara, ikasleekin alkarrizketan irakasten omen zuan, eta, filosofilarien adigarri zan •tribon» izeneko kapa bizkarrean zuala, Eusebio'k dioskunez. Filosofilari ikristaua...! Beste filosofilarien artean batere lotsarik gabe filosofi-era berri bat irakasten...! Ordurarte sekulan ikusi ez zan gauza!

Ez zuan, beste irakasleek bezala dirurik eskatzen. Au omen zan Justino'k bere ariketari-buruz eman oi zuan arrazoia: •Porque quien puede decir la verdad y la calla, sera juzgado por Dios; (Justino'k berak •Alkarrizketa» izeneko liburuan. GER'ek gazteleratua).

Mark-Aurelio inperatore zala iritxi zan Erroma'ra, eta bereala, an, filosofi kristaua erakusteko ikastola bat iriki zuan. Filosofi-era bakoitzak ikastetxe asko zituan Erroma'n. Ikastola guzti aien artean, bazan Justino iritxi zanez gero, filosofi kristaua erakusten zuan ikastola bat ere.

Arrezkero, Sokrate, Pitagora, Platon, Diogene, eta Aristotele'k bezala, bazuan Kristo'k ere Erroma'n filosofi-ikastola egokia. Ordurarte mundu osoan ez bait zan filosofi jentilla besterik irakatsi.

Justino'rentzat ordea ez zan filosofi jentilla kristau filosofiarekin alkartu eziña, bere ustez filosofi jentil ura, Jainkoaren borondatez, kistautasunari bidea gertutzeko izan bait zan sortua. Geiegikeria? Ez, Jainkoaren probidentzi edo ardura done orokorra sinisten duan kris- tauarentzat. Dana da la ori izan zan Augustin Donearen aburua ere, eta orrela pentsatu zuan mendeak geroago Akino'ko Tornas Doneak.

Asko idatzi zuan Justinok baiñan iru liburu bakarrik iritxi dira gugana: •Trifon'ekingo Alkarrizketa» eta bi •Apologiak».

•Alkarrizketa»n Trifon judutarrari, Jainkoak agindutako Mesia Josu daia agertuz gero, Eliza dala Israel Berria, erakusten dio. Egiatzko Israel bakarra, Israel zanari agindutako Mesia berak bakarrik onartu dualako. Eta Israel zarreko legeak ez zuala Mesiaren etorrena gertutzea beste eginkizunik.

- Orregaitik, bein Mesia etorri, lege zar ura baliorik gabe gelditu dala.
- Orregaitik, orain, Mesiak emandako legeak bakarrik balio duala: Israel Berriko legeak.

Azkenik, Josu jainko izateak, ez duala Jainko bat baiño geiago diranik esan nai, adierazten dio Trifon bere adiskide judutarrari.

Justino'k argi eta zuzen ikusi zuan Trinitate edo Irutasun Donearen izkutukia.

Azkeneko •Apologia• Antonino Pio inperatorearentzat idatzi zuan. Ona emen bere mamia lau ataletan:

1^a: Politikaren aldetik kristauak aipatzen duten Kristo'ren erreiña, mundu ontako erreiña ez da. Orregaitik, mundu ontan, kristauak, pakezaleak izateaz gainera, agintariek izan dezazketen mendekorik apalenak dirala.

Gero, kristauei-buruz Adriano'k emandako agindua betetzeko eskatzen die Justino'k Erroma'ko inperatore eta agintariei.

Ainzuzen, Justino'k gorde digu, Apologi oni josi zion eraskin batean, Adriano'k, agindu ura emanaz, Minuzio Fundano'ri idatzi zion eskutitz aren kopia. Balio aundiko kopia. Bestela ez genuen ba eskutitz aren tankerarik ezagutuko.

2^a: Teologiaren aldetik, kristauak ez dirala jainkogabeak, dio, Jainko bat bakarraren gurtzailleak baizik. Josu, Jainkoaren Semea dala; Profetek agindutako Mesia.

3': Oiturizti edo moraliztiaren aldetik kristauen mundu guziaganako maitasuna eta kristauak gorputz-animeko garbitasunari ematen dioten garrantzia goraiatzen ditu. Eta baita martirien jardunbide zintzoa ere. Gero, bataio- aren eta eukaristiaren azalpena erasten dio len esanari.

4^a: Munduari begira, filosofilari jentillek egiaren zati asko ezagutu zituztela, dio, baiñan egi oiek Bibliatik, jaso zituztela, eta, orregaitik, aiek ezagututako egi-zati guztiak Jainkoak gizadiari erakutsitako Egiaren apurkak besterik ez dirala.

Gogoeta ori, Filone'en ondorengo judu alexandritarrendandik jaso du agian Justino'k, ala pentsatzen bait zuten aiek ere, baiñan geiegikeri bat besterik ez da. Geruxeago Origenes'en eskolan bir-ikusi aal izango dugun geiegikeria. Platone'k, adi bidez, Bibliarik ezagutu zuan ez bai dakigu. Alatagutziz, Moise'ren ikasle izan zala Platon, idatzi zigun Justino'k.

Alatagutziz, badirudi ori geitxo esatea zala oartu-edo zala Justino bera. Filosofilari zarrek beste bide batetik ere egi aiek jakin aal izan zituztela bait dio: Jainkoak Gizakume orenen baitan ezarri duan kontzientziaren bidetik. Justino'k bazekian ba, Itun Zarreko «Jakintza, liburuak aurrena eta Paul Doneak gero (Err. I. 18-249) erakusten duten lez, gizakumeon kontzientziak, Jainkoa eta Jainkoaren legea ezagutzeko gaitasunik aski baduala.

- Egi orokorra, Logos Osoa omen da, Kristo Jainko gizon egiña.

Logos Oso orri, Logos •spermatilths• esan oi dio. Eta •sperna• itzak eleneraz •azia esan nai bait du, filosofilariak erakutsitako egiak, eta gizon orok ezagutzen dituan egi guztiak, Logos orrek guri emandako

egi-aziak besterik ez omen dira.

Onek ere, geiegikeri utsa dala dirudi, bai bait du mendeak geroago sortuko dan •tradiziokeri» edo gizakumeari lenen gogapen guztiak Jainkoak berak zuzenean eman zizkiola eta gero gugana agoz-ago iritxi zaizkigula erakutsi zuan •agoz-agozkeri» arekin kidetasun aundia.

Baditu Justino'k orrelako geiegikeri geiago.

- Bera izan zan Irutasun Donearen izkutukia teologi-eraz aurkezten aurrena saiatu zana. Egoki gaiñera. Baña badirudi, esaldi batzuetan .subordinationismus. edo menpekotasuna esan zitzaion erejira jausi zala; Irutasuneko bigarren Pertsona, •Logos», «Itza», lenengo Pertsona dan Aitaren menpeko bezala agertzen bait du.

Gauza jakiña da noski nere irakurle guztientzat sortaldetarrek eleneraz «Logos», lateraz •Verbum», — euskeraz «Itza» esaten diotela, sarkaldetarrok «Filius» •Semea» esaten diogun Irutasuneko Bigarren Pertsonari.

Ba, aipatutako esaldi oietan, Justino Doneak,

1 - •Logos», Aitak •egiria bezala», ikusten duala dirudi; eta,

2 - Aitak munduari ezerezetik sortzea emateko eta geroago gizadiari jakintza jainkotiarra erakusteko •bearrezkoa zualako» egiña izan ba'litz bezala agertzen duala dirudi.

Justino ereje? Ez orixe. •Logos Jainkoa izan dala, Jainkoa dala eta Jainkoa izango dala argi baiño argiago aitortzen bait digu.

Kristauok badakigu Bigarren Pertsona, Aurrenekoagandik betidanik sortzen ari dala; Aitarengandik datorrela Semea. •Sortu» aditzaren ordez Justino'k lenen esaldian, •egin aditza erabilli zuan. Ez da arritzekoa teologiaren izkera ez bait zegoan oraindik bein betirako tajutua. Bera zan ainzuzen, —Justino teologiaren alorra lantzen aurrenekoa.

Bigarren esaldiekin berria, au adierazi nai izan zuan: Logos izan zala izadi osoaren egillea, — •orria per Ipsum facta sunt et sine Ipso factum est nihil»: Berak egiña da guzia, eta ez da ezer Bera gabe egiña izan danik (Jn. I, 3).

Era berean, Logos-Gizon-Egiña dala gizakumeoi jainko-jakintza erakutsi diguna.

Eta, ortarako, bearrezkoa izan duala Aitak Logos Semea, Irutasun Donearen altzo izkutuan gauzak orrela egitea erabaki zan ezkeru.

- Gotzoniztia edo aingeruiztia ere arrigarrizamarra du Justino'k.

Platon'en Jainkoa bezala urruti aurkitzen dan Jainkoa da Justino platondarraren Jainkoa, itxuraz beintzat.

Orregaitik bearrezkoa du Jainkoaren eta gizonen artean izpiritu batzuk ipintzea, eta ugari dira Justino'k ipintzen dituanak. Izan ere gotzoniztiaren aroa bait zan ura, batez ere platonitasun berriaren jarrailleen artean. Eta bide ortatik ibilli ziran ereje gnosizaleek ere.

Elenerazko itza erabilliz •daimones» esaten die Justino'k gotzon oiei.

,aizezko gorputzez egiñak omen dira; batzuk onak, gizakumeen zaindaria, eta beste batzuk gaiztoak, gizakumeen ondatzaille eta Elizaren

arerio gaitzak.

Daimon« gaiztoak •daimon. emeekin alkartu omen ziran, eta eme oiengandik jaiotako umeak omen dira deabruak.

Deabru auek, atmosfera edo eguratsaren bee-alde ontan bizi omen dira, gizakumea zirikatzen, Kristo'ren azken-etorTera arte. Orduan inpernuko sute betikorrera jaurtiak izango omen dira.

Irizpide guzi ortan gotzon onak, gizonaren zaIndariak, eta gotzon gaiztoak, gizonaren etsaiak, badirala bakarrik da egia. Gatherakoa ipui utsa da, garai artan oso zabalduzik zegoan gotzoniztitik jasotako ipui utsa. justino'k kristau itxura eman nai izan zion arras zabalduzik aurkitzen zan ipui ari. Paul. Doneak bere Epistolen bidez egin nai izan zuan gauza bera. Ikus, adibidez Kol.I. 16.

- Millurtekerizale edo milenarista ere izan zitzaigun Donejustino. Irizpide ori ordea, millurtekeria, ez zan orduan Elizak gaitzetsitako okerkeri bat; bai ordea aski zabalduzik zegoan aburua.

- Justino'k erakusten digun meza, gurea bezalakoxea da: Itzaren Liturgia, gotzaiaren itzaldiarekin; ogi-ardoen eskeintza, eta, bertan, meza-entzuleen artean egindako eskea; sagaraketaren liturgia; jaunartzea eta azken otoitzak.

- Eukaristia, •Malakia'k aurre-iragarritako ogi-ardozko sakrifizioa» dala dio: •Kristo gizon egiñaren gorputz eta odol biurtutako ogi-ardoen« misterioa: .Josu'ren azken-aparia bera».

- Miren Neskutsari-buruz, Justino dugu Miren eta Kristo bere semea, ta Ebe eta Adan bere senarra salbapeneko misterioan aurre-ipintzen lendabiziko idazle kristaua.

- Idazti Doneei-buruz, ederki dio opusdeitarren GER entziklopedi mardulak: •Aunque no cita el cuarto Evangelio ni las Epistolas Paulinas, puede decirse que, excepto las pastorales, conoce todo el Nuevo Testamento, principalmente los sinOpticos y el Apocalipsis. UsO adem'as otros textos ap•Scrifos, si bien pudo tomar de la misma tradiciin que ellos los textos alusivos a la vida oculta de Jesus, vgr. su nacimiento en una cueva de venida de los Magos desde Arabia o desde Damasco...»

Azkeneko lerro ori argitzeko esan dezagun, gauza berdiña zala Justino'ren aroan Azti aiek Arabi'tik etorri zirala edo Darnasko'tik etorri zirala esatea, erromatarrentzat, Damasko, Arabi'ren uri nagusia bait zan.

Justino'ren«antropologi» edo •gizaiztia», arras zuzena da; Platon'engandik jaso. Egia da, noiz-beinka, platontasun berriko izkeraren araura, gizona iru izakiz osotua bezala aurkezten digula Justino'k: •Soma», (soiña); •Psije.«, (landare, abere ta giza-soiñen bizremalle dan barne-indarra); eta »Logos», (gizakumeen izpirituzko Anima).

Luzaro egon zan •trikotomi• edo •irukolztasun» ori, pentsalari kristauen artean bizirik, eta ez da oraindik ere Elizak gaitzetsia izan.

- justino'k ordea, ia beti Platon beraren izkera erabilliz, gizakumea bi izakiz bakarrik dagoala osotua, erakutsiko digu: •Soma», soiña, e'a •Psije«,

gizakumeari bizi oro, — landarekoi-aberekoi-gizakoi-bizitza — ematen dion izpirituzko anima bakarra.

Ez da ordea Justino •dikotomista•, ots•bikoizkeri-zalea», Platon izan zan bezala. Platon'ek, gizakumeon animak, gorputzetara sartu aurretik, beste mundu batean, izpirituen munduan, bizitzen dirala uste izan bait zuan. Justino'k, ez. Justino'rentzat giza-anima bakoitza, gizakume bakoitzaren sortze-unean bertan Jainkoak ezerezetik egiña da; eta ezerezetik Jainkoak berak sortutako anitua orrek ematen dio giza-soiñari bizitzen asi aal izatea eta bizitzen jarraitzea.

- Kezkagarriagoa dugu Justino'ren •eskatologi• edo •azken-une-iztia»:

Millurtekeriz orbandua. Eriotzaren ondorean ez omen da, — berak dionez ildakoaren gogoia zuzenean zerura edo inpemura joaten; bien bitarteko •toki• batean gelditzen omen da azken-juizioaren zai. Toki atsegiñean, munduan ona izan danaren anima; toki negargarrian, gaiztoa izan danarena.

Josu azken-epaiketara etortzen danean ildako guztiak berbiztuko omen dira, eta inpemura joango gaiztoak, gorputz eta anima.

Onak ordea ez omen dira bere-artan zerura joango, baizik eta, gorputz eta anitua, mundu ontan geldituko omen dira milla urtez Kristo'rekin. Kristo ere emen geldituko omen da ba, •Jerusalen Berria» izen eramango duan Bere Erreiñuaren Errege; eta Erreiñu ortan biziko omen dira Kristo'ren esanera zoriontsu, mundu ontan zintzoak izan diranak.

Gero, milla urte emen Kristo'rekin •Jerusalen Berriko• erreiñuan zoriontsu bizi ondorean sartuko omen dira Kristo'rekin Zeruetako Erreiñura».

Aitortzen digu Justino'k ez dutela kristau guztiek Kristo'ren milla urteko erreiñu ori ontzat artzen. •Bai ordea zuzenki pentsatzen dutenek. Eta aiek bakarrik ainzuzen (justino'k •Alkarrizketa•n).

Oker zebillen ontan Justino baiñan oker ibilli ziran antziña artan beste teologilari batzuk ere, Elizaren sinispidea ez bait zegoan oraindik bear bezala mugatua.

Justino, Elizaren lenen teologilaria; eta martiri ospetsua. Ongi merezia du edestia-zear jaso duan omena.

e

TAZIANO. Justino'ren ikaslea. Ez ordea bere irakaslearen antzekoa.

Mesopotami'ren iparrean aurkitzen da Asiri esan oi zaion lurraldea. An jaio zitzaigun Taziano. Adimen estuko gizona, Grezi-Erroma'ko filosofi, elerti eta kultura osoaren arerio zakarra. Garaiz-aurreko jansenista.

Alare, ez zan Taziano, Saint-Zyran'go gure abata baionatarrarekin ongi etorriko, au baiño askoz estu eta gogorragoa bait zan ura.

Justino'k naimen onezko esku zabala aurkeztu ba'zien jentil jakintsuei, borrokarako prest eskumutur ertsia erakutsi zien Taziano'k.

Justino'k ederki ikusi zituan kultura eder aren alde on guztiak;

Taziano'rentzat kultura ark ez zuan okerkeria besterik. Jentilla zitekean orotik yare, aurrera jarraitu bear zuan Elizak, soilki Idazti Doneetan oifiarriturik. Jentillediko kultur ura sinispidea zikintzeko arriskua besterik ez bait zitzaion Elizari.

Agian, neoplatonkeriarekin aidetasun zerbait ba'zuan gnosikeri makurra zeukan orrela mintzatzean Taziano asiritarrak gogoan.

Ertsikeri ark ordea, zismara eraman zuan, «enkratikeria» esan oi zaion erejira. Taziano izan zala esan oi da Eliz Enkratiarraren sortzaillea, baiñan ereji ori bazan Taziano jaio baiño len ere; judutasunean bait zuan bere iturburua. Ainzuzen judu-kristauak izan ziran Asiri ebangelizatu zutenak. Danadala Taziano'ren Eliz arek, ezkontza ere galerazten zien bere elizkideei, ez omen zan ba ezkontza izorrakeri utsa besterik!

Bi liburu idatzi zituan Taziano'k:

- Bat, lau ebangelioa batera bilduz, «Diatessaron» izen eman ziona.

Sortaldeko Elizetan luzaro erabilia izan zan liburu orren bidez Taziano dugu Josu'ren bizitza lenen idatzi zuan idazle kristaua.

- Bigarrena, «Greziarrentzako Jardunaldia», bere aburuak azaltzeko idatzi zuan Taziano'k. «Aski zabaldua omen zegoan Siri'ren sortaldean Taziano'k erakusten duan kristautasun-era latz ori, eta lekaideen artera ere igaro omen zan lazkeri ortatik zerbait»: Tazien represente un type de christianisme radical, qui etait courant en Syrie orientale, dont quelque chose a persiste dans le monachisme. (Danielou).

Ikus ditzagun II mendearen azken-aldeko beste apologigille batzuk:

ATENAS'KO ATENAGORAS, ez noski Taziano'ren antzeko gizona, Justino'ren bidetik filosofiaren maitalea baizik; deitu ere, «Atenastar Filosofilaria» deitzen bait zion bere buruari.

«Kristauen alde Eskaria» izen eman zion, «inperatore filosorilari» lez agurtuz Mark-Aurelio ta Komodo'ri zuzendu zien bere Apologiari.

Liburu ederra. Era dotorean, Bossuet'i asko ategin zitzaion eran idatzia. Ederki autsegiten zituan kristauet leporatzen zitzaizkien okerkeri guztiak: Jainkogabekeria, moralitaterik eza, eta giza-aragi-jatea.

Ez zan, ez, nolanaiko idazlea, Atenagoras txukun ura.

ANTIOKI'KO TEOFILO Donea, jentil jakintsua, adintsua zala kristau egiña eta gotzai izatera iritxi zana. Asko idatzi omen zuan. Baita apologi labor bat ere. Idazti ontan agertzen zaigu aurreneko aldiz «Irutasun» itza, Jainko batean iru Pertsonen bereiztasuna adierazteko.

Liburu ortakoa da esakizun eder au ere: «Erakutsi eidazue zuek, nolako gizonak zeraten, eta erakutsiko dizuet nik nolakoa dan nere Jainkoa».

MINUZIO FELIS Erroma'ko lege-gizonak eman zigun, Renan'en ustez perle de la litterature apologetique». ots, •apologiari-eliztiko bitxia omen dan «Octavius» izeneko idaztitxo. Lateraz dago, Minuzio Felis *izan* bait zan, apologi bat eleneraz ez baiña lateraz idazten aurrenekoa.

Platon'en erara tajutua, iru adiskideen arteko alkarrizketa bat da liburu txukun au: Iru adiskide oietatik bi, kristauak dira, bestea Zezilto, jentilla.

Baiñutegi batera sartzerakoan, agur dagio erazpenez Zezilto'k sarreran aurkitzen zan sasijainko baten irudiari.

Arritzen dira beste biak, eta arrizko irudi bat nola gurtu dezakean galdetzen diote.

Zezilto'k, banan-banan bere arrazoiak emanez erantzuten die:

- Ez omen ditu sasijainko aiek sinisten;

- Baiñan gizakume oro bezala bera ere, gizadiaren nondikoa, nolakoa eta norakoa jakin gabe illunpean aurkitzen omen da-ta, egokia iduritzen omen zaio, beste biderik ezean Erroma'ko jainko zarren bidetik jarraitzea;

- Erroma'rentzat zaindari ongilleak izan omen dira gaiñera jainko zar aiek.

- Bestalde, ez omen du uste kristaua errugabeak diranik;

- Asko ta larriak omen dira ba beraien aurka esan oi diran okerkeriak.

- Ez omen dute beraz jaramonik merezi.

- Ta..., nork jakin gaiñera eta nola jakin egia non aurkitzen dan?

- Ortaz, filosofilari zurgurrek erakusten duten lez, zalantza omen da gizakumeontzat egi ziur bakarra.

Banan-banan askatzen dizkio Oktabio'k Zezilto'ri onek aurkeztu dituan korapillo guztiak. Ori egitean onako atal auek azaltzen dizkio:

Jainko bat badala, eta, Jainko ori, bakarra dala; Jainko orren izadiaganako Ardura Donea; Filosofilariiek beraiek gaitzetsia duten politeismo edo jainkoaskokeriaren zentzugabekeria; Kristauen aurka esan oi dan guztiaren gezurra; kristauen biziera done aintzagarria...

Idazti polit ontan guztia da atsegiña: -La langue est elegante, l'art consomme, le periode classique. On croirait lire du Ciceron ou du Seneque» (Daniel-Rops): •Izkera, txukuna; ertiera, gurena; izketaren joana, klasikuen erakoa. Irakurtzerakoan Zizeron edo Seneka'ren zerbait irakurtzen ari gerala dirudi».

170'garren urteaz gero izan zan idatzia.

...

SARDES'KO MELITON, Ermias, eta Milziades ere II mende ontako apologilariak izan ziran; baiñan beren idazkiak, zori txarrez, galduak ditugu danak.

Ez zan noski makala, II mendeko Eliz gazte artan, orrenbeste idazlek adierazten digutenez, adimenezko langintza! Ez zan ura, ez orixe, kulturik

gabeko Eliz basatia.

KOMMODO dugu Mark-Aurelio'ren urrengo inperatorea, izan ere aren semea izan bait zan. Inperatore izatera iristen aurreneko inperatore-semea, bera, Erroma'ko edestian.

•Cómicodo es sin duda uno de los emperadores criticados por la historiografía senatorial. Hay que tener en cuenta sin embargo que el disoluto Cómicodo se presenta, en sus actos, más bondadoso y tolerante que su padre el Emperador fik5sofo» (GER).

Aski era larrian artu zuan inperiotza bere aitaren eskutik. Altagutziz Kommodo'ren agintaritzza izan zala diote edestilariek •the turning-point in the greatness of Rome» (Catholik Encyclopedia): •Erroma'ren aunditasunaren itzul-puntua».

Naiz probintzi batean edo bestean Eliza asko edo gutxi jazarturik aurkitu, pake aroa izan zan kristautentzat bere agintaritzza. Bi arrazoi ezberdiñen ondorioz, ainzuzen:

- •One result of his cruel policy was to divert attention for a tiene from Christians and to lead to a partial cessation of persecution» (Cath. Enc.):

Kommodo'k arerio asko izan zualako, •bere aginkera ankerrak, kristauengan- dik, jendearen oarkuntza beste alde bateruntz itzuli zualako, une batez etenik utzi zuan aien aurkako zigorketa».

Pake-aro ontaz ederki baliatu zan Eliza, aurrera jarraitzeko.

Marzia, Kommodo'ren maitalea kristaua zalarik kristauen laguntzaille izan zan beti.

There were many Christians in the court of Commodus, and in the person of Marzia, the concubine or morganatic wife of the emperor, they had a powerful advocate through whose kind offices on one occasion many christian prisoners were released from the mines of Sardinia» (Ib.): •Ugari izan ziran kristauak Kommodo'ren inguruan, ta, batez ere, inperatorearen maitale, edo agian, emazte ez-erregekume zan Marzia babesle indartsua izan zuten beti.

Emakume orren arreta ontsuari eskerrak izan ziran bein kristau katigu asko Zerderia'ko meatzetatik yaretualc».

Kommodo'ren azken-aldean egiazko erokeri biurtu ziran ordurarteko bere txepelkeriak.

Eta, azkenean, era gaiztoan erailla izan zan. Erailleetako bat, bere maitale izandako Marzia ura.

II MENDEKO AITASANTUAK.- Leenagoko Aitasantu aietaz ez bezala, zerbait geiago badakigu, II mende onen erdiko urteetan Kepa Donearen

Aulkian eseri ziranei-buruz.

I PIO Donea. Ez ordea oni-buruz ez. Ez dakigu deus aundirik Aitasantu oni buruz era eskierrean. Ermas idazlearen anai izan omen zan.

Gauza bera esan genezake aren ondorean etorri ziran Anizeto, Sotero eta Eleuterio'z ere. Baiñan ospetsua ta ederki ezaguna dugu, onen urrengoa izan zan I Bitor.

I BITOR ETA PAZKOA-ARAZOA. Pake-arogan gertatu zitzaion aitasantutza, Kommodo, Marzia polit-ederraren maitalea, inperatore zala, eta Alexander Sebero'ren aurren-urte bareetan. Ainzuzen I Bitor Aitasantu zala yaretu zituan Marzia'k Zerderia'ko meatzetatik kristau baituak. Ikus nola:

Inperatorearen jauregira dei egin omen zion egun batez Marzia'k I Bitor'i, eta ugarte artan katigu zeuden kristau baituen zerrenda bat eskatu.

Eman omen zion Aitasantuak zerrenda ori, eta Marzia'k, Kommodo'ren baietsia lortu ondorean, diakono bat bidali omen zuan kristau meatzariak askatzeko aginduarekin. Ikaragarria izaten zan lankera erromatarren meatzetan.

Pazkoari-buruzko arazoa, pazko eguna, ots, Josu'ren Berbizkunde-eguna noiz ospatu erabakitzeke sortua izan zan.

Sortaldeko Elizek, Nisan illaren 14'garren egunean ospatzen zuten Pazko-eguna, naiz egun ura astegun gorria izan.

Erroma'ko Elizak ordea, aspaldicianik, Nisan illaren 14 'garrena astegunean erortzen ba'zan, urrengo igandera aldatzen zuan jaia, orrela, pazko-eguna beti igandean ospatuz.

I Bitor Kepa Donearen aulkira igo baiño lenago ere, izan zan Erroma'n, Pazko-eguna zala-ta, liskar zitalik aski. Zergaitik ain gogorra biurtu zan auzi au I Bitor'en garaian? Ez noski I Bitor Aitasantuaren buru-gogorkeri utsagaitik. Baizik eta bera Aitasantu zala, Asi izena zuan probintzitik etorriak ziran kristauak anitz talde aundia osotzen zutelako, eta kristau aiek Erroma'n bertan Pazko-eguna Son_ aldean bezala ospatuz jarraitzen zutelako.

Bi egun ezberdiñetan egiten zan beraz Errorna'n Josu'ren Berbizkundearen ospakizuna. Ta Berbizkunde-Pazko ori Elizaren egunik aundiena dalarik, ezberdintasun ura ez zan noski gauza egokia Eliz bat bakarraren batasunarentzat.

Gaiñera, — juduen egutegia illargiari dagokiona izanik — Nisan illaren 14'a, udaberriaren sarrera-muga ondorengo lenen illargi betea da. Eta erromatarren egutegia eguzkiari dagokiona zalako, urte batzuetan tarte aundia gelditzen zan Erroman bertan, Eliz bat beraren altzoan, bi pazko-

egunen artean.

Jabetu zan ortaz I Bitor, eta ori zuzendu ta era egokian antolatu nai izan zuan bein betirako.

Baiñan, gogortxo ibilli zan, agian. Eta ez oso era yayoan, auzia erre konponduko bait zan I Bitor'ek pazko-egun-batasuna, Sarkaldean bizi ziran sortaldetarrentzat bakarrik mugatu ba'lu. Bitor'ek ordea Eliz osora zabaldu nai izan zuan auzia.

Mas los orientales de Asia Menor, dirigidos por el obispo de Efeso Policrates, defendieron con tenacidad su tradición, por lo cual amenazó un cisma en la Iglesia» (Llorca).

Ez da egia. Sortaldetarrek bazuten beren oitura aldezteko eskubide betea. Aitasantua izan zan orduan baldar ibilli zana.

Gaiñera, arazoa, ez zan Sortalde guzikoa, orduan erromatarrek Asi esaten zioten probintziko baizik, bereziki beintzat.

I Bitor'en aurretik ere izan ziran auzia konpontzeko saiaketak Erroma'ko urian. 120'garren urtearen inguruan adibidez, Aitasantu Sisto zala. Bi Pazko-egunak ontzat artuz amaitu ziran alkarrizketak.

Geroago, Aitasantu Anizeto zala (155-156), Esmirna'ko Polikarpo Doneak ere askatu nai izan zuan Pazko-egun ezberdin orren korapilloa, Erroma'ra joan zanean.

Eusebio'k dioskunez, Anizeto'k ezin izan zuan Polikarpo bere iritzira erakarri, Polikarpo'k, pazkoa Nisan Illaren 14'ean bertan ospatzea •berak bizi-lagun izan zituan Jon'en eta beste Bidalien oitura zala», esaten zualako: •L'usage de Jean et des autres Apôtres avec qui il avait vecu».

Baiñan ezta Polikarpo'k ere •ne peut obtenir l'abandon par Anicet de l'usage des presbytres antérieurs lui»: •ezin izan zuan Anizeto, aren aurrengo bereterrek oiturazkoa zutena utzieraztera eramán» (Danielou'k frantzeratua).

Darabilkigun, pazkoari-buruzko gaiaz landa, ikus or, irakurle, nola II mendearen erdian Anizeto Aitasantuak bere aurreko gotzai erromatarrei, ots, bere aurreko Aitasantuei •bereterrak», •presbiteruak», esaten dien.

Egin ziran, pazko-auzia erabaki naiez, an-emen sinodo batzuk. Egin zuan I Bitor'ek ere Erroman berea. Sorkaldean bertan, Korinto, Pont, eta baita Eufrate-aldean zegoan Osroene-ko Eliza ere Pazkoa igandez ospatzearen alde agertu ziran.

Berean jarraitu zuten ordea Asi probintziko Gotzaiek. Efeso'koak eskutitz bat bidali zion I Bitori, •Asi'ko kristauei beren oitura Jon eta Felipe Apostoluengandik zetorkiela» jakiñeraziz.

I Bitor Aitasantuak, Zesarea'ko Eusebio'k idatzi zigunez, gutun bat bidali omen zien Asi'ko gotzaiei, danak eskomikatuz.

Urduritu ziran gotzaiak Elizan.

Zorionez, une artan Lyon'go gotzaia, Ireneo Donea sartu zan auzian, I Bitor'i, Asi'ko Elizen oitura eraspenez artuz bere jardunkera goxatzeko eskari-egiñez. Ona Ireneo'ren eskutitzaren zati bat:

Les presbytres anterieurs SÖter qui ont dirige **que tu gouvemes** aujourd'hui, c'est-a-dire Anicet, Pie, Hygin, Telesphore, Xyste n'ont pas garde a eux-memes le quatorzieme jour, mais n'en ont pas interdit l'usage ceux qui venaient des chretientes dans lesquelles ii et2it garde, (frantzeratzaille, Danielou):

•Soter'en aurretik zuk orain jaurtzen duzun Eliza zuzendu zuten Anizeto, Pio, Ijiniio, Telesforo, eta Sisto bereterrek, ez zuten (nysan illeko) amalaugarren egunik jaitu, baiñan ez zioten ori egiterik galerazi ori egiten zuten Elizetatik etorritakoei.

Oar, idazti-zatitxo ortan, nola Ireneo'k ere II mendearen azkenean, aipatzen dituan Erroma'ko sei gotzaiei, ots, sei Aitasantuei bereter edo presbitero esaten dien. Poliki-poliki joan bait zan, Eliz bakoitzean, bereter gotzaien batzarreko bereter gotzai zuzendaria besteen gaindik burua jasotzen eta aien almen guztiak bere eskuetara biltzen, eta besteak bereter uts biurtzen, edo, berdin dana, apaizgo utsean gelditzen.

Baretu zuan Ireneo'ren bitartekotza yayoak I Bitor Aitasantua, eta itzuli zan pakea Eliz orokorraren altzora.

SINISPIDE OKERRAK

EREJI» esan oi zaio teologiko izkeraz sinispide okerrari. •Erejea», beraz, Elizaren sinispidetik irtetzen dan kristaua da, ots, Elizaren sinispideko egiren bat-edo-beste ukatzen dituana. Egi danak, au da, Elizaren sinispide osoa ukatzen ba' du, ereje ez baiña •apostata-, •fede-ukatzaille-, biurtzen da.

Oportet haereses idatzi zuan Paul Doneak: •Bearrezkoa da erejiak izatea». Bikoitza dugu, esakizun orren zentzua. »Erejiak beti izango ditugu», ala, zuzenki, •bearrezkoak diran gauzak ditugu erejiak».

Badu bigarren zentzu orrek bere balioa. Erejiek, egoki erakusten bait digute ba egiazko sinispidea non aurki dezakegun.

Egiazko sinispidea Josu'k irakatsia eta berak sortutako Elizaren zaintzapean ipiña da. Ainzuzen sinispide ori sendo garbi, eta zuzen gorde zezan agindu zion Josu'k Elizari, •berekin egongo zala mendeen amaiera arte».

Erejiak, Josu'k Eliza-baitan landatutako Egiaren zugaitzetik jausitako adarrak dira. Badakigu Ereji baikotza noiz sortu zan eta nork sortu zuan. Eta baita zergaitik sortu zuan ere.

Orrela, mendez mende, erejiek egiazko sinispidera garamate, Josu'k, zerura igo aurretik Elizaren zaintzapean utzi zuan eta mendeak-zer Josu'ren laguntzarekin, Elizak zaindu duan eta »mendeen amaiera arte- zainduko duan sinispidera.

Zein da beraz egiazko sinispidea? Ez noski ereje onek edo arek sortu zuana. Baizik eta Josu'k bidaliei eman ziena, eta guri zuzenean Bidaliengandik datorkiguna.

«La historia entera de la Iglesia esta surcada de herejias siempre nuevas y siempre condenadas por la Iglesia- (Lortz. Gazteleratzaille, A. Andreu).

Kontuz ordea! Ez ez'zazula uste ereji-egilleak gaiztakeriz joan zirala erejiraiño. Entzun Jeronimo Deunari: •Nadie puede construir una herejia a no ser que este dotado de un ceio ardiente y dones naturales» (A. Andreu'k gazteleratua).

Erejea ez da pekatari, aburuz aldatzeko eskatzen dion Elizaren aurrean burua makurtzen ez duan arte. Eta, orduan ere, kontzientzi-barrundik lezakean erantzukizuna, Jainkoak bakarrik epaitu lezaioke.

Erejiak ugariagoak izan ziran Elizaren lenen mendeetan, orduan ez bait zegoan oraindik teologia aski garatua, eta, ondorioz, ez bait zegoan sinispidea ere gaur egun bezala zeatz mugatua.

Ala, Bidaliengandik jasotako •Thesaurum Fidei» edo •Egi Sinesbearren Altxorra» aztertzerakoan ez da arritzekoa lenen teologilari aiek, atal batean edo bestean, beraiek oartzeke oker ibilli izatea. Ez bait zan erreza, adibidez Irutasun Doneko izkutukia filosofizko izkeraz filosofilari jentillei ematea.

uNo hubo entonces ningun teólogo que de una u otra forma no se imaginara a Cristo esencialmente subordinado al Padre. Asi, Justino, Hipólito, Novaciano, y Tertuliano. Incluso la idea de Dios se expresaba de

ordinario muy confusamente dada la gran influencia, por ejemplo en Justino, de las ideas estólicas y neoplatónicas. Tarnbi "en habia representantes del quilismo e ideas equivocadas sobre el Espiritu Santo (Hipólito) o sobre el bautismo de los herejes.. (Id.Id.).

Orrela ibillitako teologilari zar aietatik, Kristo'ren ziñopa il ziran bat baiño geiago, eta aldareetan agurtzen ditugu kristauok. Beren borondatea, zuzena izan bait zan beti.

Asiera-asieratik ikusi zuan Elizak, bere altzotik erejiak nola sortzen zitzaizkion. Katolikotasuna ukatzen zuan ereji izan zan ba judu-kristauen geiegikeri ura. Kristautasuna judu-erriarentzat bakarrik zala uste izan bait zuten.

Elizaren lenen mendean sortuak ditugu, baitare:

DOKETIARRAK •Itxura esan nai duan •dokesis• itzetik artu zuten izena; Kristo'k egiazko gorputza ez baiña gurputz-itxura utsa artu zuala esaten bait zuten. Eta itxurazko gorputz ori ere, berak ekarri zuala zerutik. Ez zuala Miren'engandilc artu, naiz jaio bai, Miren'gandilc jaio.

Miren ez dala beraz Kristo'ren ama.

Kristo'k berriz, egiazko gorputzik izan ez zualako, ez zuala nekaldirik jasan; ez zala il; eta, il ez zalako, ez zala berbiztu ere.

Kalbario-Mendi'n gertatutako guzia, ez omen zan itxura utsa besterik izan.

Ez dira doketiar aiengandik urruti ibilliko XX mendeko •modemistak».

Auentzat ere Kristo'ren Berbizkundera-ta, •sinbolo• edo irudiak besterik ez bait ziran.

NIKOLAITARRAK. Ez dakigu ezer askorik ereje auei-buruz, baiña Itun Zarreko Jainkoa egiazko Jainkoa ez zala erakusten zutela dirudi; eta baita gizon-emakumeen arteko lizunkeriarri atea iriki ziotela ere.

Nikolaitar aien aurka idatzi zuten Juda eta Jon Apostoluek.

EBIONDARRAK ez zuten Kristo jainkoa zanik sinisten. Profetek Itun Zarrean agindutako Mesia zala, bai. Baiñan Jainkoa zanik, ez. Soilki Joseba eta Miren'engandik jaiotako gizakume utsa omen zan.

Animen -transmigrazio., edo eriotz-ondoko •gorputz-aidaketa» erakutsi

zuten. Ots, gizakumea il ondorean aren anima beste gorputz batera sartzen zala, orrela, gorputzetik gorputzera bere gardentasun osoa lortu arte.

ELKASITARRAK-. Ez zuten auek ere Kristo jainkoa zanik sinisten. Gaiñera, bataiatua izan ondorean ere kristauari gelditzen zaion griña txarra, deabru bat zala uste zuten, eta deabru ori soiñetik bota naiean ibiltzen ziran.

Uste ori, griña txar bakoitza deabru bat zalako ustea, alegia, oso zabaldurik zegoan kristautasunaren aurretik ere juduen artean. Eta griña txarrak ez ez"e, baita gorputzeko gaitzak ere soiñera sartutako deabruak zirala uste izatea.

Elkesai izan zan elkasitarren sortzeaillea, judu-kristaua seguruaski Irakasten zuana, — batez ere deabrua nola soiñetik bidaldu **aingeru** batek emandako liburutik jasoa zuala esaten zuan.

Ez dira itz oiek berenez duten zentzuan artu bearrak. Aingeruak la-guntzailletzat aipatze ori, orduan errez erabilli oi zan erretolikaren irudi bat besterik ez bait da. Orixe bera esango digu laister Ermas idazle kristauak, eta orixe bera, VII mendean Maomet arabitarrek: beren dotriña aingeru batek irakatsia zutela.

ANTINOMITARRAK, — •nomos. eleneraz •legea• bait da **jende aiek** lege ta arauen aurkakoak izan ziran. Gaurko anarkizaleen antzekoak, erlijioari dagozkionetan. Kristauak anima salbatzeko kristau izatea naikoa zuala esan oi zuten. Ez zuala, ortarako, iñolako legeen bearrak.

Ereji onen aurka mintzatu zitzaien Paul Donea korintotarrei.

Ez zan antziña artan asko zabaldu lege-ezabatzaile aien aburua. Baiñan askotan berbiztu izan da gero.

Berbizkunderik aundiena XVI mendean izan zuan, protestalarien artean.

Antinomianismus• deitu zion orduan Lutero'k, eta Agrikola sermoilaria salatu zuan ereji orren irakasletzat.

Katolikoan artean bazuten antinomitara aien antza XV mendean gure Durango-aldeko ereje-taldeek, eta XVI'ean eta XVII'ean España'ko •ilurninados• edo •quietista• aiek.

SIMONDARRAK Kepa'ri Sarnan'n Gogo Deuna emateko aalmena erosi nai izan zion Simon aren jarrailleak ziran. Beren aburuetatik zer Simon berarena dan eta zer aren ikasleena jakitea arras gauza zailla omen da.

Simon'ek bere buruari aAlmen Aundia• esaten ziola idatzi zu-in Luka

Doneak. Bera ere jaiotzaz samaritarra zan Justino Doneak berriz, samaritarrek Simon ura •Lenen Jainkoa» bezala gurtzen zutela. Eta bazala aren ondoan emakume bat ere: Elena. Ta Elena oneri «Lenen Pentsamentua» esaten ziotela.

Xeetasun geiago damaizkigu Ireneo Doneak: Simondarren ustez, ludia ez omen da Jainkoak egiña, aingeruek egiña baizik. Ta, gaizki zaintzen dutelako, kendu egingo omen zaie egin duten mundu au azken-egunean. •Lenen Almena» izango omen da kenduko diena. •Lenen Almen» ori zein zuten ez dakigu. Jainkoa? Jainkoak bidalitakoren bat.

ZERINTOTARRAK ere judu-kristautasunetik jaiokoak izan genituan. Ikus beren sinispidea:

- Erdaintza bearrezkoa da;

- Ludia ez da Jainkoak egiña. Jainkoa ezagutzen ez duan beste urruti-urrutiko Almen batek egiña da.

- Josu, gizon utsa jaioko zan. Jon'ek Jordan ibaiean bataiatu zuanean jetxi zitzaion zerutik •Kristo»a uso baten itxuraz, eta gero zerura itzuli zitzaion oster, Josu gizona gurutzean il aurretik. Zerutik jetxi eta zerura itzultitako Kristo ori, ez da Jainko, «Almen jainkotiar guren bat. baizik.

MENANDROTARRAK. Au ere samaritarra zan Menandro; Simon ospetsu aren ikaslea. Iñazio martiri donea gotzai zan Antioki'n Menandro onako ergelkeri au irakasten asi zanean:

Bera zala •Salbatzaille Bakarra»; »Aingeruen mundutik Jainkoak

Bere bataioa artzen zuana, ez zala beñere ilko; alderantziz, mundu au egin zuten aingeruek baiño aalmenez-aundiagoa biurtuko dala.

SABORNILDARRAK. Sabornil, Ifazio Donearen eliztarra, aipatu berri dugun Menandro'ren ikaslea izan zan Antioki'n. Bere irakaspeneko atalik nagusienak auek dituzu:

- Mundua, Jainkoak ez baiña »zazpi Aingeruk» egiña da. Zazpi aingeru oiek Juduen Jainkoa dute buruzagi.

- Jainko ori egiazko Jainko izkutuaren etsaia da.

- Gizadia, bi zatitan erdibiturik dago. Zati batekoek Jainkoaren •argia» berengan badute. Beste zatikoek, ez.

Orra or, gero ere maiz Kalbino'rekin adibidez — ber-agertuko dan gizadiaren •dikotomi» edo •bitango zatiketa»: Zerurako edo inpernurako «predestinatuen» edo •autetsien» arteko zatiketa.

Ereji oiek danak, I mendekoak edo II mendearen lenen-lenen u rteekoa ditugu. Judutasunezko giroan sortuak, eta Elizari pipia bezala zirriku guztietatik sartu zitzaizkionak.

Alare, danoiek baiño gogorragoa izan zitzaion danen okerrak bere altzoan bildu zituan garai artako erejirik indartsuena: gnosikeria.

GNOSIKERIA. Eleneraz «gnosis» itzak, «ezaguera» esan nai du. Orregaitik, misteriozko «ezaguera» bereizi bat nola ardietsi erakusten zuan ereji bat izan genuan gnosikeria. Ezaguera ura ez bait zan liburuen bidez atzi zitekeana. Gizakumeen salbamenari dagozkionaren ezaguera zerukoia baizik.

Gnosikeria, aburu-sorta bat baiño geiago, aburu-sorta askoren bilduma izan zan. Orregaitik, ez da erreza bere nolakotasunaren, zertasunaren, eta noraiñotasunaren azalpena. Guk, emen gnosizale geienak ontzat artzen zituzten atal garrantzitsuenak bakarrik aipatuko ditugu.

Gnosikeriaren sustriaiak, Kaldea'ko siniskerietan eta judutasunean daude. Laister ordea margoztu zitzaigun kristautasunez, eta Grezi'ko filosofitik, batez ere pitagoratasunetik eta platontasun berritik gogai asko artu zituan.

Orrek, noski ez du errezagoa biurtzen bere aurkezpena.

Ona zer dion «Encyclopaedia Judaica»k: «The gnosticism developed mystical systems based in the gnosis of God. These systems were syncretic, i. e. mixtures of pagan magic and beliefs from the babylonian and greek world as well as from the jewish. Judaism made an important contribution to the conceptions and developments of gnosticism»:

«Mistikazko oldozkera «sinkretikoi» edo naaspillezko batzuk sortu zituan gnosikeriak. Au da, jentillen aztikeri, babiloni-greziar-munduko, eta baita juduengandiko sinismen-gaiak alkarrekin naasiz sortuak. Eraginmen aundia izan bait zuan judutasunak gnosikeriaren oldozkeran eta zabalkundean».

Bi dira gnosizale guztiek ontzat artu zituzten Dogma edo Egi Nagusiak:

- Aurrenekoa. «Gnosis» bera beraren izatea. Jainkoagandiko «gnosis» edo «ezagunmen» bereizi bat bada. «Ezaguera» edo «Gnosis» orrek egiten du zoriontsu gizakumea mundu ontan eta bestean. Bera bakarrik bait da gizaku mearen salbamena.

Jainkoak bakarrik eman dezake «gnosis. ori. Gizakumeak egin dezakean gauza bakarra, otoiaren eta bizitza latzaren bidez •gnosis» ori lortzen saiatzea da.

- Bigarrena, «Duplex Principium» edo «Astapen Bikoitza». Ots: Izadiari «astapena» edo asiera, izadia Bi Egillek egiña dugula.

Bi Egille oietako bat, ona da. Bestea gaiztoa, eta onaren etsaia.

Egille ona, egiazko Jainkoa da. Egille gaiztoa, «sasijainko» bat: «Demiurgoa» adibidez.

Bazan beste irugarren Dogma bat ere gnosi-zale guztiek sinisten zutena: Jainkoaren eta gizakumeen artean •eon« esaten zitzaizen izpiriztuzko izaki batzuk badirala. Ugari gaiñera. Eta batzuk onak, eta besteak gaiztoak. Eon onak, sugaldatik txinpartak bezala Jainko onagandik irtenak. Eonzale porrokatuak izan zitzaizkigun gnosistar aiek.

Iru dogma auetaz landa, ez zan ain berdiña gnoszale guztien sinispidea. Ona, aien artean zabalduenak zeuden iritziak:

- •Eon»lk aundienetako bat, jainkoa aiña izan naiez, Jainkoaren aurka jeiki zan. Garaitua izan zan ordea eta •Argiaren Erreiflutik» jaurtia. •Eon» jausi ori da Demiurgoa.

- Eon zintzo guztiak ordea ez dira zuzenean Jainko onagandik irtenak. Jainko onagandik, •eon»ik ederrenak bakarrik irten ziran; ederren auengandik berriz, — beti, argia argiarengandik bezala bigarren maillakoak, eta auengandik txikerragoak... eta, orrela, gizakumeon animetara iritxi arte.

- Izan ziran ordea, giza-animak eonengandik ez baiña zuzenean Jainko onagandik datozela uste zuten gnosistarrak.

Gure anima oiek ordea, ez dira, amaren sabelean gizakumea bizitzen asterakoan sortuak. Leenagokoak dira. Jainko onak, eonen goi-munduan sortu zituan, eta an bizitu dira, bakoitza bere soiñean mundu ontara jaio dan arte.

Jaiotzaz gero, beren gorputzetan baiturik daude anima oiek, «gnosis-edo •ezaguera» zerutiar orren bidez ostera Jainkoagana itzuli-zai.

- Jainko onak egiña da izpiriztuzkoa dan guztia: giza-animadibidez.

Jainko gaiztoak egiña da berriz, betidandiko materi edo gorpugaia erabilliz, gorpuzki edo •matenzkoa» dan guztia: giza-soiña adibidez, eta mundua bera.

- Orregaitik, izpiriztuzko izakiak, giza-animadibidez, izaki onak dira. Alderantziz, materi edo gorpugaiezkoak, gaiztoak danak. Baita gizakumeon soiñak ere.

- Gnosizale batzuentzat, Jainko Ona, Itun Berriko Jainkoa zan: Josukristo'ren Jainkoa. Jainko gaiztoa berriz, Itun Zarreko Jainkoa: munduaren egillea.

- Beste batzuentzat ordea, mundua •Demiurgoa«ren ekintza da; Platon'entzat Demiurgoa izaki ona zan bezala, gaiztoa bait zan gnoszale auzentat.

- Beste batzuek, mundua, aingeruek egin zutela uste izan zuten.

- Josukristo, ez omen da Jainkoa, •eon« utsa baizik. Danetan onena eta ederrena eta altsuena..., baiñan •eon» utsa. Ez zuan egiazko gorputzik artu.

- Beste gnosi-zale batzuek onako au esaten zuten: Josu, gizon uts jaio zala Joseba eta Miren'engandik eta Jordan ibaiean bataiatu zanean jetxi zitzaiola, Kristo zerutik; eta berekin gelditu zala, Kristo ori, biak bat egiñik, Josu il aurretik zerura itzuli zan arte.

- Josukristo'k egiazko soiñik ez zuala esaten zutenen ustez, mundua salbatu ere, ez zuan mundua bere ekintza onen bidez salbatu. Ezta, itxura

utsezkoa izan zan bere eriotzaren bidez ere. Mundua, soilki, •Gnosis»a erakutsiz salbatu zuan.

- Orregaitik, gizakumea ere •gnosis» utsak salbatzen du; ez, gizakumeak egin dezazkeanak. Ekintza onek ez dute gizona salbatzeko balio. Soilki, »gnosis»a lortzeko bakarrik balio diote. (Badu noski guzti onek, mendeak geroago lutertasuna izango danaren usai galanta).

- Bein •gnosis»a lortu ezkeru, jainkotiar bihurturik gelditzen da gizakumea. Legearen gaindik dago.

Azkeneko atal au, bazan atal arriskugarria. Gnositarren taldetxo batek, beñere •nosis»era iristen ez zala iduritzen zitzaiolako, bizitza guztia era gogorrean igarotzen zuan bitartean, beste taldetxo batek, bereala •nosis»era iritxi zalako ustez, lizunkerira jotzen bait zuan.

Ez zan arriskurik gabekoa, •anima ona eta gorputza gaiztoa ziralata esaten zuan beste atal ura ere: •Morale qui, tantt brutalement hostile au corps, menait aux *excessives ascèses*, tantôt, par m'epris de la chair, se faisait complaisante et lassait libre cours aux instincts» (Daniel-Rops):

•Moralitate ark, gorputzari zion gorroto basatiak eraginda, geiegizko aszetika gogorrera bultzatzen zuan batzuetan, eta beste batzuetan berriz, enasegia bihurtzen zalako, errez irikitzen zien grña gaiztoei atea-.

Gnosizale geienak ez dirudi sasi-filosofizko gai auetaz geiegi kezkatu ziranik, eta beste jendeek bezala jarraitu zuten eguneroko bizitzan.

- Iru motakoak omen dira gizakumeak:

1: •Pneumatiku» edo •Izpirituzkoak». •Gnosis»aren bitartez Jainkoaren egiazko ezaguera lortu dutenak.

2: •Psikiku» edo •Animazkoak». Auek, kristau arruntak dira. •Gnosis»era iritxi ez diranak; eta, ortarako gaitasunik ere ez dutelako, beñere iritxiko ez diranak. Salbatuko dira; baiñan bigarren maillakoa izango da beren salbamera.

3: •Hiliku» edo •gorputzezkoak». Jentil guztiak aurkitzen dira talde ontan sarturik. Ez dute salbamenik izango.

GNOSIZALERIK aipatuena zein izan ziran jakin naiko duzu.

Krist'aurreko mendean, Perts'i'n eta Mesopotami'n bereiziki, izan zan gnosikeri jentilla. Izan zan, baita, gnosikeri judutar bat ere. Guri ordea ikerketa-lan ontan gnosizale jentil aiek ez zaizkigu ajola. Ez beintzat geiegi.

Kristau usaieko artean, oroi ditzagun onako bi-iru auek, danak oroitzeko tokirik ez dugu-ta.

•••

BASILIDES. Errugabeen oiñaze-neke-samintasunen zergaitia billatu naiak eraman omen zuan gizon au gnosikeria. •Gizakume zintzoak ez dira

errudunak. Zergaitik zigortzen ditu oiñazearen bidez Jainkoak-, — galde egin omen zion Basilide'k bere buruari—. Eta au erantzun: .Naiz itxuraz ez, egiaz errudunak diralako.

•Culpa Virtualis-, ots, •Errudun izateko Aalmena», esaten dio zintzoen oben orri, onako au adierazi naiez: •Zintzoak ez dira une ontan errudun, baiña urrengo unean bertan errudun izan daitezke». Eta ori naikoa omen dute, Jainkoak zigortua izateko.

Ortaz gaiñera, Jainkorik ez dala, — edo bere pentsaeraren araura egokiago, — Jainkoa •ez dala» esaten zuan. Jainkoa izate-era guztien gaindik eta izatea ber-beren gaindik dagoalako, ez omen daiteke «izan».

- BALENTIN. Gaiztakeria, ta bereiziki obena, izan zan II mendearen lenen erdian gizon onen arantza. Eta ortik jo zuan gnosikerira. Zergaitik gaiztakeria yare munduan? •Gorputzak anima lizundu dualako izan zan bere erantzuna.

- MARZION. Ez oso-osoan gnosikerizalea. Altagutziz Itun Berriko Jainkoa eta Itun Zarreko Jainkoa, bi Jainko ezberdiñak zirala erakutsi zuan. Eta bigarrena, Itun Zarrekoa, Itun Berrikoaren etsaia zala.

Aszetika latzeko gizona izan zan; al zan gauzarik gutxienaz bizi bear zala erakusten zuana.

Eliza nai izan zuan eraberritu: Eliza ostera •lenen urteetan izan zuan garbitasunera» eraman.

Izan zuan ortan XVI mendeko protestalarien antza, eta •lenen protestalaria» ere esan oi zaio.

Ponto izeneko probintzian zegoan Sinope uriko gotzaiaren semea zan, eta, azkenean, bere aitak eskomikatua izan zan. Aurretik ordea, 140'garren urtearen inguruan Erroma'ra etorri zitzaigun eta an Elizari 200.000 sextertzioko emaitza egin zion, — izugarrizko emaitza **eta errez** bereganatu zuan ango kristauen naimen ona. Ala're, agindu guztiei uko egiñez, Zerdon gnosizalearen aburu batzuk erakusten jarraitzen zualako, exkomikatua izan zan Erroma'n ere.

A!, ta Elizatik eskomikatua izan zanean, berak emandako 200.000 sekstertzio aiek danak itzuli zitzaizkion. Bat ere falta gabe.

Liburu bat idatzi zuan: •Antitesis», Itun Berria Itun Zarraren aurka zegoala erakusteko.

Itun zarreko Liburu guztiak gaitzetsi zituan.

Itun Berritik, soilki lau Ebangelioak eta Paul Donearen Epistolak onartu zituan, baiñan Paul'en Epistoletatik Pastoralak kenduz, eta besteak ere aski «garbituz». A! Luka'ren Ebangeliotik ere Josu'ren aurtzaroari dagozkion

atalak kendu zituan.

Onatx bere irakaskuntzaren muiña:

Kristo ez zan Miren'gan gizon egin. Alderantziz zuzenean jetxi zan zerutik itxura utsezko gorputzez jantzirik. Itun Zarra izan zan, juduen bitartez, gurutzatua izatera galdu zuana, eta Itun Zarreko Jainkoa, «Demiurgoa», errabiz Jaurettxeko oiala zartatu zuana, Itun Berriko Jainkoaren esanera gogo txarrez menderatzen zala adierazteko.

Bein eskomikaturik, apaiz, gotzai eta guzti, beste Eliz bat iratsi zuan Marzion'ek. Eta ori, Marzion'ena, izan zan Kepa Donearen Elizatik bereizitako lenen Eliz «eterodosiar» edo •sinispide okerrekoa».

Gnosikeriz kutsatua da apokrifotik txit aipatu bat ere: •Kepa Donearen Odolezko Eriotza». Apokrifotik ortan aurkitzen da «Quo Vadis.? izenez ezagutzen dan gertaria. Kepa Neron'en zigorketatik igesi omen zijoan. Erroma'tik irten bezain laister Josu ikusi omen zuan gurutzea bizkarrean Erroma'ra-bidean.

«Quo vadis, Domine»? «Nora zoaz, Jauna? galde dagio Kepa'k. Ta, Erroma'ra noa, Kepa, Erroma'n berriro zure orde z gurutzatua izatera, Josu'k erantzun.

Kepa'k, buruz-beera gurutzatua izatea eskatu zuala ere, — eta era ortan il zala apokrifotik ortatik dakigun gauza da.

Badira apokrifotik geiago ere, ereji-usaia dariotenak. Beste batzuk, sinispide zuzenekoak dira.

Apokrifotik Elizak onarturik dauzkan gauzak baditugu kristauok.

Orrela adibidez Miren Neskutsaren gurasoen izenak Jokin eta Ane izan dirala, eta Miren bera, neskatoa zala, Jerusalemgo jaurettxeari emana izan zala. Albiste oiek, soilki «Jakoba Donearen Protoebangelioa edo Len-Ebangelioa» deritzan apokrifotik damaizkigun xeetasunak dira.

Danadala, ikusi aal izan duzunez, juduen areriotasuna alde batetik, inperio-lurreko jendearen gorroto itxua ta inperatore alguztidunen zigorketa erioagarria bestetik, eta, erejien kiratsa bere barrendik izan zuan, bai orixe, Kepa Donearen txalupatxoak bere aurreneko eun urteetan itxas-giro zakar artan larri-unerik aski.

Tinko ziraun orde Jaunaren aginduak: •Zuekin izango nauzute ni mendeen amaiera arte..

EREJIAREN AURKA

Erejiak sortu ziran bezain laister asi ziran Eliza'ko arduradunak egiazko sinispidea babesten. Gotzaiak alde batetik, teologilariak bestetik.

Antziña artako bi edestilari kristau dira bereiziki Elizaren ariketa artaz mintzatzen zaizkigunak: Askotan aipatu dugun Eusebio, eta Sokrates. Sortaldetarrak biak.

Erejien aroa, gotzaien almenaren sendotze-aroa da. Erejiek ainzuzen, eta batez ere orduango erejirik arriskugarrienak, ots, gnosikeriak, zer-ikusi aundia izan zuten bereterdi edo presbiterioen altzoan gotzaiaren nortasuna egunetik egunera gero ta geiago sendotzeko.

Gnosikeriak, — bere zabalkunde azkarraren ondorioz **larritu zuan** kristau-jendea, eta Elizaren batasuna sendotzearen beartasuna adierazi zion: Elizako agintarien batasuna sendotzearen beartasuna bereiziki.

Gotzaiak ere oartu ziran beren erantzukizunari zegokion gauza zala okerkeri orotik bakoitzak bere Elizaren sinispidea, Apostoluengandik artutako sinispidea, zintzo ta garbi gordetzea.

Kristau arruntek ere ikusi aal izan zuten, ortarako, Eliz bakoitzean «monarkia» edo «agintaritza agintari bat bakarraren» eskuetan egotea arras gauza egokia zutela.

Aro artako gotzaien artean, oroi dezagun Korinto'ko Dionisio, gutun ugarien idazlea. Gutun oiek, Grezi, Asi, Bitini, eta Ponto'ko gotzaiak bidali zizkien, berak erejietaz, gnosikeriaz batez ere, zer pentsatzen zuan azalduz.

Teologilariak berriz, asko izan ziran, eta ugari idatzi zuten; baiñan idatzi aiek galduak ditugu; IV mendean gnosikeria ezabaturik ereji berri gogorragoak sortu ziranean galduak. •Orduan ez bait zuten II mendeko idatzi aiek artaraiñoko baliorik., «porque al cambiar completamente la situación toda aquella producción del siglo II no tenía por que despertar interés (Dedin. Gazteleratzaille, Ruiz Bueno).

Oroi ditzagun ala ere teologilarien artean lendik ezagunak ditugun Sardes'ko Meliton, eta, gnosikeriaren aurka «egiazko kristau dotriña ziur ezagutzeko», «para conocer la verdadera doctrina» (Id.Id.), II mendean erdi-aldera Erroma'ra etorri zan Egesipo sortaldetarra, «Oroipenak» izeneko liburu baten egilea.

Eta, nola ez? Erejien aurka idatzi zutenetakoia izan genuan Donejustin ere.

IRENEO DONEA izan zan alatagutziz, ezpairik gabe mende onen bigarren erdia oso-osoan bete zuan gizona.

Sortaldetarra jaiotzaz eta gaztaroan an bizitua, Erroma'n egona gero eta Galietara mixiolari bezala etorria, eta azkenean Lyon'go gotzai egiña..., berdiñik gabeko gizona dugu Doneireneo, garai artako Elizaren giroa egoki

ezagutzeko.

Asi izeneko probintzian jaioa, — Esmima'n bertan agian—, Polikarpo uri artako gotzaiaren ikaslea izan zan. Polikarpo berriz Jon Apostoluaren ikasle izanik, ederra gertatzen zaigu bidea Josu'rengana ,2ta Josu'ren dotriñaraiño zuzenean iristeko Ireneo'k osotzen diguna: Ireneo - Polikarpo - Jon - Josukristo Gure Jauna.

Ez da ongiegi ezaguna Ireneo'ren bizitza. Esrnima'tik, ez dakigu zergaitik, Erroma'ra etorri zan. Emen aztertu aal izan zuan, berak dion bezala, Kepa Doneaz geroko erromatar-gotzaien zerrenda: Aitasantuz-Aitasantu, Elizaren Buruzagi Nagusien zerrenda.

Gero Galietan ikusiko dugu, eta Galietan, bertako uririk aundienetako baten gotzai egiña izatera iritxiko zaigu. Lyon'go gotzaia!

Bereter zala (oraindik bereer gotzaia: ala ordurako bereter utsa?) Erroma'ra bidali zuan Lyon'go Elizak 177'aren inguruan, Montano'k sortutako erejiaz Eleuterio Aitasantuarekin mintzatu zedin.

Geroago, bete-betea gotzai zala, I Biktor Aitasantuari idatzi zion 191'ren inguruan, Pazko-egunaren auziari-buruz, len ikusia dugunez.

Ez dakigu nola ta noiz il zan. 200'garren urtearen inguruan eskierki.

Baiñan ez dirudi martiri || zanik, naiz urteak geroago Tours'eko Gregorio'k bere Francorum• idaztitan, ala il zitzaigula idatzi.

Erejeei erantzuterakoan, jerarkia du Ireneo'k bere arrazoiketa osoaren ardatza. jerarkia berriz, beretzat, ludian zabaldutako Elizaren gotzaidia da, eta bereiziki, Erroma'ko gotzaia: Aitasantua.

Ikus Ireneo'k darabiikian oIdozketaren aria:

Gotzaiak, beren dotriña, •besterengandik artua. dute; ez, beraiek sortua.

Norengandik artua? Apostoluengandik artua. Baiñan aiek ere ez zuten gotzaiei emandako dotrin ori beraiena, besterengandik •artua. baizik. Norengandik artua? Kristo ber-berarengandik artua.

Erejeek ordea, beraiek sortua dute erakusten duten erejia; ez, gotzaien eta apostoluen bidez Kri,sto'gandik artua. Badakigu nork eta noiz eta nola sortua dan ereji bakoitza. Erejiak, gizakumeen irudimenaren emaitza dira. Izan daitezke bearbada, ereji oso era txukun politean esanak eta idatziak, baiñan ez dira Jainkoagandikoak, ez dira, Josu bitarte, gizadiaren salbamenerako Jainkoak Apostoluei eta Apostoluek gotzaiei emandako dotriña.

Apostoluen.karisma• eta autoritate ura bera du mundua-zearko gotzaidiak ere, aiengandik artua duan dotriña zintzo gorde eta dotrin orren zentzua okerrik gabe erakutsi aal izateko.

Ziur dago Ireneo, Elizaren buru lez gotzaidia utseziña daIa, baiña, Erroma'ko Elizarekin bat egiñik ba'dago.

Erroma'ko Eliza aipatzean, Erroma'ko Elizaren Gotzaia aipatu nai du, Aitasantua, Ireneo'rentzat gotzaia bait da toki bakoitzeko Elizaren burua ez ezé, nolabait, sinispideko egiei dagozkienetan bereiziki, toki bakoitzean

egiazko Eliz osoa.

Entzun, Erroma'ko gotzaiaren nagusitasunaz idatzi ziguna:

•Ad hanc enim Ecclesiam, propter potentiorem principalitatem necesse est omnem convenire ecclesiam, hoc est omnes qui sunt undique fideles, in qua semper ab is qui sunt undique conservata est ea quae est ab apostolis traditio«.

.Bere nagusitasuna besteena baiño gurenagoa dalako bearrezkoa dute beste Eliz guztiek, ots, bazter oroko kristau guztiek, Erroma'ko Eliz onekin bat egiñik egotea, emen gorde bait da beti, bazter oroko kristau guzti oien ustez, Apostoluen emaitza• (•tradizio«).

Teologilari katolikoek beti ikusi dute Ireneo'ren esaldi ortan Aitasantuak baduan Eliz guztiaren gaindiko aalmen orokorraren aitortpena.

Jerarkiak Eliza-baitan duan eginkizunaren bidez erejeen jokaera makurra azaldu ondorean, erejeen gogoeten egirik-eza erakusten du Ireneo'k ortarako arrazoiaren argia lendabizi eta, gero, Idazti Doneen irakaspenak erabilliz.

Or ikusten da zenbait aiñako teologilari bikaiña zan gure Donireneo.

Mariologi edo Mireniztiari dagokionez, oparo zabaldu zuan Ireneo'k, Donejustino'k aren aurretik Ebe eta Miren'en artean ikusi zuan alderantzizko kidetasuna: Ebe, pekatuaren, oiñazeen eta eriotzaren iturburu; Miren berriz, graziarena, zorionarena eta betiko biziarena.

•Adversus Haereses« («Erejeen Aurka») esan oi zaio Ireneo'ren idaztirik mardulenari. Gutxienez beste bi ere eman zituan argira: «Apostoluen Irakaspenaren Azalpena» izeneko apologi bat, eta •Adversus Gentes» edo Jentillen Aurka» deritzana, sasijainkokeriaren okerrak ulerterazteko idatzia.

ERROMA'REN INPERIOTZA goitik beera zijoan poliki-poliki. 192'ko abenduan izan zan aitzoz erailla Kommodo inperatorea. Aren aulkira, jopu yaretu baten semea jaso zuan Senatuak; 162'garren urteko barbaritarren sarrera aundi artan bere burua ospetsu egin zuan gudalburua: Pertinax.

Baiñan andik iru illabetera, 193'ko epaillean, erailla izan zan Pertinax ere, ta, orduan, sendi ospetsuko seme bat igo zan inperatoretzara: Didio Juliano, izkillu gizona au ere. Ez luzarorako. Au ere andik iru illabetera, bere bi aurrekoak bezala aitzoz illa izan bait zan.

SEPTIMIO SEBERO zeritzan beste gudalburu batek artu zuan Didio Juliano'ren atzetik inperatoreen buruntza. 193'ko ekaiña zan, eta 211'garren urteraiño iraun zuan agintari, Afrika izeneko probintzian, gaur-egungo Tunizi-aldean jaiotako inperatore berri onek.

Gazterik il zitzaion lenego emaztea, eta orduan edestiak ederki oroitzen duan emakume batekin ezkondu zan. Jatorriz siritarra zan emakumezko au,

sasijainkoen jauparien sendikoa, kultura aundikoa eta kultur-zale zindoa. Izenez, Julia Domna. Esku aundia izan zuan bere senarraren agintaritzan; jakintzen arloan batez ere.

Gero ta ausarditsuago agertzen ziran barbaritarrei eusten ederki saiatu zan Septimio Sebero, eta azkenean Inghlanderriko York'en il zan gaur Eskozi dan lurrean bizi ziran piktiarren aurka borrokara joanda.

Zeferino Aitasantu dala (199-217), Septimio Sebero'ren eskutik sartuko gera irugarren mendera. Eta ez, kristauen odol isurketarik gabe.

Berez zentzuzko gizona zan Septimio Sebero, eta bere agintaritzako lenen urteetan pakean utzi zituan kristauak. Norbaitek esan ere esan zuan, Septimio Sebero'k bere otoiztegitxoan Orfeo sasijainkoaren, Abraan patriarkaren, Tiana'ko Apolonio neopitagoritarren eta Josukristo berberaren irudiak zuezkala aldarean.

Ez da noski egia. Ori norbaitek egitekotan, bere emaztea, Julia Domna inperatemea, izanen zan jauregi artan ori egin zezakean pertsona bakarra.

•Mas por el año 200, hallándose el emperador en Oriente en guerra contra los partos se produjo un cambio en Septimio Severo, hombre, por otro lado, sereno y de amplias concepciones. Según parece se asustó al darse allí cuenta perfecta del número y fuerza creciente del cristianismo, hasta tal punto que creyó ahogaría pronto a las instituciones romanas. Otros emperadores suponen que el cambio se debió al influjo de la emperatriz Julia Domna• (Llorca).

Ez zuan Julia Domna'k arazo artan eskurik sartu. Izan ere, sortaldetarra zalarik, len ere aski zabalik zeuden Erroma'ko ateak, len zeuden baiño geiago zabaldu bait zizkien Julia Domna'k Sortaldetiko erlijioei. Eta orrek ez zion noski batere kalterik egin jatorriz sortaldetarra zan kristautasunari.

Alderantziz, Julia Domna kristauen laguna izan zala dirudi. Origenes'en adiskide izan zan beintzat Julia Niammaea bere alaba.

Ortaz gaiñera ugari ziran kristauak Septimio Sebero'ren inguruan. Zerbait egiteko trebe ziran guztietaz, baliatzen bait zan ura, laguntzaille izendatzen zituan aiek kristauak ziran ala ez kontuan artzeke, Babestu ere, •ezbaiean ibilli gabe babestu izan zituan erriko jende amorratuarengandik senatore-jatorrizko kristauak.: n'hesite pasa proteger des chretiens de famille senatoriale contre le fureur populaire• (Danielou).

Alatagutziz, 202'garren urtean, agindu zorrotza eman zuan kristautasunaren eta judutasunaren zabalkundea debekatzuz.

Zergaitik?

Agian, ikaratu egin zalako. Ez da arritzekoa. Ikaraturik bait zeuden gotzaiak berak ere.

Zer zala-ta?

Ori ulertu aal izateko, sortu berriak ziran bi erejietaz zerbait esan bearrak gera.

Taziano'ren enkratizaleetaz mintzatu gera. Oroi, bikoitza zala, kristau-bizierari-buruz, ereje aien arau nagusia: gorputzarekingo gogortasuna eta

birjintasanaganako geiegizko zaletasuna, ezkontza ber-bera ere gauza gaiztoa etsitzen bait zuten.

Gogortasun eta geiegikeri berdiñak aurkitu ditugu Marzion'ek sortu tako Eliz zismakoiean ere, eta orixe bera aurkituko dugu, orduan, II mendearen azkenean indar aundia artu zuten beste bi erejietan ere: Montanikerian, eta Manikerian.

MONTANIKERIA Badakigu, Elizaren aurren-urte aietan, jerarkiaren alboan ugaria izan zala profetaritza, eta asko izan zirala profetak eta profetemek.

Bazuan orrek arriskurik aski, eta arrisku oietaz kezkatu mintzatu zitzaien Paul Donea bera korintotarrei; eta, kristau guztiei, •Didaj& izeneko idaztia, II mendearen asieran.

Profezi narozko giro ortan sortu zan montanikeria, Anatoli'ren erdi-aldera zegoan Frigi izeneko probintzian. An asi zan Montano, 156'tik 172'ra, berealaxeko Eskatologi edo •Munduaren Azkena» aldarrikatuz. Profeta Nagusia lez aurkezten zuan jendearen aurrean bere burua. Are geiago, laister asi zan Josu'k agindutako Gogo Deuna bera zala oiukatzen. Bi profeteme alkartu zitzaizkion beren senarrak utzita: Maximila ta Priszila.

Montanikeriak egiazko teologirik ez du. Montano ez bait zan teologilaria. Askoz gutxiago berriz bere bi profeteme laguna aiek.

Aszetika utsa da, montanikeria.

•Askeo» itz elendarra •Saiaketa» itzuli daiteke euskerara. Eta •asketika», •ascetica»lateraz, •anirna garbitzeko saiaketa» dala esango genuke.

Latza zan benetan Montano'k eta bere bi profetemek, berealaxe etortzekoa zan munduaren azken-egunerako gertuketa lez, anima garbitzeko eskatzen zuten saiaketa, ots, aszetika:

- Gotzaien aulkieriaren erruz Elizaren barrura sartu diran oitura beratz biguin guztiei uko egitea, aszetika orren lenengo atala.

- Elizak, lenen urteetako Eliz santu aren araztasun ura galdua omen du, eta, orregaitik, bere eginkizunak aundiena, eraberritze sakon baten bidez araztasun ura bir-irabaztea omen du.

- Ezkontzeari uko egitea bearrezkoa omen, benetako kristaua izateko. Bedi ezkontza, baiñan kristau ustelentzako bakarrik bedi. Bitez ordea birjiñak, kristau zintzo guztiak. Zertarako ezkondu gaiñera, mundu au berealaxe amaitzekoa dan ezkeru?

- Baraua dugu bear-bearrezko gauza. Barau gogorra. Barau-aldi luzeak, aragia makalduz, gorputzeko griña txar guztiak ezerezteko.

- Mundu ontako alukeriaren adigarri diralako, debekatuak bitez margolan, irudi, eta gaiñerako ertilan guztiak. Debekatua bedi gizakumek sortutako jakintza ere, filosofia adibidez, kristauok Jainkoagandiko jakintza naikoa dugulako. Kristauok ez dugu, bizitza penitentzigintzan igarotzeko,

mundu ontako txatxukerien bearrik.

Emakumezkoei, jakiña, gorputzaren eta soiñekoen apainketa oro galerazten zitzairen.

- Ez zaie kristauei gizarteko kargurik artzea zillegi.

- Badira Elizak debekatu ez dezazkean obenak: Iru: Apostasi edo fedeukatzea, giza-erailketa, eta ezkontza-naste edo adulterioa.

- Martirioa, kristau orok billatu bear duan gauza da. Ez du zillegi kristauak martiri erailla ez izateko, bere burua izkutatzeta, edo beste tokiren batera iges egitea. Alderantziz, gauzarik aintzagarriena eginen du, kristau dala esanez epaile jentillengana martirioaren billa azaltzen ba'da.

- Mundu au azkenekotan dago. Mundu ontako gauzek ez dute batere balio; ezta gure biziak berak ere, Jainkoari martiri lez eskeintzeko ez baldin ba'da.

- Millurtekeri-zale izan zan Montano. Mundu ontan bertan, eta berealaxe, ezarriko omen zuan Kristo'k, milla urterako, bere erreñu zorionsua: «Jerusalen Berriko Erreñua.

Pepuza esaten zitzaion Anatoli'ko zelai zabal batean agertuko zala Kristo mundu oni azkena emateko, erabaki zuan Montano'k.

Arras eta bereala zabaldu zan Sortaldean, eta baita Sartaldean ere, montanikeria. Aneika sortu ziran profetak eta profetemek. Eta aiek aurrean gidari lez artuta pilloka joaten omen zan Friji'n jendea, Kristo'd Pepuza'ko zelaiean ongi-etorria eman naiez.

Montano ta bere bi profetemek beren erejian il ziran, ziur uste izan bait zuten Jainkoa beragandiko argiak argiturik zeudela.

Bereala asi ziran idazle katolikoak ereji berri ari aurka egiten. Ala, Ierapolis'ko Apolinar, Sardes'ko Meliton...

Bildu ziran tisi Txiki'n Sinodo batzuk ere, — Elizaren edestian sinodorik zaarrenak ainzuzen ereji ura gaitzesteko.

Azkeneko gaitzespena, I Bitor eta Zeferino Aitasantuek eman zioten.

Montanikeriaren garaitzarik aundiena, Tertuliano kartagotarra bere aburu eta asmoetara irabaztea izan zan. 207'aren inguruan montanitar egin zitzaigun Tertuliano'k ordea, atalxo bereizi bat ongi merezia du.

MILLURTEKERIA.-
ere esan oi zaio, «milla-, eleneraz
sortutako gauza, leendik zetorrena
artu zuan izugarrizko indarra.

lateraz. edo -kilianismus-
dalako. Ez zan millurtekeria orduan
Baiña II mende onen azkenean

Esan dezagun beste ororen aurretik, millurtekeria ez dala gure egunok arte, 1944'a arte ain zuzen, Elizak gaitzetsia izan; eta gaur egun ere ez dala -erejia-. 1944'eko erabaki artan -Sanctum Officium- edo -Zaintza Doneak millurtekeria, •ziurki erakutsi ez daitekean gauza dala- besterik ez bait zuan esaten: -tuto doceri non potest-.

Judukristautasuneko giroan sortu zitzaigun millurtekeria, bere iturrietako bat, juduek ain berealaxeko itxaroten zuten Mesia'ren Erreiñua izan bait zuan.

Beste iturria, Josu'k bere bigarren etorreraz esandako itzak izan zituan.

Kristauek bazekiten Mesia etorria zala, baiñan Aren bigarren etorrera bereala izango zala uste izan zuten lenen mende artan eta Iraren asieran.

Zentzu ortan ulertu zituzten Itun Berriko liburuetan aurkitzen diran aapaldi edo bertsikulo batzuk: adibidez, •zeru berri bat eta mundu berri bat agintzen dituan Kepa'ren II Epistolako 3'garren ataleko 13'garren aapaldia. Eta Apokalipsiaren 20'garrenaren asiera, .piztia bein betirako garaituz gero asiko dan milla urteko erreñu batez» mintzatzen bait da an Jon Apostolua.

Ebangelioetan ere badira berealaxeko eskatologiaren aldetik artu daitezkean esaldiak.

Elizaren lenen-urteetan kristau guztiak, edo, beintzat, bai ia danak, Josu'ren etorrera berealaxeko itxaroten zutela dirudi.

Badirudi ordea, Paul Donea ez zala, agian, uste oker ortara jausi. Entzun lenen maillako edestilari baten itzak:

.A primerira generaÇ'ao de crist'ãos palestinianos esperava que o Senhor voltasse (itzuliko zala) em glória muito brevemente. Paulo apercebeu-se de que a doutrina de um fin do mundo eminete constituia mais um obsta.culo de que uma vantagem na evangeliza0o do universo grego onde o dominante interesse especulativo estava na origem das coisas« (Chadwick).

Gaiñerako kristauek ordea, kristaudi osoak seguruaski, ziur sinistu zuan Kristo Erregea berealaxe bir-etortzekoa zala. Ori izan zan Eliz gazte aren utsunetako bat.

Gero, moteldu zan uste oker ori, I mendea amaituz gero. Baiñan, ostera, indartsu ber-piztu zan, II mendea aurrera zijoan neurrian. Millurtekeria eraskutsi zuan Papias Ierapolis'ko gotzai jatorrak. Eta Justino'k... Eta baita Ireneo'k ere Lyon'go bere elizbarrutian.

Ipolito'k «Daniel'i-buruzko Azalpenak. deritzan liburuan dioskunez, gotzai siritar bat bere kristaudi osoarekin joan omen zan lekarora an otoitz-egiñez Kristo'ri itxo-egitera. Eta, Itxaso Beltzaren ego-ertzean zegoan Ponto'ko gotzai batek, zerutiko azalpen bat izan zuala-ta urrengo urterako aldarrikatu omen zien bere elizkideei Kristo'ren etorrera.

Millurtekerizaleak dira apokrifoko batzuk, eta ala izan zan, esan dugunez Justino bera, II mendearen lenen-erdiko teologilaririk onena.

Alexandri'ko Eskola izan zuan millurtekeriak bere etsairik bizkorrena, eta baita Augustin eta Jeronimo Doneak ere V mendean.

Alatagutziz ikusiko dugu geroago ere millurtekerizko ameskeritxo ori an-emen burua jasotzen. Jeoba'ren Lekukoen artean, adibidez.

II MENDEKO ZIGORKETA ONEN ARRAZOIA Ereji guzti oiengandiko lurrin zikin edentsuak eraginda irakiten aurkitu zuan Sortaldean Septimio Sebero'k aski kristaurik ugari zituzten urietako giroa.

II Mendearen azkenekoak dira, apokrifoen artean, Apostoluen •Acta. edo -Paul'en •Kepa'ren -Jon'en Egiñak-, •Ander'en montanikeri nabarmenez kutsutuak danak. Idazti oietan danetan, neurri orotik gain goratzen dira birjintasuna, martiri iltzea, eta mortifikazioa edo nork bere soñaren aurkako gogorkeria.

Mortifikazio edo ilduma ori erokeriaren ertzeraiño eraman zuten talde batek baiño geiagok. Ala, •Kepa'ren Egifik- deritzan apokrifoa aurkezten digun kristau-taldeek, ardoarekin ez baiña urarekin egiten bait zuten eukaristia.

Arritzekoa al da gotzaiak ikaratu izatea?

Iñoiz baiño ozenago mintzatzen ziran ezkontzaren aurka eta birjintasun osoaren alde. Badakigu, bide ortatik aurrera joz, eta Josu'ren itzak (Mt. 19,12) gaizki ulertuz, bere burua zikiratu zuala Origenes jakintsuak. Eta, jakiña, ez zan izan bakarria orrelako ikaragarrikeriak egiten.

Badakigu baitare ziñopa-iltzearen billa ibilli zala Origenes, ortarako bere burua arriskuan Eta, badakigu baitare, bein, arriskua iñoiz baiño aundiagoa zanean, bere arnak soñeko guztiak izkutatu zizkiola, etxetik irten ez zedin.

Ez. Ez da arritzekoa gotzaiak ikaratu izatea.

Are gutxiago, inperatorea ikaratu izatea.

Erroma lizun artan sendia sendotu naiean zebillen Septimio Sebero'ren aurrean, ez ziran 13"á ezkontza gaitzetsiz oiuka agertzen kristau ertzakoi aiek danak?

Eta, barbaritarrak arroturik Erroma'rentzat ain arriskugarri zebiltzan une artan Inperioa bizkortu nai zuan Septimio Sebero'ri, inperio ura, •deabruen Erreiñua-, are geiago, Antikristoa bera zala, erantzuten zioten kristau aiek; baiñan berealaxe zetorrela Kristo berriro, Antikristoa garaituz, ots, Erroma bera garaituz, munduaren azken egunetarako agindurik zegoan milla urteko erreñua, «Jerusalen Berriko Erreiñua-, munduan ezartzera. Eta, -Jerusalen Berriko Jaurerri- ortan Kristo bera izango zala Inperatorea!

-Eskatologt-, edo •azken uneetako giro artan gaiñera, asko zabaldu zan kristauen artean antimilitarismo edo gudarozteaganako areriotasuna.

Batzuek gaurko -Jeoba'ren Lekuko- edo -Testiguen- bezala, Inperio'ko gudaroztera sartzea, Antikristori laguntzea zala pentsatzen zuten; eta, ori, kristauk ez omen zezaketen egin; batez ere, egun aietan!, bereala zetorren Kristo'ren aurka guda egiteko Antikristoa gerturik zegoan une-unean!

Beste batzuek, Josu'k Kepa'ri -ezpataz iltzen duana ezpataz illa izango zala- esan ziola-ta, itz oien bidez, ezpataren erabilketa galerazi zuala uste izan zuten. Ta galerazpen ori, kristau guztientzako zala, iduritzen zitzairen.

Beste batzuentzat, kristautasunak, gizakume guztientzako maitasuna dalako, naitanaiez izan bear zuan gudarozteen arerio, eriotzarako bakarrik

sortuak bait dira gudarozteak.

Eta, ori, Iparretik eta Sortaldetik etsaiek Erroma'ri noiz eraso zai zeuden urtean oi u egiten zuten kristau aiek!

Arritzekoa al da Inperatorea bildurtu izatea?

Egia da giro ura ez zala Eliz osoko giroa. Baiñan, bai, aski sarturik zegoala katoliko askoren artean ere. Gotzaiek, zintzo jokatu zuten, bai Sortaldean bat edo beste izan ezik, eta bai Sartaldean ere. Aitasantuek, bereziki.

Erejeak bai, geienak ibilli ziran aski naasirik. Eta, beren aldetik, baita judutarrak ere.

Inperatorea ordea ez zan kristaua, eta arentzat aski berdiñak ziran erejeak eta katolikoak; danak kristauak. Eta, naiz ez oso-osoan, aski berdiñak juduak eta kristauak ere. Ez al zuten danek, laister etortzekoa zan Mesia Errege garaille batez itzegiten?

Orregaitik, kristauak eta juduak, biak jotzen zituan bere Agindu berriaz.

Agindu ark, kristautasunaren eta judutasunaren zabalkundea debekatzen zuan.

Baiñan juduek ez zuten zigor odoltsurik eta ziñoparik izan. Mexiko Urian argitaratutako •Enciclopedia Judaica Castellana'k• ez du Septimio Sebero'rik aipatu ere egiten. Jerusalemgo •Encyclopaedia Judaica,k, bai; ez ordea zigorraldi artako ziñoparik. Alderantziz era atsegiñean mintzatzen da inperatoreaz. Ikus:

•In 202 the emperor forbade, under threat of heavy penalties, conversion to both Judaism and Chistianity, but he was tolerant towards those who were Jewish by birth-: •202'ean, zigorketa larri gogorrez, judutasunera eta kristautasunera sartzea debekatu zuan, baiñan biguiña izan zan jaiotzaz judutar ziranekin..

Gero, juduei, gobemu edo jaurketari-buruzko eginkizunetarako bidea yare gelditu zitzaie la dio Iztegi orrek, eta eginkizun aietarako, •beren jainkobakarrezko sinispidearen aurkakoa zitekean guzia barkatu zitzaie la»: .Would be exempt from those formalities which were contrary to their monotheistic faith. (Ib.).

Kristauen artean bai, aski izan ziran martiriak. Eta, katoiikoen artean baiño geiago erejeen artean. Ala bear ere zuan, auek, montanitarrek batez ere, kristauak zirala oi u egiñez, eriotz-eske agertzen bait ziran erIzai *fien* eta epailleen aurrera.

•Martirien Eliza bezala agertzen zan montanizaleen •Eta ortaz baliatzen ziran egiazko Eliza beren Eliz ura zala sinistarazteko. (Danielou).

Izan zituzten martziondarrek ere martiriak. Ez ordea gnosizaleek, auek, naiz antirnilitaristak izan, soilki beren ametsezko munduan bizi bait ziran, enparantzetara oiuka martirio-eske irtetzen ibilli gabe.

Katolikoek artean ziñopak zenbat izan ziran ez dakigu, Eusebio'ren bitartez Ejito'koak eta Tertuliano'ren bidez Afrika izeneko probintzikoak izan ezik.

Ejito'n, Eusebio'k dioskunez, bazter guztietatik eramaten omen zituzten kristauak Alexandri'ra, an eraillak izateko. Leonidas, Origenes'en aitari, lepoa moztu zioten.

Ziñopa ildako gizonetzkoen artean iru emakumezko aipatzen dizkigu Eusebio berak: Tais, Potamiena emakume gaztea, ta Martzela bere ama. Bizirik sutan erreak, iruak: •Sutan bataiatuak», Eusebio'ren izkeran; jakiña bait da kristauek martiritzari •bataio» esaten ziotela.

Gizaseme batez ere mintzatzen zaigu. Naiz jentilla izan, Origenes'en adiskidea ta Potamiena martiriaren senargaia omen zan, eta, bera ere kristau zala esanez agertu omen zan.

Laister moztu omen zioten ezpataz jota lepoa.

Egoera berdiña, kristauena, Afrika'n eta batez ere Kartago'n. Emengo ziñopen artean, kristau egin berria zan andre gazte bat, Perpetua, eta bere mirabea, Felizitas, dira goraipatuena. Beren •acta»k, eskierki Tertuliano'k idatziak dira.

Katolikoaren artean, ziñoparik geienak, •neofito» edo •kristau-egin-berriak» dira; eta katekistaren bat edo beste. Izan ere Septimio Sebero'ren aginduak kristau izatea ez baiña kristau ez zana kristau egitea debekatzen bait zuan.

Orregaitik gotzaien artean eta bereterren eta katoliko zarren artean ez zan zigorturik izan. Eta auen artean izandako gutxi aiek, ez ziran Septimio Sebero'ren aginduaren araura zigortuak izan, Trajano'ren beste agindu aren araura baizik. Beti ere lege jarraitzen bait zuan agindu arek: •Erailla bedi kritautzat salatua, kristautasuna ukatzen eza ba'du».

Martziondarren eta batez ere montanitarren artean ainbeste martiri ikusteak, zerbait erakutsi nai digu, .seme galduaren» anai zarrenak eta Jerusalemgo jauretxean otoizka zutik zegoan farisaitar arek bezala, egiazko santuak gu bakarrik gerala *uste* dugun katolikooi: erejeak ere ez dirala Jainkoak yadanik gaitzetsitako pekatari gaiztoak. Aien artean ere borondate oneko kristau zintzoak asko dirala; josu biotzez maite duten sinisle garbiak; Jaunaganako maitasunak eraginda, antziñako montanitar eta martziondar aiek bezala, alaiki beren bizia martiri lez emateko gerturik dauden gizaseme eta gizalaba zintzoak.

KRISTAUTASUNA INPERIO-LURRETATIK AT.

BES'i BIDALIAK-, ots, Kepa, Paul eta Jon ez gaineko apostoluak nondik-nora ibilli ziran ez dakigu.

Ziur dakigun gauza auxe bakarra da: kristautasunak laister igaro zituala Erroma'ren inperioko mugak sortaldean eta azkar zabaldu zala, Armeni'ra, eta leenago oraindik Mesopotami'ra, Osroene'ra bereiziki, eta emendik Iran'era, Arabi'ra eta baita agian Indi'rairio ere.

Lurralde oietatik geienetara, sinagogaz-sinagoga diasporako bideak-zear judukristau arrunten ekintzari eskerrak, Apostoluak beraiek baiño lenago iritxi zan kristautasuna.

Bibliak aipatzen ez dizkigun Bidalien ibilleraz zerbait jakiteko ez dugu agoz-agozko jakintza beste biderik. Oso goiz liburu idatzietara jasoa izan zan agoz-agozko jakintza, bai, baiñan ala ere, ez itxu-itxuki sinesgarria.

Apokrifoek ere badamaizkigute berri jakingarriak.

KEPA, Mediterran Itxasoaren ertzean ibilli zitzaigun aurrena, Palestina, Fenizi, Siri eta Zilizi-zear. Zesarea, Joppe, Tiro eta Sidon urieetako Elizek, Kepa euki dute beti beren fedearen Aita lez.

Kepa'ren II Epistolaz gainera, lurralde artan idatziak ditugu II mendean Kepa'ri buruzko apokrifo batzuk ere: -Kepa'ren Ebangelioa-, -Kepa'ren Apokalipsia», •Kepa'ren Kerigmak», eta -Kepa'ren Egiriak». Azkeneko au, gaur ezagutzen dugun eran, III mendekoa da.

Kepa Antioki'n egon zala badakigu, eta A_ntioki'ko Elizak maitasun aundia izan ziola, eta maitasun ori luzaro gorde ziola ere bai. Iñon baiño geiago izan ziran an irakurriak Kepa'ri buruzko apokrifoak, eta bertan idatzitako bat, •Isaias'en Igokunde», dugu Kepa'ren eriotzaz itzegin zigun lendabiziko liburua.

IV mendean Zesarea'ko Eusebio edestilariak idatzi zuanez, Asi Txiki'n ebangelioa zabaltzen ibillia dugu Kepa. Ala, bereak izan ziran Ponto (Itxas Bel tzaren egoan), Kapadozi (Anatoli'ren erdian) eta Bitini (Europa'ri begira, Anatoli'ren ipar-sarkaldean), Eusebio'k dioskunez.

Eta badirudi zalantzarik gabeko egia dala Eusebio'k dioskun ori, Kepa'ren Lenengo Epistola, lurralde aietako kristauei zuzendua izan bait zan.

Grezi'n Korinto'ko kristauek ere Kepa'ri zaletasun bereizia ziotela badakigu, baiñan orrek ez du esan nai Kepa an egon zanik, kristau kepezale aiek, Kepa'k kristaututako lurraldeetatik, orduan garrantzi aundiko kaia zan Korinto'ra etorriak izatea badaitekean gauza bait da.

Erroma'ra nola iritxi zan ez dakigu, baiñan bertako gotzaia izan zala, an izan zala Neronen zigorraldian erailla, eta bertan obiratu zutela kristauek, bai; ori, badakigu.

JON ebangelariari-buruz, ziurak ditugu albiste-iturriak: Ireneo Donea eta Eusebio zesareatarra, biak leenagoko testigui jarraituz.

Ireneo'k Esmirna'ko Polikarpo Doneak esana jasoz, Jon Asi probintziko Efeso'n jarri zala diosku, andik Anatoli'ko Elizak zuzenduz. Ireneo'k iturritzat artu zuan Polikarpo ori ezaguna dugu. Jon berarekin bizitu zan, aren ikasle izan zan, eta 155'an il zan martiri 85 urteko agurea zala.

Gauza bera esaten digu Eusebio'k, 190'ren inguruan il zan Efeso'ko Polikrate'n jarraituz.

Monpsuesti'ko Teodoro'k, Paul Donea Erroman erailla izan ondorean irten zala Jon Palestina'tik Asi Txiki'ra joateko, diosku. 67'garren urtearen inguruan izan zan Paul erailla. Baleiken gauza. Bizi-bizirik aurkitzen zan orduan Erroma'ren aurka juduen gudua-ta, judutar askok alde-egin bait zuan Palestina'tik atzerrira.

Domiziano'ren denboran Patmos ugartetxora erbesteratua izan zan, eta an idatzi zuan Apokalipsia.

Nerba'k agintaritza artu zuanean itzuli zan ostera Efeso'ra, eta an il zan Trajano inperatore zala (98-117).

Domiziano'ren aldian Jon Erroma'ra eramana izan zala, an, irakiten zegoan olio z betetako ontzi batean sartua izan zala, eta andik bizirik irten zala, entzunik egongo zera noski. Ori ordea, Tertuliano'k bakarrik esaten digun gauza da. Beste inork ez. Ez da beraz gauza ziurra.

Ireneo'k dioskunez, Jonek, Erroma'ko uri guztiek bazituzten bañueta aietako batean Zerinto erejearekin egin zuan topo. Baiñan ori ere Ireneo'k bakarrik esaten digun gauza da.

TOMAS DONEA •inditarren Apostolua» izan zala esan oi da, baiñan Donetomas Indostan'en izan zanik ez genezake eskierki egizat artu. Lendabizi, •India» antziña artan lurralde askori esaten zitzaielako: Arabi erdiugartearen ego-sarkaldean dagoan Yemen'i adibidez, •India Felix esaten zitzaion. Gero •Arabla Felix» esango zaio, antziñate artan.

Bazan beste Indi bat ere: •India Juxta Etiopiam»: •Etiopi'ren alboko India».

Baiñan emen bigarren koxka gogor batekin egiten dugu topo. •Etiopi» ere, ez bait zitzaion beti lurralde bat berari esaten. Askotan gaurko Sudan' i Etiopi esaten zitzaion ba. •India juxta Etiopiarn» ori, beraz, ederki izan zitekean Etiopi'ren iparreko Nubi.

Sinipen geiago merezi du Eusebio'k eta Jeronimo'k esan zigutenak. Ez batak ez besteak, ez dute Indi'rik aipatzen. Eusebio'k, Donetomas Partzi'n ibilli zala diosku. Perti'n ibilli zala berriz Jerommo'k. Arrazoia, ederki izan

daiteke biena, Partzi Pertsiren ipar-sarkaldean bait zegoan.

Alatagutziz, laugarren mendean Gregorio naziantzetarrak, Donetomas Indi'an egon zala esan zuan. Eta orixe esaten digu mende bereko Efren Done siritarrak ere: Donetomas Indi'an izan zala martiri erailla eta aren gorputza Edesa'ra ekarria. Eta laugarren mende artan Edesan gordetzen omen zuan gorputz ura, eraspén aundiz, Edesa'ko kristaudiak.

Baiñan, geiagorik gabe, zer Indi zan Donetomas'ek kristautu zuan Indi ura jakiterik ez dugu.

Gaiñera, Gregorio'ren eta Efren'en iturria, dirudian lez •Tomas'en Egiriak» izeneko apokrifoa ba'da, liburu orrek oso siniste laburra merezi duala aitortu bearrean aurkitzen gera.

Egia da Malabar'ko kristau zarrak «Donetornas'en kristauak» esaten dietela beren buruei, Tomas ori ordea, Donetomas Apostolua ez baiñan VI edo VII mendean ara joan zan Tomas izeneko mixiolari nestoritar bat izan omen daiteke.

BARTOLOME, eta Jon'en Ebangelioko Natanael, apostolu bat bera dirala uste dute bibliliariek.

•Sur l'histoire de Saint Barthelemy après la reSurrection, nous ne poss'edons que des tradition plus ou moins inconsistentes» (Dic. Hist. Geogr. Ecles.). •Donebartolome'ren, Kristo'ren Berbizkunde osteko Donebartolome'ren edestiari-buruz, aski kolokazko berri-txorta bat besterik ez dugu..

Alare Eusebio eta Jeronimo beintzat mintzatzen zaizkigu Apostolu ontaz:

Eusebio'k au diosku: Panteno alexandritar ospetsua II mendean Indi'ra joan zanean, an eberkeraz Mateo Deunaren ebangelioa aurkitu zuala.

Ortaz gaiñera, Panteno'k ebangelio eberdun ura Alexandri'ra ekarri zuala, diosku Jeronimo Doneak.

Lengo zuloan gaude galdurik. Indi ura, Indostan ote zan? Ez dirudi. Seguruaski, •India Fellx» artan ibilli zitzaigun Bartolome. Ots, gaurko Yemen'en. An, judutarrak ugari ziralarik, ez bait da arritzekoa aien artean bat baiño geiago kristauak. izatea, eta orregaitik Panteno'k kristau aien artean eberkerazko Mateo'ren ebangelioa aurkitu izatea.

Gaiñera, Kostantinopla'ko Sokrate'k, Bartolome Etiopi-ondoko Indi'an ibilli zala bait digu. Eta Etiopi'ren ondoko Indi ura, Nubi ez baiña Etiopi'reri oso urbil dagoan Yemen izatea bai bait daiteke. Beti ere, Indostan'etik urruti beintzat.

Etiopiarrek ere, Etiopi'n Bartolome izan zutela uste dute; eta Etiopi'n Ander Donearekin alkartu zala.

Uste berekoak diran armenitarrak ere Bartolome Yemen'era Donetomas'ekin joan zala diote. Gero, andik Elam eta Medi ebaw2lizatuz,

Armeni'ra iritxi zala. Emen aurkitu omen zuan Judas Tadeo Donea. Biak il omen ziran martiri, baiñan Judas aurrena, eta onek eman omen zion Bartolome'ri zeruan ongiatorria.

Bizantzitarra da, uste on aundirik merezi ez duan •Bartolome'ren Nekaldi» apokrifoa. Ona bere kondairatxoa:

Anatoli'ren iparraldean errege omen zan Polimos, eta judu-erlijiora sarturik omen zegoan, Bartolome ara iritxi zanean. Kristau egin omen zuan onek. Polimos erregeak, ordea, bai omen zuan anai bat, Astyges, jentil jarraitzen zuana, eta onek sortutako matxinada batean, jentillek, larrutu egin omen zuten Bartolome, eta, gero, ezpataz erail. Artyges zerutiko zigorrez ondorean, gotzai sagaratua izan omen zan Polimos erregea.

MATEO ebangelariak apika ezer badakigun, arras naasiak eta txit urriak bait dira berari-buruz edestia-zear iritxi zaizkigun albisteak.

Etiopi'n ibilli omen zan. Eta Arabi'n, Perti'n, Itxas Beltzeko egoan zegoan Ponto'n. Eta Mazedoni'n... Bada Irlanda'raifio iritxi zala dion kondaira bat ere. Batere baliorik gabeko kondaira utsa.

ANDER, Kepa'ren anaia, gaurko Ukrani'n zegoan Esziti'n ibilli zala diosku Eusebio'k. Baiñan, orain arte beintzat, ez da lurralde aietan III mendez aurreko kristau-aztamarik aurkitu.

Jeronimo'k, Egeo itxasoaren iparraldean, gure egun auetan Grezi'renak eta Euro-Turki'renak diran lurretan zegoan Trazi, Mazedoni eta Grezi izan zirala, dio, Ander'ek ibillitako errialdeak. Badaiteke egia izatea. An ibilli bait zan Kepa, Ander'en anaia ere.

JUDAS TADEO aipatu dugu. Nizeforo'k jaso zuan beste agoz-agozko edesti baten ustez, Judas, Epistola bati izen eman zion Apostolua, Arabi'n eta Siri'n ibilli ondorean, Edesan il zan.

FELIPE, Anatoli'ko Frigi'n ibilli ondorean, Jon ebangeliarekin bizitu omen zan Efeso'n, Polikrate'k idatzi zuanez.

SIMON ZELATARIAK Mesopotami'n eta Perti'n zabaldu omen zuan Berri Ona.

MATIAS berriz, Judea'n ibilli omen zan, eta antxe bertan izan omen zan arrika erailla.

Dakusazunez, Bidali guztietatik bi bakarrik atera ziran Sortaldetik Erroma'rairio iristeko: Kepa eta Paul.

Paul gainera, iritxi zan Ori, edestiaren aldetik, ezpairik gabeko gauza da.

OSROENE'KO ELIZA. Jaurerri yarea zan Osroene, II mendearan asieran edo agian leenago kristautasuna iritxi zitzaionean. Mesopotami'ren iparraldean

zegoan, gaur Siri, Turki, eta Irak'enak diran lurraldeetan. Edesa zuan uri buru, Eufrates eta Tigris ibaietatik aski bertan zegoan uria.

Ez zan jaurreri aundia, naiko txikia baizik. Alare yare jarraitu zuan 216'ean Erroma'k indarrez menderatu zuan arte.

Ondo merezia du aipamen bereizi bat Osroene'ko jaurreriak, Dirndianez bera izan bait zan lenengo Laterri Kristaua. Tiridates erregearen Armeni baiño leenago, I Kostantino Inperatorearen Erroma baiño askoz leenago, Lenen Laterri Kristaua, egia bait da seguruaski, XI Abgar •Aundia» kristau egin zala II mendearen azkenean!

Badu Osroene'k ere beste lurralde kristau guztiek bezala, kristautasunaren etorreran-buruz, bere kondaira Kondaira zarra, III mendean edesatarren artean ondo ezaguna:

Josu *bizi* zalarik Abgar •Beltza» izan zan 9'garren urtetik 46'garrenera Osroene'ko errege. Gaixo jausi orren zan errege au. Orduan, eskutitz bat idatzi omen zion josu'ri Palestina'ra, eta eskutitz artan Osroene'ra joateko eskatzen omen zion, eta bera gaitz artatik sendatzeko.

Beste eskutitz baten bidez erantzun omen zion josu'k, naiz bera joan ez bere ikasleetako bat bidaliko ziola esanez.

Ikasle ori, Josu il eta berbiztu ondorean joan ornen zan Osroene'ra, eta Ebangelioak aipatzen dizkigun josu'ren inguruko irurogei ta amabi ikasle aietako bat izan omen zan. Izenez, Adaia.

•josu'ren» eskutitz ori, millaka eta millaka aldiz izan da siritarren artean bir-idatzia. Eta aski urruti iritxi ziran kopia oiek Osroene'tik at ere. Bai beintzat Ingländerrirairio, an izan bait da aurkitua bat gure mende ontan bertan.

Kopi oietan zarrena, gaur-egun, V mendekoa dugu, eta berrienak, gaur bertan Siri'n egiten diranak.

•A correspondencia entre Abgar e Jesus tornou-se um amuleto popular inscrito (ormeï erantsia) nas casa para livrar do mal» (Chadwick).

Bazuten osroenetarrek V mendean sortutako beste kondaira bat *ere* Josu'k bere antz-irudi bat Berenize Edesa'ko printzesari bidali ziola, alegia. Orrela, Sarkalde'ko Beronika'ren kide biurtu zigun kondairak Sortaldeko Berenize ura.

Ori guztia, kondaira utsa besterik ez da, baiña, zhirki egia dan gauza dugu, kristautasuna naitanaiez oso goiz iritxi zala Osroene'ra, Apostoluen denboran seguruaski, ugari bait ziran juduak garrantzi aundiko uria zan Edesa'n. Judutarrak izan ziran beintzat kristautasuna ara eraman zutenak.

Mintzatu ere, Josu'ren denboran Palestina'ko juduak bezala izkuntza bat beraz, ararrieieraz, mintzatzen bait ziran edesatarrak.

Orregaitik, judulasun-unai aundia du Edesa'ko Elizaren literatura zarrak.

IX Abgar erregeak bazuan adiskide bat, Bardesanas, olerkaria, ararneierak izan duan olerkaririk aundienetakoa, aundiena, bearbada. 222'ean il zan. .Bardesanas era um individuo culto cuyas poesias ficaran (gelditu dira) como padrão (eredu) Mssico na literatura aramaia- (Chadwick).

Kristaua izan zan, Edesa'ko kristaurik garrantzitsuena, baiñan dirudianez aski gnosikeriz orbandua. Orrela agertzen da beintzat bere ikasleek ura da gero, aren irakasketak bilduz argitara eman zuten olerti-irudiz betetako liburu batean.

Gero, ereje guztiek batere lotsarik gabe lapurtu zizkioten liburu orri puska galant osoak.

Alatagutziz, ez dirudi, erejeen eta batez ere Martzion erejearen etsai aundia izan zan Bardesanas bera ain gnosizalea zanik. Ez du beintzat gnosikeriaren muiña dan -bi astapenen» edo -bi jainko izadi-egilleen» dotriña egiazkotzat artzen. Bat eta bakarra da Bardesanas'en Jainkoa. Diran guztien egille bakarra.

Kosmologi edo ludi-iztian du gnosikeria oroitzen duan oldozkera: Aurrena jainkoak beste mundu batean egin zituan gauzak, baiñan an alkarrekin era okerrean naasi ziralako, beste gure mundu au egin zuan. Emen naasirik daude gauza guztietan «illuna» eta «argia». Sei milla urtez gero, gauza guztiak beste mundu artan izan zuten egokitasunera biurtuko dira.

Gure gorputza, izarren menpean dago, eta izarren eragiñak sortarazten dizkio gaitz eta oiñaze guztiak.

Aburu oiek aski zabaldurik zeuden aldi zar aietan, eta, juduen artean ere, orrela pentsatzen zuten esenitarrek. Bazuan ordea Bardesanas olerkariak beste punttu bat zearo eretikoia, giza-gorputzen berbizkundera sinisten ez zuala egia ba'da beintzat. Ori egia ba'litz, Bardesanas'en ustez, gure animak bakarrik igaroko lirake betikotasunera, ez gure gorputzak.

Bardesanas erdi gnostiku ura izan ote zan IX Abgar kristau egin zuana? Eta au ere, ura bezala, erdi gnostiku izan ote genuan? Ez da erreza erantzuna.

Ez zaigu alatagutziz fede txarreko kristauak izan ziralako uste izaterik zillegi. Fedearen barrutia gaur bezain landua ez zegoan lenen-lenen urte aietan ez bait zan erreza, idazle eta pentsalarientzat, ezkerrera edo eskubira okertu gabe beti bide zuzenetik ibiltzea. Ikusi ditugu, eta ikusiko ditugu, aldareetan dauzkagun santuak ere, beraiek oartzeke bide zuzenetik irtetzen.

Donetomas Apostolua ere apika ibilli zan Osroene'n.

Ori esan omen zuan beintzat III mendean Origenes'ek berak, Eusebio'k IV'aren asieran idatzi zigunez.

Edesa'n sortuak dira Tomas Doneari-buruzko apokrifoak:

•Tomas'en Egiriak» deritzana adibidez. III mendekoa. Arras ezaguna bere baitan daraman «Animari Ereserkia» izeneko olerki politari eskerrak.

Eta «Tomas'en Salmotegia», judukristau itxura aundikoa. Bere zatirik zarrena II mendekoa du.

•Tomas'en Ebangelioa» ere judukristaua da, eta, orregaitik, Jerusalem'go Jakoba Jaunaren Anaiari- garrantzi aundia ematen diona.

«Salomon'en Odak». I mendearen amaierakoak dirala dirudi, eta

judukristauak izateaz gaiñera esenitarren olerti-girokoak dira nabarmenki.

Bi gauza jakiñarazten dizkigu azkeneko apokrifo onek: Kristautasuna oso goiz, lenengo mendean bertan iritxi zala Osroene'ra eta esenitarretatik ere etorri zala jendea Kristo'ren Elizara.

Kristautasuneko egi sinisbearrak oraindik ongi mugaturik ez zeudenda, ez da noski arritzekoa Edesa'ko kristautasuna — bai beintzat kristaudiaren zati bat erejiz orbanduxea egon izatea. Bardesanas olerkari gnosizalaren itzala?

Kezkaturik begiratzeko zion beintzat Antioki'ko Elizak Edesa'ko ari, eta 200'garren urtea baiño lentxeago Serapio Antioki'ko gotzaiak, Palut izeneko edesatar kristau zintzo bat sagaratu zuan Edesa'ko gotzai. -De comenzo Palut contava apenas com uma reduzida minoria, mas depois de Edessa ingressar no imperio, os palutianos ficaran aptos (gauza izan ziran) a demonstrar que participavan na comunha'o catolica com Anti6quia e Roma como o (ori) nao faziam os adeptos de Bardesanas- (Id).

Dakusazunez, goiz nabari da, 200'garren urtea baiño leenago, I mendean bertan!, Erroma'ko Elizaren nagusitasuna.

216'ean Erroma'ren inperio-lurrera sartua izateak on aundia ekarri zion Edesa'ko Eliz zarrari, arrezkero Antioki'ko eta Erroma ber-bereko Elizarekin alkartuagoa gelditu bait zan.

Danadala eraspelik aundiena merezi du Osroene'k kristauon aldetik.

Lendabizi, ofizialki aurreneko Laterri kristaua, ia ziurki, bera izan zalako.

Bigarren, Mesopotami'ra, eta baita ere idazti batzuek adierazi dezaketenez, kristautasuna andik, Osroene'tik, zabaldu zalako.

•¹¹ y a ainsi un versant oriental du christianisme au d'ebut du III siecle dont l'Osroene apparait comme le principal foyer, toume vers l'Iran et

•Izan zuan kristautasunak III mendearan asieran sortalderako joera, eta Osroene izan zan ainzuzen, Iran'i eta Indi'ari begira, joera ori berotu zuan laberik garrantzitsuena- (Danielou).

Irgarren, luzaro Osroene kristau-kultur-kabi bizkorra izan zalako.

-Le christianisme d'Osroene exerce a cette epoque, dan deux domaines fort divers, une influence, celui de Part et celui de Pascese»: -Osroene'ko kristautasunak, bi barruti ezberdiñetan, ertiarren eta aszetikaren barrutietan, eraginmen aundia izan zuan garai artan- (Id.).

Ertiari dagokionez, Osroene'n izan zituan Elizak bere lenengo jauretxeak. Ez da arritzekoa, Osroene lenen Laterri kristaua izanik. Eliz aien ormetako irudi eta gaiñerako margo-lanak, greziarren erakoak dira baiñan badute Sortaldetiko eta juduengandiko ertikeraren kutsua.

Naiz Siri'ko lurrian, Osroene'ko jaurerriaren muga-mugan zegoan eta Edesa'ko Elizaren itzalpekoa zan, oraindik asko ez dala aurkitua izan dan jauretxe kristaurik zaarrena: Dura-Europus'ko eliza eta bere bataitegia.

Eresi edo musikaren aldetik ospetsuak izan ziran abestigintzan, aipatu dugun Bardesanes, eta Armonius, aren semea. Azkeneko onena da eleneraz

idatzitako ereserki-sorta bat, bi taldeen artean abesteko gertutua.

•Or il parait bien que c'est a partir de la que les chants respoinsoiaux se sont developpes au IV siecle dans l'Eglise d'Antiochie. Bardesane lient une place eminente dans l'histoire de la musique liturgique»: **andik** sortua dugula IV mendean Alexandri'ko Eliza'ra iritxitako •erresponsu-abesti» edo •abesti-erantzunduna». Itzal aundiko gizona, Bardesanes, I iturgi-musikaren edestian» (Id.).

«Aszetikari dagokionez ere, aundia izan zan III mendearen asieran Osroene'ren eraginrrena»: •Dans le domaine de l'ascese, le debut de III siecle voit aussi l'Osroene jouer un rle important• (Id).

Aszetika aren ezaugarririk nabarmenena, bai Osroene bertan bai Siri guzian, eta Mesopotami'n, laztasuna izan zan, gorputzarekingo gogortasuna, garbai edo penitentzigintza. Eta, garbai-giro orren ondorioz, ezkontzaren sakrarnentuaganakogutxiespena, ta birjintasunaganako geiegizko gorespna.

•Tomas'en Ebangelioan» adibidez, kristau biurtutako senar-emazteak matrimonioari muzin-egiñez alkarrengandik bereizita ezkongea bezala bizitzen ikusten ditugu.

•Binintasunaz Azalpena» deritzan Osroene'ko beste liburu bat, •matrimonia spiritualia» edo •gogo utsezko rnatrimonioetaz• mintzatzen zaigu. Izpiritu utsezko ezkontza oietan emakume penitenti edo garbai egille bat gizon garbai egille batekin alkartzen zan, biak alkarrekin bizitzeko. Biak etxe batean baiña aingeruak bezala. Garbitasun osoan.

Asko zabaldu zan izpiritu utsezko ezkontza oien oitura. A_natoli'ren sarkaldeko itxas-ertzean zegoan Asi izeneko probintzian, orrelako ezkontzak III mendean egiten zirala diosku lurralde artakoa eta mende aren lenen urteetakoa dan •Felipe'ren Ebangelio» apokrifoak; eta, apokrifo orrek, ezkontza-mota ori, kristauen bizierarik santuena bezala aurkeztu nai digula dirudi.

Bizirik zegoan oraindik IV mendean Siri'ko lurraldeetan oitura arriskutsu on, eta orregaitik ain zuzen, ardskutsua zalako eta okerkeri batzuen iturri Izan zalako eraso zion Jon Krisastorno Doneak.

Kristau-literaturari dagokionez berriz, ikusiko dugu zenbait aiñakoa izan zan •Edesa'ko Eskola»ren dizdira.

ELIZA III MENDEAN

ALDIEN URRATSAK

- 203? Ipolito'ren -Daniel'i-buruz Azalpenak-
207-208 Tertuliano montanista biurtu.
211 Karakalla ta Jeta inperatore.
212 Karakalla inperatore bakarra.
217 Kalisto Aitasantu. Aitorketako Sakramentua eraberritze-lanak.
217 Makrino inperatore
217 Ipolito Donea sasiaitasantu.
218 Elegabalo inperatore.
222 Alexander Seber inperatore.
222 I Urbano Aitasantu.
226 Iran'en, Inperatore Sasanitarrak agintzen asi. 652'garren urtera arte egongo dira agintzen.
230 Pontziano Aitasantu
231 Origenes, apaiz sagaratua.
235 Ponziano Aitasantua eta Ipolito sasiaitasantua, Zerdefia'ra erbestertuak.
235 Maximo Seber erailla.
235 Maximin inperatore.
235 Antero Aitasantu.
236 Fabian Aitasantu.
238 Pupieno eta Balbino inperatore.
238 I Gordiano ta II Gordiano inperatore.
238 III Gordiano inperatore.
241 Sapur Perti'sko errege.
241 Mani bere erejia aldarrikatzen asi.
244 Filipino Arabitarra inperatore.
244 Plotino Erroman.
247-248 Dionisio Alexandri'ko gotzai.
248 Dezio inperatore.
249 Filipe Arabitarra pertsiarrek gudan illa.
249 Zipriano Kartago'ko gotzai.
249-250 Kristauen aurka zigor-agindua Dezio'k.
250 Fabian Aitasantua martiri erailla.
250 Got'tarrak gudaz Erroma'ren inperiora sartu.
251 Komelio Aitasantu. Nobaziano'ren aurka sinodoa.
251 Nobaziano sasiaitasantu.
251 Ostiliano inperatore.
251 Treboniano Galo inperatore.
252 Origenes'en eriotza.
253 Luzio Aitasantu.
253 Emiliano inperatore.
253 Baleriano eta Gaieno inperatore.

- 254 I Esteban Aitasantu.
- 256 Pertsiarrek Antioki artu.
- 256 Kartago'ko sinodoa.
- 257 II Sisto Aitasantu.
- 257-258 Zigor-aroa Elizarentzat. Martiriak: II Sito Aitasantua, Lorentzo diakonoa, Zipriano Kartago'ko gotzaia...
- 259 Dionisio Aitasantu.
- 260 I Sapur pertsiarrek Baleriano erromatarra katigu arrapatu.
- 260 Galieno inperatore. Kristauen aurkako zigorraren gozapena.
- 262-263 Porfirio Erroma'ra iritxi.
- 264-265 Got'tarrek Grezi'n eta Efeso'n sartu.
Antioki'n sinodoa: Samosata'ko Paul'en gaitzespena.
- 265 Alexandri'ko Dionisio'ren eriotza.
- 268 II Klaudio inperatore. Got'tarrak geldieraziak.
- 269 I Felis Aitasantu. 269 Plotino'ren eriotza.
- 270 Aureliano inperatoreak •alaman» izeneko barbaritarrak geldierazi.
- 272 Aureliano'k Palmira artu.
- 275 Aureliano'ren eriotza. Tazito inperatore.
- 276-277 Berriro barbaritarrek inperio-barrura.
- 276 Florian inperatore.
- 276 Probo inperatore.
- 280 Tiridate Armeni'ko erregea kristau egiña.
- 282 Karo inperatore.
- 283 Karino ta Nurneriano inperatore.
- 284 Karino inperatore bakarra.
- 284 Diokleziano inperatore.
- 275 Eutikiano Aitasantu.
- 283 Kaio AitaSantu.
- 285-286 Diokleziano'k inperatore laguntzaille« bezala Maximiano artu.
Biek •Augustus• eramango dute goi-izentzat.
- 93 Kostantzio eta Galerio, bi «Augustoei• laguntzaille bezala emanak. •Zesar• artuko du bietako bakoitzak goi-izen.
- 297 Manikeri-zaleen aurka agindua.

111 MENDEKO GIROA

Zearo ezberdiña izan zan Elizarentzat III mendeko giroa. Aski paketsua mendearen lenen erdikoa. Gogorra, odoltsua, ikaragarria, bigarren erdikoa.

193'az gero Septimio Sebero zigortzaillea inperatore zala sartu zan Eliza III mendera. 211'ean il zan inperatore ura, baiñan aren azken-urteetan asko moteldu zuan Elizaren aurkako zigorra. Eta, 211'garren urte ortan Karakalla'k inperiotza artu zuan bezain laister, era bat gelditu ziran zigorketak Elizarentzat.

Egia da Maximin Traziarrak ere Eliza zigortu zuala, baiñan Erromabarruan bakarrik, bere iru urte laburreko inperiotzan, etsaien aurka gelditzeke borrokan ibilli bearrak, eta azkenean bizia kendu zion aitzo erailleak, ez bait zioten Elizaz geiegi kezkatzeko beta aundiegirik eman.

Esan bearra da gaiñera, Trajano'k emandako arau ura oraindik lege zalako, probintzietako Jaurleen eskuetan zegoala kristauen zoria, eta orregaitik gaur emen, biar an, III mendeko lenen erdi artan martiriak izan zituala Elizak.

Alatagutziz, pake-arotzat euki izan dute garai ura Elizaren edestilariek.

Pake-aro, Inperatoreen aldetik. Ez ordea erejien aldetik. Erejirik eta zismarik gabeko astirik ez bait du izan eta ez bait du agian beiñere Elizak izango. Bi izan ziran garai artako Aitasantuek gaitzetsi bear izan zituzten erejirik arriskutsuenak: Manikeria eta Monarkikeria.

Ikus ditzagun ereji, Aitasantu, eta Inperatore aiek:

•••

MONARKIKERIA edo SABELIKERIA. Irutasun Donearen aurka dijoan erejia da. Ordurarte Jainkoari eta Kristo'ri buruz (geroxeago arte ez da Gogo Deunaren aurka erejirik irtengo) iru gauza sinisten zituzten sendo kristauek:

- Jainkoa, bat bakarra dala.

- Aita, Jainkoa dala.

- Eta Kristo ere, Aitaren Semea, Jainkoa dala.

- Alatagutziz, naiz Aita Jainkoa izan eta Semea Jainkoa izan, Jainkoa bat bakarra dala. Jainko bat besterik ez dala.

Atal oiek nola alkarrekin konpondu daitezkean jakiteaz ez ziran arduratu, eta arduratu ziranak ere, Justin Donea adibidez, ez ziran egokiegia mintzatu. Ez da arritzekoa. Garai artan misteri oietaz mintzatzeko, teologiak itz egokirik ez bait zuan oraindik sortu.

Misterio ori argitu naiez, II mendean bertan, bide okerretik jo zuan Asi'n Noeto ziritzan Esmirna'ko teologilari batek. Au zan bere oldozbidea:

«Jainkoa bat da. Aita eta Semea Jainkoa dira. Nola? Biak Pertsona bat bakarra diralako: Jainkoa. Jaikoari, **zra** batean ari danean Aita esaten zaio eta beste **g̃b**atean ari danean, Semea.

Orregaitik, •modalisti• edo •erazaleak• eta, Semea ta Aita bat egiten zituztelako, •hyo0.tores•— «seme-aitazaleak• — ere esan zitzairen ereje aiei.

Eta, une berean, •patripasiani. edo •aitanekalduzaleak», gurutzean Semea bezala Aita ere nekaldua izan zala esaten zutelako.

Izan ere, aientzat Aita eta Semea Pertsona bat beraren bi agerkeria edo •gizonaren aurrean agertzeko bi •besterik ez bait ziran.

Noeto, Esmirna'ko bereter edo prebiteruek eskomikatu zuten Elizatik. Antxe eta orduan bertan ilko zan monarkikeria, Praxeas izeneko asiar batek 190'garren urtean Erroma'ra ekarri ez ba'lu.

Kristau izateagaitik espetxean oiñazetua izan zalako, orduango kristauek •confesor- ots, •lekuko» edo •testigu» esaten zieten aietako bat zan Praxeas ori. Noeto'ren jarraille ta monarkikeriaren erakusle. Erroma'n, Irutasunari-buruz ordurarte erakutsi zuanaren damua idatziz agertuz gero, Afrika'ra joan zan, eta len Erroma'n ukatu zuana erakusten asi zan Afrika'n: monarkikeria.

Etsai gogorra irten zitzaion emen Tertuliano — naiz bera ere ordurako montanikerizko erejira okerturik egon -Adversus Praxeam- izeneko liburuaren bidez.

Bitartean Esmima'tik etorritako Noeto'ren bi ikasle asi ziran berriro Erroman ereji ura zabaltzen. Baiñan oraingoan Sabelio izeneko filosofi-zale bat izan zan ereji aren zabaltzaillerik kementsuena.

Orregaitik, aurrerantzean «sabelianismus» esango zaio monarkikeriari.

Arazoi osoz gaiñera, indar berria eman bait zion Sabelio'k:

Noeto'k Aita'z eta Semea'z esana Gogo Deunagana luzatu zuan Sabelio'k. Bere ustez Jainkoaren Irutasuna, •ez zan iru Pertsonen irutasuna, iru •itxurena» baizik. Pertsona bat zan Jainkoa, iru •itxura- artzen zituan Pertsona bakarra-. Aita-itxura du ludiaren sortzaillea lez; Seme-itxura gizadiaren salbatzaille lez; Gogo Deun-itxura Eliza donetzaille lez.

Ortaz gairi

ra, Grezi zarreko filosofian oiñarritu nai izan zuan ereji ura guzia.

Bi liburu idatzi zituan Ipolito Doneak ereji aren aurka: •Adversus Noetum» eta •Philosophumena». Azkeneko au ereji guztiak filosofilari zarrek erakutsitako okerkerietan oiñarrituak zeudela agertu naiez.

Zeferin eta I Kalisto izan ziran *ereje* aien: aurka eta, — ez zaitez arritu ereje aien etsaien aurka borroka egin bear izan zuten Aitasantuak. Bai Tertuliano'k eta bai Ipolito'k Jainkoaren irutasuna babestu nairik ez bait zuten Jainkoaren batasuna, bear bezain argi ziurtzen.

Gaiñera, biak, gogorkeri zale zipotzak izanik, Aitasantuen aurka zebiltzan ordurako, ta, azkenean, montanikerira jaus iko da bereala Tertuliano, eta sasaiatasantu biurtuko zaigu Ipolito. Ipolito Donea!

ZEFERINO Aitasantuak erejiaren aurka emandako azalpena, motza iruditu zitzaion Ipolito'ri. Aitasantuak, soilki, Jainkoa bat bakarra dala. eta -Kristo Jainkoa dala. esaten bait zuan. Eta, ori, bi atal oiek nola lutu daitezkean azaltzeke esaten bait zuan.

I Kalisto izan zan, Aitasantu egiñik, Sabelio eskomikatu zuana.

Sabelio'k Ejito'ra iges egin zuan, eta bera il ondorean ere, IV mendearen azkeneraño irau zuan sabelikeriak.

Ipolito'k tinkojarraitu zuan Aitasantuaren aurka, baiñan ez sabelikeriaren auziagaitik.

Ipolito, Tertuliano bezala, arras gogorkeri zalea zan. Eliza ia-ia kristau santuz bakarrik osotua egon bear zuala esateko, asko falta ez zitzaien aietakoa; aitasantuek pekatuen barkapena errezegi ematen zutela-ta, Erroma'ko Elizarekin asarre zebiltzanetakoa.

«Philosophumena» liburuan errukirik gabe erasotzen dio Zeferino Aitasantuari, eta gogorrago oraindik orduan Zeferino'ren laguntzaille eta aolkulari zan eta bereala Aitasantu izanen zan Kalisto'ri.

†**

I KALISTO ori izan zan Zeferino illik, Aitasantu egiña. Eta bereala sabelitarrak eskomikatu ez zitualako, urduritasun aundia sortu zuan gogorkerizaleen artean.

Aren aurka jeiki zan beintzat Ipolito, ta bereala izan zan, Ipolito au, bere jarrailleek Aitasantu izendatua. Sasiaitasantu!. Elizaren edestian lenengo sasiaitasantua!

Eta sasiaitasantu jarraitu zuan Kalisto'ren eta onen ondorengo I Urban eta Pontziano Aitasantuen denboran.

Ona, itzal aundiko idazti batek ematen digun Ipolito orren antz-irudia:

Saint Hippolytus (c.165-c.235), antipope, a notheowrdy theologian, controversialist and martyr, was stablished in Rome as one of its leading presbyters in the reign of Pope Zepherinus (c.199-c.217) (Enc. Brit.).

Euskeraz: •Ipolito Donea (165'aren ingurutik 235'aren ingurura), sasiaitasantua, teologilari oargarria, eztabaidaria, ta ziñopa, Erroman jarri zan bizitzen, eta Zeferin Aitasantuaren denboran eraginmen aundiko bereterretako bat bezala izan zan onezagutua.

Sabelitarren auzia baiño geiago, gogorkerirako zaletasuna izan zala dirudi, Ipolito, I Kalisto'ri uko eginda, zisrnara bultzatu zuana.

..It appears that Calixtus reduced the penitencial severities applied against fornication and adultery, which the church had previously regarded as irrennisible except by God hirnsel»: «Egia lez agertzen zaigu Kalisto'k moztu egin zuala, izorraketa ren eta ezkontza-zikintzearen aurka erabilli oi zan gogortasuna, oben oiek Jainkoak berak ez bestek barkatu ez zezazkeala uste izan bait zuan Elizak ordura arte (Ib.).

Azkeneko punttu ori ez da egia. Egia da bai, hereje askok, montanizaleek batez ere, eta ereji oien inguruko jendeak, jende askok, bi oben oiek eta apostasi edo sinismenari uko egitea, Jainkoak bakarrik barkatu zezazkean obenak zirala uste izan zutela. Baiñan Elizak berak, betidandik sinistu zuan oben guztiak barkatzeko almenik aski bazuala. Baita aipatutako iru oiek

barkatzekoa ere. Alatagutziz, egia da, ikusiko dugun bezala, Elizak iru oben oiei eta beste oben astunei bein bakarrik ematen ziela barkapena.

Esan bearra da gaiñera, Ipolitito ez zala montanikeri-zalea, Ez zuala Tertuliano'k bezala, Elizaren almen orokor ori beñiere ukatu. Soilki, gogorkerizalea izan zala, eta, soilki, iru oben aundi aiek barkatzeko penitentzi latzagoa eskatzen ziola I Kalisto Aitasantuari.

Alatagutziz, Ipolitito'k berak aitortzen du «que Calixto tenia de su parte a la mayoría de los catblicos» (Jedin).

Ipolitito'ren teologia ere, Irutasunaren azalpena egiterakoan, ez zan, izketari dagokionez beintzat, oso garbia.

Esanik utzi dugula, uste dut, izen asko eman zaizkiola Irutasun Doneko bigarren Pertsonari. Sortaldetarrek, eleneraz, Donibane'ren ebangelioko mintzaerari jarraituz, LOGOS esan zioten, eta esaten diote.

Sarkaldetarrek, izen ori VERBUM biurtu zuten lateraz, eta gure liturgiak ITZA biurtu digu euskeraz.

Izen oiek ordea izen zarrak dira gure artean. Sarkaldean laister esan bait zitzaion FILIUS, ots, SEMEA, Irutasun Doneko bigarren Pertsonari.

Agian izen oien zergaitia jakin naiean egongo zera:

«Logos» itzak, eleneraz bi gauza esan nai zituan orduan antziñako filosofigintza aren araura: «Gogapena» («idea») eta «itza», («verbum» lateraz); itza, mintzoa-bitarte «esandako gogapena» besterik ez bait da: gogapen baten «irudi ozena», lendabizi gure barruan esandako itz ori, agoskatuz, kanpora ateratzen ba'dugu.

Elenerazko «logos»en bigarren zentzua artuz, «VERBUM» erabilli zuten lateraz sarkaldetarrek Irutasuneko bigarren Pertsona adierazteko, eta ITZA darabilkigu euskaldunok oraingo liturgian; orixe da ba laterazko «verbum» orren esan-naia.

Irutasun Doneko lenengo Pertsona'k bere burua betidandik ezagutzen du. Ezagutze orok ordea, ezagutzen dan gauzaren gogapena, idea, sortzen du. Aitak, bere burua ezagutzean, bere buruaren gogapena sortzen du, eleneraz mintzatzatzen ba'gera, bere buruaren «logos»a sortzen du. Ortik Irutasun Doneko bigarren Pertsona'ri LOGOS esatea: Bigarren Pertsona Aitaren Logos edo Gogapena bait da: Aitak sortua, eta maitasun osoz Aitak bere barruan «esandako» Gogapena: Ortik bigarren Pertsonaren bigarren izena: VERBUM, ITZA.

Bigarren Pertsona dan Gogapen edo Logos ori, bere gaia duan Aitaren izate osoaren gogapen «ad-equatus» edo egokia dalako, beregan ditu Aitaren zertasun eta nortasunaren bikaintasun «in-finitae» edo «mugarik gabeko» guztiak. Badu, aitaren mugagabetasuna; orregaitik bera ere Aita bezala «in-finitus», «mugarikgabea», da. Aitaren zertasuna ere badualako, Aita bezala Jainkoa da. Eta Aitaren nortasuna edo nor izatea» badualako, bera ere Aita bezala, Nor bat da; Pertsona da.

Eta Pertsona dan Aitaren Logos ori, Aitak bere altzoan »sortua, ez, egiña dalako, aita orok sortutako seme oro bezala, Aitaren Semea da. Ez, aragizko

sorketaz, izpiritu utsezko sorketaz baizik.

Ikus orain gure Ipolito'ren mintzaera: aski doiñu atsegingaitzako mintzaera:

Aitak, bere Logos ori, izadia egiterakoan -kanporatu- omen zuan, -argitik argia- bezala; eta orrela «kanporatutako» Logos au, aragi-artzerakoan egin omen zan «sensu pleno» edo -zentzu osoan- Aitaren Seme.

Izan zituan Ipolito'k salaketak. «Diteista» edo «bijainkozale» zala aurpegira jaurtitzen zienei, bera -monoteista- edo «jainkobakarzalea» zala erantzuten zien, bigarren Pertsona, «Logos», Aitarengandik «argitik argia» bezala zetorrela aitortzen zualako. Egia; baiñan esakizun ori ez da naikoa Ipolito'ren «ortodoksi» edo «sines-zintzotasuna» era egokian argitzeko.

Bera asmo onez ibilli zala beintzat ezin izango dugu ezbaiean ipiñi. Izan ere, aldareetan bait dugu aspaldidanik Ipolito Donea, Kristo'ren ziñopa.

I Kalisto'ri-buruz ezer aundirik ez dakigu.

Aitasantutzara iritxi aurretik jopu edo «esklabu» izana zan; eta kristaua zalako Zerderia'ko ugartera meatzetako lan gogorrera erbesteratua; eta, andik, Erroma'ra itzulia. Emen, artxidiakono lez, itzal aundiko gizona agertu zan; eta arras kementsua berriz Aitasantu lez.

•Saint Calliste mourut en 222, le 14 d'Octobre. Des le temps de Constantin, il etait compte au nombre des martyrs»: •222'ko urrillaren 14'ean il zan Kalisto Donea. Kostantino'ren garaian bertan izan zan ziñopen artera sartua- (Enc. Hist. et Geogr. Ecles.).

Ziñopatzat izan da artua I Kalisto'ren ondorengo I Urban ere. Berdin, onen atzetik etorri zan Pontziano.

Azkeneko au, Pontziano Aitasantua, eta Ipolito sasiaitasantua, lan gogorretara erbesteratu zituan Maximin inperatoreak, -eta an il ziran biak, baiñan aurretik Ipolito'k Aitasantuarekin pakeak eginda»: -Both men died there, but Hippolytus first reconciled with the pope» (Enc. Brit.).

TRADUKZIOKERIA. «Tradux», lateraz, zugaitz berri bat sortarazteko lurrean sartzen dan min edo arbazta bizia da. Eta ortik omen datorkio bere izena ereji oni.

Gizakumeen sorkuntzari-buruz, antziña artan, semea oso-osorik aitarengandik zetorrela uste izan zan; amak, lurrak landareekin egiten duana besterik ez omen zuan egiten: bere sabelean artutako giza-aziari non ernetua, non azia, eta ortarako bearrezkoak dituan ezetasuna eta azkurria edo alimentua eman.

Aita zan beraz, nekazariak lurrean mina bezala, amaren sabeleansemea landatzen zuana.

Giza-sorkuntzari-buruzko iritzi orren araura, onela pentsatzen zuan tradukziokeriak: semea, oso-osoa, amaren laguntzarekin aitarengandik ba'dator, aita-amengandik datorsemearen soiña ez ezê semearen anima ere.

Soiña, gurasoen soiñetik eta anima gurasoen animetik sortzen dira. Biak batera, gurasoen ekintza bat bakarraren bidez, sortzen dira.

Tradukziozale izan zan ziran Tertuliano, Apolinar eta beste ereje batzuk. Eta Sarkaldean katolikorik aski ere bai, Jeronimo Deunak idatzi zuanez.

Alare, Tertuliano bera eta Sortaldeko katoliko aiek tradukziozaleak ez baiña generaziokerizaleak ziran apika. Ontan zegoan ezberdintasuna. Generaziokerizaleek ere anima gurasoen animatik zetorrela uste izan zuten, baiñan «era miresgarri baten bidez», ez, beste aiek esaten zuten bezala, soiña sortzeko aita ta ama alkartzen dituan aragizko ekintza bat beraren bidez.

Generaziokerizaleak ugari izan ziran Sortaldean. Eta baita Sarkaldean ere. Augustin Donea adibidez, sarkaldetarren artean. Aburu ori egokiagoa iduritzen bait zitzaion Adan'en obena gizadi guztira nola igaro daitekean aditzera emateko.

Orduan, ez generaziokeria ez zan ereji. Gaur bai; bai tradukziokeria, bai generaziokeria erejiak dira biak; giza-anima bakoitza, iñoren eta ezeren laguntzarik gabe Jainkoak berak bakarrik ezerezetik sortzen duala, erabakirik bait dauka Elizak. Eta ereji da trikotomikeria ere, ots, gizakumea iru izakiz, — soiñaz, animaz eta izpirituz osotua dagoala sinistea. Erdiaroan Biena'ko Kontzilioak rerakutsi zuanez, giza-soiñak ez du ba bizi-emaille bat besterik: bere izpituizko anima illezkorra.

•**•

ADOPTIANISMUS edo JAINKOKUNTZAKERIA'k Josu Jainkoa ez dala oiukatu zuan. Gizon utsa zala, beste edozein gizakume bezala bere gurasoengandik, Miren eta Joseba'gandik, sortua, baiñan gero Jainkoak berak jainkotzat artua. Jainkotzat artua izate ori, bataiokan gertatu omen zitzaion. Jon batailariak Jordan ibaiean bataiatu zuanean, Aitak «indar jainkotiar» bat bidali omen zion ba.

Dakusazunez, bi sinist-egi ukatzen zituan batera ereji berri ark: Josu'ren egiazko Jainkotasuna eta Miren'en neskustasuna.

Monarkikeriak bezala Jainkoaren irutasuna ukatzen du adopziokeri onek ere, Aita bakarra dala Jainko, erakusten bait du.

II mendearen azken-aldera sortu zan Erroman ereji au, baiña erromatarra ez baiña sortaldetarra izan zuan bere sortzaillea: Bizantzio'ko Teodoto, kultur aundiko gizona, naiz ogibidez soilki larru-langillea besterik ez.

Zigorraldi batean Kristo ukatu omen zualako, lotsatuta, Bizantzio'tik Erroma'ra etorri omen zan. Eta bein Erroma'n, elizkideen artean ukapen artaz salatua-edo izan zalako, bere burua babestearren, berak Josu izeneko gizon uts bat besterik ez zuala ukatu, erantzun omen zuan.

Eta bere erantzun ori oiñarrituzeko, Bibliaz eta, — filosofizale aundia bait zan Grezi'ko filosofiaz, Euklide'z eta Aristole'z berezik baliatuz kristaukera berri bat eratu omen zigun: Adopziokeria.

Izan zuan adopziokeri onek arrakasta judukristau Itun Zar maltale gogor batzuen artean. Eta, baita, naiz kristautasuna puntu askotan arras atsegiña ikusi, kristautasuneko dogmak, Irutasun Donearen dogma bereiziki, oso-osoan artzera makurtzen ez ziran jentillen artean ere. Gaiñera, Teodoto'k bere erakuspenei ematen zien filosofi-usaiak errez lilluratzen bait zituan.

190'garren urtean eskomikatu zuan Teodoto bizantziarra I Bitor Aitasantuak.

MELKISEDETARRAK. Teodoto izen bereko beste buruzagi batek artu zuan erejiaren buruzagitza: Teodoto Gazteak. Onek eman zion eliz itxura, eta baita txepelkeri bat erantsi ere: Itun Zarreko Melkisedek alegia Kristo baiño aalmen geiagoko profeta zala. Kristo Jaupari Nagusi omen da ba, baiñan «Melkisedek'en jauparitasunaren araura», Bibliak erakusten duanez: -Tu es sacerdos in aeternum secundum ordinem Melquisedech»: «Jaupari zera zu betirako Melkisek'en araura».

Orregaitik, Kristo ez baiña Melkisedek omen da Jainkoaren eta gizadiaren artean egiazko Ararteko Nagusia.

Ez ziran asko izan melkisedetarrak.

Eta adoptziokeri berbera ere aski moteldurik ibilli zan II mendearen lenen erdian, aize-emaille berri bat sortu zitzaion arte. Samosata'ko Paul, 260'az gero Antioki'ko Gotzaia, izan zuan aize-emaille berri ura; jakintzen aldetik filosofiz eta literaturaz ongi jantzitako gizona; baiña eliztarra zalaren aldetik, aski biziera mundukoieko gotzaia.

Kristo gizon utsa zala esaten zuan. Josu izeneko gizon uts orren barruan ordea Jainkoaren «Logos» zegoala bizitzen. Logos ori ez omen zan Pertsona, Jainkoaren -Dinamos» edo -Indarra- baizik. Bere barruan bizi zitzaion •Logos» edo •Indar» orren bidez egin omen zituan Josu'k bere mirariak.

DINAMIKERIA ere esan oi zaio Samosata'ko Paul'en ereji ari, «Logos-edo Irutasun Doneko Bigarren Pertsona Jainkoaren indarra besterik ez dala erakutsi zualako. Oroi, •indarra-. «dinamos» dala eleneraz.

Larritu ziran Asi-aideko gotzaiak, eta sinodo bat bildu zuten Kapadozi'ko Zesarea'n. Beste gotzaien artean izan ziran Gregorio -taumaturgo- edo •mirarigillea» eta Alexandn'ko Dionisio. 264'ean egin zan sinodo ura.

Alperrikakoa gertatu zan.

Bertan bildu ziran •Aitak» ez bait ziran, bere burua ederki babesten zuan Samosata'ko Paul'i erejia zertan zeukan adierazteko gauza izan.

Len bezala jarraitu zuan Paul'ek bere aburuak ereiten.

Orregaitik, lau urte geroago, 268'an, Antioki'n bertan egin zan bigarren Sinodo bat. Eta an bai, an, Malkion izen zuan bertako bereter jakintsuak

errez ipiñi zuan danen begien aurrean Paul samosatarraren erejia zertan zegoan.

Samosata'ko Paul, Antioki'ko gotzaitzatik kendua izan zan, eta aren ordeze beste bat izendatua.

Paul'ek ordea bere alde zuan une artan Siri'ko Agintaritza.

260'garren urtean Sapur pertsiarrak Balerian inperatore erromatarra garaitu zuanean, jaurreri yare egin zan Palmira, Siri'ren sortaldean; eta Siri guztira zabaldu zan Palmira'ko jaurlaritzaren itzala.

Orra Zenobia, Palmira'ko Printzesa, Samosata'ko Paul aren adiskidea zan, eta aren laguntzarekin lortu zuan onek —Paul'ek — bere burua zutik gordetzea, Aureliano Inperatoreak 272'an Palmira Erroma'rentzat bir-irabazi zuan arte.

Orduan, Inperatore oni eskatu zion Antioki'ko Elizak laguntza, eta orduan eman zuan onek bere erabaki aipagarri ura: «Erroma'ko eta Itali'ko gotzaiekin bat egiñik zeuden gotzaiek bakarrik izan zezaketela Eliz berriak sortzeko eskubidea»: sortzeko eta jaurtzeko edo gobematzeko eskubidea.

Beraz, Erroma'ko gotzaiarekin bat zegoana bakarrik izan zitekean Antioki'ko gotzaia.

•Foi a primera vez que una disputa aclesistica se resolvió pelo poder secular. O J.rduo problema das relaÇões entre a Igreja e o Estado comencava a emergir como factor complicativo nos debates doutrinaes internos da Igreja» (Chadwick).

Laguntza arriskugarria Elizak Laterriagandik lortu dezakeana. Errez aldatzen bait dira Laterri-Buruen sentimentuak. Orduan batez ere. Baita Aureliano bezala ordurarte Elizarekin eraspentsu izan zan inperatore baten sentimentuak ere.

.EI cambio de sentimientos de un emperador podia hacer cambiar totalmente la situación en un momento, como puede verse por el hecho, garantizado por Eusebio y Lactancio, de que el mismo emperador Aureliano, hacia el fin de su reinado y por intriga de •algunos consejeros», se dejó impresionar contra los cristianos, y preparaba un edicto de persecución cuya publicación o ejecución sólo le fue impedida por la sbita muerte (Dedin).

Benetan •sithita», «ustegabekoa», militar-taldetxo baten matxinadak bait zuan, ustegabeko eriotzez, Aureliano Inperatorea.

MANIKERIA len baiño obeki ezagutua dugu Mani'ren denborako liburuak agertu zaizkigunez gero: «Alfa izkitik Tau izkiraiño Ebanjelio Aundian, •Erraldioen Liburuan, •Bizitzaren Altxorra» «Gauza Miragarrien Liburuan, lauak Mani'k berak idatziak, gure XX mende onen asieran Txina'ko Turkestan'en aurkituak.

Ejito'ren egoan ere aurkitu dira beste liburu manikear batzuk: «Kefalaia-

manitarren gogapen-bilduma; Salmo-liburu oparo bat; eta Mani'ren eskutitzan sorta ugaritsu bat.

Len ez zan orrelako liburu Tik ezagutzen. Izan ere, manikeriaren aurka irten bait ziran, Elizaz gaiñera, Erroma'ko inperatore jentillak, Bizantzio'ko inberatore kristauak, Pertsiko errege sasanitarrak, Txina'ko inperatore konfuziotarrak eta islan-lurretako kalifa maometarrak. Ta, jakina, sutan erreak eta ezereztuak izan ziran idazti manikeitar guztiak.

Ereji onen sortzaillea, Mani edo Manes, Iran'en 216'ko jorraillaren 14'ean jaio zan sendi pertsiar aundiki baten seme, orduan partziarren uriburu zan Seleuzi-Ktesifonte izeneko urian. Aita, ez aragirik jaten ez ardorik edaten ez zutenen •sekta• edo talde judu-kristau batekoa izan zuan; “Mandearra• esaten zitzaion taldekoa seguruaski. Gogortasun artan azi eta ezi zuan aitag Mani bere seme gaztea.

Laister ordea izan omen zituan semeak, berak dionez, zerutiko agerpenak. Eta agerpen aietako batean aingeru batek, mundu guztirako erlijio berri baten apostolu izateko aukeratua izan zala esan omen zion. Gero, ondorengo azalpen batzuetan erakutsi omen zion erlijio berri aren mamia.

Ez dakigu ziur aingeru irakasle ori, Mani'k egitan ikusi zuala uste izan zuan aingeru bat, ala Mani'k asmatutako elerti-irudi bat dan. II mendeko liburu apokrifoen idazle aiek bere liburuen egille lez Apostolu bat edo Apostoluen garaietako kristau ezagun baten izena ematen zuten

bezala, ereje batzuek ere aingeru baten izena eman bait zuten beren dotriñen irakasletzat. Ori egin zuan Mani'k. Eta ori egingo du mende batzuk geroago Maoma arabitarrak ere.

Mani gaztea, Indj'ra abiatu zan bere erlijio berria aldarrikatzera. Eta ez zan andik ezer ikasi gabe biurtu. Sartu zituan ba asmatu-berri zuan erlijiora Buda'ren gogoeta batzuk, len ere bere aberriko Zoroastro'ren erlijiotik eta batez ere kristautasunetik artutakoak ugari sartu zituan bezala.

Gaurko Pakistan'en egoaldean arrakasta aundia izan zuan, Belutxistan'go erregea ere bere erlijiorako irabazi bait zuan. Andik, Pertsira itzuli zan ostera. Eta err.en ere bere alde jarri zitzaion I Sapur edo Sapor •erregeen erregea- (241 -273).

Sapur'ek, erromatarrekin izandako guda aietako batean, berekin eraman zuan Mani. Aurrean III Gordian inperatorea zeukaten etsai: eta inperatorearekin, laguntzaille bezala, Plotino filosofilari platontasunberri-zalea.

Errez lortu zuan Mani'k Sapur garaillearengandik, aldi aietan pertsiarrena zan lurralde zabal osoan bere erlijioa yareki aldarrikatzeko eskubidea.

Eskubide ortaz baliatuz, Mesopotami'ko Nisibe'raifio iritxi zan, bere sinispidea irakatsiz. Eta, emendik, Ejito'rairio bidali zituan misiolariak.

Sapur'en atzetik Bahram etorri zan Pertsin errege (274-277); Errege berri au ordea, manikeriaren aurka asi zan anker. Manes bera espetxeratua izan zan, eta an il zan 277'garren urtean.

Pertsin osora zabaldu zitzaizen zigorketatik igesi, manikerizaleetatik,

batzuek, Sarkalderuntz iges-egin zuten; eta beste batzuk Indi'ra eta Txina'ra joan ziran. Itzal aundia izan zuten urrutiko lurralde auetan. XIV menderaiño iritxiko da, an, aien itzal ori; eta baita, bizirik, aien eramandako manikeri berbera ere.

Manikeria gnosikeriaren jarraipena dala, ezpairik gabe esan daitekean gauza da. Mani berak ere •gnosis salbatzaillea• erakustera bidalia izan zala bait digu.

Egia da, gogoeta ugari artu zuala Indi'ko budatasunetik, Perti's'ko zoroastrotasunetik eta batez ere kristautasunetik, kristatasunari gnosikeriak kendu zizkionetatik bereiziki, baiñan bere gunez, ordurako iltzeaz edo arras illik zegoan gnosikeriaren berbizkunde indartsu bat izan zitzaigun Mani'ren erejia.

Bere gune orren gnosikeriak zoroastrotasunetik artu zuan •astapen bikoitza- edo •duplex principium- ura da: Izadia, bi sortzailleen sorketa dala alegia.

Bi sortzaille oietatik, bat, ona da, argiaren eta izpiritu •argien- egillea. Bestea, gaiztoa, illuntasunaren, izpiritu •l lunen., gorputzen eta materi edo gorpugaiaren sortzaillea.

Biak dira betidandikoak eta, orregaitik, iñoiz-sortuak-izan-ez-diranak. Biak duintasan, indar, eta aalmen berdiñekoak. Iñoiz bien artean pakerik izan ez dezaketen bata bestearen etsaiak. Bakoitza bere jaurerrian bizi omen da: Sortzaille ona argiaren jaurerrian; Gaiztoa, illuntasunaren jaurerrian.

Jaurerri ona, iparrea omen dago; Jaurerri gaiztoa berriz egoan; arek, •Aunditasunaren Aita omen du errege; eta beste onek, Illunbeko Printzipea.

Mitologi-eran aurkezten digu Mani'ek bere teologia: Millaka ta millaka •eon• edo beste munduko izakiz beterik dagoan teologia. Eta, geiegikeri orrek oso zailla egiten du teologi orren ulerpena.

Naikoa bezaigu, teologi ortan atalik ezaugarrienak auetxek dirala jakitea:

- Argia eta Illuna, edo berdin dana, Ontasuna ta Gaiztotasuna alkarren artean borrokan dabiltz.

- ots, ontasuna, gaiztotu daiteke, •illuntasunarekin- ots, gaiztotasunarekin, nasten bada. -Illuntasun- edo gaiztotasuna ordea, beti illuna, beti gaiztoa da eta izango da. Ez daiteke, •agirtasun-, ontasun, biurtu.

Izpirituak, — gizakumeen animak adibidez — onak dira «argiaren-erreifiutik datoztelako. Gaiztoak ordea gorputzak, illuntasunaren, ots, materi edo gorpu-gaiaren erreiñukoak diralako.

- Gizakumea, izpirituz eta gorputzez egiñik dagoalako, •argitasunez», ontasunez, eta •illuntasunez-, gaiztotasunez, osoturik dagoan izakia da.

- Eta •gaiztoa- dana beñere •ona• biurtzen ez dalako, gizakumeari •salbamena- soilki •gaiztoa- duanari — gorputzari eta gorpuzkoia dan guztiari — uko egitetik datorkio, saiaketa geldikaitz orren bitartez iritxiko bait da izpiritu uts biurturik argi uts izatera.

Azken-mailla ortarako bidean, gizakumea, bere izatea argituz eta

argituz, oro argitasuna», oro •ontasuna», edo, berdin dana, zearo «izpiritukoia» izatera iritxi dedin, budazaleengandik artutako transmigrazio edo animaren eriotz-osteko gorputz-aldaketa ere bere teologira sartu zuan Mani'k.

Transmigrazio edo gorpu-aldaketa ori, Mani'rentzat, gure purgatorioaren antzeko zerbait bait zan.

Gorputzaren menpetasunetik izpiritua nola yaretu gizakumeari erakusteko lau profeta bidali omen ditu Jainko onak lurrera: Buda, Indi'rako; Zoroastro, PertsFrako; Josu, Sarkalderako; eta Mani bera, azkeneko profeta, mundu zabal guztirako.

Gizakumearen alderdi ona, izpiritua, bere alderdi gaiztotik yaretzeko, au da Mani'k eskeintzen duan •aszetika» edo «saiaketa-era»: •Iru Giltzen era: «Eskuetarako Giltza», •Agorako Giltza», eta •Sabelerako Giltza».

- Eskuetarako giltzaren bitartez, esku-lanari, ots, jopuek eta morroiek egin oi duten lanari uko egin bear dio gizakumeak. Eta baita gizakumeei, abereei, eta landareei gaitz egiteari. Indi'n ezagutu zituan budazaleak bezala, gudagintzaren etsai izan bait zitzaigun Mani.

- Agorako Giltza, gizakumearen agoa ilteko da; sekulan onek aragirik jan eta ardorik edan ez dezan..., eta sekulan gezurrik esan ez dezan.

- Sabeleko giltzak, lizunkeriarri, eta baita ezkontzari ere, uko egitea agintzen dio gizakumeari.

Aszesi edo saiaketa ori anitz gogorra dalako, bi zati egin ziran Mani'ren jarraileak: «zintzoak», aszesi ura oso-osoan betetzen zutenak; eta ura betetzeko gai ez ziranak: •entzuleak». Aurrenekoek bakarrik osotzen zuten manitarren Eliza.

A! Jerarkiz, Eliz kristauaren antzera, ederki tajututako Eliza, Mani'k asmatutako Eliz ura!

Josu, askotan eta eraspen aundiz aipatzen du Mani'k. Baiñan Mani'ren Josu ez da kristauon Josu. Jainko ere bein baiño geiagotan esaten dio. Ez ordea guk bezala.

Mani'rentzat Josu ez da Jainko On Nagusia, manikerian aski ugari aurkitu daitezkean jainkotxiki aietako bat baizik, Jainko On Nagusiak gizakumeei gnosi edo jakintza salbatzaillea erakusteko mundura bidalia.

Alatagutziz, Josu, Mani'rentzat, Jainko On Nagusi aren •zertasun berekoa» da, Aren •homoousios». Orregaitik asarretu ziran manizaleekin ori ukatzen zuten arrianistek.

Iru Josu edo Josu baten iru •izaera» aurkezten dizkigu Mani'k bere mitologian:

- Jesus Splendens», Josu dizdiratzaillea» edo Josu «Jainko. salbatzaillea. (Oroi ordea, Mani'rentzat Josu egiazko Jainkoa ez baiña jainko esana izatea merezi duan •eon» nagusia besterik ez dala).

- Jesus Josu Oiriazekorra», •oiriazetua izan daitekeana», eta au izaki guztietan, izaki oien izpiritua lez sarturik dagoan Josu omen da: Materi edo gorpugaiaren barruan •gurutzaturik» dagoana. (Ez aztu, Josu, Mani'rentzat, soilki «eon» edo •izpiritu» bat bakarrik dala). Alatagutziz, izkera orrek ez al

dizu Hegel'en Idea edo Jainko- izadian gorpuztua oroitarazten?

- Jesus Christus» Josu Kristo., giza-gorputzaren itxura artuta, Profeta lez etorri zitzaiguna, eta gurutzean itxurazko nekaldia eta itxurazko eriotza jasan zituana.

Jainkoaren Seme» ere esaten dio Josu oni, baiñan soilki Jaikoagandik sortutako, obeto esanik, Jainkoagandik •bereizitako- Jainkoaren zati bat omen dalako: •Una parte consustancial del Padre» (Dedin). (Esanik utzi genduan, gnosizale guztientzat eon edo izpiritu onak Jainkoagandik irtenak dirala).

Danadala, Jainkoaren zertasun ber-berekoa zalako, Josu Kristo'k ez zezakean, — gorputza gauza gaiztoa izanik egiazko gorputzik artu. Itxura utsezkoa izan bear zuan naitanaiez, ark artzen zuan gorputza.

Gorputz ori Miren Donearen erraietan artu zualako, izan zuan Mani'k Miren'ganako eraspena.

Ez da beraz arritzekoa kristau asko manikerira sartu izatea, batez ere gogortasunzale ziran taldeetakoak, gogorkeri latzagoa eskeintzen bait zien Mani'k.

Gaiñera, manizaleek itzei ematen zien zentzua jakiteko gai ez zan kristau arruntaren belarrietara, kristau-doiñu nabarmena zekarten manizaleen abestiek eta otoitzek.

Ikus adibidez, Ego-Ejito'n aurkitutako salmo-zati polit au:

«Atoz nigana zu, o Kristo bizia.

Atozkida, Egunen Argia.

O zu, biotzbera, atsegin-emaillea!

Zuri dagizut oi.

Izan zaitez samin-aroan nere laguntzaillea;

Zure uztarri leguna,

garbitasun osoz,

lepa-gaiñean artua bait dizut.

Aintza bedi, zuri; bedi garaitza, gure Jauna zeran orri!

Aintza, zuk aukeratutako zintzoei!

Aintza, baitare, zuri o Miren doatsua:

Eta aintza zure anima aratz argiari!»

Josu Kristo'k egaizko gnosia erakutsi omen zien bere ikasleei. Auek ordea ondatu ta okerrera-aldatu omen zuten Arek erakutsia. Orregaitik, kristatasun loitu ta illundu ori bere aurreneko garbitasunera ta argitasunera biurtzeko, Apostoluei agindurik zeukan Parak.lito edo Gogo Duena bidali omen zion Josu Kristo'k bere Elizari. Mani bera omen zan Gogo Deun ori.

Augustin Donea, orduan bizitza enaseko gazte jentilla manizale egitea izan zan manikeriak lortu zuan garaitzarik aundierna. Baiñan au raanikeritik kristautasunera igaro zanez gero, bera izan zuan etsairik aundierna ere.

Ordurako ordea, gotzaiak asiak ziran ereji ari aurka egiten.

300'garren urtean bertan, idatzi baten bidez Teonas Alexandri'koa jeiki zan rnanikeriaren aurka. Jerusalemgo Zirilo, gero. Ta Efren diakonoa, Osroene'ko Edesa'n. Eta Afraates gotzaia — nongo gotzaia ez dakigu — an Mesopotami'n bertan.

Ugari izan ziran manikeriaren aurka argitaratutako idaztiak ere. Zoritxarrez, Anatoli'n Emesa'ko Eusebio, Laodizea'ko Gorka, eta Tarso'ko Diodor gotzaiak idatzi zutena guztia, galdua dugu. Alare osorik iritxi zaizkigu Arabi'n Bostra'ko Tito gotzaiak idatzitako lau liburuak.

Baiñan esan dugun bezala, Augustin Donea izan zan manikeriari lepo egin ziona. Arrezkero, naiz an-emen manizaleen taldetxo batzuk bizirik jarraitu, manikeria ez zan Elizarentzat arerio bildurgarria gertatu.

Erroma'ko inperatoreek ere, — pertsiar zitekean oro gorroto zuan Diokleziano'k aurrena, eta kristautasuna babestearren inperatore bizantziarrek gero manikeriari egin zioten borroka latzak berak asko makaldu bait zuan ereji aren jarraillleen kopurua. Esan dugu gainera, Erroma'ren inperiolurretik landa ete, gogorki zigortuak izan zirala Mani bera eta bere jarraillleak.

Erroma'ko Aitasantuak — I Leon •Aundiak — V mendean gaitzetsi zuan manikeria.

III MENDEAREN LENEN-ERDIKO INPERATOREAK

KARAKALLA amairu urtez, 198'tik 211'ra, bere aitaren Inperatore Laguntzaille izan zan. Eta aita berak ere bere anaia, Jeta, artu zuan laguntzailletzat. Baiñan ez ziran bi anaiak ongi konpondu, naiz Julia Domna bere bi seme aien arteko pakea lortzen saiatu.

Sortu ziran Erroma'n alderdikeriak, eta agian orregaitik, inperio-lur osoan anaiarteko gudua sortu zitekealako bildurrez, bere anai ori, Jeta, eta anai orren alderdiko buruzagiak illerazi zituan Karakalla'k 212'garren urtean.

«Jeta, Julia Domna bere amaren besoetan izan zan aitoz josia, eta ama bera ere esku batean zauritua irten zan eraso artatik: •Geta fu ucciso nelle sue braccia e *essa* fu ferita a una mano• (Enc. Ital.).

Erroma'ko inperatoreen inguruko emakume geienek bezala, azken txarra izan zuan Julia Domna'k ere, gero ikusiko dugunez.

Jeta inperatore bakarra gelditu zan Karakalla, bost urte geroago, bera ere aitzoz illa izan zan arte.

Bost urte oietan, Erroma uritik urruti borrokan ibilli zan. Barbaritarren aurka Rin eta Danubio ibaien arantetan, eta partziar garailleen aurka Sortaldeko lurraldeetan.

Erroma'n, inperiolur osoaren jaurlaritzan, Julia Domna bere arriaren eskuetan laga zuan.

Lau Julia izan ziran ospetsu aldi ontan Erroma'ren edestian: Julia Domna, Septimio Sebero'ren emaztea; Julia Maesa Julia Domna'ren aizpa, Erroma'ko aundiki batekin ezkondua. Bi alaba izan zituan onek: Julia Soemias, Elogabalo inperatorearen ama, eta Julia Mammea, Alexander Sebero'ren ama.

Siritarrak ziran emakume auek, Emesa, gaur Homs, esaten zaion urikoak, bertako Baal sasijainkoaren jauretxeko jaupari nagusien sendikoak.

Bazuten, bai beintzat Julia Mammea'k erlijio-gaietarako joera. Berak eskatuta idatzi zuan Filostrato zeritzan II mende artako idazle filosofizale batek «Tiana'ko Apolonio'ren

Apolonio ori, esana dugun lez, I mendeko filosofilari pitagorizale bat izan zan. Gizon ona dirudianez, eta pitagorizale asko bezala bakartasunzale mistikoa eta biziera latzaren maitalea. Era ziurrean ez dakigu ezer asko bere bizitzari-buruz, kondairak, untzak zugaitz zarraren enborra bezala berealaxe bete bait zuan aren oroitza olertizko osto ugariz eta mardulez; ederketa ori guztia edo geiena Damis izeneko idazle ezezagun baten eginkizuna ez baldin ba'da.

Damis arek asmatuari jarraituz, pilloka eta pilloka osto, lore, ta pitxi geiagoz jantzi zuan Filostrato'k Apolonio'ren bizitza, filosofizko eleberri bat besterik ez dan bere liburuan.

Badirudi Ebangelioetako Josu euki zuala begien aurrean, eta Josu baiño gizon done jakintsu mirarigille aundiago bat asmatu nai izan zuala.

Ez dakigu, ori egitean Apolonio goratuz Josu garaituta, kristautasunari gaitz egin nai izan zion, baiñan berak sortu zuan ametsezko jainkotxiki ura izan zan gero jentillek josu ankapetzeko erabiliko zuten Profeta miresgarria. Baita filosofilari jentil jakintsuek ere. Porfirio'k adibidez. Eta Jerokles, Diokleziano'ren adiskide filosofilariak, Porfirio'ren atzetik.

Berak nai gabe Mamu ori sortarazi zuan julia Mammea orrek kristautasunaganako ere izan zuan apeta, bereala ikusiko dugunez.

Oso gaizki mintzatzen zaizkigu Karakalla'z antziña artako bi edestilari: Dion Kasio, ta Erodianus. Karakalla'ren denborakoak biak. Pizti basatia izan omen zan, eta batere errurik ez zuten alexandritarren eriotza leporatzen diote. Baita, Partzi'ko Printzesaren eta Karakalla beraren arteko eskontz-itzaren aldarrikapena ospatzeko bildu ziran partzitarren erailketa ere.

Baiñan gogoan artu bearra dugu bi edestilari aiek senatuaren alderdikoak zirala, eta Karakalla ez zala Erroma'ko aundikien adiskideegia izan.

Entzun alare Daniel Rops'en iritzia: «Caracalla par sa vanité et sa f&ocité, certainement pathologiques, rapelle les folies de Neron». Eta, «Caracalla a laisse dans l'histoire un souvenir aussi detestable que Neron, Domitien ou Commode: brut et debauché, emporte et cruel, tous ses biographes sont d'accord pour nous designer en lui un tyran».

Euskeraz: «Karakalla'k, eskierki erokeri-maillakoak izan zituan arrotasun eta ankerkeriagaitik, Neron'en zorakeriak oroiterazten dizkigu», «Neron, Domiziano eta Kommodo'k bezain oroitzua iguingarria utzi du edestian Karakalla'k: pizti zakarra ta arroa ta ankerra. Bere bizitzaz idatzi zuten guztiek, bat agintari odolzalea izan zala adierazten digute.»

Oker dabil idazle frantziar xaloa; eta oraingo ontan neurri guztiak urratu ditu. Ez daiteke Kommodo'z orrelakorik esan. Beste iruak ere zaku batean sartzea, ez ote de geiegizko ausardia?

Kristautentzat beñepein ez zan gaiztoa izan Karakalla. Alderantziz, berak ez zuan kontuan artu Septimio Sebero bere aitak Kristauen aurka eman zuan zigorrezko agindua.

«Lacte christiano educatus.», izan zala inperatore ura, esan zuan Tertuliano'k: «esne kristauaz azia». Karakalla'ren iñudea zeukan bearbada Tertuliano'k gogoan, itz oiek idatzi zituanean.

Lampridio edestilariak berriz, Karakalla'k «kristauei izamena, ots, izateko aalmena, onezagutu ziela» beintzat, idatzi zigun.

Oraingo edestilari batek berriz, beste bide batetik jotzen du, Karakalla'ren kristauekingo jardunkera ulerterazteko: «tait-ce le sang d'Orlent qui coulait dans ses veines, les conseils de sa mere Julia Domna qui expliquent son attitude? (Daniel Rops): «Bere zaiñetako odol sortaldetarra, ta julia Domna bere amaren aolkuak ote dira aren jardunkeraren zioa»?

Baleike.

Alatagutziz, Karakalla'ren pakea ez zan Elizarentzat pake osoa gertatu, Trajano'ren lege ura ez bait zuan Karakalla'k ezereztu. Orregaitik, lege aren araura kristauen zona probintzietako jaurleen eskuetan gelditzen zalako,

emen edo an, ez zitzaion peitu.

Afrika esaten zitzaion probintzian adibidez. An ospetsu egin zuan bere izena odol kristaua isuriz Skapula izeneko jaurle batek. Gogor eraso zion Tertuliano'k txit ezaguna dan eskutitz ausarta baten bidez. Eskutitz orrek unkitu ote zuan jaurle anker ura? Danadala, bertan bera gelditu zan zigorketa, eta pakean jarraituko du Afrika'ko Elizak beta luzez, mendearen erdira arte.

Esan dugunez landa, bi gauza dira Karakalla edestia-zear oroigarri biurtu zutenak: Erroma'n eraikierazi zuan baiñueta bikaiña eta, Inperio-lurreko jende yare guztia •Erroma'ko urikide—cives romanus» egiñez eman zuan legea.

Lege ori ematean, auxe beterik ez zuan gogoan euki: zergaz bildutako diruaren kopurua ugaritzea.

Kristautentzat ez zuan urikidetasunari-buruzko lege orrek ondoriorik ekarri. Kristau izate utsa Erroma'ren aurkako obena bait zan, eta urikide izan edo izan ez, oben ortara jausten zana eriotzara galtzen bait zuan •legeak».

Karakalla, Erroma'ko ia inperatore guztiak bezala, aitzoz erailla izan zan. Eraillea, bere gudarozteko gudaiburu laguntzaille bat. Erailletaren zioa, eraillea ta eraillaren arteko asarrea.

Amak, Julia Domna'k, seme orren erailletaren berri jaso zuanean, •jate orori uko egiñez, bere burua il zuan gosez, aurretik bularrean aitzo bat sartzeko ekintza uts irten zitzaionez gero-: •Se fiece morire di fame, dopo de aver tentato di trafiggersi» (Ib.).

MAKRINO Gudarozteak egin zuan inperatore. Karakalla'ren erailletan zer ikusirik izan omen zuala, esan zan orduan. Urte labur bat besterik ez zuan agintaritzan iraun-da, ez dakigu kristautasunari-buruz zer pentsatzen zuan. Pakean jarraitu zuan beintzat Elizak.

Partziarrekingo gudua amaitzeko, itun lotsagarri bat izenpetu zuan aiekin.

Asarretu zan gudaroztea. Iges joan zan Makrino Erroma'tik. Buruntza salbatzeko zerbait egin nai izan zuan iraultzalarien aurka Sortaldeko bere alderdikoan laguntzarekin, baiñan borrokan garaituak izan ziran laguntzaille aiek. Eta, bera, Makrino, atzitua; eta erailla.

ELAGABALO, — askotan oker Heliogabalo izendatua—, Julia Domna'ren aizpa izandako Julia Maesa'ren alaba Julia Soernias'sen semea zan. Au ere gudarozteak izan zan iperatoretzara jaso, azkeneko iru Julia oiek Sortaldeko lejiok aren alde ipintzea lortu zutelako.

Ortarako, emakume oiek, Karakalla'ren sasikume bezala aurkeztu zioten Elegabalo, Sortaldeko gudarozteari.

Amalau urteko mutikoa zan inperiotza artu zuanean, eta naiz Makrino'ren aldeko gudaroztearen aurka borrokan bikainki jardun, ume eroen antzera ibilli zan gero. •He imposed the worship of Baal upon the Roman world»: •Erroma'ren inperiolurretan Baal'en gurbeta ezarri zuan (Enc. Brit.). Baal ori, Itun Zarreko liburuetan ain sarri agertzen zaigun kananeatarren sasijainkoa da.

Jai garesti parregarriak ospatzen zituan Elagabalo'k bere jainko orren omenez.

Eriotzez zigortu zituan berekin bat ez zetozen gudalburuak. Eta bere serbitzurako, ta laguntzaille zekiozken, itxura politeko mutil gazteak ekarri zituan juaregira; sortaldetarrak, geienak.

Maiz ibiltzen zan lotsarik gabe neskatiilen soñekoz jantzita, eta, orregaitik, azkenean, •the boy's effeminate sexual behabaur practised openly in the palace», ots, •mutil ark jauregian zerabilkian ema-kundezko jardunkera nabarmenak» (ib) asarretu zituan erria ta gudaroztea.

Asarre orren ondorioz, amaren aldetik lengusu zuan Alexander Sebero inperatoretzan bere ondorengotzat artzera bearturik aurkitu zan. Gero ordeasmoz aldatu zualako, pretoritarrek, ots, inperatoreen jauregizaiñek, matxinadan jeikita, bizia kendu zioten. Berari eta Julia Soemias bere amari.

•Heliogabalo fue en efecto uno de los tiranos mas crueles e imbeciles que sufrió Roma (Espasa).

Kristauekin ez zuan arazorik izan, agian aiek zirikatzen asteko bere agintaritzat laburrean betarik ere izan ez zualako. Alatagutziz, kananeatarren Baal ura inperiolur guztietako Jainko Nagusi ipintzeko agertu zuan griñak ez zion noski Elizari zorion askorik itxaroteko bide geiegirik ematen.

ALEXANDER SEBERO, amalau urteko mutiko gaztea bera ere. Elagabalo il zuten pretoritarrek beraiek jaso zuten inperatore. Agintari ona izan zitzaigun kristaudentzat. Elagabalo'ren denboran Eliza pakean bizitu ba'zan ere, •la situación favorable para los cristianos se afianzó an mas con su sucesor Alejandro Severo» (Jedin. Gazteleratzaille, Ruiz Bueno).

Garai artako Neronianus edestilariak idatzi zuanez, bere amak esana besterik ez omen zuan inperatore berri onek egiten. Orregaitik, egia daiteke Jedin gaur-egungo edestilari ezagunak diona: •La atmósfera espiritual y religiosa de la corte estaba bajo el influjo de la madre del emperador, Julia Mammea, mujer de talento, a la que puede atribuirse declarada simpatía por el cristianismo, hasta el punto de que una leyenda del siglo V pudo crearla cristiana» (Id. Id).

Alexandri'n egon zan batean Origenes'i deitu zion, Julia Mammea orrek, teologilari ospetsu arekin erlijioaz mintzatzeko.

Erroma'ko Ipolito'k ere Julia Mammea oni opaldu zion bere idaztietako bat.

Kristautasunari-buruzko auzietan amaren jarraille zintzoa agertu zan Alexander Sebero. Kristau asko artu zituan bere serhitzurako, eta Julius Afrus izeneko eraikille kristau bati eman zion Erroman biblioteka berria eraikitzeke eginkizuna. -Alexander is said to have wished to include Chist amon the Roman gods» (Enc. Brit.): -Esan ere esan bait da Alexander Sebero'k Kristo Erroma'ko jainko zarren artera sartu nai izan zuala».

-La tolerancia de su politica religiosa esta acertadamente caracterizada por una frase de su bibgrafo en -Historia Augusta» en que se dice que mantuvo sus privilegios a los judios y tolerb que hubiera cristianos» (id. id.).

Pake-giro gozo orri eskerrak oparo zabaldu zan kristautasuna. Sortaldean ugari agertu dira garai artako arri-idatzi kristauak eta orduangoa da lenen jauretxe kristau, 234'aren aurretik eraikia izan zan Dura-Europus jauretxe siritarra.

Erroma'ko Urian bertan ere batere eragozpenik gabe eratu aal izan ziran illobitegi kristauak.

Inperatore lez ez zan ain gorespengarria izan Alexander Sebero'ren ekintza.

Bere agintaritzaren asieran arnasei gizoneko Bazkun bat izan zan Julia Mammea'ri laguntzeko Erroman izendatua.

Baiñan jaurlaritz ark ezin izan zuan inperio-barrungo pakerik gorde.

Erroma'n bertan, erria eta pretoritarrak alkarren artean borrokan ibilli ziran, baiñan danak alkartzen ziran ederki Jaurlaritzaren aurka jokatzeko. Probintzietan, egun apur batzuk besterik irauten ez zuten inperatoreak izendatzen ari izan ziran lejiok.

Erroma'ko matxinada batean pretoritarrek Ulpiano beren buruzagia, — eta orduan Jaurlaritzaren lendakaria Inperatorearen eta onen amaren begien aurrean erail zuten.

Jaurlaritz ark ez zan matxinoen buruzagia besterik zigortzeko gauza izan. Eta buruzagi ari eman zion zigorra ere au izan an: Ejito'ra probintzi artako jaurle bidaltzea! Baiñan bein jaurle berri ura Ejito'n, an aitzoz erailla izan zan. Atzerritarrekin ere ez zuan Alexander Sehero'k adur zuzenik izan.

Perti's'ko «erregeen errege» sasanitarrak, Partzi menderatu zuanez gero, Balkan mendietaraiñoko Sortalde ura guzia arrapatzeko asmoak agertu zituan. Ori izan bait zan ain zuzen pertsiarren betidandiko kutizia.

Asaldu zan Erroma, eta bildu zuan al izan zuan gudarozterik aundiena pertsiar aiek menderatzeko, baiñan, gudarozte ura, Alexander Sebero bera zuzendari zuala, pertsiarrek garaitua, zearo porrokatua ta txikitua izan zan.

Rin ibaiaren ertzetan berriz Alexander Sebero germaniarrengandik pakea erosi bearrean aurkitu zan.

Sumindu zan gudaroztea. Ta, Alexander Sebero eta Julia Mammea aren ama erail ondorean, beste inperatore bat aukeratu zuan: Maximino Traziarra.

MAXIMINO TRAZIARRA, gaztetan Trazi'n artzai izana eta gero lejiara sartua.

»Ce fils de Goths qui mesure deux m&res quarante, boit chaque jour ving-cinq litres de vin, brise d'un coup de pied les pattes d'un cheval et sait peine parler latin» (Daniel-Rops): •got-tarren semea, ia bi metro t'erdi — 2'40 — luze bai omen zan, egunero ogei ta bost litro ardo edaten omen zituan, ostiko batez austen omen zituan zaldien iztarrak, eta doi-doi omen zan lateraz mintzatzeko gauza.

Bere indar arrigarriari ta kemenari eskerrak, gora igo zan erraldoi ura, Alexander Sebero'ren laguntzarekin lejiorearen mailletan, eta Rin araneko gudaroztearen buruzagi izateraiño iritxi zan. An jaso zuten lejiotarrek inperatoretzara, 235'garren urtean.

Bein inperatore, •general courageux mais a vue courte», •gudalburu ausarta baiñan begi motzekoa» (Danielou), bikainki borrokatu zituan barbaritarrak, Rin eta Danubio ibaien lurraldeetan, baiñan Erroma'ko aristokraziarekin eta inperiolurreko nekazaritzaren nagusi aberatsekin asarretu zan.

Laister jeiki zitzaizkion matxinadan Afrika probintzikoak, bere zerga biltzailleak eraillez, eta, baita, laister, beste inperatore bat izendatuz ere: I Gordiano.

Egiazko inperatorea izan zan Gordian au. Erroman sena tuak, Traziarrari uko eginda inperoretzat ura onartu zualako.

I Gordiano'k bere semea, II Gordiano artu zuan inperatore laguntzaille.

Baiñan illabete baiño lenago il zan au Maximino Traziarraren aurka galdu zuan borrokan. Ori jakitean, bere burua il zuan aren aitak ere: Lenen Gordiano'k.

Elizaren zigortzaille izan genuan Maximiano Traziarra, eta ez, eginkizun oker ontan ain •begi motzekoa», kristauen artean soilki gotzaiei eta kulturaz kristauen buruzagi ziran eliztarrei eraso bait zien.

Saiatu zan otoiztegi kristauak ezerezten ere, garai artako Origenes ospetsuak dioskunez.

Ederki idatzi zuan Eusebio'k IV mendean, Maximino Traziarraren zigorketa •ez zala lenagokoak bezalakoa izan, lenagoko aiek baiño arriskitsuagoa izan zala». Eliza buruzagirik gabe uztea izan bait zuan elburu.

Inperoretzan iru urte laburrez egon zalako, eta epe labur artan guztian germaniarren eta inperio-barruan, Afrika'n adibidez, iraultzalarien aurka borrokan ibilli bear izan zualako, ez zan Elizaren zigorketa Erroma'ko uritik landa asko zabaldu. •De haberse prolongado mas el gobierno de Maximino, hubiera podido ser fatal para la iglesia. (Jedin).

Oartu zan ortaz Origenes, eta kristauen buruzagiei arnas emateko idatzi zuan bereliburuetakoa bat: •Exhortatio ad Martyrium». Euskeraz, «Martiriorako Ats-Emanez».

Eraso artan, ziñoparik garrantzitsuenak, Pontziano Erroma'ko Aitasantua eta Ipolito Erroma'ko sasiaitasantua. Biak, geroago esango dugun bezala, aldareetara jasoak: San Pontziano eta San Ipolito.

Erroma'tik urruti ere izan ziran martiriak Sortaldean, Origenes'ek dioskunez. Baiñan ez Inperatorearen aginduz, erriko jendillajearen eragiñez baizik. Ala, egun aietan Kapadozi'n lurrikara bat izan zan. Ondamen ura gertatu izatearen errua, kristauei leporatu zien jende jentillak. Ondorioa, kristau-erailketa.

Oso-osoan erromatarra ez zan inperatore kankaillu ura zergaitik asi zan eliza zigortzen? Dirudianez, kankaillukeri utsez.

238'garren urtean izan zan erailla.

Laister Eusebio'k, onako arrazoi txepel bikoitz au emango digu, kankaillu aren jardunkeraren zioak agertzeko: Bere aurreko inperatorea, Alexander Sebero, kristauen adiskide izan zala. Kristau asko aurkitu zuala Inperatoreen Jauregian, inperatoreen serbitzurako Alexander Sebero'k sartuak.

PUPIENO, BALBINO, III GRAZIANO. Maximin Traziarra erailla izan zanean, erriaren eta pretoritarren eragiñez, senatuak bi senatore zar aukeratu zituan inperatore 238'garren urtean: Pupien eta Balbin. Biak ordea urte ortan bertan izan ziran eta, orduan, aiek aurretik inperatore laguntzaille artu zuten III Gordian, I Gordian aren billoba, gelditu zan inperatore soilla.

FELIPE ARABIARRA. Jatorriz arabiarra, Erroma'ko Urian jaurle zan, -bere onspen edo bere onspenik gabe- III Gordian erailla izan zanean: -With or without Philip's connivance• (Enc. Brit.).

Erailketa aren ondorean, berak jantzi zuan inperatoreen buruntza (244).

Inperatore yayoa gertatu zan. Amaitu zuan Pertsirekingo gudua, eta bizkor ekin zien got-tarrei eta Rin ibaia erasotzen zuten beste barbaritarrei.

Maiz aurpegi eman bear izan zien, bata bestearen atzetik probintzietan aurka jeiki zitzaizkion guda buruei. Baiñan azkenean aietako bat, gudarozte-zati batek inperatore altzatak Dezio, garaille irten zitzaion, eta arekin borrokan galdu zuan Ferlope'k bizia, eta biziarekin inperatoreen aulkia. 249'garren urtea zan.

-Christian writers of the 4th and later centuries regarded Philip as

christian or at least as a patron of the christians»: •Felipe kristaua izan zala, edo kristauen babesle beintzat izan zala, uste izan zuten IV'go eta IV mendearen ondorengo idazie kristauak» (Ib).

Eta... Filipe kristaua izan zala egia izatea badaiteke. IV mendeko idazleek, III mendearen erdian il zan Felipe'rengandik aski bertan bait zeuden egia jakin aal izateko. Idazle auek gaiñera, III mendean jaiok ditugu batzuk.

Bat datoz idazle oiekin gaurko edestilarien artean asko. Orrela, adibidez, Danielou. Eusebio'k idatzi ziguanez Origenes'ekin eskutitzen bidez adiskidetasunak izan zituan Felipe seguruaski kristaua izan zala» bait dio: •Vraisemblablement ete chretien».

Felipe arabiarren eriotzarekin bukatu zan Elizaren pake-aroa. Ez zan aro ura, ikusi aal izan dugun bezala pake osozko aroa izan, lege jarraitzen bait zuan Trajano'k emandako erabaki anker arek: •Ez asi kristau-eizean, baiña norbait kristautzat salatua ba'da, eta salatutako orrek kristautasunik ukatzen ez ba'du, bedi eriotzez zigortua».

Orregaitik, urietako jendillajearen matxinadak zirala, urikideen arteko bekaizkeria zala, edo probintzietako jaurleen apetak zirala, gaur emen, biar an, ugari gertatu ziran II mendean eta baita III mendearen lenengo erdian kristau-zigorketak, eta ez zitzaion Elizari ziñopa ugaririk peitu.

Adibidez, Felipe Arabiarren agintaritzakoan bertan ere izan bait zan kristau-erailketa gogor bat Alexandri'n! •Baiñan probintzietan piztutzen ziran matxinada aietako baten ondorioz. Ez, inperatorearen erruz»: •Mais elle releve d'un de ces progrons locaux qui n'ont rien a voir avec la politique imperiale» (Id.).

Orain, Dezio inperatore berriarekin, Elizak jasan izan duan zigorrallirik gogorrenetako batera sartzera goaz.

Aurretik ordea ikus dezagun nola zegoan •Kepa Deunaren Ontzia ekaitz eriogarri aren bezperan.

ELIZAREN TEOLOGI-ESKOLAK

Katekesi-Eskolak esan oi zaie Elizaren edestian, beren sorrera katekumenoei dotriña erakusteko egin oi ziran billeretatik izan zutelako. Eta gero ere elbururik nagusiena Eliz-barrengo eta Elizatik kanpoko jendeari kristautasuna erakustea izan zutelako.

Aurren-aurreneko urteetako katekesia laister gelditu zan urriegia, Elizaren barrura jende ikasiak sartzan ezkeru, eta II mendean filosofoz jentillek filosofoaren aldetik, eta erejeek dogmen alorretik, kristautasunari gudu egiten asi ziran ezkeru.

Eskola itzak ez du, auzi ontan, jende arruntak ematen dion zentzua.

•Eskola aiek ez ziran ikastolak, ikasle-biltokiak. Kristautasuna argitu, sakondu, eta babestu nai zuten teologiarren taldeak ziran bereiziki, naiz, teologiar aiek, idazkiz kristaudi osoari mintzatzeaz gainera, beren ingurura biltzen ziran ikasleei agoz ere erakusten saiatu.

Eskolik garrantzitsuenak, jakina, uri aundietan eta jakintsuenetan sortu zitzaizkigun, eta orduan uri aundi ugariak Sarkaldean ez baiña Sorkaldean zeudelako, Sorkaldean jaiok ditugu antzinate artako eskolik bikaiñenak.

Pompeyo'k eta Julio Zesar'ek lurralde aiek artu zituztenez gero, Sortaldea zan Erroma'ren zatirik jendetsuena, aberatsena eta jakintsuena.

Ia-ia esan ere esan daiteke Inperioa Sortaldea zala. Eta ala izan zan erdiaro osoan, bai V mendean Erroma'ko uria eta Sarkalde barbaritarren eskuetara jausi aurretik, eta, nola ez?, baita Erroma'ko uria eta Sarkalde osoa aien eskuetara jausi ziran ezkeru ere.

Kristautasuna bera sortaldetarra izan zan aldi luzez, elenera izan zuan izkuntza, eta izkuntza ortan daude idatziak, Mateo'ren ebangelioa izan ezik, Itun Berriko Liburu Doneak.

Elizatik at ere, Erroman bertan Elenera zan jende dotorearen izkuntza txukuna. Bai beintzat beren buruak jakintsutzat zeuzkaten aiena.

Sortaldean, bi ziran uririk aundienak, aberatsenak, jakintsuenak..., eta kristauenak: Ejito'ko Alexandri eta Siri'ko Antioki. Eta oiekin batera, Osroene'ko Edesa. Ez da arritzekoa Eskolik ospetsuenak uri oietan sortuak izatea.

ALEXANDRYKO ESKOLA. Alexandri zan, agian Antioki'z gero, Errornaren atzetik inperioko uririk aundiena. Eta, Erroma beraren aurretik bearbada, uririk jakintsuena. Ospetsua izan zan bertako biblioteka. VII mendean arabitarrek sutan erre zuten liburutegia.

Aundia zan Alexandri'n jentillen artean filosofirako leia ta erlijio auzietarako zaletasuna.

Lore-lorean zegoan judutarren jakintza. Ugari ziran an judutarrak: bai, uriaren bosturden bat. An egin zan Bibliaren elenerazko itzulpena:

«Iruroitaamarren Itzulpena.. Angoa zan, eta judutarra, Filon, I mendeko filosofilaririk aundienetako bat. Platontasuna aurrena eta gero platontasun berria izan ziran Alexanddiko filosofi-keratik zabalduenak, eta arras zabaldurik zegoan gnosikeria ere.

Goiz iritxi zan ar. kristautasuna. Ta, uri jakintsu artan, kristau egin ziran alexandritar jentil buru-landuak beren sinispide berriaren arrazoi eman bearrean aurkitu ziran adiskide, lagun, eta aide jentillen aurrean.

Alare ez dirudi II mendearen azkena arte, kristau-filosofizko eskola bat an sortu zanik. I80'ean iriki zuan aurrenekoa Sizill'tik etorritako filosofilari batek. Panteno zuan izena. Estoitarra izan zan; kristau biurtu zan; eta arrezkero, bere fedea filosofiaren argira Alexandri'ko jakintsuei erakustea izan zuan bere lei guzia.

Bi irakasle aundi etorri ziran Panteno'ren atzetik: Klemente, eta Origenes.

KLEMENTE ALEXANDRITARRA, esan oi zaio, baina jaiotzez atenatarra izan zala dirudi. Jentillen seme, kristau biurtu zan, eta jakintza-miñez ibillaldi batzuk egin ondorean Alexandri'n gelditu zan Panteno'ri laguntzen, eta gero, berak artu zuan Eskola aren zuzendaritza, dirudianez beintzat, bai bait dira Klemente, Panteno'rekin alkartu gabe, beti bere kasa ibilli zala esaten dutenak.

•Hombre de una erudición pasmosa, a juzgar por los escritos que nos ha dejado, debe ser considerado como el iniciador del sistema científico en la teología» (Llorca).

Alatagutziz, Teologilari baiño geiago, gogo-zuzendari izan zan Alexandri'ko Klemente. Orregaitik, arrazoi du Jedin'ek: «La teología propiamente especulativa no recibe de él impulso esencial alguno; pero él es el primer teorizante de gran estilo de la aspiración cristiana a la perfección».

Bere asmoa, Grezi'ko filosofi zarra kristau biurtzea izan zuan, eta gero filosofi orren bidez, kristautasuna jentillentzat ulerterrezagoa eta sendoagoa eta guragarriagoa egitea, danak Elizara erakartzeko.

Asko idatzi zuan, baiñan iru liburu bakarrik iritxi zaizkigu, idatzi zuanetik. Aurrenekoa, «Protreptiques», apologi bat da. Bigarrena, «Pedagogos», aszetika-idatzi dotorea, eta irugarrena, «Stromata», erlijioari dagozkion gaietaz eratutako «saski-naski» bat.

Orduago idazle geienei gertatu zitzaizen bezala, jakintsu aundi onen izkera ere teologiari-buruzko auzietan ez da bein edo bein, bear bezain aratza. Ala ere esker on anitz zor diogu Alexandri'ko Klemente bereterrari.

•C'est un homme atachant que C,lément d'Alexandrie, un coeur tres large, un sprit d'une gigantesque culture, une intelligence merveilleusement accueillante, que son entusiasme pour la doctrine &angdique n'emp'eche pas de s'ouvrir il tout»:

•Gizon unkiarra ta biotz aundikoa, Alexandri'ko Klemente; adimen zabal miresgarria, berea. Ebangelioaren dotriñaganako leiak ez zion jakintza orori adi jarraitzerik eragozi» (Daniel-Rops).

Septimio Sebero'ren jazargoan, 202'garren urtean-edo, Kapadozi'ra iges egin zuan, eta an il zan 215'ren inguruan.

ORIGENES, III mendeko idazlerik bikaiñena eta oparoena. Asko eta asko eta asko idatzi omen zuan. 6.000 liburu, Salamina'ko Epifanio'k «Erejen Aurka. izeneko idaztitan dionez; 2.000, Eusebio zesareatarak, galdurik dugun •Panfilo Donearen Bizitzan esaten omen zuan. Jeronimo Doneak damaigun albistea da, azkeneko zenbakiei dagozkion ori.

Zenbaki larriegiak dira noski millaka oiek danak. Altaguztiz, Donejeronimo'k berak, Paula'ri idatzitako eskutitzean, Origenes'en 800 liburu aipatzen ditu.

Danadala, antziñate guzia egon zan arrituta, Origenes'ek, ainbeste nola idatzi aal izan zuan ezin aditurik.

Bazuan Origenes'ek adiskide aberats bat: Ambrosio. Ba, adiskide orrek zazpi takrigafilari eman omen zizkion, eta zazpiak batera eukitzen omen zituan Origenes'ek lanean, bakoitza liburu ezberdin bat idazten. Eta, txandaka, zazpiei batera ematen omen zien abotsez, bakoitzak zer idatzi. Eusebio zesareatarak eman zizkigun berriak dira.

•La obra del mas grande de los maestros alejandrinos y del mas importante de los teólogos del cristianismo oriental ha tenido mala estrella. (Dedin). Egia. 553'an Kostantinopla'ko Kontzilioak gaitzetsi omen zitualako, aren liburuak ezereztuak izan bait ziran geienak.

Oso gutxi iritzi zaigu Origenes'ek idatzitako asko-eta-asko artatik. Eta geiena, ia dana, lateraz. Ez eleneraz, ark bere liburu guztiak idatzi zituan lez.

Sendi kristau zintzoaren seme, Ejito'ko Alexandri'n jaio zan 185'garren urtearen inguruan, eta kultur-gai oroz ederki ezia izan zan. Batez ere benetako kristau izaten erakutsi zitzaion sendi bikain aren altzoan.

Leonidas, bere aita, martiri erailla izan zan Septimio Sebero'ren zigorraldian. Eta etxeko ontasun guztiak ere zigortzailleek eramane zituztelako, sendia aurrera ateratzeko gramatika-ta erakusten asi bear izan zuan anai zarrena zan Ongenés gazteak.

16 urte zituan orduan. Alare aundia izan zan lortu zuan arrakasta, alakoa bait zan ordurako, mutil gazte aren adimen argitsua.

Ez zituan berriz 20 besterik, Demetrio Alexandri'ko gotzaiak, — gero ainzuzen etsairik gogorrena izango duan Demetriogotzaiak Alexandri'ko Eskola ospetsuaren zuzendari izendatu zuanean.

Eginkizun arek, filosofilan jentillekin alkarrizketara sartzea eskatzen ziolako, bere filosofi-jakintza sakontzeko, platontasun berriaren irasleetako bat bezala agurtua izan dan Ammonio Sakas filosofilari ospetsua artu zuan

irakasle.

Arrakasta aundia lortu zuan, Origenes zuzendari berriaren itzalpean, Alexanciri'ko Eskolak, zuzendari berri aren -jakintzak **omen** zituan ba -aren bizierak- ikasleen adimen-biotzak, Eusebio'k idatzi zuanez.

Orduan, Eraklas izeneko adiskide bat artu zuan laguntzaille. Onen eskuetan utzi zuan, Logika, Fisika, Matematika eta Izarritziaren irakasketa; eta Filosofia, Teologia, eta Bibliztia artu zituan beretzat.

Orain laguntzaille artzen duan Eralclas au ere, aurka irtengo zaio gero.

Santua izan zan beti, bai orixe, Origenes'en bizitza. Baita «santuegia-ere. Santutasunak berak ere, neurriak bai bait ditu. Ala, -en un arrebatu de ascetismo, Origenes, deseando librase de todas las tentaciones de la carne, se hizo castrar• (Llorca).

Alatagutziz, Origenes ez zan besteekin beintzat, aszetika gogorregien adiskide izan. -Su ascetismo sin embargo, aunque austero fue en general equilibrado (GER).

212'an, Erroma'ra etorri zitzaigun, -antziña-antziñako Eliz au ezagutu naiez- (Eusebio).

Iru urte geroago, (215), Arabi'ra joana zan, ango Jaurleak, •erlijio gaietaz ain gizon jakintsu onekin itzegiteko- deituta (Id).

Andik urte betera, (216), Karakalla inperatore zala, Alexandri'n izandako zalapartetatik igesi, eta batez ere inperatore ark Alexandri'ko ikastolei gogor eraso zielako, Palestina'ra iges egin zuan Origenes'ek, eta an Jaikoaren doairik aundiena lez izan zan gotzaiek onartua.

Origenes, naiz ordenarik artu gabeko kristau arrunta izan, gotzaiei sermoiketan zebillela-ta, asarretu zan aren gotzaia, Demetrio Alexandri'koa.

Origenes, burua makurtuta Alexandri'ra itzuli zan.

221. Demetrio bera izango da oraingoan Origenes Grezi'ko Elizetara bidaliko duana an erejeen aurka jardun zedin.

Ibillaldi ontan piztu zan Origenes'en aurka lenengo sugalda sortu bear zuan txinparta.

Izan ere, Palestina'tik igarotzerakoan apaiz sagaratu zuten Zesarea'n bertako Tokisto gotzaiak eta Alexander Jerusalem'goak, sekularra izatea aitzakitizat artuz inork sermoiketarik galerazi ez zekion.

Origenes ordea zikiratua zan, eta orduango kanon-legeak, Alexandri'n beintzat, zikiratuei apaiz izatea galerazten zien.

Ona jarri zan Demetrio Alexandri'ko gotzaia! Sinodo bat bildu, ta, aurrena, eskomikatu egin zuan apaiz zikiratu ura (230), eta urrengo urtean (231) apaizgoz erantzita sekularren maillara jetxi.

Gertakizun ark ez zuan orrelako iskamillik merezi. Alexandri'koa bezain gotzai ziran Origenes apaiz egin zuten Zesarea'ko eta Jerusalem'go gotzaiak, eta azkeneko au Alexandri'koa bezain ospetsua, geiago ez ba'zan.

Zikiratuak apaiztu edo ez apaiztu, toki artako kanon-legeari zegokion ataltxo bat besterikez zan. Errez atondu zitekeana, Demetrio beste bi aiekin alkarrizketan asi

Bañan, beste sustrai bat ere bazuan Demetrio'ren jardunkera zakar arek: motivo mas profundo fue la imposibilidad por parte de Demetrio de tener a su lado un hombre del prestigio y talla de Origenes» (Dedin).

•**

Demetrio Erakleas izan zan Alexandri'ko gotzai izendatua, Origenes'ek Katekesi-Eskolan bere lagun egin zuan ura bera. Orain, antziñako lagun ark, Alexandri'ko gotzaigo artu bezain laister bir-eskomikatu zuan antziñako bere lagun bikain ura.

Ez zuan ekintza orrek Origenes'entzat ondoriorik izan. Alexandri'ko gotzaiak bere Elizatik jaurtitzen bazuan, pozez zoraturik artzen bait zuten beren Elizetan Palestina'ko gotzaiek.

Zesarea'n jarri zan bizitzen, eta an aritu zan lanean 20 urtez. Berealaxe, iriki zuan Palestina eta Siri'ko gotzaien atsegingarri, Teologi-Eskola bizkor bat Zesarea'n bertan.

Beste elizgizon argitsu ugariren artean Origenes'en ikasle izan ziran Alexandri'ko Dionisio Done •Aundia» eta Donegregorio •Taumaturgo» edo •Mirarigillea». Origenes'ekin arreman estuan ari izan zan beti orduango beste jakintsu ospetsu bat: 240'ean il zan Sextus Julius Africanus, •Cronica Mundi» liburuaren, — era ortako lenen liburu kristauaren — egillea.

Baiñan ez zan Origenes, irakaskintzan eta idazkintzan bakarrik aritu bere egoitza berrian. Ongi saritu zien lurralde aietako gotzaiei, aiengadik jasotako onespina. -La inteligencia con que se le trató en su nuevo campo de trabajo, la pagó el regimiento, pues al margen de su actividad docente propiamente dicha, se puso también al servicio inmediato de la vida de la Iglesia, ora por medio de una predicación incansable, ora por las públicas discusiones sobre problemas teológicos, que lo llevaron reiteradamente hasta Arabia» (Dedin)

232'an Antioki'ra joan zan Julia Mammea Alexander Sebero inperatorearen amak deituta. 244'ean berriz, Arabi'n dugu berriro ereje monarkitarrekin eztabaidan. Garaitza aundia lortu zuan emen Berilo Bostra'ko gotzai monarkitarra Elizaren altzora erakartzean.

Dezio inperatorearen jazarpenak moztu zituan gizon miragarri onen langintza... eta bizitza. Martiri il zan Origenes. Ezpairik gabe esan daitekean gauza, martiri il zalako ori. Espetxean jasandako oiñazeketa ugari eta ikaragarrien ondorioz il bait zan.

•En 250 il est arrêté dans la prison de Dèce, et plusieurs reprises, cruellement torturé: on ne veut pas le mettre à mort, mais obtenir de lui une apostasie dont le retentissement serait considérable, car il est le chrétien le plus célèbre du temps. Il confesse fermement sa foi puis est mis

en liberte a la mort du tyran, la sante brisee- (Catholicisme).

-250'ean, Dezio'ren zigorraldian baitua eta bein da berriro ankerki oiñazetua izan zan, bere eriotza ez baiña bere apostasi edo fedeari ukoegitea bait zan billatzen zana, bera garai artako kristaurik ospetsuena zalako, arrakasta aundikoa izango zan ba aren ukogintza ori. Origenes'ek ordea irmo aitortu zuan bere sinispena, Dezio jazarle zipotza illik, osasuna galduta yaretua izan zan arte-.

•En la persecución de Decio le fue dado coronar su fe y su fidelidad a la Iglesia con una valiente confesión de la fe. Encarcelado y terriblemente torturado, murió luego, de resultas, en Tiro, hacia el fin de su septima decada de la vida-, diosku Jedin edestilari izentsuak.

...

Apaiz bikain au, — Origenes erejtzat artua izan da gero, naiz berak bein baiño geiagotan Elizaren sinispidean bizi eta il nai zuala esan eta bir-esan.

Erejtzat, zergaitik?.

- Origenes bide berriak irikitzen ibilli zalako, eta bide berri oietan aurkitzen zuana emateko itzak ere billatu bearrean aurkitu zalako. Orregaitik zan aren teologigintza •gimnastikos• •par maniêre d'exercice-, •saiaketa-eran- eta ez •dogrnatikos-, •par mani&e de doctrine-, •irakasketa-eran egiña (ib.).

- Gero, arek sortu zituan itzak, erejeen izkeran zentzu berri bat artu zutelako. Batez ere, IV mendean Ejito ta Palestina'ko lekaideek, Origenes'en liburuetatik esaldi sorta bat artuz Origenes'en teologia ez zan «origenismusedo •origeneskeri- izeneko teologi berri bat eratu zutelako.

- Geroago oraindik, ereje oien aurkako Kontzilioetaz gero, bereiziki Nizea eta Kostantinopla'ko Kontzilioetaz gero, teologian bertan ere lengo itz askok zentzuz aldatu zutelako.

- Gaitzetsiak, Origenes ez baiña Origenes'en esaldi batzuk izanik, esaldi oiek Origenes'en beste liburuetan zuten zentzua aztertu gabe gaitzetsiak izan ziralako. •Ils n'ont fait aucune etude systematique de son oeuvre et ont fonde leurs acusations sur des textes separes sans les expliquer par ce qui se trouve (Ib.). •Azterketa orokor bat egiteke, esaldi bakanetan, esaldi oiek beste tokietan duten zentzua gogoan artu gabe, oiñarritu zituzten beren gaitzespenak- (Ib.).

- Gaitzespenik garrantzitsuena, Kostantinopla'ko V Kontzilio Ekumenetarraren gaitzespena, Kontzilioarena ez baiña I Justiniano inperatorearena izan zan, VI mendeko lekaideek, IV mendeko beste aien zarata bera bir-piztu zuten ba Palestina'n, origeneskeriari indar berri emanez.

Ondorioz, 553'an Justiniano'k Origenes'en aurka gaitzespen batzuk aurkezten dizkie Kontzilioan bildurik zeuden •Aitei-. Gaitzespen oiek ordea

ez dira agertzen V Kontzilio Ekumenetar aren dokumentuetan. Ez dira beraz Kontzilioarenak. Gero, Kontzilio ura amaituta Bigil Aitasantuak onartutako Kontzilio aren dokumentuetan ere ez da Origenes'en aurkako gaitzespenik agertzen. Ezta origeneskeriaren aurkakorik ere.

Munduaren sorkuntzari-buruzkoa da Origenes'en teologian atalik oiz-besteckoena:

- Jainkoak egin du izate-duan guztia. Ori ziur aitortzen du bein da berriro Origenes'ek.

-Jainkoak beste ororen aurretik, •adimenak» egin omen zituan. •Adimen» oiei •soma ethereos» edo •aizezko soin» bat eman zien. Adimen oiek zoriontsu bizi ziran Jainkoaren aurpegiaren argitan, Edertasun ari begira, Edertasun ura maitatuz.

- Adimen aiek ordea, noizbait, oztu egin ziran maitasun artan. Ori izan zan adimen aien pekatua, eta pekatu orren ondorioz, Jainkoak izpiritu biurtu zituan.

- Iru izpiritu mota irten ziran pekatu aren ondorioz, •adimen• aien artean batzuek eta besteek, —eta besteek egindako pekatuaren astuntasunari zegokionez: Aingeruak, giza-animak, eta deabruak.

- Orduan egin zuan Jainkoak ludia, eta ludi ontara ekartzen ditu giza-animak, bakoitzari gorputz bat emanez.

- Gure animak, baita Kristo'ren anima ere, len, beste mundu batean, animen munduan, bizituak bait dira.

Errez ikusi dezakezu, Origenes'en oldozkera ortan, platontasunaren aztama nabarmena.

•Baitian animen, jaio-aurretik-izate ori, ez daiteke erejitzat artu, Elizak ez bait zuan orduan animaren sorketari-buruz erakuspen tinkorik eman»: •La preexistence ne pouvait etre dite heretique, car l'Église n'avait alors auquen enseignement ferme sur l'origine de hormis sa creation par Dieu» (Catholicisme). •Anima oro Jainkoak egiña dala izan ezik»: •Hormis sa creation par Dieu». Ori, argi-argi aitortzen zuan Origenes'ek.

Ta munduaren azkena? •Apokatastases• edo astapen-unera itzultze bat izanen da Origenes'en ustez izadiaren •eskaton» edo azken-unea, aria Korintotarrei Paul Doneak egin zien lenen epistola'ko xv ataletik artuz.

Izadiaren aste-unera itzultze edo apokatastasis ortan, mundu guziaz itzuliko dala astapenean izan zuan araztasunera, uste izan zuala dirudi gure Origenes'ek. Eta, garbikuntza orokor orren ondorioz, azkenean, inpernura galdutako gizakumeak eta baita deabruak berak ere salbatuko dirala.

•Dirudi». Askok esan bait dute Origenes'ek ori ziur sinisten zuala. Eta, ori, ez da egia:

•On ne peut pas demontrer le caractere heretique de l'apocatastase ou restauration de la fin des temps, telle qu'on peut la comprendre a partir de tous les textes d'Origene qui en parlent» (Ib): •Origenes'en apokatastasi, edo ororen salbamena ez daiteke erejitzat salatu, ortaz itzegiten duten bere idazti guztiak gogoan artzen ba'dira».

•Elle n'est pas pantheistique et, s'il paraît par fois affirmer *le salut* démon et des damnés, il le refuse explicitement dans la «Lettre a des amis d'Alexandrie» et dans plusieurs autres passages (ib.).

•Ez da orojaikotiarra, eta batzuetan deabruaren eta inpernura galdutako guztien azken-salbamena erakusten duala ba'dirudi ere, ori, «Alexandri'ko Nere Adiskideei Gutuna» deritzan idatzian eta beste idazti askotan argi-argi ukatzen duan gauza da-

Origenes'ek idatzitako liburu-pillo galant artatik, aipa ditzagun garrantzitsuenak:

- «Hexapla» edo «Seikioia». Beste edozer gauza baiño geiago, jakintsu lez, biblilari izan zitzaigun Origenes, eta, «Hexapla» au bezala, bibliari-buruzkoak dira idatzi zituan libururik geienak.

Au danetan garrantzitsuenak. Bata bestearen alboan, ordurarte egindako, Bibliaren, sei argitalpen damaizkigu liburu ontan: Eberkerazkoa; ori bera elenerazko izkiz idatzia, eberkerazko izkien zentzua tinkotzeko. Eta lau itzulpen «LXX»ek eratua, Akila'ko juduena, Simrnako'rena eta Teodozion'ek egiña.

Iru zentzu omen ditu Bibliak, Origenes'ek uste zuanez: «soma», «psije» «pneuma-zentzuak. Itzez-itzezkoa, aurrenekoa; «itz oiengandiko moralitateari dagokion», bigarrena; eta mistikoa irugarrena, ots, «anima jainkoari begira jarri dezakeana», eta azkeneko au omen da Jainkoaganako maitasunaren gaillurrera jaso gaitzazkeana.

- «Zeltso'ren Aurka» izeneko idatzia, apologi bat dugu. «La mas grande apologia de la Iglesia primitiva. Su defensa del cristianismo resulta atractiva por el talento humano y religioso del alejandrino» (GER).

- «De Principibus», «Oitiardetaz», teologi-liburua da. Au dugu, Elizaren edestian, kristau-teologi osoa osoki jakintza-eraz aurkezten duan lenengo liburua. Irutasunaz ari dalarik, Aitari «Autotheos» esaten dio «Berejainko» eta Semeari «Deuterotheos», .Bigarrenjainko.., Aita'rengandik datorrelako. Alatagutziz, Irutasuna jainko bat bakarra dala askotan aitortzen bait du, alde ortatik ez dio iñork Origenes'i erasorik egin. Bai ordea subordinaziokeri edo menpekotasunkeriaren aldetik, Semea Aitaren mendeko egiten duala esanez.

Origenes'en alde irten ziran, bere ikasle izandako Donegregorio Mirarigillea eta Doneatanasio. Origenes ez omen zan sekulan menpekotasunkeriaren aldekoa izan, biek dioskutenez. Badirudi ordea Irutasuneko Pertsonetaz mintzatzen danean Persona oien artean maillaketa edo jerarki bat ipiñi nai duala, ori ere, itz beraiek orduan eta gaur zentzu ezberdin bat izatearen ondorio ez ba'dugu!

Liburu ontan zabaltzen du izadiaren sorkuntzari eta azken-uneko Apokatastasis ura; askok, batez ere Palestina'ko eta Ejito'ko lekaide

«origeneskeriaren» sortzaille aiek, ain oker ulertu zuten aburua.

Merezimendurik aundienekoa da •De Principiis» izeneko liburu au. Ederki dio GER opusdeitararak: .El mérito de ser la primera sintesis dogmica palla algunos defectos formales inevitables en un primer ensayo».

Buka dezagun idazle aundi aren azalpen au, «Catholicisme» iztegiaren esaldi auek oroituz:

«Quand on etudie Origene dans tout ce qui reste de son oeuvre, avec la preoccupation d'eclairer ses affirmations les unes par les autres, on perçoit combien sont souvent peu justifiées les theses que lui ont prété l'origenisme et l'antiorigenisme posterieurs. C'est alors seulement qu'il prend sa vraie stature, celle d'un geant de la theologie, le seul de l'eglise ancienne qu'on puisse comparer a Agustin eta Thomas d'Aquin»:

Berak idatzitakotik iritxi zaizkigun zatien bitartez eta zati oiek batzuek besteen bidez argituz, Origenes ezagutzen danean, errez ikusten da zeñien okerrak diran bere ondorengo origeneskeriak, eta origeneskeriaren etsaiek, maiz erantsi oi dizkieten aburuak. Orduan agertzen zaigu Origenes bere aunditasun osoan, teologiaren arloan egiazko erraldoia, Eliza zarrean Agustin'ekin eta Tomas Akinatarrarekin kidatu daitekean bakarra».

ANTIOKIXO ESKOLA ez zan iritxi III mendean Alexandoekoaren maillara. Mende orren erdialdera, ospe aundikoa izan zan an bereter bat: Malkion 268'an Pablo Samosatkoa'ren okerrak sinodo batean azalduta, aren gaitzespena lortu zuana.

Aipa dezagun Luziano izeneko beste bereter bat, bibliztian lan aundiak egiña, batez ere LXX eraturako itzulpena orraztuz eta obeagotuz.

Arrakasta aundia izan zuan, berak argitaraturako bibli orraztu onek, baiña, Luziano'k biblia itzez-itzen artzen zualako mendekeritasunera erori zan azkenean, Semea, Irutasunaren altzoan Aitaren mendeko egiñez, eta bien mendeko berriz Gogo Donea, orrela Arrio'ri bide erreza gertutuz.

Ainzuzen orduantxe, IV eta V mendeaz gero, Arrio'rekin Irutasunari eta Kristo'ren nortasunari-buruzko arazoak asi ziranean igo zan ikusiko dugun lez bere gaillurrera Antioki'ko Eskola.

ZESAREA'KO ESKOLA, Origenes'en lana izan zan, eta, orregaitik, Alexanddokoaren adar bat bezala ikusia izan oi da. •Al tener que escapar de Alejandria el año 231, retiróse Origenes a Zesarea de Palestina donde con su espíritu ardoroso, su genio científico y capacidad inconcebible de trabajo, organizó una escuela que elevó el mismo a gran prosperidad» (Llorca).

Ez ziran nolanaikoak izan, eskola artan, Origenes'en ikasleak. Aien

artean, adibidez, an bertan kristau egin zan Donegregorio Taumaturgo edo Mirarigillea Ponto'ko probintzian Neozesarea'ko Gotzaia. Eskola artako ikasleak izan ziran baitare, gero Anatoli'ren erdian Kapadozi kristau-jakintza-leku biurtuko duten, eta orregaitik Kapadoziarrak- esan oi zaien iru Done ospetsu: Basilio -Aundia» ta Gregorio Nisatarra, anaiak biak, eta Gregorio Naziantzetarra.

Alare ez dirudi iru eliz-gizon bikain auek, naiz ain jakintsuak izan, Kapadozi'n Zesarea'koaren antzeko eskolarik irasi zutenik.

EDESA'KO ESKOLA, bi gizonek jaso zuten bere erpiñera, eta garrantzi aundia izan zuan Sortalde guztiko kristaudian. Gizon oiek Afraates •Lekaide Jakintsua» eta Efren Donea izan zitzaizkigun. Ori ordea IV mendean gertatu zalako, orduan aztertuko dugu jakintza-labe osroendar artako lana.

..**

SARKALDEKO IDAZLE KRISTAUAK. Latera edo latīña berandu sartu zan elizaren elerti edo literaturara. Lenen mendean, kristau guztiak, edo beintzat ia danak, sortaldetarrak ziran. Baita Erroma'n bertan ere: Sortaldetik inperio-lurreko uri nagusira etorritako, edo, jopuak bezala, ekarrিতako jendeak.

Eta Mazedoni'ko Alexander Aundiak Krist'aurreko IV mendean Sortaldea menderatuz gero Sortalde guztiko izkuntza elenera zalako, eleneraz egiten zan Erroman bertan liturgi guzia.

II mendearen erdia igarota agertzen zaigu lateraz lendabiziko kristau idaztia: I Klemente Aitasantuaren lenengo epistolaren itzulpen bat. Ura izan zan •latera kristauaren» sorkuntzan aurreneko urratsa. Latera ori ez zan Erroma'ko elertilarien latera txukuna; beste erabatekoa baizik. Ikus izkera aren bereiztasunik nabarmenak:

- Bee-maillako erri xeak erabiltzen zuan lateran oiriarritia zegoan, mailla ortakoak bait ziran orduango kristaurik geien-geienak. Orregaitik, beste toki batean aztertu genduan Munizio Felis'en apologi dotore txukuna, ez daiteke eliz-lateraren adigarritzat artu.

Lateraz sasijainkokeriaren usaia zezaketen itz guztiak utzi eta aien orde z elenerazko itzak, ugari, artu zituan.

- Kristau-gogoetak jazteko, zentzu berria eman zien erri-izkuntzako itz askori.

Mintzo berri ori ez zan bat-batean sortu, poliki-poliki baizik. Justino Doneak, eleneraz idatzi zuan bere apologia. Eleneraz idatzi zuan Ipolito'k ere bere teologi-lana, eta III mendearen asieran ere teologiari-buruzko auziak eleneraz aztertzen ziran.

Ez da beraz egia latera kristauaren sortzaillea Tertuliano danik.

Tertuliano'k giartasuna eta dotoretasuna eman zion, baiñan sortu, Elizaren altzoan izkera berri ura elizkide guztiek sortu zuten, lateraz mintzatzen ziran jendeak elizara sartzen ari ziran neurrian, mende luze baten epean.

Sarkaldeko uririk kristauenak orduan Erroma bera eta Kartago ziran, Afrika izeneko probintziaren uri-burua azkeneko au, gaur Tunez uria dagoan tokitik oso urbil zegoana.

Bi uri auetan ordea, eta ezta Sarkaldean beste iñon ere, ez zan Sortaldeko Alexandri, Zesarea, Antioki edo Edesa'n bezala Teologi-Eskolarik sortu. Izar bakartiak dira Sarkaldeko idazle teologilariak. Aipa ditzagun lau: Ipolito, Tertuliano, Nobaziano, eta Zipriano.

...

IPOLITO sortaldetarra zan, Alexandri'koa seguruaski, eta badu, bibliaren azalpena egiterakoan Origenes'en itxura. Ez da arritzekoa. Biak eginkizun ortan Filon judu alexandritarraren bidetik bait zebiltzan.

Ipolito'z mintzatuak gera monarkikieriaz eta Kalisto Aitasantuaz jardun dugunean.

Naiz Erroman bizitu eta Erroman lan egin, sortaldetarra zalako eta eleneraz idazten zualako ez da oso-osoan idazle sarkaldetarra.

Orregaitik, esan dezagun soilki,

- dirudianez Zefenno'ren aitasantutzakoan iritxi zala Erroma'ra (199-217).

- Apostoluengandik zetozen oiturak, baita liturgiaren zirimonietako aiek ere, zintzo aldakuntzarik gabe gordetzearen zale izan zala, eta orregaitik, gotzaiei eta aitasantuei ere izketa latzez eraso oi ziela, oitura oietatik zerbait aldatzen zutela iduritzen ba'zitaion.

- Gogorkeri-zale zakarra ere izan zala, eta ori dalata asarretu zala ain zakarki, Kalisto Aitasantuarekin. (217-222).

- •Syntagma• (•Kidaketa») izeneko liburuan ordurarte Elizan sortutako erejiak aztertzen ditu. 32 ereji, mende baten epean! Ez bait da sekulan Eliza erejien arantzarik gabe biziko!

Bada Ipolito au sasiaitasantu izatera iritxi zala zalantzan ipintzen duanik, baiñan, ezpairik gabe, ori ala izan zala dirudi.

Bada baitare Pontziano Aitasantuarekin Zerderia'ra erbesteratutako Ipolito, gure au ote zan zalantzan ipintzen duanik ere, baiña au ere ez dirudi zalantzan ipiñi daitekeanik.

...

NOBAZIANO •puede pretender el titulo de primer te6logo romano de categoria» jedin). Aurrenekoa, urteen ibilleran noski, ez ordea bere aburuen aunditasunez.

Alare, teologilari yayoa izan zan.

250'ren iguruan idatzi zuan bere liburua Irutasunari-buruz, eta au izan genduan Sarkaldean gai orri buruz, Augustin etorri zan arte, liburu nagusia. Alare Nobaziano mendekeritasunera erori zan, naiz era txukunean, Semea Aitare mendeko eta Gogo Deuna Semearen mendeko egiten bait ditu.

Konelio'rekin batera aitasantugai izan zan 251'ean. Baiñan bera ez baiña Kornelio izan zan aukeratua. Bera ordea Komelio'ren aurka zegoan pekatari-buruz biguinkerizko-gogorkerizko-arazoari zegozkionetan, eta bere jarrailliek sasiatasantu altxatu zuten Erroma'n bertan.

Gogorkeri zalea bait zan, alde ortatik so-egiten zualarik, egokia ez ezê bearrezkoa eta santua iduritzen zitzaion bere jardunkera, Komelio'ren Eliza Eliz zikiña zala esanez, berea garbia zan bezala. Egiazko Elizara ez omen daiteke ba oben larriz zikindu danik berriro sartu, naiz egiaz eta benetan damaturik etorri. Pekatari oiek danak, Jainko errukitsuaren eskuetan uzten zituan noski Nobaziano'k, baiñan Elizatik at.

Kornelio'k berriz, pekatari damutu guztiak artzen zituan, eragozpenik gabe, Elizaren altzora!

Ederki idatzi zuan Alexandri'ko Eskolatik Dionisio alexandritarrak:

«Nobaziano'k nai duana egiten asten bagera, Kristo'k egin zuanari bizkar emanda beste bide batetik sartuko gera. Kristo, ona izan zan, mendira joaten zan, maitetsu deitzen zion iges zijoan ardiari; Ta azkenean ardi galdua aurkitzen zuanean, nekeei jaramonik egiteke ardi galdu ura bizkarrean ekartzen zuan alaiki. Zer da ordea guri eskatu nai zaigu ⁹a? Gure oiñetara apal datorren ardi galdua, ostikoka gure ondotik zakarki bidaltzea?

Alare aski zabaldu zan Sortaldean nobazianikeria. «Katharoi», .Garbiak. esaten zieten beren buruei bide ortatik ekin zutenek. •Katharoi». Erdiaroan bir-aurkituko dugun itza.

Nobaziano izan zan Elizaren edestian bigarren sasiatasantua. Ez dezagun ordea gogo okerrez ibilli zanik uste. Pekatari damutuen bir-itzulketa eta aitasantuen eskubideei-buruzko auzia, ez bait zeuden, I Batikan Kontzilioaren ondorean dauden bezain argi mugatuak.

Baleriano'ren jazar-aldian martiri il zala Nobaziano, diosku Sokrates edestilariak. Bera bakarrik da ori esaten diguna, baiñan baleike egia izatea berak dion ori, katakunbetan agertutako idazti batek au bait dio illobi baten gaiñean: •Novatiano beatissimo martyri Gaudentius diaconus fecit»: «Nobaziano ziñopa txit zorionsuari Gaudenzio diakonoak egiña..

TERTULIANO, Lejioetako zenturioi edo eunkari jentil baten semea, 160'aren inguruan jaio zan Kartago'n. Elertiz eta legitziz ederki janzia, latera ez ezê elenera ere bikainki ezagutzen zituan idazle yayoa, izugarri adimen argiko eztabaidaria, gizon eldua zala egin zan kristau, martirien kementasun apalak artara eramanda.

Ogei ta bost urtez aritu zitzaigun, bere aalmen guztiak Elizaren

serbitzura jarrita neke guztiak gainduz idazten.

25 urteko epe ori bi puska ezberdiñetan zatitua dakusgu. Epe lu ze orren aurren-aldian katoliko zintzoa izan bait zitzaigun Tertuliano. Montanista zital erretxindua berriz bigarreanean.

Tertuliano dugu laterazko eliz-literaturari giartasuna ta sendotasuna eman zizkiona. Era berean, Tertuliano, Afrika artako kristautasunaren irudi betea dugu.

Zigorketa latzak jasan bear izan zituan Eliz arek. Baiña bere martirien eta •aitorleen- bikaintasunak jende berriak ekarri zizkion ugari.

Alatagutziz, zigorketa latz aiek kutsatu zioten Eliz artako kristautasunari laztasun nabarmena.

Bestalde, zigorraldiek aiña astindu zuten Afrika'ko kristautasuna erejiek, eta erejien aurka borroka egin bearrak.

Oroi an gnosikeriak izan zuan indarra; eta montanikeria; eta Nobaz iano'k gogorkerira joz Erroma'n, eta une berean beste ertzara joz eta geiegizko askatasunkeria erakutsiz Felizisimo'k Kartago'n bertan sortutako zisma mingarri aiek; eta erejira jausitakoen birhataiaketa zurrunbilloa...

Guzti orrek urduritasuna, eta alkarrenganako fiakuntzarik-eza, piztu zituan kristautasun indartsu aren baitan. Orregaitik, Eliz ortako idazleek, Tertullano'k adibidez, ez dute kristautasunaren metafisia aztertzerako joko. Alderantziz, kristauei egiazko fedea zer dan eta fede ori zintzo betetzeko zer egin eta zer egin bear ez dan erakustera joko dute.

Eliz kezkatu latz artako gizona dugu Tertuliano. Erabateko gizona; ezbairik gabekoa; egia aurkitu duala iruditzen zaionean, egi ura ezertan amorerik eman gabe babestuko duana.

Ala babestu zuan aurrena katolikotasuna; katolikotasun latza, bai noski; orrelakoa bait zan bera: latza, eta gogorra.

Gero, montanikeriaren neurri gabeko garraztasuna bearrezkoa duala iduritzen zaionean, montanikerira joango zaigu, eta ori babestuko du, ordurarte katolikotasuna babesteko erabili duan kemen berdin-berdiñez. Ta, gero, bere zartzaroan, montanikerian ere akatsak ikustean, zisma bat sortuko du montanikeri beraren barruan: Tertuliankeria.

Idazle bezala atsegiña da Tertuliano. Aldi artan ez zan lateraren barrutian, ark bezain yayoki lurna erabiltzeko gauza zanik. Badu gaiñera, — legiztilari izaki! adimenaren muiñaraiño sartzeko duintasun bereizia duten itz egoki bitxiak eta esaldiborobillak asmatzeko trebetasun ziztagarria.

Orregaitik izan zuan alako eraginmena. Eta orregaitik ikusiko duzu kristau-teologian eta Eliz-edestian bere izena ain sarri ta ain ugari, bein da berriro aipatua.

Apologilari aundia izan zan. Arlo ortan, bi dira bere idaztirik garrantzitsuenak: «Ad Nationes» («Errialdeei») eta «Apologeticum» («Apologiari-buruzkoa»).

- Jentillen gogoeta ala oitura bat aipatuz asten du atal bakoitza. Berealaxe, gogoeta ala oitura orri dagokion kristau-gogoeta ala oitura

aurkezten dio era argitsuan irakurleari.

Ori eginda gero, kristautasuna zer izan daitekean jakin gabe ari dirala kristautasun ori zigortzen, aurpegira botatzen die Erroma'ko Jaurlaritzari eta Erroma'ko jendeari; ta, azkenean, errukia ez baiña justizia, zuzentasuna, eskatzen die kristautentzat inperio-lur osoko agintariei.

Probintzietako jaurleei zuzendua bait dugu Tertuliano'ren bigarren liburu eder ori.

Ordurarte iñoiz lortu ez zuan gaillurrera jaso zuan Tertuliano'k apologigintza.

Asko idatzi zuan erejien aurka ere. Gnosikeriaren aurkakoa du bere •De Praescriptione Haereticorum» edo •Erejeen Iraute-Legeaz» izen duana.

•Iraute-legea» garrantzi aundiko gauza zan Erroma'ko legedian. •Eztabaidan dagoan gauza norena da»? Galde orri erantzuteko Erroma'ko legediak beste galde au egiten zuan: •Norena zan legez asieran gauza? eta orduetzkeron noren eskuetan iraun du beti»?

Galde orri ematen zaion erantzunak erabakiko digu gauzaren jabea nor dan.

Oldozkera orren araura, •zuek agertu baiño len, dasaie Tertuliano'k erejeei, Apostoluen garaietik Elizak aldarrikatzen zuan Josukristo'ren Berri Ona, eta arrezkero, beti, Elizaren eskuetan iraun du beti Josukristo'ren Berri Onak. Beraz, Eliza da Josukristo'ren Berri Onaren jabea, eta Elizak bakarrik du Berri Ona aldarrikatzeko eta bere zentzua agertzeko eskubidea; Doai ori eta eginkizun ori Kristo'k berak eman bait zizkion Elizari».

- Bibliako Itun Zarrari muzin egiten zion Martzion'en aurka, ainzunen izan ori, •Martzion'en Aurka», daraman izeneko liburuan bi I tunen donetasuna babestu zuan.

- •Praxeas'en Aurka» deritzanean, ordurarte lortu ez zan argitasunez, aurkezten digu Irutasun Donearen izkutua.

Aita Semea eta Gogo Deuna •unius substantiae, unius status et unius potestatis» dirala esaten du; •zertasun bat berekoak, aunditasun bat berekoak eta aalmen bat berekoak», baiñan Bigarren Pertsona, Semea, Aitarengandik datorrela adierazteko •subordinatio» edo •mendekotasunera» jausten da, Aitak •jaincotasunaren osotasuna» eta Semeak »arengandiko zati bat» dutela, idatzi bait zuan.

Ez da oso zentzu garbikoa beste onako izketa au ere: Bigarren Pertsona, naiz izadiaren sorkuntza-aurretikoa izan, izadiaren sorkuntzan egin zala Seme eta, orregaitik, ez dala, Seme bezala, betidandikoa.

Gauza zailla eta neketsua izan zan gure Sinispeneko egiak era zuzenean aurkezteko itz egokiak billatzea.

Gogo Deuna ere Pertsona dala bete-betea aitortzen du. Baiñan Semeari-buruzko misterioak argitu arte, ez ziran gure teologilariak Gogo Deunagan sakonkiago pentsatzen asi. Alare, badio Tertuliano'k Gogo Deuna dala Elizaren irakaslea, apostoluei egi osoa erakutsi ziena, eta arrezkero Eliz Osoan eta Eliz bakoitzean Aitaren eta Semearen ordezkari lez

ari dana.

Asko idatzi zuan Tertuliano'k: Izadiaren sorkuntza, giza-gorputzaren berbizkundera, martirioaren duintasuna, bataioaren zertasuna eta ondorioak, otoitza, pazientzia, zirko ta antzoki jentilletako jokuak, aitorketaren zertasuna ta nolatasuna..., orduan eztabaidagarri izan zitekean oro izan zuan bere luma dotorearentzat idazketa-gai egokia.

Bere azkeneko bost liburuskak, ordurarte esana sarritan gaitzetsi, montanikeri latzez beteak ditu:

- Kristauei soldakuska galerazten die, Erroma'ko gudaroztea bere zirimonietan sasijainkoei loturik zegoalako.

- Alargunak ez omen daitezke berriro ezkondu.

- Elizaren jerarkia gutxien du. Montanikeririk gordiñenaren adigarri dugu Tertuliano'ren esakizun au: •Ubi tres, Ecclesia est, licet laici»: •Nun iru, an Eliza, naiz iru aiek ez-apaizak izan». Montanikeri gordiñagoa oraindik lotzeko eta askatzeko eskubidea. Josu'k Kepari bakarrik eman ziola, eta ez dala Kepa'gandik gotzaietaraiño igaro aldarrikatzea.

- Adan'en pekatuak, pozoitu egin omen zuan giza-zertasuna. Alare, ez da Lutero bezala, bere zertasuna pozoiturik daukalako gizakumeak egin dezakean guztia pekatu dala esatera iritxiko. •Vitium naturae», •giza-zertasunaren okerrerako joera esaten dio jatorrizko pekatuari: Alare, naiz joera orrek bataio-ondorean gizakumeagan jarraitu, tinko sinisten du bataioak jatorrizko pekatua benetan barkatzen duala.

- Emakumezkoari bere buruaren apainketa zorrotz galerazten dio, eta barau, eta nork bere soiña zigortzeari-buruz, montanikerizaleen gogorkeri guztiak bere-egiten ditu.

- Kristauari ez omen zaio zigorraldian bere burua izkutatzerik zillegi.

- Elizak ez omen du •Oben Nagusiak» barkatzeko aalmenik. Oben nagusi oiek onako iruok dira: Apostasi edo Jainko-ukatzea, giza-erailketa, eta adulterio edo ezkontza zikintzea.

ZIPRIANO, Kartago'ko gotzaia, III mendearen asieran jaioa, erretolika irakasle yayoa zan 246'ean. Orduan egin zan kristau Zeziliano bereter adiskidearen ekintzei eskerrak. Gertakizun ura oroitzuz, •Ad Donatum» izeneko liburuxka polit bat idatzi zuan, iñon aurkitzen ez zuan pakea bataioan nola aurkitu zuan goxoki kontatuz.

249'an Kartago'ko gotzai zan. An egon zan Dezio'ren zigorraldikoan, uritik bertan zegoan zoko batean izkutaturik, eta zoko artatik bere Eliza zuzenduz.

Baleriano'ren denboran il zan martiri.

Bere pentsamentua, •nere irakasle esan oi dionTertuliano'ren idaztietatik artua du.

Idatzi zuan libururik ederrena, •De Ecclesiae Unitate», •Elizaren Batasunari-

buruz deritzana dugu. Liburu ontan Eliza bakoitzaren batasuna bere gotzaiagan oiñarritzen dala dio, eta gotzai guztiena, Kepa'ri Kristo'k emandako almenean.

Alatagutziz, Zipriano'k ez du Kepa'ren almen ori noraiño iritxi daitekean argi ikusten. Naiz berak Erroma'ko gotzaiaren aalmen orokorra tinko sinistu, badirudi batzuetan soilki oorezko lendakaritza bat ematen diola.

Ez da arritzekoa, len ere esan dugunez, orduan ez bait zeuden oraindik Aitasantuaren almenak zierki mugatuak.

Ala, Zipriano'k ez dio Aitasantuari, erejian bataiatutakoak bir-bataiatu bear diran edo ez erabakitzeko eskubiderik ematen.

Alare bereak dira onako esakizun auk: •Kepa'ren irakaskintzatic urruntzen danak, nola dezake Elizaren barruan jarraitzen duala pentsatu, Eliz osoa Kepa'gan oiñarriturik dagoanez gerc»? Eta onela amaitzen du esaldi guztia:

•Eliza ama ez duanak ez du aita izango Jainkoa».

Ona bere eskutizetatik jasotako beste gogoeta eder au: •Elizarik garrantzitsuena, Erroma'ko Eliza da; beragan oiñarritzen da Elizaren jauparitza osoaren batasuna..

Zipriano'k Aitasantuaren aalmen orokorra ongi ezagutu ta zintzo sinistu zualaren adigarri ziurra, esakizun bi oietatik edozein.

Garrantzi aundiko gauza da Zipriano'rentzat •Elizatik at ez bait da salbamenik.: •Extra Ecclesiam non est salus• berak esana da.

Orregaitik, umeak ere, len-bait-len Elizaren altzora sar ditezen, al dan azkarren bataiatuak izatea nai izan zuan.

Izan zituan auziak Kartago'ko Zipriano'k Erroma'ko Aitasantuekin.

•Libellatici• edo •bcarteldunen• arazoagaitik aurrenekoa, Esteban Aitasantuarekin.

Txarteldun damutuei Elizaren ateak irikitzearen alde, Erroma'rekin bat etorri zan Zipriano. Gai orri-buruz Kartago'n egin zituan sinodo guztien agiriak Erroma'ra bidaltzen zituan, an onetsiak izan zitezen. Erroma'ko Gotzaiaren almena onezagutzen zualaren adigarri ziurra.

Gauza bat zan ordea txarteldun damutuen barkapena, eta beste bat gotzai txarteldunak beren lengo gotzaiagoetara jasotzea.

Españi'ko bi gotzai, Astorga'ko Basilides eta Merida'ko Martzial, txarteldunak ziralata, gotzaiagotik kenduak izan ziran. Esteban Aitasantuak, biak errugabeak ziralako ustean, lengo beren gotzaiagora itzuli zituan.

Orduan, Españi'ko gotzaiak Kartago'ra jo zuten, aundia bait zan sarkalde guztian Eliz aren, eta Zipriano Eliz artako gotzaiaren, itzala. Zipriano'k Kartago'n bildutako sinodo batean auzia aztertu ondorean, Esteban Aitasantuak erabaki zuanaren aurka, Españi'ko gotzaiak eman zien arrazoiak.

Basilides e ta Martzial gotzaiagoak erantziak izan ziran berriro.

Ez gaitezen arritu Zipriano'ren jardunbide ortaz. Ori bera egingo bait du Augustin'ek 417'an Zosimo Aitasantuaren aurka, Aitasantu ura Pelayo'k

eta Zelestio izeneko bi elizgizonek atzipeturik zebillela ikusi zuanean.

Esteban Aitasantua, naiz bere aalmenetaz arras gizon arduratua izan, atzipeturik ibilli zala ikusi zualako agian, ez zitzaigun Zipriano'rekin asarretu. Alderantziz, onen adiskide jarraitu zuan.

Zipriano'k berak ere, urtetxo batzuk geroago, Esteban Aitasantuari, Galietan Arles'ko gotzaia gaitzesteko eskatu zion.

Martzion zuan gotzai ark izena, eta Dezio'ren zigorketakoan «lapsi» edo «eroriei», naiz eroei aiek beren pekatuz damaturik egon, Elizarako sarrera eragozten zielako, Zipriano'ri idatzi zion Lyon'go gotzaiak. Eta Zipriano'k Esteban aitasantuari, iru gauza eskatuz:

- Arles'ko gotzai ura kentzeko;

- Aren ordez beste bat izendatzeko;

- Eta izendatzen zuan gotzai berri orren izena berari Zipriano'ri —gazitgatzeko, onek norekin idazketan asi jakin zezan.

•Realmente no puede darse una muestra mis evidente de que San Cipriano reconocia a Roma como Iglesia principal• (Llorca). Erroma'ko lendakaritza, bai, onezagutzen zuan Zipriano'k; Lendakaritza ura noraiño iristen zan ez zuan garbi ikusten, Elizako dogma'k, baita Aitasantuaren Nagusitasunaren dogma ere, poliki-poliki joan bait dira Eliza-baitan argitzen.

Baiñan, Zipriano'k ez ezé, España'ko eta Galietako gotzaiak ere ederki ezagutzen zutela Aitasantuaren nagusitasuna, adierazten digute aztertu ditugun arazo oiek.

Bigarren istillua, bataioari-buruz izan zuan Zipriano'k Esteban Aitasantuarekin:

Tertuliano'k Jaungoikoaren grazian ez dagoanak egindako sakramentuak baliorik ez duala, erakutsi zuan. Eta aundia bait zan Tertuliano'ren aipua, ia Sortalde guztira zabaldu zan aren irakatsia: Erejian bataiatua alegia berriro bataiatua izan bear duala aurreneko bataioa baliorik gabea izan zalako.

Erjian bataiatua berriro bataiatu-bearra zala uste izan zuan Zipriano'k ere Kartago'n. Eta zalantzarenbat sortu zalako, 256'ean 71 gotzaiekin sinodo bat egin zuan Kartago'n bertan, erejian bataiatuak bir-bataiatzeko oitura sagaraturaz.

Sinodo artan erabakia, Erroma'ra bidali zuan Zipriano'k. •No se olvide este dato, pues, a pesar de lo que sucedió después es claro indicio de que la Iglesia africana reconocia la supremacia de Roma. (Id.).

Esteban Aitasantua ordea, lendik asarre zebillen bir-batailariekin. Orregaitik ainzuzen, urte bete lenago Firmiliano Zesarea'ko gotzaia eskornikaz zemaitu bait zuan. Alexandri'ko Dionisio izan zan Aitasantua baretuta Firmiliano gotzaia eskomikatik salbatu zuana.

Donesteban Aitasantuaren jardunkera orrek ere ez al du Erroma'ko gotzaiaren Lendakaritza ordurako eliza-baitan ziurturik zegoala adierazten?

Udazkenean ostera beste sinodo bat bildu zuan Zipriano'k udaberriko artan artutako erabakiei indar geiago emanaz. Eta sinodo onen agiria ere, Esteban Aitasantuari bidali zion Erroma'ra.

Gogorra izan zan Aitasantuaren erantzuna birbataiaketa debekatuz, eta obeditua ez ba'zan Kartago'ko Elizarekin alkartasuna, ots, •komunioa» ausiko zuala jakiñaraziz. Birbataiaketa ura berrikeri bat zala esaten zion Zipriano'ri, eta Elizaren betidandiko oiturara itzultzeko agintzen zion.

Ez dio teologizko arrazoirik ematen. Zergaitik? Agian Esteban'ek bere maillako beste gotzai batekin ari ez zala bazekialako. Bazekian bera Aitasantu lez goiagoko maillan zegoala, eta, orregaitik, arrazoiketen bearrik ez zuala; Elizaren Lendakari Nagusi zalako, agintze utsa naiko zuala.

Larritu zan noski Zipriano, eta egin zezakean gauzarik okerreana egin zuan: ain ospe aundikoa zan Alexandri'ko Dionisio baztarrean utzita aolku billa Firmiliano Zesarea'ko gotzai eskomikaz zemaitutakoarengana jo zuan.

Era makurrean erantzun zion onek, Esteban Aitasantua gorrotozko izkeraz orbanduz, eta Judas saltzaillearekin kidatuz.

Nai izan zuan Dionisio Alexandritarrak giroa gozatu, baiñan ez zuan ezer lortu, ez bait zuan Zipriano'k oldozkeraz aldatzen. Kartago'ko Eliza, naiz Esteban'ek itzez eskomikapenik aren aurka jaurti ez, egotez, Erroma'rekingo •komunicr z gelditu zan urte batzuetan, eriotzak auzia berez konpondu zuan arte.

•Cyprian, and with him Firmilian of Caesare in Cappadocia, took the view that unity of faith did not preclude diversity of usage and insisted on their own view of the matter in question, declaring at the same time that they did not want to sever relations with Rome» (Enc. Brit):

•Sinispen-batasuna, oituren ezberdintasunaren aurka ez zetorrela uste izan zuan Zipriano'k; eta, berekin batera, Kapadozi'n Zesarea'ko Firmiliano'k. Ta, arazo artan uste orren araura jokatu zuten. Baiñan Erroma'rekingo arremanik ez zutela urratu nai esanez».

Esteban, 257'an, Erroma'tik erbesteratua izan zan. Eta, an, erbestean, il zan bereala. Aitasantu berria H Sisto, gizon xamurragoa, asi zan berriro Zipriano'rekin alkarrizketan, eta laister il zan, martiri, Zipriano bera ere.

Eman du zer esanik Zipriano — Donezipriano — gotzaiaren eta I Esteban —Doneztebe — Aitasantuaren arteko arazoak, batez ere XVI mendean Lutero'k protestalaritza sortu zuanez gero.

Zipriano •episkopalista», aurreneko •episkopalista», izan zala; edo, berdin dana, •Elizaren Zuzendaritza Nagusia gotzaidia dala» aldarrikatzen, aurrenekoa Zipriano izan zala, oi u egin du bateren batek episkopalista dan Laterri Alkartuetako Elizatik.

Ederki dio •Encyclopaedia Britannica•k ori anakronikerira erortzea dala, ots, orain diran arazoak antziña artan bazirala ere uste izatea dala. Jakintsu batek iñoiz egin ez dezakean okerra.

Episkopalitasuna, Laterri Alkartuetako arazoa da, XVII mendez onuntzko arazoa. Done Zipriano gotzaiaren eta Doneztebe Aitasantuaren aro zarrean

orrelako arazorik ez zan.

Trinitateari-buruz ere orduan arazo aundiegirik ez zan bezala.

Aita Jainko zala, Semea jainko zala eta Gogo Deuna ere Jainko zala, eta alare iru Jainko ez baiña Jainko bakar bat zala, ori nola izan zitekean aztertzen asi gabe, tinko sinisten zuten kristauek. Garai artan ainzuzen asi zan teologia azterketa ori egiten.

Era berean sinisten zuten gotzaiak, bakoitza bere **errege zirala** eta era berean Aitasantua Eliz guztien Errege Nagusia zala, erregetza oiek alkarrekin nola konpondu zitezkean aztertzen asi gabe. Geroago asiko da teologia beste arazo onen azterketa ere egiten.

Orregaitik oker ibilli dala iduritzen zait aipatutako Iztegi Bikain ori, onako itz auek idazterakoan:

«He, (Zipriano'k), took a practical view of things, recognizing Roma as the de facto centre of the church without scrutinizing the nature of his authority».

Euskeraz: •Zipriano'k, Erroma'ko agintaritzaren zergaitia eta nolakotasuna aztertzeke, ekintzako bidetik jo zuan arazoak erabiltzeko Erroma Elizaren buruzat artuz-.

Esaldi orrek, Zipriano'k Erroma Elizaren buru zanik ez zuala ziur sinisten, esan nai du, eta soilki gauzak nolabait konpontzeko, -tira bá-esanez-edo, artu zuala Erroma Elizaren Buruzat.

Gauzak ez ziran ordea orrela gertatu. Esteban Aitasantuarekin asarre ibilli zan Zipriano'k bazekian Esteban Elizaren Buru zala, mende pare bat geroago Zosimo Aitasantuarekin asarre ibilli zan Augustin'ek ere Zosimo Elizaren Buru zala bazekian bezala.

Soilki, bakoitzak bere arazoan, arrazoa berea zuala uste izan zuten.

Augustin'en arazoan, arrazoa Augustin'ena zan. Eta arrazoi eman zion Zosimo Aitasantuak. Eman zion Esteban Aitasantuak ere Zipriano'ri Españi'ko bi gotzaien arazoan. Birbataiaketa arazoan ordea arrazoa Esteban Aitasantuarena zan, baiñan, — orduango teologi asi-berria ez zan gaurko teologi oparoa-ta badirudi bera ere ez zegoala ortaz ain ziur.

Ez zuan beintzat Zipriano ez eskomikatu ez gotzaiatik kendu. Ta ikusi dugu nola asi zan urrengo Aitasantua, II Sisto, Zipriano'rekin alkarrizketa adiskidetsuan.

Sekulan ez du Erroma'ko Elizak Zipriano'ren aurka, ez gaur ez orduan ez bitarteko epe luze guztian ezer esan. Zipriano, Erroma'ko Elizaren santu-zerrendarik zaarrenean agertzen da. Baita Erroma'ko meza-libururik zaarrenetan ere, ta, IV mendean bertan, Nizea'ko Kontzilioak, I Kontzilio Ekumenikoak, sinispide zuzenean autoritate bezala goretzi zuan gure Zipriano.

Oker dabil aipatutako Iztegia, Zipriano'k -azterketarik egin gabe Erroma Elizaren Buruzat onartu zuala- dionean, Zipriano'k onartze ori nekerik ez artzearren itxu-itxuan egin zuala esan nai ba'du.

Zipriano'k orduango kristau guztiek bezala, Erroma'ren nagusitasunak

azterketagintza bearrezkoa zuanik ez zuten pentsatu ere egiten. Azterketarik gabe sinisten zuten Erroma'ko gotzaiaren nagusitasuna. Zergaitik? Ori kristauek Elizaren dotriña zutelako, eta Elizaren dotrin ori iñork ordura arte zalantzan ipiñi ez zualako.

Eginen zuten auzi ortaz azterketa sakon bikaiñik Zipriano'k eta Augustiirek, bakoitzak liburu eder baten bidez, Aitasantuen nagusitzariburuz zalantza-apurrik txikiena izan ba'lute, edo beste norbait nagusitasun ori zalantzan ipintzen asi ba'litz. Baiñan ez zuten egin. Ez bait zuten Eliza-baitan orrelako arazorik ikusten.

Gaur bai, gaur egokia izan daitekean azterketa bat, orduan orrelako arazorik ez zuten gizon aiei eskatzean, anakronikeri txepelera jausi da •Encyclopaedia Britannica» eraspengarria.

Zipriano'k beti onartu zuan benetan Aitasantuaren nagusitasuna. Ori, berak idatzi zuan guzia eta batez ere bere jardunkera gogoan artuta, zalantzan ezin ipiñi daitekean gauza da.

Bi aldiz argitaratu zuan •Eliza Katolikoaren Batasuna» deritzan liburua. Aurrenekoan ederki mintzatzen da Erroma'ren almenaz. Bigarrenean gotzaien eskubideak babestu nai ditu.

Aitasantua. Gotzaia. Biak, Jainkoagandik zuzenean artutako aalmenen jabe dira gure Elizan.

Almen oiek alkarrekin nola konpondu?. Ez zion Kristo'k bere Elizari arazo mottela eskuetan utzi.

•Alde batetik gotzaien berenkoikeria, bestetik Aitasantuen geiegikeria.. Arrisku bikoitza. Arrisku ori nabari zaigu, Zipriano eta Esteban'en arteko auzi garratz artan: •Le danger de particularisme d'un cte, de l'autoritarisme del'autre se laissent &A pressentir dans ce grand devat. (Dani6ou).

BERRIRO ZIGORRALDIA

DEZIO inperatorea izanen dugu, ostera kristauen aurka zigorra erabiliko diguna.

Aristokrazikumea jaiotzaz, Danubio-Araneko lejioren buruzagi egin zuan Felipe Arabitarrak 245'ean. Lau urte geroago, lejio aietako gudariek inperatore izendatu zuten. Abiatu zan Felipe Arabitarra bere gudaroztearek in iraultza ura ezabatzeraz, baiñan bidean erailla izan zan eta Dezio'k artu zuan buruzagitza.

249'garren urtea zan.

Mesi'ra eta Trazi'ra sartu ziran got'tarrek naiko neke eman zioten eta aien aurka borrokan il zan azkenean 251'an, eta baita bere semea ere berekin.

Ta, Dezio'ri got'tarrek naiko neke eman ba'zioten ere, eman zien Dezio'k ere nekerik aski kristauei.

249'an bertan izan ziran kristau batzuk espetxeratuak; eta martiri erailla Fabian Aitasantua.

Baiñan kristauen aurkako erabakia 250'garren urtekoa da, eta baditu erabaki orrek xeetasun bereziak:

- Aurreneko aldiz ematen zuan orduan Erroma'ko inperatore batek Elizaren aurka lege bat. Neronek ez zituan kristauak kristau izateagaitik zigortu, Erroma erre zutela leporatzen zielako baizik. Edo, berdin dana, •kristauak• ez baiño •erroma'ren erretzailleak• zigortzen zituan. Ez zuan gaiñera Elizaren aurka legerik eman.

Neronen urrengo inperatoreek ere ez zuten kristauen aurka legerik eman, soilki Neronen garaietik zetorkien oitura, — kristauak kristau izate utsagaitik gaizkilleak zirala uste izateko oitura — jarraitu besterik ez zuten egin.

Oraingo ontan damaigu Inperatore batek aurreneko aldiz kristauen aurkako lege bat.

- Alatagutziz, lege ark ez du kristautasuna zigortzen duanik esaten. Ez ditu kristauak aipatu ere egiten. Soilki inperio-lurreko biztanle guztiei Erroma'ko jainko zarrak gurtzeko agintzen die.

Gurketa ura egin gabe iñor gelditu ez dedin, gurtzaille bakoitzak gurketa egin duala egiztatzen dion txartela jaso bearke du gurketa egiterakoan, ortarako aalmenduak izango diran epailleen ordezkariengandik. Txartel ori, eskatzen zaienean aurkeztu aal izateko. Txartel orri .libellum» esaten zioten latera z. Eta txarteldunakberriz txartel ori bazutenei: •txarteldunak..

Izugarrizko zirrara sortu zuan Eliza-baitan Dezio'ren aginduak. Sortaldean batez ere, ainbeste ereji txatxuz naasitako lurralde artan geiago bait ziran antziñako tinkotasuna galdu zuten kristauak. .Igaroak dira, esaten zuan Origenes'ek, nere gaztaroko kemen ausarditsuak. Eta orduango izpiritu aren ordezkari logalea eta aulkeria ditugu kristaudi ontan nagusi».

Egi negargarria irten zan ori Afrika'ri eta Ejito'ri dagokienez beintzat.

Kartago'ko Ziprian eta Alexandri'ko Dionisio ditugu orduango gertakari aietaz berri zintzoak damaizkigutenak. Garai artako gizonak biak.

Dezio'ren agindua betetzen asi zanean, lendabiziko egunetan tamalez askoz geiago izan ziran — -superaron por mucho. (Dedin), — lurralde aietan era batera edo bestera agindu ura bete zuten kristauak, beren fedeari ukorik ez egiteko inperatorearen agindura makurtu gabe gelditu ziranak baiño.

Alexandri'n, Dionisio'k dioskunez, kristau batzuk dardaraz alderatzen omen ziran sasijainkoen aldareetara, sasijainkoei oparia eskeintzeko; beste batzuk, sekulan ez zirala kristauak izan ere, gezur-esaten omen zuten; beste batzuk berriz, baituak izatera zijoazten unean makurtzen omen ziran sasijainkoak gurtzera, edota espetxera sartuak izanez gero, edo espetxe-barruan oiñazatuak izaterakoan. Fedea ukatu zezaten, erarik anker basatienean oiñazetuak izaten bait ziran espetxeetara baituak.

Beste askok, batera fedea eta bizia salbatzea uste izan zuten •legezko-gezur baten bidez.

Naiz sasijainkorik gurtu izan ez, adiskide jentillen bitartez, gurketa ura egin zutela aitortzen zuan **edo txartel ura eskatzen zuten** ertzaindegietan. Errez lortzen zuten txartela, agintarientzat, besterik gabe, txartel-eskatze uraxe bera, legez kristautasunari uko egitea bait zan. Ta, jakiña da nolako garrantzia zuan -legetasunak-Erroma'ko gizartean. Orregaitik ainzuzen Elizak ere txartel-eskatze ura bete-betean fedea ukatzea zala uste izan zuan orduan, eta gero ere uste izan du beti.

Afrika'n arras ugari izan ziran fedea modu betera edo bestera ukatu zutenak. Ori dio beintzat Zipriano'k.

Bi gotzai ere uzkurto omen ziran an inperatorearen agindura, eta bietako batek gauza bera egiteko aolkua eman omen zien bere elizbarrutiko kristauei — zori txarrez, aolku aren bidez eskatzen ziena aski ugari lortuz —; eta, beste gotzai arek berriz, Dezio bere gotzaigoan jarraitu nai omen zuan -penitentzirik egin gabe».

Zipriano'k damaizkigun albisteak dira, eta, jakiña, aipatzen ditu ezagunak ditugun beste bi gotzai txarteldun españiar aiek ere.

Asi izeneko probintzian berriz, Esmima'n, Pionio apaiz martiria, bere gotzaiak sasijaikoen aldarean oparia nola eskeintzen zuan ikusi ondorean izan zan erailla.

Iru oietaz landa, beste gotzai fede-ukatzailleen berririk ez dugu.

Zigorketa aren ondorioz, jende-mota berriak agertu zitzaizkigun kristauen artean, uko egindako aiek danek, Zipriano'k dioskunez, ostera, itzuli nai izan bait zuten Elizaren altzora:

- «Jausiak- inperatorearen agindua bete zutenei esaten zitzaien. Auen artean iru mota ezberdiñak aipatzen dira:

- •Sacrificati-, •opariegifiaik-: sasijainko baten aldarean, oparigintza osoa bete zutenak;

- •Thurificati-, sasijainkoen irudien aurrean intzentsua erre zutenak; naiz orrelakorik ezer egin ez, egin zutela aitortzen zuan txartel

artaz beren buruak babestu zituztenak.

- •Confesori-, epaitegietan-da kristau-fedea sendo eta zintzo aitortu zutenak, naiz gero espetxeetatik bizirik irten. Ez bait ziran, — ezta askoz gutxiagorik ere espatxeratu guztiak eraillak izan.

Aspaldikoa zuan Elizak, fedegaitik nolabait zigortuak izan ziranei •aitorle- deitzeko oitura. Nortasun aundiko pertsonak ziran **oiek** Eliza-barruan, eta beraiengana jotzen zuten pekatariak, fede-ukatzailleek batez ere, -litterae pacis• edo -pake-gutunak• eskatzeko, Elizaren altzora errezago bir-artuak izan zitezten.

Oraingo batzuetaz ordea badu Zipriano'k zerbait gaitzetsi bearrik: espetxetik irtenda, arrokerira batzuk eta beste batzuk lizunkerira jausi zirala bait dio.

Ez dagola mundu ontan iñor, pekatura jausi aal izatetik yare!

...

Zigorraldi artako ziriopa edo martirlak zenbatzea ezinezko gauza dugu, ez zuan ba Elizak orrelako estadistikarik eramaten.

Kristau asko, Elizak orrelako garaietarako aolku-emanik zeukana jarraituz, izkutatu egin ziran. Ala, adibidez, Kartago'ko Ziprian gotzaia bera. Eta Ponto'ko Gregorio Taumaturgo edo Mirarigillea. Eta Jeronimo deunak dionez, Ejito'n, Tebas'ko Paul aberatsak basamortura alde egin zuan eta an Donepaul Ermitalaria izatera iritxi zan.

Ez bide zan ain errez, nork bere burua izkutatu aal izate ori; Dionisio alexandritarrak dionez, orrela igesi zijoazten kristau batzuk otzez eta gosez il omen ziran ba.

Kartago'n bi ziñopa aipatzen ditu Zipriano'k. Amasei ordea, uri artan bertan izandako Luzian'ek. Geienak, espetxean gosez illak.

Erroman espetxeratuak eta an oiñazetuak eta bertan eraillak zenbat izan ziran ez dakigu.

Izan zirala, bai. Aietako bat, Zelerino, ankerki oiñazetua izan zan. Baiñan oiñazeketarik gogorrean fedeari eutsi ziola, Dezio'k jakin zuanez gero, inperatore beronen aginduz, yare irten zan espetxetik. Afrika'ra joan zan, eta an, Zipriano'k •irakurle- sagaratu zuan. (-Irakurletza», Elizako ordena txikietako- bat da).

Mexandri'n ezpataz ildako lau ziñoparen eta sutan bizirik erretako beste amarren berri damaigu Dionisio'k. Baiñan, Ejito'n martiri geiago izan zirala esaten digu.

Palestina'n, Alexander Jerusalengo gotzaia eta Siri'n Babilas Antioki'koa izan ziran martiririk ezagunenak. Eta Origenes, errukirik gabe espetxean oiñazetua, eta gero oiñazeketa aren ondorioz illa.

Asi'n, bost esmimatar izan ziran espetxeratuak, eta aietako bat, Pionio bereterra, sutara bizirik jaurtia.

Ponto izeneko probintzian, geroago Nisa'ko Gregorio'k idatzi zuanez,

asko izan ziran espetxeratuak eta bertako gotzairik izentsuena zan Gregorio •Taumaturgo• Doneak iges egin bear izan omen zuan.

Españi'n ere zigorketak indar izan zuala adierazten digute ezagunak ditugu bi gotzai •txarteldun- aiek. Baleike Zipriano kartagotarrak •sinispenaren zabaltzaille ta babesle- esaten zion Felis Zaragoza'koa ere, zigorraldi ontan martiri illa izatea.

Galietaiko albisterik ez dugu.

Ez dira berriz garai ontako martiriak, ala izan ba'lira bezala aipatu izan diran beste asko. Oien artean bat, Katani'ko Abate Deuna seguruaski, naiz neskartil santu onen izena kristaudi osoan ain azkar eta ain oparo zabaldu.

Inperio-lur osoari begira, au esan dezakegula deritzaigu:

- Asko izan zirala fedeari uko egin zioten kristauak, •bairria geiengo mardul batek, tinko eman ziola aurpegi inperatorearen aginduari., •but a significant majority defied the government• (Enc. Brit.).

- Oraingoan ere, Erroma'ko Jaurlaritzak, Elizaren buruzagiak zigortu nai izan zituan bereiziki.

- Bearbada asko izan ziran espetxeratutako kristauak; ez ordea ainbeste eriotzara galduak, Dezio'ren agintaritzza oso motza, bi urtekoa, izan zalako; eta azkeneko urtean kristauak espetxeetatik yaretuz Dezio'k berak jazarketa zearo biguindu zualako; eta Dezio urrengo inperatoreak ain ankerrak izan ez ziralako.

- Eta, baita, jentillak berak ere zigorketaz aspertu ziralako. Izan ere orrenbeste urteko pake-aldiaren ondorean, uste gabeen arrapatu zuan aspaldi pakean goxo-goxo bizi zan kristau-jendea. Baiñan era berean arrapatu zituan uste gabeen kristauekin pakean bizitzera jarririk zeuden jentil paketsuak, eta, auen artean, baita agintariak berak ere bat baiño geiago.

Orrelako zerbait adierazten digu Alexandri'ko Dionisio'k kontatzen digun gertakizun onek.

Espetxera bidean, fedea ukatu-ez-ukatu, zalantzaz beterik omen zeramaten kristau gizagaixo bat. Bidean, bost lejiotarrek egin omen zuten arekin topo. Ta gizagaixo aren ustelkeriaz jabetzean, bost gudari aiek, beraiek ere kristauak zirala oiuegiñez, fedearen alde bizia ematearen edertasunaz mintzatzen asi omen zitzaizkion. Ta bost aien tinkotasunaz unkiturik, danak utzi omen zituan epailleak yare.

Orixe bera adierazten digu onako aitorpen bikain onek ere:

•Kristautasuna, auldu ez baiña bizkortu egin zan jazarketa aren ondorioz; erriko jendearen epaiketak jaurlaritzaren ankerkeria gaitzetsi eta ziñopen ja rdunketa paketsua onetsi egin zuan Gertatu zanak, **martiri batek amar kristau sortzen zitualako** kristauen erronka ura egiztatu zuan, zigorketari pote egifieraziz• (Enc. Brit.).

Ona, esakizun ori, bere englanderaz: •The effect was to strengthen rather than weaken the Christians, for public opinion condemned the government's violence and applauded the passive disobedience of the

martyrs. Events justified the Christian boast that every martyr made ten converts, and persecution failed».

Ondo egia da beintzat Elizari gaitz aundirik ez ziola egin, fedea ukatu zuenetatik geien-geienak, esate baterako danak, bereala itzuli bait ziran Elizara, •y hasta hubo algunos libellatici que, después del fallo, repararon su mal paso por medio de una valiente confesibn» (Dedin).

Alare utzi zion zigorraldi arek Elizari arazo mingarri bat: •Libellatici» edo •txarteldun» aien arazoa ain zuzen.

Gero azalduko dugunez, gogorrek ziran aldi artan pekarieie bark apena lortu aurretik eskatzen zitzaizkien penitentziak.

Afrika'n, Dezio'ren jazarketa amaitu ostean, Zipriano'k, «sacrificati» eta •thurificati» aiei bizitza guzirako penitentzia ipintzen zien, eta eriotzako orduan ematen zien barkapena. •Libellatici» ziralako aiei berriz, epe baterakoa bakarrik, eta penitentzi ura bete ezker bereala artzen zituan Elizaren altzora. Azkenean berriz, beste zigorketa bat bazetorrela ikusten zalako, danei eman zien besterik gabe barkapen osoa.

Batzuen ustez, gogorregia izan zan Zipriano'ren jardunkera. Ala, Afrika artako bi elizgizonen ustez: Nobato'ren eta Felizisimo'ren ustez. Bi auk, batere penitentzirik gabe, bereala ematen bait zioten barkapen osoa, «aitorle» baten gomendio-gutuna lortzen zuan guztiari. Biak, azkenean, Elizatik irtenda zismara joan ziran: •Felizisimo'rena• esan oi zaion zismara».

Beste batzuen ustez berriz, biguñegia ei zan Zipriano'ren jardunkera, eta zismara joan ziran auk ere: Komelio Aitasantuaren •biguinkeriaren» aurka jeikita sasiaitasantu izatera iritxi zan Nobaziano'ren zismara.

...

Iru izan ziran , aldi laburrean, Dezio borrokan illaren atzetik etorri ziran inperatoreak: Ostiliano, Galo, eta

OSTILIANO, Dezio'ren seme gaztea, burutza artu zuan urtean bertan, 251'an, il zan izurriz.

GALO, bi urte egon zan agintaritzan, 251'tik 253'era. Itun baten bidez, lortu zuan Dezio il zuten got'tar garailleengandik pakea. Ez luzerako. Bereala asi bait ziran berriro got'tar aiek borrokan. Danubio'ko gudarozteak, Galo'rekin asarretuta, Emiliano'ri eman zion inperatorezta.

Galo, bere gudariek erail zutena.

Bi urte aietan izan zuan Galo'k Elizari gaitz egiteko beta. Ala, orduan Centum Cellae esaten zitzaion eta orain Civitavecchia esaten zaion urira erbestera zuan Komelio aitasantua, eta, au an bertan il zanean, baita Luzio, aren ondorengo Aitasantua ere. Eta Alexandri'ko Dionisio'k dionez, izan ziran Ejito'n ere espexera jaurtitako kristauak.

Agian, ori guzia, erriko jendillaje arloteari amore ematearren egin zuan Galo'k, jendillaje ark kristauei botatzen bait zien izan-berria zan izurrate gogor baten errua. Orregaitik agian ez zan Galo'ren zigorketa geiegi zabaldu.

EMILIANO'k, iraultzan jeikita Galo erail ondorean lortu zuan inperatoretzara.

Urte ortantxe izan zan erailla bera ere, bere gudarien eskuz, 253'an, eta aren aurka zetorren Baleriano'ren aldera igaro ziran Emiliano eraillaren gudariak.

Gaiñean zuan berriro Elizak, inperio-lur osoan, izugarritzko zigorraldi berri bat.

BALERIANO, iraultza bitarte igo zan inperatoretzara 253'ean. Zazpi urte egon zan agintzen, baiñan ikaragarriak izan ziran urte oiek Elizarentzat.

- Kemen geiagorekin berbiztu zuan kristauen aurka Dezio'ren jazarpena»:
- Fle renewed Decius' persecution of the Christians with grater energy. (Enc. Brit.).

Alare, bere agintaritzako lenen lau urteetan kristauen adiskide azaldu zan eta pakean bizitu zan Eliza. Itz ederrez goratzen du Alexandri'ko Dionisio'k Baleriano'k ekarritako pake-aro atsegin ura. Ez omen zuan ordurarte inperatore batek kristauenganako alako eraspenik eta adiskidetasunik agertu. Eta bere jauregia ia-ia Jainkoaren jauretxe bat izan omen zan..

Zergaitik asmoz aldatuta bere laugarren aginte-urtean Eliza zigortzen ain era ankerrean asi zitzaigun?

Dionisio Alexandritarrak, gero Inperatore izango zan eta orduan ministro zan Makrino'ri botatzen dio aldaketa aren errua. Baleike onek, utsik zeuden Jaurlaritzaren kutzak diruz betetzeko erarik errezena kristau aberatsen ondasunak lapurtzea zala uste izatea. Baleike baitare, inperioaren mugak Rin, Danubio eta Eufrates ibaien ertzetan ain une arriskutsuan zeudelarik, kristauak inperio-barruan arrisku larri izan zitezkeala pentsatu izatea, eta orregaitik arrisku ura ezabatzeko kristautasuna bera erabat ezabatu nai izatea ere.

Danadala, ondo tajaturik zegoan zigorkera.

- Aurreneko aginduan (257) gotzaiei, apaizei eta diakonoei bakarrik agintzen zaie Erroma'ko jainkoei opari-eskeintzea.

Otoiztegietan edo illobietan kristauak biltzera ausartu daitekean elizgizon orori eriotzazko zigorra agintzen zaio. Orduan izan ziran atxilotuak Zipriano eta Dionisio, Kartago'ko gotzaia ura, eta Alexandri'koa beste au. Orduango Afrika'n eta gaurko Afrika'ren iparralde osoan Mauritani'tik Ejito'ra, asko izan ziran meatzetako lan ikaragarrietara epaitutako kristauak.

- Bigarren aginduak, 258'an, espeterik gabe bereala eriotzara galtzen

ditu sasijainkoak gurtzera makurtu nai ez duten eliz-gizon guztiak. Baiña baita, naiz sekularrak izan, Elizan ospe aundikoak diran jendeak ere.

Ala, agindu ortara makurtzen ez diran aundiki guztiak eta baita senatoreek beraiek ere, beren eta beren emazteen kargu ta aberastasun guztiak galduko dituzte. Eta baita bizia ere, jainko zarrei eskeintz-egitera bear bezain leiatsu aurkezten ez ba'dira.

Probintzi guztietan jaurlaritzaren serbitzura lan zegiten guztiei, zituzten ontasan guztiak galduta, lan gogorretara bidaliak izango zirela jakiñerazi zitzairen.

Argi agiri zaigu Baleriano'ren asmoa: Kristau landerregaitik ez zitzaion ajolik. Bururik gabe utzi nai zuan Eliza, ori egin ezkeroko beste aiek ardi galduak bezala barreiatu eta azkenean ezabatuko ziralako ustez.

Zigortuen artean naitanaiez izendatu bear ditugu lendabizi Erroma'ko Aitasantua, II Sisto, eta Kartago'ko eta Alexandri'ko gotzaiak: Zipriano eta Dionisio.

Sisto Aitasantua, lau diakonorekin batera izan zan erailla, auen artean, bat arras ospetsua, Lorentzo Donea. Zarra da, matxarde aundi batean errea izan zalaren ustea, eun urte geroago idatzi zan bere «passio» edo «nekaldian» bai bait dator.

Zipriano'ren gorputza, kristau arruntek jaso zuten, eta beren zapiak aren odoletan busti ondorean, aintzazko abesti-arte obiratu zuten.

Dionisio alexandritarrak berriz, ez zuan bizirik galdu. Soilki erbestera botea izan zan.

Tarragona'n bai, bertako gotzaia, Fruktuoso, bi diakonorekin batera izan zan erailla.

Asko izan ziran martiri eraildako apaiz eta diakonoak, eta aski ugari kristau arruntak ere, Afrika'ko lurretan bereiziki.

Aipa dezagun. nola ez?, Kristo'ri uko ez egiteagaitik, zigorraldi ontan seguruaski martiri il zan Nobaziano sasiaitasantua ere.

Beste askoren artean garai ontako ziriopa dala esan oi da, erriko jende zaborrak erail zuan Tarsizio gaztea ere.

Baleriano'ren eriotzak ebaki zuan bat batean kristauen aurkako zigorraldi zipotz ura.

Inperatore au, Rin ibaiean germaniarren aurkako borroka eta Danubio'ren lurraldeetan got'tarren aurkako Galieno bere semearen eskuetan utzita, Siri'ra sarturik zeuden pertsiarren aurka joan zan, aiek garaitu nairik. Bera izan zan orde garaitua ta baiturik artua. Biziera eta ekintzarik lotsagrrietan erabilli zuan il zan arte, Sapur errege pertsiar garailleak.

Biziera ikaragarri orren ondorioz, ero biurtu omen zan Baleriano inperatore erromar kristau-zigortzaille erukarri ura, eta ba da larrutua izan zala eta aren larrua lastoz beterik zoroastrotarren jauretze batean ezarria izan zala dionik ere.

Oraingoan bai irten zala gaillen Eliza zigorraldi maltzur artatik! Apika fede-ukatzailerik izan zuan. «Sólo en unas actas de los martires, de Africa,

se habla una vez de caidos» (Dedin). •Una vez». •Bein bakarrik»!

GALIENO, (259-268), Baleriano'rensema zan. Berak artu zuan inperiotza aita pertsiarren katigu jausi zanean. Agian Salomina bere amaren eragiñez, izan omen zuan kristauenganako eraspnaren antzeko zerbait. Bestalde gaiñera, zail izango bait zitzaion, inperioa Bretarii'ko itxasotik Pertsiko Itxaskolkoraiño etsaiei ezin eutsiz aurkitzen zan une larri artan, aitag asitako zigorketa era zoroan jarraitzea.

Danadala, naiz ixillean, zigorketa geldierazteaz gaiñera, pake-agindu bat eman zuan kristauen alde. Agindu orren bidez, aske irten ziran kristau espetxeratuak, kendutako eliz eta ontasun guztiak itzuli zitzaizkien kristauei eta Elizari berari, eta yare gelditu zan au, — Eliza bere billerak egin aal izateko.

Ez zuan Galieno'k, gero I Kostantino'k eginen zuan lez, kristautasuna ofizialki •religio licita» biurtu, baiñan bere agindu aren bidez, 40 urte iraun bearra zan pakeaz doaitu zuan.

Ondo baliatu zan doai eder artaz Eliza, Eusebio'k pozik oroitzen digunez, jauretxe berriak eraikitzeke, ebangelioa erromatarrei eta barbaritarrei aldarrikatzeko, nun-naiko jentil txukunen onginaia irabazteke, eta, kristau jakintsuen bitartez, Inperioko kargurik garaienetara iristeko. Probintzietako jaurle edo gonbemadore izateraiño igo bait ziran kristauak.

Esan bearra da gaiñera, idazle kristauek, Dionisio Alexanddiko gotzaiak adibidez, alaitasun geiegirekin goraldututela Galieno'ren ondorengo pakegiro luze ura, Trajano'k emandako aginduaren araura, beti edozein salaketaren mende jarraitzen bait zuan kristau oren biziak. Ala izan zan martiri erailla, epaillaren aurrean jainko zarrak gurtzeari uko egin ziolako, Zesarea'ko Marino, aundikien maillako kristaua.

Gaiñera, Elizaren zoria ere Galieno'ren atzetik etorri ziran Inperatoreen naikeri utsetik zintzilika egon zitzaigun •pakezko larogei urte aietan. Naikoa zan agintari aietako batek Elizari eraso nai izatea, ostera Eliza odoletan ipintzeko. Diokleziano'k egin zuana, bere aurretik agintzen egon ziran inperatore aietako edozeiñek egin zezakean, ala nai izan ba'lu.

Izan ere, Galieno ilda zortzi-bederatzi urte geroago, orixe egiteko une-unean egon bait zan, Eusebio'k eta Laktantzio'k diotenez, Aureliano inperatorea. Bere aolkularien iritzia jarraituz, kristauen aurkako lege bat prestatzen ari omen zan ba inperatore au, eta soilki bere eriotzak salbatu omen zuan zigorraldi berri batetik Eliza.

Udako trumoi-jasa labur baten antzera igaro zan, lertu gabe, Aureliano Inperatorearen arrisku aundiko une beltz ura 275'garren urtean. Orregaitik, arrazoi du Chadwick edestilari inglandar ospetsuak:

•A Igreja disfrutou uma paz inperturbã. vel ate 303. Os proprios govemadores crist:ios de provincia eram tkitamente dispensados da

participaÇao nos sacrificios.. Jaurle kristauei Erroma'ko jainko zarren omenez eskeintz-egitea barkatzen zitzaiea, alegia! -Os ataques partiam entao (orduan) da pena (luma) e nao da espada• (Id.). Elizaren aurkako -erasoak, garai artan ezpatatik ez baiña lumatik etorri zirala• esatean, Porfirio idazlea aipatu nai izan du edestilari onek.

Laister aztertuko dugu filosofilari jentil orren ekintza.

Ez zuan Galieno'k guduketan orrelako adur ederrik izan. Egia da Palmira artu zuala eta ango erregiña, ezaguna dugun Zenobia, naiz erarik goxoenean, Erroma'ra eraman zuala erbesteraturik. Baiñan baztar guztietatik Erroma zemaizen zuten germaniar, got'tar eta pertsiarren aurka ez zuan ezer lortu.

Orregaitik ote? Non-nai jeiki zitzaizkion beintzat, beren buruak inperatore izendatuz, gudarozteko buruzagiak. -30 Tiraranoen Aroa- esan oi zaio Galieno'ren agintaritzako aldiari. Tirano oietako bat, Odokrato, Palmira'ko Zenobia'ren senarra. Bestea, zorigabeko Baleriano inperatorea Eliza zigortzera bultzatu omen zuan Makrino zakar ura, oraindik bere lurraldean kristauak zigortzen jarraitzen zuan gudalburua. Aipa ditzagun 30 -agintaritzar• aien artean, nai egiaz talde artakoak izan ez, bereala Galieno'ren atzetik inperatore izango diran Klaudio eta Aureliano. Biak batera eraso bait zioten Galieno'ri gudaz.

Klaudio, Galieno'ren zaldundiaren buruzagia zan, eta berak il zuan ura, Galieno.

AURELIANO. Klaudio II'ak artu zuan Galieno erail zuanez gero agintaritza.

Baiñan bereala il bait zan izurriz, Aureliano jeiki zan aren atzetik inperatore.

Ez ote zan au buru sendoko gizona? Erroma'ren inperio osoko sinispide guztiak bateratzeko, erlijio berri bat sortzea gogoratu zitzaion, .Eguzki Menderakaitzaren• erlijioa. Eguzkia izanen zan Erroma'ko Jainko Nagusi berria, eta Jainko orren mendera etorri bearra izanen zuten inperio-lurretako jainko jainkeme eta jainkotxiki guztiak.

Jainkotzat zuekan bere burua ere inperatore berriak

.Ni naiz emen jainkoa eta ez zuek; naiz zuek, gudariok, inperatore-jartzen-eta-kentzen esan omen zien bein batean lejiotarrei. Erailla izatetik libratzeko, jainkotasunez jantzi nai izan omen zuan bere burua, urbiltzen zitzaizkion guztiak oiña laztantzera beartuz adibidez. Ez zion ordea leiaketa ark eriotzatik bizirik babestu, gudariek erailla izan bait zan 275'an.

Jaurketaren aldetik, bere ekintzarik aipagarriena, bigarren aldiz Erroma'ren aurka jeiki zan Palmira desegitea izan zan. Desegiñik jarraitzen du gaur oraindik, Siri'ko lekaroan, uri eder arek.

Ezagunak dira inperatore onek aunditutako Erroma'ko arresi bikaiñak. Esan dugu Elizaren aurka zigor-lege bat gertutzen ari zala; eta lege ura ematea eragozi ziona, bizia kendu zion aiztoa izan zala.

Aureliano'z gero 275'tik 284'era bederatzi urteren epean Erroma'k izan zituan zazpi inperatoreek guretzat garrantzirik ez dute, Erroma anarkira nola jausten ari zan adierazteko ez ba'da. Azkeneko urte ontan, 284'ean jantzi zuan buruntza Erroma'k izandako inperatorerik aundienetako batek: Diokleziano'k.

Ikus dezagun ordea, inperatore au aztertzen asi aurretik nola zegoan Eliza III mendearen azkenean. Eta jentil jakintsuen aldetiko erasoa.:

ELIZA IRUGARREN MENDEAREN AZKEN-AROAN

FILOSOFILARIAK OSTERA ELIZAREN AURKA agertu nai izan zizkigun Porfirio izeneko neoplatonizale batek. Eta erromateko jentiltasun jakintsuak filosofiaren aldetik Elizari jaurtitako erasorik aundiena eta mardulena berea dalako, eman bearko diogu merezi duan oarkuntza.

PORFIRIO, odolez kananeatarra, Fenizi'ko Tiro uriaren alboan jaio zan dirudianeaz, Palestina'n jaio zala diotenek arrazoi ez ba'dute. Bere lurralde artan ezagutu omen zuan kristautasuna, baiñan ez dirudi, antziñate artan esan zan bezala, kristau egin eta gero fedea ukatu zuanik. Atenas'en filosofia ikasten egon ondorean Erroma'ra etorri zan, 30 urteko gizon gaztea, Galieno inperatore zala, eta emen Plotino platontasunberrizalearen ikasle egin zan, ta maixu aren •ikasle danak gaintitu zituan idazkeraren edertasunez eta argitasunez»: •In beauty and lucidity of style exceled all the other followers of Plotinus» (Cath. Enc.).

Biotzez maite izan zuan bere maixua eta berak idatzi zuan gero aren bizitza.

Erroman, laister oartu zan jakintsu jentillen larritasunaz. Estu ta bildurturik ikusi bait zituan danak, kristautasunak artzen zuan indarra ezin jasanez.

Eta, berak dionez Galieno'ren ondorengo pake-aro artan aunditzen eta aunditzen ari bait zan Elizaren indar ori..., filosofiaren aldetik kristautasunari erasotzea erabaki omen zuan.

Bi liburu izan ziran erabaki aren ziturik aipagarriena: •Zeruetatiko Erantzunen Filosofia», eta, garrantzitsuena, •Kristauen Aurka deritzana.

Berealaxe jaso zuan erantzuna, — erantzun irukoitz mardula gaiñera — iru izan bait ziran, jakintsu kristauen aldetik iritxi zitzaizkion erantzun aiek:

Aurrenekoa, Jeronimo Deunak asko goratu zuan erantzuna, Olinpo'ko Metodo'rena. Bigarrena, Zesarea'ko Eusebio edestilari ospetsuarena, eta irugarrena, — danetan onena Jeronimo beraren ustez eta, baita, Filostorgio idazle arriokerizalearen ustez ere Laodizea'ko Apolinar'ek eman ziona.

Liburu oiek danak, bai Porfirio'renak, bai bere erantzuleenak, galduak ditugu. Porfirio'ren liburuak, I Kostantino'ren aginduz, erreak izan ziran «egiako erlijioaren aurkako idazti makurrak ziralako». Au lenengo aldia, Jaurlaritza batek kristautasunaren aurkako idaztiak sutaratzen zituan!

Ori bera agindu zuan 448'an II Teodosio'k, baiñan alare, IV mende orren azken aldean, jentil jakintsu ezezagun batek Porfirio'ren idaztiak aurkitu aal izan zituan. Baita liburu oien laburpen aski luze bat egin ere.

Laburpen orren aurka idatzi zuan 400'garren urtearen inguruan Makario Magnes agian Magnesia'ko gotzaiak, •Apokritikos» edo •Azterketa Zabala» izeneko liburua.

Idazti orri eskerrak batez ere ezagutzen ditugu Porfirio'ren iritzi eta gogoetak.

Eta, Porfirio'k Ebangelioetatik ongi datorkiona bakarrik egizat artzen duala, eta gaiñerako guztia gezur utsa etsitzen duala esan ondorean, ikus ditzagun aren iritzi eta gogoeta oiek:

1.- Kristo, bera Jainkoa zala adierazteko ez zan beññere gauza izan. Deabruak ori egiztatu zezan Jauretzearen gaillurretik beera jauzi egiteko eskatu zionean, Kristo'k, bildurrez, ez zuan ori egiteko gaitasunik izan.

Ume aul bat bezala jardun zan Pilatos'en eta Apaiz Nagusien aurrean.

Gizagaixo bat bezala ibilli zan berriz bere eriotzean eta bere nekaldi guzian.

Ez zan nekaldi eta eriotz aietatik bere burua gaizkatzeko gai izan.

Gurutzeko eriotza, ez da iñolaz ere egiazko Jainko bati dagokion eriotza.

Berbiztu ondorean emakumetxo txepel ezezagun batzuen aurrean agertu zan.

Nor izan ba'litz eta egiaz berbiztu ba'litz, Pilatos'en, Apaiz Nagusien, Erodes'en eta Erroma'ko Senatu berberaren aurrean agertuko zan.

Baita bere zeruetara igotzeari ere aunditasun eta zabaltasun geiago eman bear zion. Orrela, mundu guztiak egiazko Jainko lez onartua ta gurtua izan zedin.

Ori egin ba'lu, ez zuten, alperrik, bere jarrailleek jasan duten ainbat zigorketa gogor jasan bearrik izango. Kristo da beraz, kristauek jasan bear izan dituzten neke eta eriotz guztien erruduna.

Ebangelariak ez zuten, kontatzen dutenik ez entzun ez ikusi. Orregaitik, ebangelioek diotena, ebangelariak beraiek asmatutako ipuia besterik ez da.

Txorakeriz eta zentzugabekeriz beterik daude gaiñera ebangelioak eta idazti kristau guztiak.

Oridalata ebangelioetako Kristo baiño askoz pertsona miresgarriagoa da Tiana'ko Apolonio filosofilaria.

Zuzentasun osoz izan zan Kristo eriotzarik iguingarrienaren bidez zigortua.

Kristauak, ildako jainko bat gurtzen duten jendeak dira.

2.- Lenen-Elizaren buruzagiek narda jasan eziña ematen diote Porfirio platontasunberrizale txukun apaiñari:

Kepa, lenen aitasantua, ez zan agertu, Kristo'k eman zion eginkizun garai artarako, kixazko gizona. (Porfirio'k ez du zalantzan ipintzen Kepa eginkizun artarako izendatu zuana Kristo bera izan zanik. Alderantziz, Kristo'ren utsegiterik aundienetako bat, — bera jainko ez zala adierazten duten utsegiteetako bat eginkizun garai artarako Kepa izendatzea izan zala, esaten du. Kepa da beraz, Porfirio'rentzat, Elizaren Buruzagi Nagusia,

ots, Elizaren lenengo Aitasantua).

Paul, gezurtia eta azpi-jokuzalea, ez jakiña, orain gazuza bat eta gero bestea maiz esaten duan txolin bat izan omen zan, eta, batez ere, — platontasunberrizale ark entzun ere ez zezakean gauza ludiaren amaia, azkenjuizioa eta iildakoen berbizkundera! aldarrikatzen zuan sasiprofeta zoroa.

3.- Era berean zapuzten ditu Porfirio'k kristautasunaren egirik garrantzitsuenak:

Kristautasunak ez du jainkobalcartasuna erakusten, jainkoaskotasuna baizik.

Zergaitik? Aingeruak ere izaki jainkotiarrak bezala aurkezten ditualako.

Jainkoa emakume baten erraietara sartu ta an gizon egin izatea, pentsatu ere ez daitekean gauza omen da.

Eukaristia, erririk basatienek ere sekulan asmatu ez dezaketen zentzugabekeria. •Nere aragia jan eta nere odola edan• esaten zuanean Kristo abereen maillara jetxi omen zan.

Bataioan urak pekatu guztiak barkatu dezazkeala esatea, zentzugabekeri bat esateaz gaiñera, gizakumeak gaiztakerira bultzatzea omen da, egin dezaketen txarkeri guztia gero bataioan barkatuko zaiela sinisteratzea dalako.

Kristautasunak gaixoentzako eta txiroentzako erabili oi duan arreta, alukeri bat izateaz gaiñera parregarria ere bai omen da.

Kristauek neskustasunari dioten eraspana ta maitasuna berriz ez ditu Porfirio'k aditu ere egiten.

4.- Ondo egiten omen dute Agintariek kristautasuna zigortzen dutenean: .Zer izan daiteke ba geiegizko zigorra Aberriaren legeak ukatzen dituztenentzat«?

...

Ez dakigu nola erantzun zioten aipatu ditugun iru idazle kristau aiek Porfirio erretxinduari, baiñan ez zan baldarra izango aien erantzuna, denbora aietako gizonik jakintsuenetako bat izan zan Jeronimo Doneak ainbeste goratu zituanean.

Gure ustez, Porfirio'ren liburua ez da arrazoizko idaztia, sentimentu utsezkoa baizik: sentimentu samindu minberatu baten idaztia. Porfirio izugarri gizon sentimenkoaia zan. Egon zan bere burua iltzeko une-unean ere. Ainzuzen Plotino bere irakasleak salbatu zuan okerkeri artatik.

Porfirio'k ez zuan sinismenik. Jainko gabea zan. Alatagutziz, siniskerira iraulixea agertzen da, Erroma'ko sasijainkoei zegozkienetan. Bere «erlijio• bakarra, Filosofia zan, Plotino bere maixuaren platontasunberria bereiziki.

Kepa Done Apostoluak Josu'ri bezala jarraitu bait zion leialtasun osoz Porfirio'k bere maixuari.

Filosofilari jainkogabea zalarik, razionalista edo arrazoi-uts-zalea ere

bazan. Alatagutziz, baita aski eszeptiko edo «edozerarako sineskaitza» ere.

Arazoi du Chadwick edestilariak: «Os suos numerosos escritos, dedicados a questes religiosas, denunciam um estranho misto (nasketa) de racionalismo cptiko (eszeptikoa) e de credulidade supersticiosa en relaÇão a tradka'o politeista do pasado e sugerem profunda inseguranÇa interior».

Beste idazti batzuetan berriz, oso erlijiozale eta aszetika zintzoaren maitale agertzen zaigu Porfirio razionalista. «InseguranÇa interior»: «Barreneskietasunik-eza» (id).

- Plotino'ri, bera oartzeko bearbada, kristautasunaren aurkako idaztiak ez zitzaizkion adimenetik atera. Erraietatik atera zitzaizkion.

Ezagutzen zituan Origenes'en liburuak. Eta baita gaiñerako idazle kristau ospetsuenak ere, baiña ez die liburu aietako arrazoiei arrazoi bidez erantzuten. Ez da gudu ortara ausartzen, arriskugariegia bait zan bere asmorako.

- Plotino'ren asmoa, bere animaren bazka bakarra zan filosofizko kultura zarra kristautasunaren filosofi garaillearen erasotik salbatzea zan. Ikusten zuan gero ta geiago zirala kristautasunaren filosofi ura ontzat artuz Elizara sartzen ziran jentil jakintsuak, eta ibilkera ori geldierazi nai izan zuan.

- Ortarako, kristautasunaren filosofia alde batera utzita Bibliari erasotzen dio. Baiñan ez da saiaturko arrazoi filosofikoiaren aldetik Bibliak diona egia izan daitekean jakiteko ikerketa txikienarik egitera.

Soilki Bibliatik kristauek aszetikarako, liturgirako eta eguneroko bizitarako artutako ikaskizun eta oituretatik, jakintsu jentil aberatsei jasan-eziñak gertatzen zaizkien puntu aiek bakarrik jasoko ditu: Karitate edo txiroenganako arreta, dirurik gabeko gaixoei laguntzeko leia, ezkontzarik aunditsuenak utzita neskuts gelditzeko neskatillen asmo sendoa...

Baita erromatar jakintsu aundiki aientzat siniskaitzak edo mingarriak daitezkean gauzak ere: Eukaristiko misterioa; judutar bat, Kristo, jainkoa dala sinistu bear izatea; Kristo Jainko-Gizon osoaren misterio guzia; Eliza Kristo'k Kepa eta Apostoluak bezalako jende lander, txiro, ezjakiñen eta ezerezen eskuetan utzi izatea...

Eta ori guztia, filosofizko jakintzaren aldetik ez baiña solasketa jostalariaren aldetik aurkeztuko du Plotino'k. Kristautasunaren filosofi berria garaituta jentillediko filosofi zarra garaille ateratzeko, erromatar jakintsuen eta agintarien aurrean kristautasuna iguingarri eta parregarri agertzea izan zan ba bere asmo nagusia.

Beste ura, filosofizko arrazoiketaren bidez filosofi kristaua garaitzea eta filosofi jentilla garaille ateratzea, eginkizun zaillegia bait zan Porfirio'rentzat eta beste edozein filosofilari jentillarentzat, Elizak bere altzoan ain gizon jakintsuak bazituan une dizdiratsu artan.

Orregaitik, ez duzu Porfirio'ren idazkietan arrazoiketarik aurkituko. Ezta giza-arrazoi utsarentzat ain ulerkaitza dan Irutasunaren misterio gurenaren aurka ere. Ez bait du Irutasunik aipatu ere egiten, naiz dogma ori

kristautasunaren muiña izan, eta ez-kristautentzat ain ulerkaitza gertatu.

Aski gogorra irten zaigu Porfirio'ren antzirudia. Goxoago erabiltzen dute beste batzuek. Daniel-Rops'ek adibidez. ..Sakonki erlijiozalea eta baita jentiltasuneko bai-ote-ez-ote zalantzatsuen artean egiaz argitasun-billa ibilli ziran izpiritui leial guzti aien eredu unkiagarria» ere izan zala bait diosku: •Profondement religieux, même un exemple frappant de ces ames sinc&es qui, a travers les incertitudes et les contradictions du paganisme, chercheront vaiment la lumi&e».

Aburu berekoa izan zan Doneaugustin platonzalea ere. •Porfirio'k eta Platon'ek alkarrekin alkartu ta alkarrekin erlijioaz mintzatzeko zoria izango ba'lute, biak kristau egingo lirakela» esan bai zigun.

Baleike. Guk soilki Porfirio'ren idazkera aurkeztu ta ikertu dugu, eta ez dugu aren biotz-zabaltasunik idoro. •La nota característica en el tono con que polemiza Porfirio con el cristianismo es el amargo sarcasmo; no se ve aquí rastro alguno de espíritu abierto que se esfuerce objetivamente por entender un movimiento religioso de signo singular; es mas bien una cerrada actitud partidista ante la lucha entre la civilización antigua y el cristianismo, que ha entrado en su estadio o momento decisivo» (Dedin).

Daniel-Rops berak ere onako au aitortzen du Plotino'z ari dalarik: •C'est une sorte de Voltaire matin de Renan, un fanatique, mais un ennemi dangereux»: •Voltaire-Renan batera naasirik sortutako zerbaiten antzekoa izan zan; buru-bero bat, baiñan arriskutsua alatagutziz».

Garai artan, filosofilari platonatasunberrizale txukun batek naitanaiez ala pentsatu eta ala jardun bear zuala, eta, orregaitik, ez dala kontzientziaren aldetik errudun?

Ori beste arazo bat da.

Ez kristauen artean, baiña bai kristautasunari begira larri ta asarre zuenden jentillen artean, indar-izan zuala dirudi Porfirio'ren ekintzak, III mendearen azken aldera zakarragotu egingo bait da aundiki, aberats eta jakintsu sasijaikozaleen Elizaganako gorrotoa.

Oridalata, Inperio'ko gizadiaren goi-mailletan gerturik aurkituko du giroa Diokleziano'k, goi-mailla aietatiko osteketa edo protestarik gabe kristau-erailketa asi ta aurrera-eraman aal izateko.

Jerokles idazle eta politikalaria jarraitu zuan Porfirio'ren lana. Idazle bezala, ez zuan Porfirio'k esan ez zuanik esan, auxe bakarrik izan ezik: Kristo 900 gizoneko lapurtalde baten kapitana izan zala. Orrelako zerbait Zelso'k, esan zuan Jerokles'en aurretik. Eta ondorean ere ez dut uste beste iñork esan duanik.

A! Baita, badu Porfirio'rekin beste ezberdintasun bat: Tiana'ko Apolonio'ri ark baiño askoz garrantzi aundiagoa ematen diola, orrela Kristo'ren irudia koxkortu eta ezabatu naiez.

Politikari dagokionez, Jerokles Libano-Arabi ta Bitini'ko jaurle eta Ejito osoko buruzagi nagusi ere izana zan, eta zer-ikusit arras aundia izan omen zuan Diokleziano'ren zigorketaren gertuketan. •Auctor et consiliarius ad faciendam persecutionem», ots, •zigorketa ura egiteari dagokionez egille eta aolku-emaille• izan zala, Laktantzio'k idatzi zigun.

SAKRAMENTUAK ELIZAREN LENENGO LAU MENDEETAN

Tertuliano'k eta bere azkeneko Iazkeriak zuzenean garamazk ' Eliza zaar artako sakramentu-bizitza aztertzeraz.

Mezaz mintzatuak gera-ta, emen, garai artako bi sakramentu aundiren erabilketa aztertuko dugu: Bataioaren eta Aitorketaren erabilketa ainzuzen.

BATAIOA.- Errez bataiatu zuten jendea Apostoluek Palestina'n. Kepa'k pentekoste-egunean adibidez. Edo Kandace Etiopi'ko erregiñaren diruzaiña Felipe diakonoak. Eta, Kepa berak, Kornelio eunkaria.

Orrela bataiatutako aiek ordea juduak ziran, edo judutasunaren jarrailleak. Itun Zarra ezagutzen zuten. Bazuten egiazko Jainkoaren eta jainkoaren aginduen eta egintzen ezaguera.

Bestelakoak ziran greziar-erromar jentilleditik Elizara urbiltzen a_sl 2 iran kristaugai berriak. Auekin Paul'ek eta beste apostoluek, bataioa eman aurretik nola jardun zuten jakitea izango litzaiguke benetan jakingarri.

.En los tiempos apostólicos, los que conocían y aceptaban la doctrina de Cristo recibían en seguida el bautismo y eran admitidos entre los fieles. Dios suplía con gracias extraordinarias las deficiencias de instrucción de los primeros cristianos- (Llorca).

Edestilari bat ez daiteke orrela mintzatu.

Danadala laister ikusi zan, — Erroma'ko inperatoreen 2jgorketa-arogogorra asi ondorean batez ere bearrezkoa zala bataioa eskatzen zutenentzat, bataio-aurretiko prestaketa sakon bat. Arrezkero Elizak ez bait zezakean bere altzora jende sendo ziurra besterik artu.

Prestaketa ari, laister •Katekumenetza- deitu zitzaion. •Entzuteko aroa esan nai duan itz ori ere Tertuliano'k sortua omen dugu. Bai ote? Baleike. Izen ori, agertu, 200'garren urtearen inguruan agertzen bait zaigu aurreneko aldiz.

Izena baiño lenagokoa zan ordea gauza; II mendearen lenen erdian .Didaje- eta •Bemabe'ren Gutuna- izeneko idazkiak bataioaren aurreko gertuketaz mintzatzen bait dira.

Ez zan, asieran beintzat, gertuketa ura, Eliz guztietan era berdiñean egiten. 150'garren urterako ordea, ederki eratua agertzen zaigu Donejustin'en «Apologia-n.

IV mendearen lenen-urteetan, 305'garren urtearen inguruan, katekumenetzak bi urte iraun bear zuala erabaki zuan Elbira'ko kontzilioak.

Sortu zan ordea jendearen artean, — eta ori IV mende ortan batez ere, katekumenetza geiago luzatzeko oitura, edo, egokiago esanik, katekumenoen talderako izena emanda bataioa artzea zartzarorairio luzatzeko oitura.

Ta baziran, — ala I Kostantino inperatorea bera bataioa, iltzeko ordurarte atzeratzen zuten .kristauak- ere.

„Kristauak...., naiz oraindik bataiatuak egon ez, katekumeno aiek Elizak semetzat artzen zitalako. Orregaitik, bataioa artu aurretik iltzen ba'ziran, „gogozko bataiwick• salbatzen zitala erakusten zuan. Are geiago martiri iltzen ba'ziran, Biotz ori, egiazko bataioa lez artua izan bait da beti Eliza-baicán: -odolezko bataioa-.

Ikasketa, otoizketa, eta — batez ere zigorketa-aroetan **kristau** zintzoak izateko gai ziralako erakustea, zan, katekumenoen eginkizuna, Elizak bataiatuak izateko duin etsitzen zituan arte.

Mezaren lenen zatia — irakurketaren eta omiliaren zatia **entzuten** zuten; Bigarren zatia, ots, eukaristi-zatia asi aurretik, elizatik kanpora irtetzen ziran.

Azkeneko egunak arte ez zitzaizkien, sakramentuei-buruzko, batez ere eukaristiari-buruzko, atal batzuk erakusten.

Izkutuki oiei „arkano- esaten zitzaien: •izkutuan gordetako-, ainzuzen. Ez da or misterio lilluragarrien billa ibilli bearrik. Elizak ez du gaur eta ez zuan orduan ere, sailtxo batentzat bakarrik izkutuan gordetako irakaspenik eta zirimonirik. Zigorraldi gogorreko garai artan isiltasun ura bear-bearrezkoa zuan Elizak. Orretxegaitik bakarrik ez zizkien arriskugarri zetzaiizkioken atalxo batzuk katekumenoen erakusten, auek ondo eziak zeudela ikusten ez zuan bitartean.

Ipolito erromat2rra'z itzegiñak gera. Bere liburuak aipatuak ditugu: „Eilosophumena. («Filosofikeriak»), -Syntagma- (Konponketa), “Daniel Profetari-buruz Azalpenak. eta •Traditio Apostolica- edo •Bidaliengandik Datorkiguna.. -Constitutio Ecclesiastica- («Elizaren Eraketa.) ere esaten zaion azkeneko bere liburu orren bidez, Ipolito dugu katekumenetza III mendearen asieran nola zegoan eratua beste iñork baiño lenago erakusten diguna.

Erroma'ko Elizaren katekumenetzari-buruz ari zaigu Ipolito:

- Zeatz aztartzen ditu Elizak bataioa eskatzen duanaren oiturak, bataio-
eskalea katekumenetzara artu baiño len: aren asmoak, aren biziera, aren
ezkontzari-buruzko xeetasunak, aren gizarte-mailla... Jopua ba'zan eta
kristaua bere jabea, jabe aren oniritzirik gabe ez bait zan bataio-
eskalea katekumenetzara artua izaten.

- Eskalea naimen zintzoa datorrelako ziurtasunak ernan bear ditu ura
ondo ezagutzen duan kristau zar batek. Geienetan, kristau zar au, katekumeno
izatea eskatzen zuan ura ebangelizatu zuana bera izaten zan.

- Ogibide batzuek utzi-bearrean aurkituko zan katekurnenogaia.

Adibidez, bere lana jauretxe jentil batean egiten bazuan, aztia ba'zan,
antzokietan antzertilan ba'zan, eta, geroago, Elbira'ko kontzilioaren aginduz,
gurdi-laisterketetako gurdi-gidari ba'zan, eginkizun ori ere uzteko aginduko
zitzaion, kristau ororentzat debekaturik zeudelako.

- Soldaduskari ere ez zitzaion orduan begi gozoz begiratzen. Batez ere,
gudariak maiz aski ospakizun jentilletan parte artu bearrean aurkitzen
ziralako. Ikusi genduan ortaz zer pentsatzen zuan Tertuliano'k.

- Katekumenoen artetik ezabatua izan bear du, bein katekumenoa izanda, gudaroztera sartzen dana, Ipolito'k berak dionez.

- Biziera zikiñeko gizakumeak, emagalduek adibidez, ez daitezke iñolaz ere katekumenetzara sartu. Norbaitek gizon-emakume arteko arazorik badu, ezkontzaren bidez aurretik zuzendu bearko ditu arazo oiek, katekumenetzara sartu nai ba'du.

Iru urteko katekumenetza, beste azterketa batez amaitzen da. Bataiatugaiaren bizitza guztia arakatzen da azken azterketa orren bidez. Lenen mendeetako Eliz arek ugaritasuna ez baiña bikaintasuna nai bait zuan bere altzorako.

Bataioa, Pazkoz eta Pentekoste-egunez egin oi zan; batailaria, gotzia bera izaten zan. Egun aiek zituan Elizak bere jai-egunik aundienetakoak.

Bataio-ondorean sendotzako sakramentua ematen zitzaien bataiatu berriei.

Baita euskaristia ere. Eta ekintza irukoitz orri, kristau bizitzaren astapena esaten zitzaion.

Jendea nola bataiatzen zuten jakiteko ere baditugu iturburu zarretatik albiste goiztarrak:

Uraz gaiñera itzak ere erabiltzen zituztela badakigu, bai Paul apostoluak bataioa •biza dakarten itzak- erabilliz egin bear dala esan zigulako, bai Josu'k berak, bataioa, •Aitaren eta Semearen eta Gogo Deunaren izenean-egiteko agindu zigulako.

II mendearen asieran, orixe oroitzen digu Diciaje'k ere: •Bataioa, Aitaren eta Semearen eta Gogo Deunaren izenean egin bear duzute».

Izan da alare, Bidalien Egiñetan Lukak •samaritarrak soilki Josu'ren izenean bataiatuak izan zirala. diolako, nonbait bataioa agian Irutasuna aipatzeke egiten zala uste izan duanik. Ez dakigu ordea Luka'ren esaldi orrek ziurki zer adierazi nai duan. Auxe agian:

Samaritar aiek «Josu'ren izenean-, ots, -Josu'k agindu bezala- izan zirala bataiatuak, baiñan bataiawak bakarrik izan zirala, ta, sendotzaren sakramentua artu gabe zeudelako, bigarren sakramentu au ematera joan zitzaizkiela Jerusalem'dik Kepa eta Jon apostolu biak.

Esaldi orrek, soilki samaritarren bataioa gaizki egiña izan zala esan nai baluke, Samari'n zegoan Felipe diakonoa bera naikoa bait zan bataio ura zuzenki bir-egiteko.

Iru ziran bataioa emateko erak:

Aspertsio edo iiztadura: (jende-multzo aundi bat bataiatu bear zanean erabiltzen zan era).

Ixurketa: (gaixoekin bereiziki erabiltzen zana; guk gaur bezala ura burura jaurtiz).

Murgilketa: (orduan geienik erabili oi zan era; bataiatu-bearra urean

sartu, eta aren gaiñera burutik beera ura ixuriz).

Azkeneko era au, erreka garbietan, etxeetako baiñu-ontzietan, eta geroago, jakiña, baptisterio edo bataitegietan egiten zan. Asieran ordea, erreketan geienik:

•Las denominaciones baptizare, mergere, tingere, tal como se hallan reproducidas en las escenas bautismales de las catacumbas y sarcófagos, preferentemente el bautismo de Cristo, nos indican que el bautizando se mete desnudo en el agua, independientemente de su mayor o menor profundidad y recibe sobre la cabeza un chorro de agua que por un momento le envuelve todo el cuerpo como un manto- (GER).

Elizaren aurren-aroko idaztiak jende aziaren bataioaz bakarrik mintzatzen zaizkigu. Alare, •bai Itun Berriak, bai II mendeko Eliz-Aitek argi utzi ziguten esana, elduentzat aiña dala umetxoentzat ere salbapenaren doaia. Paul Apostoluak berriz, kidetasun bat dagi bataioaren eta erdaintzaren artean. Aitorpen oiek oiñarriztat artuz, badasaiguke umetxoen bataioa Apostolu beraiengandik datorkigun oitura dala». (Enc. Brit.):

•Both the New Testament and the Church Fathers of the 2nd century make it clear that the gift of salvation belongs to children as well as to adults, and the apostle Paul draws a parallel between baptism and circumcision. On the basis of such evidence it has been argued that infant baptism was a custom that had come down from the apostles themselves».

Ori, umeak bataiatzea, Bidaliengandiko oitura dala, antziñate artan bertan Origenes'ek ere esan zuan. Seguruaski ori esan baiño lentxeago, Tertuliano umeak bataiatzearen aurka irten zalako!

Orrek zer esan nai duan? II mendearen amaierako umeak bataiatzea oitura orokorra zala Elizaren altzoan, eta ordura arte oitura zar orri, apostoluen denbora beretik onuntz, ez ziola iñork eragozpenik ipiñi, eragozpen-ipintze au egitera Tertuliano etorri zan arte.

Erejeek bataiatutakoen bir-bataiaketaz astiro mintzatuak gera. Oroi, birbataiaketa eskatzen zuala Afrika'ko Elizak Zipriano buru zuala, bigarren bataio orren bearrak ez zala zion Erroma'ko Elizaren aurka.

Laister ikusiko dugu nola erabaki zuan erabat auzia, donatikerizaleen aurka ari zala, Augustin Doneak. Bataioari dagokionez, egiazko garrantzia duan punttua, •Nork- ez baiña •Zer» dala, argi utzi bait zigan bein betirako: Ez duala garrantzirik bataio nork egin duan jakiteak, bataiatzerakoan zer egin dan jakiteak duala egiazko garrantzia; bataioak beti, ongi egiña izan ba'da, berez bait du anitua garbitzeko almena.

Iparraldetik etorritako barbaritarrek kristaudia ankaz gora ipiñi zuten ezker, poliki-poliki ezabatzen joan zitzaigun katekumenetza.

...

AITORTZA.- Lenen mendeetako kristaudentzat, pekatuen barkapenerako sakramentu aundia, sakramentu bakarra, bataioa zan.

Pekatuak barkatzeko Sakramentu aundia. Garai aietan bataiatzen ziranak, ezaguera-adiñera ondo iritxitako gizon-emakumeak izaten bait ziran batez ere.

Sakramentu **bakarra**. Ez bait zuten pentsatzen kristau aiek, bataioa artzeko bere pekatuetaz benetan damutu zana, ostera pekatuta jausi zitekeanik.

Baiñan ezagunak zituan Elizak •arrai on eta txarren. parabola eta •garia ta zekaleari-buruzko» beste ura. Bazekian ez zala beñere pekatuz zearo garbia izango, eta ez zeukan azturik bazuala Jaunagandik artua pekatu guztiak barkatzeko almen orokorra.

Orregaitik beti izan da bizirik Elizaren altzoan, bataio-ondoko pekatuak garbitzeko bigarren Barkapeneko Sakramentu bat: guk gaur »Aitortza» eta beste kristau aiek orduan «Penitentzia» esan oi zioten sakramentua. Garai artan, sakramentu oni dagozkionetatik atalik nabarmenena ausoluzio edo barkapena artu aurretiko penitentzia bait zan.

Izan ere, ez ziran txantxetakoak, pekatarietara ipintzen zitzaizkien penitentziak! Ots, ordea; penitentzi larrietara ipintzen zitzaizkien Elizak alako penitentzi larri aiek.

Alatagutziz izugarri gogorak eta astunak iruditzen zaizkigu guri, pekatariaren bizi guztia-zear iraun zezaketen penitentzi aiek.

Orrelako penitentzi larri oiek ordea, ez dirudi Elizaren asierakoak diranik. Geroagokoak baizik: ereji batzuek, — gogorkeri eta zitalkeri neurri gabeetara jo zuten ereji aiek — Eliza-baitan ere gorgorkerizko giro bat sorterazi zuten denborakoak.

Elizak, obena guztiak barkatzeko almena baduala, eta, almen ori, iñundiko mugarik gabekoa duala, zalantzarik gabe sinisten zuten antziñako kristauek, II mendearen bigarren erdian ereji zipotz aiek almen ori Elizari ukatzen ala mugatzen asi zitzaizkion arte. I Klemente Aitasantuak, Antioki'ko Esmirna'ko Polikarpo'k eta Erroma'n Ermes idazleak, ez zioten, II mendearen lenen erdian, iñoiz ere Elizaren almen orokor orri mugarik ezagutu.

Almen ori ukatzen zuan Tertuliano'k berak aitortzen du, aurka dituala, atal orri-buruz, kristauen betidandiko ustea eta Elizako gotzaien kopurua. «Y por ello se ve forzado a apoyar su tendencia rigorista en las revelaciones nuevas que el Espiritu habria hecho en la Iglesia por medio de Montano y Priscila» (GER).

Ortaz ordea eta Dezio'ren denborako fede-ukatzaille aien barkapenari-buruzko arazoetaz, Tertuliano'ren eta Nobaziano'ren aburuak aztertzerakoan itzegiñak gera.

Barkapenaren ordaintzat Elizak pekatariari eskatzen zion penitentziatz itzegitea falta zaigu. Ta ori egiteko, liburu onen aroari dagokionez, bi zatitan ebakiko dugu antziñako penitentziaren edestia:

Aurrenekoa, Apostoluen garaietatik 150 urte geroago Ermas'ek bere «Artzaia» argitaratu zuan arteko denbora izango da. Bigarrena, urte ortatik,

barbaritarrek Erroma menderatu zuten arterakoa.

Baiñan esan dezagun, asteko, guk aztertuko duguna, Elizak «Poen itentia Publica» esaten ziona dala: •Agiriko Penitentzia»; elizkide guztien aurrean egin bearra zana.

Penitentzi orretaz gaiñera, beste penitentzi bat, gaurkoa bezalako penitentzia, ixillean ematen zana eta izkutuan betetzen zana, ibai al zan orduan Eliza-baitan?..

Baietz diosku opusdeltarrek zuzendutako GER entziklopedi ezagunak: •En los primeros dias la penitencia pUblica o •canónica» convivía con la penitencia privada». Izan ere bai bait dirudi •que la penitencia canónica, por su carácter pUblico no podía ser aplicada en todos los casos de pecados secretos, que son la mayoría».

Ezetz diote ordea, edestilaririk geienek: Ez zala orrelako penitentzi isillezkorik izan. Penitentzi bakarra, pekatu larri guztientzako penitentzi bakarra, guztien aurrean bete-bearra zan penitentzia zala. Beste penitentzi mota ori, gaurkoaren antzeko penitentzi isilla, •geroagoko erakunde bat izan zala»: •Private penance was a late development» (Enc. Brit). Ikusiko dugu noiz sortu zitzaigun isillezko penitentzi-mota ori.

Eta penitentzi ura gaiñera, guztien aurrean bete bearra zan penitentzi ura, bein bakarrik egin zitekeana zan. Pekataria, ostera pekatu larrietara jausten ba'zan, ez zitekean berriro, bigarren aldiz, penitentzi gintzan asi.

Eta, elizak ausoluzio edo pekatuen barkapena penitentzi ori egin ondorean bakarrik ematen zualako, elizaren barkapenik gabe gelditzen zan, penitentzia egin ezkeru ostera pekatu jausten zana. Jainko errukitsuaren eskuetan uzten zuan Elizak pekatari orren salbamena.

Lagunduko zion Elizak orrelako orri konbertsio-lanean, baiñan ez zion ausoluziorik emango. Bein bakarrik ematen zuan ausoluzioa. Bein bakarrekoa bait zan ausoluzio-aurretiko penitentzia ere.

Emen berriro beste era batera mintzatuko zaizkigu GER entziklopediko opusdeitarrek:

•Como la penitencia solemne se daba una sola vez y al parecer sólo por pecados gravísimos y a pecadores cualificados, surge la pregunta: Cómo perdonaba la Iglesia los pecados, mortales si, pero menos graves y a los que reincidían en los gravísimos ya penitenciados alguna vez? Una respuesta la mas obvia desde la praxis posterior de la Iglesia, es remitir a la penitencia sacramental privada: ya que la publica era irrepitable, los que volvían a caer en los pecados gravísimos o en los pecados mortales menos graves, eran reconciliados por la penitencia privada, similar en lo substancial a la que ahora se administra..

Baiñan berriro ere edestilaririk geien-geienek, ia danek, izkutuko penitentzirik orduan Elizaren altzoan ez zala esango digute. Antziñako kristau aiek, ala adibidez Ermas'ek, ez omen zuten ba sinisten, penitentzia egin ondorean berriro pekatu jausten zana, benetan damututa egon zitekeanik.

Egia, alatagutziz, Erroman Ermas'ek, bein bakarrik egin zitekean penitentzi orri, ostera bir-egiña izateko, ataka txiki bat iriki ziola. Baiñan, seguruaski, munduaren azkena gain-gaiñean zala uste izan zualako. Apokalipsi ta eskatologizalea bait zan Ermas.

Gaiñera, errez dakusgu; penitentiaren bir-egite orri irikitako ataka, .pastoralari», ots, •gogozaintzari» dagokion gauza geiago izan zala legiztiari dagokiona baiño.

Alare, gogozaintzaren barrutike gauzak, naiz astiro ta poliki, errez aldatzen bait dira azkenean legiztiaren barrutira, sortu zan Eliz batzuetan, Ernas'en atakatik aurrera joz, larritasun bat edo bestearen arrisku-uneetan, penitentzian bir-egintza yare bat uzteko oitura.

Jedin edestilariak ordea, agirizko penitentzia bein baiño geiagotan egin aal izate ori, Sortaldean beintzat betikoa izan zala, adieraztera eman nai digu.

III mendearen asieran Sirl'n idatzitako, — eta penitentzian-buruz xeetasun asko damaizkigun — •Didaskalia Apostolorum» edo •Bidalien Irakasbidea» izeneko idaztia oiñarriztat arturik, onako atal auek azpimarratzen ditu:

- •Didaskalia» orrek, agiriko penitentzia bein bakarrik egin bearra zanik aipatu ere ez duala egiten; alderantziz penitentzi ori bein baiño geiagotan ere egin daitekeana zala uste izateko bidea ematen digula.

- Ori bera gertatzen dala, •Constitutiones Apostolicae» edo •Bidalien Arauak deritzan idaztiarekin: Ez duala, idazti onek, agiriko penitentzia bein bakarrekoa zanik ezagutzen.

- Ez dala uste izatekoa, penitentzi orren asieran, penitentzi ori bein bakarrekoa zanik.

- Agiriko penitentzia bera, asieran goxoagoa izan zala eta gero joan zala gogortzen. Ori Eliza-baitan iskanbillik gabe gertatu daitekean gauza dala. Ez ordea alderantzizkoa. Asieran penitentzia gogorra izan ba'zan, eta gero biguintzen joan, biguintasun ori erejizko •laxismus» edo •biguinkeria» lez salata izango omen zan ba zalantzarik gabe.

Sarkaldean ere, Ermas'ek ematen diguna omen da, agirizko penitentzia birregin ez daitekela lenen aipua. Eta ori ere, gogozaintzako arrazoiek bultzata esan omen zuan Ermas'ek.

Auzia garrantzi aundikoa dalako, entzun Dedin beraren itzak gaztelarazko itzulpenean; ez bait dakit nik doixkeraz:

•Hay que destacar aun expresamente una particularidad de la doctrina penitencial de la Didascalía: que en parte alguna hace mención de que la penitencia postbautismal, tan minuciosa y cuidadosamente descrita por ella, sea Única.

Esto sorprende en una obra que tan reiteradamente insiste en la personalidad de los pecados cometidos después del bautismo.

•Parece mas bien suponer la reiterabilidad de la penitencia después de la reconciliación, ya que la niega en un solo caso: en el denunciante

recidivo. En este punto podría haber hecho alguna referencia al principio (itz onek emen •araua• esan nai du) de la posibilidad única de la penitencia y, sin embargo, fundamenta este caso amplia y minuciosamente con otros argumentos.

•Entre la prkctica penitencial eclesdstica de la Diclascalia y la prkctica de la excomunián en la sinagoga, hay tal dimulo de chocantes paralelismos (Rahner), que algunos de sus rasgos en la Diclascalia solo pueden entenderse como persistencia un tanto avanzada de la prkctica sinagogal de la excomunión. Ahora bien, en esta, todo excomulgado puede ser reiteradamente absuelto.

Si se admite además que las Constituciones Apostólicas, procedentes también del ambito sirio, no conocen tampoco la unicidad de la penitencia eclesdstica, se impone la hipotesis de que la penitencia eclesdstica, dada una sola vez, no tuvo vigencia general en oriente; es mas sabe pensar que la penitencia única no puede tenerse simplemente como la prkctica primigenia. En occidente, como se expuso arriba, hallamos su rastro por vez primera en Hermas, que la funda en consideraciones pastorales.

• tal vez Hermas sólo la introdujo como concesión a una corriente rigorista, toda la anterior posición de la Iglesia en la cuestión penitencial pudiera caracterizarse como un periodo de mayor suavidad; una evolución inversa, del primitivo rigor a un creciente laxismo, apareceria mas bien como una herejla..

Itxurazko gauza, irakurri-berri duzun ori guztia, baiñan alabadare, Legea, Eliz orokorraren legea, penitentziari-buruz, beste au izan zan ezpairik gabe, Ermas'en denboraz gero beintzat:

Pekatu larrirentzat, agiriko penitentzia; bein bakarrik egitekoa; bir-egin ez daitekeana. •Ori dasaigute beintzat ago batez, Sarkaldean, Tertuliano'k eta Ipolito'k; eta Origenes'ek Ejito'n»: •Tertullien. Hippolyte, Origène sont unanimes pour affirmer qu'elle ne peut are accordee qu'une seule fois» (Danielou).

Eta baita Alexandri'ko Klemente ere, bat dator beste guzti oiekin. Garai artan izkutuko penitetziaz mintzatu zan idazlerik ez dugu bat bakarrik ere ezagutzen.

Alare..., Siri'n Idatzia izan zan Jedin'ek aipatu digun Siritarrak dira •Constitutiones Apostolicae» izenekoak ere-ta... Errez uste dezakegu, penitentziaren ezin-bir-egite latz ura, Antioki'ko Elizan eta Antioki'ko Elizaren giroko Elizetan ez zala bearbada Ejito'n edo Erroma'n bezain gogorra izan II mendearen erdialdera, antziñate artako Eliz guztien oiturak ez bait ziran zearo berdiñak izaten. Ez dira gaur bertan ere berdiñak Sarkaldean eta Sorkaldean.

Alatagutziz ordea egia da, Eliz orokorrari dagokionez, •pekatu larrirentzako penitentzi agiria bein bakarrik egin zitekeana zala»: •Public penance for grave sin was only available once, (Enc. Brit.). Bein bakarrik!!!

Orregaitik ain zuzen, gizon eta emakume gazteei batez ere,

penitentzigilleen taldera ez sartzeko aolku-ematen zitzairen. Penitentzia bi aldiz egiterik ez zegoalako.

Gogorra, oso gogorra izan zala orduango Eliz aren jardunkera? Guri orrela iruditzen zaigu. Ez ordea garai artako kristauei. Ez zuan **Elizak** geiegizko gogorkeria zerabilkianik salatu. Asko izan ziran ordea, Elizari, pekatariekin biguñegia zala, aurpegira jaurti ziotenak. Oroi ereje gogorkerizale aiek danak.

Gaiñera, •gogorra., ez dira beti zentzu berdiña duten itzak. Aldi bakoitzeko pentsaeraren araura ulertu bear diranak baizik. Orregaitik, III mendeko •gogorkeria. ala •biguinkeria• gaurko gure pentsaeraren aruara neurtzerik ez zaigu zillegi.

Asieran ez dirudi Eliza pekatariekin latzegia izan zanik.

Paul Doneak, berak dioskunez, (1 Kor. V, 1-3; 2 Tes. II, 6-14; 1 Tim. I, 20) berak ere jendea eskomikatu zuan bein baiño geiagotan.

Baiña, naiz aapaldi oietan darabilkian izkera anitz garratza izan, argi nabari da, eskomika ura eskomikatuak beren pekatutik damutzen ez ziran artekoa bakarrik zala, aapaldi aiek, Korintotarrei egindako bigarren Epis tolan (II, 5-11) esaten dituanekin kidatzen baditugu. Emen agertzen bait zaigu Paul Donearen, eta Apostoluen denborako Elizaren, egiatzko izpiritua.

Korintotarrei egindako aurreneko epistolari korintotar bat eskomikatu zuan Paul'ek, korintotar ori aragizko pekatuan bere aitaren emaztearekin nasirik zebillelako. Oben aundia, •jentillen artean aipatu ere egiten ez dan pekatua..

Ona Paul beraren itzak: •Edonork ezaguntzen du zuen arteko izorraketa. Nolakoa gaiñera! Jentillen artean ere ematen ez dana. Zuetako bat, bere aitaren emaztearekin naasirik ibiltzeraiño erori bait da.!

Alare, Paul'en izketako moduak, eskomika ura pekataria damutu artekoa bakarrik zala adierazten digu.

Bereala, bigarren epistolari, beste pekatari batez itzegiten bait die berriro korintotarrei, pekatari arentzat barkapena eskatuz: •naikoa du zuetako geienok emana diozuten zuzenpena. Orain, barkatuta poz-bidea eman bear diozute, geiegizko atsekabeak ondatu ez dezan. Ema'iozute ba maitasuna, nik orixe eskatzen dizuet-eta•.

Ederki adierazten digute Paul'en azkeneko esaldi gozo biguin oiek lenen Elizaren erraiak Josu'ren parabolako •Artzai Onaren. erraiak bezalakoak zirala, beste Apostoluak ez bait ziran eskierki Paul baiño gogorragoak izango. Pekatuari gorrotoa. Pekatari damutuarentzat... errukia, barkapena, poz bidea•, ta •maitasuna..

Goazen, Korinto'tik irten gabe, I mendearen azkenera: •Vers 95, des chr&iens se sont r@volt contre les presbyteres qui dirigent l'Eglise local, L' vèque Cl&nent de Rome intervient et demande aux rebelles de quitter

Corinthe, qui retrouvera la paix, pur aller s'etablir dans une autre Eglise, ils ne seront pas prives de la communion. (Catholicisme).

Ona, punttuz punttu euskerara itzulita, esaldi orrek zer adierazten digun:

- -95'garren urtean Korinto'ko Elizaren barruan elizkide batzuk beren presbitero edo bereterren aurka jeiki Larria zan iraultzalari aien obena, bereterretako bat, danen lendakaria, bertako gotzaia bait zan.

Ezaguna zaigun lez I Klemente Aitasantuari eskatu zitzaion istillu aren askapena.

- •Klemente'k iraultzalariei, Korinto'tik irten da beste nunbaitera joateko eskatzen dies. Penitentzi larria? Bai, ta ez.

Elizaz aldatze ura ez bait da, — ez bait da bereiziki beintzat —, pekatuaren penitentzia, •Korinto'ko Elizaren baitan pakea bir-ezartzeko» Klemente'k bearrezkoa ikusten duan neurria baizik, Klemente'k berak argi adieraztera ematen digunez.

Erbesteratzea, ez da ba Elizak ipiñi dezakean penitentzia. Orregaitik Klemente'k ez die Korinto'tik irtetzekorik •agintzen.. •Eskatu» bakarrik egiten die.

Pekatuarentzako zigorrik astunena, Elizaren altzoan, eskomikapena. da. Baiñan I Klemente'k ez ditu iraultzalari aiek eskomikatzen, alderantziz, itzez-itz esaten die •ez dirala eskomikatuak izango».

Ikus orain geroxeagoko gertakizun bat:

115'garren urtean, pekatu aundira jausi ziran Filipos uriko bereter bat eta bere emaztea. Ona, gizagaixo aiei-buruz filipostarrei Esmima'ko Polikarpo'k idazten diena:

«Ez eiezute etsaiei bezala begiratu. Alderantziz, zuen gorputzeko gorpuzki gaixo galduak diralako, euki itzezute zuen gogoan, zuen gorputz osoa salba dezazuten. Ori egiñez, zeurok ber-bizkortuko bait zerate.

Ona itz oiek Polikarpo'ren eleneratik, Catholicisme enziklopediak frantzeraz emanak:

•Ne les regardez pas comme des ennemis, mais rappelez-les comme des membres souffrants et egares, pur sauver votre corps entier. En faisant cela, vous vous construisez vous-mêmes».

Ez da or oraindik ikaragarrizko penitentzien aztarnarik agiri. Bai ordea, Donepaul'ek erakutsi zuan lez, kristau guztiok Kristo'ren Gorputz Mistikoa osotzen dugularen sentipen bizia. Orregaitik, antziñako Eliza artan, pekatuz zikindutako elizkideen penitentzia, Gorputz Mistikoi aren bir-konpoketa bezala izan zan ikusia.

Askoz geroago ere, II mendearen azken-alderuntz, montanikeria gogortasunaren alde ari zan urte beraietan ez dugu oraindik Galietako Elizan gogorkeri-zaletasunik aurkituko. Bai ordea, alderantziz, erruki goxorako joera. Ikus:

Eleuterio da Erroma'n Aitasantu. Lyon'go Elizak, montanikerira jausten ziran kristauen kopuruak larrituta, duan beretemp ospetsuena bidaltzen dio

Erroma'ra: Ireneo Donea. Zertarako? Eleuterio Aitasantuari •erejiarekin gogorra baiñan erejira jausiekin errukitsua izateko eskatzera»: •asked him to show mercy with the erring while not compromising with error» (Enc. Brit.).
Eleuterio, 189'garren urtean il zan.

Esan daiteke, — esaldia bere neurrizko zentzuan artzen ba'da —, Apostoluen denborako Eliza, artaldearen zoria Jainkoaren eskuetan utzita, artaldetik galdutako ardiaren osasunaz geiago kezkatzen zala artaldea beraz baiño. Alderantziz, geroagoko Eliza, artaldetik galdutako ardiaren zoria Jainkoaren eskuetan utziz, artaldearen zoriaz geiago kezkatzen zala, ardi galdu arenaz baiño.

Ori ondo esana dagoan, Eliz-Unibersitate batean Itun Berria irakasten duan Arroniz'tar Joseba Imanol jaunari galdetu diot. Eta baietz esan dit, ederki esana dagola, zentzu egokian ulertzen ba'da.

150'ren inguruan agertu zan Erroman Ermas'en •Artzaia». Liburu ortan, obenak barkatzeko, sakramentu nagusia; Bataioa da.

Alare, bataio-ostean pekatuz zikindu diranentzako, bada bigarren bataio baten antzeko beste sakramentu bat: Penitentzia.

Baiñan bataioa bein bakarrik artu daitekealako, penitentzia ere, biga rren bataio bat bezalakoa dalako, ez daiteke bein baiño geiagotan artu.

Arrezkero Bataioaren eta Penitentziaren arteko kidetasuna izanen da oiñarrizko gogapen eta arau nagusi, aro zar osoan, penitentziko sakramentuari dagozkion arazo guztietarako. Eta, kristaугaiak bataiorako presta zitezten •katekumenoen sailla- asmatu zan bezala, •ordo poenitentium» edo» penitentzigilleen sailla», asmatuko da bereala, pekatariak barkapenaren bigarren sakramentura prestatzeko.

Ala, 203'an Tertuliano'k idatzitako •De Poenitentia- liburuan, Elizaren altzoan iru elizkide-sail agertzen zaizkigu: Zintzoak; Katekumenoak; Penitentzigilleak.

Pekatuaren larritasunak erabakitzen zuan, Eliz bakoitzeko gotzaiaren iritzi onez, pekatari bakoitzak penitentzigilleen saillean zenbat denbora egon bear zuan.

251'ean, Dezio'ren zigorraldian fedea ukatu zutenek, penitentzilarien sail ortan bizi guzia eman bear zutela, erabaki zuan Kartago'ko sinodo batean bertako gotzaiak, Zipriano Doneak.

Orrelakoei eriotzako orduan bakarrik ematen zitzairen barkapena.

Pekatuak ain astunak ez ba'ziran ez zan penitentzia ere ain gogorra izaten. Bai ordea beti ere aski luzea eta aski latza.

Izaten ziran penitentzigintza orrentzako ere •induljentziak», ots, barkapenak. Espetxetik, federik ez ukatzeagaitik an baiturik zeudenek eskatuta adibidez. Zer esanik ez, eskaria eriotza-aurretik martiriek egiten ba'zuten. Ta, baita, Elizari arrisku aundi bat urbiltzen zitzaiola uste izaten

zanean ere.

Orrela barkatu zitzaien Kartago'n Dezio'ren zigorraldiaren atzetik, bizitza guztirako penitentzigilleen saillera sartu ziran aiei falta zitzaien penitentzigintza guztia, beste zigorraldi bat gaiñera zetorrelako bildurrez, «anirna garbituta, zigorraldi berri ari zintzo erantzuteko gai izan zitezten».

Induljentzi orren ondorioz, bizitza osoko penitentzia, bi urteko penitentzi laburra gertatu zitzaien.

(Oroi dezagun, Elizak orduan ematen zituan induljentzi aien erara ematen dizkigula gaur-egun ere induljentziak. Orrela, ekintza on batengaitik orrenbeste denborako induljentzia» ematen duanean, ekintza on ori egiñez, antziñako penitentzigille aiek denboran ortan- irabazten zituzten aiña meritu irabazi daitezkeala esan nai du).

IV mendean, Eliz orokorra pakean zala, asi ziran an eta emen tokian-tokiko Elizek penitentzigintzari buruz arau ziurragoak ematen.

Ez dira Eliz guztietan berdiñak, jakiña, baiñan ematen digute barkapenaren sakramenturako prestaketa nolakoa zan jakiteko bidea.

- Lendabizi, pekatariak bere pekatuak aitortzen zizkion gotzaiari edo gotzaiak ortarako ezarrita zeukan bereter bateri. Isillean beti. Ez, esan oi dan bezala, elizkide guztien aurrean.

Orduan ipintzen zitzaion pekatu aiei zegokien penitentzia.

- Penitentzigilleen «ordo» edo talderako sarrera, ori bai, elizkide guztien aurrean gotzaiak berak zuzentzen zuan liturgi baten bidez egiten zan. Liturgi-ekintza ori amaitzean elizatik kanpora bidaliak iza ten ziran penitentzigilleen taldekoak.

- Urte askoz egon bear izaten zuan pekatariak .ordo poenitentium» artan, maizko barauen bidez gorputza zigortuz, okelik jan gabe, eta senarrek emazteekin eta emazteek senarrek aragizko arremarik gabe. Igandez, elizako atetik entzuten zuten meza.

- «Absolutio» edo sakramentuzko barkapena, gotzaiak ematen zien elizkide guztien aurrean. V mendiaz gero, Ostegun Santuz egiten zan ori, pazkoz pekatari barkatuek katekumenoekin batera Gure jauna artu zezaten.

Ez zan ordea, pekatari barkatuaren penitentzigintza, ortan amaitzen. Gauza asko gelditzen bait zitzaizkion bizitza guztirako debekatuak. **ne** peut avoir de relations conjugales, ni s'adonner au commerce, ni exercer une fonction publique, ni entrer dans l'armée ou le clerge. Ces interdits duren jusqu'a la mort, seule liberation definitive.. (Catholicisme):

.Senar-emazte artean ere ez dezakete geiago penitententzigintza amaitu dutenek — aragizko arremarik izan, ez daiteke orrelakorik ogibidez salerosketan asi, ez dezake erri-kargurik artu, ez daiteke, gizonzkoa ba'da, gudaroztera eta eliz-gizonen taldera sartu. Debeku oiek, benetako askatasun bakarra izango zaion eriotzaraiño iraungo diote..

Laztasun ikaragarri orrek izan zuan bere alderdi txarra. Pekatariak, ugari, Elizako bizitzatik at gelditzen ziran, eta agure izatera iritxi ziranean bakarrik sartzen ziran penitentzigilleen saillera. Edota, eriotzako ordura arte

itxoegiten zuten pekatuen barkapena eskatzeko.

Gotzaiek beraiek ere ez ziran, ori ikustean, gustora sentitzen, oartzen bait ziran gaiñera pekariei ipintzen zitzaien zama oso astuna eta •ia jasan- eziria» zala: •presque intol"erable- (Ib).

Baiñan oitura zarren sarean katigu, ez ziran, ez gotzaiek ez teologilariak, penitentziko sakramentuaren zertasunari-buruz azterketa sakon bat egiten astera ausartu.

Soilki, Ipar-Afrika'ko gotzai batzuk iritxi ziran pekariei, barkapena artuz gero ere gelditzen zitzaizkien debeku izugarri aiek ezabatzera.

Laister ordea, barbaritarren etorrerak aldatuko dizkigu Europaren biziera eta Elizaren itxura.

EUKARISTIA zan lenen mende aietan kristauen elizkizunik nagusiena. Elizkizun bakarra, beste sakramentu guztien liturgia mezaren inguruan bait zeukaten eratu.

Kristauen etxeetan egiten zan, Elizak bere jauretxeak eraiki aal izan zituan arte. Jauretxe kristaurik zarrena, Edesa osroenetarraren alboan, Dura-Europus'koa dugu; 232'garren urtekoa, bere orma margotuak dirala-ta, ertiaren aldetik ere arras aipagarria.

•Agape• esaten zitzaion otordu batean ospatzen zan eukaristia. Aurrena, bakoitzak eraman zuan janaria agapekide guztien artean banatuz agapea ospatzen zan, eta berealaxe, agapearen atzetik, eukaristia egiten zan.

•Agape• itzak -maitasunezko otordua- esan nai du, baiñan Paul doneak idatzi zigunez, toki batzuetan beintzat maiz galdu zuan otordu arek maitasunaren usaia. Aberatsek oparo jaten zuten bitartean, goseak gelditzen bait ziran txiroak.

Juduek pazko-aparian zerabilkiten liturgi-era berdiña artu zuan Elizak eukaristirako: Bibliako irakurgaiak, Josu'ren bizitzako gertakizunen oroitza, eukaristi aren zuzendariaren itzaldia, salmu-abestiak, otoizketa eta otoizketa orren barruan ogi-ardoan sagaraketa, eta, azkenean, jaunartzea.

Eukaristigintzan meza-emaille bakarra gotzaia izaten zan. Bereterrez inguraturik, baiñan, naiz bereter aiek ere gotzai izan, bereter-gotzai zuzendariak bakarrik ematen zuan meza, ez zan ba orduan gaur-egungo •alkar-meza. edo •meza kontzelebraturik• ezagutzen.

Baditugu agape artan esan oi ziran otoitz batzuk, II mendearen lenen-erdikoak, •Didaj& izeneko liburuan eta Erroma'ko Ipolito'ren eta Justin Donearen idaztietan.

Eukaristia, gaixoei, etxera eramaten zitzaien; eta, espexera, kristautasuna ez ukatzeagaitik an baiturik zeudenei.

IV mendearen azkenetik aurrera, batez ere V'ean barbaritarrek Sarkaldeko Erromar-Inperioa ezereztu zutenez gero, poliki-poliki alkarrengandik bereizten joango dira Sarkaldeko era Sortaldeko liturgiak.

KATAKUNBAK, Erroma'ko katakunba eraspengarrietaz mintzatzea naitanaiezkua izango dugu noski Euskaristiaz mintzatu geran ezker. Zigoraroetan kristauak eukaristia ospatzeko zulo aietara biltzen zirala entzunik egongo bait zera gainera seguruaski.

Ori ordea ez da oso-osoa egia. Kristauak ez ziran beñere mezarako ta beste elizkizunetarako katakunbetan alkartzen, egun bereizietan izan ezik. Martiri baten eguna ospatzekoan, edo martiri berri bat eortzerakoan adibidez.

Katakunbetan jende asko biltzerik ez dago. Ez dute ba katakunbek ortarako aizerik aski, naiz aize-agoz omiturik egon.

Lurpean gure meatz-zuloak bezala, bi edo iru mailletan irikitako artekak dira katakunbak. Eta badira, an-emen laugarren, eta baita bosgarren mailla bat ere dituztenak. Bosgarren mailla ori, lurpean, 25 metroz beera aurkitzen da.

Arteka luzeak eta ezker-eskubira biurriak dira katakunbetakoak.

Arteka bakoitzetik, alde batera eta bestera, arteka berriak irtetzen dira; ta beste batzuk, auetako bakoitzetik, eta orrela berriro azkeneko auetatik, artekadi guztiari sare kizkur baten itxura nabarmena emanaz.

Eta mailla batetik bestera jeisteko, mailladiak badira. Errez galdu daiteke, eta ez ain errez andik itzuli, sare biurri artara sartzen dana, uste daitekean baiño luzeagoak bait dira gure katakunba aiek.

Ala, •Ines Donearena• esan oi zaioneko arteka danak bata bestearen atzetik jarri ezker, badute milla eta seireun metroren luzea. Bost milla eta zazpireun illobi badira Ines Donearen katakunbako arteka oietan.

Noizbeinka, arteka nagusiak gurutzatzen diran tokietan-da, katakunbetan gela aski zabal batzuk ere badira, baiña naiko txikiak aiek ere, eta birikentzako aizeari dagokionez aski motzak, bertan jende askorik sartzeko. Ez dituzte ba, goruntz, sei metro baiño askoz geiago. Eta, beste orrenbeste gutxi gora bera, luzez eta zabal.

Artekak, arras estuak dira: bata bestearekin, metro urri-urri bat zabal, eta bi metro baiño askoz geiago ez, geienaz, beetik-gora. Bi saietsetan aurkitzen dira an eortzitakoen illobiak. Ez noski danak martirienak.

Katakunbetako arteken luzetasuna aipatzen asi gera. Ba, Erroma'ko arteka guztien luzaroa, bata bestearen atzetik ezarri ezker, 320 (irureun eta ogei) kilometrokoa omen da, 400 (laureun) urteko lana bear izan omen zan lurpedi guzti ura irikitzeko eta 700.000 (zazpireun millara) iritxi omen daitezke bertan aurkitzen diran illobiak.

Zenbakirik txikiak eman dizkizut. Askoz aundiagoak bait dira beste batzuek aipatzen dituztenak:

Katakunbetako zenbakiei-buruz, •On a parle de 857 kilometres, voire de 1.200. Le seul cirnitiere de Sainte-Sabine, qui a ete mesure avec grand soin,

a donno comme chiffres pour ses excavations: 16.475 mares carres de superficie, 1.603 metres de longueur, 5.736 tombes. Ce n'est pas cependant la plus vaste des Catacombes. (Daniel-Rops).

Euskeraz: •Bada (katakunbei) luz n 875 kilometro, eta baita 1.200 ere, ematen dizkienik. Arretarik zintzoenaz neurtuak izan diran Sabine Deunarena k bakarrik baditu luze-zabalean 16.475 metro laukoi, 1.603 metro luze, eta 5.736 illobi. Ta ez da, Sabine Deunaren ori, katakunbarik aundiena».

Erronta'ko katakunbak ez dira oraindik oso-osoan aztertuak izan. Ezta agian, danak aurkituak ere. Azkena aurkitua, 1960'ean aurkitua, «Kalepodio.koa dugu.

Erroma'ko jentillen artean bazan bakoitzak bere sendiko guztientzat lurpean gorputegi aundiak egiteko oitura zaarra.

Erroma'ko legeak ordea, galerazirik zeukan uri-barruan iñor obiratzea. Lege orren ondorioz, bazter guztietatik Erroma'ra zetozen •via» edo «bidezabalen. ertzetan iriki oi zituzten erromatar aundiki aiek, beren sendientzako, aipatu ditugun gorputegiak, ortarako, Erroma-inguruko lurpea zulatua izateko oso erreza izateaz baliatuz. Gorputegietan baziran, saietsetan irikiak, aide txiroentzako ta sendiaren serbitzarientzako illobi berezi arruntagoak.

Ori bera egin zuten jende landerrek ere, ortarako beren artean jaurlaritzaren laguntzarekin kooperatiba edo lankidegoak eratuz.

Kristauak ere, aurren urteetan, jentillen oitura jarraituz, aideen gorputegietan izan ziran obiratuak, lendik an obiraturik zeuden jentillen artean.

Geroxeago, aundikiek asi bait ziran kristau egiten, aien illobitegiak biurtu ziran, jabeen naimen onari eskerrak, kristauen eortze-leku.

Ta Eliza zabaltzen eta kristauak ugaritzen ari ziralako toki geiago bear izan zanean, aundiki aien illobitegietatik asi ziran kristauak, illobi berriak eratzeko, lurpean ezker-eskubi artekak irikitzen. Orrela sortu ziran, len gorputegi jentillak izan zirenetatik, aurreneko katakunbak, I mendearen azkenean edo Waren asieran: ezagunak ditugun Priszila eta Domitila andreen katakunbak, ainzuzen.

Baiñan, alatagutziz, asiera-asieratik kristau uts izandako katakunbak, Kalisto Deunarenak ditugu: 199'tik 217'ra Aitasantu izan zan Zeferino Doneak sortuak. Ortarako berea zuan alor zabal bat eman zion Elizari, eta Kalisto diakonoa ipiñi zuan illobitegi artako zuzendari nagusi: bere atzetik Aitasantu izanen zan Kalisto ura bera.

Zigorraldia amaitu ondorean ere, IV mende guztian ere, eortze-leku izan ziran kristaumentzat, katakunbak, 410'garren urtean Alariko got-tarrak Erroma artu zuan arte.

Irten zan Alariko Erroma'tik, baiñan arrezkero ez zan katakunbetan jenderik illobiratu.

Laguntza aundia izan zitzaizkion zigorraldietan katakunbak Elizari, zulo aietan martirien gorpuak toki ziurrean aurkitzen ziralako.

Egia da, era bereizian babesten zituala Erroma'ko legeak ildakoen illobi guztiak. Meatzetako lana zuan zigor illobi bat urratzen zuanak. Eriotza bera baiño zigor gogorragoa, gutxi bait ziran meatzetako langintza ikaragarri artan bi edo iru urte baiño geiago bizitzen ziranak.

Baiñan katakunbetako illunbeak, legearengandikoaz gaiñera, beste ziurtasun bereizi bat ematen zien, jentillek alako amorruez eraildako martirien gorpuei.

Katakunbak ordea ez dira Erroma'ko bakarreko oitura. Mediterran-Itxasoko bi ertzetan aurkitu daitezke: Alexandn'n, Malta ugartean, Sizili'ko Mesina'n, Palermo'n, Sirakusa'n..., Napoles'ko urian, Afrika'n...

Katakunbetan sortu zan erti kristaua: margo-erria batez ere. ugari aurkitzen dira lurpe aietako ormetan, illobien gaiñean, Jainkoaren probibidentzi edo ardura donea, illen berbizkundera ela gaiñerako izkutuki kristauak adierazteko, Bibliatik artutako irudiak, oso politak batzuk. Badira Miren Neskutsaren eta Josu'ren irudiak. Baita eukanstiaren ikurrak ere.

Baleike ordea margo-lan aietako ikur eta apaingarri guztiak, sortzez kristauek ez izatea, nai zentzua aldatuz, jentillen oiturak artu bait zituzten kristauek beren illetelarako.

IV mende kristauean, Nola'ko Paulin Donea, illen zerraldoak ardoz buztitzea, bere Elizeko kristauei galerazi bearrean aurkitu zan. Baifian jentillengandiko oiturak ez ziran kristauen artetik ain errez ezabatu, eta, oitura oiek, badiraute oraindik toki batzuetan.

Esan dezagun ataltxo au bukatzeko, ereje batzuek, gnositarrek eta nobazitarrek adibidez, eta baita juduek ere, beren katakunbak izan zituztela. Aski interesgarriak gaiñera, azkeneko auenak.

ELIZAKO JERARKIA

Ikusi aal izan dugu nola ari izan dan Eliz bakoitzeko gotzaia, bere bereter lagunengandik aalmen geiago artzen, Elizaren edestia aurrera zetorren neurrian.

Ezpairik gabe esan daiteke, II mendearen erdiaz ez askoz geroago, Eliz bakoitzak gotzai bat bakarria duala, eta gotzai orren laguntzaille, beste bereterrak arrezkero apaiz utsak dirala.

Era berean ari izan zaigu Aitasantuen aalmena gero ta atfflago edestiazear agertzen.

Kepa beraren aldiar gero, ez zuan iñork Eliz zaar artan Aitasantuaren almen ori ez ukatu ez zalantzean ipiñi.

Arazo au aztertzeke, Encyclopaedia Britannica'ren «Papacy» atala artuko dut gidari, bai liburu ori uste on osoa merezi duenetakoa dalako, eta bai, katolikoa ez dalarik, aitasantuen aldeko bere iritziek indar aundia dutelako.

Itun Berriko liburuetan, «Kepa dakusgu erabakiak artzen, eta Kepa'ren eskutan uzten dira sortu daitezkean arazo guztiak». «Kepa da Elizarenburua»: «Peter is seen as taking the initiative and as the person to whom all questions that arise are addressed». «Peter is head of the Church».

Palestina, Antioki, Anatoli eta Korinto ibilliz gero iritxi zan Erroma'ra.

«Emen agian ez zan asti luzez bizitu; bai ordea naikoa, orduan erromar-inperioaren buru zan uri artan Eliza Kristauaren buruzagitzaren egoitza betirako ezartzeko: «His stay in Rome may not have been very long: but it was enough to fix the centre of the Christian Church in what was then the capital of the Roman empire».

Neron'ek kristauei eraso zienean, ez dakigu, zenbaki ziurrez, zenbat kristauek galdu zuten Erroman bizia, baiña bai, «arrapatuak izan ziran guztiak, (jende-multzo txit aundia-), oiñazerik ankerrenen artean eraillak izan zirala. Kepa izan zan eraildakoen artean bat.: «All who could be found («a vast multitude») were put to death with atrocious tortures, and Peter was one of the victims..

Kepa'k utzi zuan bezala, Erroma kristaudiaren Burua zala eta Elizaren Buruzagi Nagusia Erroma'ko gotzaia zala, I Klemente Aitasantuak adieraziko digu laister, I mende artan bertan.

Klemente, irugarren Aitasantua da. Uste oi danez, Kepa'k berak gotzai sagaratu. Ezaguna dugu korintotarrek argi-billa nola jo zuten beregana, eta, gugana iritxi dan gutun baten bidez nola I Klemente'k erantzun zien.

«Gutun orren doiñua, maitasunezkoa geiago da aginkerizkoa baiño. Alare, gutun orrek erakusten digunez, ziur uste zuan Erroma'ko gotzaiak, berak bazuala eskubidea beste kristau-komunitate bateko auzietara sartzeko. Eta bereala Itun Berriko liburuen kide izan bait zan egiña Klemente'ren gutun ura, kristaudi osoan Erroma'ko gotzaiak nolako itzal aundia zuan, argi asko erakusten digu gertakizun orrek:

•While its torre is one of charity rather than of authority, this letter shows that the bishop of Rome considered himself empowered to intervene in the affairs of another community; and the fact that this letter was soon regarded as having almost canonical status is evidence of the Roman Bishop's prestige throughout the whole Christendom».

175'etik 189'ra Eleuterio dugu Erroma'n Aitasantu. Montanikeria nabarmen ari da zabaltzen. Galieta'n izenik aundieneko Eliza, Lyon'goa dugu. Bada Eliz artan Sortaldetik etorritako apaiz jakintsu txit ospe aundiko bat: Ireneo.

Len ere esanik utzi dugun lez, apaiz au bidali zuten liondarrek Erroma'ra, argi billa oraingoan ere, len korintotar aiek bezala. Montanikeria zuten liondarrek auzi nagusia, eta Eleuterio Aitasantuari, •naiz erejia gogor gaitzetsi erejira jausitakoekin biotz-bera izateko eskatzen zioten»: «asked him to show mercy with the erring while not compromising with error»,

Dakusazunez, Galieta'ko kristauak ez zuten oraindik, pekatari damutuen penitentzian-buruz gogorkerirako joerarik, baiñan bazuten, bai orixe, Erroma'ko Gotzaiaren almen nagusiaren, eta almen ori Erroma'tik at Eliz guzira zabaltzen zalaren ezaguera sendoa.

Bere tokian aipatua dugu Ireneo'k Aitasantuen nagusitzari buruz erejeen aurka idazterakoan egin zuan aitopena. Ikus, aitopen ori «Catholicisme»k frantzeratua:

«C'est avec cette Eglise, cause de son autorite particulier, que doit etre d'accord toute Eglise... car c'est en elle que les fideles de tous les pays ont conserve la tradition apostolique».

Euskeraz: •Bere almen bereziagiatik (Erroma'ko) Eliz onekin bat egiñik egon bear dute Eliz guztiak, Eliz onek gorde bait die, ludiaren baztar guztietako kristauei, apostoluengandiko agoz-agozko jakintza».

I Bitor'ek 189'an artu zuan aitasantutza.

Egiatzko Aitasantu izan zan. Badakigun bezala bere arazorik aundienak erejia eta pazko-egunaren auzia izan zituan. Eta ordurarte iñork ez bazuan Erroma'ko gotzaiaren almen orokorarik ezbaiean **ez du I Bitor'en** atzetik orrelakorik iñork egingo. Itxuraz beintzat, ordurarte beste iñork ez bezala, ugaritu ta bizkortu bait zuan onek erroma'ko gotzai-aulkiaren ariketa»: «Under Victor the activity of the Roman see became prominent to an extent hitherto apparently unprecedented».

Ordurarteko Gotzai erromatarrek, egiatzko Aitasantuak zirala ondo jakiñik ba'zeuden ere, argi dakusgu II mendeko Aitasantu onen ariketan zeñen sendoa san Erroma'ko gotzaien uste ziur ori.

•It is true to say that with Victor I, far more than with any of his predecessors, the actions of bishop of Rome were the actions of a pope: «Egi osoz esan dezakegu Bitor'en agintaritzakoan, Erroma'ko gotzaiaren ekintzak, bere aurrekoen ekintzak baiño argiago oraindik, Aitasantu baten ekintzak izan zirala.

I Bitor'en atzetik Zeferino etorri zan, eta arekin asarre ibilli zan Ipolitio

idazle ospetsuak. Zeferino illik, Ipolito ori eta Kalisto diakonoa ziran aitasantugairik ezagunenak. I Kalisto izan zan aukeratua. Erabat joan zan orduan Ipolito zismara, eta gogor asi zan I Kalisto'ren aurka idazten ta itzegiten.

Ipolito, teologilari azkarra eta idazle yayoa, Zeferino eta I Kalisto baiño askoz jakintsuagoa zan. Kristaudiak bazekian ori. Alatagutziz, kristaudiak, Zeferino'ri jarraitu zion. Eta Kalisto'ri.

Ipolito'k bezain gogor, edo gogorrago, eraso zion I Kalisto'ri Tertuliano afrikar gogorkerizaleak Kartago'tik. Pekatuak barkatzerakoan, moralitatearen arau guztiak urratuz, lasaiegia omen zan Aitasantua.

•The fact that such men as Hippolytus and Tertullian made forceful attack on Roman bishops accused of laxity in the defense of doctrine or of morality constitutes a tribute to the authority which those bishops exercised»:

•Erromako gotzaiak, dotriñaren eta oitura onen babesketan motelegiak zirala-ta, Ipolito ta Tertuliano bezalako gizonak aien aurka ain zakarki jardun izate utsa, Erroma'ko gotzaien autoritatea onezagutzen zutelaren aitorea dugu».

236'ean izan zan Fabian Aulki Donera jaso. Bazuan Aitasantu onek ere, mundu guztiko Elizen buruzagi zalaren siniste bizkorra. Ala gaitzetsi zuan Afrika'ko Lanbese uriko gotzaia, erejira jausi zalako.

Fabian Aitasantuak berak bezain sendo sinisten zuan aitasantutzaren nagusitasun orokorra, Sortaldean, Origenes berak ere. Onek, bere gotzaiak erejatzat gaitzetsia izanez gero, Erroma'ko Gotzaiari, ots, Fabian Aitasantuari, bidali bait zion bere gogoeten agerpen bat, Erroma'ko gotzai ark azken-erabakia eman zezan.

Zorionez, ez zuan Fabian'ek Origenes gaitzetsi.

251'n Komelio dugu Aitasantu. Berak eskomikatu zituan Nobaziano eta bere jarraileak. Eta naiz Nobaziano'ren zismak VII menderaiño iraun, eta Nobaziano, len Ipolito bezala, Komelio baiño gizon jakintsuagoa izan, Eliza Kornelio'rekin eta Komelio'ren ondorengo gotzai erromatarrekin egon zan beti.

Irugarren mende onen erdian, nortasun aundi ta bizkor bateko pertsona dugu Kartago'ko gotzaia: Ziprian Donea, artzai zintzoa eta idazle ospetsua. Bera baiño askoz illunagoa, Esteban Lenengoa Erroman Aitasantu. Bien arteko arazoak, ezagunak ditugu:

Españi'ko bi gotzai, Dezio'ren zigorraldian fede-ukatzaille izan ziralako, gotzai gotik kenduak dira. Len Palestina'tik Origenes'ek bezala, orain Esparii'tik bi gotzai auek Erroma'ko Gotzaiaren atean oles egiten dute. I Esteban'ek, atzipeturik, beren lengo gotzai-aulkietara jasotzen ditu. Istillu ortaz mintzatuak gera.

Ataltxo ontan ordea auxe azpimarratu nai dugu: Bai Palestina'n bai Españi'n, ots, orduango munduaren bi ertzetan, Erroma'ko Gotzaia mundu guztiko Gotzaia dala, arras gauza jakiña zala ordurako.

Bereala, Martziano zeritzan Galietako gotzai bat erejira jausten da.

Galietaiko beste gotzaiek Esteban'i idazten diote, gotzai ura salatuz. Ta, baita, Afrika'ko gizon ospetsu jakintsuari, ots, Zipriano Kartago'ko gotzaiari ere.

Onek, zuzenean Erroma'ra I Esteban'i idazten dio, Martziano ura gaitzesteko eta aren ordeztu beste gotzai bat izendatzeko eskaria egiñez. A!, ta eskatzen dio beste gauza bat ere: Izendatzen duan gotzai berriaren izena eskatzen dio, berak, Zipriano'k, norekin arremanetan asi jakin aal zezan.

.This implies that the only lawful bishop was he who was in communion with the ecclesia principalis, as Cyprian calls Rome (Letter LIX): •Auxe da guzti orrek adierazten diguna: Egiatzko gotzaia, Eliz Nagusiarekin, alkaturik dagoan ura bakarrik dala. Orrela deitzen bait dio Zipriano'k Erroma'ko Elizari bere berrogei ta emeretzigarren eskutitzean: •Ecclesia Principalis»: «Eliz Nagusia»

Orrek beste zerbait ere esan nai digu: Orduango munduaren sortaldeko eta sarkaldeko muturretan bezalaxe, iparreko eta egoko muturretan ere, ots, Afrika'n eta Galieta, Erroma'ko Gotzaia Eliz Osoaren Aitasantua dala, gauza jakina zala.

Ezaguna dugu, baitare, erejianbataiatutakoen bir-bataiaketaz Kartago'ko eta Erroma'ko gotzaien artean sortutako zalaparta. Erroma'ko I Esteban'ek bir-bataiaketa aren bearrik ez zala esaten zuan. Baietz, ordea Kartago'ko Zipriano'k.

Esteban'i idatzi zion onek, bere arrazoiak azalduz. Esteban'en erantzuna: •Erroma'ko Elizaren araua bakarrik zala arau zuzena, eta arau orrekin bat etorri bear zutela beste Eliz guztiak, Erroma'rekingo alkartasunean jarraitu nai ba'zuten»: •That the Roman usage was the only lawful one and that all the churches should conform to it if they wished to remain in communion with Rome»

Ez zezakean I Esteban'ek argitasun geiagorekin aitortu Erroma'ko Gotzaia Eliz guziko Aitasantua zala!

Zipriano'k bazekian, eta sinisten zuan, Elizaren Buruzagi Nagusia Erroma'ko gotzaia zala: Entzun berari, •Catholicisme•ren frantzeraz:

•C'est sur un seul que le Seigneur difie l'Eglise; il le confier ses brebis paitre. Et quoique dispese a tous les aptres un pouvoir **n'a & abli** cependant qu'une chaire, et il a organisê par l'autoritê de sa parole, l'origine, la modalitéde

•De toute faÇon, les autres ap&res &aient aussi ce que fut Pierre, mais la priunaut est donnê a Pierre, et une Eglise unique, une chaire unique nous est montr&...

•Celui qui abandonne la chaire de Pierre, sur laquelle l'Eglise a foncl&, peut-il se flatter d'ê.re dans l'Eglise»?

Euskeraz:

•Bat bakarraren gainean eraiki zuan Jaunak Eliza; eta bat bakar orri eman zion bere ardiak bazkatzeko eginkizuna. Ta naiz apostolu danei aalmen berdiña eman, ez zuan alare irakasle-aulki bat besterik ezarri, Berak

bere itzaren aginduz Elizako batasunaren jatorria eta tankera orrela tajutuz.

•Danadala Kepa izan zana izan ziran beste apostoluak ere; baiñan lendakaritza Kepa'ri izan zan emana, ta orrela Eliz bat bakarrean irakasle nagusi bat bakarra izango genuala erakutsi zitzaigun.

•Eliza, Kepa'ren irakasle-aulki orren gainean oiñarritua izan dan ezkeru, nola esan dezake Elizaren altzoan jarraitzen dula, aulki ortatik urrundu danak»?

Zergaitik ez ote zuan ba Zipriano'k, Esteban'en agindu ura ontzat artzen? Bere ustez, auzian zegoana, Elizaren sisnispidea ez baiña, bi Elizetako oituren ezberdintasun utsa zalako.

258'an Dionisio Aitasantu berriak, bazekian bere ardura eliz osora zabaldu bear zuala. Orregaitik bidali zien, ats emanez, gutun biguin bat, eta diru-laguntza polita gutunarekin batera, Kapadozi'ko Elizei, ots, pertsiarren menpean estu ta larri bizi ziran Kapadozi'ko kristauei.

Bereala, Dionisio Alexandri'ko gotzaiaren oldozkera gaitzetsi bearrean aurkitu zan Dionisio Aitasantua.

Gizon argia Alexandri'ko Dionisio, baiñan erejira jausi zan, monarkerizaleen aurka Irutasun Doneko Pertsonak ongi bereiztearren Irutasunaren batasuna ukatzen zuten esaerak erabilli zitualako.

Ta, nola ez? Urduritu zan Sortalde. Ta, oraingoan ere, — fedearazoetan maixu nagusia Erroma'ko gotzaia zala Sortalde guziak bazekialaren adigarri Sortalde urduritu artatik •Dionisio Erroma'ko gotzaiarengana zuzendu ziran oi u eta salaketa guziak, ereji aren aurka»: •Protests and appeals against this doctrine were addressed to the bishop of Romen.

Bazekian, Erroma'ko Dionisio'k ere fedearen zaindari eta irakasle ta epaille nagusia, Eliz guzirako, Erroma'ko Gotzaia zala, eta berealaxe gaitzetsi zuan, iru Pertsonak geiegi bereiziz Jainkoaren batasuna urratzen zuan triteismo edo irujainkotasunkeria. Une berean gaitzetsi zuan beste ereji bat: Trinitateko Iru Pertsonak Jainko baten iru itxura edo iru izen uts biurtuz, Jainkoaren irutasuna ezabatzen zuan monarkikeria.

Alexancidko Dionisio'k, gizon santua bait zan, berealaxe makurtu zuan burua Erroma'ko Dionisio'ren agindura.

The Roman Bishop spoke here as arbiter in matters of faith, and the bishop of what was then the most important Fastem Church accepted his decision without questioning his competence to pronounce judgment»:

•Arazo artan sinispen-gaietan epaille bezala itzezin zuan Erroma'ko gotzaiak, eta epaiketarako gotzai arek aalmenik bai ote zuan ezбайдatzen asi gabe onartu zuan aren erabakia, orduan Sortaldean garrantzitsuena zan Elizako gotzaiak.

Laugarren mendera sartzera goaz-da, orain arte esandakoa naikoa dugula iduritzen zaigu, antziña artan ere, Kepa Donea ber-beraz gero, Erroma'ko gotzai guzti aiek beraiek, beti jakin zutela ziur, Erroma'ko gotzai izateaz gainera, Eliz Osoaren Aitasantu ere bazirala.

Gaiñera, •Felis I'ak, Dionisio'ren urrengo Aitasantuak, bere aalmen

orokorraren aitorpena, Erroma'ko inperatore beroe:-aren agotik jaso zuan»!
«His successor Felix I received an acknowledged L f his authority from the emperor himself».

Oroi: Zalantzan zegoala Antioki'ko gotza ulkia norentzat izan bear zuan, bertako gotzaia, Paul Samosaterra, erejira erori zan ez: **ikorapillo** ori askatzeko. antiokiarrek Aurelian inperatoreari eskatu zioten aolkua. Inperatorearen erantzuna: Antioki'n egiazko gotzaia, Erroma'ko gotzaiak eta Itali'koek aintzat artzen dutena.

Zergaitik Inperatoreak Erroma'ko Gotzaiarekin Itali'koak ere aipatzen dituan? Bera kristaua ez izanik, Elizaren jardunkera ezagutzen ez zualako:: Baleike. Baiña baita, Antioki'ko ura bezain auzi larriak Erroma'ko Gotzaiak, Sinodo batean Itali'ko gotzaiez inguraturik artzen zituala bazekialako ere.

BIGARREN LATERRI KRISTAUA: ARMENI. Osroene'ren atzetik Armeni izan genduan, I Kostantino'ren Erroma baiño lentxeago ofizialki kristau egin zan Laterria.

300'garren urte-inguruan gertatu zan ori, 302'an seguruaski, bertako erregea III Tiridates zala.

Erroma'ren eta Pertsia'ren artean, Itxas Beltza'ren egoaldera, borroka leku zan Armeni'ko lurra, Apostoluak kristautasuna zabaltzen asi ziranean. Ango kristauen ustez, Bartolome eta Ander apostoluak izan ziran Armeni'n Berri Ona zabaldu zutenak.

Ori ordea, ziur ez dakigun gauza da. Egia da alatagutziz, II mendean arras zabaldu zegoala lur menditsu artan kristautasuna, naiz IV mendean azkenean an oraindik jentiltasunak baztar batzuetan bizirik iraun. Ez da arritzekoa.

Itali'n bertan V eta VI mendean jentillak bait ziran oraindik Erroma beragandik ez urruti, mendi-aldeetako biztanleak ugari aski. Jentil auek kristautzen ibillia izan genuan Donebenito bera.

Armeni'ra, Osroene'ko Edesa-zear iritxi zan kristautasuna, osroendarrak izan zituan ba bere lenen mixiolariak.

Baiñan Anneni'ko Eliza, Eliz bezala, IV'aren asieran, Zesarea'ko Elizaren alaba da: Kapadozi'n, Armeni beraren egoan zegoan, Zesarea'ko Eliz bizkorraren alaba.

Beste Zesarea bat ere txit ospetsua bazan garai artan: Palestina'koa. Zesarea ontako gotzaia izan zan, ainbat aldiz aipatu dugun eta oraindik aipatuko dugun Eusebio edestilari ospetsua.

III Tiridates zan Anneni'ko errege, lurralde artara, Gregorio Done «Argiemailla- iritxi zanean.

Gizaseme bitxia, 260'ean jaiotako Gregorio au. Anak izeneko printzipe pertsiar baten semea omen zan, eta bere aita ark erail omen zuan Kosroes Armeni'ko erregea, bera ere azkenean bere sendi guziarekin erailla izateko.

Iñudeak gordeta Gregorio aurtxoak bakarrik irten omen zan erailketa artatik bizirik. Iñude kristauak Kapadozi'ko Zesarea'ra eraman bide zuan bere mutiko ura, an azia eta kristauki ezia izan zedin. Kondaira? Baleike, baiñan egiazko gunea izan dezakean kondaira; garai artan, armenitarrak, Palmira'ko erregeak, pertsitarrak eta erromatarrak, danak borrokan bait zebiltzan lurralde aietan.

Gizon Zesarea'n ezkondu zan Gregorio, eta bi seme izan zituan: Aristakes eta Bartan. Biak izango dira bata bestearen atzetik Armeni'ko Elizaren •Katolikos• edo Buruzagi Nagusi.

III Tiridates erregearen adiskide egin zan Gregorio Armeni'ra mixiolari itzuli zanean, eta, bein erregea kristau biurtu, kristau egin ziran erregearekin batera jaurerriko aundikiak ere.

Erregearen eskariz, Kapadozi'n, 20 gotzaiez inguraturik Leontzio Zesarea'ko gotzaiak sagaratu zuan gotzai gure Gregorio, eta Armeni'ko Elizaren Katolikos edo Patriarka izendatu.

25 urteko epean Gregorio'k eratu zuan 15 elizbarruti sortuz eta elizbarruti oietako gotzaiak sagaratu Armeni'ko Eliza. Orregaitik esan oi zaio Eliz ari •Eliz Gregoritarra»: •Ecclesia Gregoriana.-

328'an il zan Gregorio basamortuko bakartasunean, ordurako utzia bait zuan Aristakes bere sernea Armeni'ko Elizaren buruzagitza.

Bi gauza bitxi izan zituan bere asieran Armeni'ko Eliz arek:

1⁴: Mende-erdi batean Katolikos guztiak Donegregorio •Argiemailearen» sendikoak izan zirala: aren seme, billoba edo bir-billobak. Zelibetasuna edo ezkongetza, gotzaiatzat ere ez bait zan legezkoa Eliz aren altzoan.

2⁴: Sasijankoen jaupari edo •apaizen. jardunkera. Jaupari jentil aien semeen artetik aukeratu bait ziran lenengo gotzai eta apaizik geien-geienak, oso-oso gutxi izan ziran ba •Argiemaileak. berekin Zesarea'tik eramandakoak. •La masse des nouveaux pr&res devait se composer des fils des pr&res des idoles». (Dic. Hist. et Geogr. Eccles.).

Ori bere zentzuan ulertzeko esan ditzegun beste bi gauza:

- Era ontan aukeratutako apaizek ez ziotela beñere Elizari arazorik sortu. Badirudi beraz egitan kristautu zirala eta benetan artu zutela apaizgoaren erantzukizuna.

- Tiridates kristau egin zanean, izugarri aberastasun aundiak eman zitzaizkiela elizgizonei eta Eliza berari. •Le clerg h&ita des fondations paiennes. Chaque église reÇut quatre fermes dans les campagnes et sept maisons dan les villes. Le catholicos fut pourvu de domaines s'bevant jusqu'a quinze cantons- (Ib.).

Euskeraz: •Elizgizonentzat izan ziran jentillen onriasunetik asko. Landa-lurrean eliz bakoitzari lau nekazaritza eman zitzaizkion, eta urietan sei etxe. Katolikos jaunaren ondarea, amabost errialde izan

Dakusazunez, konbeni zitzaien jaupari jentillei Elizara etortzea. Ez ziran alatagutziz danak etorri. Batzuk, Elizaren aurka, alkarte batera bildu bait ziran.

Ikusi aal izango dugunez, III Tiridates erregearen ondorengo erregeentzat ere bazan guragarriega Elizari eman zitzaion aberastasun ura guztia.

Bigarren Katolikos armenitarra, Aristakes, Donegregorio «Argiemailearen• semerik gazteena, Nizea'ko Kontzilio Ekumenetarrean egona dugu, eta ango erabakiak izenpetua. Armeni'ra itzulita, berak egin zituan legezko, Kontzilioaren erabaki aiek.

III Tiridates bere laguntzaille batek erailla izan zanez gero, borrokak, iraultzak eta anarkia egin ziran Armeni'ren jabe. Giro ortan izan zan Aristakes Katolikos bera probintzi bateko jaurleak erailla.

Irugarren Katolikos, Bartan edo Bertanes Aristakes'en anaia, Gregorio «Argiemailearen• seme nagusia zan. Abertzalekeri geiegizkoa bear bada, Elizako martiriak izan balira bezala omendu bait zituan Pertsiren aurka borrokan ildako gudariak. Agian Bartan au dugu, mende asko geroago espainiarrek •nacional-catolicismo. esango diotenaren asmatzaillea.

Bere seme bat, Grigori gotzaia, zaldi baten itsatsari loturik arri-tartean narrastaka izan zan erailla. Erailla, anarki-giro artan, baztar bateko erregetxo zipotza.

Bartan Katolikos berak ere aski era estuan ikusi zuan bere bizia, bera ii naiean bait zebiltzan Elizaren aurkako alkarte ura sortu zuten jaupari jentillak, erregeiñak berak, ots, II Kosro'ren emazteak ats emanda.

Hussik dugu irugarren Katolikos. Gizaseme gaztea oraindik, Bartan'en semea; Gregorio •Argiemailearen• billoba. Tiran zan orain errege, Hussik Katolikos berriaren aitagiarrereba, aren alabarekin bait zegoan au ezkondua. Baiñan alatagutziz, errugabeen iltzailletzat salatu zuan onek bere errege aitagiarrereba ura. Eta, geroagoko Doneanbrosio'k Teodosio'ri bezala, elizan sartzea debekatu zion.

Asarretu zan Tiran erregea, eta eriotzari galdu zuan bere suin salataria, Hussik Katolikos gaztea. Makiika izan zan erailla.

Daniel izeneko gotzai siritar santu bati eskeiñi zion orduan Tiran'ek katolikosen aulkia, Arneni'ko aundikien aolkua jarraituz. Arras alkaturik egon bait ziran Armeni zar artan Eliza ta Laterria.

Hussik'en bidetik jarraituz, onek ere erregearen gaiztakeria salatzen zualako, laister galdu zuan erregearen aginduz urkaturik bizia.

Ez ziran nolanaiko gizon sendoak, Armeni'ko lenen Katolikes aiek.

Baiñan urrango bi Katolikos'ek, biak erregeak aukeratuak, ez zuten Erregeari aurpegi emateko kemenik izan. Aipa ditzagun guk beraien izenak. Faran eta Isaak edo Xaak. Azkeneko au, Xaak, sasijainkoen jaupari nagusi izandako Agbianos'en oiñordekoa. Xaak onen denboran izan zan pertsiarrek katigu arrapatua eta erailla gero, Tiron errege odoitzaiea.

Arxak jarri zuten orduan pertsiarrek Armeni'n errege. Arxak onek berriez, aundikiekin itzegin ondorean, Basilio •Argiemailearen- bir-billoba

zan Narses elizgizon jakintsua ezarri zuan Elizaren buruzagitzan Katoliko: . Orrela, berriro, «Argiemaillaren» sendira itzuli zan Katolikostasuna. Ez bait ziran sendi ortakoak izan Narses'en iru aurrekoak.

Katolikos bikaiña irten zan Narses. Berak bildu zuan Arrneni'ko Elizaren lenen sinodoa eta berak eratu zuan sinodo orren bidez Eliz ura:

- Lekaideen bizitza sendotuz, eta lekaidetxe ta lekaimetxe berriak eraikiz.

- Gaixoentzat, umezurtz, eta adin zarreko jendeentzat, alarguentzat, eta beartsuentzat, Armeni guzia-zear bizilekuak sortuz.

- Ezkontzarako lege berriak emanaz. Adibidez aundikiei oiturazkoak zituzten aide urbillen arteko ezkontzak debekatuz.

Aundikiek ere, ainzuzen partaide izan ziran sinodo artan. Esan dugu ba alkartuegiak egon zirala Armeni'n Eliza ta Laterria. Dirudianez, Laterri katolikoetan izurri sendakaitza izan bait dugu era ortako alkartasunkeria.

Maillarik garaienera igo zan Armeni'n lekaide-lekaimetza. Eta garaitasun ortan zer-ikusi aundia izan omen zuan Narses'en ekintzak.

Artzai lez, bere aurreko Hussig eta Daniel bezala, egiazko profeta izan zan Narses ere, eta bildurtzeke salatu zituan Arxak erregearen okerkeri danak. Ori bait da ainzuzen profeta baten lana; eta ortan bereizten bait dira irakaslearen eta profetaren eginkizunak. Irakasleak, erakutsi egiten du. Profetak, salatu. Eta Elizak badu irakasle izateaz gaiñera profeta ere izateko bearkizuna.

Eliz osoarena da bearkizun ori, baiñan bereiziki Elizaren buruzagiena.

Eginkizun latza, eriotza izaten bait da profeten saria. Ori gertatu zitzaion, bere aurreko beste bi aiei bezala, Narses berari ere: eriotzez zigortua izan zala.

Baiñan ez zuan eraillea Arxak erregea izan; Arxak'en semea baizik, Pop erregea.

Ez ziran ba ariñak izan, Narses'ek salatutako Arxak erregearen gaiztakeriak: Illoba bat illerazi zuala illoba orren emaztearekin ezkontzeko.

Farantzel zan erregeak ildako illoba aren emaztearen izena. Farantzel onekin ezkondu zan Arxak errege eraillea. Baiña baita laister Kostante inperatore erromatarraren andregai izandako Olinpia'rekin ere. Ta bi emazteekin egon zan bizitzen, Farantzel arek apaiz makur baten laguntzarekin Olinpia au erail zuan arte. Apaizak, Olinpia'k mezan artu bear zuan kalizako ardo sagaratuari edena nasi omen zion komunio-aurretik.

Narses kenduta, aren ordezt, Faustos edestilariak dionez, «errege-inguruko guztien morroia», «esclave des esclaves de la cour», zan gizon argal bat, Txunak, izendatu zuan katolikos erregeak. (Dic. Geogr. Hist. Ecl.).

Eta, errege ark Elizaren ugelak betirako bere eskuetan nai zitualako, ez zuan Katolikos au, ordurarteko katolikos guztiak joan izan ziran bezala, sagaraketaren billa Zesarea'ra joaterik nai izan. Alderantziz Zesarea'ko goigotzaiarekin lokarri guztiak austeko, Artneni'ko gotzaidiari dei egin zion, danen artean Katolikos berria sagara zezaten.

Bi gotzai bakarrik etorri zitzaizkion, eta, biak, pertsiarren mendean zegoan Armeni'ren zatikoak. Erregeak bere mendean zeukan Armeni'ko gotzaiak ez zioten erantzunik eman.

Baiñan beste bi aiek Katolikos berria sagaratu zuten-da, orrela Zesarea'ko Elizatik bereizirik gelditu zitzaigun, ordurarte aren itzalpekoa izan zan Armeni'ko Eliza.

Asti luzerik gabe, Arxak erregea pertsiarren eskuetara jausi zan. Eta auek, bizia kendu zioten.

Pop edo Bob, Axak'en seme gazteak artu zuan erromatarren laguntzarekin erregetza, eta bere aurreneko gauza Narses'i Elizaren buruzagitza bir-ematea izan zan. Bereala berbiztu zuan Narses'ek Zesarea'ko Elizarekingo adiskidetasuna.

Asieran ederki konpondu ziran biak, Pop eta Narses, erregea zintzo ibilli zan bitartean. Baiñan au gaiztakerira jausi zanean, laister izan zuan gainean Narses'en gaitzespina, eta Elizara sartzeko debekua. Asarretu zan erregea, baiñan pakeak egiteko aitzakiz, otordu apain batera deitu zuan Narses eta an edenez kendu zion bizia. Profeta guztien saria!

Pop erregeak orduan, sasijainkoen jaupari nagusi izandako Agbianos aren beste belaunordeko bat izendatuerazi zuan •Gotzaien Lendakari»:

Ori jakitean, sinodo bat bildu zuan Zesarea'ko goigotzaiak, Basilio •Aundiak». Sinodo orrek, •Gotzaien Lendakari aren izendaketa legezkoa ez zala erabaki zuan, eta, orregaitik, •Gotzaien Lendakari» ark ez zuala Armeni'ko Elizarentzat gotzaiak sagaratzeko eskubiderik.

Armeni'ko Elizaren gotzaiak Nases'en bidetik zintzo ziardutela-ta, zipoztu zan Pop erregea eta Elizaren aurka biurtu zan errabiz. Kendu zizkion, Elizari, III Tiridates erregeak emandako ondasunik geien-geienak, eta ekin zien lekaidetxe eta lekaimetxeei ere zakarki. Ondorioz, poliki-poliki, illetetan batez ere, asi zan berriro berbizten lengo jentiltasun zarra.

Asarretu ziran ordea erromatarrek Pop pertsiarren alde okertzen asi zala uste zutelako eta lejiotako gudalburu batek, otordu batean ito zuan Pop errege biurria.

Laister, Armeni, erromatarren eta pertsiarren artean zatitua izan zan, eta zatiketa artan Armeni'ren irurden bat bakarrik gelditu zan Erroma kristauaren menpean. Beste bi irurdenak, Perti jentillaren oinpera jausi ziran.

Izan zuan Elizak nekerik aski. Gotzaiak eta kristau xeak, Zesarea'ko Elizarekin lokarriak ez austearen zale jarraitzen zuten. Orregaitik agian, Sahak izeneko Narses'en seme bat izan zan Katolikos izendatua.

Gizon, bikaiña eta jakintsua, bera bezain gizon bikain eta jakintsua bat izan zuan laguntzaille: Mesrop lekaidea, armenieraren alfabeto edo izkizerrendaren sortzaillea 405'garren urtearen inguruan.

Adiskide jakintsu batzuen laguntzarekin, Mesrop eta Sahak izan ziran sirieratik eta eleneratik biblia eta beste idazti kristauak armenierara itzuli zituztenak.

Elerti-barrutian •urre-aro» izan zan benetan Armeni'rentzat V mendea,

bi gizon santu eta txit jakintsu oiei eskerrak. Asko zor die Armeni'k bi gizon aiei.

Baiñan, batez ere, Elizari zor dio Armeni'k asko. Baita abertzaletasunaren aldez k ere. Eliza, eliz-gizonak, Elizaren liturgi berezia eta Elizaren altzoan sortutako eta zabaldutako ertia eta kultura osoa..., itz batez esateko, Elizaren Itzala izan bait da mendeak-zear, ainbeste etsai indartsu ankerrez inguraturik eta alako oiñaze ta sarraski izugarrietan murgildurik egon dan Armeni'ko Erriari bere nortasuna gorde diona.

Sahak izan zan Armeni'ko Elizaren goi-zaindaritza, Zesarea'tik Kostantinopla'ra aldatu zuana, bera oartzeko agian, II Teodosio Erroma'ko inperatorearekin eta Attikus Kostantinopla'ko Patriarkarekin txikordatu zituan adiskidetasunen bidez.

Eta bai Attikus patriarkak eta bai II Teodosio inperatoreak, Sahak Katolikoa onen, eta bere adiskide leial eta lagun zintzo jakintsua izan zan Nesrop'en eskuetan utzi zuten gnosikeriaren ondarra ziran ereje «borboritarrak» epaitzeko eginkizuna.

Ez ziran gozoak izango borboritarrak Arnreni lardaskatzen, baiñan ez ziran gozoak ibilli bi epaille berri auek ere lardaskatzaille aiek zigortzen: <Mesrop employa contre ceux qui s'obstinaient toute la gamme des chatiments jusqu'au supplice du feu» (Ib.): «Zigorkera guztiak erabili zituan Mesrop'ek ereje egoskorren aurka; baita suzko mingaitza ere», Altaguztiz, Mesrop jakintsu zintzo au eta Sahak Katolikos bikaiña, benetan gizon santuak ziran. Ori nola ulertu daitekean?

«Distigue tempora et concordabis iura»: «Aldi berezietan, oitura berezietan», izan zan erdiaroko filosofilarien arauetako bat. Arau garrantzitsua benetan edestiko gertakizunak zuzenki ulertu aal izateko.

Aipatu ditugun arazo guzti oietan sedo giarturik sartu zan V mendera Armeni'ko Eliz eraspengarria, eta V mende ortan, izan zituan pertsiar jentillen ankapean zigorketak, izan zituan gudu latzer ondorio minkatzak, izan zituan martiriak, eta izan zituan erejien aurkako borrokak ere, baiñan Armeni'ko erri jatorrak tinko iraun zuan bere kristautasun zintzoan.

Kristautasun «zintzoan»? Bai. Naiz, batez ere bere inguruko Laterri aundien politika-indarren ibilkeraren erruz eta bera oartzeko V mendean Erroma'ko Elizarekingo komuniotik-at gelditu.

Ori ordea, geroagoko arazoa dugu.

AZKENEKO ZIGORRALDIA

Bizkor zegoan Eliza 284'ean Diokleziano'k inperatoreen buruntza jantzi zuanean. Ez zan au nolanaiko gizona. Guraso txiroen semea, gudari bikain eta agintari trebe agertu zuan gero bere burua.

Bitini'ko Nikomedi urian zegoan Numeriano inperatorea erailla izan zanean, eta antxe bertan izan zan gudarozteak inperatoretzara jaso. Bere eskuz il zuala esan oi da Numeriano'ren eraillea, Apen, pretoritarren buruzagia.

III mendean izandakoa ainbeste Laterri-barruko guda, iraultza, matxinada, eta inperatoreen eraillketaz auldurik zegoan inperioari, indar berria eman nai izan zion eraketa egokien bidez, iparretik eta sortaldetik erasotzen zioten etsaiei aurpegi eman aal izateko.

Inperio-lur zabal ura •Dioecesis» izen-eman zien lurralde berriatan zatitu zuan, ordurarteko probintzi txikiak •Dioecesis» baten altzora bilduz. Probintzi txiki auek asko ziran orain, Dioldeziano'k berak lengo aundiak zatitu zituan ezker. Gudaroztea ere ia bi aldiz aundiagoa egin zuan, eta gudarozteak gauza garestiak diralako, zerga berriak ere ezarri zituan. Baiñan egin zuan aldakuntzarik aundiena, agintaritzaren zatiketa izan zan.

Diokleziano'k ez zuan inperioa zatitu, bai ordea inperioaren agintaritzea.

Inperio ura zabalegia zala berak bakarrik gobematzeko-ta, bere buruari inperatore laguntzaille bat ematea erabaki zuan. Maximiano izeneko adiskidea aukeratu zuan ortarako.

Bi inperatoreek, Diokleziano'k eta Maximiano'k izen bera eramango zuten; •Augustus» izanen zan bietako bakoitzarentzat izen ori, eta biak duintasun eta almen berdiñak izango zituzten.

Legez, berdiñak ziran bi inperatoreak, baiñan izatez, Diokleziano izan zan egiazko agintaria, eta berak 305'ean agintaritzea utzi zuanean, ori bera egitera beartu zuan Maximiano ere, onen asmoen aurka.

Diokleziano'ren nagusitza adierazten zuan, bere buruarentzat eta bere laguntzaillearentzat asmatu zituan izengoitiek ere: «Jovius» bere buruarentzat, Jupiter bait zan Erroman jaïno guztien jaïno nagusia; •Herculius», Maximiano'rentzat, Hercules, jaïña danez, Jupiter'ek agintzen ziona zintzo bete besterik egiten ez zuan jaïnotxiki bat izan bait zan.

Zazpi urte geroago, bai berak eta bai Maximiano'ko, laguntzaille bana bearrezkoa zutela uste izan zuan, eta uste orri jarraituz, Galerio gudalburua artu zuan beretzat, laguntzaille, eta beste gudalburu bat, Kostantzio Kloro, eman zion Maximiano'ri.

Bi laguntzaille berriek, «Zesar» izanen zuten goi-izena. Bi •zesar» auek, bakoitza bere «Augusto»ren alabarekin ezkondu ziran.

Orrela, bi •Augusto• eta bi «Zesar», lau gizonen osotzen zuten Erroma'ko inperioaren agintaritzea. Gorputz bat egiñez, lauek, legez beintzat. Baiñan izatez, bakoitzak inperioaren zati bat jaurtzen zuan: Kostantzio Kloro'k, Gali osoa eta Britani; Maximiano'k Itali, Españi eta Afrika'ren Sarkaldea;

Diokleziano'k berak, orduan inperioaren lurralderik aberatsena eta garrantzitsuena zan Sortalde guzia. Galerio'k ez zuan beretzat lurralde bereizirik izan, baiñan bera erabili zuan Diokleziano'k Sortaldeko arazorik larrienak zuzentzeko.

Diokleziano'ren asmoz, bi Augustoek agintaritza uzten zutenean, bi Zesarrek artu bear zuten aien lekua eta aien izena, •Augustus», ta une berean beste bi Zesar aukeratu, uste bait zuan, antolapen orren bidez ordurarteko inperatore eraiketak eta eraiketa oien aurreko eta ondorengo matxinada ta borrokak eragoziko zituala, eta inperioaren agintaritza nagusia betirako sendotuko zuala.

Oker zebillen. Bere asmakizun ori bai, zuzen ibilli zan, bera bizi izan zan artean, baiñan bera zalaparta ta borroka ta guda besterik ez zuan sOrtu.

Ogei ta bat urte egon zan Agintaritzan Diokleziano, 284'tik 305'era, eta ogei ta bat urteko epe luze ortan, azkeneko bi urteetan izan ezik, pakean utzi zuan emeretzi urtez Eliza.

Zer dala-ta aldatu ote zuan jardunbidez? Azkeneko bi urte aietan bera izan bait zan, Elizaren aurka, ordura arteko zigortzaillerik ankerrena ta gaiztoena.

Garai artako edestilari kristaurik ospetsuenak Eusebio eta Laktantzio (250?-330?) ditugu. Eusebio'z mintzatuko gera geroago. Esan ditzagun orain itz bi Diokleziano'ren adiskide izan zan Laktantzio'ri buruz.

Diokleziano'k Bitini'ko Nikomedi'n ezarri zuan bere egoitza eta ara deitu zuan Laktantzio 290'ean, an irakasle izan zedin.

Gizon eldua zan gure Laktantzio au, kristau egin zanean, ta arras gizon jakintsua eta idazle dotorea zalarik, — •Zizeron kristaua» esan oi zioten Birjaiotzako •umanistek»—, jende jakintsua kristautzearen, bereala teologiz eta filosofiz idazten asteko asmoa artu zuan.

Baita gai oietaz idatzi ere! Baiñan bere libururik ospetsuena, •De Mortibus Persecutorum» izenekoa dugu. Izenak adierazten digun lez, Eliza zigortu zuten agintari guztiek eriotz makurra izan zutela jakiñarazi nai digu idatzi orren bidez.

Laktantzio, eta aren denborako Eusebio zesareatarra **ditugu**, Diokleziano'k agindutako sarraskiari-buruz albisterik geienak ematen dizkigutenak.

Laktantzio'k dionez, Diokleziano bere Zesar Galerio'k okertu omen zuan kristauen aurka. Arras jainko zarren maitale omen zan ba Galerio. Beste atal batean, •zigorraldiaren prestaketan aolku-emaille eta eragille esaten dio, kristauen aurka idatzi zuan Jerokles filosofilari.

Baleike eginkizun artan biek eskua sartu izatea. Danadala, ez zuten ez Galerio •zesarek» ez Jerokles filosofilariak, beren guraria lortzeko,

Diokleziano'ren aldetik aragozpen aundiegirik aurkitu izango, Diokleziano bera ere, sasijainkoei-buruz, aski erlijiozalea bait zan.

Aia, aideen arteko lizunkeria galeraziz eman zuan legeak, arrazoia au darama oiñarriztat: Jainkoen laguntza lortzeko, erromatarren «biz ierak zintzoa erlijiozkoa eta garbia» — •pious, religious and chaste. — izan bear zuala (Enc. Brit.).

Oroi dezagun zeñien era gogorrean zigortu zituan manikerizaleak. Zergaitik? Manikeria Pertsit'ik etorritakosiniskeria zalako bearbada, pertsiarrek bait ziran Diokleziano'ren etsairik gogorrenak, baiña baita, bere ustez Erroma'ko erlijio zarra jainkoek beraiek erromatarrei erakutsia zala uste zualako ere.

Ez zien noski kristauei zaletasun aundiegirik, kristauek berena ez gaineko erlijio guztiak gezurrezkoak zirala esaten bait zuten.

Bearbada bildurra ere bazion inperio guztiaren zabaltasunean indartsu edaturik zegoan eta egunetik egunera azitzen zijoan kristautasunari.

Ez da arritzekoa. Naiz Sarkaldeak oraindik geienik jentil jarrai, Sortaldea arin ari bait zan kristau biurtzen. Izan ere, Sortaldean Erroma'ren iru probintzirik jendetsuenetan, eta aberatsenetan, Asi, Siri eta Ejito'n, urietako jenderik geiena ordurako kristaua bait zan. Eta uri batzuetan, ia jende dana.

Orduan inperioko uri buru zan Nikomedi'n bertan, Diokleziano bizi zan urian, kristautasuna gizarteko maillarik goienetara igorik zegoan. Ez al zan ba antxe bertan esaten, Diokleziano'ren emaztea bera, Priska inperatemea, eta Baleri, bien alaba, kristauak ez ba'ziran ere, kristautasunaren miresleak beintzat seguruaski bazirala?

Txit maiteak zituan bi emakumezko aiek eraginda egon ote zan ordurarte Diokleziano jainko zarren mireslea, kristauei ekin gabe?

Gauzak ola, naitanaiez kezkatu bear zuan Diokleziano bezain inperatore abertzale batek.

Barbaritarrak gogor iparretik, eta orduan aiek baiño gogorrago pertsiarrek sorkaldetik, inperioari gudaz jotzen ari ziran gelditzeke. Inoiz baiño bearrezkoagoa zuan inperatore yayo batek, — eta Diokleziano benetan zan yayoa inperioaren indar guztiak bateratzea. Kristau aiek ordea, Erroma zarreko erlijio-oiturak ukatuz, eta beren buruak jentillengandik bereziz, era arriskutsuegian urratzen zuten inperioa, Erroma'ko agintari jentillen ustez.

Orregaitik, kristau aien setakeria menderatuz inperiotar guztiak inperatorearen inguruan bat egiteko biderik egokiena inperatorearen gurrketa sendotzea izango zala iduritu zitzaion Diokleziano inperatoreari.

Baiñan siniskeri txatxuak ere izan dezake Diokleziano'ren itxaron-gabeko jardunkeraren aldaketan zer ikusirik.

Erromatar guztiak ziran, erarik txoroenean, izugarri siniskerizaleak. Ez zizuten sekulan erabaki txikienik artuko aurretik aztiei galde bat egin gabe. Orregaitik, aztikerian igarotzen zuten beren denborarik geiena sasijainkoen jaupariak, eta ariketa ortatik ateratzen zituzten irabazirik naroenak.

Zigorketa gogorra agindu baiño bost urte leenago, 298'an, jaupari

aztien erantzunaren zai aurkitzen zan Diokleziano jauretze batean. Aldare gaiñean opariz ildako zekorraren erraiei begira zeuden, erantzunik emateke, isilik jaupariak. •Emen kristauren bat dago, eta kristau orrek gurutzearen ikurra egin dualako, ez digute deus agertzen jainkoei eskeiñitako abere onen erraiek», izan omen zan jaupari aien salaketa.

Asarre, gudarozteko eta jaurketako kargu guztietatik kristauak kentzea, erabaki zuan orduan Diokleziano'k, kristau aiek jainko zarrei opari bat eskeintzen ez ba'zieten.

300'garren urtean, gudari guztiak, gudaroztea uzterakoan, jainkoei opari bat eskeiñi bear zietela jakiñerazi zuan agindu berri baten bidez.

Iru urte geroago asi zan egiazko jazardia. Iru agindu eman zituan Diokleziano'k. Aurrenekoa, aztiekin itzegein ondorean, jakiña, 303'aren otsailleko 23'an. Ikus dezagun iruetan lenengo agindu onen muiña:

- Bibli guztiak erreak izan bear zuten, eta, eliz guztiak, lurrera botreak.

Nikomedi'n bazan eliz bat Diokleziano beraren jauregi-aurrean.., ba eliz ura izan zan, jakiña, ertzaiñek aurrena lurreratu zutena.

- Kristau guztiak, baita maillarik goienekoek ere, beren gradu eta kargu guztiak galduko zituzten, eta Laterriaren serbitzura lan egiten zutenek, jopu edo esklabo biurtuak izanen ziran, Erroma'ko jainko zarretara itzultzen ez ba'ziran.

- Kristauak, ez ziran arrezkero legearen aldetik baliozkoa zitekean ezer egiteko gauza izango.

Giza-maillarik gaillurrenako jende guztiak izan ziran bereiziki jainkoei eskeintzak egitera beartuak, baita Dioldeziano'ren emaztea, Priska, eta Baleri beren alaba ere, bee-maillekoentzat eredu izan zitezen.

Bereiziki gogorra, eliz-gizonentzat izan zan zigorraldi ura. Apaiz asko izan ziran eraillak edo erbesterratuak. Ziñopa aien izenak? Ia danak, ezezagunak ditugu.

Antimo gotzaiari, Nikomedi'n kendu zioten bizia. Ejito'tik egoaldera Numidi'n eta Afrika probintzian apaizak ez ezê kristau ez-apaizak ere asko izan ziran eraillak. Kartago'ren alboan erail zuten Felis, Tibika'ko gotzaia.

Zoritxarrez, izan ziran lurralde auetan inperatorearen agindua betetzera jausi zeran apaizak. •Traditores» esan zitzaien gero. •Tradere» euskeraz •ematea» eta •eramatea» da. Diokleziano'ren agindua betez, Bibliak ertzaindiari eman zizkienei erantsi zitzaien izen lotsagarri ori.

Ez Laktantzio'k ez Eusebio'k ez digute 303'ko agindu au nola betea izan zan jakiteko albiste geiegirik ematen. Era gogorrean bete zuten Diokleziano berak eta Galerio'k. Aski gogor Maximiano'k. Kostantzio Kloro'k ordea, elizak lurrera botatzea bai, agindu zuan, baiña ez zuan kristaurik il; ezta iñor atxilotu ere.

Bitartean, Nikomedi'n bi aldiz su artu zuan Diokleziano'ren jauregiak. Galerio'ren eskuz, uste izan zuten kristauak. Errua ordea, Neronen garaian bezala, kristauei leporatu zitzaien.

Bereala etorri zan kristauen aurkako bigarren agindua. Eliz-gizonen

aurka, oraingo au, Eliza buruzagirik gabe utzi nai bait zuan Diokleziano'k.

•Baztar guztietan espetxeak gotzaiez, apaizez eta ordena txikietako elizgizona bete ziralako, ez zan egiazko gaizkilleentzat tokirik ere gelditu» (Eusebio).

Ez dirudi elizgizon aien artean fede ukatzaillerik izan zanik, agian ezegagunen bat edo bat izan ezik. Berealaxe beste irugarren erabaki baten bidez, apaiz guztiei, sasijainkoak gurtzeko agintzen bait zitzairen. •Ori egiten ez zuana, errukirik gabe offiazetua, eta gero, erailla izanen zan» (Eusebio).

Inperatoretzan bere ogeigarren urtea ospatzeko, Nikomedi'tik Erroma'ra joan zan Diokleziano, eta jainko zarren ospez jai-aldi aundiak eratu zituan an.

Baiñan erromatarrek erlijiozko ospakizun aiek baiño zirkoetako jokuak maiteago zituztela ikustean, asarre itzuli zan bere Nikomedi'ra. Asarre, ta gaixorik, kirioak nasita. 404'garren urtea zan.

Orduan eman zuan, 404'ean kristauen aurkako bere azken-erabakia. Bere egoera makur aren ondorioz? Lengo erabakien bidez ezer aundirik lortu ez zualako? Ez dakigu.

Dezio'ren jardunkera berrituz, inperioko kristau guztiei agintzen zien oraingoan Diokleziano'k jainko zarren gurketa.

Zazpiren bat milloi izango ziran inperio-lurrean kristauak. Sobre ellos provocaba el edicto sufrimientos indecibles por los procedimientos mas brutales; pero con ello se daba a entender que sólo de metodos tan desesperados se esperaba algun &ito. (Jedin).

...

Zenbat izan ziran Diokleziano'ren jazardi latz artan martiri il ziran kristauak? Asko eta asko, kondairak ematen dizkigunak. Baiñan edestiak ez dezazke danak Diokleziano'ren garaiekotzat onartu.

Alatagutziz ez dira gutxi, Diokleziano'k erail zituanak.

Garai artan Palestina'n Zesarea'ko gotzaia, eta edestilaria gaiñera, lenen maillako iturria Eusebio dugu, Palestina'n, Fenizi'n, Ejito'n, Siri'n, eta Asi-alde guzi artan gertatu zana jakiteko. Ona, ba zer dioskun Eusebio zesareatarak:

- Asi Txikiko probintzietan, Ponto'n eta Kapadozi'n adibidez, gizonik ankerrenan eskuetan utziak izan zirala kristauak. Kristauei begi bat ateratzea, edo, iztarrak bumi gorien bitartez erreta beste kristau batzuk ibiltzeko gauza ez zirala uztea, biguinkeria utsa besterik ez omen zan, ertzain eta gudari jentillentzat. Nork ankerkeri ikaragarriagorik asmatu, jolasten omen ziran alkarrekin.

- Frigi'n, osorik kristaua zan erriska bat sutan errea izan omen zan, eta sute artan bizirik erreak, aur eta agure, bertako biztanle guztiak.

- Ejito'n egunero, amar, ogei, larogei, eta eun ere izaten omen ziran erarik izugarrienean eraildako kristauak, azkenean bera ere ziñopa il zan

Themuis'ko gotzaiak Eusebio'ri jakiñarazi zionez.

•Las dudas que podían surgir al leer esa carta (del obispo de Themuis) de que fueran en absoluto posibles tales inhumanidades, han sido desgraciadamente disipadas por el recuerdo de acontecimientos semejantes de un pasado recentísimo- (Dedin).

Ugari izan ziran ziñopak Afrika'n. Eta

Balkan-Mendietako lurraldeetan, Iliri'n adibidez, luzeagoa izan zan zigorraldia; Diokleziano'k agintaritzea uztean, •augustus» bihurtutako Galerio'k eta berak •zesar» aukeratu zuan Maximino Daia'k, biek bakarrik, era izugarrian gaiñera, kristauak zigortzen jarraitu bait zuten. «Aquí fueron Galerio y su cê..sar Maximino Daia, las fuerzas impulsoras y también los responsables de la refinada brutalidad de los métodos de persecución. (ID.).

Ez zitzaion Itali'n ere Elizari zigorrik peitu. Zoritxarrez ez Laktantzio ez Eusebio ez zaizkigu Maximiano'ren agintepeko lurretaz mintzatzen.

Alatagutziz, egia dirudi, zigorraldi ontakoak dirala martiri ospetsu ugari. Ala, Ines 14 urteko neskatilla, Sebastian gudalburua ta Diokleziano'ren adiskidea, Felis, Adauko, Kepa..., Erroman. Eta, agian, Martzelino Aitasantua bera.

Beste martiri asko aipatzen dira Sarkaldeko eta Sorkaldeko Elizetan. Alatagutziz, martiririk geienak, ia danak, santu ezezagunak ditugu, aien izenik edestiak ez bait digu jaso.

Badakigu ziurki zigorraldi ontakoak izan zirala, Euplo sizilitarra, Bixente Zaragoza'ko diakono euskalduna, Ireneo gotzai iliritarra, eta Salonika'ko iru emakume kementsu: Irene, Agape, eta Kione. Antioki'n, Luzian, bertako •eskolaren» sortzaillea. Fenizi'n, Tiro'ko, Sidon'go eta Emesa'ko gotza iak. Palestina'n Gaza'ko gotzaia, eta Panfilo apaiza, •Zesarea'ko Elizaren apaingarririk bikaiñena, Eusebio'ren aipuz.

Ejito'n, Kepa Alexandri'ko gotzaia.

Izan ziran, esan dugun lez, naiz Dezio'ren denboran aiña ez, izan ziran baike, Ejito'n batez ere, fede-ukatzailleak, baiñan askoz eta askoz geiago martiriak. Zenbat?

Zigorraldia askoz gogorragoa izan zan Sortaldean Sarkaldean baiño. Bai kristaurik geien-geienak Sortaldekoak ziralako, eta bai egiazko zigortzailleak, Diokleziano'k eta Galerio'k, bereiziki an agintzen zutelako. Sarkaldean, Maximiano'k ez zuan ba kristauen aurka ainbesteko leiarik ipiñi eta Kostantzio Kloro'k ikusi dugun lez, elizak apurtzeaz landa, ez zuan deus besterik egin.

Alatagutziz, ziñopen zenbaki bat ematerik ez dugu: •Aplicado el calculo (de Eusebio acerca de Egipto) a las provincias de oriente con su densidad relativa de cristianos, resulta un total de varios miles de muertos- (Id.).

Idako oien aldean millaka eta millaka izan ziran •aitorleak», •confesores», ots naiz eriotzaraiño iritxi ez, espetxera jaurtitako kristauak; aietatik asko ta asko era gogorrean zigortuak. Eta, ugari, meatzetako lanetara botreak. Zenbat? Ez dakigu.

Baiñan badugu, ia kristau danak beren sinispenari zintzo eutsi ziotela esateko adigarri ziur bat: Galerio inperatorearen erabakia; laister erromatarrek arriturik jakinen zuten erabakia: zigorketak zearo uts egin zutelako, Galerio'k, kristauei betirako pakea eman ez izenpetutako erabakia; beste edozein erlijioaren jarraitzaileak bezala yare bizitzeko eskubide guztiak kristauei ematen zizkien erabakia.

izan zirala, diosku Galerio'k bere erabaki artan, sinispenik ukatu gabe tinko iraun zuten kristauak.

lateraz, •asko- baiño askoz geiago da. •Asko-, •pluri» esaten da lateraz. •Plurimi»k, euskeraz, •geien-geienak» esan nai du. Orregaitik ain zuzen,»eum plurimi in proposito perseverarent», •geien-geienak beren sinispidean jarraitzen zutelako», ematen zuala, dio, erabaki arrigarri ura.

Baiña Galerio'ren izkeran -plurimi» orrek, •geien-geienak baiño geiago •ia danak» esan nai du inñolaz ere, ots, kristauak, -moraliter omnes» edo •esate baterako danak», zintzo jokatu zutela Kristo'ren bidetik; bestela ez bait cia ulertzen, kristautasuna ain gorroto zuan Galerio aren jardunkera.

Galerio'k ori, eriotzaren alboan kristauen Jainkoaganako bildurrak eraginda egin zuala, esaten dutenak badira.

Ori egia ba'litz, •plurimi» ez baiña super plurimi» •asko-ta-asko baiño geiago- izan bearke zuten kristau zintzoak... eta txit ugari martiriak, eta arrigarria martiri auen kemena, Galerio bezalako inperatore batek aien tinkotasunean kristauen Jainkoaren aunditasuna usmatu aal izateko. Ez bait orrelakorik egingo, kristau zintzoak Kristo ukatu zutenak baiño lilluragarriki geiago izan ez

Zigorraldi ontan ipintzen dute batzuek, Luzi neskatil sizilitarraren erailketa; eta zigorraldi au baiño lentxeagokoa dala diosku Maurizio gudalburuaren eta bere lejiu osoaren erailketa, V mendearen lenengo erdian Lyon'go gotzai izan zan Eukerio'k: •Tebea» zeritzan lejiu osoaren erailketa, sasijainkoen gurketara makurtu nai izan ez zualako. Suizi'n izan omen ziran eraillak danak, 286'garren urtearen inguruan. Diokleziano'ren jazardia asi baiño askoz leenago beraz.

Baiñan berak ez beste inñork ez digu erailketa ortaz itzegiten, eta Eliza pakean zegoan garaiean orrelako gauza aundirik gertatu ba'zan, eskier izango genduan gertakizun aren apua edestilari guztien idazkietan.

Bestalde, ez da sinistekoa geienetan bost eta sei millatik gora gudari izaten zituan lejiu bat, garai artan osoki kristau izatea.

305'ean utzi zuten agintaritza Diokleziano'k eta Maximiano'k, naiz gogo txarrez onek. Diokleziano, Dalmazi'n eraikia zuan jauregi arras bikain batera gorde zan, eta an igaro zituan azkeneko urteak. Maximiano Itali'n gelditu zan, eta lanik asko eman bearra zan oraindik, ikusiko dugunez.

Sortaldean, Galerio biurtu zan •augustus», Diokleziano'ren •zesar» izan

zalako; Sarkaldean berriz Kostantzio Kloro izan zan •augustus. bera izan bait zan Maximiano'ren •zesar..

Galerio'k adiskide bat, Maximino Daia izendatu zuan bere •zesar• , eta Diokleziano'ren ondorengo lez, berak izendatu zion Kostantzio Kloro'ri ere •zesar• berria: berak adiskide zuan bat, au ere: Sebero izeneko guda burua.

Urrengo urtean il zan Kostantzio Kloro (306). Sebero'ri zegokion •augustutza». Baiña, gudarozteak, Galerio'k autatutako Sebero ari muzin eginda, Kostantzio Kloro'ren semea, I Kostantino, jaso zuan bere aitaren lekura, •augustus` egiñik.

Ez zitzaion Galerio'ri gustatu, eta, onek, Sebero izendatu zuan •augustus». Bazuan ordea Galietako lejiok •Augustus» egindako I Kostantino ura asarretuko zitzaiolaren bildurra-ta, sortu zitekean guda diplomaziaren bidez eragozi naiez, I Kostantino ura bera izendatu zuan Sebero'ren

Alperrik guzia, jakiña. Egiatzko •augustus•, Galietan, Kostantino gelditu bait zan. Sebero'k, Itali gorde zuan beretzat. Bi •augustu• beraz Sarkaldean: Sebero, eta I Kostantino.

Orrela, Diokleziano'k Erroma'ko inperatoreen aldaketa pakean egiteko asmatu zuan •augustus—zesar• joku ura, asarre eta borrokabide gertatu zan azkenean.

Zergak jaso zitualako, Sebero'ren aurka jeiki zan Erroma'ko uria, eta Majentzio, Maximiano'ren semea, jaso zuan inperatore. Majentzio'k berriz, bere aitari, Maximiano'ri deitu zion, ostera •augustus• izan zedin. Pozik bir-artu zuan onek ain gogoko zitzaion izen eder ura.

Ekin zien Sebero'k, baiñan borrokan garaitua eta an bertan illa izan zan; eta al zuan azkarren itzuli bear izan zuan Itali'tik Sebero'ri laguntzera etorritako Galerio'k. Seberio illik,berriro bere beste adiskide bat, Lizinio jarri nai izan zuan Galerio'k Sarkaldean •augustus• (308).

Urte ortan onela zegoan Erroma'ko inperio-lur edatsua:

Balkan-Mendien Sortaldean eta Asi Txiki'n Galerio'k agintzen zuan. Siri'n eta Ejito'n Maximino Daia'k. Galietan, I Kostantino'k, eta Itali'n España'n eta Afrika'n Majentzio'k. Galerio'k Sarkaldeko •augustus• aukeratu-berria zuan Lizinio'k... al zuan tokian.

Sortaldean kristau-zigorketan ziarduten errabi guztiz Galieno'k eta Maximino Daia'k. Sarkaldean zearo pakean aurkitzen zan Eliza, ez Kostantino'k, ez Sebero'k, ez Majentzio'k, ez Lizinio'k ez bait zuten kristauen aurka deus egin.

Kostantino'k, seguruaski ordurako kristautasunaren miresle zalako. Majentzio'k bera kristauen arerio ez zalako. Beste biek, bearbada ortarako betarik ere izan ez zutelako.

Sarkaldeko lau inperatore aiek ordea ez zuten beren artean pakerik izan.

Esanberri dugun lez, 306'ean garaitu zuan Majentzio'k Sebero, eta Galerio Itali'tik uxatu. Maximiano bere aitaren itzalak, asko lagundu zion ortarako. Baiñan, bereala, agintaritzza guztia beretzat bakarrik artu naiean

bere aurka azpilanean asi zitzaion aita maltzur ura.

Asarretu zan semea, Majentzio, eta Galietara Kostantino'ren albora iges egin zuan aitak, Maximiano'k.

Suiña zuan Maximiano'k Kostantino, au, Fausta izeneko aren alaba batekin ezkondurik zegoalako. Baiña ez zan Majentzio suin onekin zuzen ibilli. Suiña barbaritarren aurka borroka-lekura joan zalaz baliaturik, aren erailketa gertutzen asi bait zan. Ez zuan bere asmoak aurrera ateratzeko astirik izan. Bere burua il zuan ba berealaxe.

Bere bizitza naasiz aspertuta? Edota, esan izan dan bezala, bere alaba Fausta Kostantino'ren emazteak, Kostantino bere senarraren aurka bere aita makur arek zerabilzkian asmo txarrak jakin zitualako?

Majentzio'rentzat ere ez zan pakerik izan. 308'an, aurka jeiki bait zitzaion Domizio Alexander Afrika'ko jaurlea, bere burua «augustus» izendatuz.

Bi urte geroago berriz, 310'an España kendu zion Kostantino'k.

Majentzio'k, bereganatu zuan Afrika, Domizio Alexander menderatuz (311), baiña urrengo urtean, (312) bera izan zan Milbio-Zubi'ko borrokaldian Kostantino'k menderatua. Eta an, borroka artan, il zan.

Garaillea Kostantino izan zalako, kristauen etsai bezala aurkeztua izan da Majentzio edesti liburutetan. Ori ordea ez da egia. Majentzio •izan bait zan kristau-zigorketa bere aginte-lurretan bertanbera utzi zuana.: •He dropped the persecution of the Christians• (Enc.Brit.).

Oiek danak ordea, Sarkaldeko istilluak ditugu. Itzuli gaitezen Sortaldera, Erromatar-inperioaren erdirik oparoenera.

An Galerio utzi genduan «augustus» eta bere izenean Maximino Daia Ejito'ko •zesar».

Esan dugu biak jarraitu zutela eliza kupidarik gabe zigortzen. •La manera de proceder contra los cristianos, sobre todo tal como la practicaba Maximino Daia, era vivamente censurada por algunos paganos» (Dedin).

Alare, izan zuan pake-unetxo bat Ejito'ko Elizak, Maximino Daia'ren aldetik. Asarretu egin bait zan au, bera baztarrean utziz Galerio'k Sarkaldeko •Augustus» Lizinio izendatu zuanean. Eten zuan kristau-erailketa, ta askatu zituan meatzetara epaituak.

Baiñan ez zuan zorionak kristauentzat epe luzeegirik iraun, berealaxe asi bait zan Maximino Daia berriz ere lengo bide ber-beretik, lurra jota zeuden sasijainkoen jauretxeak bir-eraikitzeke aginduz, eta sasijainko aien gurketara jendea beartuz, eta gurketa ura nola egin erakusteko xeetasun guztiak emanaz.

Urbil zan ordea pake-aroaren egunsentia.

310'aren eta 311'ren arteko neguan gaixo jausi zan Galerio. Oiñazeartearen, urduritu-edo zitzaion dirudianez kontzientzia, bai bait zekian gaiñera kristauek bere gaixotasun mintsu ura egiazko Jainko bakarraren

zigorra zala esaten ari zirala.

Ta lege bat eman zuan, goraxeago aztertu dugun legea, kristauen aurkako zigorketa ororen amaia aginduz. Lau inperatoreen izenean eman zuan lege ura. Pozik artu zuten Sarkaldeko biek. Ejito'ko Maximino Daia'k ere ez zuan artu beste irtenbiderik izan.

Laktantzio'ri eskerrak, oso-osoan iritxi zaigu Galerio'ren erabaki giroaldatzaille ez-asko-ezagun ura, baiñan bertan irakurri daitekeanetik, zergaitik emana izan zan ziur jakiterik ez dugu, ez daba kristaua, zerao jentilla baizik, lege aren bidez mintzatzen zaigun Galerio.

Gutxi-ezaguna dala, esan dugu, Galerio'ren 311'ko erabakia. Ez da beintzat Kostantino'k 313'an emandakoa bezain ezaguna. Zergaitik? Agian Kostantino beti kristauen adiskide izan zalako, Galerio berriz, beti, kristauen etsai zakar •jentil buru-beroa».

•It was probably he (Galerio) who persuaded Dioclecian to initiate the persecution of the Christians; he was and always remained a fanatical Pagan. (Enc. Brit.): •Bera izan zan seguruaski Diokleziano kristauak zigortzera bultzatu zuana; jentil buru-beroa izan bait zan, eta ala jarraitu bait zuan beti-.

Baiña izugarri garrantzi aundikoa da •fanatikal pagan- ark emandako erabakiaren mamia.

- Sarrera lez, inperatoreak beti •laterriaren pakerako eta onerako», •pro reipublicae commodis atque utilitate», lege eta •Erroma'ko oitura santuak» .sanctam disciplinam romanam» zaintzen eta kristauak lege ta oitura oietara • zitezen», •ad bonas mentes redirent», jardun izan dirala, diosku.

- Kristauak ordea, benetan iraultzalariak izan omen dira, gurasoen oituretatik alde egiñez, eta berentzako lege berriak sortuz.

- Kristautasunari •arras iñozokeri aundia• esaten dio: •tanta stultitia».

- Zigorketak ordea ez omen dira kristaurik geienak menderatzeko gai izan. Auetatik asko, erailak izan omen dira, eta beste batzuk naas-maas zurrunbilloturik gelditu omen dira.

- Guzti orren ondorio, ta kristauak jainko zarrei •diis cultum ac religionem debitam exhibere» •gurketa eta zor zaien eraspena eman» nai ez dietelako, erlijioaren barrutia anarki bihurturik utzi omen dute.

- Egoera makur ori zuzentzeko, yare uzten omen dute 4 inperatoreek ostera kristauak Erroman izatea, eta kristau oiek beren erlijiozko billerak egin aal izatea, erriko-pakearen aurka — kristauak ezer ez egiteko baldintzaren truke.: •ut denuo sint christiani et conventicula sua componat ita ut ne quid contra disciplinam agant».

- Probintzietako Jaurleei, emango omen zaizkie lege ori betetzeko bearrezkoak izan dezaketen xeetasunak.

- •Eskeintzen zaien onberatasunaren truke., Kristauei •beren Jainkoari inperatorearen alde eta Laterriaren alde otoi-egiteko aginduz., amaitzen da Galerio'ren erabaki mardul au: •Unde juxta hanc indulgentiam nostram debebunt deum suum orare pro salute nostra et reipublicae..

- A! Ez da Galerio bere buruaren goratzarrea egiteaz aztutzen:

»promptissimam nostram indulgentiam», bere, -berezko biotzberatasuna» erabilli omen du kristauen alde erabaki au emateko; ta bere •errukitasun xamurrari» so-egiñez, eta .gizakume orori barkapena eskeintzeko betikoa izan duan oiturari begira- jardun dala bait diosku, kristauen alde alako lege bat izenpetu duanean.

Orrela mintzaten zan eriotzako orduan, IV mendearen asierako sarraski izugarri aren errudunik aundiena!

•Fanatical pagan» batek nola kristauen Jainkoaren laguntza eskatu zezakean? Oztu bide zion bere gaixotasun mingarri arek fanatikeriaren berotasuna. Bestalde, ain jainkolario ziran erromatarrek, eta erromatarra zan Galerio, ez gaiñera iñozoa, nola ez kristauen aurkako ain zigorketa ikaragarri guztiak garaille gaintzeko gai zan Jainko kristau aren onespenik beretzako irabazi nai ez?

•El edicto de Galerio fue un documento de altísimo alcance; con él mas alto representante del poder romano revocaba una política hostil al cristianismo que habla tenido validez práctica durante mas de doscientos años» (Dedin).

Aundia izan zan Elizaren alaitasuna espetxeratuak eta meatzetako lanetara jaurtiak nola yare itzultzen ziran ikustean. Oraindik zutik jarraitzen zuten elizak, fedez bir-bizkortutako kristauez bete zirala, diosku Eusebio'k, eta jentillek beraiek ere erdikide zirala kristauen poztasunean. Bildurrez sasijainkoen gurketara jausi ziran kristau argalek berriz, espetxeetatik, meatzetatik eta erbestetik yaretutako •aitorleen- laguntzarekin Elizaren barkapena eskatzen zutela damuturik.

Ez zitzairen arrazoirik peitzen: -Desde este momento se libraban los cristianos de la torturante inseguridad jurídica de los tiempos pasados; por primera vez los reconocía expresamente un edicto imperial; su fe dejaba de ser »supersticio» o •religio illicita- y se la equiparaba a los demás cultos por tolerancia expresada en el derecho del imperio. Esto representaba objetiva y subjetivamente para los cristianos mucho mas que toda la libertad, por muy bella que fuera, de los llamados periodos de paz, que carecian de bases jurídicas» (Id.).

Izan zan ala ere, arrisku aundiko une bat Galerio oiñaze aundien artean urte artan bertan il zanez gero. Sortaldean inperatore nagusi gelditu zan Maximino Daia. Eta kristauen adiskide ez zan inperatore ari, pilloka iristen bait zitzaizkion, kristautasunaren aurka, aundiki jentillen salaketak.

Salaketa aietan, »Erroma'ren etsaia- zalako «novitatem» edo «berrikeri» gaizto ura, ots, kristautasuna, erabat ezabatzeko, eskatzen zioten.

Ez zuten eskari aiek erantzunik jaso. Gaiñera, bereala izan zan Maximino Daia borrokan Lizinio'k garaitua. Garaitza aren ondorioz, Kostantino eta Lizinio gelditu ziran Erroma'ko Inperio osoaren Jabe; eta bien artean

Agintaria Nagusi, Kostantino; Kostantzio Kloro eta Elene Deunaren semea; Kristauen adiskidea.

Esan dugu, Galerio'ren erabakia, bera il zanean, zera ezabatua izateko arriskuan aurkitu zala Maximino Daia'ren eskuetan. Ain errez ezabatua izateko arriskuak ordea, ez dio Galieno'ren erabaki ari, duan garrantzirik gutxitzen.

Arrisku ori beti bait zuan Erroma'ko inperatore baten erabakiak. Baita laister Kostantino'k emango duanak ere. Inperatore batek emana beste batek kendua izateko arriskua alegia. Orixe gertatu zitzaion ainzuzen Kostantino'k berealaxe emango zuan kristautasunaren aldeko lege ari berari: Beste inperatore batek — Juliano Fedeukatzialleak — ezereztu zuala, ostera berriro Eliza zigtzen asteko.

•**•

MARTIRIAK, ZENBAT? Doneztebe'k iriki zuan, Jerusalemgo landa batean, Elizaren edestiko ziñopa edo martirien zerrenda, oraindik ere itxi ez dan zerrenda, eta itxi ere sekulan itxiko ez dana, ez bait zaio beññere Elizari mundu ontan zigorrik peituko, eta Eliza baitan ez bait da beññere agortuko, eriotzaraiño zigorpean fedea aitortzeko, martiriei indar ematen dien zeru-goitiko graziaren iturri donea.

Elizaren edestian ordea aurreneko mendei esan oi zaie bereiziki «martirien aroa». 311'garren urtean Galerio'ren erabakiarekin amaitu zan martirien aro ori. Izen ori darama ain zuzen liburu onek ere: Martirien Denborako Eliza».

Eta, beti mireспен aundiz begiratu bait diote kristauak antziñako «martirien aro zaar ari, bearrezko gauza nuala iduritu zait, erromateko martiri aiak zenbat izan ote ziran jakiteko, al dedan guztia saiatzea.

azterketa geldi arduratsu baten ondorean, onako atalburu auetara iritxi naiz:
- Ziñopen nortasuna, beraien izaera, eta jardunkera, ederki emanik daude antziñako idazle kristauen liburuetan; ez ordea aien kopurua.

- Martirietaz lenen mintzatzen zaizkigun idazleak, — Jon Donea bere Apokalipsian aipatzeke I Klemente Aitasantua, Trajano inperatorea, eta Plinio Gaztea ditugu. Lenen mendekoa Klemente; bigarren mendearen asierakoak beste bi auk. Garai ortakoxeak, I eta II mendeen artekoak, ditugu erromateko bi edestilaririk aundienak ere: Tazito eta Suetonio.

Ez digute ordea martirien zenbakirik ematen. Neronen denboran «sail aundi bat» izan zirala Erroman ziñopa eraildako kristauak, diosku Klemente'k.

Erroma'tik at ere, laister izan ziran ugari ziñopak. Ugaritasun orrek kezkatuta idatzi bait zion, orrenbeste kristaurekin zer egin galdetuz, inperio-lurreko mugarik urrutienetako bat zan Bitini'ko jaurleak, Plinio Gazteak, Trajano inperatoreari. Eta ugaritasun orrek kezkatuta erantzun bait zion onek ari, kristau-eizean beintzat ez asteko aginduz.

- Ondorengo idazleek, II Mendearen lenen urteetako Iñazio

antiokiarrarengandik asita, Tazito edestilari ospatsua-zear, bai kristau bai jentil, ia idazle guztiak mintzatuko zaizkigu martirietaz; baiñan martiri oien kopururik ez digute aurkeztuko.

- Baditugu, martiri askoren eriotza kontatzen diguten •Acta- edo •Agiriak» ugari. Batzuk, — batez ere III mendean gero idatziak—, kondairatiko lorez sasi-apainduak, bai noski. Beste batzuk ordea bene-benetan egiazkoak. Badira gaiñera epaitegietako galde-erantzun eta jarduketaren agiri ofizialen kopiak diranak ere: kristauek isillean eta arreta aundiz lortutako agiri ofizialen kopiak.

- Eta beste aietan ere, kondairak antz-aldatutako •acta» aietan, ez uste, gutzia olertizko asmakizuna danik, gunea egiazko gertakizun bat izaten bait dute.

Ainzuzen, egiazko gune ori, gero kristauen maitasunak erantsi dion apainketa olertikoiaz bereiztea izango da, •bolandisten» erara, edestilarien lana.

- Aipa ditzagun egiazko edesti diran •acta-en artean Justin Donearenak eta Esmima'ko Polikarpo Donearenak, 167'aren inguruan idatziak biak; Lyon'go Martirienak eta frantziar-Biena'ko Martirienak, biak 177'an idatziak; eta Eszilum uri afrikarreko Martirienak (180).

Naiz irakurtzeko txit atsegiñak eta arras unkiagarriak izan, Martirien „Acta»k ez digute balio erromatekoan martiriak zenbat izan ziran jakiteko. Oso gutxi bait dira -Acta- oiek ematen dizkiguten izenak, Kristo'gaitik bizia galdu zuten kristau ugarien alboan. Egia da, ondo egia gaiñera, martiri geienak •gizandi ezezagunak» dirala ta izango dirala beti: •h&oes anónimos».

- Arrigarria da antziña artako kristau jakintsuak, martirien zenbakia zezat jakiteko ardura geiegi artu ez izatea, goiz piztu bait zan Eliza-baitan martirienganako eraspina. Pol ikarpo esmirnatarraren •Acta-etan, 170'garren urtean, agertzen zaigu aurreneko aldiz era nabarmenean martirien gorpuzkienganako eraspen ori. Era garbi nabarmenean: eraspen ori askoz leenago sortua zalako siñale ziurra.

- Martirienganako eraspen ortan dago oiñarriturik kristauek, naiz eriotzaraiño iritxi ez, fedea ez ukatzeagaitik zigorra jasan zutenenganako begirunea. •Confesores» esaten zieten orrelakoei, eta aundia zan Elizan •Aitorle aien itzala. Bazuten, •aitorle aiek, eta eraillak izan aurretik espetxean aurkitzen ziran martiriek, beren oiñazeen balio zerutiarraren truke, gotzaiari pekatariak agirian egin bear zuten penitentziaren barkapena eskatzeko eskubidea.

Errez ulertuko duzu jardunketa ori •Santuen Alkartasuna» deritzan dogma edo sinist-egian oiñarritua dala. Era berean ordea, Eliza zar arek martiriei zien eraspina erakusten digu.

Baiñan ori dana orrela izanik ere, kristau zar aiek ez ziran martirien kopurua guri emateaz arduratu. Eta martiri aiek zenbat izan ziran ez dugu sekulan jakingo. Asko ta asko izan zirala, bai. Baiñan zenbat izan ziran ez.

- Ikusi dugu, nola, Galerio'ren erabakiak, azken-zigorraldiko martirien

ugaritasuna aditzera ematen digun. Inperatore Nagusi ber-beraren agoz, zearo garaitua bezala agertzen zaigu Erroma'ko Inperio zarra, eta garaille bezala Eliza gazte berria. Eta Eliza garaitza ortaraiño jaso duan gudaroztea, martiri paketsuen gudaroztea.

Elizaren garaipen ori ordea, martirien odolak eresia izan da»: Pour payer le triomphe de l'Evangile ce sont les martyrs qui ont verse le prix du sang. (Daniel-Rops).

Sur le nombre de ces temoins qui sign&ent ainsi l'affinnation de leur foi, on ne peut que repeter que toute estimation est impossible. On a essaye de determiner des chiffres en prenant pour base celui de la population de l'Empire cette epoque (entre 80 et 100 millions d'habitants) et en tkhant d'etablir des proportions. Mais on ne sait pas exactement quel etait le rapport entre les chretiens et la population, rapport extremement variable selon les provinces et bien plus eleve en Orient qu'en Occident. (Id.).

Sinispena orrela aitortu zuen martirien kopuruari-buruz, ori jakiteko saiaketa guztiak alperrikakoak dirala esan-da-bir-esan besterik ezin egin dezakegu. Orduango Inperioaren jendetza (80'tik 100 milloira biztanle) kontuan artuz, eta jendetza orrekin kristauen multzoa kidatuz, zenbaki ziur bat idoro nai izan da. Baiñan ezezaguna zaigu Inperioko jendetzaren eta kristauen artean zaitekean aria, ots, proportzioa, ziurki arras ezberdiña gaiñera probintzi batetik bestera, eta, kristauen alde mardulagoa Sortaldean Sarkaldean

Orregaitik, ametsetan ibiltzea da martirien •zenbat»a jakin nai izatea: uTout denombrement est imposible. (Id.).

IZTEGIA

Aalmena, almena poder, capacidad.
Aapaldi -13rrafo, estrofa.
Abagune = oportunidad.
Abateme = Abadesa.
Abata = abad.
Aburu = opini6n.
Aditz = verbo.
Adiontasuna oportunidad.
Adiontsu afortunado.
Agian, bearbada
Aginmena, (agintze-mena) capacidad de mandar.
Aginte mando. Agintepean bajo el mandato.
Agoskatu, aoskatu, aboskatu - pronunciar.
Aierkunde Inclinacibn, rabia, inquina
Aintzinean aurean.
Aintzindari el que va por delante, precursor, jefe.
Ainzuzen precisamente.
Aldarrikatu oiukatu, proclamar.
Alderik-eza. Alderdirik-eza neutralidad.
Alegia = precisamente.
Almena poder, autoridad.
Antzerki obra teatral.
Antzoki^a sal6n teatral.
Antzerti teatro (en cuanto g6nero literario).
Antzirudi = retrato.
Aolku = consejo.
Apentza^a venganza.
Apezpiku = Obispo. Baiñan itz ori euskaldunen artean %9'k bakarrik erabiltzen dutelako, eta •piku• atzizkiak Ego-Euskalerrian oso zentzu zakarra dualako, Gotzai erabilliko dut nik beti.
Arameiera = Arameo, orduan Palestina'n juduen izkuntza.
Arau = norena. Araudi, conjunto de normas.
Ardangela = taberna.
Ardura affit. Como adverbio frecuentemente
Are geiago = rals aUn.
Arlo = campo.
Alu = Es un adjetivo de sentido despreciativo; v. gr. estUpido, tonto...
Ararteko intermediario.
Arrandi = alarde, bravata.
Arremanak = relaciones.
Arrenkura cuidado, pena, queja.
Arrunt^m comUn, ordinario.

Arteka = galeria, pasillo.
 Asaba Doneak = Santos Padres.
 Asaldatu Alborotar, incomodarse.
 Askitasun suficiencia.
 Astapen asiera, comienzo.
 Aste-une principio, momento del comienzo.
 At fuera de. Etxetik-at - fuera de *cas*.
 Ataka, ateka brecha. Ateka gaizto - embrollo, dificultad.
 Ats Deuna Gogo Deuna, Espiritu Santua.
 Aurreikusi denboraz aurretik ikusi. Prever.
 Auzi-gela Sala donde se dilucidan *los* pleitos.
 Azkurri = alimento.
 Azti **adivino**.
 Aztiatu **pronosticar**.
 Baietsi **aprobar**.
 Baiki = ciertamente.
 Baitipat - especialmente, sobre todo.
 Bakaldun monarka, errege bakarragintzaillea, rey absoluto.
 Bakalduneme reina absoluta.
 Bakalduntza = monarkia.
 Baldintza condición.
 Barbaria la región de los bkbaros.
 Barbaritarrak los bkbaros.
 Barreiatu, barreatu = esparcir, publicar
 Baretu amansar, apaciguar.
 Basamortu eremu, lekaro: desierto.
 Batza, batzar asociación, reunión de personas para algo.
 Bazkun asociación.
 Bearbada agian, qui4 tal vez.
 Beinbitarteko provisional.
 Belaunaldi generaci6n.
 Berekoia egoista, •muy de st misma.
 Ber-edatu extender o extenderse de nuevo.
 Ber-eraiki = reconstruir.
 Ber-eratu = disponer de nuevo, reformar.
 Ber-esan -decir de nuevo. Bir-esan = decir por segunda vez.
 Bidalia = ap6stol, enviado
 Bir-esan decir por segunda vez. Ber-esana decir de nuevo.
 Birgaztekunde = rejuvenecimiento.
 Bitarte bateko, bitarte baterako provisional.
 Bultzi **tren**.
 Buruñurduna = kaputxinoa.
 Dakus = ikusten du, lo ve.
 Dakust = ikusten dut. Lo veo

Dakusgu = ikusten dugu Lo vemos.
 Dakuskezuna lo que puedes ver.
 Dana dan dan-dana, dana-dana, totalmente.
 Daskaiot eskatzen diot
 Dedu = oore, honor.
 Deus = ezer. Algo.
 Dio, diot lo dice, lo digo.
 Diosku nos lo dice.
 Diru-uzta ganancia.
 Doakabe - desgraciado.
 Doan, duan - gratuitamente
 Doi-doi justamente.
 Doixtar alemaniar.
 Doixkera lengua alemana.
 Duan, doan de balde.
 Dukeme duquesa.
 Ebasle ladrán.
 Eberkera, (ebreo-era) - lengua hebrea. Edatu, zabaldu = extender.
 Edakera - desarrollo, manera de exponer algo.
 Edesti = historia.
 Egoskor tozudo. Dificil de ser convencido.
 Egitarau, egitamu programa, plan
 Eio = moler. Eiotzea la acciÓN de moler.
 Eleneḡa lengua griega.
 Elerti arte literario, literatura.
 Elizkid' artea comunidad eclesUstica. Elizkide - miembro de la Iglesia.
 Elizkidego cargo de miembro de la comunidad eclesial.
 Elizkidetza= comunidad eclesial, en abstracto.
 Emari^m fruto, don.
 Enda -raza.
 Eortzi enterrar.
 Epaille juez.
 Epaitu juzgar. Epai-Batza tribunal. Epai-Gela Sala del tribunal.
 Era, Kera^a manera, modo.
 Eralgi = cerner, gastar.
 Eragozpena impedirmento, obstkulo.
 Eraiki construir.
 Erail = matar, asesinar.
 Eraille -asesino.
 Erakunde instituciÓN. Erasoaldi, zigorraldi persecucin.
 Eratu = instituir, poner en forma.
 Erdirakoia centralista.
 Erdirakuntza, erdirakoikeri centralismo.
 Eremu basamortu, lekaro: desierto.

Ereserki himno.
 Eresi
 Erio-gela, Erio-labe = celda, homo mortales.
 Erljiokoi aficionado a la religi6n, devoto.
 Erkala demokrazia, (erri-aala).
 Ememin a punto de germinar.
 Emetu, ematu = espabilar.
 Erpiña la cumbre.
 Erretxindu irritarse.Erti- arte.
 Erretolika = retbrica.
 Erraldoi - gizandi, gigante.
 Erregelai - candidato a rey, principe heredero.
 Errege-naia -aspirante a rey.
 Erromatekoan - en los tiempos de Roma. Véase •Te».
 Erro ralz, causa.
 Errotu = enraizar, enraizarse.
Erti arte.
 Ertikera, erti-era estilo artistico.
 Ertzakoi (ertza-koi) extremista
 Eskax, exkax = poco, •pocamente».
 Eskier seguro. Eskierki con certeza.
 Eskutitz carta
 Euntari = centuri6n.
 Euntze-ola textil.
 Ezabatu aniquilar, convertir en nada.
 Ezagunmen capacidad de conocer.
 Ez-apaiza no-sacerdote, seglar, laico.
 Ezetza negativa
 Ezilkortasun inmortalidad.
 Ezkillla la campana.
 Ezkongetza - celibato.
 Gaitzespen - condenaci6n.
 Gaizkatu (gaitzetik askatu) salvar.
 Galikeri = galicanismo, galicismo.
 Gantzuketa unci6n.
 Garai = tiempo. Como adjetivo, alto.
 Garaille, garaipena vencedor, victoria.
 Garaitza = victoria.
 Garbai = penitencia.
 Geiegizko excesivo.
 Geltokia estaci6n.
 Gentza paz.
 Gerkera, greziera = lengua griega.
 Gertakari - gertakizun, suceso.

Gidari, gidatu gula, guiar,
 Gizandi^s gigante
 Gizarte^s sociedad.
 Gizartizti =sociologia.
 Gogabide manera de pensar
 Gogoeta, gogoeta, gogapen - idea, pensamiento.
 Gogoia deseo, alma, espiritu. Gogoeta, gogaeta, gogapen = idea.
 Gogaikarri^s fastidioso.
 Gogapen idea.
 Gogo-eginkizun - tarea espiritual. Gogo-otoitza meditaci6n.
 Gogoeta = idea.
 Goiaipu = fama.
 Goigotzai arzobispo.
 Goigotzaitegi arzobispado.
 Gorespen = alta estima, alta valoraci6n, alabanza.
 Gotzaia, (gogo-zaia) el obispo. Gotzonizti angelologia, ciencia sobre thlgeles.
 Guda = guerra. Mas bien parece ser batalla.
 Gudarozte ejêrcito.
 Gudu guerra.
 Gurenda^a victoria.
 Gurtu^a adorar. Gurketa adoraci6n. Gurtzaille^a adorador.
 Gutxiespen baja valoraci6n.
 Gunea ncleo, centro.
 Gura nai. Gurari- veleidad.
 Guraso Doneak Santos Padres.
 Gutuna eskutitza, carta.
 Guztialdun= todopoderoso.
 Guztientasun = capacidad para ser de todos.
 Iagole, yagole^m protector.
 Iaiotasun, yayotasun destreza.
 Iardetsi = lortu, alcanzar.
 Iare libre, independiente.
 Ibilte andanza, viaje.
 Idazkidi archivo, conjunto de escrituras.
 Idazkia idatzitako gauza.
 Idazti libro.
 Idoro = encontrar.
 Igaroaldi transici6n, tiempo de paso.
 Igikunde movimiento.
 Iguingarri repugnante.
 Ikarra miedo.
 Ikerle investigador. Lur-ikerle explorador.
 Ikerpen inspecci6n.

Ikur significaci6n; simbolo, emblema, insignia, escudo.
 Ikurpen significaci6n.
 Ikuspen = visi6n, acto de ver, visita.
 Ikuzi purificar, lavar.
 Iltzer, Iltzear a punto de morir.
 Ingi -papel.
 Inperatoreme - emperatriz.
 Irarkola - imprenta.
 Irasi fundar.
 Irasle - fundador.
 Iren castrado, eunuco.
 Irmo firme.
 Iskamil, ixkamil, iskanbil barullo, alboroto.
 Itaun = pregunta.
 Itzondoko adjetivo.
Itun trato, pacto. Itun Berria Nuevo Testamento.
 Izakera, izaera - manera de ser.
 Izankor, izan daitekeana - capaz de existir.
 Izkelki dialecto.
 Izkeretan en lenguas.
 Izkillu - arma.
 Izpar - noticia.
 Izparringi (izpar-ingi) noticiario impreso, peri6dico.
 Iztegi = diccionario.
 Jaiera - devoci6n.
 Izorlari = fomicario, fomicaria.
 Izorratu - fomicar. De suyo, significa preñar.
 Jainkolario = aficionado a dioses. Tiene sentido despectivo.
 Jainkotiar divino.
 Jasan soportar, aguantar, llevar.
 Jasankor - soportable.
 Jardun - ejercitarse en.
 Jardunbide - m&odo, tctica.
 Jauretxe (jaurtze-etxe) templo.
 Jaurleri gobemante. Jaurларitza gobernu.
 Jaurle = gobemadore.
 Jaupa = sacrificio. Jaupari sacerdote.
 Jaurketa adoraci6n.
 Jaurtu -adorar.
 Jaurtze adoraci6n (en abstracto).
 Jopu -esclavo.
 Kalonje = canonigo.
 KARRIKA calle.
 Kasa = iniciativa, cuenta. Bere kasa = por su cuenta, a su manera.

Katigu, katibu **cautivo**
Kide = igual; colega, compañero.
Kidetu = igualar, igualarse.
Kondaira = leyenda.
Komondu compener, arreglar, arreglarse.
Konte = conde.
Konteme = condesa.
Korritua la cuenta corriente.
Kuria = Agintarien inguruko jende laguntzaillea, curia.
Landa = campo. Como adverbio, •fuera de-.
Landua = cultivado.
Latera latiña, latin.
Laterri **estado**.
Laterkide ciudadano.
Lau = llano.
Legedi= derecho, código, conjunto de leyes.
Legeerabilketa jurisprudencia.
Legizti Derecho, como ciencia
Lekaide monje.
Lekaidetxe monasterio masculino.
Lekaimetxe monasterio de monjas.
Lekuko testigu.
Lekukotasun testimonio.
Leñu = tribu.
Lepo egin degollar, matar, acabar con.
Lertu reventar. Ler-zori - a punto de reventar.
Lez como (en bizkaiera). En gipuzkera, bezala.
Lilluratu embelesar.
Liskar = pelea.
Lur-ikerle = explorador geografico.
Lurpedi -conjunto de subterranos.
Maiz = sarri, a menudo. Maizko frecuente.
Maizenik las mas de las veces.
Margo pintura.
Margo-lan pintura, cuadro.
Meatz mina.
Mendizaruntzakeria = ultramontanismo.
Maitekiro amablemente, amorosamente.
Matxinada = motin, sublevación.
Medar delgado.
Mende = siglo.
Min esqueje.
Minsor = impavido, insensible al dolor.
Mintzatu = hablar.

Minsor = sordo al dolor, impasible, quejas.
 Mintzo = habla, charla.
 Mota, moeta = clase, especie.
 Mugabetasun infinitud.
 Mundukoi = mundano.
 Naas-maas = revoltijo, confusiOn.
 Nabarmen = manifiesto, a la vista. No tiene porque tener el sentido despectivo que en algunos pueblos se le da. En este libro no lo tiene.
 Naroa = opulento.
 Narrazka = a rastras.
 Nasma = laberinto.
 Naspil, Naaspil = lio, enredo
 Nardaskatu, nardasketa = enredar, enredo.
 Nardagarri = repugnante.
 Oizkanpoko = desacostumbrado.
 Odolkari = sangriento.
 Okin, okiña = panadero, el panadero.
 Oldozkun = pensamiento.
 Oldozle = pensador.
 Oldoztu = pensar.
 Ondare = herencia.
 Onespena bendici6n.
 Oniritzia = aprobaciOn.
 Onturre = beneficio.
 Onuragarri loable, digno de honor.
 Oreka = equilibrio.
 Oro = todo, todos. Gizon oro = todo hombre.
 Oroi recordad.
 Orokor = que abarca todo, general. Barkapen orokorra absoluciOn general, Orritsu frondoso, de mucha hoja.
 Ortzi firmamento.
 Osakuntza = curaci6n.
 Osin = pozo, sima. Tambien, ortiga.
 Ospetsu = famoso.
 Oste = Parte trasera, detr.s.
 Osteketa, = protesta.
 Ostelari protestante.
 Ostera de nuevo.
 Ots = es decir. Como sustantivo, sonido, ruido.
 Otxan, diminutivo de otzan mansito.
 Ozen, = sonoro; como adverbio, sonoramente.
 Ozenki = sonoramente
 Peitu = faltar.
 Puska = pedazo

Puskatu = hacer pedazos.
 Sagara-ordua hora de consagración.
 Sagaratu = consagrar.
 Sail = grupo
 Sarkorra = penetrante.
 Seiurden - sexta parte.
 Senitarte, senide arte fraternidad
 Seta character.
 Setakeri = obstinación.
 Sinestun, sinesle ^a creyente
 Sinisle, sinistun = creyente.
 Sinispide fe, manera de creer, conjunto de cosas creidas.
 So-egin begiratu.
 Taju traza, aspecto.
 Tajutu = ordenar, organizar.
 Te sufijo que significa «tiempo de». Erromate, tiempo de los romanos.
 Tolestu doblar.
 Tsar Zar. Errusi'ko inperatorea.
 Tsareme, tsariñe zarina.
 Txanpon moneda menuda.
 Txantxa broma.
 Txautu = limpiar, gastar.
 Txindi dinero.
 Txiro = pobre.
 Txolin bobo, sin sustancia.
 Ugalde riada.
 Ugazaba, nagusia, jabea - amo, patrón.
 Ukan izan.
 Une, une oro momento, en todo momento.
 Une-uneko - instantaneo.
 Urbil = cerca. cercano.
 Urdanga - ramera. Literalmente, cerda.
 Urduritasun inquietud.
 Urrats paso.
 Urre-aro edad de oro.
 Usteontsu optimista.
 Utsezintasuna infalibilidad.
 Uzta = cosecha.
 Xalo =afable.
 Xautu = limpiar, gastar
 Xea menudo, sencillo.
 Xee ^m menudo. Jende xea gente sencilla.
 Yayo ^a habil.
 Yagole = protector.

Yayotasun = destreza
Yare = libre, suelto, independiente.
Zailki = difícilmente.
Zalantza = duda.
Zalaparta = barullo.
Zalpurdi (zaldi-gurdi) = coche de caballos.
Zama = carga.
Zamari = bestia de carga.
Zanpatu = aplastar.
Zegiten = egiten zuten, lo hacian.
Zekusan = ikusten zuan. Lo veia.
Zearo = totalmente.
Zemai = amenaza.
Zerrenda = lista.
Zerukoi = celeste.
Zesar = Agintari oro. Erromatekoan inperatoreei esaten zitzaien zesar.
Zigorraldi = erasoaldi: epoca de persecución
Zillegi **permitido**.
Ziñopa = martiri.
Zipotz, = desabrido testarudo.
Zipozkeria desabrimiento, testarudez de mal gusto.
Zitu =fruto.
Zurrunbillo remolino, agua revuelta.